

Jakintza-arloa: Itzulpengintza

# Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia

Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten  
arteko aldaera

Egilea: ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

Urtea: 2012

Zuzendaria: IBON URIBARRI ZENEKORTA

Unibertsitatea: UPV-EHU

ISBN: 978-84-8438-454-0

## Hitzaurrea

Euskaratik beste hainbat hizkuntzatarako literatur lanen itzulpena izan du aztergai tesi honek. Azken urteetan, euskaraz sorturiko gero eta literatur lan gehiago itzultzen dela ikusi ahal izan dugu. Hortaz, orain arte egin dena kontuan izatea garrantzitsua iruditzen zaigu etorkizunean zein bideri heldu jakiteko.

Itzulpena eta euskara uztartzea izan zen nire asmo nagusia ikertzen hasi berritan. Zer ikertu ordea? Nondik hasi? Euskararen moduko hizkuntza gutxituetan itzulpengintza berebiziko jardura izan ohi da. Hori horrela izanik, eremu zabala eskaintzen digute Itzulpen Ikasketek errealitatea aztertzeko. Euskarari loturiko azterketa gutxi zegoen egin itzulpengintzaren ikuspegitik lanari ekin nionean, eta eginiko ikerketa-lan gehienek euskararako itzulpena jorratzen zuten. Hortaz, kanporako bide hori aztertzea interesgarria izango zela pentsatu genuen.

Kultura jakin batean eta une jakin batean kokaturiko elementuak dira itzulpenak. Horregatik, kultur fenomeno modura aztertu ditugu itzulpenak tesi honetan. Kultur sisteman duten garrantziaz jabetuta, kulturak berak nola funtzionatzen duen ikusten laguntzeko baliagarria izan daiteke honako azterketa hau. Gogoan izan behar dugu gainera, jatorrizko testuak zein itzulpenak sortzen diren testuinguruak berak eragina izango duela testu horiengan. Hori horrela izanik, tesi honek zera erakutsi digu, euskararen egoera diglosikoak nolabait baldintzatzen duela euskarazko produkzioa eta euskaratiko itzulpena ere.

Euskal literatur lanen produkzioa handituz joan da azken urteetan eta horrekin batera kanporako bidea ere hartu du. Euskaratik itzuliriko lanek gure kultura eta literatur sistema ezagutzera emateko modua erraztu dute. Orain arte eginiko itzulpenek, ordea, ez dute eredu jakinik izan, ez dira proiektu jakin batetik abiatu. Unean uneko eskarien ondorio izan dira. Oraindik ere jardura berri samarra izan arren, azterketa sakona egitea erabaki dugu orain arteko produkzioa nola gauzatu den ongi ezagutzeko eta etorkizunean eman beharreko urratsek orain arte egin denaren erreferentzia izan dezaten.

Euskaratiko itzulpenaren inguruko ezagutza urria zela ikusi genuen ikerketari heldu genionean, eta kanporako produkzioa aztertzeko urrats zehatzik ez zela eman. Hori kontuan izanik, orain arteko itzulpenak ahalik eta ondoen jasotzea jarri genuen helburu: eginiko itzulpen guztiak bildu eta datuak sakon aztertuz jardueraren ikuspegi orokorra eskaintzea. Horretarako, ELI katalogoa osatu genuen, 2010 urtera arteko itzulpenak biltzen zituena. Gure asmoa, tresna horretan bilduriko datuak urtez urte berritzea da, euskaratiko itzulpenaren ikuspegi eguneratua izan dezagun, eta edonork kontsultatu ahal izango du katalogoa <http://www.ehu.es/ehg/eli/> helbidean.


Bestalde, zer itzuli den ikusteaz gain itzulpenen nolakotasuna ere aztertu nahi izan dugu, itzulpen moten inguruko ikerketa gutxi egin baita gurean oraintsu arte. Itzuli dena nola itzuli den aztertu dugu, zein bereizgarri dituzten itzulpen horiek, nork itzuli dituen eta zein hizkuntzatatik egin diren berridazketa lan

horiek. Hori horrela izanik, autoitzulpena, itzulpen alografoa zein kolaborazio lanak alderatu ditugu, baita zuzeneko eta zeharkako itzulpenak ere.

Tesi honen bitartez gure ekarpena egin nahi izan dugu euskal literaturaren itzulpenaren alorrean. Gurearen moduko gizarte eleaniztunetan itzulpenak duen garrantzia ikustarazteak errealitatea hobeto ezagutzen lagunduko digu. Hortaz, Itzulpen ikasketetan sakontzen jarraitzeko asmoa dugu. Gainera, gurearen moduko kulturen azterketak diziplina akademikoa bera indartzen lagun dezakete, hizkuntza nagusien arteko harremanetan baino errealitate konplexuagoak topa baitaitezke.

Elizabete Manterola, 2012

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

**EUSKAL LITERATURA BESTE  
HIZKUNTZA BATZUETARA ITZULIA.  
BERNARDO ATXAGAREN LANEN  
ITZULPEN MOTEN ARTEKO ALDERAKETA**

**ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA  
Tesi zuzendaria: IBON URIBARRI ZENEKORTA**

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroan







Gauza haundixek sortu leizke hizkuntza txikixetan ...  
sortzajleok leku danetan ari gara sortzen

Anari





# eskerrak

---

Lehenengo eta behin, eskerrak eman nahi nizkioke zuzendari eta bidelagun izan dudan Iboni. Hasiera-hasieratik gaia proposatu eta hariari tiraka hasi orduko lanerako grina erakutsi zidan eta ondoan izan dut uneoro. Lan hau egiteko bidezidor eta hari-mutur batetik besterako lotura bilatzen laguntzeagatik, unean uneko lanari zegozkion zuzenketak egiteagatik, lanerako etengabeko grina erakusteagatik, unibertsitatean bide egiten laguntzeagatik, nigan sinesteagatik, eskerrik asko, bihotzez.

Nire alboan lankide izan ditudanei ere eman nahi dizkiet eskerrak, modu batera edo bestera honako lan hau aberasteagatik. Raqueli, hasiera-hasieratik sinestu zenuen gai honen garrantzian eta zure babeska eskaini zenidan ordutik. Josu, Maria, Jose Miguel, Raquel, Naroa, Zuriñe, tesiari buruzko bilera-aurkezpenetan parte hartzeagatik eta lan hau hobetzen laguntzeagatik. Cristinari, emandako babesagatik eta hobetzeko gomendioengatik, eta baita azken orduko zuzenketagatik ere. Jakintza-arloko, saileko eta fakultateko gainerako lankideei ere bai, urte hauetan modu batera edo bestera laguntzeagatik.

Garbiñeri, tesiaren formatu guztia erregalatzeagatik eta testua txukun-txukun doitzeagatik. Tesilari ohiaren irakaspena behar-beharrezkoa, beti.

Tesiaren itxurari dagokionez, ere eskerrik asko, Maixol, CDaren funtzionamenduaren nondik norakoak azaltzeagatik; eskerrik asko, Maialen, CDari itxura polita ematen laguntzeagatik; Imanol, hiri ere eskerrak, liburuaren azala egiten laguntzeagatik.

Naroari eta Zuriñeri, zirriborroaren behin-behineko bertsioa irakurri eta zuen iradokizunak egiteagatik. Nik egin dut nirea, zuena da orain lekukoa. Hor izango nauzue laguntzeko prest.

Izas, zuri, zu gabe agian ez bainuen abentura hau hasiko. Lizentziatu osteko bideari ekiteko bultzada eman zenidan, eskerrik asko.

Eusko Jaurlaritzari ere eman nahi dizkiot eskerrak. Doktorego-aurreko laguntzari esker, 2006. urte amaieratik 2008. urtearen abendura arte beka horren laguntzaz buru-belarri heldu ahal izan nion lanari, nahiz eta ondoren irakaskuntza kontuak medio, bekari uko egin behar izan.

Ana Morenori eta Josebe Etxebarriari ere eskerrak eman nahi nizkieke klaseak prestatzeko materiala musutruk eta borondate onez utzi izanagatik. Zuen laguntzaz denbora gehiago eskaini ahal izan diot lan honi.

IXA taldeko Iñaki Alegriari eta Kepa Sarasolari Giza++ programa probatzeko aukera emateagatik eta azterketa testual posibleak planteatuz tesia hobetzeko emandako gomendioengatik.

Amaia Gabantxori, STXen bere ingeleserako itzulpena ikerketarako utzi izanagatik eta Mari Jose Olaziregiri, horren berri emateagatik.

Bernardo Atxagari ere eman nahiko nioke nire eskerrik beroena, postaz eginiko eskariak zintzotasunez erantzuteagatik eta bere etxean izandako solasaldi luze bezain interesgarria egiteko aukera emateagatik. Laguntzeko erakutsitako prestutasunagatik, esker mila.

Pau Joan Hernándezi ere esker bereziak eman nahi nizkieke, Gasteizera etorritako bidaia laburrean nirekin mintzatzeko denbora hartzeagatik eta bere itzultzaile esperientziari buruz emandako azalpenengatik.

Corpuseko liburuak eskuratzen lagundu didazuenok ere ez zaituztet ahaztu nahi, txoko bateko zein besteko liburu-dendak bixitatuz lan honetan ere jarri baituzue zuen hondar alea: Luix, Rebe, Lore, Garbi, Ainhoa eta Arkaitz, ama, aita eta Imanol.

Baita Arabako Campuseko liburutegiko langileei, Sancho el Sabioko langileei eta Koldo Mitxelenakoei ere bertako liburuen kontsulta errazteagatik.

Nire lanaren nondik norakoaz jarduteko aukera izan dudan plazetan topatutako jendearen gomendio, iruzkin eta oharrek ere aberastu egin dute lan hau. Beraz, eskerrak, baita ere, zuoi guztioi, erakutsitako arreta eta interesagatik.

Aitai ta amai, zuen alaba egoskor honen gorabeherak gertutik bizi behar izan dituzuelako. Zuen pazientzia, maitasuna, ulermena, denak ditut beharrezko. Eskerrik asko.

Garbi eta Imanoli, etxeko gaxtena izanagatik beti hor zaudetelako, behar deten guztitan, behar deteneako. Zuen pareko irakasleik ez det topatu bizitzan!

Familiko guztiri re, eskerrik asko hor izateagatik, eta bizitza disfrutatzeke dala erakusteagatik.

Behar izan detenetan aldamenen hor izan zeatenoi, Maialen, Eneko, Idu, Beñat eta gainontzekoi, kuadrilako, lagun, inguruko, ez hain inguruko eta danai eskerrik asko, bene-benetan. Tesia zer moduz dihoan galdetzeagatik, ea zenbat falta zaidan, zertaz ari naizen lanean, zer moduz daramadan, zer moduz nagoen... eskerrik asko bihotzez.

Zuek denok gabe ez nintzatekeen honaino iritsiko.

# aurkibide nagusia

EUSKAL LITERATURA BESTE HIZKUNTZA BATZUETARA ITZULIA. ....	1
BERNARDO ATXAGAREN LANEN ITZULPEN MOTEN ARTEKO ALDERAKETA.1	
1 SARRERA.....	2
1.1 Sarrera.....	2
2 KULTUR TESTUINGURUA .....	10
2.1 Euskararen egoera soziolinguistikoa.....	11
2.2 Elebitasun diglosikoa.....	13
2.3 Hizkuntza gutxituak .....	19
2.3.1 Definizioa .....	19
2.3.2 Hizkuntza gutxituak eta itzulpena .....	23
2.4 Euskal literatura .....	32
2.4.1 Definizioa .....	32
2.4.2 Euskal literaturaren eta itzulpenaren historia .....	35
3 ALDERDI TEORIKOA.....	48
3.1 Itzulpen ikasketa deskribatzaileak .....	48
3.1.1 Cultural turn .....	55
3.2 Euskal itzulpengintzaren ikerketa .....	59
3.3 Autoitzulpengintza .....	65
3.3.1 Autoitzulpenaren ikerketa eta bere arazoak .....	67
3.3.2 Sorkuntza prozesua .....	71
3.3.3 Bi hizkuntzen arteko harremana.....	75
3.3.4 Autoitzulpenaren arrazoiak.....	75
3.3.5 Jatorrizkotasuna.....	80
3.4 Kolaborazioa.....	82
3.4.1 Kolaborazioa eta bakarkako itzulpenaren arteko aldeak .....	83
3.4.2 Kolaborazio motak eta mailaketa .....	84
3.5 Zeharkako itzulpena .....	90
3.5.1 Terminologia .....	92
3.5.2 Zeharkako itzulpenaren jardura eta ikerketa .....	94
3.5.3 Zeharkako itzulpenerako arrazoiak .....	96
4 METODOLOGIA .....	100
4.1 Katalogotik corpusera.....	100

4.2	Corpusen erabilera .....	106
4.2.1	Corpusen erabilera: noiz eta nola hasi zen .....	106
4.2.2	Corpusen tipologia .....	108
4.2.3	Euskarazko corpusak .....	109
4.2.4	Corpusak nolako izan behar duen .....	111
4.2.5	Corpusak osatzea .....	115
4.2.6	Corpusen ustiaketa .....	116
<b>5</b>	<b>KATALOGOA .....</b>	<b>120</b>
5.1	Katalogoaren osaketa .....	120
5.2	Azterketa kronologikoa .....	130
5.3	Autore bakoitzaren jatorrizko lan kopurua .....	134
5.4	Autoreak xede izenburuen arabera .....	136
5.5	Autoreak xede hizkuntza kopuruaren arabera .....	138
5.6	Izenburuak .....	139
5.7	Itzultzaileak .....	140
5.8	Generoak .....	143
5.9	Hizkuntzak .....	145
5.10	Bi fenomeno berezi .....	150
5.10.1	Autoitzulpena .....	150
5.10.2	Zeharkako itzulpena .....	152
5.11	Ondorioak .....	153
<b>6</b>	<b>KATALOGO OROKORRETIK CORPUSERA .....</b>	<b>156</b>
6.1	Katalogotik corpuserako urratsak .....	156
6.2	Bernardo Atxaga .....	158
6.3	Lehen corpusa .....	160
6.3.1	Peritestuek diotena datu zehatzetan .....	172
6.4	Behin betiko corpusa .....	185
<b>7</b>	<b>CORPUSAREN DESKRIBAPENA .....</b>	<b>190</b>
7.1	Behin betiko corpusaren ikuspegi orokorra .....	191
7.2	Peritestuen liburuz liburuko azterketa .....	197
7.2.1	Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian (1984) .....	197
7.2.2	Sugeak txoriari begiratzen dionean (1984) .....	199
7.2.3	Bi anai (1985) .....	201
7.2.4	Obabakoak (1988) .....	203
7.2.5	Behi euskaldun baten memoriak (1991) .....	206
7.2.6	Gizona bere bakardadean (1993) .....	207
7.2.7	Zeru horiek (1995) .....	209
7.2.8	Xolak badu lehoien berri (1995) .....	211
7.2.9	Xola eta basurdeak (1996) .....	212
7.2.10	Sara izeneko gizona (1996) .....	213
7.2.11	Bambuloren istorio bambulotarrak. Lehen urratsak (1998) .....	215
7.2.12	Soinujolearen semea (2003) .....	216
7.3	Argitaletxeen inguruko azterketa .....	217
7.3.1	Azterketa .....	217
7.3.2	Ondorioak .....	229

7.4	Itzultzaileen inguruko azterketa .....	230
7.4.1	Azterketa .....	230
7.4.2	Ondorioak .....	235
7.5	Behin behineko emaitza orokorra.....	236
7.6	Epitestuena azterketa.....	238
7.6.1	Azterketa .....	238
7.6.2	Ondorioak .....	250
<b>8</b>	<b>CORPUSA DIGITALIZATZEN.....</b>	<b>254</b>
8.1	Liburuak eskuratzea .....	254
8.2	Digitalizazioa .....	255
8.3	Wordsmith Tools 4.....	262
8.4	Giza++ programarekin proba .....	268
<b>9</b>	<b>AZTERKETA MAKROTESTUALA .....</b>	<b>272</b>
9.1	Izenburuen inguruko azterketa.....	273
9.1.1	Ondorioak.....	278
9.2	Liburuen egitura .....	279
9.2.1	Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian (1984).....	279
9.2.2	Sugeak txoriari begiratzen dionean (1984) .....	280
9.2.3	Bi anai (1985) .....	280
9.2.4	Obabakoak (1988) .....	284
9.2.5	Behi euskaldun baten memoriak (1991).....	292
9.2.6	Gizona bere bakardadean (1993) .....	297
9.2.7	Zeru horiek (1995) .....	297
9.2.8	Xolak badu lehoien berri (1995) .....	298
9.2.9	Xola eta basurdeak (1996) .....	298
9.2.10	Sara izeneko gizona (1996).....	298
9.2.11	Bambuloren istorio bambulotarrak. Lehen urratsak (1998) .	301
9.2.12	Soinujolearen semea (2003).....	305
9.2.13	Ondorioak .....	308
<b>10</b>	<b>AZTERKETA MIKROTESTUALA .....</b>	<b>312</b>
10.1	Deskribapen jarraia .....	313
10.1.1	Laginen bidezko azterketa orokorra. Lehenengo ondorioak	313
10.2	Azterketa espezifikoak .....	331
10.2.1	Maila pragmatikoa: izen propioak.....	331
10.2.2	Maila semantikoa: koloreen azterketa .....	450
10.2.3	Giza++ programarekin proba.....	502
10.3	Behin betiko itzulpen moten taula .....	505
<b>11</b>	<b>ONDORIO OROKORRAK .....</b>	<b>508</b>
	<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>518</b>
	<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>546</b>



# figuren aurkibidea

---

3-1 Figura. <i>Continuum</i> -a.....	87
3-2 Figura. Bernardo Atxaga eta Asun Garikanoren elkarlana irudikatzen duen kiribila .....	88
5-1 Figura. Torrealdairen katalogoaren itxura.....	123
5-2 Figura. Olaziregiren katalogoaren itxura .....	124
5-3 Figura. Katalogorean ikuspegi orokorra .....	129
5-4 Figura. ELI katalogoa on-line.....	130
5-5 Figura. Kronologia taula .....	134
5-6 Figura. Autoreak jatorrizko izenburuka .....	136
5-7 Figura. Autoreko izenburu kopurua .....	137
5-8 Figura. Itzulpenak generoka.....	144
5-9 Figura. Itzulpenak hizkuntzaka .....	146
5-10 Figura. Xede hizkuntzak multzoka .....	147
5-11 Figura. Gaztelaniaratzte itzulpen motak .....	151
5-12 Figura. Gainerako hizkuntzetarako itzulpen motak .....	152
6-1 Figura. Itzulpenen aitortza liburuetan .....	174
6-2 Figura. Itzulpenaren aitortza liburuaren azalean .....	175
6-3 Figura. Itzulpenaren aitortza lehen orrietan .....	175
6-4 Figura. Itzulpenaren aitortza kredituetan .....	176
6-5 Figura. Itzultzailearen izena non ageri den .....	176
6-6 Figura. Euskarazkoaren izena ageri ote den.....	176
6-7 Figura. Gaztelaniazkoaren izena ageri ote den.....	177
6-8 Figura. Jatorrizkoaren izena zein hizkuntzatan ageri den.....	177
6-9 Figura. Jatorrizkoa euskaraz idatzi zela aitortzea .....	178
6-10 Figura. Gaztelaniazko bertsioa erabili den agertzea .....	179
6-11 Figura. Gaztelaniazkoa bitarteko ala jatorrizko modura agertzen den .	179
6-12 Figura. Itzulpen prozesua nolakoa izan den argi ikus ote daitekeen ....	180



---

8-1 Figura. Wordsmith Toolsen Viewer and Aligner aplikazioaren irudia .....	263
8-2 Figura. Concorden, hitza bere kontestuan .....	265
8-3 Figura. Hitzak corpusean duen presentziaren laburpena .....	266
8-4 Figura. Key Wordsen emaitza I .....	266
8-5 Figura. Key Wordsen emaitza II.....	267
8-6 Figura. WordListen hitz zerrenda alfabetikoki ordenaturik .....	268
10-1 Figura. Lagin batek duen itxura .....	318
10-2 Figura. Gaztelaniazko laginetan identifikaturiko moldaketak itzulpen- prozeduren arabera.....	323
10-3 Figura. Koloreen taula. Datuak agerpen kopuruka .....	464
10-4 Figura. BELTZ concorden .....	467
10-5 Figura. Beltza xede hizkuntzetan.....	468
10-6 Figura. Zuria xede hizkuntzetan .....	477
10-7 Figura. GORRI concorden I .....	485
10-8 Figura. Gorria xede hizkuntzetan.....	485
10-9 Figura. GORRI concorden II .....	486
10-10 Figura. BERDE concorden .....	491
10-11 Figura. Berdea xede hizkuntzetan .....	492
10-12 Figura. Urdina xede hizkuntzetan .....	495
10-13 Figura. Urdina eraldaketa motak .....	496

# taulen aurkibidea

---

5-1 Taula. XX. mendean eginiko itzulpenak .....	131
5-2 Taula. Euskaratik eginiko itzulpenak mendez mende .....	133
5-3 Taula. Gehien itzuliriko liburuen zerrenda .....	139
5-4 Taula. Gehien itzuli duten itzultzaileen zerrenda .....	141
6-1 Taula. Lehenengo corpora: 1. corpora .....	162
6-2 Taula. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen kopurua hizkuntzaka .....	163
6-3 Taula. Bernardo Atxagaren liburuak itzulpen kopuruka .....	164
6-4 Taula. Bernardo Atxagaren liburuak generoka .....	165
6-5 Taula. Bernardo Atxagaren lanak eta euren itzulpenak kronologikoki ...	166
6-6 Taula. Behin betiko corpora: 2. corpora .....	187
7-1 Taula. Corpuseko bitestuak .....	191
7-2 Taula. Taula kronologikoa .....	194
7-3 Taula. Argitaletxeak .....	219
7-4 Taula. Itzultzaileak .....	231
7-5 Taula. Behin betiko corpora: liburuak diotena .....	237
7-6 Taula. Azterketa paratestualaren ondoren lorturiko datuak .....	251
8-1 Taula. Datuak liburuen arabera .....	257
8-2 Taula. Datuak hizkuntzaka .....	260
8-3 Taula. Corpuseko testu multzoak jatorrizko bakoitzeko .....	264
9-1 Taula. Liburuen izenburuak .....	274
9-2 Taula. <i>Bi anai</i> -ren egitura .....	281
9-3 Taula. <i>Historias de Obaba</i> -ren egitura .....	282
9-4 Taula. BL, STX eta BA argitaratze moduak .....	283
9-5 Taula. OBB egitura .....	288
9-6 Taula. BEBM egitura .....	293
9-7 Taula. SIG egitura .....	300
9-8 Taula. BLU egitura .....	302

---

9-9 Taula. SS egitura .....	306
9-10 Taula. Itzulpen moten taula azterketa makrotestualaren ostean .....	309
10-1 Taula. Euskarazko corpora zenbakitan .....	314
10-2 Taula. Laginak zenbakitan .....	315
10-3 Taula. Gehikuntza adibidea.....	319
10-4 Taula. Kenketa adibidea.....	319
10-5 Taula. Itzulpen sortailearen adibidea .....	320
10-6 Taula. 21. laginean ageri den IS2 adibidea .....	321
10-7 Taula. Bigarren laginaren adibide bat .....	321
10-8 Taula. 16. laginaren adibidea .....	323
10-9 Taula. 20. laginaren adibidea; katalanez moldaketa gutxi ikus daiteke	324
10-10 Taula. STX liburuari dagokion lagina.....	325
10-11 Taula. 32. laginaren adibidea .....	326
10-12 Taula. 13. laginaren adibidea .....	327
10-13 Taula. 24. laginaren adibidea: italieraz gehikuntza ageri da. ....	328
10-14 Taula. BL izenen taula .....	344
10-15 Taula. BL izenen agerpen taula.....	346
10-16 Taula. STX izenen taula .....	350
10-17 Taula. STX izenen agerpen taula .....	351
10-18 Taula. BA izenen taula .....	353
10-19 Taula. BA izenen agerpen taula .....	353
10-20 Taula. OBB izenen taula .....	357
10-21 Taula. OBB izenen agerpen taula.....	362
10-22 Taula. BEBM izenen taula .....	369
10-23 Taula. BEBM izenen agerpen taula .....	375
10-24 Taula. Hortzaundien itzulpena.....	379
10-25 Taula. GBB izenen taula .....	383
10-26 Taula. GBB izenen agerpen taula.....	389
10-27 Taula. ZH izenen taula .....	395
10-28 Taula. ZH izenen agerpen taula .....	399
10-29 Taula. XL izenen taula.....	403
10-30 Taula. XL izenen agerpen taula.....	404
10-31 Taula. XB izenen taula .....	405
10-32 Taula. XB izenen agerpen taula .....	405
10-33 Taula. SIG izenen taula .....	408
10-34 Taula. SIG izenen agerpen taula.....	413
10-35 Taula. BLU izenen taula.....	418
10-36 Taula. BLU izenen agerpen taula .....	423

---

10-37 Taula. SS izenen taula .....	429
10-38 Taula. SS izenen agerpen taula .....	437
10-39 Taula. Preciadores kolore sailkapena .....	457
10-40 Taula. Koloreen taula .....	458
10-41 Taula. Koloreak hizkuntzaka .....	461
10-42 Taula. BA liburuko koloreen zerrenda .....	464
10-43 Taula. Beltza lehenengo adibidea .....	466
10-44 Taula. Beltza bigarren adibidea .....	466
10-45 Taula. Beltza hirugarren adibidea.....	469
10-46 Taula. Beltza laugarren adibidea .....	470
10-47 Taula. Beltza bosgarren adibidea .....	470
10-48 Taula. Beltza seigarren adibidea .....	471
10-49 Taula. Beltza zazpigarren adibidea .....	471
10-50 Taula. Zuria lehenengo adibidea .....	472
10-51 Taula. Zuria bigarren adibidea.....	473
10-52 Taula. Zuria hirugarren adibidea .....	473
10-53 Taula. Zuria laugarren adibidea .....	474
10-54 Taula. Zuria bosgarren adibidea.....	475
10-55 Taula. Zuria seigarren adibidea .....	475
10-56 Taula. Zuria zazpigarren adibidea .....	476
10-57 Taula. Zuria zortzigarren adibidea .....	478
10-58 Taula. Zuria bederatzigarren adibidea .....	479
10-59 Taula. Zuria hamargarren adibidea .....	479
10-60 Taula. Zuria hamaikagarren adibidea.....	480
10-61 Taula. Zuria hamabigarren adibidea.....	480
10-62 Taula. Zuria hamairugarren adibidea .....	481
10-63 Taula. Zuria hamalaugarren adibidea .....	481
10-64 Taula. Gorria lehenengo adibidea .....	482
10-65 Taula. Gorria bigarren adibidea .....	483
10-66 Taula. Gorria hirugarren adibidea.....	483
10-67 Taula. Gorria laugarren adibidea .....	484
10-68 Taula. Gorria bosgarren adibidea .....	487
10-69 Taula. Gorria seigarren adibidea .....	488
10-70 Taula. Gorria zazpigarren adibidea .....	488
10-71 Taula. Gorria zortzigarren adibidea .....	489
10-72 Taula. Gorria bederatzigarren adibidea.....	489
10-73 Taula. Berdea lehenengo adibidea .....	490
10-74 Taula. Berdea bigarren adibidea .....	492

---

10-75 Taula. Berdea hirugarren adibidea.....	492
10-76 Taula. Berdea laugarren adibidea.....	493
10-77 Taula. Berdea bosgarren adibidea .....	494
10-78 Taula. Urdina lehenengo adibidea .....	496
10-79 Taula. Urdina bigarren adibidea.....	497
10-80 Taula. Urdina hirugarren adibidea .....	497
10-81 Taula. Urdina laugarren adibidea .....	498
10-82 Taula. SSn Giza++ekin eginiko azterketan ageri diren hizkuntza konbinaketa posibleak .....	503
10-83 Taula. Behin betiko itzulpen moten taula .....	505

# laburdurak

---

## LIBURUEN LABURDURAK

AA	Antonino Apreta
ABH	Asto bat hypodromoan
AJJ	Astakiloak jo eta jo
BA	Bi anai
BEBM	Behi euskaldun baten memoriak
BK	Bambulo. Krisia
BL	Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian
BLU	Bambulo. Lehen urratsak
BTP	Bambulo. Ternuako penak
CADBE	Chuck Aranberri dentista baten etxean
ETP	Etiopia
GA	Guillermoren azalpena
GBB	Gizona bere bakardadean
GL	Groenlandiako lezioa
JP	Jimmy Potxolo
LBBOB	Lezio berri bat ostrukari buruz
MG37	Markak. Gernika 1937
MHEH	Markonitar handien ekintza handiak
MM	Mundua eta Markoni
NAEK	Nikolasaren abenturak eta kalenturak
NJJ	Nire jaioterriko jendea
OBB	Obabakoak
RD	Ramuntxo detektibea

SIG	Sara izeneko gizona
SS	Soinujolearen semea
STX	Sugeak txoriari begiratzen dionean
TI	Txitoen istorioa
XA	Xola eta Angelito
XB	Xola eta basurdeak
XE	Xola ehizan
XL	Xolak badu lehoien berri
ZEF	Zazpi etxe Frantzian
ZH	Zeru horiek
ZR	Zeruak
6S	Sei soldadu
IBP	Itzultzaile bat Parisen
UCSLL	Un cheveu sur la langue

## **HIZKUNTZEN LABURDURAK**

alb	Albaniera
ale	Alemana
ara	Arabiera
ast	Asturiera
bul	Bulgaria
dan	Daniera
err	Errumaniera
esl	Esloveniera
esp	Esperantoa
eus	Euskara
fin	Finlandiera
fr	Frantsesa
gal	Galegoa
gae	Galesera
gazt	Gaztelania
gre	Grekeria
heb	Hebraiera
hun	Hungaria

---

ing	Ingelesa
it	Italiera
jap	Japoniera
kat	Katalana
kor	Koreera
kro	Kroaziera
ned	Nederlandera
nor	Norvegiera
pol	Poloniera
port	Portugesak
rus	Errusiera
sue	Suediera
tur	Turkiera
txe	Txekiera

### **ITZULPEN MOTEN LABURDURAK**

zuz	Itzulpen zuzena
zeh	Zeharkako itzulpena
auto	Autoitzulpena
bb	Autorea ez beste norbaitek eginiko itzulpena
kol	Autorea eta itzultzailearen arteko kolaborazioa
ED	Ez dakigu (zein itzulpen mota den)
Biak	Jatorrizko konpilatua (euskarazkoa eta gaztelaniazkoa)





1

# sarrera

## 1.1 SARRERA

Euskararen moduko hizkuntza gutxituetan itzulpengintza berebiziko jarduera izan ohi da. Jatorriz euskaraz egiten den sorkuntza-lana nahiko mugatua denez gero, ezin hizkuntza edo kultura beregaina izan eta beste hainbat hizkuntzatarara jo behar izaten da behar den materialaren edo ereduaren bila. Kanpokoak gurera ekarriz, euskal kultura aberasteko modua eskaintzen du itzulpenak. Hori horrela izanik, itzulpengintza egunerokoan guztiz beharrezko jarduera dugu: itzulpenik gabe ezingo genuke gaur egun daukagun euskarazko kultur eta gizarte sistematik izan.

Hizkuntza eta testu errealitate izateaz gain, kultur fenomeno ere badira itzulpenak. Alderdi kultural hori kontuan izanik gauzatu dugu hemen aurkezten dugun ikerlana. Itzulpenek kultur sisteman duten garrantziaz jabetuta, hortaz, kultura berak nola funtzionatzen duen ikusten laguntzeko baliagarria izango zaigu azterketa hau.

Literaturgintzari dagokionez, euskarara eginiko itzulpenek literatura ahul eta ia birjina indartzen eta normalizatzen lagundu dute. Duela ez hainbeste sorturiko euskara batua zabaltzeko tresna izan da eta literatur sistema biziberritzeko eta sustatzeko guztiz beharrezkoa.

Euskal kultur sistema heltze bidean jarririk, errepertorioa handituz doa egunez egun. Literatur sistema horretan eginiko lanen kalitatea ikusirik, kanporako bidea ere hartu du gure hizkuntzan eginiko jardunak. Sortzaile eta itzultzaileen lanak eman du bere fruitua eta sistema egonkor samarra daukagula esan genezake. Hortaz, euskarara eginiko itzulpenez gain euskaratik ere egin egiten dira itzulpenak egun. Euskaratik beste hainbat hizkuntzatarara eginiko itzulpenek gure kultura eta literatur sistema ezagutzera emateko modua erraztu dute.

Orain arte eginiko itzulpen horiek, ordea, ez dute eredu jakinik izan, ez dira proiektu jakin batetik abiatu. Unean uneko eskarien ondorio izan dira, errealtate ezberdinetatik abiaraziak. Nahiz eta jarduera berri samarra eta oraindik ere urria izan, azterketa sakona egitea garrantzitsua iruditzen zaigu, orain arteko produkzioa nola gauzatu den ongi ezagutzeko eta etorkizunean eman beharreko urratsek orain arte egin denaren erreferentzia garbia izan dezaten.

Itzulpenen azterketa garrantzitsua izan daiteke, bestalde, euskal literatur sistema bera deskribatzeko. Aurrerago ikusiko dugun moduan, euskal literatura zer den definitzea nahiko zaila suerta daiteke, literatur sistema bera konplexua delako; hizkuntza guztiz normalizatu gabea izanik, inguruko hizkuntza nagusiekiko nolabaiteko menpekotasunak guztiz baldintzatzen du. Konplexutasun hori itzulpenaren bahearen laguntzaz deskribatuz, beraz, sistema bera hobeto ezagutzeko aukera izango dugu.

Gure proiektua abian jarri aurretik euskara eta itzulpengintza uztartzen dituen lan bat baino gehiago topatu genuen, baina oso gutxik zuten euskara jatorrizko hizkuntzatzat. Azterketa bat edo beste egin da orain arteko itzulpen horien inguruan. Gaia ongi ezagutzen ez dela ikusirik eta kanporako produkzioa aztertzekeko urrats zehatzik ez dela eman ikusirik, orain arteko itzulpenak ahalik eta ondoen jasotzea jarri genuen helburu: eginiko itzulpen guztiak bildu eta datuak sakon aztertuz jardueraren ikuspegi orokorra eskaintzea.

Bestalde, euskal eremuan eginiko itzulpenaren inguruko azterketek oso gutxi landu dute itzulpen moten inguruko ikerketa. Gure lanaren helburu nagusietako bat itzuli dena nola itzuli den aztertzea izango da, zein bereizgarri izan dituzten itzulpen horiek, nork itzuli dituen eta zein hizkuntzatatik egin diren berridazketa lan horiek.

Aurrez aipatu dugun moduan, itzulpenak ez ditugu aztertuko testu soil modura, baizik eta kultura jakin batean eta une jakin batean kokaturiko elementu modura. "Translation can no longer be analysed in isolation, but (...) should be studied as part of a whole system of texts and the people who produce, support, propagate, oppose, censor them" (Lefevere, 1985: 237 in Hermans, 1999: 44).

Gurearen moduko kulturen azterketak, gainera, diziplina akademikoa bera indartzen lagundu dezakete. "In this age of globalization, 'lesser known languages' are particularly threatened, and translation and the study of

translation become of increasing importance. New studies on translation in smaller countries and new nations continue to inform theory” (Gentzler, 2001: 187). Hizkuntza nagusien arteko harremanak baino konplexuagoak dira gurearen moduko sistema eleaniztunetan eta diglosikoetan aurkitzen ditugunak. Herrialde bat = kultura bat eskematik haratago doa gure itzulpen eskema eta horrek eragina du, baita literatur tradizio ezak ere. Itzulpenak errealitate oso dinamikoak dira halako gizarteetan, aldaketa ugari izan delako bai politikoki eta bai sozialki. Touryk Israeleko egoerari buruz esanikoak, gureari ere aplikatu dakizkioke: “To be sure, the accelerated pace in which changes occurred in this particular system renders it most suitable precisely for tracing the dynamics of the concept of translation” (Toury, 1995: 113).

Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileetan xede kultura izan ohi da abiapuntua. Touryk dioen moduan, “[translations] are facts of the culture which hosts them” (Toury, 1995: 24). Ezin uka hori horrela denik, baina tesi honek erakutsiko duen moduan, itzulpenak ez dira soilik xede hizkuntzarenak, badute nolabaiteko loturarik jatorrizkoarekin ere. Euskaratik eginiko itzulpenak sarritan jatorrizko kulturatik abiarazten dira eta ez xede kulturatik. Beraz, patrozinoa jatorrizkoari guztiz loturik agertzen zaigu. Itzulpen horiek, gainera, jatorrizko kulturaren bertan literatur lan horien kanonizazioa sustatzen dute eta, hori horrela izanik, jatorrizko kultura ere bihurtzen da nolabait xede kultura ere. Gainera, euskara-gaztelania konbinazioaren kasuan jatorri-xede bereizketa hori garbi mantentzea ez da hain kontu erraza. Bestalde, xede kulturetan oso bazterreko fenomenoak dira euskal lanen itzulpenak eta horiek pizten duten interesa hutsaren hurrengoa da zenbaitetan. Itzulpenaren errealitatea botere egitura jakin batzuek baldintzatzen duten bezala, itzulpenaren azterketa ere antzeko botere egituren menpe dago. Beraz, xede kultura boteretsuek gure literatura “txikiari” arreta eskaintzea gertagaitza denez, horren zain egon gabe lehen urratsa egitera ausartu gara jatorrizko kulturatik. Lan honen atzetik etorri beharko lukete xede kulturetatik abiatutako azterketa sakonagoak.

Tesia hamar ataletan banatu dugu. Sarrerako lehen atal honen ondotik, kultur testuingurua izango dugu mintzagai bigarrean. Jatorrizko kultura hartu dugunez abiapuntu, berau deskribatzen ahaleginduko gara. Batetik, euskararen egungo egoera soziolinguistikoaren zertzelada nagusiak aurkeztuko ditugu, eta, jarraian, hizkuntza diglosiko eta gutxitu den heinean bere ezaugarriak eta egoera deskribatuko ditugu. Euskal literatura nozio konplexuak sortzen dituen arazoez mintzatuko gara ondoren, ez baita guztiz erraza definizio bakarra ematea izendapen horri. Amaitzeko, euskal literaturaren eta euskal itzulpengintzaren historia laburki azalduko ditugu.

Hirugarren atalean, alderdi teorikoa aurkeztuko dugu. Aurrez esan dugun moduan, gure lanaren abiapuntu teoriko-metodologikoa Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileen baitan dago eta metodologia horretan kokaturiko lana izaki, horretan sakontzen saiatuko gara, polisistemen teoriaren inguruko

zehaztapenak eskainiz. Bestalde, autoitzulpena, kolaborazioa eta zeharkako itzulpenaren nondik norakoen zertzeladak emango ditugu atal honetan eta bakoitzari buruzko ikerketa zertan den azalduko dugu.

Alderdi metodologikoa izango dugu mintzagai laugarren atalean. Lambertek eta van Gorpek planteaturiko metodologia deskribatzailea eredu harturik, katalogotik corpuserako bidea nola egin dugun zehaztuko dugu, eta azterketa makrostrukturaletik mikrostrukturalerako bidea nolakoa izan den deskribatuko dugu. Horretaz gain, testuez haratagoko informazioaren baliagarritasuna ere aintzakotzat hartu dugu. Bestalde, corpusen erabileran ere sakonduko dugu, beraien tipologia, nolakotasuna eta ustiaketak aztertuz, besteak beste.

Bosgarrenik, tesi honen lehen urratsa eta oinarria izan den katalogoa aurkeztuko dugu, euskaratik beste hainbat hizkuntzatarara itzuliriko lanez osatu duguna. Datu-bilketaren bitartez, euskaratik zer itzuli den jakin nahi izan dugu. Katalogoaren lehen itzulia 2006. urtean egin genuen, eta Ikasketa Aurreratuen Diploma lortzeko proiektuaren oinarri izan zen. Orduko hartan, 2005 arte eginiko itzulpenen datuak jaso eta aztertu genituen. Esku artean dugun lan honetan, ordura artekoa osatu dugu eta 2010. urtea jo dugu katalogoaren azken urteztat. Atal honetan, hortaz, datu-bilketan izandako zailtasunak aurkeztuko ditugu lehenbizi, eta katalogoaren deskribapena egin ondoren. Bilduriko informazioa xehe-xehe aztertuko dugu hainbat ikuspuntutatik, hala nola kronologia, autoreak, jatorrizko lanak, xede izenburuak, itzultzaileak, generoak eta hizkuntzak.

Euskara, hizkuntza gutxitua izateaz gain, hizkuntza diglosikoa ere bada. Nolabaiteko menpekotasuna bizi du gaztelaniarekiko Hegoaldean eta frantsesarekiko Iparraldean. Ezaugarri horrek eragina izango du itzulpenak bai euskarara eta bai euskaratik egiteko moduan. Lan honetan ikusiko dugun diren errealitate horren isla dira euskaratik gaztelaniara egiten diren autoitzulpenak, batetik, eta baita gaztelaniazko bertsiorekin bitartekaritza gainerako hizkuntzetara itzultzen denean ere.

Katalogoaren azterketatik eskaini dugun datu nagusia da itzulpen mota ezberdinak badaudela da, katalogoaren lehen itzuliak erakutsi zigun moduan. Hori horrela izanik, horiek aztertzea izan dugu xede hortik aurrera. Seigarren atalean, beraz, itzulpen mota ezberdinak aztertzeke asmoz katalogotik corpusera doan bidea egin dugu. Aipatu itzulpen moten erabilera horretan sakontzeko asmoz eta katalogoaren azterketak eskaintzen dizkigun datuez baliatuz Bernardo Atxaga hartuko dugu euskal literatura itzuliaren konplexutasuna bere osotasunean islatzen duen egile gisa. Bernardo Atxagaren lanekin aritu gara lanean hortik aurrera, hortaz, eta, atal honetan, behin betiko corpusera nola iritsi garen ikusiko dugu. Kasuan kasuko itzulpen mota identifikatu ostean, horiek liburuetan aitortzen ote diren ikusi dugu azterketa paratestual baten bitartez. Testuez haraindi, horiek argitaratzeko modua eta xede hizkuntzan itzulpena aurkezteko modua aztertuko ditugu,

gurearen moduko literatura diglosikoak ezagutzera nola ematen diren ikusteko.

Zazpigarren atalean, behin betiko corpusa deskribatuko dugu berau zehaztu ondoren. Corpusa zehaztu dugularik, corpuseko lanen itzulpen mota identifikatzea eta zehaztea izan dugu xede atal honetan. Horretarako, Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileetan ohi den moduan, testuetara iritsi aurreko faseari ekin diogu, paratestuak ikertzeari alegia. Lehenengo eta behin, peritestuen azterketa egin dugu liburuz liburu. Horiez gain, argitaletxeen eta itzultzaileen inguruko informazioa ere eskainiko dugu. Bigarrenik, epitestuen azterketa gauzatu dugu, aurrez lorturiko informazioa osatze aldera. Atalaren amaieran itzulpen moten inguruko behin-behineko taula aurkeztuko dugu.

Egungo joerei jarraiki, corpusaren azterketa horretarako egokiak diren teknologiak aplikatuz egin dugu; bai testuen parekatzea eta baita azterketa espezifikoa ere. Ahalik eta etekin handienak ateratzeko, oinarrikoa iruditzen zaigu halako tresnen erabilera. Zortzigarren atalean, honenbestez, corpuseko lanak digitalizatzeko prozesua nola egin dugun azalduko dugu. Corpusean 8 hizkuntza ezberdin bildu ditugularik, liburuak eskuratze prozesua ez da hasiera batean uste bezain erraza izan. Horren ondotik, testuen digitalizazioa bera nola egin dugun azalduko dugu, erabiliriko tresnak eta behar izan dugun epea kontuan izanik. Azkenik, corpusa ustiatzeko erabili dugun Wordsmith Tools programa aurkeztuko dugu.

Bederatzigarren atala azterketa makroestrukturalari eskainiko diogu. Bertan, testuen egitura nagusiari begiratu diogu lehendabizi; batetik, liburuen izenburuen inguruko azterketa eginez eta, bestetik, liburuen egitura aztertuz. Jatorrizkotik itzulpenetara egon diren aldeak identifikatu ditugu bertan, liburuak banaka-banaka aztertuz eta hizkuntzaka alderik ba ote den ikusiz.

Hamargarren atalean bi azterketa mikrotestual mota gauzatu ditugu. Batetik, corpusaren deskribapen jarraia eginez. Corpusa lagin aleatorioetan banatu ondoren, corpus osoaren %10 aztertu dugu. Azterketa honen bidez, ikuspegi orokor bat lortu nahi izan dugu, azterketa espezifikoa egin aurretik, itzulpen fenomeno nagusiak zeintzuk izan diren identifikatzeko asmoz. Bigarrenik, bi azterketa espezifikoa egin ditugu: lehenik eta behin, corpuseko testuetan agertu diren berezien inguruko azterketa, eta, bestetik, kolore hitzen itzulpenaren ingurukoa. Azterketa espezifikoa horien helburu nagusia itzulpen mota ezberdinek irtenbide ezberdinak ematen ote dituzten ikustea izan da.

Amaierako atala izango da hamaikagarrena. Bertan, ikerketa-lan honetatik ateratako ondorioak ezagutaraziko ditugu, hala nola Bernardo Atxagaren beste hizkuntza batzuetan nola aurkeztu den edo itzulpen moten arteko aldea zenbaterainokoa den, itzulpenak euskal sisteman betetzen duen rola zein den. Bestalde, etorkizunerako irekita geratzen diren bideak zeintzuk izan daitezkeen aurkeztuko dugu.

Tesi honen egitura ulertzeko Touryk aipatzen duen kiribilaren irudia izan behar dugu gogoan. Puntu batean hasiko gara eta aurrera egingo dugu, baina

---

atzera itzuliz, lotu gabe utzirikoei berriro eusteko, horien inguruko azalpenak gehitzeko. Atzera-aurrerako lana da ikertzailearena.

They [descriptive-explanatory investigations] also inform a vital link in the elaboration of translation theory itself, in the helical way outlined in Part One: from the most elementary kind of theoretical framework, equipped only to deal with what translation *can*, in principle, *involve*, through that which translation *does involve*, under varying circumstances, to the statement of what *it is likely to involve*, under one set of conditions or another. The latter represents a more elaborate form of a theory, and one which is bound to become more and more intricate with each subsequent study (Toury, 1995: 264-265).

Tesian aztertu nahi dugun errealitatearen testuingurua deskribatzetik abiatuko gara. Katalogazio lanak corpus murrizturako bidea erakutsi digu. Corpus horretako liburuen paratestuak aztertuko ditugu jarraian, eta makrostruktura ondoren. Azkenik, hainbat azterketa mikrotestuarekin osatuko dugu azterketa. Uneoro, aurreko fasean lorturiko emaitzak baieztatu edo osatzen joan gara, atzera-aurrerako bidea eginez.





**2**

# kultur testuingurua

---

Gurearen antzeko ikerketa lan bat egiteak kultur testuinguruaren aurkezpen labur bat eskatzen du. Gure ikergaiari dagokionez, gainera, testuinguruaren berezitasuna bera kokatzen da azterketaren oinarrian. Esku artean duguna ikerketa gaitasuna neurtzeko lana denez, beronen hartzaileak tribunala osatzen duten kideak dira. Kontuan izanik horietariko batzuk egoera ez dutela bertatik bertara ezagutuko edo euskal literaturaren itzulpenaren inguruko ezagutza azalekoa izango dutela, beharrezkoa iruditu zaigu kultur testuinguruari buruzko sarreratxo bat idaztea.

Lehenengo eta behin, euskararen egoera soziolinguistikoa izango dugu mintzagai. Bertan, Euskal Herrian, esparru geografikoan zein sozialean, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera nolakoak diren aurkeztuko dugu. Bigarrenik, diglosiaz arituko gara, eta euskararen egoera diglosikoak literaturan duen eraginaz mintzatuko gara. Hirugarrenik, hizkuntza gutxituen inguruan hitz egingo dugu; hizkuntza gutxitua nola defini daitekeen eztabaidatu eta, ondoren, hizkuntza gutxituek itzulpengintzaren eremuan zer nolako zailtasunak dituzten ikusiko dugu. Jarraian, euskal literatura izango dugu mintzagai. Euskal literatur sistemak autonomoki funtzionatzen ote duen ikusiko dugu, sistema independente eta beregaina ote den eztabaidatuz, eta, ondoren, literatura horren historiaz arituko gara labur-labur, ikuspegi orokorra emate aldera eta horretarako kontuan izango dugu itzulpenek literaturan izan duten eragina.

## 2.1 EUSKARAREN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Euskara ez da hizkuntza indoeuroparra eta, gaur egunera arte, ez da posible izan beste edozein hizkuntza edo hizkuntza familiarekin harremanik zehaztea. Bi hipotesi nagusi daude: lehenengoak euskara berebera bezalako hizkuntza kamitikoekin lotzen du, eta, bigarrenak, hizkuntza kaukasiarrekin. Bi horiez gain bada hirugarren bat ere, euskararen jatorria iberiarra dela dioena. Hala ere, lotura horiek ezin izan dira zehaztu, eta, beraz, argi dagoen bakarra da euskara ez dela hizkuntza indoeuroparren familiakoa. Gure aztergaia itzulpena izango denez, eta, beraz, hizkuntzen arteko komunikazioa, kontuan izan beharreko faktorea izango da hizkuntza tipologia, bereziki, irla-hizkuntza batetik abiatzen garenez. Itzulpenaren bitartez euskara inguruko hizkuntzekin harremanetan jartzean, hizkuntza horien gertutasuna kontuan izan beharko genuke. Katalanaren moduko hizkuntza batetik beste hizkuntza erromaniko edo indoeuropar batetara itzultzerakoan ez da hainbeste traba izango printzipioz. Euskararen kasuan, berriz, lotura gabezia horrek eragina izango duela pentsa daiteke.

Euskara Euskal Herriko zazpi lurraldeetan hitz egiten da. Hala ere, hizkuntzaren egoera oso ezberdina da lurralde bakoitzean. Euskal Herria administratiboki hiru eremutan banaturik dago. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen dute eta, Nafarroako Foru Erkidegoaren modura, Espainiaren barruan kokaturik dago. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa, berriz, Akitaniaren barruan kokaturik daude, Frantzia, baina ez dute aparteko departamenturik osatzen. Ofizialtasun maila ezberdina du hizkuntzak hiru eremuetan, eta eremu bakoitzaren barruan ere euskararen egoera ez da homogenea.

Euskal Autonomia Erkidegoan euskara ofiziala da, gaztelaniarekin batera. Nafarroa hirutan banaturik dago: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Lehenengo eremuan soilik da ofiziala euskara Nafarroan. Gainontzeko bietan, biztanleek euskara jakiteko eta erabiltzeko duten eskubidea soilik aitortzen da, maila ezberdinetan beti ere: administrazioarekiko harremanean edo hezkuntza mailan ageri dira bi eremuen arteko alderik nagusienak. Administrazioan, euskara jakitea merezimendu modura balora daiteke eremu mistoan eta lanpostu publikoetan euskaraz jakiteko beharra ere zehaztu daiteke, esaterako. Hezkuntzaren alorrean, eremu ez-euskaldunean A eta G ereduak eskaintzen dira oro har eta mistoan B eta D ereduak<sup>1</sup> ere eskura izango dituzte ikasleek. Iparraldeari dagokionez, berriz, euskarak ez du ofizialtasunik.

---

<sup>1</sup> Hona hemen ereduon tipologia: G eredu, ikasleek irakaskuntza gutzia gaztelaniaz jasotzen dute; A eredu, gaztelania dute hizkuntza nagusi eta euskara ikasgai modura soilik irakasten da; B eredu, ikasgaiak bi hizkuntzetan jasotzen dituzte, erdi eta erdi gutxi gorabehera; D eredu, berriz, euskara da hizkuntza nagusia eta gaztelania ikasgai modura soilik irakasten da.

Administratiboki banaturiko hiru eremu horien barruan ere, euskararen erabilpena ez dago modu homogeneo batean banatuta: zenbait eremutan, euskarak presentzia handia du; beste batzuetan, euskararen erabilera ez da hain zabala, eta, beste hainbatetan, ia hutsala da euskararen erabilera. Eremu geografikoaz gain gizartearen eremu ezberdinetan ere, edo komunikazio egoera ezberdinetan, euskararen erabilpena ez da homogeneoa.

Euskararen ezagutza eta erabilera ere ezberdinak dira lurralde osoan zehar. Eusko Jaurlaritzak eginiko mapa soziolinguistikoaren arabera (EUSTAT, 2009)<sup>2</sup>, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %37,5 elebiduna da, hau da, euskaraz zein gaztelaniaz ondo hitz egiten daki; %17,3 elebidun hartzailea da, hau da, euskara ongi ulertzeko gai da, nahiz eta ongi hitz egin ez; eta, azkenik, biztanleriaren %45,2 erdaldun elebakarra da, hots, ez da euskaraz hitz egiteko ez ulertzeko gai. Aurrez aipatu dugun moduan, datuak heterogeneoak dira eremu geografiko batean zein bestean, eta, lurraldeka aztertuz gero, zera ikus daiteke: Gipuzkoan biztanleriaren erdiak baino gehiagok dakiela euskara, Bizkaian hirutik batek eta Araban lautik batek. Herrialde bakoitzaren barruan ere banaketa hori ez da homogeneoa, ezta komunikazio eremu ezberdinak aintzat hartuz gero ere.

16 urtetik gorako biztanleei dagokienez, Euskal Autonomi Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean 2.589.600 pertsona daude guztira. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan elebidunen kopurua %30,1ekoa da, elebidun hartzaileena %18,3koa eta erdaldun elebakarrek %51,5 osatzen dute. Nafarroan, elebidun kopurua murriztagoa da, biztanlegoaren %11,1, eta elebidun hartzaileek %7,6 osatzen dute. Nafarren %81,3k ez daki euskaraz. Iparraldean, berriz, elebidunek biztanleriaren %22,5 osatzen dute, elebidun hartzaileek %8,6 eta erdaldun elebakarrek %68,9. Gaur egun ez dago euskaldun elebakarik.

Elebidun kopuruak zein elebidun hartzaile kopuruak gora egin du azken 25 urteetan. Lehenengoek, gizartearen %22 osatzen zuten 1981ean eta datu hori %37,5era igo zen 2006an. Elebidun hartzaileei dagokienez, 1981ean %12,2 ziren eta %17,3 dira 2006an. Ikus daitekeenez, euskararen jakintzaren gorakada hori egoera politiko berriarekin guztiz lotuta ageri da. Frankismoko urteetan euskarak jasan zituen debekuen eta bazterketaren ondorioz, beherakada handia izan zuen urte horietan. Demokrazia heldutakoan, ordea, eta, bereziki, euskara instituzionalizatzeari esker, aurrera egin ahal izan du. Ikus dezakegunez, azken urteetako eboluzio horrek goranzko joera du, oraindik orain.

---

<sup>2</sup> EUSTAT-ek Euskal Autonomia Erkidegoko bost urtetik gorako biztanleei eginiko galdeketa. Datuak 2009an argitaratu dira baina 2006. urteari dagozkio.

## 2.2 ELEBITASUN DIGLOSIKOA

Aurreko ataleko datuak ikusita, esan dezakegu euskarak bizi duen egoera diglosikoa dela Euskal Herri guztian, nahiz eta ofizialki gizarte elebiduntzat jotzen den gurea. “El bilingüismo de ciertas naciones no es más que el nombre oficial otorgado a situaciones mucho más complejas” (Lambert, 1999a: 56). Euskara ofiziala ez den eremuetan, esan dezakegu euskal hiztunek egoera diglosikoa bizi dutela. Ofizialtasunik ezean, diglosia instituzionalizatuta dago, araututa. “Sin institucionalización, los dialectos<sup>3</sup> se ven obligados a mantener una posición subalterna en el interior o al lado de prácticas lingüísticas más prestigiosas” (Lambert, 1999a: 55). Ofiziala den tokietan ere bi hizkuntzen ezagutza eta erabilera ez dira parekoak, eta euskara-erabiltzaileen hizkuntza eskubideak ez dira guztiz bermatzen. Gizartearen %45 elebakarra izanda, nabarmena da euskal hiztunek zailtasunak izango dituztela euren hizkuntz-eskubideak baliatzeko, bai eremu publikoan bai pribatuan. Beraz, Euskal Herri guztian zabalduko dago hizkuntza diglosia.

Diglosia egoera izango dugu eremu berean bi hizkuntza elkarrekin harremanetan daudenean. “Diglosia gizarte batean bi hizkuntza direnean eta bata bestea baino indartsuagoa agertzen denean gertatzen da” (Kortazar, 2002: 25). Bietan indartsuena erregistro guztietan dago presente, eta bestea, prestigio gutxiakoa hizkuntza, erregistro ez-formaletan gehien bat. Halako kasuetan, gizarte diglosiaz hitz egiten da. Baina bada beste mota bateko diglosia ere, norbanakoaren ezagutzari dagokiona, eta pertsonak bi hizkuntzekin duen harremana definitzen duena.

Gizarte batek diglosia egoera bizi badu, hori literaturan ere islatuko da, eta diglosia horren ezaugarri batzuk izan ditzake.

Ikasketa postkolonialen barruan, bestalde, kontaktu eremuari (*contact zone*) buruz hitz egiten da, eta hizkuntza gutxituak edo diglosia egoera bizi dutenak ere kontaktu eremuetako elementu modura ere sailka daitezke, hein batean. Krausek (2007) halaxe egiten du Eskoziako literatura gaelikoari buruzko tesian: “Contact zone as a creative space where translation and interlingual writing meet” (Krause, 2007: 28). Kontaktuko eremu horien barruan, errealitate linguistiko konplexuak daude. Krausek, Sherry Simonen hitzak aipatuz, honakoa adierazten du: “place where cultures, previously separated, come together and establish ongoing relations” (Simon, 1999: 58 in Krause, 2007: 28). Kasu horretan, “previous separated” aipatzen da, kolonien kasua gogoan hartuz. Ez dezagun ahaztu, ordea, Euskal Herrian, eta baita Europako beste hainbat txokotan ere, bi hizkuntza elkarbizitzan luzaroan izan direla, eta, beraz, “previous separated” hori ezin dela aplikatu errealitate horietan. Euskal eremuan bi hizkuntzatan funtzionatzen duten idazleak hizkuntza bakarrean funtzionatzen dutenekin batera daude. Eremu txiki horretan, beraz, egoera komunikatibo oso konplexuak sortuko dira.

---

<sup>3</sup> Hizkuntzak, gure kasuan.

Bernardo Atxagak dioenez, euskal idazleek bi sistemetan egiten dute lan: “we operate in two linguistic and literary systems at the same time” (Atxaga, 2009a: 54). Hala ere, bi hizkuntza hitz egiten diren gizarte batean bi literatur sistema daudela esatea ez da hain gauza sinplea. Bi literatur sistemak, bata bestearen ondoan, zein egoeratan dauden ikusi behar da: bi sistemak burujabeak diren eta autonomoki funtzionatzen ote duten, ala bata bestearen barruan koka daitekeen; batak bestearengan eraginik ba ote duen; literatur sistema horien barruko eragileek sistema bakarrean lan egiten duten; eta abar.

Bi sistemek nola funtzionatzen duten aztertzea erabilgarria izan daiteke bakoitzaren funtzionamendua ongi ezagutzeko eta batak bestearekin zein harreman duen ikusteko. Even-Zoharrek Errusiako literaturak Israeldar literaturan izandako garrantzia azpimarratzen du honako aipu honetan: “‘Russian participated in the very making of Hebrew culture’ in such a way that, in an important sense, ‘one could say that Hebrew literature behaved as if the Russian system were *a part of it*’” (Even-Zohar, 1990: 102 in Toury, 1995: 158). Beraz, batak bestearengan izan dezakeen eragina ezagutzea beharrezkoa izango da sistemen nolakotasuna zehazteko. Lambertek hitzetan, “es difícil imaginar cómo una nación determinada podría dar cabida a varios sistemas literarios igualmente completos” (Lambert, 1999a: 64). Bi sistema guztiz oso eta beregain izatea ia ezinezkotzat jotzen du ikertzaile horrek, bien artean botere harremanak egongo direlako. “Desde distintas perspectivas teóricas, sobre todo desde la Sociología y la Teoría de los Polisistemas, la coexistencia o la cohabitación de varias unidades debe inevitablemente dar lugar a la competición y la jerarquización entre ellas” (Lambert, 1999a: 68). Alegia, beti egongo da bat bestea baino gorago, pare-parean egotea ia ezinezkoa baita.

Euskal literatur sistemari dagokionez, apriorismoak egon badaudela esan behar dugu. Hau da, hainbatek, ontzat ematen du alde aurretik badagoela euskal kultur sistema beregain bat; eta beste batzuek sistema espainiarraren barruan kokatzen dute alde aurretik. Zuhurrena apriorismoak alde batera uzten dituen jarrera litzatekeela uste dugu. Hau da, zer dagoen aztertu eta hori ezaguturik horren arabera analisi egitea. Sistema ezagututa, hobeto aurre egin ahal izango zaie bertako arazo eta beharrezane, apriorismorik gabe.

Ninguna teoría sistémica avanzada acepta una serie de fenómenos observables *a priori* que necesariamente, o de modo inherente, formen parte de un sistema. Abogar por la inclusión o la exclusión en el sistema de ciertos elementos no es algo que competa al análisis sistémico de un conjunto concreto de fenómenos; afecta más bien al mayor o menor “éxito” que puede alcanzar un procedimiento frente a otro desde el punto de vista de la suficiencia teórica (Even-Zohar, 1999a: 27-28).

Dimic-ek (1999) ere sistema ahulen antzerako balizko sailkapen bat proposatzen du. Batetik, sistema espezifikoa, baina ahul modura sailkatuta:

“por muy diversas razones, no cuentan con todos los factores y funciones de los polisistemas fuertes; tampoco tienen la ‘masa crítica’ ni las instituciones que aseguren su total desarrollo y estabilidad” (Dimic, 1999: 211-212). Bestetik, sistema handiago baten barruan kokatuz: “estos grupos representan la periferia, a veces distante, de polisistemas más amplios que tienen su(s) propio(s) centro(s)” (Dimic, 1999: 212). Dena den, aipatu berri dugun moduan, sistema beraren deskribapenak esango digu mutur batetik edo bestetik gertuago dagoen euskal literaturaren errealitatea.

Even-Zoharrek, literatur sistemak aztertzerakoan, berauetan parte hartzen duten eragileen inguruko azterketa aurkeztu zuen. Horien inguruko azterketa bat egingo dugu jarraian balizko euskal kultur (literatur) sistema hizpide hartuta. Even-Zoharrek idazlea (produzitzaila) eta irakurlea (kontsumitzailea) jartzen ditu literaturaren emaile eta hartzaile modura, eta horien artean kokatu instituzioa, produktua, merkatua eta erreperorioa. Eskema horren bitartez, “literaturaren joera soziala azpimarratzen da” (Kortazar, 2002: 18).

Idazle edo produzitzaile deituriko figurarekin hasiz, gaur egun euskal hiztun oro elebiduna da, eta, hortaz, euskaraz idazten duten idazle guztiak ere bi hizkuntzetan idazteko aukera izango lukete. Idazleek aukeraketa bat egin behar dute idazten hasi aurretik; hizkuntza batean, bestean edo bietan arituko diren. Idazle bakoitzak bere arrazoiak izan ditzake horretarako eta kasuistika oso zabala da; badira euskaraz soilik idazten duten idazleak, euskaraz idatzi eta ondoren euren lana gaztelaniaratzten dutenak ere badira, eta bada bi hizkuntzetan idazten duenik ere. Eragin nabarmena du horretan norberak euskararekiko, eta gaztelania edo frantsesarekiko, duen harremanak eta norberaren elebitasun mailak; idazle bakoitza idazten hasi den momentuan bi hizkuntzek gizartean eta literaturan duten estatusak; idazle bakoitzaren ibilbideak eta bi hizkuntzetan bildu duen eskarmentuak; idazle bakoitzaren ibilbide profesionalak, etab. Aukeraketa horren atzean, barne arrazoiak edo kanpo faktoreak egon daitezke. Lehenengoari dagokionez, bakoitzak hizkuntzarekiko duen atxikimendua adierazi nahi dugu. Adibidez, euskara ama hizkuntza izanik hizkuntza horretan idatzi nahia, edo, euskaldun berria izanik euskaraz ongi idatz dezakeela erakusteko nahia. Mundu literatura zein hizkuntzatan irakurri duten ere kontuan izan behar da, erreferentzia literarioak zein hizkuntzatatik jaso dituen. Bestalde, kanpo faktoreak oso ezberdinak izan daitezke. Batetik, diktadura garaian euskara debekatuta egonagatik ere, hizkuntza horretan idazteko hautua egin izana, kanpo indar horien aurrean erresistentzia erakusteko. Bestetik, euskaraz idatzitako lanei diru-laguntzak ematea ere kanpo faktoretzat joko genuke. Erakunde publiko zein pribatuen bultzada horren laguntzaz, Lefeverek aipatzen duen patrozinioa antolatzen da. Hala ere, hizkuntza bakoitzak literatur sisteman duen posizioa ere kontuan hartu beharko litzateke, euskarazko literaturak duen rola eta gaztelaniazkoak duena, alegia.

Irakurlegoari dagokionez, egun, Euskal Herrian, ez dago euskaldun elebakarrik. Horrek esan nahi du euskal literatura hartzaileak, gutxienez,



elebidunak direla. Hartzailleak euskaraz gain gaztelania, frantsesa edo beste hainbat hizkuntzatan jasotzen du egun informazioa, eta hautaketa egin beharra dauka une oro. Bakoitzak jaso nahi duen informazio/literatura motaren arabera, bakoitzak euskararekin edo beste hizkuntza batzuekin duen harremanaren arabera, eskuragarritasunaren arabera dira aukera horiek, hizkuntza ahuletan hizkuntza handietan baino hutsune handiagoak daude eta. Hori dela eta, hainbat kultur produktu eta beste zenbait erreferentzia beste hizkuntza batzuetan kontsumitzen dituzte gizarteak: zinema, telebista, aldizkari espezializatuak, eta abar. “(...) la pertenencia a diferentes lenguas y literaturas puede coexistir con frecuencia en la cabeza de un solo y único individuo, pues las prácticas literarias activas y pasivas (la lectura) no son necesariamente paralelas” (Lambert, 1999a: 65). Aktiboki edo pasiboki, bi sistematan edo gehiagotan hartu daiteke parte. Gure kasuan, balizko kultur sistema oso-osea ez denez, hanka bat batean eta bestea bestean izatea nahiko erraza da, are gehiago kultura kontzeptu orokorrera igarota, eta ikus-entzunezkoen kasuan, bereziki. Bestalde, euskaraz kontsumitzen diren produktuen artean jatorriz euskaraz sorturikoen gain itzulpenak ere kontsumitzen dira. Ondorioz, esan daiteke euskal kultur sistema pururik ez dagoela, eta, beraz, euskal literatura irakurtzen duena ez dela bizi euskal kultura batean soilik.

Errepertorioari dagokionez, espainiar argitaletxeen presentzia masiboaz gain, Hegoaldeko argitaletxe ia guztiek euskaraz zein gaztelaniaz argitaratzen dituzte liburuak. Eta ez soilik jatorriz bi hizkuntza horietan sortuak, baita bakoitzera eginiko itzulpenak ere. Hortaz, euskal irakurleak honako hauek kontsumi ditzake: gaztelaniaz jatorriz sorturiko liburuak, gaztelaniara eginiko itzulpenak, euskaraz jatorriz sorturiko lanak eta euskarara eginiko itzulpenak. Hala ere, kontuan izan behar da bi itzulpen mota horiek ez daudela maila berean ez kopuruari dagokionez ez eta lan moten aldetik ere. Ikus dezakegunez, produkzioari dagokionez, instituzioak berak ez du euskaraz soilik egiten. Hainbat argitaletxe hemen bertan sorturikoak dira eta beraien xede irakurleak Euskal Herrira mugatzen dira. Kasu horietan, euskal literatur sistemaren errealitateetik abiatuzkoak produzitzen dira liburuak. Beste hainbat argitaletxe Espainiar etxeen azpiatalak dira. Kasu horietan, euskaraz argitaratuko dutena kanpo irizpideen arabera izango da; beraz, erabaki horiek ez dira izango euskal sisteman independenteki hartuak. Bestalde, produkzioak gora egin ahala, euskal errepertorioa ere zabalduz joan da, eta gero eta testu mota gehiago lantzen da euskal literaturan. Gaztelaniaz eskura ditugun aukerak baino murriztagoak izan arren euskaraz, eta, hutsuneak egon badaitezke ere (zientzia fikzioa, esaterako), azken urteetan asko zabaldu da errepertorioa.

Produktuari dagokionez, esan daiteke badagoela gaur egun euskarazko literatura produkzio egonkor bat, euskal idazleek euskaraz zein gaztelaniaz idatzi dituzte euren lanak, eta, sarri, euskaraz ekoiztutakoa eurek itzultzen dute gaztelaniara (eta kasu gutxi batzuetan frantsesera). Beraz, produktu

horiek hizkuntza batean zein bestean merkaturatuko dira. Zenbaitetan, liburu elebidunak edo eleaniztunak ere plazaratzen dira.

Merkatuan bertan, erabiltzaileak eskura izango ditu hainbat hizkuntzako lanak, eta euskarazkoak, osotasun horretan, urriagoak dira. Urriagoak eta bazterrekoagoak. Liburu-denda askotan euskaraz aurki daitezkeen liburuak “euskal literatura” sail baten barruan egoten dira kokaturik, osotasun horren barruan, aparteko genero bat izango balitz bezala. Euskal literatura guztia zaku berean sartzen dute. Liburu-denda horiek sistemaren barruan euskal literaturak duen egoera diglosikoa irudikatzen dute hein batean. Gasteizko San Prudentzio kalean dagoen Elkar megadendan, konparazio batera, nobedadeen atala euskarazko eta gaztelaniazko produkzioetan banatzen da, eta, literaturari dagokion atalean, “euskarazko literatura”<sup>4</sup> izeneko atala topa dezakegu nobela beltza, nobela arrosa, fantasiarazko literatura edo klasikoen atalen ondoan. “Euskarazko literatura” atal horren barruan, gainera, euskarara eginiko itzulpenak ere sartzen dira, ez literatura orokor gisa, edo atzerriko literatura gisa. Esan gabe doa, gaztelaniazko literatura orokorra “literatura” atalean aurki daitekeela.

Durangoko Euskal Disko eta Liburu azokan erakusten den liburu produkzioa ere elebiduna izan ohi da. Azokaren ardatz nagusia euskarazko liburugintza bada ere, beste hainbat hizkuntzatan egon daitekeen euskal gaien inguruko liburugintzaren erakusleihu ere bada.

Produkzioari dagokionez, bestalde, Euskadiko Editoreen Elkarteak argitaraturiko 2007. urteari dagokion txostenean agertzen denez, EAEn argitaratu ziren liburu guztien %39,1 osatu zuten euskarazko liburuek<sup>5</sup>.

Euskal literatura euskarak ezaugarritzen duen literatur sistema izan arren, instituzioa bera ez da elebakarra (erakundeak, argitaletxeak, kritika, etab.). Literatura elebiduna edo hirueleduna dela esan daiteke, eta gainera, elebidun diglosikoa. Literatura horrek beste batekin izango duen harremana, beraz, ez da literatura elebakarrek euren artean izan dezaketenen parekoa. Egoera diglosiko horrek guztiz baldintzatuko du gainerako literaturekin izango duen harremana.

Ikus dezakegunez, euskaraz idazten den literaturak ez du sistema guztiz autonomoa osatzen, ez da sistema guztiz osoa; nolabaiteko menpekotasuna

<sup>4</sup> Orain gutxi arte “Euskal literatura” izena zuen atal horrek.

<sup>5</sup> Honako helbide honetan topa daiteke datu hori: [http://www.editores-euskadi.net/images/stories/documentos/Txostena\\_EUSKADI\\_2007.pdf](http://www.editores-euskadi.net/images/stories/documentos/Txostena_EUSKADI_2007.pdf). Bestalde, kontuan izan behar da datu hori EAEn soilik dagokiola eta Nafarroan, Iparraldean edo beste hainbat tokitan argitaraturiko produkzioa ez duela bere baitan hartzen. Erakunde berak urte berean eginiko beste azterketa batek ([http://www.editores-euskadi.net/images/stories/documentos/EUSKARA\\_Txostena\\_2007.pdf](http://www.editores-euskadi.net/images/stories/documentos/EUSKARA_Txostena_2007.pdf)) euskarazko produkzio orokorra aztertu zuen. Bertan ikusiko dugu 2007an orotara 1.781 liburu argitaratu zirela, horietariko 1.478 EAEn. Beraz, eremu horrek osatzen du euskarazko produkzioaren muina.

bizi du espainiar (eta neurri apalagoan frantses) literatur sistemarekiko, batik bat.

(...) en el interior de las literaturas, como en las actividades cotidianas, sus miembros combinan los diferentes sistemas y sub-sistemas entre sí. Esto explica que tantas literaturas en las sociedades multilingües sean en realidad sistemas incompletos (estén, por ejemplo, desprovistos de redes de distribución, de manuales de poética, de enseñanza literaria, etc.) (Lambert, 1999a: 68).

Lambertek aipatzen duen sistema ez-osotzat jo beharko genuke, beraz, euskal literatura. Gaztelaniarekiko bizi duen menpekotasuna Espainia mailan eta Euskal Herri barruan ikus daiteke. Euskal lanak gaztelaniaz Euskal Herri mailako argitaletxeen eskutik zein Espainia mailako argitaletxeen bitartez argitaratzen dira. Euskarara itzuli beharreko lanak ere gaztelaniaren bitartez egin izan dira, eta oraindik ere batzuetan egiten dira. Itzulpenerako gaztelaniazko bertsioa erabiltzeak espainiar literatur filtroa pasa izana esan nahi du; hau da, erreferentziazko liburu horien hautua gaztelaniazko literatur sistemaren harreraren eta kritikaren arabera egiten dela esan nahi du. Euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzean ere gaztelaniaren bitartekaritza badagoela pentsa dezakegu, eta, zenbaitetan, sistema horretan izan duen harreraren eta kritikaren menpe egongo da beste hizkuntza batzuetara itzultzeko aukera.

Đurišinek (1993) sorturiko CIE edo *comunidad interliteraria específica* nozioa darabil Mónica Domínguezek (2010) Espainiar estatuko literatura ezberdinen arteko harremana deskribatzerakoan, eta nozio hori baliagarria iruditzen zaigu euskal literaturaren egoera ikusirik. Literatur polisistemak geruza askotako sistema konplexuak dira. Espainiar literaturaren nagusigoarekin batera autonomia maila ezberdinekin jokatzeko duten beste subsistemak aurki ditzakegu. Nolabait, polisistema nagusia osatzen dute guztiek: erdigunean gaztelaniazko produkzioa egonik, gainerakoak bazterreko posizioetan kokatzen dira eta gaztelaniazko sistema horren menpeko dira.

Horrek guztiak erakusten digunez, euskaraz idazten den literaturaren errealtatea konplexua da. Euskal kultur sistema bat dagola esateko osagaiak badauden arren, sistemako atal batzuk autonomia maila jakin bat dutelako, hutsuneak ere nabarmenak dira, eta auzoko sistema indartsuekin dituen harremanak oso estuak. Hizkuntza batean baino gehiagotan funtzionatzen duenez gero, kanporako bidea are eta konplexuagoa izango da. Autoreak berak itzuliko du, hainbatetan, berak euskaraz idatziriko lana, hizkuntza batean baino gehiagotan idazteko gai baita. Autoitzulpen horiek sistema diglosikoen ezaugarri izan ohi dira. Bestalde, hizkuntza gutxitua izanik eta egoera diglosikoa bizi duenez, euskaratik zuzenean itzultzea zaila da. Eta, horrexegatik, kanporako bidea zeharkako itzulpenen bitartez egitea nahiko arrunta.

Ondorioz, hemendik aurrera euskal literaturari buruz hitz egingo dugu tesi honetan, baina beti ere, sistemaren konplexutasuna gogoan hartuz. Gainera, gure azterketak konplexutasun horren nondik norakoak zehazteko ekarpena egingo duelakoan gaude.

## **2.3 HIZKUNTZA GUTXITUAK**

Euskararen ezaugarri soziolinguistikoak aztertu ostean, euskara hizkuntza gutxitua dela esan genezake. Ezer baino lehen, hala ere, terminologiari buruzko ohar bat egin beharko genuke. Hainbat izendapen erabiltzen da hizkuntza horiek izendatzeko (hizkuntza txiki/gutxitu/periferiko eta handi/nagusi/zentral/menderatzaile aurrez aurre euskaraz, lingua minoritaria/minorizada gaztelaniaz, eta abar) eta, botere harremanak tarteko, batzuek eta besteek ez dute terminologia bateraturik erabiltzen. Honako lan honetan hizkuntza gutxitu eta hizkuntza nagusi izendapenak erabili ditugu batik bat, zabalduenak horiek direlakoan.

Hizkuntza gutxitua zer den definitzeko, irizpide ezberdinak erabili daitezke, eta, batoren edo bestearen arabera, hizkuntza gutxitu izaera izango duten hizkuntzen multzoa nahiko aldakorra izango da. Horregatik, lehenengo eta behin, hizkuntza gutxituak zer diren erabakitzeko irizpide horien inguruan hitz egingo dugu, eta, euskarari dagokionez, zera zehaztuko dugu, zein irizpide iruditzen zaigun egokiena.

Atalaren bigarren puntu modura, hizkuntza gutxituek itzulpengintzarekin duten harremana izango dugu mintzagai, eta hizkuntza nagusiekin alderaturik zein berezitasun biltzen dituzten arlo horretan. Bestalde, kanporako itzulpenak bultzatzeko hainbat herrialdeetako erakundeak eta baliabideak ere aipatuko ditugu.

### **2.3.1 Definizioa**

Hizkuntza bat gutxitua ala nagusia den zehazteko hiztun kopurua hartzen da lehenengo irizpide modura. Hitztun kopuruaren arabera mailakatu ahal dira munduan zehar erabiltzen diren hizkuntzak. Baina hizkuntza batek hedadura txikia edo zabala duen zehazteko, beste hainbat faktore ere kontuan izan behar dira, hala nola lurraldetasuna, diglosia eta hizkuntzaren minorizazioa.

Atal honetan, hizkuntza gutxituen inguruan hitz egingo dugu, euskara hizkuntza gutxitua denez gero eta izaera horrek euskal literaturan bertan eta euskaratik egiten diren itzulpenen estatusen eragina duelako. Hizkuntzaren gutxitasuna definitzerakoan, kontuan izan behar da errealitatea dinamikoa eta erlatiboa dela. Hizkuntzaren txikitasuna edo handitasuna ez da neurtzen hiztun kopuruaren arabera edo hitz egiten den eremuaren zabalaren arabera soilik. Hizkuntza baten estatusa hizkuntza horrek gainontzekoekin duen harremanetatik eratortzen da, eta, hori horrela izanik, hizkuntzen arteko botere banaketan dago gakoa.

Al igual que los planetas giran alrededor del sol en el sistema heliocéntrico, las lenguas ocupan una posición relativa en el polisistema mundial: sólo para media docena de ellas, esta posición es bastante central, mientras que la gran mayoría ocupa posiciones mucho menos centrales, para no decir periféricas y hasta marginales (Grutman, 2011: 79).

Beraz, hizkuntzen arteko harremana dinamikoa denez gero, hizkuntza nagusi edo gutxitu izaera ere dinamikoa da, eta une jakin bati dagokio. Croninek dioen moduan, hizkuntza guztiak izan daitezke hizkuntza gutxitu une batean edo bestean:

The issue of translation and minority languages is not a peripheral concern for beleaguered fans of exotic peoples gabbling in incomprehensible tongues but the single, most important issue in translation studies today. The hegemony of English in the fastest-growing area of technological development [telecommunications] means that all other languages become, in this context, *minority languages*. (...) Major languages have much to learn from minority languages. As vocabulary, syntax and cultural memory come under pressure from English, dominant languages are simply experiencing what minority languages have been experiencing for many centuries, and it would be instructive for the former to study the responses of the latter to assimilationist translation pressures. This, in turn, places an onus on translation scholars in minority languages to become more visible in translation studies debates (Cronin, 1998: 151).

Croninek aipatzen duen moduan, ingelesa da hizkuntza nagusia egungo mundu globalizatuan, eta gainontzeko guztiek gutxitu izaera izan dezakete hainbat alorretan. Mundu mailan periferian kokatzen den hizkuntza batek, ordea, hizkuntza nagusi izaera ere izan dezake azpisistema batean: “Es gibt aber unter den dominierten Sprachen grosse Unterschiede, und eine Sprache mag demnach auf globaler Ebene peripher sein, in einem Subsystem aber zentral” (Ringmar, 2008: 172). Vanderauwerak 1985ean argitaraturiko *Dutch Novels Translated into English. The Transformation of a “Minority” Language* liburuaren izenburua adibide modura har genezake. Autoreak nederlandera hizkuntza gutxitua dela adierazi nahi du izenburu horretan, baina “minority” hitza kakotx artean ezarriz. Horren bitartez, autoreak berak nederlandera hizkuntza gutxitu modura ez dela ikusten adierazi nahi du, baina ingelesaren aldean hizkuntza gutxitua izan badela. “First we face the situation of a minor language –Dutch– versus a literature in a *major* language –English” (Vanderauwera, 1985: 20). Ondorengo hitzetan, ordea, hizkuntzaren handitasuna edo txikitasuna, botere ikuspuntuaren arabera sailkatzen du autoreak:

As to the major/minor relationship, we are dealing with a literature of a large and dominant language area on the one hand, and a literature of a

small, and from the English point of view not exactly sensational area on the other hand (Vanderauwera, 1985: 20).

Beraz, hor argi eta garbi ikus dezakegu bi hizkuntzen arteko botere harremana eta gutxitu hitzaren dinamikotasuna. Handitasunak berak boterea ematen du; hizkuntza batetik bestera zein proportziotan itzultzen den ikusita, adibidez.

Begiratu behar den beste puntu bat hizkuntza batek bere eremuan duen ofizialtasun maila da. Ofiziala izanik, estatus hobea izango du hizkuntza batek, nahiz eta ofizialtasunak hizkuntza gutxituari ez dion ziurtasun nahikorik ematen. Gure kasuan, esaterako, ofizialtasuna bi hizkuntzek dutelarik, ofizialtasun diglosikoa izango dugu berau. Eusko Jaurlaritzaren boletin ofiziala eta dokumentazio ofizial guztia bi hizkuntzetan zabaltzen da. Euskarazko testua, gainera, ezkerretara jarri ohi da, lehentasuna emanez, eta, ondoren, gaztelaniazkoa eskuinetara; itxura batera, euskara hobetsiz. Baina horraino heltzeko bideari erreparatuz gero, konturatuko gara dokumentazio guztia gaztelaniaz sortu dela eta euskarara itzuli jarraian; beraz, bien arteko harremana ez da parekoa, jatorrizko hizkuntza eta xede hizkuntza beti berberak baitira. Erakundeek zabaltzen duten irudiak bestelakoa esaten badu ere, nolabaiteko menpekotasun harremana dago irudi horren oinarrian.

Hizkuntza baten ofizialtasunak “gizarte batek hizkuntza batez (bereaz) duen pertzeptzioa baldintzatu egiten du” (Zabaleta, 1991: 23). Biztanleek euren identitatea egitura politikoarekin lotzen dute, eta euren nortasuna egitura horretatik kanpo dagoen hizkuntza batetatik nahiko urrun senti dezakete. Gauzak horrela, hizkuntza eta bere lurraldearen arteko harremanaren nolakotasunak hizkuntza eta hiztunen arteko harremanean eragin zuzena izan dezake. Beraz, hizkuntzaren ofizialtasuna garrantzitsua da hiztunek zilegitasuna eman diezaioten hizkuntza horri.

Hego Euskal Herrian, instituzionalizazioari esker, euskara berreskurapen bidean dago; Iparraldean, berriz, ofizialtasun falta dela eta, galtzen ari da pixkanaka.

The French Senate has approved twice in the last few months the inclusion of the regional languages as a ‘valuable cultural heritage’ in the French Constitution. The Académie française reacted to this with an outcry, denouncing it as a measure that would ‘injure the national identity’. As a consequence, the French Congress has quashed this constitutional change. France, on the other hand, has not ratified the European Charter for Regional or Minority Languages (1992) (Uribarri, 2011: 262)<sup>6</sup>.

---

<sup>6</sup> 2011ko maiatzaren 20an Frantziako jurisprudentziak esan zuen Konstituzioaren 75-1 artikulua horren aldaketan atzera egiten zuela. Hortaz, ez da eskubide berririk izango Frantziako eskualde-hizkuntzetako hiztunentzat.

Antolakuntza politikoaz haratago, ikertzaileen artean ere arretarik ez zaie eskaintzen Frantzian bertako hizkuntza gutxituei eta badirudi beste nonbaiteko errealitateak direla.

A similar issue of 'visibility' of the Basque language can be seen in the specialized narratives of academic works where the issue of linguistic and literary systems is discussed. For example, Casanova mentions 'L'internationale des petits nations' (Casanova, 1999: 339-345), where she speaks about Norway, Belgium and Ireland (she also mentions Catalonia, a nation without state, in another part of her work). However, she does not mention Basque or the Basque Country, despite the fact that there are French writers living in France and publishing their work in Basque" (Uribarri, 2011:262-263).

Ezin uka, beraz, antolakuntza politikoak zuzeneko eragina duenik kultur produkzioan eta baita itzulpenetan ere, kultur produktu diren aldetik.

Diglosiari dagokionez, hiru motatakoa izan daiteke: gizabanakoaren diglosia, gizarte mailako diglosia eta lurralde mailako diglosia. Lehenengoaren kasuan, norbanakoari dagokio: bi hizkuntza alor ezberdinetarako erabiltzeko gaitasunean datza, eta bi hizkuntzen ezagutza mailari hertsiki loturik dago. Bigarrena gizartearen antolakuntzari dagokio, eta, bertan, hizkuntza bat goi mailakotzat jotzen da, eta bestea bigarren maila batean geldituko da. Hirugarrenik, lurraldetasuna eta diglosia kontuan harturik, mota ezberdinetako diglosiak sortzen dira, hala nola hizkuntza beraren lurraldean bertan hizkuntza diglosikoa izatea edo atzerriko lurraldeetan hizkuntza bateko hitzunik gutxiengo bat osatzea. Konparazio batera, ez da gauza bera euskarak Euskal Herrian bizi duen egoera edo turkierak Alemanian bizi duena; lehenengoaren kasuan, hizkuntza bere lurraldean bertan diglosikoa da; bigarrenaren kasuan, berriz, Alemanian da minoritarioa hizkuntza, baina, bere jatorrizko eremuan, hizkuntza nagusia da.

Hizkuntzaren normalizazioaren auzia diglosiari hertsiki loturik izango genuke. Hizkuntzek garai berrietara moldatu eta egokitu behar dute beren erabilera bermatzeko. Hizkuntzaren erabilera normaltzen ez bada, hizkuntza gero eta minorizatuago egongo da. Normalkuntza lortzeko, oinarritzkoa da hizkuntza hitz egiten den eremuan ofiziala izatea, ofizialtasunik gabeko normalkuntza ia ezinezkoa baita. Ofizialtasuna lortzen ez den neurrian, are eta diglosikoagoa bihurtuko da hizkuntza gutxituaren egoera. Normalizazio prozesuan, beraz, ofizialtasunak aukera ematen du orekarako bidean pausoak emateko. Euskal kulturaren historiari lotuz, Hegoaldean, normalizaziorantz emandako urratsak oso urriak izan dira XX. mendeko azken laurdenera arte. Laurogeiko hamarkadatik aurrera, ofizialtasuna instituzionalizatzearekin batera, urrats handiagoak eman ahal izan dira. Ipar Euskal Herrian, berriz, instituzionalizazio ezaren ondorioz euskararen egoera gero eta diglosikoagoa bihurtuz joan da.

Gauzak horrela, erabilgarria eta nahiko zabala iruditu zaigu Lawrence Venutik *The Translator* aldizkariaren “Translation and Minority” (4. bolumena, 2. zenbakia) ale berezian hizkuntza gutxituen inguruan emaniko definizioa:

I understand ‘minority’ to mean a cultural or political position that is subordinate, whether the social context that so defines it as local, national or global. This position is occupied by languages and literatures that lack prestige or authority, the non-standard and the non-canonical, what is not spoken or read much by a hegemonic culture. Yet minorities also include the nations and social groups that are affiliated with these languages and literatures, the politically weak or underrepresented, the colonized and the disenfranchised, the exploited and the stigmatized (Venuti, 1998a: 135).

Definizio horren bitartez, ikerketa bide emankorra eskaini zigun Venutik Itzulpen Ikasketen baitan. Hala ere, hizkuntza gutxituen inguruko definizio eta ikerketa ildo berezitua oraindik ere oso urria da. Hizkuntza gutxituen ezaugarriak zehazturik, orain itzulpena eta gutxitasunaren arteko harremana aztertuko dugu. Gai hori orain arte ez da berariaz eta sakon landu: “No volume with this title [minority *languages* and translation] exists at this time, and references to most Western minority languages continue to be scarce in contemporary Translation Studies” (Branchadell, 2004: 4).

### 2.3.2 *Hizkuntza gutxiak eta itzulpena*

Branchadellek gutxi itzultitako hizkuntzei buruz (*less translated languages*) hitz egiten du, Europar Batasunean erabiltzen den lesser-used languages-etik eratorririk. “‘*Less translated language*’ applies to all those languages that are less often the source of translation in the international exchange of linguistic goods, regardless of the number of people using these languages” (Branchadell, 2004: 1). Bistan da hizkuntza batetik egiten den itzulpen kopuruak eragina duela hizkuntza horren ikusgarritasunean.

Zabaletak dioen moduan, “definizioz hizkuntza gehiago dira hedadura txiki eta ertaina dutenak, hedadura handikoak baino, eta horrenbestez itzulpen modu edo itzulpen egoera desberdin gehiago daude mota horretako hizkuntzei dagozkienak hedadura handiko hizkuntzei dagozkienak baino” (Zabaleta, 1991:18). Itzulpen ikasketetan, ordea, hizkuntza zentralen inguruko azterketak izan dira nagusi oraintsu arte. Gure lanaren bidez, hizkuntza gutxitu baten errealitatea izango dugu aztergai, hizkuntza gutxitu horretatik beste hainbat hizkuntzatarara –gutxitu zein nagusi– egin diren itzulpenak aztertzea baitugu helburu, eta, lan horren bitartez, hizkuntza horien arteko harremana nolakoa den ikusiko dugu. “Dударик ez dago hedadura txiki eta ertaineko hizkuntzetako itzulpenaren analisiak ekarpen handiak eta are garrantzi handikoak egin ditzakeela traduktologiarako” (Zabaleta, 1991:18).



Hizkuntza gutxituetako literaturak bazterreko izan ohi dira, oro har, literatur polisistematan. Hiztun gutxiko hizkuntzak eta tradizio laburrekoak izanik, barne produkzio tasa txikiak dituzte. Errepertorioa zabaltzeko eta literatura garatzeko, beharrezkoa izan ohi da, jatorriz hizkuntza horietan idazteaz gain, beste hizkuntza batzuetako produkzioa etxekotzea. Eta egoera horrela izanik, hizkuntza horiek itzulpen-hartzaile bihurtzen dira. Itzulpenen bitartez, literatura biziberritu egin daiteke, literatura ahula denean. Pentsa daiteke literatura bat ahula izanik, sistemaren erdigunean egon daitezkeela itzulpenak, eta, oro har, kopuru handia jasoko dutela halako sistemek.

Euskarazkoaren moduko literatur sistema txikien kasuan, lehenengo eta behin, liburuak euskarara itzultzen dira, hizkuntza horretako literatur sistema abian jartzeko, aberasteko, indartzeko. Sistema finkaturik dagoenean, orduan hasten dira hizkuntza horretatik besteetarako itzulpenak egiten. Euskal literatur sistema gaztea da eta indartzen hasia dago, baina ez dago guztiz finkaturik. Beraz, beste hizkuntza batzuetara eginiko itzulpenak euskaratuekin alderaturik urriagoak dira. Lopez Gasenik 2009an eginiko euskararako itzulpenen inbentarioan, 1976tik 2008rako datuak biltzen dituen katalogoan, 800 liburu jaso ditu guztira, HGL kontuan izan gabe. 5. atalean aurkeztuko dugun gure katalogoko datuak zenbatu ditugu, denbora tarte berari dagozkionak, eta, HGL kenduta eta berrargitalpenak kontatu gabe, guztira 381 itzulpen topatu ditugu. Datu horiek aurrez esanikoa berresten dute.

Bi hizkuntzen arteko itzulpenak aztertzerakoan, kontuan izan behar da bien arteko botere harremana nolakoa den. Harremana asimetrikoa edo diglosikoa denean, hizkuntza bakoitzaren estatusa nolakoa den ikusi ahal izango da. Hortaz, hizkuntza gutxitu batetik hizkuntza nagusiago baterako bideak agerian utziko du bien arteko botere harremana. Croninek dioen moduan, “unequal relationship between a major and a minority language (...) makes conventional approaches to translation problematic” (Cronin, 1996: 185). Krausek honela irudikatzen ditu itzulpenaren bi aldeak:

In fact, translation itself becomes a double-edged sword for minorities. On the one hand, every minority language group depends for its daily survival on the practice of translation as a tool to communicate with the wider world. As Venuti argues, such communication is informed ‘by the need to traffic in the hegemonic lingua francas to preserve political autonomy and promote economic growth’ (1998, p. 137). On the other hand, translation endangers the survival of the minority language, in that inevitably strengthens the majority language in its oppressive character, while confining the minority language to the margins of a linguistic community, finally pushing it into disappearance (Krause, 2007: 35).

Beraz, ondorio oso ezberdinak izan ditzake itzulpenak hizkuntza gutxitu batean. Bi hizkuntza harremanetan daudenean, horien arteko botere harremanak izan behar dira kontuan. “Translation is both predator and

deliverer, enemy and friend” (Cronin, 1998: 148). Itzulpenak, hortaz, balio bikoiztasuna izan dezake eta norabide batean ala bestean bultza dezake. Itzulpenik egin ezean, ez da gainerako kulturekin inolako harremanik edukiko, eta ezezagutza erabatekoa izango da. Itzulpen kopuru zabalegia izanez gero, aldiz, kolonizazio edo menpekotasun gehiegizkoaren arriskua hor egongo da. Hortaz, garrantzitsua izango da bi mutur horien arteko oreka bilatzea.

Hizkuntza gutxituetako lanak beste hizkuntza nagusiago batzuetara itzultzean izan daitekeen erronketako bat mundu literaturaren barruan sartzea izango da. Horretarako, baina, mundu literatura horretan indarrean dagoen kanonarekin bateragarri diren lanak sortu beharko ditu.

(...) literatures written in languages that are less widely spoken, will only gain access to something that could be called ‘world literature’, if they submit to the textual system, the discursive formation, or whatever else one wants to call it, underlying the current concept of ‘world literature’. They have, in other words, to create something that is analogous to some element of ‘world literature’ as it already exists, whether that element is actually part of their own literature in that form or not (Lefevere, 2001: 76).

Hizkuntza gutxituek normalizazio irudia eman nahi izaten dute, eta horretarako produktu homologagarriak sortu behar dira, gainerakoek sortzen dituztenen antzerakoak. Lokalismoek ez dute hain erraz funtzionatzen. Beste aldean ordea, sistema nagusietan, berrikuntzak sartzea libre izango da: “A la periferia se le permite únicamente desarrollar lo que procede del centro, mientras que éste es libre de crear nuevas opciones constantemente” (Even-Zohar, 1999b: 93-94).

Jarraian, euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeko dauzkagun arazoak aipatu nahi genituzke. Lehenengo eta behin, kontuan izan behar dugu euskara hizkuntza gutxitua dela, eta, oro har, hizkuntza gutxituek dituzten antzeko arazoak dituela.

Gutxitua izanik, euskara hizkuntza ezezaguna da kanpoko jendearentzat. Nazioartean tokia izateko, hortaz, lehenengo erronka kanpoan ezagutaraztea izango da, eta hori itzulpenen bitartez gauzatu behar da. Itzulpenak, oro har, inguruko hizkuntza nagusietara egiten dira, gaztelaniara nagusiki, baina baita ingelesera, frantsesera edo alemanera ere. Oso zaila da hizkuntza gutxituetara itzultzea, ez bada hizkuntza nagusi batek zubi lana eginez. Hori erronka arrunta da hizkuntza gutxituen artean. “[La traducción de un idioma dominado a otro idioma dominado] no se da con tanta frecuencia, a causa precisamente de las relaciones de poder asimétricas en la galaxia de las lenguas, que canalizan el tráfico interlingüístico y lo hacen pasar por los varios centros” (Grutman, 2009: 128). Grutmanen arabera, oso gutxi itzultzen da espainiar estatuko hizkuntza periferikoen artean, ez bada gaztelania erabiltzen zubi hizkuntza modura. Gaztelaniak pibote lana egiten du, eta hizkuntza txikien arteko itzulpenen bitarteko bihurtzen da. Modu horretan,

hizkuntza horien arteko itzulpenak erraztu egiten ditu gaztelaniak, bai zeharkakoak eta bai zuzenekoak. Espainiako Kultur Ministerioak diru apur batekin –50.000 euro 2011ko deialdian (BOE, 2011)– laguntzen ditu estatuko hizkuntzen arteko itzulpenak, beraz, instituzionalizaturik ere badaude modu oso apalean bada ere. Eusko Jaurlaritzak ere ematen ditu euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeko laguntzak, aurrerago ikusiko dugunez, baina ez berariaz estatuko beste hizkuntzetara itzultzeko.

Beste alde batetik, merkatuari dagokion arazoa daukagu. Hizkuntza nagusiek oso itzulpen gutxi jasotzen dituzte, eta, ondorioz, oso zaila da merkatu horietara heltzea. Ez dute hizkuntza gutxituetako literaturarik ezagutzen, eta jasotzen dituzten erreferentziak ere urriak izan ohi dira. Kanpoko merkatu horiek ez dute gurea bezalako literaturarik eskatzen. Eta, eskaririk izan gabe, oso zaila da argitaratzailearen bat euskarazko lanak itzultzeko prest agertzea. Horrexegatik, kultur politika senda eta iraunkorrek izatea ezinbestekoa zaie hizkuntza gutxituetako literaturari bizirauteko eta kanpoan neurri batean ezagunak izateko. Halako ekimenak oso garrantzizkoak dira “literatura txikietan”, ez bailirateke bizirik egongo, guztia merkatuaren esku egongo balitz.

Eskaririk ezean, literatura “txikietatik” itzulpena jatorrizko kulturatik bertatik bultzatzen da. Jatorrizko kulturako erakundeek nolabaiteko patrozinioa egiten dute kultura horretako lanak esportatzeko, kultura horren izen ona eta prestigioa beste hizkuntza eta kultura batzuetan ezagutzera emateko. Xede hizkuntzak ez badu eskatzen itzulpenik, etxetik saiatzen dira horiek egiten, ikusgarritasuna eta prestigioa lortzeko. Beraz, “kultura txikiek” euren literatura eta kulturaren ikusgarritasuna lortzea kultur politika batzuen menpe egongo da. Gaur egun, euskal kultura kanpoan ezagutarazteko kontzientzia zabaldu egin da, eta kultur politika horiek sendotzen ari dira. Badira, esaterako, literatur lanak beste hainbat hizkuntzatarara itzultzeko diru-laguntzak Euskal Herrian bertan. Horien bitartez, nolabaiteko patrozinioa egiten da: gure literaturaren errepresentagarri izango diren lan batzuk aukeratu, nolabaiteko kanonizazio prozesua eginez. Itzulpen horiek, bestalde, euskarazko lanak saltzerakoan ere eragina dute; beraz, kanpora itzultzeko jatorrizko kulturaren egiten den patrozinioak bere ordaina ere badu jatorrizko kulturaren bertan. Urtero-urtero esleitzen diren Euskadi Literatur Sarien oinarrietan ere, sariaren zati bat itzulpenera bideratzen da. Hona hemen, literatur sari horien oinarrietan esaten dena:

Euskadi literatura sariak 18.000 euro gordinez hornituta daude modalitate bakoitzeko. Diru-kopuru hori saritutako lanen egileei emango zaie. Saritutako pertsonak, era berean, Euskadi literatura sarientzat berariaz Jose Ibarrola Bellidok eginiko “Liburu Nabigatzaile” izeneko eskulturaren ale zenbatua jasoko dute.

Horrez gain, saritutako lanaren egileek (euskarazko itzulpenaren kasuan salbu) beste 4.000 euro gordin ere jaso izango dituzte, saritutako lana jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batean argitaratzeko kontratua sinatu ostean (EHAA, 2011)

Beraz, jatorrizko sistematik bultzatzen da itzulpena, kanpoko eskaririk behar izan gabe. Diru kopuru horren bitartez, jatorrizko kultura zabaltzea dute xede jatorrizko eragile publikoek.

Literatur lanak kanonizatzerakoan, itzulpenak rol garrantzitsua dauka literatura “txikietan”. Even-Zoharren arabera honela uler daiteke kanonizazioa:

by “canonized” one means those literary norms and works (i.e., both models and texts) which are accepted as legitimate by the dominant circles within a culture and whose conspicuous products are preserved by the community to become a part of its historical heritage (Even-Zohar, 1990: 15).

Euskaratik itzultzerakoan kanonizazioa eta itzulpena loturik agertzen dira. Arruntena liburu kanonizatuak itzultzea da, eta, kasu horietan, itzulpenak kanonizazio maila areagotzen du. Kanonizatu gabeko lanak ere itzultzen dira, baina horiek xede hizkuntzan kanonizatzea zailagoa izan daitekeela pentsa daiteke.

Gaztelaniarako itzulpena kanonizatzen bada, edo gaztelaniazko itzulpena kanonizatu eta arrakasta izaten badu, jatorrizkoa ere nolabait kanonizatu egingo da. Itzulpen hori gainerako itzulpenen bitarteko bertsio bihurtzen bada, onura izango da euskarazkoaren zabalpenarentzat, baina arriskua ere ekarriko du berekin; behin betiko “jatorrizkoa” gaztelaniazkoa izango baita, eta euskarazkoa, behin-behineko bertsio. Croninek aipatzen duen balio bikoiztasuna kontuan izan behar dugu, beraz: gaztelaniazkoak lagundu egingo du bai, baina hizkuntza horretatik abiatutako bertsioak behin betiko jatorrizko horren menpeko izango dira. Zerga hori ordaindu beharko dute euskarazko lanek.

Sariketak ere kontuan izan behar dira, salmentak eta sona horien bitartez bermatzen baitira. Jokin Muñoz idazle ezaguna da gurean, eta Euskadi Saria ere jaso du birritan, 2004an *Bizia lo* liburuagatik eta 2008. urtean, *Antzararen bidea* lanagatik. Unai Elorriaga ere aski ezaguna dugu; *SPrako tranbia* lanagatik Espainiako Literatur Sari Nazionala jaso zuen 2002an. Biek ala biek irabazi dituzte sariak: bata, hemengo sariak gehiago; besteak, kanpokoak ere bai. Batoren kanonizazioa euskal sistema barruan egin da; bestearena, gaztelaniazkoan. Itzulpenari dagokionez, bien inpaktoa ez da berdina izan. Elorriagak bere lan guztiak ditu gaztelaniara zein beste hizkuntza batzuetara itzuliak (alemana, italiara, estoniarra, serbiera, etab.); Muñozek, berriz, gaztelaniara soilik. Horretaz gain, gaztelaniazko zein argitaletxetan argitaratu diren ere kontuan izan behar dugu: Muñozek Alberdanian argitaratu baditu gaztelaniaratutako bere bi lanak, Elorriagak, Alfaguara argitaletxean. Anjel Lertxundiren kasua ere aipatzekoa da; euskal letretan egun dugun idazle garrantzitsuenetarikoa da eta prestigio handia du euskal literaturan, baina ez

du halakorik lortu gure mugetatik kanpo<sup>7</sup>. Lertxundik ere euskal eremuko argitaletxe batean atera ditu gaztelaniazko itzulpen gehienak, ez estatu mailako argitaletxe boteretsu batean. Eta itzulpen gutxi ezagutu ditu beste hizkuntzetan.

Aurrez esan bezala, kanonizazio prozesua gaztelaniazko bertsiotik pasatzen bada, hau da, kanpotik etortzen bada, itzulpenak bizkortu egin ohi dira. Gaztelaniaz lorturiko arrakastak, nolabait, gainerako hizkuntzetarako bidea azkartzen du. Lan batek euskaraz sona handia lortzen badu, gaztelaniara itzuli, itzuliko da; baina gainerako hizkuntzetarako bidea gaztelaniaz lortzen duen sonaren menpe egongo da sarri.

Hurrengo arazoa itzultzaileei dagokie. Hedadura txikiko hizkuntzetatik hedadura handiko hizkuntzetara gutxiago itzultzen da, hedadura handiko hizkuntzetako hitzunik ez dutelako hedadura txikiko hizkuntzak ikasteko premiarik izaten, edo gutxiago izaten dutelako (Zabaleta, 1991: 20). Gure mugetatik kanpo, oso jende gutxi ikasten du euskara, eta, honenbestez, oso zaila da euskaratik itzuliko duen jendea aurkitzea. Gu elebidun izanik, autoitzulpen ugari egitera ohituak gaude. Baina, gaztelania ez den beste hizkuntza batzuetara itzultzeko gai den jende oso gutxi dugu oraingoz. Momentuz, gaztelania ez beste hizkuntza batzuetara bitarteko hizkuntzaren bidez itzultzen da, hau da, lehenengo gaztelaniara itzuli eta ondoren bertsio hori hartu oinarri. Edo bestela alderantzizko itzulpenak egiten dituzte euskaldunek, euskaratik euren ama hizkuntza ez den ingelesera, adibidez. Pokorn-ek dioen moduan, alderantzizko itzulpena oso ohikoa izaten da hizkuntza gutxituetan (2005: 35).

Zuzeneko itzulpenak egiteko gai den jende gutxi izateaz gain, pertsona horiek ere ez dira, oro har, itzultzaile profesionalak izaten. Horrek esan nahi du argitaratzaileek ez dutela itzultzaile hori ezagutzen, eta oso zaila izaten da norbaiten lana ezagutu gabe, edo bere bizitza profesionalaren erreferentziarik izan gabe, pertsona horrengan konfiantza izatea. Itzultzaile amateurren lana ez da itzultzaile profesionalen mailakoa izango, eta, horregatik, askotan, argitaletxeek nahiago izaten dute ezagutzen duten itzultzaile profesional batekin lan egin, nahiz eta pertsona horrek itzulpena zeharka bitarteko hizkuntza baten bitartez egin behar izan.

Bestalde, testuen norabide bakarreko inportazio eta esportazio harremanek kultur menpekotasun egoera islatuko dute.

“(...) a society which exports non-translated texts is in a position of power vis-à-vis the receiving society. Also, the more a society imports without a counterbalancing volume of exports, the more it tends to be unstable; and vice versa, the more a society exports, the more stable it will be, at least with respect to the receiving system or systems. But the

---

<sup>7</sup> 2010ean Espainiako Sari Nazionala jaso berri du saiakeraren alorrean *Eskarmentuaren paperak* lanagatik.

more a society imports from a single source, the more it will find itself in a position of dependency vis-à-vis that source” (Hermans, 1999: 123).

Gure kasuan, esportazio urriak ahuldade posizioa azpimarratzen du batetik, eta, bestetik, euskal literatura gaztelaniazko literatur sistemaren menpekotasun kultural nabarmen batean itzultzen dela erakusten du. Kultura batek zenbat eta gehiago inportatu itzuli gabe, kultura nagusiarekiko menpekoagoa eta ezegonkorragoa izango da. Inportazioa hizkuntza bakarretik egiten bada nabarmenki, menpekotasuna hizkuntza horrekikoa izango da. “Cuanto más unidireccional sea la relación de importación/exportación en que se ve inmersa, más dependen de su ‘gran hermano’ (big brother)” (Lambert, 1999b: 274). Beraz, ez-itzulpenak ere asko esaten du hizkuntzen eta kulturen arteko harremanei buruz.

Orain gutxi arte itzulpen teoriaren inguruan egiten ziren azterketek ez dituzte kontuan izan hizkuntza gutxituak. Harritzekoa da, hizkuntza txiki edo gutxituak baitira gehien itzultzen duten hizkuntzak. Michael Croninen arabera, “the silence is all the more surprising in that minority-language cultures are translation cultures *par excellence*” (Cronin, 1998: 147). Orain gutxi arte, hizkuntza nagusien arteko itzulpenetan oinarriturik egin izan dira azterketa gehienak. Eta hizkuntza gutxituak baztertuak izan badira gutxitu izate hutsagatik, horrek bi aldiz baztertu bihurtzen ditu. Croninek honakoa dio: “If translation has traditionally suffered from lack of visibility then there is a sense in which translators working in minority languages are doubly invisible at a theoretical level” (Cronin, 1998: 147).

Itzulpen ikasketen inguruko entziklopedia eta erreferentziako liburuetan ere, gutxiengoei eskainiriko tartea oso eskasa izan da.

It is instructive to notice that there is no entry for “minority language” in Mona Baker’s *Encyclopedia of Translation Studies* (1998), nor in Mark Shuttleworth and Moira Cowie’s *Dictionary of Translation Studies* (1997). (...) If we turn to more specific encyclopedias, a similar situation obtains. Classe’s *Encyclopedia of Literary Translation into English* contains no entry for “minority language” either (Branchadell, 2004: 2-3).

Croninek (2003: 139) eta Krausek (2007) ere salatu zuten Bakerrek erreferentziako lan horretan hizkuntza gutxituei tarterik eskaini ez izana. Hori horrela izanik, entziklopedia horren 2009ko berrargitalpenean Croninek berak idatziriko “Minority” izeneko sarrera agertzen da (Baker, 2009: 169).

Beraz, ikerketaren alorrean ere gutxitu egoera horrek hor dirau. Hizkuntza gutxituak aztertzen dituzten zehar-lanek ez dute harrera zabalik izaten, ez bada Itzulpen Ikasketen ia hizkuntza ofiziala den ingelesa tartean ez bada. “In mainstream Translation Studies, journal references to minority languages that are not in contact with English are rare.(...) The situation of minority languages vis-à-vis English seems to condition the degree of attention

that they receive from the scientific community” (Branchadell, 2004:4-5). Diglosia akademikoa dagoela esango genuke, tokian tokiko erakundeek ikertzaileak bultzatzen ditu, gainera, nazioarteko hizkuntza nagusietan publikatzera. Garrantzitsua iruditzen zaigu, Branchadelli bezala, hizkuntza gutxituetako itzulpenen inguruko ikerketak egitea eta horiek hedatzea. Jarraian, beraz, gurearen modura, hizkuntza gutxituen inguruan eginiko hainbat ikerlan aipatuko ditugu, modu batera edo bestera, gurearen aurrekari eta eredu izan direnak.

Katalogazio lanari dagokionez, hizkuntza gutxituetatik eta hizkuntza gutxituetara eginiko batzuk aurkitu ditugu.

2005ean, Ferran Robles i Sabaterrek *Bibliografia de la literatura catalana en versió alemanya. Narrativa, poesia, teatre* liburua argitaratu zuen. Lan horretan, katalanetik alemanera itzuli ziren literatur lanak katalogatu eta aztertu zituen (Robles i Sabater, 2005).

Galegoaren kasuan, BITRAGA taldearen lana aipatu behar dugu. Talde horrek 1980-2008 epealdian galegora eta galegotik eginiko literatur itzulpenen katalogoa osatu du eta edonoren eskura jarri [www.bibliotraducion.uvigo.es](http://www.bibliotraducion.uvigo.es) webgunean. Bi norabidetan egiten dute lan talde hori osatzen duten ikertzaileek. Lana edonoren eskura jarriz, truke zientifikoa bultzatu nahi dute interesa izan dezaketen pertsona guztien artean (itzultzaile, idazle, editore, etab.). Taldearen helburu nagusia honakoa da, webgunean esaten denez: “proyectar a importancia política e cultural da producción traducida”.

Hor dugu, baita ere, Irlandako Dublin City Universityn eginiko TRASNA proiektua ere. Bertan, Irlandako literatur lanen itzulpenen katalogoa osatu dute, beste hizkuntzetara itzuli diren lanak jaso eta ikusgai daude interneteko <http://www.dcu.ie/~ctts/> web orrian.

Eskoizian ere, antzeko proiektu bat jarri zuten abian 1996an National Library of Scotlandek eta Edinburgh Universityk. Bibliography of Scottish Literature in Translation (BOSLIT) <http://www.nls.uk/cagalogues/resources/boslit/> web orrian, 1500 urtetik aurrerako edozein literatur testuren itzulpenak jaso dituzte, 25.000 lanetik gora, guztira.

Galesen, Bwlet izeneko katalogo bat jarri dute irakurlearen eskura [www.bwlet.net](http://www.bwlet.net) helbidean, eta, bertan, galeseratik ingelesera itzuliriko literatur lanak jaso dituzte.

Literatura gutxituak kanpoan ezagutzera emateko erakundeak eta egitasmoak ere sortu dira. Ireland Literature Exchange izeneko erakundea 1994an jarri zuten martxan. Erakunde horren lana irlandar literatura beste kulturetara eta hizkuntzetara zabaltzea izan da, besteak beste. Antzerako plan bat ere aurkitu dugu Galesen: Welsh Literature Exchange izeneko web orria

([http://www.walesliterature.org/language\\_choice.html?CFID=3362142&CFTOKEN=61517438](http://www.walesliterature.org/language_choice.html?CFID=3362142&CFTOKEN=61517438)), Galeseko literatura Europan ezagutarazteko sortua. Idazle, itzultzaile eta itzulpenei buruzko informazioaz gain, Galeseko literatura

kanporatzeko diru-laguntzen berri ere ematen dute bertan. Antzerako hainbat erakunde bada Europa guztian zehar, bai hizkuntza handiei dagokienez (Goethe Institut Alemanian edo Instituto Cervantes Espainian, kasu), eta baita hizkuntza gutxituei dagokienez ere (Institut Ramon Llull Katalunian). Euskararen kasuan, sortu berria den Etxepare Institutua alor honetan koka genezake.

Hizkuntza gutxituetatik eginiko itzulpenen inguruko azterketei dagokienez, gero eta gehiago dira alor honetan eginiko lanak.

*The Translator* aldizkariak 4. bolumeneko 2. zenbakia “Translation and Minority” gai monografikoari eskaini zion. Nahiz eta ez izan hizkuntza gutxituen inguruko lana soilik (ikus 2.3.1 atala), –baizik eta, Afrika, Asia, Europa zein Ipar Ameriketako kultura eleanitzetako hainbat gutxiengo sozial zein geopolitikoren ingurukoa, oro har– ekarpen garrantzitsua egin zuen Venutik. Gutxiengoak mundu osoan zehar eta egoera zein gizarte mota ezberdinetan egon badaudela erakutsi zuen liburuki horrek. Itzulpenak, berriz, txanponaren bi aldeak jaso ditzakeela ere erakutsi zuen: “minority translating can be a majoritizing as well as a minoritizing enterprise” (Bandia, 2000: 264). Hau da, gutxiengoei ikusgarritasuna emateko eta gehiengoetara heltzera bide bat izan daitekeen modu berean, gutxiengo horri gutxiengo izaera hori lapurtzen dion zeregina izan daiteke, ikusgarritasun horretan bere-berea duen nortasuna galduz gero.

Hizkuntza gutxitu eta itzulpenaz hitz egiterakoan, Michael Croninek argitaraturiko hainbat lan ere aipatu behar dira: *Translating Ireland* (1996), *Translation and Globalization* (2003) eta *Translation and Identity* (2006), besteak beste. Irlanda eta gaelikoa abiapuntu harturik, gutxiengoei eta itzulpenari loturiko gogoeta garrantzitsuak argitaratu ditu.

Albert Branchadellek eta Lovell Margaret Westek *Less Translated Languages* liburua argitaratu zuten 2004an. Bertan, gutxi itzuliriko hizkuntzen inguruko hogeitaz hamar ikerlanetik gora bildu zituzten. Gutxi itzultzen diren hizkuntza horien barnean, hiztun asko dituzten hizkuntzak (arabiera edo txinera, kasu) zein hizkuntza gutxituak aurki daitezke. Boterearen inguruko gogoetak ere biltzen dira liburu honetan, eta ingelesari, hizkuntza nagusi den heinean, atal oso bat eskaintzen diote. Kultura eleanitzen inguruko zein gutxiengo linguistikoen errealitateak ere islatzen dira liburuan. Hizkuntza gutxituen itzulpenari buruz ikertzen ari den ororentzat nahi eta nahiezko erreferentzia dugu liburua.

Beste alde batetik, aipagarria da Alberto Álvarez Luginen lana ere, *Estilística Comparada da Traducción. Proposta metodolóxica e aplicación práctica ó studio do corpus TECTRA de traduccions do ingles o galego* (2001) izenekoa. Bertan, ingelesetik galegorako testuez osaturiko corpus bat erabili zuen bere azterketetan.

Hizkuntza gutxitua zentzu zabalean hartzen badugu, ingelesaren nagusigo erabatekoaren testuinguruan, beste bi lan ere aipa daitezke. Batetik, Ria Vanderauwerak, 1985ean, nederlanderatik ingelesera eginiko itzulpenak



aztertu zituen *Dutch Novels Translated into English. The Transformation of a "Minority" Language* liburuan. Gure lanean bezala, hizkuntza gutxitua hartu zen abiapuntu. Ikerlan horretan, nederlandera bezalako hizkuntza txiki batetatik zein lan eta nola itzuli diren aztertu zituen ikerlartzaileak, eta hizkuntza txiki horretako literaturak ingelesaren moduko hizkuntza handi batera itzulirik bertan duen presentzia landu zuen. Bestetik, hizkuntza gutxituek itzultzeko dituzten arazoei dagokienez, An Sonjae ikertzaile korearrak literatura korearrak ingelesera itzultzeko dituen arazoak aipatzen ditu *Literary Translation from Korean into English: A Study in Criteria* artikuluan. Bi hizkuntzen arteko ezberdintasunak eta kultur ezberdintasunak aipatzen ditu zailtasun horien iturri nagusizat.

Aipaturiko adibide ia guztiak gutxiengoetatik abiatu egin dira, eta ez hizkuntza nagusien testuingurutik. Aurrez esan dugun bezala, hizkuntza nagusiek ez dute hizkuntza gutxituenganako interes handiegirik erakusten. Bestalde, xede hizkuntza bakoitzera hizkuntza gutxitu bakoitzetik iritsitako itzulpen kopurua urria denez, horien eragina oso txikia da. Hori horrela izanik, zaila izango da xede kultura horietatik abiaraztea halako azterketarik. Beraz, hizkuntza gutxituek beraiek bultzatu behar izaten dute norberaren ikusgarritasuna. Ikusgarritasun hori itzulpenak bultzatuz egiten dute, baina baita pixkanaka itzulpen horiei buruzko azterketak eginez ere.

## 2.4 EUSKAL LITERATURA

Honako atal honetan, euskal literatura izango dugu mintzagai. Lehenengo eta behin, euskal literatura modura zer sailkatuko dugun aipatuko dugu; horretarako, nozio horren inguruan egon daitezkeen adiera ezberdinak aztertuko ditugu. Bigarrenik, euskal literatura definitu ostean, bere historiaren nondik norakoak azalduko ditugu laburki, itzulpenak bertan izan duen garrantzia kontuan izanik.

### 2.4.1 Definizioa

Ikerketa egitasmo honekin hasi ginen unean bertan, mugak jartzea izan zen lehen egitekoa. Aztertu beharreko eremua lausoa izanik, mugak non, nola eta zergatik jarri behar ditugun ongi zehaztu behar izan genuen.

Euskal literatura esaten dugunean, nahiko zentzu zabala izan dezake nozio horrek. Azken batean, zer da euskal literatura? Euskaraz soilik idatzita dagoena? Euskal gaiez hitz egiten duen liburu oro? Euskal herritarrek idatziriko literatura? Euskal jatorriko idazleek idazten duten oro? Nozio oso konplexua da euskal literaturarena, eta erantzun bakar bat ematea ia ezinezkoa iruditzen zaigu.

Euskal literatura eta *literatura vasca* ez dira guztiz baliokideak. Euskal literatura esaten dugunean, euskaraz idatzirikoari buruz hitz egiten dugu.

Etimologikoki “euskal” horrek hizkuntzari egiten baitio erreferentzia. Gaztelaniaz, ordea, “vasca” izenondoak erreferentzia zabalago dauka<sup>8</sup>; ez soilik hizkuntzari loturikoa, baita kulturari edo geografari loturikoa ere. Ez dago oso argi *literatura vasca*-k Euskal Autonomia Erkidegoa soilik hartzen ote duen bere baitan edo Nafarroa eta Iparraldea ere bertan sartzen ote diren. Ezin gara eremu geografikora edo politikora soilik mugatu, alderdi sozio-kulturala eta linguistikoa baztertuz. Erdarazko terminoa euskarazkoa baino lausoagoa dela esan genezake. Itzulpen arazo bat daukagu, beraz, arazoaren muinean, zentzu arruntean ez baitira baliokideak.

Euskal literatura definitzerakoan euskarazko produkzioa soilik kontuan hartzen duten definizioak aurkitzen dira sarri euskal egileek beste hizkuntzetan egiten duten produkzioa berariaz baztertuz. Espainiar literatura definitzerakoan espainieraz egindako produkzioa soilik hartzen da kontuan sarri. Espainian beste hizkuntzetan egiten den produkzioa alboratuz, edo Espainian egiten den literatura oro hartzen da kontuan definizio mailan, baina gero ez zaio arretarik eskaintzen espainiera erabili ez duen produkzioari. Ikusten denez, hizkuntza bat=herrialde bat eskemak, literatura nazionalen eskemak, azken batean, itzal handia du, kontzeptu horren krisia etengabe aipatzen den arren.

Bestalde, euskal eremuan aurki daitekeen errealitatea oso zabala eta anitza da. Euskal eremuan sortzen den literatura ere oso modu anitzean sortzen da; badira euskara hutsean sortzen diren lanak, argitalpen elebidunak eta baita gaztelania edo frantses hutsean argitaratzen direnak ere. Idazleei dagokienez, idazle elebakarrak eta elebidunak ditugu. Lehenengo artean, gaztelania edo frantses hutsez argitaratzen duten idazleak ditugu. Aldi berean, horien lanak euskarara ere itzuliak izan dira hainbat kasutan (Toti Martínez de Lezearen liburuak, esaterako). Euskara hutsez idazten duten idazleak ere badaude. Horien lanak gaztelaniara eta frantsesera ere itzultzen dira hainbatetan. Badira, euskaraz zein gaztelaniaz argitaratzen duten idazleak. Oro har, idazle horiek hizkuntza bat edo bestea dute beraien sorkuntza hizkuntza nagusi, baina bestean ere argitaratu izan dute zerbait. Batzuetan, idazle elebidun horiek hizkuntza batean bakarrik idazten dute eta

---

<sup>8</sup> Euskal Herriko gaztelaniazko idazle elebakarrei buruz, honako gogoeta plazaratu zuen Apalategik, euren eremua Euskal Herriaz haratago doala pentsarazten diguna: “(ceux qui ont décidé d’écrire en castillan), il est difficile de dire jusqu’à quel point ils font partie du champ littéraire basque. En effet, le seul fait que leurs oeuvres puissent être reçues par le public de l’ensemble du territoire espagnol les met en concurrence objective avec les autres auteurs espagnols habitant hors du Pays Basque. Il se peut qu’ils écrivent en pensant de préférence à un public basque, mais la dimension du champ littéraire espagnol –son lectorat potentiel, le marché qu’il constitue, le réseau éditorial et le réseau de distribution– exerce un tel pouvoir d’attraction sur eux qu’il est quasiment impossible de trouver un seul écrivain qui ne prenne en compte en priorité sa propre position à l’intérieur du champ littéraire espagnol au détriment de l’intérêt porté à sa position dans le champ littéraire basque” (Apalategi, 2000: 61).

bestean itzulpen lanak egin. Itzulpen lan horiek, hainbatetan, norberaren lanak izan ohi dira, hau da, autoitzulpenak. Ikus daitekeenez, kasuistika oso zabala da, bakoitzak hizkuntzarekin, edo hizkuntzekin, duen harremana erakusten dute, eta eremu elebidunetako errealitatea nolakoa den azaleratzen dute.

Idazleez gain, kontuan hartzeko beste aspektu bat gaiari buruzkoa da. Zerk egiten du lan bat euskal literaturaren parte? Euskal gaiei loturik egoteak? Euskal kulturarekin zerikusirik izateak? Euskal Herrian kokaturik egoteak geografikoki? Oso gai delikatua da “euskal” etiketa ematea literatur lanei eta sailkapen garbiak egitea. Euskal Herrian argitaratzen den oro euskal literatura izan daiteke, baina nozio zabalegia ere izan daiteke hori. Euskal gaien inguruan erdaretan argiataratzen den oro ere euskal literatura dela esatea urrutitxo joatea izan daiteke. Esaterako, diasporan sorturiko lanak “euskal literatura”-ren barruan sartzea, edo gaztelaniaz Euskal Herrian bertan argitaraturiko lanak. Raul Zelik idazle alemaniarrek *Der bewaffnete Freund* (*Lagun armatua*, 2009) argitaratu zuen alemanez 2007. urtean; Euskal Herrian giroturiko liburua. Maila berean egongo litzateke euskal gaiei loturiko eleberri hau eta Euskal Herritar batek gaztelaniaz argitaraturiko eleberri bat? Bigarrenaren kasuan, hemengo irakurleak gaztelaniazkoa irakur dezake, baina lehenengoa ez, arrotza baitzaio alemana, gaztelania ez bezala.

Euskaraz idazten dena soilik sartuz gero “euskal literatura” nozioaren barruan, hankamotz gera liteke gure sailkapena. Zer gertatuko litzateke euskaraz zein gaztelaniaz edo frantsesez idazten duten idazleekin? Batzuetan euskal literatura idazten dute eta besteetan ez? Ez al dira, bada, euskal idazleak?

Kontzeptuaren lausotasunak efektu praktikoak ere baditu. Indefinizio hori irudikatze aldera adibide bat aipatu nahi dugu. Durangoko “euskal liburu eta diskoen” azoka euskaraz idatziriko liburu edo/eta euskal gaiei loturikoen erakusleioa da. 2008. urteko edizioan, Hiru argitaletxea azokatik kanpo geratu zen arauak bete ez zituelako, hots, antolatzaileek araututako gutxienez iritsi ez zirelako (liburuen %80k gutxienez euskarazkoak edo euskal gaiei buruzkoak izatea), nahiz eta euskal literatura gaztelaniaratzean lan aipagarria egin izan duen.

Euskal literaturaren inguruan zabaltzen den informazioa ere nahasgarria izan ohi da. Esate baterako, Durangoko euskal liburu eta disko azokan urtero eman ohi dira liburu salduenen inguruko datuak. 2007an Mariasun Landaren helduentzako lehen liburua izan omen zen salduenetariko bat. Liburu horrek bi argitalpen izan zituen, bata euskarazkoa eta bestea gaztelaniazkoa (*Festa aldameneko gelan / La fiesta en la habitación de al lado*). Idazleak eleberria gaztelaniaz idatzi zuen, eta, ondoren, euskarara itzuli zioten. Azokako datuak zabaltzerakoan, ez zuten hizkuntzaren inguruko daturik eman; ez salduena euskarazkoa izan zen, edo gaztelaniazkoa, edo bien batura.

Lehen esan dugun moduan, badira euskal literatur sistema bat definitzen duten autoreak, produktuak, erakundeak, argitaletxeak, kritikariak eta

sariketak, eremu ahula, konplexua eta auzo-sistemekin oso harreman estuak dituena. “Euskara adierazpen-hizkuntza erabili duen literaturak sistema bat osatzen du, nahiz eta bistakoa den sistema hori harremanetan dagoela beste sistemekin” (Toledo, 2010: 772).

Hori guztia kontuan izanik, eta itzulpengintzaren alorra jorratuko dugunez gero, gure proiektuari ezarri beharreko mugarik egokiena hizkuntzari dagokiona iruditu zaigu. Hau da, jatorriz euskaraz idatzitako lanen itzulpenak aztertuko ditugu. Beraz, euskarazko “euskal literatura” erdarazko “literatura en lengua vasca” nozioaren baliokide modura hartuko dugu, euskaraz erabili ohi dugun moduan, nahiz eta jakin badakigun izendapena bera korapilatsua dela eta ikerketa jakin bat bideratzeko muga metodologikoak erabiltzen ari garela. Bestalde, gure ikerketak egoera korapilatsu horren nondik norakoak zehazteko ekarpena egin dezakeelakoan gaude.

### **2.4.2 Euskal literaturaren eta itzulpenaren historia**

Euskal literaturaren historia itzulpengintzari guztiz loturik egon da eta bere garapena ezingo litzateke ulertu itzulpenik gabe. Hasiera batean bi alorrak —euskal literaturaren historia eta euskal itzulpenaren historia— banaturik garatu bagenituen ere, elkarren arteko lotura oso estua dela ikusirik atal berean uztartzea erabaki dugu azkenean<sup>9</sup>.

Even-Zoharrek 1990eko artikulu ezagunean aipatzen du literatur sistema ezin dela guztiz ulertu itzulpenaren ekarpena kontuan hartu gabe eta lehenago 1984an Zabaletak “euskal itzulpenak euskal literaturaren historian” duen tokiaz idatzi zuen.

1879ra arte, guztira 587 liburu argitaratu ziren, horietatik 393 berrargitalpenak. Beraz, 194 izenburu ezberdin argitaratu ziren guztira eta horietatik 101 soilik dira jatorrizkoak. Itzulitako izenburuek liburu produkzioaren ia erdia osatzen dute (Sarasola, 1982). Itzulpen horiei esker garatu ahal izan da euskaraz idatziriko literatura. Literaturgintzaren garairik onenetan egon dira itzulpen gehien, eta garairik ilunenetan gutxien. Joan Mari Torrealdairen *Euskal kultura gaur* liburuan (1997) ongi ikus dezakegu euskal liburugintzaren garapena. 1545-1699 urtealdian, 52 liburu argitaratu ziren, eta 6 besterik ez ziren itzulpenak. 1700-1850 urtealdiaren hasieran, oso gutxi produzitetik XIX. mende bukaeran liburugintza indartsua izatera pasa zen, eta, 1850-1875 urtealdian guztira argitaratu ziren 309 liburuetatik 101 itzulpenak izan ziren. 1876-1895 urtealdian, berriz, 403 lanetatik 107 izan ziren itzulpenak. Gerra zibil garaian eta frankismoko lehenengo hamarkadetan, liburugintza ahuldu egin zen, eta itzulpenak ere oso urriak

<sup>9</sup> Gaia hemen oso labur aipatuko dugu, ikuspegi orokor bat eskaintze aldera. Informazio zabalagoa topa daiteke honako iturri hauetan, besteak beste Iñaki Aldekoaren *Historia de la literatura vasca*, [www.basqueliterature.com](http://www.basqueliterature.com) web orria, Xabier Mendigurenen *Euskal itzulpenaren historia laburra* liburua.

izan ziren, baina 1960. hamarkadatik aurrera, produkzioak gora egin ahala itzulpen kopurua ere hazi egin zen. 1975. urtean, adibidez, 202 argitalpenetatik 64 itzulpen izan ziren. 1980. hamarkadatik hona ere, liburugintza indartuz joan da, eta, horrekin batera, itzulpen kopurua ere bai. Adibide pare bat ematearren, 1990ean, 1.044 liburu argitaratu ziren, horietatik 400 itzulpenak; 1994an, 1.106 lan argitaratu ziren, 395 itzulpenak (Torrealdei, 1997: 176).

Manu Lopez Gasenik eginiko Euskal Itzulpenen inbentarioaren azterketan ikus daitekeenez, euskal literaturaren historiako itzulpen kopuru handiena XX. mendeari dagokio: itzulpen guztien %61 (Lopez Gaseni, 2009: 7). Mende horretan, eta 1976tik 2008ra arteko datuak kontuan izanik, 90. hamarkada izan zen emankorrena, %42,1ekin (Lopez Gaseni, 2009: 8). Kontuan izan behar da Lopez Gaseniren ikerketan haur eta gazte literatur lanak azterketatik kanpo gelditu direla. Hortaz, eskaintzen diren datuak ez dira guztiz osatuak. Manu Lopez Gaseniren arabera, “kopuru orokorretan, itzulitako euskal literatura euskaraz egiten den literatur produkzioaren %35 ingurukoa da” (Lopez Gaseni, 2008). Datua nahiko altua da, ikertzailearen arabera, baina beste hizkuntza gutxitu batzuekin ere pareka daiteke.

Euskal literaturaren historiak hitz egiten hasi aurretik, kontuan izan behar da literaturaren kontzeptua bera aldakorra izan dela historian zehar eta literaturaren kontzeptu autonomoa XIX. mende amaieran kokatu behar dela. Literaturaren barruan sartzen dena eta sartzen ez dena, literaturaren kontzeptua bera, dinamikoa da. Itamar Even-Zoharrek bi definizio ematen ditu literatur sistemaren inguruan:

The network of relations that is hypothesized to obtain between a number of activities called “literary,” and consequently these activities themselves observed via that network.

Or:

The complex of activities, or any section thereof, for which systemic relations can be hypothesized to support the option of considering them “literary”. (Even-Zohar, 1990: 28)

Even-Zoharren proposamenaren arabera, literaturak berak ez du ezaugarri jakinik, “garai bakoitzean ‘literariotzat’ jotzen diren ‘jarduerak’ eta ‘harremanak’ izango dira garai horretako ‘literatura’” (Lopez Gaseni, 2000: 53). Beraz, kontzeptu dinamikoa izanik, garaiak berak esango digu zer den lan literario bat eta zer ez. Literatura hor egon bada ere, azterketa autonomoa berantiarragoa izan da.

Euskal literatura nahiko literatura gaztea da. XVI. mendean argitaratu zen euskarazko lehenengo liburua, eta, honenbestez, gurea bost mendetako historia duen literatura dela esan daiteke. Gainera, lehenengo mendetako literatura oso urria eta eliz gaiei oso lotua izan zen. Oro har, euskal literaturaren garapena ez da jarraia izan, eta gorabeherak izan ditu bost mende hauetan. Lurraldearen banaketa politikoa, dialektoen bereizketa,

gorabehera sozio-politiko eta erlijiosoak izan dira garapen zatikatu horren arrazoi nagusi. Bestalde, literatura ahula izanik, itzulpenek berebiziko garrantzia izan dute eta hemen aurkezten dugun historia hau horri loturik azalduko dugu.

XVI. mendean argitaratu zen lehen euskal liburua: Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545), Bordelen argitaratua. Behe-nafarreraz idatziriko liburu honek 1.159 bertso-lerro biltzen ditu, 16 olerkitan banaturik, eta gai ezberdinak jorratu, hala nola erlijioa, amodioa, kartzelako autorearen autobiografia eta euskara.

Mende hartan bertan, Joanes Leizarragak hiru itzulpen eman zituen argitara, hirurak ere La Rochellen, 1571ean: *Jesus Christ Gure launaren Testament Berria*, Joana Albretekoa Nafarroako Erreginaren aginduz itzuliriko testamentu kalvinista, eta, horrekin batera, *ABC* eta *Kalendrer*a opuskuluak. Aipaturiko Testamentu berria izan zen euskarara itzuliriko lehen liburua, baina horretaz gain, euskaraz argitaraturiko bigarren liburua ere bazen. Euskara idatziak inolako tradiziorik ez zuenez, hizkuntza literarioa sortzen saiatu zen Leizarraga, eta horretarako behe-nafarrera eta zubereraz zipriztinduriko lapurtera baliatu zuen.

Oihenartek XVII. mendean jakitera eman zuenez, XVI. mendean, literatur konposizio gehiago ere izan ziren Iparraldean beste hainbat idazleren eskutik, baina haien testigantzarik ez da gorde.

Beste hiru lan ere argitaratu ziren Hegoaldean euskaraz eta gaztelaniaz mende hartan: Sancho de Elsoen kristau ikasbidea, *Doctrina Christiana y pasto espiritual del alma para los que tienen cargo de almas y para todos estados, en Castellano y Vasconce* (Iruñea, 1561); *Refranes y Sentencias comunes en Basconce, declaradas en Romance con numeros sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas* (Iruñea, 1596), egile ezezagunarena, eta Betolaça doktoreak eginiko Jerónimo Ripaldaren kristau-ikasbidearen itzulpena, *Doctrina Christiana en Romance y Basconce* (Bilbao, 1596).

Juan Perez Lazarragak 1564 eta 1567 urteen artean eginiko eskuizkribu aurkitu-berria ere badugu mende horren lekuko. Bertan euskaraz idatzitako bertso, kanta, maitasun-kontuak eta kontakizun mitologiko bat bildu zituen idazleak.

XVII. mendearen lehen erdian, Euskal Herri osoan frantsesez, gaztelaniaz zein latinez idatziriko lanetan, euskal testuak txertatzen jarraitu zuten. Errefrau bildumak ere eginez jarraitu zen, Europako beste hainbat tokitan bezala.

Mende horretan bertan, euskal literaturak ordura arte ezagutu ez zuen loraldia izan zuen, eta Lapurdi izan zen literatur mugimendu horren lekuko nagusi. Loraldi hori egoera ekonomikoak izandako susperraldiarekin lotuta dago.

XVII. mendearen hastapenetan, mugak banaturiko bi lurraldeetako aldeak nabarmendu egin ziren. Iparraldean, euskaraz idatziriko liburu kopuruak gorakada labur baina garrantzitsua izan zuen. Hegoaldean, berriz, erlijio irakatsi elebidunak argitaratu ziren nagusiki. Erlijio liburu horiek euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu ziren, hegoaldeko probintzietan Inkisizioaren kontrol ideologikoa medio.

Iparraldeko loraldia Donibane Lohitzune eta Sara inguruan sortu zen, eta literatura erlijiosoa landu zuten bertako idazleek. Materre, Etxeberri Ziburukoa, Tartas eta Axular ditugu mugimendu horretako idazle nabarmenenak. Garaiko lanik garrantzitsuena Axularren *Gero* (1643) dugu; idazlearen lan bakarra izan zen eta euskal literatura klasikoaren eredu da.

Idazle multzo hartan Oihenart ere kokatu behar dugu, baina idazle horrek leku berezia hartzen du gainontzekoen artean. Apaiza ez zen lehen idazlea izan zen euskal letretan. Bere lanen artean, nabarmentzekoa da 1657an argitara eman zuen *Atsotitzak eta Neurtitzak*. Liburua bi ataletan banaturik dago; lehenengoan, esaera zaharren bilduma bat osatu zuen, eta, bigarrenean, bere olerkiak argitaratu zituen. Olerki horiek amodiozkoak dira nagusiki, eta, neurriari dagokionez, garaiko Europako poesia “bere” egin zuen.

XVII. eta XVIII. mendeetan zehar, euskarara eginiko itzulpenak ugaltu egin ziren erlijio katolikoaren kontraerreformaren ondorioz. Garai hartan, euskarara gehien itzuliriko lana *Kristoren imitazioa* izan zen, Thomas de Kempisena. Erlijio lanen artean, Bibliaren itzulpena, katiximak, debozioneak, eta abar aurki ditzakegu.

XVII. mendearen amaiera aldera, erlijio testuen itzulpenaz gain, ipuin eta fabula klasiko zein neoklasikoen itzulpenak ere garrantzia hartu zuen.

XVIII. mendean, Larramendi dugu euskal letren eta kulturaren bultzatzaile nagusia. Larramendi euskararen defendatzaile sutsutzat hartu izan da. Hizkuntza beraren prestigioa hobetzeko lan egin zuen. Euskara kultura-hizkuntza bihurtzea zen bere asmoa, eta euskal idazle asko bultzatu eta babestu zituen. Horiek guztiek osatu zuten Larramendiren Eskola deiturikoa.

Larramendik bere lana gaztelaniaz idatzi zuen nagusiki, eta, horren bitartez, Espainiar estatu guztian zehar egin zen ezagun. Euskararen defentsa eta apologia argitaratu zuen 1728an Salamancan, *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas, demostración previa al Arte que se dará a luz desta lengua* izenburupean. Urtebete beranduago, *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada* argitaratu zuen, lehen euskal gramatika. Bere lanik nabarmenena *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín* izan zen; lehen euskal hiztegia, bi liburukitan banatua eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaz argitaratua.

Larramendiren garaitik aurrera, Hegoaldean euskara idatziak ordura arte izan ez zuen begirunea lortu zuen. Aurreko mendean euskal literaturaren

mugimendu nagusia Iparraldean bazegoen, Hegoaldean ere pixkanaka indartzen hasi zen mende hartan zehar. Apologisten jarrerarekin, kanpora begirako lana indartu zen, baina euskaraz oso gutxi argitaratu zuten; gaztelaniaz idatzi zuten euren lana euskarari buruz, baina ez zuten euskararen beraren garapena landu.

XIX. mendean, literatur sorkuntza nabarmen indartu zen, eta mende horretako ekoizpenak aurrekoetakoa gainditu zuen. Mende horretan idazle kopuru zabalaren lanak argitaratu ziren, horietariko hainbat Larramendiren jarraitzaile izan zirenen eskutik.

Euskararen inguruan hainbat ikerketa egin ziren mende horretan, horietariko gehienak Europa aldetik etorritako ikertzaileen eskutik. Horien artean, aipatzekoak dira Wilhelm von Humboldt filologo alemana, Luis Lucien Bonaparte eta Hugo Schuchardt ikertzaileak. Ikerketa lan horietan itzulpenak ere garrantzia izan zuen. Luis-Lucien Bonaparte printzearen helburu nagusia euskalkien eremu geografikoa finkatzea izan zen. Mezenas baten moduan patrozinatutako itzulpen programa bat jarri zuen martxan horretarako. Euskalki ezberdinetako idazle bana harturik, Biblia euskalki ezberdinetara itzularazi zuen. Biblia lapurterara itzuli zuen Jean Pierre Duvoisin kapitaina izan zen Bonaparteren taldeko itzultzaile garrantzitsuena.

Ikerketaz gain herri kontagintza eta olerki bildumak ere han-hemenka argitaratu ziren, itzulita, hala nola Jean-François Cerquand-ek *Légendes et récits populaires du Pays Basque* argitaratu zuen, 1875ean, eta Wentworth Webster-ek *Basque Legends collected chiefly in the Labourd*, 1883an.

Laburbilduz, esan daiteke XIX. mendean euskal hizkuntzalaritza, literatura eta etnologiaren inguruko ikerkuntzek garrantzia handia izan zutela.

Erromantizismo garaian, poesia herrikoi ugari sortu zen, eta aldi honetako idazlerik aipagarrienak Etxahun eta Elizanburu ditugu Iparraldean, eta Iparragirre eta Bilintx Hegoaldean.

Bestalde, Frantzia III. Errepublika aldarrikatu ondoren, Iparraldean erlijio gaiak gutxituz joan ziren XIX. mende bukaeran eta XX. mendearen hasieran, eta, itzulpengintzari dagokionez, ideia liberalen kontrako lanen itzulpenak ugaltu egin ziren.

Literatur ekoizpenari dagokionez, XIX. mendearen bigarren erditik aurrera, Euskal Herrian izan ziren aldaketa juridiko, politiko, ekonomiko zein kulturalen kariatara, literatur sorkuntza ugaltu egin zen, eta mendearen amaiera aldera euskal literaturak pizkundea ezagutu zuen. Antoine D'Abbadiek lore-jokoak izeneko kultur topaketak antolatzeari ekin zion Iparraldean lehendabizi eta baita Hegoaldean ere beranduago. Lore Joko edo Euskal Jai horiek euskal olerkigintza eta narraziogintza garatzea ahalbidetu zuten. Arrakastatsuak izan ziren, eta mugaren bi aldeetako harremanak hobetzeko balio izan zuten.



Garai hartakoa dugu Jean Baptiste Dasconaguerrek argitaratu zuen *Les Echos du pas de Roland* (1867), lehen euskal nobelatzat jo izan dena. Euskaratik autoitzuliriko eleberri modura aurkeztu zen lan hura frantsesez, nahiz eta beranduago jakin den sasi-itzulpena dela<sup>10</sup>. Oso interesgarria da aztertzea “lehen euskal eleberri” hori nola jaso edo baztertu den euskal literaturaren historia eta azalpen ezberdinetan.

1876an, Bigarren Karlismaldia amaituta, Euskal Foruak kendu zituzten eta herritarrak eraso horren aurrean Euskal Herriaren historiaz, kulturaz eta hizkuntzaz arduratzen hasi ziren, eta, literatur arloan, lan ugari egin zen. Hainbat eta hainbat aldizkari sortu ziren Euskal Herri guztian zehar. Besteak beste, 1877an, “Asociación Euskara de Navarra” sortu zen Iruñean, eta bertako kideek “Euskara” aldizkaria sortu zuten. Gasteizen, “Revista de las Provincias Eúscaras” argitaratzen hasi ziren. Gipuzkoan, Jose Manterolak *Euskal-Erria* aldizkaria argitaratzeari ekin zion, 1880an.

Euskal pizkunde garaian, 1876-1936 urtealdian, hitz egin daiteke lehen aldiz euskal literatura batez *sensu stricto*. Ikus daitekeenez, hortaz, euskal nobelaren sorkuntza oso berantiarra izan da, XIX. mendearen hondarrean sortu baitzen Txomin Agirrearen eskutik. 1898an, *Auñemendiko Lorea* eman zuen argitara. Agirrek ohiturazko eleberria landu zuen, batik bat, eta garaioko lan eredugarriak idatzi zituen, hala nola *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912). Euskal literaturaren pizkunde hark 36ko gerrara arte iraun zuen. Urte hartara arte, 300 liburuk osatzen zuten euskal literatura.

Iparraldean, mugimendua egon bazegoen, baina askoz ere dinamikoagoa izan zen Hegoaldean. Hegoaldean, elkarte eta kultur talde ugari izan zen, eta aldizkari berri asko ere sortu zen, aurrez aipatu dugun moduan. Mendearen hasieran, Sabino Arana-Goiri eta Resurrección Maria Azkue izan ziren euskal letren pertsonaia eraginkorrenak.

Hiru korrante nagusi izan ziren pizkunde garai hartan: itzultzaile herrikoiak, Azkue eta bere jarraitzaileak, eta Aranaren jarraitzaile puristak. Aho hizkuntza literatur prosaren mailaraino jaso zuten itzultzaile herrikoiek. Bestetik, Azkuek eta bere jarraitzaileek tradiziozko euskara eredu hartuta idazten zuten. Arana eta bere jarraitzaileak, aldiz, oso garbizaleak ziren; hitz berriak sortzen zituzten eta tradizioa zutenak baztertu, jatorria kanpoko hizkuntzetan izateagatik. Mende aldatetarekin, gai berriak etorri ziren eta literaturaren inguruko interesa pizten hasi zen gizartean.

Poesiaren alorrean, XX. mendera arte nagusi izan ziren Lore Jokoetara aurkeztzen ziren bertsoak. Baina, mende hasieran, hainbat poeta garrantzitsuk –besteak beste, Orixek, Lauaxetak eta Lizardik– aldaketa nabarmena eman

<sup>10</sup> Euskarazko bertsioa 1870ean argitaratu zen, *Atheka gaitzeko oihartzunak* izenburupean. Lan honen itzulpen prozesua oso konplexua da, uste izan dena baino gehiago. Liburu honen eta bere itzulpenaren inguruko informazio zabala eskaini du Ibon Uribarrik 2011ko *Autotraduction: Frontières de la langue et de la culture* kongresuan (Perpignan), “Pseudo-autotraducciones. Un caso en los orígenes de la novela en lengua vasca” izeneko aurkezpenean.

zioten generoari. Euskarari kultur hizkuntza izaera eman zioten, eta olerkigintza herri xeheak ulertzeko modukoa egitetik maila jasoago batetara eraman zuten, ordura arteko sorkuntza modernizatuz.

Itzulpengintzaren alorrean, Orixeren lan eskergea aipatu beharko genuke. Besteak beste, *El lazarillo de Tormes*, *Mirèio* olerki epikoa, edo erlijio gaiei loturiko San Agustinen *Aitorpenak* eta *Itun Berria* argitaratu zituen. Beste hainbat itzultzaile garrantzitsu ere izan zen garai horretan, hala nola Joseba Altuna edo Toribio Alzaga. *Tormesko itsu-mutilla*-ren itzulpenak erakusten du garai horretako jarrera anbigua itzulpenaren aurrean: idazle asko beldur zen itzulpena hizkuntza eta kultur kutsadura bide izan zitekeelako, eta horregatik neurritz erabiltzen zen batetik, eta erabiltzen zenean, xede kulturako helburuetara jarriz (kasu honetan modu erradikalean gainera, jatorrizkoa bera eraldatzeraino iritsiz).

Bestalde, XX. mendearen lehen urteetan, eskola elebidunak sortzen hasi ziren, eta apurka-apurka haur eta gazteentzako literatura ekoizteari ekin zitzaion.

Espainiako Gerra Zibilak euskal literatur pizkundea eten egin zuen, eta Bigarren Mundu Gerrak Iparraldean ere eragina izan zuen. Gerraren ondorengo urteetan, literatur ekoizpena oso urria izan zen. Gerra Zibilak Euskal Herria hondoa jota utzi zuenez, garai hartan literatura oso gutxi landu zen. Azpimarratzekoa da gerraondoko idazle gehienak ordena erlijiosoetako elizgizonak izan zirela, eta, beraz, nabarmena da gai erlijiosoen presentzia euren lanetan. Garaiko idazleen artean aurki ditzakegu Telesforo Monzon, Jokin Zaitegi, Salvatore Mitxelena, Nemesio Etxaniz eta beste. Gerra osteko lehen urteetan, literaturgintzaren zati garrantzitsu bat Euskal Herritik kanpo, erbestean egin zen. Aipagarriak dira Jokin Zaitegik eta Andima Ibiñagabeitiak erbestetik eginiko lana, klasikoen itzulpenean batik bat.

50. hamarkadaren amaiera aldera, kanpoko korronte literarioak sartzen hasi ziren Euskal Herrian, eta ideal politiko, erlijioso eta folklorikoei ordura arte eskaini zitzaien garrantzia gutxitzen hasi zen. Eleberrigintzan, adibidez, Txillardegik *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) argitaratu zuen, modernitatearen ateak irekiz euskal eleberrigintzari. Olerkigintzan, garaiko idazle nabarmenenak Gabriel Aresti eta Jon Mirande izan ziren; garaiko beste idazle batzuekin batera, euskal literatura modernizatu nahi izan zuten Europako korronte berriak gurera ekarriz. Arestik gai sozialei loturiko poesia garaikidea landu zuen bere lanetan. Garai hartan, produkzioa nahiko urria zen oraindik ere. Bi idazle horiek ongi biltzen dute gero ohikoa izan den idazle-itzultzaile izaera.

60. hamarkada erdialdetik aurrera, Francoren diktadura indarra galduz zihoan. Euskal Herrian aldaketa eta mugimendu garaia izan zen: garapen industrial eta ekonomikoa, sistema politikoaren aurkako jarduerak, ikastolen sendotzea, alfabetatze kanpainak, etab. Euskal letretan berebiziko garrantzia izan zuen 1968an Euskaltzaindiak Arantzazun Euskara batuaren oinarriak zehaztu izanak. Garai hartan, argitaletxe berriak ere sortu ziren, eta,

ondorioz, literatur produkzioak gora egin zuen. 1957 eta 1976 artean, eleberrri tipologia berriak euskal literatura aberastu zuen. Olerkigintzari dagokionez, 1975etik aurrera molde tradizionalak albo batera utzi eta nazioarteko abangardiari heltzeko lehen ahaleginak egin ziren argitalpen kolektiboen bidez, hala nola *Ustela*, *Pott* edo *Oh! Euzkadi* aldizkariaren bitartez. Garaiko idazle gazteek (Koldo Izagirre, Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, etab.) literaturaren autonomia aldarrikatzen zuten, literaturaz kanpoko xedeak baztertuz (hizkuntzaren normalkuntza edo eraikuntza nazionala, kasu).

Diktaduraren amaierak eta sistema politikoaren aldaketak ere nabarmen aldatu zuen euskal kulturagintza. Euskarak estatus ofiziala lortu zuen Hegoaldean eta, ondorioz, 80. hamarkadatik aurrera euskal literatur sistema sendotu egin da. Eleberrigintza jaun eta jabe bihurtu da azken urteetan helduentzako liburugintzan. Bestalde, ipuingintza literatur fenomeno berri modura indarra hartzen ari da genero autonomo gisa. Olerkigintzari dagokionez, euskal poesia askotarikoa da, eta nekez sartu ahal izango da talde edo mugimenduren baten barruan. Hala ere, genero horrek indarra galduko du azken urteotan euskal literaturaren baitan. Haur eta gazte literaturari dagokionez, 1982an Elebitasun dekretua onartu zen, eta, horren bitartez, ikastetxeetako euskarazko irakaskuntza arautu egin zen. Horrek euskal haur eta gazteentzako ekoizpena nabarmen hazi beharra esan nahi zuen. 70. hamarkada amaieran, argitaletxeak sortu ahala sektorea egituratzen hasi zen. Garai hartan, euskararen normalizazioa bermatzeko itzulpenak beharrezkoak izan ziren eta itzulpen kopurua jatorriz euskaraz idatzitakoena baino handiagoa zen.

70. zein 80. hamarkadetan euskaratutako lanak helduentzako zein haur eta gazteentzako literatur lanak izan ziren. Hezkuntzaren euskalduntzearen ondorioz, irakurketa eskaria gero eta handiagoa zen. Literatura itzuliak garrantzia handia hartu zuen une horretan, euskarazko ekoizpena ez baitzen merkatuaren beharrianetara egokitzeko beregaina. Lopez Gasenik dioenez, “itzulpen-kopuruaren igoerak, ordea, ez zuen itzulpenen kalitatea hobetu, kontrakoa baizik: itzultitako testuen eskariak gora egitean, itzultzaile kualifikatu gutxi egotearekin batera” (Lopez Gaseni, 2008). Ikertzailearen arabera, gainera, “testurik gehienak sorburu hizkuntzatzat gaztelaniazko bertsiok hartuta itzuli ziren” (*ibid.*).

1977. urtetik aurrera, itzulpengintzari loturiko hainbat hausnarketa eta egitasmo egiten hasi zen Euskal Herrian. Urte horretan bertan, itzulpen-teoriazko lehen ikastaldia egin zen Arantzazun, Liburu Sakratuak itzultzean aurkitzen ziren zailtasunei nola aurre egin jakiteko. Aurrerago, profesionalizazioa bultzatzeko hainbat saiakera egin zen: 1980an, Martuteneko itzultzaile eskola sortu zen; Deustuko Unibertsitatean (1990) eta Euskal Herriko Unibertsitatean (1991) itzulpen masterrak antolatu ziren, eta Itzulpengintza eta Interpretazio lizentziatura ere sortu zen EHUan aurrerago, 2000. urtean; 1987an, Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpretteen Elkarteak sortu zen, eta 1990eko hamarkadan Itzulpengintzako Euskadi Sariaren urteroko deialdia abiarazi zuen Eusko Jaurlaritzak. Ikus daitekeenez, euskara

instituzionalizatzearekin batera, itzulpena ere garrantzia hartzen joan zen. Horrek guztiak literaturaren eta itzulpenaren garapena bultzatu zuen.

80. hamarkada amaieratik aurrera “Literatura Unibertsala” eta “Pentsamenduaren Klasikoak” itzulpen programak abiarazi ziren. Urrats nabarmena izan zen patrozinioari dagokionez. Lehenengo proiektua Eusko Jaurlaritzak eta EIZIEk abiarazi zuten 1989an, eta literatura klasikoko 100 lan itzultzea zuen helburu. Helburu hori 2002. urtean bete zuten, eta, bildumaren harrera ona ikusirik, beste 50 liburu argitaratzeko hitzarmena sinatu zuten. Itzulpen proiektuak lehiaketa bidez banatzen dira, eta, egun, hainbat eta hainbat jatorrizko hizkuntza aurki daitezke zerrenda horretan: alemana, errusiera, frantsesa, ingelesa, italiera, poloniera, portugesa, eta beste<sup>11</sup>. 2010 urtean titulu zahar batzuk berrargitaratzeko eta bilduma beste 50 liburuarekin elikatzeko hitzarmena sinatu zen Jaurlaritzaren eta EIZIEren artean.

“Pentsamenduaren Klasikoak” proiektua 1991. urtean abiarazi zen, eta aurrekoaren antzeko helburua du: pentsamenduaren arloko klasikoak euskaraz ematea. Kasu horretan, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea izan ziren proiektuaren sustatzaileak, eta BBVA, Kutxa, Vital Kutxa zein BBKren laguntza jaso du. Proiektu horren bitartez, hainbat arlotako, garaitako eta herrialdeetako lanak euskaratu dira. 2010ean amaitu zen programa, 130 liburu inguru argitaratuta<sup>12</sup>.

Urte gutxian, beraz, kalitate handiko lanak itzuli dira euskarara, eta gure literaturak zuen ahuldadea murriztea lortu da. Azpimarratzekoa da horrelako proiektuak erakundeen bitartez gauzatu izana. Patrozinioren gabe, oso zaila izango zatekeen halako kalitatezko lanak hain denbora gutxian gurerara ekartzea. Kontuan izan behar da, baita ere, patrozinioak baldintzatu egin dezakeela, nolabait, zein lan, noiz eta zein hizkuntzatatik itzuliko den erabakitzerakoan. Gurean, helburu nagusia euskararen bilakaera sustatzea eta bere prestigioa areagotzea izanik, mendebaldeko lan kanonikoak itzuli dira batez ere programa horien barne.

Azken urteetan euskal literatur sistema egonkortze bidean jarri da. Inoizko idazle kopururik altuena daukagu egun eta askotarikoak dira idazle horien profilak. Profesionalizazioa ere posible izan da hainbat kasutan, nahiz eta oraindik ere, oso idazle gutxi izan literaturatik soilik bizi direnak. Ekoizpen datuak euskal literaturaren garapenaren erakusgarri izan daitezke. “1876-1975 bitartean, urtean 31,5 liburu argitaratzen bazen, 1976-1994 bitartean, kopuru hori 659,2 liburura igo zen. Horretaz gain, 1999an, 1.523 liburu argitaratu zirela ikus dezakegu” (Olaziregi, 2000b: 15). Azken urteetan, beraz, euskal liburugintza inoizko kopuru handiena ekoizten ari da.

<sup>11</sup> Honako orrian kontsulta daiteke aipatu bilduman orain arte argitaratu diren liburuen zerrenda: [http://www.eizie.org/Argitalpenak/Literatura\\_Unibertsala/OrainArte](http://www.eizie.org/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala/OrainArte).

<sup>12</sup> Honako orri honetan kontsulta daiteke bildumako liburu zerrenda osoa: <http://www.ehu.es/ehg/klasikoak/>.

Argi dago euskarara egindako itzulpenek izan dutela eragina euskal literaturaren garapenean (ikusi Gaseni 2000 HGLri dagokionez). Generoen arabera, gaur egun helduen literatura da itzulpen gutxien jasotzen duena – 2003. urtean, %23’8– eta haur eta gazte literatura, berriz, gehien jasotzen duena –%52– (Torrealdei, 2005: 32-35). Haur eta gazte literaturaren barruan, gainera, “itzulitako literaturak guztizko produkzioaren bi herenak gainditzen ditu”, Lopez Gaseniren arabera (2008). Hori ikusirik, Even-Zoharrek aipatzen duen sistemaren estratifikazioa hartu behar dugu kontuan. Hau da, sistemaren barruan kokatzen diren estrato ezberdinek –generoek, kasu honetan– ez dute modu berean funtzionatzen eta, hori horrela izanik, genero batzuetan (HGL, oraingoan) onargarriztat jotzen dena, beste batzuetan ez da hala suertatuko. Bestalde, haur eta gazte literaturaren arloan, Espainiako hizkuntzetako hainbat argitaletxek estatuko hizkuntzen arteko itzulpenak bultzatu eta argitaratu dituzte elkarren arteko hitzarmenei esker. Genero horri dagokionez, beraz, euskaratik itzulpenak egiterakoan estatu mailako sistemak eragin ikaragarria dauka. Bestetik, gurearen moduko sistema ahuletan ohikoa izaten den arren itzulpenak literatur sistemaren erdigunean egotea, Alonsok (2010: 137) dioenez, itzulpenek leku urria dute irakaskuntza sistemako irakurgaiaren artean. Badirudi sistema ahula sustatzeko erreakzio moduko batek helduentzako jatorrizko literatura hobesten duela.

Horretaz gain, euskaratik eta euskarara eginiko itzulpenen arteko aldea nabarmena da. Index Translationumen begiratu gero, euskara jatorrizko modura agertzen diren 808 kasu aurkitu ditugu; eta, alderantzizko norabidean, berriz, 3.391 itzulpen<sup>13</sup>. Beraz, euskarara eginiko itzulpen kopuru zabalaren aldean, euskaratik eginiko itzulpen kopurua murriztagoa da.

Produkzioa hazi eta literatur sistema egonkortze bidean delarik, azken urteetan, gero eta garrantzi handiagoa eskaini zaie kanporako itzulpenari euskal literatur sisteman. Aurrez “Literatura Unibertsala” eta “Pentsamenduaren Klasikoak” programen bitartez beste herrialde batzuetako lanak euskaratzea bazuten xede, azken urteetan, euskaratik kanporatzeko diru-laguntzak ere ematen hasi dira. Kasu honetan, gurea besteei ezagutaraztea da helburu nagusi. Erakunde publikoen patrozinioa alderantzizko norabidean eginez, gure kultura eta gure hizkuntza kanpoan ezagutarazi nahi dira, horien prestigioa hobetzeko.

Euskaratik beste hizkuntza batzuetarako itzulpen norabideari dagokionez, produkzioak guztiz baldintzatzen duela izan behar dugu kontuan. Euskaratik beste hizkuntza batzuetara eginiko itzulpenen kasua oso fenomeno berria dela esan daiteke. XX. mende hasieran, frantsesera edo gaztelaniara eginiko itzulpenen bat edo beste topa dezakegu, baina kasu bakanak dira horiek. Fenomeno modura oso berria da, eta, esan daiteke, 80. hamarkada hasiera arte ez dela ia batere izan. Fenomeno gaztea izanik, nahiko gutxi aztertu da orain arte. Zer itzuli den jakiteko eman beharreko lehen urratsa errealitate

<sup>13</sup> 2010eko abuztuaren 3an eginiko kontsultaren araberrako datuak.

horren katalogazioa da. Aurrerago (5. atalean) helduko diogu gaiari gure katalogoa oinarri harturik.

Produkzioa handitzen doan heinean, tradizio bat sortzen da, eta, horren barnean, kanonizazio prozesuak ere badira. Hainbat kasutan, kanonizazio prozesuak liburuak kanpora esportatzea ahalbidetzen du, eta, modu horretan, irakurle kopuru handi batengana heltzea. Beste batzutan, ordea, liburuak euskaratik kanporatu eta gero kanonizatzen dira euskal literatur sisteman. Hau da, itzulpenek kanonizazio prozesuan eragiten dute. Kanonizazioa, beraz, kanpotik dator, hizkuntza “nagusiago” batetatik. Hor ikus daiteke, euskal literatura ez dela beregaina eta sistema, nolabait, konplexua dela. Literatur sariketek ere kanonizazio prozesu horretan zerikusia badute, kanonizazio bide bat izan daitezke —bai bertako sariketak eta baita kanpokoak ere—. Sariketa horien artean, Atxagari eman zioten Narratiba Sari Nazionala (*Obabakoak* liburuagatik) oso garrantzitsua izan zen. “L’obtention, en 1989, du Prix National de Littérature d’Espagne par *Obabakoak* marque un véritable rupture tant dans la carrière littéraire personnelle de B.Atxaga que dans l’histoire du champ littéraire basque” (Apalategi, 2000: 227). Horren eskutik, hizkuntza ezberdinetarako itzulpenak egin ziren; honenbestez, ez zen Atxagaren lana soilik zabaldu, baita euskal literatura ere. Eta ez Europako hizkuntzetara eta mundu zabalera soilik, baita Espainiar estatura ere (Olaziregi, 2001). Ordura arte, Espainia mailan euskal literatura guztiz ezezaguna baitzen. *Obabakoak* liburuaren ondoren, itzulpenak ugaritu egin ziren; ez bakarrik literatur lanak, baita euskal literaturari buruzko lanak ere.

Euskaratik beste hizkuntza batzuetarako itzulpenean, hortaz, sistemaren konplexutasunak eraginen bat izango du, eta, horretan, nabarmenak izango dira autoitzulpena eta zeharkako itzulpena bezalako fenomenoak. Euskal hizkuntzatik haratago joan nahi izanez gero eta bere burua kanpoan ezagutzera eman, hizkuntza guztietara ez da berdin aterako. Bigarren hizkuntza dugun heinean, gaztelania eskura dugu, eta hizkuntza horretara itzuliko dugu lehenengo. Ondoren, besteetara itzuliko da, eta, hipotesi modura, zera esan genezake: beste hizkuntza batzuetarako bidea gaztelaniaren bitartekaritzaren bidez egingo dela. Gaztelaniaratze prozesuan ere, egile-itzultzailearen figura aipatu beharrekoa da. Egile izateak itzultzaile izatea ere ekartzen du, euskara bezalako hizkuntza txikietan; diglosiaren eragin zuzena dela esan genezake. Euskal idazlea idazle eta itzultzaile da. Eta, honenbestez, autoitzultzaile modura sortzaile dira hizkuntza nagusian, hau da, bi hizkuntzetan sortzaile.



**3**



# alderdi teorikoa

---

Atal honetan, tesiaren alderdi teorikoa zehaztuko dugu. Lehenengo eta behin, gure ikerketa Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileen barruan kokatu ondoren, diziplinaren historia errebasatuko dugu: non eta noiz sortu zen eta zein garapen izan duen azken urteetan. Besteak beste, arreta berezia emango diogu azken urteetan diziplinak kulturarentz egin duen birari (cultural turn).

Atalaren bigarren zatian euskal letretan itzulpengintzaren alorrean zer ikertu den ikusiko dugu eta oraindik ere jorrazteko dauden alderdiak ere nabarmenduko ditugu.

Gure ikergaiari hertsiki loturiko hiru kontzepturen alderdi teorikoari begiratuko diogu ondoren. Batetik, autoitzulpena zer den eta itzulpen alografoekin alderaturik zein bereizgarri dituen ikusiko dugu. Bestetik, kolaborazioaren bereizgarriak ere aztertuko ditugu. Eta, azkenik, zeharkako itzulpena zertan datzan zehaztuko dugu eta zer nolako presentzia izaten duen euskarazkoaren moduko hizkuntza gutxituen literaturetan.

## **3.1 ITZULPEN IKASKETA DESKRIBATZAILEAK**

Itzulpen Ikasketak itzulpenak eta itzulpen prozesua aztertzen dituen diziplina zientifikoa da. Diziplina nahiko gaztea da, 1970eko hamarkadan jaio baitzen bi gizarte kulturantz: Israelen eta Herbeheretan. Ordura arte, hainbat saiakera izan zen itzulpenak beste diziplina batzuetan ikertzeko,

literatura konparatuan eta hizkuntzalaritzan kasu. Itzulpen ikasketak diziplina ezberdinen artean kokatzen dira, eta, beraz, diziplinen arteko zientzia dela esan daiteke. Baina, itzulpenak dituen ikergai, diziplina beregaina da.

James S. Holmes izan zen diziplinari izena eman ziona; 1972an aurkeztu zuen “The Name and Nature of Translation Studies” artikulua, eta, ondoren, 1988. urtean, argitaratu. Itzulpen ikasketak hiru zatitan banatu zituen: alderdi deskriptiboa, alderdi teorikoa eta alderdi aplikatua. Bakoitzak bere helburu jakinak izan arren eta aplikazio eremu propioa, Holmes-en hitzetan, hirurek elkarrenganako eragina nahitaezkoa dute: “the relation is a dialectical one, with each of the three branches supplying materials for the other two and making use of the findings which they in turn provide it” (Holmes, 1988: 183). Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileek orain arte eginak dauden itzulpenak aztertzen dituzte, eta hiru motatakoak izan daitezke azterketa horiek: produktura bideratuak, produktua bera aztertzen dutenak; funtziora bideratuak, itzulpenek betetzen dituzten funtzioak aztertzen dituztenak, eta prozesura bideratuak, hots, itzulpen prozesua aztertzen dutenak. Itzulpen ikasketa teoriko orokorrak diziplina bera hartzen du bere barne eta teoria espezifikoak muga batzuk ezarri ateratzen dira. Muga horiek hainbat elementuren arabera izan daitezke: bitartekoa, hizkuntza edo kultura, maila, testu mota, denbora eta arazo mota. Azkenik, aplikatutako itzulpen ikasketen barruan, honakoak sailkatu zituen Holmesek: itzultzaileen prestakuntza, itzulpenak egiteko laguntza materiala, itzultzeko irizpideak eta itzulpen politikak.

Itamar Even-Zohar israeldarrak ikuspegi osagarri bat aurkeztu zuen itzulpenen errealitatea polisistemen teoriaren bitartez aztertuz. Ikertzaile israeldarraren arabera, kultura polisistema bat da, eta, polisistema, elkarrenganean dabilzan azpi-sistemek (literatura, ekonomia, politika, etab.) osatzen duten sistema. Sistema horiek hierarkia baten arabera mailakaturik daude, baina hierarkia hori ez da egonkorra, dinamikoa baizik. Azpi-sistema zirkulu baten modura irudikatuz gero, elementu garrantzitsuak erdialdean kokaturik egongo dira, eta garrantzia gutxien dutenak, kanpoaldean. Sistema horien kokagunea denboraren, lekuaren, gizartearen eta beste hainbat eragileren menpe egongo da.

Even-Zoharrek polisistema modura planteatzen du literatura, eta, literatura itzulua, polisistema horren elementu gisa. Ordura arte egin ez zen bezala, Even-Zoharrek itzulpenak literatur polisisteman duen funtzioa eta garrantzia azpimarratzen eta aldarrikatzen ditu. Literatura itzulua polisistemaren erdialdetik gertuago edo urrutiago egongo da, herrialdearen, momentuaren, generoaren edo beste faktore batzuen arabera. Literatura gaztea bada, eta itzulitako edo kanpotik inportatutako lanek indar handia badute literatura horren garapenean, literatura itzulua, momentu eta polisistema horretan, erdialdetik hurbil egongo da; aldiz, literatura indartsu batean, jatorrizko lan asko argitaratzen badira eta literatura horrek ez badu itzulitako lanen beharrik, itzulpen horiek polisistemaren kanpoaldetik oso hurbil egongo dira. Literatura indartsuetan osagai berritzaileak sartzen

badira, horiek, batzuetan, ez dute inolako onarpenik izango, indarrean dagoen kanonarekin bateragarriak ez direlako; beste batzuetan, sistema krisian edo agortuta egonez gero, bidea egiteko modua izango dute, eta sistemaren erdiraino iritsiko dira, ordura arteko kanonizazio irizpideak aldatuz.

Even-Zoharren polisistemen teoria ez da zurrunki estatu-nazioei edo literatur sistema nazionaleri loturik ulertu behar. Malgutasunez aplika daitekeen tresna metodologikoa da, eta horregatik baliogarri deritzogu gure ikergaia aztertzeko.

Also, 'system' does not have to mean, say, 'Italian literature' or 'postwar French cinema', but can refer to the poetry scene in *fin de siècle* Berlin, the multilingual culture of colonial North Africa, intellectual life in Beijing's Forbidden City during the Ming dynasty, or public oratory in Ancient Rome. The unit of investigation can be large or small, from the Petrarchan love sonnet in Renaissance Venice to the interdependent art scenes of the Western hemisphere today. This is worth pointing out because very often, even in Even-Zohar's own work, the idea of a (poly)system is simply equated with a national literature or culture. It is more flexible than that (Hermans, 1999: 108).

Polisistemen teoria euskaratik erdaretarako itzulpenetan aplikatuko dugu, gure ama hizkuntzako sistema hartuz abiapuntu<sup>14</sup>.

Gideon Touryren ekarpenak berebiziko garrantzia izan zuen eta aurrerapauso handia eman zion diziplinari. Ordura arteko bere ekarpena biltzen duen *Descriptive Translation Studies and Beyond* (1995)<sup>15</sup> liburuan, itzulpenak aztertzeko ikuspegi deskribatzaile eta sistemikoa eman zuen Touryk, polisistemen teoriaran oinarriturik, eta Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak diziplinaren erdigunean kokatu zituen. Marko metodologikoa berria proposatu zuen Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak garatzeko:

Los EDT son sin duda una potente metodología que ha permitido secuenciar los distintos pasos de la investigación básica en Estudios de Traducción. Las distintas fases que van desde la selección de textos y construcción del corpus al análisis de datos, hasta la formulación de normas de distinto tipo y nivel, siguen los protocolos lógicos que aseguran la fiabilidad de los resultados que se obtengan a partir de un estudio así planificado (Rabadán-Merino, 2004: 21).

<sup>14</sup> Even-Zoharren teoria Manu Lopez Gasenik bere doktore-tesian aplikatu zuen lehenengoz euskarari loturik. Metodologia hori HGL itzulia aztertzeko erabili zuen. Guk kontrako norabidean aplikatuko dugu metodologia hori hemen.

<sup>15</sup> Gaztelaniazko itzulpena 2004an argitaratu zen, *Los estudios descriptivos de traducción y más allá. Metodología de la investigación en Estudios de Traducción* izenburuarekin. Rosa Rabadán eta Raquel Merino dira itzultzaileak eta argitalpenaren arduradunak.

Liburuan agertzen den metodologiari jarraiki, ikerketaren lehen urratsa datu-bilketa egitea eta horiek katalogo batean antolatzea da. Katalogo horretan, datu bibliografikoak bilduko ditu ikertzaileak; gure kasuan, euskaratik itzuliriko literatur liburuak jasoko dira bertan. Hurrengo atalean, katalogotik abiatu, testu corpus murriztagoa osatuko dugu arrazoizko aukeraketa irizpide batzuei jarraiki, gure ikerketa-xedearen errepresentagarri izango direnak. Ikerketaren azken urratsean, xede testuak jatorrizkoarekin alderatuko ditugu.

Gure lanak Touryren metodologiari jarraitzen dio; lan honek, hortaz, jarrera deskriptiboa eta enpirikoa du. Katalogazio bidez jaso ditugu itzulpenak, eta corpusa osatu dugu horiekin. Ebidentzia enpirikoa bildu dugu, gero ikerketak egin ahal izateko. Gure alderaketa testuala, beraz, testu errealean oinarrituko da. Gure katalogoaren azterketa itzulpen joera ohikoenak identifikatu eta errealitatea islatzeko lehen urratsa izango da:

El análisis de la información que contiene un inventario o catálogo concreto (...) llevará a constatar una serie de comportamientos o fenómenos empíricos recurrentes. De ahí se pasa a aislar una serie de regularidades que, una vez explicadas, se formularán como normas de comportamiento traductor para ese periodo, producción o tipo concreto (Rabadán-Merino, 2004: 24).

Gideon Touryk deskripzioaz haratago iritsi nahi du, eta, bere liburuan, kultura bateko ekintza guztiak arauen bidez erregulatzen direla diosku. Itzulpena, kultur jarduera den heinean, arau jakinek erregulatzen dute. Guk ere, ikerlan honetan, deskripzioaz haratago iristeko asmoa dugu eta euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzean itzulpen arauak zeintzuk izan diren identifikatzea dugu helburu.

Gizartearen zati diren heinean, gizarte horretan indarrean dauden arauak present izango dituzte itzultzaileek: horien arabera egingo dute lan eta beraien jarduera baldintzatuko dute. “Inasmuch as a norm is really active and effective, one can therefore distinguish regularity of behaviour in recurrent situations of the same type, which would render regularities a main source for any study of norms as well” (Toury, 1978: 199-200).

Touryk arauak hiru multzo nagusitan banatzen ditu: alde aurreko arauak (“preliminary norms”), hau da, itzulpena egin aurretik egiten diren hautuak; jarduerazko arauak (“operational norms”), hots, itzulpen prozesuan itzultzaileak hartzen dituen erabakiak, eta hasierako arauak (“initial norms”), hau da, itzultzailearen erabaki nagusia zein motatakoa izango den argituko dutenak.

Aldez aurreko araei dagokienez (“preliminary norms”), bi faktore izaten dira kontuan: “those regarding the existence and actual nature of a definite translation policy, and those related to the directness of translation” (Toury, 1995: 58). Une jakin batean, gizarte jakin batean, zer, nola itzuliko den zehazten dute alde aurreko arauak. Gure kasuan, zuzeneko eta zeharkako

itzulpenen erabilera aztertuko dugu, euskal literatura itzultzean araurik egon ba ote dagoen identifikatzeko asmoz.

Jarduerazko arauak (“operational norms”) bi motatakoak izan daitezke: matrizialak eta linguistiko-testualak. Lehenengoak erabaki makroestruturalen inguruko arauak dira, testuaren egiturari eta antolaketari dagozkionak; bigarrenak maila mikroestruturalean kokatzen dira, eta testu mailan aurki daitezkeen fenomenoez arduratzen dira. Gure ikerlanean bi maila horiek aztertuko ditugu.

Hasierako arauen bitartez (“initial norms”), itzulpenaren joera orokorra zein izan den ikusi ahal izango dugu. Lopez Gasenik aipatzen duen moduan, “xede sistemako arau eta harremanetara moldatzeko joera erakusten badu, onargarritasunaz (‘acceptability’) hitz egin behar dugu; joera sorburu-sistemari begirakoak badira, berriz, egokitasunaren (‘adequation’) aurrean egongo gara” (Lopez Gaseni, 2009: 5). Itzulpen batek sorburu hizkuntzaren arauak errespetatzen baditu, itzulpen hori egokia izango da; aldiz, itzulpen bat xede hizkuntzako arauetara egokitzen denean, itzulpen horrek onargarritasuna izango du ardatz. Bi mutur horien arteko lerroak erreferentzia sistema gisa balio du tarte horretako punturen batean kokatzeko itzulpen bakoitza.

Touryk proposaturiko onargarritasun eta egokitasun nozioak Venutik 1995ean emaniko etxekotze (“domestication”) eta atzerritartze (“foreignization”) zantzuekin lotuta daude. Venutik etxekotzea honela definitzen du: “an ethnocentric reduction of the foreign text to target-language cultural values” (Venuti, 1995: 20). Estrategia horren bitartez, irakurlea itzulpen baten aurrean dagoela ez ohartzea lortu nahi izaten da, eta, horrela, Venutik dioten moduan, “the invisibility of the translator” lortu. Atzerritartze prozesuak, berriz, honakoa darama bere baitan: “an ethnodeviant pressure on [target-language cultural] values to register the linguistic and cultural difference of the foreign text, sending the reader abroad” (Venuti, 1995: 20).

Touryren arabera, ordura arte baliokidetzari buruz zeuden eztabaidak guztiz antzuak ziren, eta kontzeptu horri zentzu berri bat ematen dio, dinamikoa eta historikoa, arauen ideia erabiliz. “It is norms that determine the (type and extent of) equivalence manifested by actual translations” (Toury, 1995: 61). Arauak une eta testuinguru jakinetan egoten dira indarrean, eta ez dira baliokidetzaren ohiko nozioa bezain estatikoak. “Rather than being a single relationship, denoting a recurring type of invariant, it comes to refer to any relation which is found to have characterized translation under a specified set of circumstances” (Toury, 1995: 61). Euskaratik itzultzean norabide horretan indarrean dauden arauak aztertzea dugu helburu lan honetan.

Touryren arabera, itzulpen arauak bi iturritatik identifika ditzake ikertzaileak: “‘from the examination of texts, the products of norm-governed activity’ (...) [and] ‘from the explicit statements made about norms by

translators, publishers, reviewers and other participants in the translation act” (Munday, 2001: 113). Honenbestez, testuinguruaren azterketa ere egin beharra dauka ikertzaileak testuen azterketaz gain. “Según los planteamientos de los EDT, sería irrelevante centrarse en aspectos meramente textuales y dejar de lado toda la información paratextual que nos permita una adecuada descripción de las traducciones” (Bandín, 2007: 22). Beraz, ikerlan honetan ere, corpusa zehaztu ondoren, testuingurua eta paratestuak kontuan izango ditugu, testu soilez gain.

Paratestuei dagokienez, Gerard Genette izango dugu erreferentzia nagusi. Honela definitzen du transtestualitatea Gerard Genettek: “all that sets the text in a relationship, whether obvious or concealed, with other texts” (Genette, 1997: 1). Bost modutara sailka daiteke testu batek beste batekiko edo beste batzuekiko duen harremana: intertestualitatea, paratestualitatea, metatestualitatea, hipertestualitatea eta artxitestualitatea. Genetten arabera, paratestualitatea testu batek bere periferian dauden beste testu batzuekin mantentzen duen harremana da. Genetten paratestuen definizio horretatik abiatuz, ikerlan honetan itzulpenaren inguruko paratestuak aztertuko ditugu, bai liburuetan bertan aurkitzen diren datuak (peritestuak) bai beste hainbat iturritako datuak (epitestuak) jasoz.

Gideon Touryren arabera, itzulpenak beti izango dira xede kulturaren zati; honenbestez, egin beharreko azterketak beti xede kulturatik abiatuta egin beharko lirarteke.

In an attempt to pursue this goal, translations have been regarded as facts of the culture which hosts them, with the concomitant assumption that whatever their function and identity, these are constituted within that same culture and reflect its own constellation. To be sure, it was by virtue of such a methodological starting point that this approach to the study of translations and translating in their immediate contexts earned the nickname of ‘target-oriented’ (Toury, 1995: 24)

Touryren hitzetan, itzulpenak xede kulturaren barruan kokatzen diren elementuak dira. Gainontzeko elementuen aldean, estatus ezberdina izan dezakete kultura horretan, baina, dena dela ere, xede kulturaren barnean kokatzen dira. “Translations are facts of target cultures: on occasion facts of a special status, sometimes even constituting identifiable (sub)systems of their own, but of the target culture in any event” (Toury, 1995: 29). Xede kulturaren baitan kokatu behar direla errepikatzen du bere liburuan, formulazio ezberdinez<sup>16</sup>. Hermans-en ustez, Touryren ikuspegia zurrunezia da:

<sup>16</sup> Hona hemen horietariko hainbat adibide: “(...) there is nothing too perverse in claiming that a text’s position (and function), including the position and function which go with a text being regarded as a translation, are determined first and foremost by

“In this exclusive sense the claim is not tenable, and counter-examples are readily available” (Hermans, 1999: 40). Bere hitzetan, Touryk berak ere ez du beti defendatzen xede kulturari “soilik” dagozkionik itzulpenak. Hermansek, bere lanean, hainbat adibide eskaintzen ditu, non jatorrizko kulturaren itzulpenak eragina duen. Bere hitzetan, gainera, jatorrizko eta xede kulturaren arteko muga lausoa izan daiteke zenbaitetan. “Maintaining a rigid distinction between source and target contexts seems forced (...) in the context of the multiple interdependencies of the modern world” (Hermans, 1999: 40).

Guk ere, hemen aurkezten dugun lan honetan, ez dugu guztiz bat egin Touryekin puntu horretan, gure gaiak hala eskatuta. Gure azterketa egiteko, jatorrizko kultura eta jatorrizko hizkuntza hartu ditugu abiapuntu. Hizkuntza batean idatziriko literatura eta bertatik eginiko itzulpenak izanik abiapuntu, xede hizkuntza ezberdinetan kokatuko dugu gure azterketa. Liburu horiek xede hizkuntzetako eta xede kulturetako zati dira Touryk aitortzen duen moduan, baina gure lanaren bitartez, jatorrizko kulturaren zati ere badirela erakutsiko dugu; itzulpen horiek egin izanak jatorrizko kulturaren duen eragina aitortuko dugu, eta jatorrizko lanaren estatusa ere alda dezakeela erakutsi. Jatorrizko kultura xede kultura ere badela neurri batean, hain zuzen ere. Bestalde, sarritan, itzulpenak jatorrizko kulturak bultzatuta egin izan dira, eta ez xede kulturak eskatuta preseski. Kolonialismo garaian, esaterako, kultura dominanteek bultzatuta sortu ziren itzulpenak, ez kultura dominatuek eskatuta (Even-Zohar, 1990: 68-69). Biblia ere Kristautasuna munduan zehar zabaltzeko Elizak nahi izanda itzuli da, ez xede hizkuntzetako hiztunen eskariz. Euskal Herritik bultzatutako itzulpenen kasuan, jatorrizko kulturak jarritako diruz bultzatu badira itzulpenak, ezin esan dezakegu xede kulturaren produktu huts direnik.

Bestalde, Touryk aurrerago zera aipatzen du, xede kulturako elementuak direla itzulpenak, baina ez eksklusiboki.

It should have become clear by now that neither source text nor transfer operations and transferred features, nor even translation relationships, would have been excluded from a target-oriented program of DTS. They were just given a different status. This is also to say that ‘orientedness’ is far from tantamount to ‘exclusiveness’, as wrongly interpreted by many: the present approach is characterized as target-oriented *because this is where its observations start*. By no means should it be taken to

---

considerations originating in the culture which hosts them” (Toury, 1995: 26); “As we have observed, translation is basically designed to fulfill (what is assumed to be) the needs of the culture which would eventually host it” (Toury, 1995: 166); “from the standpoint of the source text and the source system, translations have hardly any significance at all... they are in no position to affect its linguistic and textual rules and norms, its textual history, or the source text as such” (Toury, 1985: 19 *in* Gentzler, 2001: 177).

mean that this is where these observations would also be exhausted (Toury, 1995: 36).

Itzulpena egiteak jatorrizkoan duen eragina ere kontuan hartuko dugu. Izan ere, literatura gutxitu batek berak bultzatzen ditu sarri itzulpenak, berak bilatu argialetxeak xede hizkuntzetan, berak jarri argialpena eta itzulpena egiteko bitartekoak, etab. Beraz, itzulpena egiteko eskaria jatorrizko hizkuntzan kokatzen da neurri batean. Eta, horrenbestez, xede itzulpena jatorrizko kulturako produktua ere bada zentzu horretan. Gure lanaren bitartez, behaketa jatorrizkotik hasi daitekeela erakutsiko dugu, eta, batzutan, gainera, hala egin behar dela. Itzulpen Ikasketen mundua ere estratifikaturik dago eta bazterreko kultura eta hizkuntzak ez dira askorik aztertzen. Beraz, sarritan, jatorrizko kulturak ez badu azterketa egiten, ez du beste inork egingo, xede kulturetatik ez baita halako lanik bultzatuko.

### 3.1.1 *Cultural turn*

80. eta 90. hamarkaden artean, *cultural turn* edo kulturaranzko bira izan zen Itzulpen Ikasketen barruan. Mugimendu horren bitartez, itzulpengintza kulturaren baitan kokatzera pasa zen, hizkuntzaz haraindi. Hau da, itzulpenak ez du soilik hizkuntzarekin zerikusirik, baita kulturarekin ere. “Towards the end of the 1980s, translation studies began to take issues of context, history and convention into consideration, and the emphasis in the reflection on translation shifted from matters of language and linguistics to matters of culture” (Wolf, 2002: 185).

Kulturaranzko bira horren barruan, Itzulpen Ikasketak kultura oro har aztertzeke eredu metodologiko gisa ere proposatu dira. Mutur horretaraino iritsi gabe ere, kultura eleanitz konplexuak aztertzeke hurbilketa modu interesgarria eskaintzen dute Itzulpen Ikasketek.

Aldaketa hark erakutsi zigunez, kultura bera eta kulturen arteko harremanak dinamikoak dira, eta une oro berritzen ari dira. Beraz, gure azterketetan kontuan izan beharko dugu kultura baten egoera zein den unean-unean, eta bi kultura edo gehiagoren arteko harremanak nolakoak diren.

The ‘cultural turn’ has shown us, among other things, that culture is best conceived, not as a stable unit, but as a dynamic process which implies difference and incompleteness. As translators and translation researchers we are becoming increasingly aware that translation is not only a matter of transfer ‘between cultures’ but that it is also a place where cultures merge and create new spaces. In the context of the interaction between asymmetrical cultures translation does not confirm borders and inscribe the dichotomy of centre versus periphery; rather, it identifies ‘pluricentres’ where cultural differences are constantly being negotiated (Wolf, 2002: 186).



Ikus dezakegun moduan, kultura bakoitzaren nolakotasunak eragina izango du kulturen arteko harremanetan. Eta harreman horiek zer nolakoak diren definitzeko ikuspegi oso zabala izango dugu kontuan: kultur artekotasuna ez baita beti mugatuko bi kulturatarara.

Bestalde, itzulpenak aktiboki hartzen du parte jakintzaren sorreran. Jakintzaren sorkuntza ez baitator nahitaez itzulpen jardueraren aurretik; hau da, itzulpena jakintza sortzeko prozesuaren zati bat da. Kultura eta hizkuntza ezberdinen ezagutza itzulpenaren bitartez jasotzen dugu; hortaz, itzulpenaren bitartez emango dugu kultura edo hizkuntza horien berri, eta itzulpenaren bitartez eratuko dugu xede kulturean jatorrizkoaren irudia.

Translation wields enormous power in constructing representations of foreign cultures. The selection of foreign texts and the development of translation strategies can establish peculiarly domestic canons for foreign literatures, canons that conform to domestic aesthetic values and therefore reveal exclusions and admissions, centres and peripheries that deviate from those current in the foreign language (Venuti, 1998b: 67).

Modu honetan, itzulpenaren bidez zehaztuko da kanpokoarekiko irudia nolakoa izango den. Eta itzulpenaren atzean dauden eragileak ezagutzea nahitaezkoa izango da jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko desadostasunak analizatu ahal izateko.

Kulturaranzko bide horretan lehen urratsa itzultzailearen esku hartzea azpimarratzea izan zen. Itzuliriko testuak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu testua itzultzailearen eskuetatik pasa dela eta, beraz, nolabaiteko manipulazioa gertatu dela. "From the point of view of the target literature, all translation implies a degree of manipulation of the source text for a certain purpose" (Hermans, 1985: 11).

Manipulazioaren eskolako ikertzaileek bazekiten testuak modu ezberdinetan itzul daitezkeela eta modu jakin batean itzultzearen arrazoiak lortu nahi den efektuaren arabera izango direla. Ildo horretatik, kontuan izan behar da ez itzultzailearen papera soilik, baita sistemak berak eskatzen duena ere. Itzulpenaren objektibitate falta edo partzialtasuna onartzearekin batera, testuak kultur elementu gisa aitortzea ekarri zuen. Ordutik aurrera, itzulpena ez da izango jatorrizkoaren erreproduktzio soil, aukeraketa prozesu baten emaitza baizik.

Itzulpenean gerta daitezkeen moldaketak ez dira azalduko akats edo norbanakoaren interpretazio soil modura, baizik eta aldaketa horiek kulturalki eta sozialki markaturiko diskurtsoaren baitan kokatuko dira, une jakin batean bi kulturen arteko harremana erakutsiko dutelarik. Lefeverek eta Bassnettek (1990) gizartearen dauden botere harremanak aztertzearen garrantzia azpimarratuko dute. Itzulpenean gertatutako moldaketak *zergatik* gertatu diren jakitea ezinbesteko bihurtuko da autore horien arabera.

Itzulpenak nola egin diren eta nolakoak diren guztiz ulertu ahal izateko nahitaezkoa izango dugu horren atzean dauden botere harremanak ongi ezagutzea. Eta, modu berean, ezingo dugu itzulpenek kulturaren garapenean izango duten eragina ulertu, botereak itzulpenean duen eragina ulertu gabe. "It is becoming increasingly important to explore the specific situation in which institutions of power have had an impact on translation activity and the resulting impact that translations have had on the development of culture" (Gentzler, 2002: 197).

*Cultural turn*-aren barruan eginiko *power turn* edo botererako aldaketa deiturikoaren bitartez, itzulpenean sorturiko aldaketak kulturaz haraindi doazela ikusi ahal izan zen. Kultur mugimenduak baldintzatzen dituzten botere harremanak izango dira itzulpena nolakoa den adieraziko dutenak.

The power turn which was developed from the culture turn gives us the possibility to make clear that the explanations of the shifts that occur in translation are not to be found in the nature of culture itself, but in the power relations that govern in any culture (Nergaard, 2007: 39-40).

Itzultzaileak harturiko erabakiak aztertzerakoan, botereak duen eragina aztertu beharko dugu unean uneko egoera sozial eta politikoak kontuan hartuz. Itzulpenak boterearen ikuspegitik aztertuz gero, itzulpenek boterearen dialektikan, diskurtso politikoan edo aldaketa sozialaren estrategietan bete duen rola ezagutu ahal izango dugu (Tymozcko-Gentzler, 2002: xviii).

The consideration of the implications of power in the translational process have become an essential part of most 'cultural turn' approaches. The asymmetrical relations between cultures intimate that power is constantly operating in any transfer process between cultures, be it in social, political or economic power manifestations (Wolf, 2002 187).

Boterea maila ezberdinetan antzeman dezakegu itzulpen prozesuan. Wolf-ek dioten moduan, batetik, itzulpenaren ekoizpenaren arduradun diren agente guztietan, eta, bestetik, baita itzulpenean parte hartzen duten kulturetan itzulpenak duen eraginean ere (Wolf, 2002: 187). Venutik ere, botere harremanak itzulpenaren fase guztietan agertzen direla diosku. Bere hitzetan, gainera, hierarkia markatzen duena xede hizkuntza da:

Every step in the translation process – from the selection of foreign texts to the implementation of translation strategies to the editing, reviewing and reading of translations – is mediated by the diverse cultural values that circulate in the target language, always in some hierarchical order (Venuti, 1995).

Itzulpen prozesuan, literatur sistemaz kanpoko eragileek ere har dezakete nolabait parte, patrozinioaren bitartez euren helburuak bultzatzeko asmoz. Patrozinioaren atzean dauden eragileak, normalean, literatur sistemaren eta beste sistema batzuen arteko harremanak antolatzen saiatzen dira. "Patronage is usually more interested in the ideology of literature than in its poetics, and it could be said that the patron 'delegates authority' to the professional where poetics is concerned" (Lefevre, 1992: 15). Patrozinioa hiru elementu nagusik osatzen dute, eta maila eta modu ezberdinetan ager daitezke kasu bakoitzean: batetik, elementu ideologikoa daukagu, idatziko denaren forma eta gaiaren aukeraketa eta garatzea mugatzen dituen; bestetik, elementu ekonomikoa daukagu, patrozinioaren bitartez idazle eta berridazleek diru-sarrera bat izatea bermatzen baita; eta, hirugarrenik, estatusa, patrozinioa onartzearekin batera, horrek berarekin dakartzan baldintzak onartzea eskatzen baitu, hau da, patrozinatzailearen estatusa eta boterea legitimatzea.

Patrozinioa zergatik, zertarako eta zein bitartekorekin egiten den aztertzeak kultura baten indarraren eta posizioaren berri emango digu. Euskararen kasuan, euskal literatura kanporatzeko eskaera oso txikia edo hutsala da. Beraz, patrozinioa egon badago, eta, oro har, itzulpenen sustapena euskal kulturatik egiten da, hau da, jatorrizko kulturatik (diru laguntza zuzenak, itzulpena egiteko laguntza barne hartzen duten sariak, edizioari emaniko laguntzak, liburutegi publikoen erosketak, etab.). Sustapen horren atzean dagoen arrazoietakoa bat euskal literaturaren eta kulturaren estatusa hobetzeko ahalegina izan daiteke. Ikusgarritasuna izan daiteke beste arrazoi bat; gure inguruko hizkuntzen artean toki propioa lortzeko ahalegina.

Patrozinioak kultur eragileen arteko nolabaiteko boterea ere erakutsiko du. Literatur lanak kanporatzeko laguntza publikoak ematen direnean, nork erabakitzen du zein lan, norenak, zein hizkuntzatarara itzuli? Itzulpen horiek literatura bati edo idazle jakinei prestigioa emango diete, eta kanonizazio prozesu nolabaiteko bat sortzen da patrozinio horren baitan.

Diru-laguntza erakunde publikoetatik ematen da, baina berauek ez dute esku hartzen erabaki horretan. Kultur erakunde independenteen eta profesionalen esku uzten da ardura hori; erakunde publikoek komisioren bitartez hartzen dituzte erabakiak. Konparazio batera, Literatura unibertsala EIZI Eren esku utzi da. Euskaratik kanporatzeko diru-laguntzen kasuan, ordea, Eusko Jaurlaritzak berak du komisioren bat horretaz arduratzeko, eta zuzenean berak hartzen du erabakia<sup>17</sup>.

Itzulpenaren testuingurua kontuan izatea ezinbestekoa da Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileetan egun. Testuinguru soziala, politikoa eta ideologikoa, eta horien eraginak ikusgarri egitea ezinbestekoa da. Testua ez da hizkuntza batetik bestera soilik itzultzen, kultura batetik bestera baizik.

---

<sup>17</sup> Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak ematen dituen diru-laguntzen inguruan zabalago arituko gara 5.2 atalean.

Itzultzailea bi kultura horietako partaide den heinean, zubi lana egin behar duen heinean, bere rola kulturaren barruko eragile den heinean, garrantzitsua izango da testuinguru ideologikoa kultura batetik bestera pasatzeko. Itzultzaileak ikusgarritasuna izango du; beraz, ikusgarritasuna eta ikusezintasuna botere harremanen arabera antzeman ahal izango dira.

## 3.2 EUSKAL ITZULPENGINTZAREN IKERKETA

Orain arte, gure egoerak eta ikergaiak hala eskatuta, hainbat kontzeptu teoriko hartu ditugu hizketagai; hainbat helduleku teoriko ditugula esan genezake. Gure kokaleku teorikoari dagokionez, berriz, gogoan izan behar dugu bazterreko posizio batean kokaturik gaudela. Nazioartean bazterturiko literatura bati dagokio gure teorizazioa, eta, hori horrela izanik, itzulpengintzaren alorrean bere posizioari buruz hitz egingo dugu. Munduan, egun, gizarte elebidun gehiago dago elebakarrak baino, eta gurea bazterreko hori aztertzeko egoera egokia izan daiteke, bazterreko posizioetatik etorriko baitira gai horiei buruzko hausnarketak. Izan ere, egoera elebakarretan ez dute halakorik bizi. Hizkuntza nagusien arteko harremanetan bazterreko fenomenoak direnak, gurean normalizatuago daude, gure katalogoak erakutsiko digun moduan.

Itzulpengintza prestigio gutxiko lanbidea izan da orain arte. Literaturgintzan, oso arreta gutxi eskaini izan zaio, nahiz eta bere betebeharra oso garrantzitsua izan literaturaren garapenerako. Hori dela eta, ez da harrizkoa, orain dela gutxi arte, itzulpengintzaren eremuan ikerketa gutxi egin izana. Euskal literaturari lotzen bagatzaizkio, itzulpenari buruzko oso aipamen gutxi topatuko dugu euskal literaturaren inguruko liburuetan. Aipagarria iruditzen zaigu Euskaltzaindiaren Literatura Terminoen Hiztegian<sup>18</sup> itzulpenari erreferentziarik egin ez izana. Kontsultatutako iturrien artean, euskal literaturaren historiari buruzko liburuek ez dute itzulpengintzaren inguruko atal berezirik, eta itzulpenak oso gutxi eta tarteka azaltzen dira. Aipatzekoa da, ordea, orain dela urte gutxi argitaratutako liburu batean (Aldekoa, 2004) soilik aurkitu dugula beste hizkuntzetara itzulitako liburuen aipamenik. Beraz, itzulpenari merezi duen garrantzia aitortzen hasiak garela esan dezakegu, oso pixkanaka bada ere.

Aspaldidanik, euskal literaturgintzan ikusi izan den beharretako bat izan da euskal literatura mundura zabaltzekoa, beste hizkuntza batzuen artean oihartzuna izan eta gure kultura eta gure literatura ezagutaraztekoa. Mundura zabaldu eta beste hizkuntza batzuetara itzultzeko nahi hori gure literaturaren eta hizkuntzaren biziraupena bermatzeko bidea dela uste du zenbaitek. Hala nola 1960. urtean, Koldo Mitxelenak bere “Asaba zaharren baratza”

---

18

Ikus

honako

helbidean:

[http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_xslt&Itemid=474&lang=eu&layout=lth\\_list&search=1&view=frontpage+](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&Itemid=474&lang=eu&layout=lth_list&search=1&view=frontpage+)

artikuluaren, biziraupen arrazoiak medio euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzearen beharra eta garrantzia azpimarratu zituen. 1987ko II. Munduko Euskal Kongresuan, euskal obrak itzultzeko politika baten beharrari buruz hitz egin zuen J.M. Vélez de Mendizabalek, orduko EIEko lehendakariak, idazleen profesionalizazioa bide bakarra zelakoan; Ibon Sarasolak, 1995ean, “Sinn Fein” (gu bakarrik) sindromeari buruz hitz egin zuen, eta euskal literaturaren biziraupena itzulpengintzak bermatuko zuela aldarrikatu zuen.

Itzulpenak modu sistematikoan egiten ere hasiak gara. Hasiera batean, 80ko hamarkadan, oso pixkanaka; 90. hamarkadatik aurrera, berriz, lan gehiago eta hizkuntza gehiagotara itzuli izan da (*Obabakoak* liburuaren arrakastaren ondorio zuzen direlarik). Itzulpen horiekin batera, euskal literatura bere osotasunean atzerrian ezagutarazteko ere lan batzuk argitaratu izan dira; bai liburu monografikoetan, bai artikulu liburuetan eta baita aldizkarietan ere.

Itzulpenaren inguruko hainbat azterketa egin dira, bai euskarara itzulitako literaturari buruz eta baita euskaratik itzulitako literaturari buruz ere. Euskarara eginiko itzulpenen inguruko azterketen artean, J.M. Zabaletak argitaraturiko *Euskal itzulpenen antologia I* (1984) liburua aipatu nahi genuke, beste hainbat lanen artean. Bestalde, Xabier Mendiguren Bereziartu izan da euskal itzulpenaren inguruan gehien aztertu duena, eta *Euskal itzulpenaren historia laburra* (1995) liburua da aipagarriena bere lanen artean. Liburu horretan, euskarara eginiko itzulpenen historia azaltzen du itzulpengintzaren historia orokorrekin batera, eta garaiko euskal literaturaren eta itzulpenaren ikuspegi orokorra ere eskaintzen digu.

Euskal letretan, itzulpenaren inguruan gauzatu diren azterketarik zabalena Manu Lopez Gasenik egin ditu. Bere doktore-tesia du lanik aipagarriena: *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak* (2000). Bertan, beste hainbat hizkuntzatatik euskarara itzuli izan den haur eta gazte literaturak izan dituen funtzioak, itzulpenetan erabilitako estrategiak eta lan horiek gure gizartean izan dituzten eraginak aztertzen ditu. Itzulpen Ikasketen barruan kokatu zuen bere lana Lopez Gasenik, euskal literaturaren azterketan lehen aldiz. Bestalde, 2009an *Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)* argitaratu zuen<sup>19</sup>. Bertan, azken 30 urteetan euskaratu diren lanak bildu, eta horien azterketa egin zuen. Bestalde, euskaratutako HGLren inguruko bi doktore tesi ere zuzendu ditu: Genaro Gomezen *Grimm anaien Kinder- Und Hausmärchen euskaraz: itzulpen eta egokitzearen azterketa* (2004) eta Miren Josune Beldarrainen *Alegia klasikoak euskaraz: Isopeteko, La Fontaineren eta Samaniegoren alegien berridazketen azterketa* (2010).

Bestalde, Josu Barambonesek aurkezturiko doktore tesia (2009) literaturaz haraindi kokatu zen, euskarara eginiko ikus-entzunezko produktuen

<sup>19</sup> <http://www.eizie.org/Argitalpenak/inbentarioa/inbentarioa.pdf> helbidean kontsulta daiteke.

itzulpenak aztertu baitzuten. Ikerketa lan zabal hura Itzulpen Ikasketen barruan kokatu zuen Barambonesek.

Aiora Jakak doktorego-tesia aurkeztu berri du EHUUn Joseba Sarrionandiaren lana oinarri harturik. *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan* (2011) izeneko lanean, idazle iurretarra lehen euskal itzultzaile postmodernotzat jo du ikertzaileak eta itzulpengintza idazlearen sorkuntzaren zati dela erakutsi.

Aipatutako lanek ez dute euskaratik beste hizkuntza batzuetara eginiko itzulpenei buruzko atalik, Mendigurenen liburuan kanporatutako libururen bat edo beste aipatzen den arren. Lehenengo bi liburuen argitalpen urteak kontuan izanik, ordura arte itzulpen gutxi kanporatu zenez, guztiz ulergarria deritzogu.

Literatur lanen itzulpenak egitearekin batera, euskal literatura ezagutarazteko lanak ere argitaratu dira beste hizkuntza batzuetan, hala nola euskal literaturari buruzko hainbat liburu monografiko. Gaztelaniaz jaso ahal izan dira horietariko gehienak, baina beste hizkuntza batzuetan ere argitaratu dira. Esate baterako, 2005. urtean Jon Kortazarrek alemanez *Baskische Literatur: Essays* izeneko liburua argitaratu zuen. Bertan, Kortazarrek berak idatzitako euskal literaturari buruzko artikulua agertzen dira eta horien bidez, egungo euskal literaturaren errealtatea islatzen da. Bestalde, Mari Jose Olaziregik ere egin du hainbat ingelesezko argitalpen euskal literaturari buruz. "The Basque Literary System at the Gateway to the new Millenium" izeneko artikuluan (2000), euskal literaturaren egungo egoera eta etorkizunerako erronkak aztertzen ditu. Eta, erronka horien artean, Arestik eta Vélez de Mendizabalek esandakoak kontuan izanik, kanporatzeko beharra aurkitzen dugu.

Works in Basque language do not require translation in order to obtain a "label of quality" or to obtain approval as the equivalent of our neighbours' literary production, they need it because translation has an enormous amount of importance in minority languages. This means that, as well as making it possible for readers of other languages to enrich the Basque literary horizon, translation guarantees the maintenance of our language (Olaziregi, 2000: 422).

*Waking the Hedgehog. The Literary Universe of Bernardo Atxaga* liburua ere argitaratu zuen ingelesez, aurrez euskaraz zein gaztelaniaz agerturikoa. Liburu horretan, Atxagaren lanean sakontzen du ikertzaileak.

Beste alde batetik, [www.basqueliterature.com](http://www.basqueliterature.com) web orrian ere aurki dezakegu kanporatutako literaturari buruzko informaziorik. Orri hori 2005. urtearen amaiera aldera aurkeztu zuten. Orain arte euskal literaturaren inguruan zegoen informazioa webgune batean bilduz, erreferentzia puntu bihurtzea lortu dute, eta euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez irakur daiteke. EIZIEk kudeatzen duen orri horretan, euskal literaturaren inguruko albisteak, historia eta hainbat artikulua irakur daitezke helduen

literaturari buruz, haur eta gazte literaturari buruz edo itzulitako literaturari buruz (euskaratik eta euskarara). Hainbat katalogo ere kontsulta ditzakegu, besteak beste, autoreen ingurukoak, obren ingurukoak edo euskarara eta euskaratik itzuliriko lanena. Hemeroteka, bideoteka eta fonoteka bana ere badira webgune honetan. Euskal literaturaren inguruan dauden lotura garrantzitsuen berri ere ematen zaigu. Aipatu dugun moduan, atzerriratutako lanen inguruko katalogoa ere bada webgune honetan. 2009ra arte azken urteetan euskaratik gaztelaniara, ingelesera, frantsesera eta alemanera itzuliriko liburuek osatzen zuten katalogo hori, eta, urte horretatik aurrera, katalogoa hizkuntza gehiagorekin eta sarrera gehiagorekin (575 osotara), eta liburu bakoitzaren datu kopuru handiagoarekin osatu dute<sup>20</sup>. Bestalde, artikuluen artean, euskararako zein euskaratiko itzulpenari buruz Aiora Jakak idatziriko bat aurki daiteke. Euskaratiko itzulpenaren baitan gaur arte egin dena labur-labur azaltzen du eta bere katalogoaren datuak aurkezten ditu. Ondorio modura zera aipatzen du: nahiz eta azken urteetan itzulpenek gora egin, oraindik ez dela oso alor emankorra; eta, bestalde, asko dagoela ikertzeko esaten du, eta autoitzulpena eta itzulpenaren funtzio manipulatioa aipatzen ditu alor horretan.

Torrealdaren *Euskal literatura gaur* (1997) liburuan, itzulpenari tarte egiten zaio beste hainbat azterketen ondoan. Liburu horretan, Torrealdaik euskal literatura xehe-xehe aztertzen du: idazleak, argitaletxeak, literaturaren historia, gaiak eta beste landuz. Euskal liburuen erdaratzeari ere eskaini dio atal berezi bat, "Euskal liburuak erdaraz" izenekoa. Lehenik eta behin, euskal literaturaren promozioa eta itzulpenari buruz hitz egiten du, eta agentzia literario bat sortu zela aipatzen du, Ikeder, 1995ean, eta baita, euskarazko lanak erdaratzeko argitaletxe bat ere, Hiru<sup>21</sup>. Torrealdaik, liburu horretan, idazleei inkesta bat egin zien, eta horiek euskal erakundeen axolagabekeria salatu zuten. Frantziako eta Espainiako Kultur Ministerioa, Galiziako Xunta eta Kataluniako Generalitatea eredu hartu beharko lirakeela adierazi zuten, era berean. Klasikoak euskaratzeko dagoen programaren antzekoa lortu beharko litzatekeela dio Torrealdaik liburuaren ondorioetan<sup>22</sup>. Merkatu-zirkuitu desberdinak lantzea beste ondorioetako bat da, era berean. Hau da, ez da nahikoa Europako hizkuntza nagusietara itzultzea, kontuan izan beharko lirakeke, modu berean, hizkuntza minorizatuak; batetik, Galeuzca eta, bestetik, gainerakoak (suomi, estoniera, esloveniera). Inkestaren ondorioak aipatu ostean berak osaturiko katalogoa

<sup>20</sup> Ikus ondorengo lotura: <http://www.basqueliterature.com/Katalogoak/Euskaratik/euskaratikMJ.pdf>. Bertan jatorrizko zein xede testuen egilearen izena, izenburua, argitaratzailea, argitalpen urtea eta xede hizkuntza agertzen dira.

<sup>21</sup> Gaur egun, euskal lanak gaztelaniara bertako argitaletxe ugari itzultzen dituzte, hala nola Txalapartak, Ereinek edo Alberdaniak.

<sup>22</sup> Kontuan izan liburu 97koa dela, Eusko Jaurlaritzak euskal literatura kanporatzeko dirulaguntzak ematen hasi aurrekoa.

aurkezten du, eta, bertan, euskaratik itzuliriko liburuak bildu. Honako datuok jaso zituen sarrera bakoitzean: egilea, izenburua, jatorrizko argitaletxea, jatorrizko argitalpen data, itzultzailea, itzulitako izenburua, itzulpenaren argitaletxea, urtea eta itzulitako hizkuntza. 136 izenburu biltzen ditu katalogo horrek, eta ondorengo zerrenda batean, katalogo horretan dauden HGLko liburuak jaso ditu autoreak, 60 guztira.

Beranduxeago etorri dira orain arteko atzerriratzea nolakoa izan den erakusten duten azterketak. *Literatura vasca en Europa* (2001) artikuluan, Olaziregik Joan Mari Torrealdairen *Euskal literatura gaur* liburuan zerrendatutako liburuen itzulpenak oinarri harturik azterketa labur bat egiten du. Zerrenda horretan, argitaratutako liburu monografikoak soilik jasotzen dira. Hiru ondorio nagusi atera ditu ikertzaileak azterketa horretatik: lehenenik eta behin, titulu eta autore zerrenda laburra dela, nahiz eta gaztelania, katalana eta galegoa kontuan izanik zerrenda asko luzatzen den; bigarrenik, Bernardo Atxagaren kasuan, titulu kopurua eta hizkuntza kopurua biak direla zabalak, eta atzerriko argitaletxeak izen handiko enpresak, eta ez, beste obren kasuan bezala, txikiak; eta, azkenik, Atxagaren obrek bitarteko hizkuntza gaztelania erabiltzen dutela eta gainerako idazleek ez, agian horregatik argitaratzen dira hain goiz Atxagaren lanak beste hizkuntzetan. Olaziregiren artikuluan ikus daitekeen beste puntu bat zera da, *Obabakoak*-en esportazioari esker, euskal literatura bera ere esportatzen hasi zela; ez soilik Europara, baita Espainiara ere. Ondorengoak dira artikulua iradokitzen dizkigun bi puntu garrantzitsu: esportazio politika gabeziak oraindik ere euskal literatura bere lurraldera mugatzen duela eta Bernardo Atxagaren kasua oso bakana dela.

Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburua mugarriztat jo zuen Ur Apalategik ere *La naissance de l'écrivain basque* liburuan (2000). Bere hitzetan, lehen aldiz izan zuen euskal lan batek oihartzuna euskal literatur eremuaz haratago Narratiba Sari Nazionalari esker. Hortaz, idazlearen ibilbidean ezezik euskal literaturaren garapenean ere haustura erabatekoa izan zen. Atxagak bere burua itzultzen duenez, bi sistemetan kokatzen den autorea dela diosku Apalategik eta itzulpenaren funtzioa aipatzen du tarteka.

Bestalde, *Trasvases culturales; cine, literatura y traducción* 3 liburuan autoitzulpen kasu bati buruzko artikulua bat argitaratu zuen Manu Lopez Gasenik 2001ean: Bernardo Atxagaren *Sara izeneko gizona* liburuari buruzkoa. Horren ondoren, 2005ean, *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* liburua argitaratu zuen. Euskaraz idatzi ondoren euren lana itzultzen duten idazleei buruzko azterketa egiten digu bertan, berriz ere, lan deskriptibo bat eginez. Esan genezake, hori dela, orain arte euskaratik itzuliriko lanen inguruan eginiko ikerlanen artean landuena, metodologia jakin bati jarraiki aztertzen baititu liburuak eta horregatik eredugarri izan da guretzat. Lehenengo eta behin, literatur itzulpenari buruzko historia apur bat azaltzen digu, eta bere lana zein ildoren barruan kokatzen duen esan; bigarren atalean, autoitzulpenaren inguruko orain arteko azterketak aipatzen dira, eta, ondoren, euskal HGL kanporatua eta autoitzulia erakusten dizkigu



katalogo baten bitartez; zenbat liburu autoitzultzen diren, zeintzuk diren autoitzulpenerako arrazoiak eta zein ondorio izan ditzakeen autoitzulpen jarduerak. Ondorengo atalean, gehien itzuliriko lau idazleren lanen azterketa testuala egiten du, eta, bukatzeko, hainbat ondorio ateratzen ditu: egile-itzultzaileek erabiltzen dituzten autoitzulpen estrategiak ez dira homogeenak; desberdinak dira kultur elementuen aurrean jokatzeko bideak; HGL itzulpenetan ohikoak diren zenbait joera berdintsu topa daitezke, azalpenezko gehikuntzaren erabilera xede testua hobetzeko; autoitzulpengintza ez da oso ekintza ikertua, arautua eta normaldua, baizik eta, emaitzek erakusten duten bezala, banakakoa eta arlo pribatuari dagokiona (Lopez Gaseni, 2005: 85-86).

2005ean, *90eko hamarkadako Haur eta Gazte Literatura* liburua argitaratu zuten Manu Lopez Gasenik eta Xabier Etxaniz Erlek. Bertan, hamarkada horretako HGLen datuak ematen dizkigute, idazleei, gaiei, kopuruei, editoreei eta beste hainbat punturi buruzkoak. Itzultitako literaturari ere eskaintzen diote bere lekua, bai euskarara itzuli ziren lanei, baita euskaratik beste hizkuntzetara itzuli direnei ere. Euskaratik itzuliriko obren ezaugarri ezberdinei buruzko datuak jasotzen dituzte lehendabizi: gaiak, idazleen ezaugarriak, generoak, etab. Ondoren, kanporatzeko lau zirkuitu ezberdini buruz hitz egiten dute. Zirkuituak kanporatzeko bideak dira, hizkuntza edo herrialdeak zein bitartekoak kontuan izanik sortzen direnak. Kanporako bidea makaltzen duten faktoreak edo alde negatiboak ere aipatzen dituzte: batetik, autoitzulpena, eta, bestetik, espainiar estatuaren bitartekaritza. Eta, bukatzeko, ondorioak ere ateratzen dituzte: egilearen izenak obraren kalitateak baino garrantzia handiagoa daukala; merkatu espainiarra kanporatzeko eragile eta moteltzaile dela, aldi berean; alderantzizko itzultzaileen prestakuntza eskasagatik eta autoitzulpengintzagatik ez dela erraza euskaratik itzultzea, eta, azkenik, inguruko HGLekin homologagarria izatea. Beraz, autore horien ustez arreta da falta dena (Etxaniz Erle-Lopez Gaseni 2005: 119-120).

2008. urtean, Axun Aierbek hiru euskal idazleren lanen gaztelaniaratzeari buruz eginiko ikerlanak *Itzulpengintza-estategiak* izeneko liburuan argitaratu ziren. Liburu horretan, Anjel Lertxundiren, Harkaitz Canoren eta Ramon Saizarbitoriaren lanen gaztelaniaratzeari dira azterketaren mui, eta itzultzeko erabili diren estrategia ezberdinak azaltzen ditu Aierbek. Norberak bere lana itzultzea edo beste pertsona batek itzultzea ezberdina dela ikus daiteke lan horretan, eta, aldi berean, euskaratik itzultzearen garrantzia azpimarratzen da.

2009. urtean Mari Jose Olaziregik "Basque Writing in the Iberian Context" izeneko artikulua eman zuen argitara. Eta bertan, euskaratik kanporatzeko prozesuan erakunde publikoek duten garrantzia eta euskal literatur sistemak gaztelaniazkoarekiko duen menpekotasuna nabarmendu zituen.

Ikerketa emaitza horiek ikusita, euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzuli den literaturaren inguruko ikerketa nahiko urria izan dela esan behar dugu lehenengo eta behin, eta egin diren lanen artean euskarara eginikoak nagusitu direla. Ondorio nagusi gisa zera esan dezakegu: orain arte euskararen eta itzulpengintzaren inguruan izan diren ekarpen ia guztiak ez direla Itzulpen Ikasketen alorrean kokatu, literaturaren, soziologiaren edo beste alorren bateko ikuspegitik eginak izan baitira. Lopez Gaseni dugu Itzulpen Ikasketetara lehenik hurbildu zen ikertzailea, polisistemen teoria baliatuz baina metodologia deskriptiboan gehiegi sakondu gabe.

Euskaratik erdaretarako itzulpenaren alorrean ikusi ditugun hutsuneak identifikatu ostean, gure lanaren bitartez horiek betetzen saiatuko gara. Batetik, katalogazioari dagokionez (ikus 5. atala), orain artean osatu direnekin alderatuz katalogo zabalagoa osatuko dugu, bai denbora mugari dagokionez eta baita hizkuntza kopuruari dagokionez ere. Katalogazio lanaren azterketari dagokionez ere, hainbat ikuspegitatik aztertuko dugunez, emaitzak ere zabalagoak izango dira. Bestalde, identifikaturiko beste hutsuneetariko bat itzulpenen tipologiarekin lotuta dago: orain arteko lanek ez dute aztertu berariaz itzulpenak nola egin diren, norik egin dituen itzulpenak, zein hizkuntzatatik. Katalogoaren azterketan ikusiko dugunez, hainbat ohiko fenomeno identifikatu ditugu euskaratik erdaretarako bidean: autoitzulpena, kolaborazioa eta zeharkako itzulpena, kasu. Hiru fenomenoak, euskal literatur sistemaren konplexutasunaren erakusle dira eta bertan dauden desorekak islatzen dituzte. Aipatu itzulpen mota horiek ez daukate gurearen modukoetan daukaten presentziarik beste egoera “normalizatuago” batzuetan. Egoera horietan, hizkuntza nagusien arteko itzulpenetan batik bat, bazterreko jarduera direnak, gurean fenomeno arrunt bihurtzen dira, aurrerago katalogoak erakutsiko digun moduan, eta sistemaren erdigunean koka daitezke hainbatetan. Autoitzulpengintza nahiko jarduera zabaldua da euskal idazleengan, Lopez Gasenik bere lanetan erakutsi zigunez. Zeharkako itzulpenak, bestalde, oso ohikoak izan dira bi norabideetan, bai euskarara eta baita euskaratik eginiko itzulpenetan. Kolaborazioari dagokionez, berriz, aurrerago ikusiko dugun moduan, nahiko presentzia esanguratsua izan du gure katalogoan. Horiek identifikaturik, eta ikusirik orain artean ez dela horien inguruko azterketa sakonik egin, itzulpen mota horien eragina aztertzea izango dugu helburu euskaratiko itzulpenetan. Eta ondorioz, jarraian hiru fenomeno horien inguruko teorizazioaz mintzatuko gara.

### **3.3 AUTOITZULPENGINTZA**

Testu bat idatzi duen autoreak berak itzultzea esan nahi du autoitzulpenak, hau da, jatorrizko hizkuntza batean idatzirik testua idatzi duen pertsona berak beste hizkuntza batean idaztea. “The terms auto-translation and self-translation refer to the act of translating one’s own writings or the result of such an undertaking” (Grutman, 1998: 17).

Jatorrizkoaren autorea eta itzulpenarena pertsona bera izatea du bereizgarri nagusi.

Orain gutxi arte, Itzulpen Ikasketen barruan ez zaio garrantzia handiegirik eman; elebitasunarekin loturiko fenomenotzat hartu izan da. Elebitasun hori pertsonarena berarena izan daiteke, edo komunitatea bera izan daiteke elebiduna. Gurea bezalako komunitate elebidunetan, autoitzulpenengintzaren fenomenoak ohikoa izaten da; horren adierazle Dasilvak (2009) Galiziako egoerari buruz eginiko azterketa eta Krausek (2007) Eskoziako fenomenoari buruz eginikoa. Azken urteetan ugalduz joan dira jarduera honi buruzko ikerketak, kultura, hizkuntza eta egoera ezberdinen ingurukoak<sup>23</sup>. Euskaratik gaztelaniarako edo gaztelaniatik euskararako autoitzulpenari buruzko lan bat edo beste ere topatu dugu, hala nola Lopez Gaseni (2001, 2005) eta Aierberenak (2008), eta gure lanaren bitartez ikerketa ildo hori zabaltzea dugu helburu.

Autoitzulpena egiteko, idazleak elebiduna izan behar du eta sorkuntza lana bi hizkuntzatan egin. “Self-translators are idiomatic bilingual writers who have two literary languages: they compose texts in both languages, *and* they translate their texts between those languages” (Hokenson-Munson, 2007: 14). Idazle batzuk bi hizkuntzatan dira sortzaile eta berdin itzultzen dute bi norabideetan; beste batzuek, hizkuntza batean sortzen dute beraien “jatorrizkoa”, eta, ondoren, bigarren hizkuntzara itzuli. Norberak hizkuntza bakoitzarekin duen harremanak, jarrerak eta sentimenduek zehaztuko dituzte sorkuntza prozesua eta itzulpenaren norabidea. Egoera guztiak ez dira berdinak. Autorearen eta hizkuntzaren arteko harremanaz gain hizkuntzen arteko harremanak ere zeresana izango du hainbat kasutan. Konparazio batera, hizkuntza gutxituetan idazten duten idazleek, sarritan, beraien lana hizkuntza handiago batetara itzuliko dute irakurlego zabalagoa eta/edo prestigioa lortze aldera. Itzulpenen bitartez, beraien lana kanonizatzea lortzen dute, eta euren posizioa indartzea jatorrizko sisteman bertan. Gurearen moduko gizarte elebidunetan, idazle tipologia zabala aurkitzen dugu: hizkuntza bakarrean idatzi eta beste hizkuntzan autoitzultzaile soil direnak; idazteaz eta autoitzultzeaz gain, besteen lanen itzultzaile ere badirenak; bi hizkuntzatan sortzaile eta bi norabideetan autoitzultzen dutenak; autoitzulpenak norabide bakarrean egiten dituztenak beti, etab.

Elebiduna izateaz gain, autorea bi kulturetako partaide da; bi hizkuntzak jakiteaz gain bi kultura ongi ezagutzen ditu. Menderatzen dituen bi hizkuntzetako literatur sistemak ongi ezagutzen ditu, eta zubi-lana barru barrutik egiten du.

Autoitzultzaileak, sorkuntza lanaz gain, besteren lanen itzulpen prozesuan ere arituak izan ohi dira sarritan; adibide ugari topa ditzakegu,

---

<sup>23</sup> Julio César Santoyok eta Lucia Bertolinik autoitzulpenengintzari buruzko bibliografia zabala osatu zuten. Eva Gentesek doitu du bibliografia horren bertsio eguneratua eta honako lotunean topa daiteke: <https://www.box.com/s/0frws43qe6hvko07o13o>.

besteak beste, George, Nabokov edo Ungaretti. Euskal letretan ere hainbat adibide aurki ditzakegu: Atxaga, Cano edo Elorriaga, esaterako.

Autoitzultzaileak sorkuntza lana beste edozein idazleren modura gauzatzen du, beti ere, elebitasunetik eta bi sistema literarioren ezagutzatik abiatuta; aldea da berriro testura itzultzen direla, beste irakurle go bati zuzenduriko testua eskaintzeko asmoz.

Like all writers, they seem to labor for years to achieve a voice and a style, whether that means manipulating a new vernacular, a new genre, or old languages and forms, in distinctive ways. When they translate their singular texts into other languages, they make changes that seem almost always to arise from the need, the desire, or the delightful occasion to re-address the text to a new audience. The dimensions of this task are infinite, given the cultural complexities of the new literary field, and each writer selects his or her different means to this end (Hokenson-Munson, 2007: 206).

Autoitzultzaileak, testuaren egile eta itzultzaile den heinean, bi rol horiek bete beharko ditu; kontua da, bien artean zeinek duen pisu handiagoa:

(...) la autotraducción es un tipo de traducción poliforme en el que intervienen diversos componentes, como entre otros el perfil del escritor, el concepto que el propio creador posee de la autotraducción o, en fin, la competencia técnica del autor como traductor en sí (Dasilva, 2010: 267).

Bien arteko oreka bilatu beharko du, hortaz, autoitzultzaileak.

Beste edozein itzultzailearekin alderatuz gero, autoitzultzaileak autoritatea izango du bere lanari berriro heltzeko eta itzultzaile arruntak baino askatasun handiagoz jokatzeko eskubidea eta boterea izango du.

El autotraductor no se halla tan sólo en posesión, como suele estarlo cualquier otro traductor, de propuestas de análisis y juicio para decidir entre los elementos semejantes y disímiles de dos culturas y de dos lenguas, sino que, además, se halla en posesión de una llave que le brinda el acceso a lo más arcano de la traducción: el derecho a la libre creación (Parcerisas, 2002: 13).

### **3.3.1 Autoitzulpenaren ikerketa eta bere arazoak**

Literaturaren historiaz hitz egitean, sarritan pentsatu izan da autoitzulpena bazterreko jarduera bat dela eta lan bera bi hizkuntzatan idazten duen oso autore gutxi dagoela. Baina, azken urteetan jarduera honen inguruan lanean ari diren hainbat ikertzailek kontrakoa erakutsi digute:

Yet the tradition of the bilingual writer creating a single text in two languages, smoothly spanning different audiences, is a rich and

venerable one, arising in Greco-Roman antiquity and thriving in the European Middle Ages and Renaissance. Self-translation was a common practice in the ambient translingual world of early modern Europe, when bilingualism was the norm, and writers increasingly translated between Latin and vernaculars (Hokenson-Munson, 2007: 1).

Autore horiek adierazten diguten moduan, autoitzulpenaren fenomenoa aspaldiko garaietatik datorkigun jarduera da, eta hainbat kultura eta tokitan gauzatu izan da. Inperio erromatarrean, adibidez, oso ohikoa zen latinez idatziriko testuak tokian tokiko hizkuntzetara itzultzea, edo, alderantziz, bakoitzak bere ama hizkuntzan idatziriko testua kultur hizkuntzara itzultzea. Autoitzulpena kasu arraro eta bakan modura ikertu bada ere, oso aspalditik egiten den jarduera dela erakutsi du Julio César Santoyok bere ikerlanetan.

De hecho, la figura del autor traductor de su propia obra ha estado presente en la historia de este arte y oficio al menos desde los tiempos del historiador judío Flavius Josephus, que escribió en su lengua materna, arameo, los siete libros de su primera obra *La guerra de los judíos* y años después, en torno al 75 de nuestra era, él mismo la revisó y tradujo al griego, corrigiendo al tiempo alguno de los errores cometidos en el texto primero (Santoyo, 2005: 859).

Gaur egungo ikerketa, batik bat, gure garaiko jardueraz arduratu izan bada ere, gogoan izan behar da historian zehar ere autoitzulpenak izan direla<sup>24</sup>. “Even as literary bilinguality continues proliferating in the postcolonial conditions of our times, it is usually forgotten that earlier ages too had their bilingual writers and –among that set– the subset of literary self-translators”(Hokenson-Munson, 2007: 1). Santoyok Kristo ondorengo 75. urtetik hasi eta gaur egunera arteko errebasoa egiten du bere ikerlanetan (ikus Santoyo 2002 eta 2005).

Santoyoren lanari helduz, Espainiako errealitateari buruz ari delarik, autoitzulpena gaur egun oso zabaldurik dagoela baieztatzen du: “... nunca la Península Ibérica había conocido tal proliferación de traducciones de autor como en este último siglo XX” (Santoyo, 2002: 30). XVI. mendetik aurrerako euskal autoreei buruzko testigantzak jaso ditu ikertzaileak: “En Navarra y País Vasco se cuenta con precedentes al menos desde que Sancho de Elso y el Doctor Ostolaza escribieran en el siglo XVI sendas *doctrinas cristianas* en castellano y vascuence” (Santoyo, 2002: 30). Kasu horretatik hasi eta gaur egunera arteko beste hainbat adibide ere aipatzen dizkigu ikertzaileak. Euskal idazleen artean, XX. mendeko autoitzulpen gehienak euskaratik gaztelaniara egin direla ere aipatzen du: “Autotraducciones del vasco al castellano han

<sup>24</sup> Atal honetan ez dugu sakonduko historian zehar autoitzulpenak izan duen garapenean. Horretarako honako lan hauek kontsulta daitezke: Julio César Santoyoren “Autotraducciones: Una perspectiva histórica” artikulua (2005) edo Marcella Munsonen eta Jan Walsh Hokensonen *The Bilingual Text: History and Theory of Literary Self-Translation* (2007) liburua, besteak beste.

sido y son la mayor parte de los escritores euskaldunes del siglo XX y de estos primeros años del siglo XXI” (Santoyo, 2005: 865).

Hain jarduera zabaldua izanik ere, eta idazle-itzultzaile kopurua nabarmena, kultura eta hizkuntza askotan ez da gehiegi aztertu, eta horretarako bi arrazoi aipatzen dituzte Hokensonek eta Munsonek. Lehenengoa, estatu literaturen ikuspuntuan oinarrituriko ikuspuntuari dagokio. “The keepers of the canon rather strenuously insisted on the linguistic purity of its foundational figures, such as Chaucer and Dante, and they routinely ignored the founders’ youthful translations of foreign texts” (Hokenson-Munson, 2007: 1). Kanpotik zetorren edozein eragin ukatzeak idazleen lana mugatzea zekarren berekin, eta kulturen arteko harremanak ikusezin egin zituen. Bigarrenik, jatorrizkotasunari loturiko kontzeptua daukagu.

Since the bilingual text exists in two language systems simultaneously, how do the monolingual categories of author and original apply? Self-translation, the specific ways in which bilinguals rewrite a text in the second language and adapt it to a different sign system laden with its own literary and philosophical traditions, escapes the categories of text theory, for the text is twinned (Hokenson-Munson, 2007: 2).

Idazleak sistema batean ala bestean katalogatzeak gaizkiulertuak sor ditzake, sistema ezberdinen artean kokatzea ezinezkoa baitirudi estatu literaturen ikuspuntutik. Euskara bezalako eremu urriko hizkuntzetan idazten duten idazleen kasuan ere bada arazorik. Euskarazko literatur lanak gaztelaniara itzultitakoan, autoreak espainiar autore modura kataloga daitezke, eta, hein batean, errealitatea irudikatzen du horrek. Baina espainiar idazle guztiak ez dira zaku berean sartzen, eta euskaraz idazten duela ezkututzen du baieztape horrek. Jatorrizko kultura baino, jatorrizko herrialdea adierazten du, aspektu linguistiko eta kulturalak ezkutuan utziz. Kasu periferiko horiek kanonizazio prozesuak egin diren moduak apurtzeko materiala eskaintzen dute, eta nazio literaturen ikuspuntuaren muga zurrunik erakusten dituzte; kanon horiek itxiak dira, baina ez dira hain homogeenok; zubiak egon daitezke elkarren artean zein bakoitzaren barruan. Atxaga euskaraz idazten duen idazlea izanik, bere *Lista de locos y otros alfabetos* (1998) liburuaren bertsio errazago bat gaztelania ikasteko liburu modura argitaratu zen 2000. urtean, Danimarkan. Atxagaren testuak gaztelaniazko kanonaren zati modura erabiltzen direla erakusten du horrek.

Hizkuntza herrialdeari loturik ematen denean, nazio estatuen sistemak egiten duen moduan, elebitasunari ateak ixten zaizkio.

Bilinguality seems to be the one category of language-user that high modernist thought did not, indeed perhaps even refused to, consider. If theories of language elided the bilingual, so theories of subjectivity tended to assume a monolingual subject, indeed monolingualism as the very grounds of being. This is never stated, but it is axiomatic in these

writings, where it is assumed like a fact of nature or of a culture. One country, one subject (Hokenson-Munson, 2007: 148).

Aipu horretan irakur dezakegun moduan, herrialde batean hizkuntza bat eta bakarra hitz egiten bada, ez dago elebitasunerako tokirik. Idazle elebidunek ez dute bertan tokirik, ezta komunitate edo lurralde elebidunek ere.

Elebitasuna ez bada bere horretan onartzen, nekez egingo da horren inguruko ikerketarik. “Until the advent of postcolonial studies in the 1980s, the bilingual person is ignored, if noticed at all, as extraneous or indeed other” (Hokenson-Munson, 2007: 149). XX. mendearen amaierarako, pertsona elebidunak kontuan hartu ziren hainbat alorretan eta heteroglosia bezalako nozioez hitz egiten hasi zen. Horri esker, elebitasuna eta horrekin loturiko fenomenoak, autoitzulpena kasu, aztertzea posible izan zen. Gurean, autoitzulpenaren inguruko lanak Lopez Gaseniren eskutik (2005) eta Aierberen (2008) eskutik jaso ditugu.

Autoitzulpenaren inguruko ikerketa nabarmen hazi da azken urteetan herrialde eta kultura ezberdinetan. Jada ez da, hasiera batean bezala, bi hizkuntza nagusiren artean itzultzen zuten idazle jakinei buruzko jarduerara mugatzen. Gaur egun, errealitate kopuru eta idazle kopuru zabala ikertzen dira eta eremu emankorra dela ikusi ahal izan da. “El panorama de la investigación sobre autotraducción conoce en la actualidad un punto de inflexión significativo dentro de la traductología” (López L.-Gay, 2010: 282). Helena Tanqueirok 2000. urtean autoitzulpenari buruzko doktore-tesia aurkeztu zuenetik asko zabaldu da, beraz, ikerketa eremua eta ikertzaile kopurua. Universitat Autònoma de Barcelonako AUTOTRAD ikerketa taldearen lana aipatuko genuke bereziki, Tanqueiro bera buru duena, euren egitekoa autoitzulpenak aztertzea baita eta jarduerari dagokion ikusgarritasuna ematen saiatu baitira. Horren lekuko, 2011ko urrian Perpignanen egin zen nazioarteko kongresu monografikoa.

Honenbestez, argi geratu da autoitzulpena jarduera oso zabaldua izan dela historian eta munduan zehar, nahiz eta bazterreko fenomenoa dela pentsarazi duten jarduerari buruzko ikerketa ezak eta ikertu diren autoreak kasu bakan modura ikusi izanak. Santoyoren ondorio batzuk emango ditugu amaitzeko:

No estamos ante raras excepciones, sino ante un corpus inmenso, cada vez mayor, de textos traducidos por sus propios creadores. Lejos de ser un ‘caso marginal’ (border case, borderline case, *vide* Kálmán 1993), como también se le ha denominado, la traducción de autor cuenta con una larga historia y es hoy en día uno de los fenómenos culturales, lingüísticos y literarios más frecuentes e importantes en nuestra aldea global, y desde luego merecedora de mucha más atención de la que hasta ahora se le ha prestado (Santoyo, 2005: 866).

### 3.3.2 Sorkuntza prozesua

Itzulpen alografo eta autoitzulpenaren artean dauden aldeei begiratzen bazaie, sorkuntza prozesuari buruz hitz egin behar da. Autoreak berak itzultzen badu bere lana, beste itzultzaileak baino distantzia gutxiago izango du jatorrizko testuarekiko, une oro bai baitaki zer pentsatzen ari zen idazlea jatorrizkoa sortzerakoan. Jatorrizko lanaren fikzio-unibertsoa ere barru-barrutik ezagutzen du. Horiek hala izanik, Helena Tanqueirok ezagun egin duen esaldia hartu behar dugu gogoan: “el autoraductor es un traductor privilegiado” (Tanqueiro, 1999), aldi berean autorea eta itzultzailea baita. Itzulpen prozesuari begiratzuz gero, lan egiteko modua ere aldatu egingo da. “In terms of its production, an auto-translation also differs from a normal one, if only because it is more of a double writing process than a two-stage reading-writing activity” (Fitch, 1988: 131). Fitchen hitzetan, beraz, autoitzultzaileak, gainontzeko itzultzaileekin alderatzen badugu, irakurketa eta idazketa lana egin beharrean, gainontzekoen modura, bi aldiz idatzi behar du testua; nolabait, birsortze ariketa bat egiten du.

Andersonek ere antzekoa adierazten du sorkuntza prozesuari buruz:

Normal translation, however, is the result of a two-stage process of reading-writing, whereas self-translation is a re-enactment of the act of writing which produced the original text. In other words, ordinary translation is the reproduction of a product, whereas self-translation is the repetition of a process (Anderson, 2000: 1.251).

Andersonek adierazten duena, ordea, oso kontuz irakurri behar da. Zer da itzulpen normal edo arrunt bat? Autoreak itzultzen ez duen oro? Eta itzulpena jatorrizko produktuaren erreprodukzioa dela esatea, egun, Itzulpen Ikasketen barruan zilegi ez den ikuspegia litzateke. Bestalde, itzulpen alografoen prozesuarekin aldeak egon badaudela begi-bistakoa da. Baina, Andersonek dioen moduan “prozesu bat errepikatzea” dela esatea ez zaigu guztiz zuzena iruditzen. Jatorrizkoa idaztean produktu bat sortzen du idazleak; itzulpenean sortuta dagoen produktu batetik hasten zara beste bat sortzen. Beraz, nahiz eta autorea bera izan itzulpenaren arduraduna, ezin esan sorkuntza prozesua parekoa denik.

Autoitzulpena itzulpenaz haratago berridazketa ere bada, aurrez Fitch-ek esanikoak gogoan izanez gero.

Because it is possible to treat auto-translation, particularly if it contains considerable shifts, as a re-writing by the author, one should check whether these shifts are really the consequence of the act of transferring from one literature to another, or whether they are changes that occurred in the poetics of the writer himself, changes that are also discernible in his works within the frame of one language (Perry, 1981: 181).



1981. urtean Perryk planteaturiko berridazketaren kontzeptuari Lefeverek helduko zion beranduago. Bere ustez, itzulpen oro jatorrizkoaren berridazketa bat da (Lefevere, 1992: vii). Autoitzulpenaren kasuan, are eta gehiago dela esan genezake; berridazketen barruan, kasu paradigmaticoa dugu, berridazketa autoreak berak gauzatzen baitu. Zenbaitetan berridazketa hori itzulpenetik gertu egongo da; beste batzuetan, sorkuntza lanetatik. Itzulpen alografoek egiten duten berridazketa oso testuari loturikoa da; autoitzultzaileek egiten dutenean nabari da berridazketa askoz ere malguagoa dela, arinagoa, testua dinamikoagoa dela. Bere esku hartzea itzulpen prozesuan nabarmena izango da, hortaz.

Itzulpen batetik bestera aldeak beti egon ohi dira. Oro har, autoitzulpenetan agertzen diren aldaketak beste itzultzaile batzuek eginikoak baino sarriagoak izan ohi dira, eta, beraz, aldaketa horien arrazoiak bilatu beharko liriteke: literatur sistemen arteko aldeei dagozkien; batetik bestera izan den denbora tarteari dagozkion, ala autoitzultzailearen sorkuntza lanari dagozkion, hau da, berridazketari ote dagozkion. Esaterako, jatorrizko kulturaren irudia xede kulturak aurrez duen irudietara egokitzeko lana egin zuen Tagorek:

Mahasweta Sengupta has offered a rather engaging and perceptive reading of Rabindranath Tagore's autotranslation of Gitanjali. She points out giving numerous examples, of how Rabindranath took immense liberties with his own Bengali originals in order to refashion his Bengali songs to suit the English sensibility. He modified, omitted, and rewrote his poems in the manner of the Orientalists to cater to his Western audience (Ketkar: d.g.).

Bestalde, idazlearen hizkuntza gaitasunari ere lot dakizkioke testu batetik bestera egon daitezkeen mugimenduak. Carme Rierak ondorengo adierazi zuen:

El castellano no es la lengua en la que comencé a balbucear. Creo, sin embargo, que mi nivel de castellano es bueno pero soy incapaz de desarrollar en castellano las posibilidades lingüísticas que, casi sin ningún esfuerzo por mi parte, el catalán me regala, especialmente en lo que se refiere a sonoridad, recursos léxicos y semánticos, mucho menos explotados que en castellano (...). También me resulta difícilísimo en español jugar con los diferentes registros lingüísticos, aspecto que en catalán creo que se configura, como rasgo característico, mi obra, (...). Por eso, por mi incapacidad de encontrar equivalencias en castellano, he preferido volver a reescribir mis textos y, por eso, he tardado mucho en recrear *Dins el darrer blau* y *Cap al cel obert*. En ambos libros se cuenta la misma historia, pero con frecuencia, de forma diferente. Algunos párrafos han desaparecido, algunos capítulos se han reducido y algunas situaciones han cambiado algo (Riera, 2002: 12).

Rierak, elebiduna izan arren, gaztelania eta katalana ez ditu maila berean sentitzen, eta, horren ondorioz, nahiago du birsorkuntza lana egin jatorrizkoari gertutik eusten dion itzulpena egin baino. Hau da autoitzultzailearen idazle izaera presenteago dauka itzultzailearena baino.

Rieraren adierazpenetatik, bestalde, elebitasunaren inguruko eztabaida ere piztu daiteke. Autoitzultzaileak elebiduna izan behar du bere lana gauzatzeko, baina elebitasun maila ezberdinak daudela onartu behar da; izan ere, elebitasun perfektua oso zaila baita. Idazle bakoitzak bere hizkuntza parearekin duen harremanaren (menderatze maila, maila afektiboa, etab.) arabera da autoitzulpena egiterakoan erakutsiko duen jarrera. Hala ere, badaude beste faktore batzuk, noski: ekonomikoetatik hasita, esaterako. Elebitasunarena, beraz, faktore bat gehiago da, baina beste hainbat ere egon daitezke.

Sorkuntza prozesuan eragina izan dezakeen beste aldagai bat jatorrizkoa eta itzulpenaren artean igarotako denbora tartea dugu. Itzulpen alografoetan eragina izaten du aldagai honek, eta autoitzulpenetan izango duen eragina handiagoa izango dela pentsa dezakegu. Bi muturren artean egon gaitzke. “There appears to be a fundamental difference between what could be labelled simultaneous auto-translations (that are executed while the first version still in process) and delayed auto-translations (published after completion or even publication of the original manuscript)” (Grutman, 1998: 20).

Itzulpen lana jatorrizkoa sortu ondoren eginez gero, gainerako itzulpenetako egoeraren pare egongo ginateke. Xede testua jatorrizkoa sortu eta denbora gutxira egin daiteke, edo jatorrizkoa egin eta denbora tarte zabalera. Jatorrizkoa eta itzulpenaren arteko denbora tartea zabal bada, autoreari idatzi zuen garaira itzultzea zailagoa egingo zaio, bukatu berri duen lanera itzultzea baino. Esate baterako, Bernardo Atxagak *Bi anai* 1985ean argitaratu zuen euskaraz eta hamar urte beranduago argitaratu zuen berak itzuliriko *Dos hermanos*. Liburuaren epilogoan nahiko argi azaltzen du denbora tarte zabalak zein eragin mota duen bigarren testua sortzerakoan:

Al fin, el momento de recuperar el relato llegó. Bastaron un par de consejos y la invitación a publicarlo para que me pusiera a escribirlo de nuevo, afrontando así, una vez más, la realidad del escritor bilingüe: una clase de escritor que –con cierta ingenuidad al principio, con algo de amargura después– suele querer escribir lo mismo dos veces. Pero lograr dicha ingenuidad es imposible, sobre todo cuando entre esas dos veces han pasado once años y la lengua de la segunda vez no se parece mucho a la de la primera: imposible volver a ser lo que fuimos antes, imposible escribir como entonces, imposible encontrar la palabra exacta sin traicionar el original. De ahí que, a pesar del parecido, este “Dos Hermanos” no sea aquel “Bi anai”. En términos vagamente aritméticos, yo diría que “Dos hermanos” es igual a “Bi anai” más-menos once años de la vida de su autor (Atxaga, 1995a).

*Dos hermanos*-en epilogoak argi erakusten du 10 urteko denbora-tartea zabalegia dela idazlearentzat testu bera bi aldiz idazteko. Jatorrizkoa sortu zeneko sentipenak, egoera pertsonala eta liburuarekiko harremana guztiz ezberdinak izan daitezke, eta testura itzultzea ez da modu neutroan egingo; aldaketak beharrezkoak izango dira. *Dos hermanos*-en kasuan, kanonizazio berantiarraren ondorioz izan da jatorrizkoa eta itzulpenaren arteko denbora-tarte zabal hori, autorea gaztelaniaz *Obabakoak*-en bitartez kanonizatu ondoren etorri baitzen *Bi anai* itzultzeko proposamena.

Jatorrizkoa eta itzulpenaren sorreraren artean denbora tarterik ez izatea ere posible da; hau da, jatorrizkoa sortzearekin batera egitea itzulpena. Sorkuntza hizkuntza batean egiten ari den bitartean, eta amaitu gabe dagolearik, bigarren hizkuntzara itzultzean datza aldibereko itzulpena. Kasu honetan, itzulpen prozesuak eragina izango du jatorrizkoaren sorkuntzan. Autoitzulpena beharrean, agian, sorkuntza elebidunari buruz hitz egin beharko litzateke.

Hainbat autorek modu batean eta bestean egin izan dute lan; hau da, jatorrizkoa argitaratu ondoren itzulpena eginez ala jatorrizkoa sortzearekin batera itzulpena ere eginez. Modu ezberdinak probatu ostean, bataren edo bestearen aldeko apustua egiten dute. Carme Riera idazleak, konparazio batera, aldibereko itzulpena nahiago duela ondorioztatu du:

(...) a partir de la traducción castellana, la versión catalana varió un poco. A partir de la sexta edición de *Dins el darrer blau* se corrigieron una serie de imperfecciones puesto que ver la novela desde otra lengua proporciona una perspectiva distinta y ayuda, a la vez, a recomponer el mundo novelístico. Para mí, lo ideal sería poder trabajar como hice en *Qüestió d'amor propi*: iba traduciendo la novela mientras la escribía. Eso me ofrecía un punto de vista diferente para poder observar cómo funcionaba la otra lengua y para poder así corregir los aspectos que me parecían pertinentes porque me convertía en una lectora crítica de mi propio texto, mucho más distanciada que cuando leía mi propia lengua después de escribir, para corregir. El filtro que me suponía pasar por otro idioma me permitía, seguramente, objetivar mucho más, me convertía en una receptora y no en una emisora del texto en cuestión (Riera, 2002: 12).

Carme Rierak onartzen duenez, itzulpen prozesua idazte prozesuarekin bateratuz, batak bestean eragiten du, zuzenketak eginez eta idazketa zehatzagoa lortuz honela. Autoitzulpenaren bitartez, bestalde, idazten ari den testuarekiko distantzia bat hartzen du, beste modu batetara lortzen ez duen distantzia.

Bernardo Atxagak denbora tarte ezberdinez argitaratu ditu bere lanak: lehenengo itzulpenetan, denbora tartea handiagoa zen; baina bere azken eleberriaren itzulpenean (*Zazpi etxe Frantzian*), argitaratu aurretik ekin dio aldibereko itzulpenari bere itzultzailearekin batera. Itzulpen prozesua euskarazkoa argitaratu aurretik egiten denean, gaztelaniaratzek jatorrizkoa

aldaraziko du. Kolaborazioaren atalean (82. orrialdean) emango dugu honen inguruko xehetasun gehiago.

### **3.3.3 *Bi hizkuntzen arteko harremana***

Autoreak bi hizkuntzekin duen harremanaz gain, bi hizkuntzek elkarren artean duten harremana ere kontuan izan beharrekoa da. Xosé Manuel Dasilvak adierazi moduan, “no es la misma cosa, desde luego autotraducirse del gallego al castellano y autotraducirse, por ejemplo, del inglés al francés” (Dasilva, 2009: 146). Hizkuntza bakoitzak bere estatusa dauka eta bien arteko harremana oinarrizko elementua izango da autoitzulpenaren benetako izaera definitu ahal izateko. Pascale Casanovak (1999) hiru multzotan banatzen ditu hiru aukera posibleak: sinbolikoki nagusia edo “zentrala” den hizkuntza batetik hizkuntza “periferiko” eta honenbestez munduko hizkuntzen sisteman menpekoa den hizkuntza baterako itzulpena, eta alderantzizkoa; hizkuntza nagusi batetik beste hizkuntza nagusi batetarako itzulpena, eta menpeko hizkuntza batetik beste menpeko hizkuntza baterako itzulpena (Grutman, 2009; 128).

Autoitzulpenaren errealitatea ulertzeko gakoa hizkuntzen posizioan bilatu behar dela defendatzen dute bai Grutmanek eta bai Dasilvak. Kasu bakoitzaren arabera, fenomenoaren funtzioa ezberdina izango da: jarduera indibidual modura edo jarduera kolektibo modura egiten den. Eremu geografiko berean kokatzen diren bi hizkuntzen arteko autoitzulpenen kasuan, “[la autotraducción] no constituye un fenómeno equiparable al transvase que tiene lugar entre dos idiomas que gozan de análoga consideración social” (Dasilva, 2009. 148-149). Gizarte elebidun batean bi hizkuntzetariko bat egoera diglosikoan badago, autoitzulpena ere jarduera diglosikoa izango da.

Fenomenoa berez maila ezberdinetan dauden hizkuntzen artean agertzen bada –Grutmanek (2011) itzulpen bertikal deiturikoak–, hots, hizkuntza gutxitu eta hizkuntza normalizatu baten artean, hizkuntza diglosikotik nagusira egingo dira itzulpenak eskuarki –supraautoitzulpenak, Grutmanen hitzetan (2011)–.

(...) una característica diglósica más de las autotraducciones entre una lengua minorizada y una lengua normalizada es su direccionalidad. Resulta bastante habitual que se trasladen al castellano las obras escritas originalmente en gallego, como ya hemos advertido, y cada vez más, pero difícilmente se autotraducen a esta lengua las obras en castellano de escritores gallegos (Dasilva, 2009: 152).

### **3.3.4 *Autoitzulpenaren arrazoiak***

Idazle batek autoitzultzeko erabakia hartzen duenean, erabaki hori modu kontzientean hartuko du, eta horretarako hainbat arrazoi izan ditzake. Oro har, arrazoi horiek bi multzotan bana daitezkeela esango genuke: autoreen ikuspegitik begiratuta eta literatur sistemaren ikuspegitik begiratuta. Agian,

barne eta kanpo faktoreen arabera ere sailka daitezkeenak. Hala ere, gogoan izan beharko genuke honakoa: “[la autotraducción] es siempre una opción, nunca una obligación” (Beaujour, 1989: 38-39 *in* Grutman 2009: 124). Obligazioa izan gabe ere, atzean pisuzko arrazoiak egon daitezke eta horrek erakusten du halako baieztapenak ezin direla hain erraz egin, egoera ezberdinak kontuan izan gabe. Euskara bezalako hizkuntza gutxituetako idazle elebidunek euren ibilbidean zehar inoiz edo behin hautatu beharra izan dute bere lana autoitzuli edo ez. Sarritan, autoitzultzea da aukera bakarra beste hizkuntza batera heltzeko eta, kasu horietan, obligazio izaera izango luke aukera horrek.

Idazleek, askotan, euren lanak itzultzeari ekiten diote honako arrazoiak direla medio: orain gutxi arte gaztelaniaz lan egiten duten eragileek gure hizkuntzarekiko eta gure literaturarekiko erakutsi duten interes falta, euskaraz idazten duten idazle gehienek euskaraz gain gaztelania ere erabiltzeko gaitasuna eta alderantzizko itzulpenak gauzatzeko itzultzaile gabezia. Hiru arrazoi horiek bazter utzita, bada laugarren arrazoi bat ere, agian garrantzitsuena: euskal lanak itzultzeko eta horiek argitaratzeko behar den dirua. Diru eskasiak bultzaturik, euskal idazle askok bere lanak itzultzeari ekiten dio sarritan.

Xede hizkuntza ezagutzen duten heinean, hainbat idazlek xede testua “kontrolatzeko” beharra sentitzen dute. Jon Alonsoren hitzetan, zenbaitetan idazleek beldurra sentitu dezakete beste batek bere lana itzultzean eta zer interpretazio mota egin duen ikustean (Montorio, 2007: 72-73). Iritzi berekoa dugu Unai Elorriaga ere: “No dejaría a nadie que me hiciese la traducción al castellano, porque sé lo que es traducir: yo quiero mucho a mis libros” (Martínez-Lage, 2003). Testua manipulatu behar bada, berridatzi, eurek euren kabuz manipulatzearen alde egiten dute: autoitzultzaileek nahiago izaten dute jatorrizkora itzultzeak sortzen dizkien zailtasunak pairatu eta gaztelaniara beraiek itzultzea, beste norbaitek euren lana itzul dezan uztea baino. Harkaitz Canok modu nahiko grafikoan deskribatzen du autoitzulpena:

Itzulpena da autopsia egitea bizirik zaudela, baina autoitzulpena auto-autopsia da, bibisekzio bat. Bada beldurrezko ipuin bat: mediku bat irla batean dago, eta ez dauka janaririk. Bisturia hartu eta hasten da bere burua jaten, baina medikua denez badaki zein atal moztu behar duen bizirik segitzeko. Nik horrela ikusten dut autoitzulpena pixka bat, nik badakit zehaztasunez zer moztu behar duan eta hala ere bizirik segi (Montorio, 2007: 77).

Bestalde, euskaraz sortutako testuaren balio literarioa neurtzeko tresna ere izan daiteke autoitzulpena Dasilvaren ustez: “apetito [de los autores] de contrastar mediante la versión en castellano la calidad de sus originales” (Dasilva, 2010: 270). Modu honetan, xede bertsioa jatorrizkoa hobetzeko tresna modura ere erabil dezakete egileek.

Francesc Parecerisas idazle eta autoitzultzaileak lau idazle mota aipatzen ditu, autoitzulpenerako erakusten duten jarreraren arabera. Lehenengo eta behin, beren lana itzuli nahi ez duten idazleak, nahiz eta elebidunak izan eta lan hori egiteko gai diren. “Prefieren no verse enzarzados en la valoración que esta actividad implica, en la necesaria relectura y apreciación crítica del original, y les resulta más satisfactorio dejar su traducción en manos de un buen profesional” (Parcerisas, 2002: 13). Idazle horietariko hainbatek ez dute beraien lana xede hizkuntzan ezagutzen, ez dute bere sentitzen.

They really do lose so much in translation as to make the effort almost worthless, like passing around a bottle of non-alcoholic wine. Whenever I've seen pieces of mine in English, I've only dimly recognized them, like friends who've been in some terrible accident (Morys, 2003: 55).

Unai Elorriagak ondoko hiru arrazoiak ikusten ditu jatorrizko lanera ez itzultzeko euskal idazleengan: lehenik, oinarritzko itzulpen-erregelak ez ezagutzearen ondorioz, itzultzaile lanetan aritzeko bere burua kapaz ez ikustea; bigarrenik, denbora falta, euskal idazle gehientsuenak ez baitira idaztetik bizi eta beste ogibideren bat daukatelako; eta, hirugarrenik, obra berreraiki nahi ez izatea (Elorriaga, 2008: 183).

Beste hainbati, autoitzulpenaren esperientzia probatu ostean mingarriegi zaie jatorrizkora itzultzea, eta nahiago izaten dute itzulpen lana profesionalen esku utzi. Euskal letretan, Anjel Lertxundi dugu horren adibide ezagunenetariko bat. Lertxundirentzat euskarazkoa da testu kanonikoa, bere ibilbide literarioa hizkuntza horretan egin du, eta ezinezkoa litzaioke bigarren hizkuntza batean maila berera heltzea. “Nire bizitza osoa eman baldin badut estilo jakin hori lantzen hizkuntza jakin batean, zertan hasi behar dut neure libururen bat itzultzen, aurrez baldin badakit guztiz neutralizatuta geldituko zaidala nik nahi nukeen estilo hori?” (Egia, 1999: 120).

Parcerisasen sailkapenarekin jarraituz, bigarren multzoan kokatzen ditu jatorrizkoari ahalik eta hurbilen lotzen saiatzen diren idazleak.

Otros, por el contrario, quieren certificar el valor inmutable e intocable del original produciendo ellos mismos las versiones de sus obras, aun a riesgo, a menudo fatídico, de darnos traducciones rígidas, puros moldes de yeso, que son copias estereotipadas en la lengua de llegada y que, aunque no suelen servir para engrandecerles como traductores (...), pueden servir como referencia utilísima para leer, casi como anotada al pie de página de la intencionalidad, su versión original (Parcerisas, 2002: 13-14).

Hirugarren multzo batean, jatorrizkoaren estatusa eta itzulpenarena pareko jartzen dituzten idazleak aurkitzen ditugu, euren lana itzultzeaz gain birsorkuntza lana egiten dutenak.

Unos terceros autotraductores, ya menos, gozan en la recreación de los textos de partida, a veces cortando, añadiendo, sobreponiendo, dejándose llevar por las virtualidades de la nueva lengua, o virtud imprescindible y necesaria, corriendo posibles errores del original; éstos, en su doble apreciación de lo mismo y lo distinto, constituyen un archivo inagotable de recursos y soluciones a los problemas culturales y lingüísticos de la traducción, a lo que hay que explicitar y lo que se puede dar por descontado, a la lista de guiños necesarios o superfluos al lector (Parcerisas, 2002: 14)

Hirugarren multzo honetan kokatzen diren idazleek kontzienteki edo inkontzienteki hartzen dute “birsortzaile” rola. Lluís María Todó idazleak, adibidez, badaki beste edozein itzultzailek baino askatasun handiagoa duela berak autore gisa: “supongo que cualquier escritor que haya estado en este caso sabe de sobra que puede concederse una libertad, unas libertades que no se permitiría si estuviera traduciendo obra ajena” (Todó, 2002: 19). Antoni Marí idazle katalanak, berriz, oharkabeen egin zituen eraldaketak: “De lo que no era en absoluto consciente era de que en la traducción al castellano me hubiera permitido unas libertades que un traductor de oficio no habría podido permitirse nunca sin que le acusaran de ‘traidor’” (Marí, 2002: 16).

Laugarren multzoan, azkenik, sorkuntza eta itzultze lanak aldi berean egiten dituzten idazleak topa ditzakegu. Aurrez aipaturiko Carme Riera multzo honetan sar genezake, esate baterako.

Y todavía podríamos especular con un cuarto grupo, menos habitual, de autotraductores que hace de la autotraducción un verdadero banco de pruebas para la elaboración de su obra: original y traducción se escriben, en este caso, en paralelo, se complementan y modifican, al extremo de identificar mal si fue primero el huevo o la gallina. En este último grupo, sin embargo, debemos considerar que la identidad que se otorga a la autoridad de ambas versiones es prácticamente igual y que, como mucho, se puede hablar de precedencia cronológica, más que de autoridad de un único original (Parcerisas, 2002: 14).

Bestalde, Manu Lopez Gasenik 2005. urtean argitaraturiko *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* liburuan, bazterreko literaturen gutxiagotasun konplexuak eraginiko hiru arrazoi aipatzen ditu autoitzulpenerako. Horietariko lehena, euskaraz gain hizkuntza nagusia ondo menderatzen dela erakutsi beharra:

Alde batetik, itzultzaileak itzulpenean inplikaturiko bi hizkuntzetan gaitasun linguistiko osoa duela erakusteko behar sozial eta psikologikoa. Literatura hizkuntza gisa euskara aukeratu izanak ez du esan nahi beste hizkuntza (gaztelania edo frantsesa) ez dakienik; aitzitik, autoitzulpenak frogatzen duen bezala, hizkuntza nagusia ederki menperatzen duena erakutsi nahi du. Horretaz galdetzen zaienean, sarritan, idazleek beren haurtzaro elebidunaren aipamena egiten dute azalpen-justifikazio gisa (Lopez Gaseni, 2005: 44).

Idazle gisa kalitate bereko lana idazteko gai dela erakutsi beharra izaten du idazleak arrazoi horren arabera. Gaitasun linguistikoa bi hizkuntzetan badutela erakutsi beharrak kultur sistemaren menpekotasuna erakusten du. Hizkuntzaren eta literaturaren egoera diglosikotik dator hori: hizkuntza gutxituan ongi moldatuagatik ere, hizkuntza nagusian ere ongi idazten dela erakutsi beharra.

Bigarrenik, testura berriro itzuli beharra aipatzen du ikertzaileak:

Bigarrenik, idazleak bere idazlana “berridazteko” beharra sentitzen du, sistema berriaren mailara egokitzeko; izan ere, sorburu hizkuntzako sistemaren gehiegizko erlaxazioak eta zorrotasun faltak, askotan, idazlea bertan goxo aritzera daramate, eta, testuak egokitzapen horiek egin gabe itzuliko balira, axolagabekeria batzuk nabarmenegi geratuko lirateke (Lopez Gaseni, 2005: 45).

Azken arrazoi modura, sorkuntza prozesua nolakoa izan den ezkutatzeko nahia aipatzen zaigu:

Hirugarrenik, idazleak sorkuntzaren benetako mekanismoak ilunpean gordetzeko beharra sentitzen du inguru elebidun edo diglosikoetan. Batzuetan, egileek berek ere ez dakite argitzen (edo ez dute argitu nahi) zein hizkuntza egon den autoitzulitako idazlan jakin baten sorreran. Argitasun falta horrek mesfidantza moduko bat ere eragin dezake irakurleen artean, amarru moduko baten aurrean bageunde bezala (Lopez Gaseni, 2005: 46).

Hautu pertsonalez haraindi, sistema literarioari loturik dauden arrazoiak ere aipatzen dira liburu horretan:

Esanak esan, autoitzulpenaren ekintza ulertzen laguntzen duten beste arrazoi batzuk ere ezin dira bazter utzi. Lehenengo eta behin, arrazoi ekonomikoak direla medio oso zaila da egilea ez den beste itzultzaile bati inplikatzeari argitaratzaile ziurrik ez duen itzulpen lan batean. Bigarren arrazoi bat teknikoa da: tradizio falta dela eta, euskararako ditugun itzultzaile on ugariekin kontrastean, alderantzizko itzultzaile literario (on) gutxi daude (gaztelania eta frantsesera; beste erdara batzuetara itzultzeko gai direnak ia hutsaren hurrengo dira). Aipatutako bi arrazoiaren oinarrian alderantzizko itzulpen eta argitalpen politika falta dago, prozedura hori, egile jakin gutxiarekin izan ezik, ez dago sistematizaturik. Arestian aipatutako bigarren arrazoiaren ondorioz, bestalde, gaztelaniara edo frantsesera egindako autoitzulpena gainontzeko erdaretako itzulpenetarako testu kanoniko bihurtzen da ia beti, jatorrizkoaren kaltetan (Lopez Gaseni, 2005: 47).

Kanonizatzen dena, beraz, gaztelaniazko bertsioa izaten da kasu hauetan, eta itzulpena euskal literaturarekin lotzen duena liburuen edukia izaten da, eta ez jatorrizko testua.



Autoitzulpenak egiteko arrazoiak autoitzultzaileen ikuspegitik haratago sistema literarioen ikuspegitik ere aurkitu behar dira. Literatur sistema batetik bestera itzulpenak egiteko nahikoa profesional ez badago, autoitzulpena bultzatuko da modu batera edo bestera. Eta, norbanakoak hartutako erabaki soila izatetik, kolektibo baten edo literatur sistema baten fenomeno izatera pasako da.

Sistema diglosikoek ere irakurlego kopuru mugatua dutenez, sarritan autoitzulpena irakurle kopuru zabalagoarengana iristeko aukera izango dute idazleek. Modu horretan, jatorrizko kulturen profesionalizazio aukera murriztzak badaude, autoitzulpenak horretarako aukera eskainiko dio. Hona Galiziar erreferentzia eginez Dasilvak aipatzen duena: “Efectivamente, la exportación de textos es la única opción por lo general a fin de poder vivir de la escritura en Galicia, ya que las cifras de ventas del mercado editorial interior no son suficientes” (Dasilva, 2010: 271).

Merkatuak ere eraginik izan dezake itzulpenak autoreak berak eginarazteko. Xede bertsioren autore modura aurkeztuz gero, gehiago saltzeko aukera izango du sarritan idazle batek. Beste batzuetan, merkatuak autoitzulpenak egitera bultzatuko ditu idazleak, nahiz eta gero ez aurkeztu hala. Espainiako hizkuntza gutxituen kasuan, kultura espainiarrak bereganatu egiten ditu literatura txikiak lanak. “La literatura española tiende a adueñarse de las obras de las literaturas periféricas que aparecen autotraducidas al castellano, propiciando que la identidad lingüística de muchos escritores acabe desvaneciéndose” (Dasilva, 2009: 146). Merkatuaren legeak aginduta, gainera, autoitzulpenik izan denik ere ezkutatu egingo da sarri, eta jatorrizko modura aurkeztuko dira lanak. “La voracidad endocéntrica del Estado reclama que los textos escritos en lenguas periféricas no solo sean traducidos al castellano, sino que se presenten como verdaderos originales por medio de autotraducciones” (Dasilva, 2009: 146).

### **3.3.5 Jatorrizkotasuna**

Autoitzulpena sorkuntza bikoitza dela onartzen badugu, itzulpenaren estatusa ere itzulpen alografoen aldean ezberdina dela onartu beharko dugu. “The original’s precedence is no longer a matter of ‘status and standing’, of authority, but becomes ‘purely temporal in character’” (Fitch, 1988: 131). Fitchen arabera, lanaren autorea bada itzultzailea, autoitzulpenak jatorrizkoaren pareko izaera hartuko du. “The distinction between original and (self-)translation therefore collapses, giving place to a more flexible terminology in which both texts are referred to as ‘variants’ or ‘versions’ of equal status” (Fitch, 1998: 132-133). Baina errealitatean ez da beti horrela gertatzen; hizkuntza parearen arabera izango da hori. Bi hizkuntza handiren arteko autoitzulpena bada, hau da, bi hizkuntzak pareko estatusa badute, jatorrizkoaren estatusa hor egongo da. Egoera asimetricoan dauden hizkuntzen artean, aldiz, txikitik handira esaterako, jatorrizkoak estatusa galduko du. Aurrerago ikusiko dugu Bernardo Atxagaren kasuan ere

antzeko zerbait gertatu izan dela noiz edo noiz. Jatorrizkoa ez da agertzen paratestuetan, eta gaztelaniazkoak hartzen du jatorrizkoaren tokia.

(...) la autotraducción (sobre todo la de tipo asimétrico, de la que estamos hablando) puede convertirse en un arma de doble filo. (...) tanto puede aumentar la visibilidad de la versión en lengua mayoritaria que termina ocultando su creación en una lengua menos difundida, descalificándola de algún modo y confirmando al mismo tiempo la posición dominante del idioma central (Grutman, 2009: 131).

Testuaren izaeraz gain, itzulpenaren egilearen prestigioa edo ikusgarritasuna ere aldatu egiten da ohiko itzulpenetatik. Autoritatea idazlearena izan da historian zehar, eta itzultzailea bigarren maila batean egon da, guztiz ikusezin hainbat kasutan. Autoitzulpenaren kasuan, autorea eta itzultzailea pertsona bera izanik, itzultzaile horrek itzulpenaren autoritatea bere gain izango du, nahiz eta hainbatetan bere izena paratestuetan itzultzaile modura agertu ez.

Hainbatetan, argitaratzaileak ere nahiago izaten du itzulpena autoreak berak egitea; itzultzaile trebatuen falta dagoenean batik bat. Promozioari begira, ez da gauza bera liburuan itzultzaile ezezagun baten izena azaltzea edo autorearen beraren izena jartzea; itzulpenak autoritate gehiago duela pentsatu ohi da sarritan idazleak berak egin badu eta itzulpen alografoekin alderatuz harrera ezberdina izaten da. “Readers paradoxically accept self-translations as more authoritative than those done by others, despite the above-noted tendency of authors to translate more freely and revise” (Anderson, 2000: 1.251). Autorea denez itzulpenaren egilea, jatorrizkoagotzat jotzen dira autoitzulpenak beste itzultzailearen batek eginiko itzulpena baino. “Monolingual critics generally write about the version in their own language as if it were the original, regardless of which language version appeared first” (Anderson, 2000: 1.251). Hortaz, autoitzulpenak autoritate handiagoa duela pentsatzeak, nolabait, liburuaren harrera baldintza dezake. Estatu mailan positiboa izan daiteke autoitzulpena autoreak egin duela agertzea, euskaratik gaztelaniarako itzulpenetan, esaterako. Beste egoera batzuetan (bi hizkuntza nagusi eta elebakarren arteko itzulpenean, kasu) oso kasu arraroak lirateke autorea bera izatea bere lanaren itzultzaile.

Autoitzulpena nola aurkezten den ere garrantzitsua izango da autoitzulpenaren beraren izaera definitzeko. Autoitzulpenetan, itzulpen alografoetan bezala, jatorrizkoaren izena eta autoitzulpena izan dela ere erakutsi daitezke –*autotraducción transparente*, Dasilvaren hitzetan (2011)–. Jatorrizkoaren izenbururik agertzen ez bada ezta autoitzulpenaren berri ematen, xede hizkuntzan idatziriko lan modura agertuko dira lanok –*autotraducción opaca* (Dasilva, 2011)–. Eta kasu horietan, idazlea bi sistemetan idazle modura aurkeztuko da, maila berean jarriz bi testuak eta egilearen rola testu bakoitzarekiko.

Autoitzuliriko lan bat hirugarren hizkuntza batetara itzultzen bada, hirugarren hizkuntza horretarako itzultzaileak itzulpena egiteko bi iturri izango ditu aukeran. Biak ala biak ere “jatorrizko” kontsidera daitezke, idazlea eta itzultzailea biak pertsona bera direnez gero. Hori horrela izanik, autoitzulpena jatorrizkoaren pare jar al liteke? Ala itzulpen alografo batek duen adinako estatusa soilik izango du? Bestalde, testuaren jatorrizkotasuna ere zalantzan geldi daiteke. Hizkuntza gutxituetatik itzultzen denean, hizkuntza nagusira eginiko autoitzulpenak balioko dio autoreari beste hizkuntza batean onartua izateko eta hortik beste hizkuntza batzuetara igarotzeko. Modu horretan, baina, autoitzulpen hori behin betiko testu bihurtzen da, autorearen beraren eskutik pasa denez, bere bermea daukalako. Eta bigarren bertsio hori, hizkuntza nagusian egin izanik, kanoniko bihurtu daiteke, jatorrizkoari behin-behinekotasun bertsioaren izaera emanaz.

### 3.4 KOLABORAZIOA

Identifikatu dugun bigarren fenomeno kolaborazioari dagokio, hau da, autorea eta itzultzailearen arteko elkarlanari. Idazle batek itzultzaileekin kontaktua izatea ohikoa izan daiteke, baina hemen aipatuko dugun kolaborazio maila sakonagoa izango da, autorearen izena paratestuetan agertzerainoko kasuak aztertu nahi baititugu. Aurrerago ikusiko dugunez, halako hainbat kasu ageri da euskaratik literaur lanak erdaratzean.

Kolaborazioaz hitz egiten dugunean, itzulpen lana pertsona bat baino gehiagoren artean eginiko itzulpenaz ari gara. Touryk dioten moduan, halaber, itzulpen prozesua ez da itzultzailearen figurara mugatzen: zuzentzaileak, editoreak, eta abarrek ere esku hartzen dute prozesu horretan. “Whatever the number, the common practice has been to collapse all of them into one persona and have that conjoined entity regarded as ‘the translator’” (Toury, 1995: 183). Guk aztertu nahi dugun jardueran, are talde lanagoa izango da, kolaborazio lan indartsuagoa. Touryk aipatzen duena aztertzea zaila baldin bada, gure kasuan oraindik gehiago, autorea ere jardunaren mamian baitago kokatuta.

Kasu honetan itzulpen lana bi itzultzailearen edo itzultzailea eta idazlearen elkarlanari esker gauzatzen da. Bi idazleren arteko elkarlana ere izan daiteke, hots, idazle horietako baten lana idazle hori bera eta beste idazle baten artean itzultzea, edo bien arteko sorkuntza lana bien artean itzultzea, nahiz eta kasu horietan bi idazleek itzultzaile modura lan egin. Idaztea eta itzultzea, biak ala biak ere, bakarkako lan modura jaso ohi ditu irakurleak. Bakarka idatziriko lanekin alderatuz gero, oso bakanak dira bi idazleren artean eginiko literatur lanak<sup>25</sup>. Itzulpen prozesuarekin ere antzera

<sup>25</sup> Euskal literaturari dagokionez, Martin eta Xabier Etxeberria anaiak zenbait lan argitaratu dituzte bien artean —esate baterako *Itxoidazu Café de Passy-n* (2004), Ez

gertatzen da; askoz ohikoagoak dira itzultzaileak bere bakardadean eginiko lanak, elkarlanean eginikoak baino, batez ere literatur itzulpengintzan. Kolaborazioarena arautik kanpo geratzen den fenomeno dela esan dezakegu, eta, horrexegatik, ez da hain aztertua izan. Gure katalogoan bertan –1.176 sarrera dituenean–, 61 itzulpen topatu ditugu elkarlanean eginak<sup>26</sup>. Hortik ondoriozta dezakegu araua bakarkako itzulpena dela.

Itzulpen Ikasketen inguruko entziklopedia edo eskuliburuetan ez dugu fenomenoari buruzko sarrerarik topatu. Fenomenoari ere ez dakigu ongi zein izen eman behar zaion, ez baitugu horren inguruko informazio askorik topatu. Eugene Nidak *team translation* izendapena erabili zuen Bibliaren itzulpenaren inguruko bere lanean (1964); Nike Pokornek ere, alderantzizko itzulpena aztertzen duelarik, *team translation* izendapena darabil *collaboration* eta *co-operation*-ekin batera; Isabelle Vanderscheldenek, berriz, *translation collaboration* darabil; Dasilvak (2011) *traducción parcialmente autorial* edo *autotraducción en colaboración* aipatzen ditu. Kolaborazio itzulpena, elkarlaneko itzulpena edo antzeko beste izendapenen bat eman diezaiokegu euskaraz. Ikergai modura ez dago definituta. Gaiaren inguruan bilaketak eginez *collaborative translation* edo *team translation* bezalako nozioekin egin dugu topo lokalizazioaren alorrean; arlo horretan, teknologiak garatzen doazen heinean kontzeptua hedatzen ari da, baina literaturan ez dugu ezer askorik topatu.

Kolaborazioan eginiko itzulpenak autoitzulpenarekin hertsiki lotzen dira idazlea eta itzultzailearen arteko lanetan. Kolaborazioari buruzko informazio gehiena autoitzulpenaz hitz egiten den dokumentuetan topatu dugu. Idazle askok autoitzulpena zein kolaborazioa probatu dituzte beraien itzulpen prozesuak gauzatzeko. Azken batean, autoreak berak autoitzulpenean zein kolaborazioan bere lana itzuliko du; lehenengoan, bakarrik eta bigarrenean beste norbaiten laguntzaz.

### **3.4.1 Kolaborazioa eta bakarkako itzulpenaren arteko aldeak**

Kolaborazioa eta bakarkako itzulpenaren arteko alderik nabarmenena lan karga eta horren banaketa da. Bakarka lan egiten denean, itzulpen prozesuaren zati guztiak pertsona bakarrak bete beharko ditu, eta, pertsona bat baino gehiago bada itzulpen prozesuaren arduradun, lan karga banatu egingo da. Lan karga horren banaketa itzultzaileen elkarlan motaren araberakoa izango da. Bi itzultzailearen lana baldin bada, lana zatika itzultzea

---

*dadila eguzkia sartu* (2006) edo *Arrain abisalak* (2009)–, baina kasu bakana dugu berau.

<sup>26</sup> Gainerako sarreretan pertsona bakarrak egin du itzulpena, edo datu horren zantzurik ez da ageri. Zenbaketa honetatik kanpo utzi ditugu antologiak, non itzultzaile bat baino gehiago izatea arrunta den, baina oro har ez dute kolaborazioan lan egiten; zatika baizik.

erabaki dezakete: edo batek itzuli eta besteak berrikusi, edo bien artean itzulpena lau eskutara egitea.

Kolaborazioa itzultzailea eta lanaren autorearen artean egiten baldin bada, maila ezberdinetakoa izango da elkarlana. “The text is no longer the only reference to deal with potential interpretation or ambiguity” (Vanderschelden, 1998: 28). Autorearen jatorrizkoari buruzko azalpenak izango ditu itzultzaileak, testu soilaz gain, jatorrizkoa interpretatzeko; hori da bakarkako itzulpenarekin izan dezakeen alderik nabarmenena. Horren ondorioz, autorearen laguntza onartuta, itzultzaileak egin beharreko lana partekatua izango da, eta erabakiak hartzeko ahalmen mugatuagoa izango du. “In accepting active interference from the author, the translator reduces his own freedom and the potential for his own reading of the source text” (Vanderschelden, 1998: 28).

Idazleak itzulpenean duen pisua edo, hobe esanda, itzultzailearen izenak itzulpen prozesuan izan dezakeen pisua kontuan izan beharreko faktoreak dira elkarlanean eginiko itzulpenak aztertzerakoan. “The notion of ‘authority’ conveys the power and legitimacy of the author in relation with the text. In this context, translation collaboration can sometimes shift the decision process from translator to author” (Vanderschelden, 1998: 26).

Autorea itzulpen prozesuaren zati izanik eraldaketak egin behar badira, azken erabakia berea izango dela pentsa daiteke, eta, beraz, itzultzailearen aldean, bere estatusa erabakiorra izango dela. Honenbestez, itzultzailea idazlearen menpe egongo da: “an element of subordination on the part of the translator” (Vanderschelden, 1998: 25).

### **3.4.2 Kolaborazio motak eta mailaketa**

Elkarlanean eginiko itzulpenak maila eta mota ezberdinetakoak izan daitezke, eta hori izan daiteke definizio falta argitzeko arrazoia. Aurrez esan dugun moduan, pertsona batek baino gehiagok eginiko itzulpenak dira kolaborazioak. Lehenengo sailkatze mota jatorrizkoarekiko harremanaren arabera izan daiteke, hau da, itzulpena bi itzultzailearen elkarlana ala jatorrizkoaren idazlearen eta itzultzailearen arteko elkarlana. Gure katalogoan, esate baterako, lehenengo motaren 27 itzulpen aurkitu ditugu eta bigarrenaren 34.

Lehenengo kasuan, hau da, bi itzultzailearen arteko elkarlanean, biak sortze prozesutik kanpo dauden pertsonak izanik, jatorrizkoari maila beretik helduko diote. Arrazoi ezberdinen ondorio izan daiteke elkarlan mota hori. Esate baterako, itzultzaileetariko batek xede hizkuntza guztiz ondo ez menderatzea eta jatorrizkoa ama hizkuntza izatea; bigarren itzultzaileak, berriz, alderantziz, xede hizkuntza ama hizkuntza du baina ez du jatorrizkoa guztiz menderatzen. Bien arteko elkarlanean, jatorrizkoa ongi ulertu ahal izango dute eta xede hizkuntzan testu egokia sortu. Euskaratik errusierarako itzulpenak egin dituzten Roberto Serrano eta Roman Ignatiev izan daitezke

prozesu horren adibide: “Serranok egiten du oinarritzko itzulpena eta Ignatievek lana zuzendu, egokitu eta biribildu” (Zabala, 2010: 40).

Bigarren kasuan, idazlea eta itzultzailearen arteko elkarlanean, bi sortzaileak maila ezberdinean daude; lehenengoa jatorrizkoaren egilea izanik, sorkuntza prozesutik birsorkuntza prozesura igaroko da, eta, bigarrena itzultzailea izanik, jatorrizkoa irakurri beharko du, ulertu, interpretatu, landu eta, ondoren, berridazketari ekin. Itzultzaileak bere lana mugatuagoa ikusiko du elkarlanean eta askatasun gutxiago izango du erabakiak hartzeko. Idazle eta autoitzultzaileari itzultzaile profesionalarekin izandako elkarlanak erabakiak hartzeko duen ahalmena mugatuko dio aldi berean.

Idazlearen eta itzultzailearen arteko elkarlana oso maila ezberdinetan ager daiteke. Idazle batzuk idatzi dutenera itzuli nahi izaten dute eta beste zenbaitzuk ez. “Some authors feel they are not qualified to comment on or interfere with the translation, whereas others are keen to proofread the translation” (Vanderschelden, 1998: 22). Kolaborazio maila bat zera izan daiteke, idazleak itzultzailearen argibide eskariei erantzutea, honi oharrak ematea, arazo jakin batzuen kasuan esanahiari buruzko azalpena ematea, eta abar. Vanderscheldenek iritziz, baina, idazlearen eta itzultzailearen arteko lan-harreman espezifiko horiek ez dira kolaborazio itzulpen modura sailkatu behar. “If it does not occur on a regular or systematic basis, it becomes an invisible aspect of the translation process once the translation is published” (Vanderschelden, 1998: 23).

Idazlea elebiduna ez den kasuetan ere, kolaborazio lana ager daiteke; autore modura izandako asmoez, azalpenez eta itzulpenean jarraitu beharreko oharrez itzultzaileari bere lana gidatu ahal izango baitio. Autore batzuk itzultzaileari laguntza emateko xedez ematen dizkiete azalpenak; beste batzuek, ordea, bere lana itzulpenean nola geldituko den gainbegiratu beharrek bultzatuta egiten dute hori. Itzultzaileen kasuan, laguntza eskatzeko urratsa beraiek emango dute zenbaitetan; beste batzuetan, berriz, idazleen eskutik jasoko dituzte jarraibideak.

Idazlearen oharrak edo azalpenak izateak itzultzaileari bere lana erraztuko dio; izan ere, esan nahi zuena esplizituki jasoko baitu irakurketa eta interpretazio faseetan.

Hainbat kasutan, idazlea elebiduna bada, itzultzaileak eginiko lana ikuskatu nahi izango du, zuzendu, editatu. Nolabait, itzulpen prozesuaren lehen zirriborroa “hobetzeko” ahalmena izango du jatorrizkoaren idazleak. Nabokoven esperientziak hala erakusten digu:

He [Nabokov] increasingly merged and seamed his languages in the English text, while ever conscious of the prospective Russian version – and possibly French, since he did the French translation of *Lolita* himself and **oversaw** all French translations for Paris publishers. (Hokenson-Munson, 2007: 179)


Beste hainbatetan, itzultzaileak eginiko zirriborroaren gainean aritzen dira lanean idazleak. Beste adibide honetan ere, Nabokoven jarduera aipatzen da:

For the major period of self-translation, after 1960, he [Nabokov] developed a method of using “subtranslators” (often his wife or his son) who submitted a literal translation from which he prepared the final text for publishers (Hokenson-Munson, 2007: 181).

Beste kasu batzuetan, idazleak eskuz esku egingo du lan itzultzailearekin itzulpen prozesu guztian zehar. Zenbaitzuetan, idazleak itzultzailearekin lehenengo fasean egingo du lan, jatorrizkoaren nondik norakoak guztiz argituz eta itzulpen prozesuaren lehen fasean present izanez, baina itzulpen prozesuaren pisu nagusia itzultzailearen gain utziz. Dena den, oso zaila izango da itzulpen prozesuan bata zein bestearen egitekoa edo lana neurtzea, kolaborazioa zenbaterainokoa eta nolakoa izan den neurtzea, bata eta bestearen lana non hasten den eta non amaitzen den ikustea, aldi berean edo fase ezberdinetan lan egin duten jakitea, edo bata eta bestearen erabakien pisia zein izan den ezagutzea.

Autoreek itzulpen prozesuak probatuz bata ala bestearen arteko hautua egin ohi dute beren idazle ibilbidean zehar; zenbaitek beste norbaitekin lan egin ondoren inoiz gehiago beraien burua ez itzultzeko, edo bakarkako lanean ez itzultzeko hautua egin ohi du; beste hainbatetan, elkarlana ez da uste bezain erraza izaten. “As for most bilingual writers, Beckett’s one experience with another translator (Patrick Bowles “in collaboration with the author” for *Molloy*) was not repeated” (Hokenson-Munson, 2007: 189). Aurreko adierazpen horretan, Hokensonek eta Munsonek elkarlana behin probatu ondoren ez dela errepikatzen adierazi dute, baina, gure aztergaiaren kasu konkretuan, alderantziz gertatzen da: Atxagak, egun, bere burua beste itzultzaile baten laguntzaz itzultzen du, oro har.

Ikus dezakegunez, kolaborazio mailaren arabera itzulpenak autoitzulpenetik gertuago koka daitezke, edo bestela itzulpen alografoetatik gertuago. Kolaborazio mailaketa zabal horrek *continuum* bat irudikatuko luke, hortaz: mutur batean autoitzulpena izango genuke eta beste muturrean itzulpen alografoa. Tartean, berriz, itzultzailea eta idazlearen elkarlanaren mailaketa osoa, elkarlan puntualetatik hasi, eskuz esku jardutetik pasa eta idazleak lanaren pisu handiena hartzeraino.

3-1 Figura. *Continuum*-a

*Continuum* horretan hainbat bikoteren kolaborazio lana mutur batetik gertuago egongo da bestetik baino. Guztiz ezberdinak ere izan daitezke hainbat idazleren jarrerak. Pare bat adibide ekarri nahi izan ditugu hona hori irudikatzeko. Batetik, Anjel Lertxundiren kasua. Berak bere burua itzultzeari uko egin dio azken urteetan eta nahiago du bere lana beste itzultzaile batek itzultzea. Bere lanen itzultzailea Jorge Gimenez Bech da, aldi berean, bere liburuen editorea dena. Bien arteko elkarlana, hortaz, itzulpen prozesuaren aurretik, sorkuntza lanean hasten dela esan genezake:

(...) nire itzultzaileak ez bakarrik ezagutzen du nire obra barrutik, ezagutzen du baita ere obra *egiten* ari naizenean, obraren sorkuntza prozesua bera bizitzen du nirekin batera. Beraz, autonomia osoa eman diezaioket gero, berak nahi edo ahal duen eran nire ahotsa gaztelarrera aldatzeko (Egia, 1999: 121).

Gero, itzulpen prozesuan zehar, idazlea ere nolabait presente dago itzultzailearen eskakizunei erantzuteko:

Nik urteak daramatzat idazten ditudan lan guztiak –euskaraz nahiz gaztelaniaz izan– Jorgeri ematen argitaratu aurretik, irakur ditzan; horrela, konplizitate literario handia sortu dugu. (...) Beraz, idatzi aurretik kontu literario asko literarioki eztabaidatuak ditugu itzulpenari ekin aurretik. Horrek esan nahi du, behintzat literario diren arazoak konponduta ditugula ordurako, eta bakar-bakarrik itzulpenaren arazo teknikoak gelditzen direla: doinuarekin asmatzea, batez ere. Nire ustez, itzulpenaren kalitate neurria doinu egokiak ematen du (Egia, 1999: 124).

Bernardo Atxagak, era berean, lan egiteko beste modu bat topatu du urteetako esperientziaren ondorioz. Nolabait, sorkuntza prozesuaren atzetik dator itzulpen prozesua, eta autorea oso presente dago itzulpen prozesuan



bertan. Hona hemen *Zazpi etxe Frantzian* liburuaren itzulpen prozesuari buruz autoreak berak esanikoak:

Nik aurrena bukatu egiten dut aurreneko zirriborroa. Orduan hori Garikanok irakurri egiten du euskaraz eta egiten ditu aurreneko apunteak, berak prestatu egin behar du itzultzeko materiala, ez itzultzeko akastuna. Orduan nik hori jasotzen dut, berriro idazten dut, eta orduan bera hasi egiten da jada itzultzen, baina itzultzen ari den bezala esaten dit “esaldi hau? Hemen? Inora ez doa hau”. Orduan hortik ni etortzen naiz berriro euskarazkora eta aldatu egiten dut, eta orduan sortzen da, nire ustez, ideala dena gure kasuan; sortzen da halako zirkuitu bat bezala, etengabe dago korrante bat; itzulpenetik jatorrizko testura eta jatorrizko testutik itzulpenera. (Atxaga, 2008a)

Bernardo Atxagaren eta Asun Garikano itzultzailearen arteko elkarlanak zirkuitu bat osatzen duela aipatzen du autoreak. Zirkuitu hori kiribil baten bitartez irudika daitekeela iruditu zaigu: lehenengo euskarazkoa sortu eta gaztelaniazkora igarotzen da; hortik idazlearen eskuetara itzultzen da, moldaketak egin eta berri ere gaztelaniazkora. Moldaketa, itzulpena, zuzenketa eta berrikusketak lanak eginez osatzen dute bien arteko elkarlana. Aurrez aipaturiko *continuum*-ari dagokionez, bien arteko elkarlana, aurrez erakutsi dugun mailaketa ardatz hartuz, 45 gradutara kokatuko litzatekeela ematen du.



3-2 Figura. Bernardo Atxaga eta Asun Garikanoren elkarlana irudikatzen duen kiribila

Elkarlan horren abiapuntua euskarazko testua da, eta xede testua, gaztelaniazkoa. Euskarazkotik abiatuz sortzen da gaztelaniazko testua; itzulpen prozesuak, berriz, jatorrizkoan moldaketak eta zuzenketa eragiten ditu. Nolabait, biak elkarren mendeko bilakatzen ditu eta ezinezkoa dirudi jatorrizko bat eta bakarra dagoela esatea. Hala eta guztiz ere, abiapuntua beti da euskarazko testua, eta xede testua beti da gaztelaniazkoa; izan ere, euskarazko azken bertsioaren ondotik iritsiko da beti gaztelaniazko behin

betikoa. Atzera elikadura lana egon badago, baina, jatorria beti hizkuntza batean dago, beste hizkuntzatik pasa ondoren.

Lertxundik ere, bere azken eleberria, *Etxeko hautsa* (2011), gaztelaniazko bertsioarekin batera argitaratu du (*Los trapos sucios*). Bere hitzetan, jatorrizkoa eta itzulpenaren aldibereko argitalpena onuragarria da idazlearentzat, itzulpenaren bitartez jatorrizkoa hobetu baitezake.

Beste abantaila bat ere badu biak batera ateratzeak, idazlearentzat. Itzultzailea da idazle baten irakurlerik onena, hartzen duen denbora eta jartzen duen arreta dela eta. Niri itzultzaileak kontuan hartzeko moduko ohar asko egin dizkit, jatorrizkoa hobetzeko baliagarriak izan zaizkidanak. Itzultzailea euskarazko bertsioa kaleratu eta gero hasi balitz lanean, beranduegi jasoko nituen ohar horiek (Zabala 2011: 33).

Bi adibide horiek erakusten digute azken boladan aldibereko argitalpena indarra hartzen ari dela gurean, nahiz eta oraingoz nahiko kasu bakanak izan diren horrela argitaraturiko itzulpenak.

Lertxundiren zein Atxagaren kasuetan, bietan ala bietan, itzultzailea oso gertuko pertsona izan dute idazleek, eta kolaborazio lan oso pertsonalizatua aurkitu dute; ez dira idazle-itzultzaileen artean egon ohi diren harreman arruntak. Lehenengo kasuan, editorea da idazlearen itzultzailea; bigarreanean, autorearen emaztea. Gimenezek beste euskal idazle batzuren lanak ere gaztelaniaratu ditu –Inazio Mujika Iraola, Jokin Muñoz edo Aingeru Epaltzarenak, kasu–; Asun Garikanok, ordea, ez du beste inoren lanik gaztelaniaratu, Atxagarena soilik, nahiz eta beste hizkuntza konbinaketa batzutan ere jardun den itzultzaile (ingelesetik euskarara, kasu).

Orain arte ikusi dugunaren arabera, kolaborazioa ez da fenomeno homogeen bat; maila askotan eta mota askotan bana daiteke. Bikote edo lan-talde adina kolaboraziozko itzulpen daudela esan genezake. Bakoitzaren lan egiteko moduaren eta binaka lan egiteko moduaren araberako prozesuak eta emaitzak lortuko dira.

Kolaborazio maila zehaztea zaila baldin bada, hori idatziz aitortzea are eta zailagoa izango da. Liburuetan itzulpenaren inguruko informazioa eman behar denetan, arazoak sortzen dira. Nor da itzulpenaren egilea? Bi itzultzaile badira bien izenak jarri behar al dira? Bakarra jartzen baldin bada, norena jarriko da? Hainbat eta hainbatetan, itzultzaile bakarraren izena agertuko zaigu liburuaren kredituetan, prozesuaren atzean kolaborazio lana egon dela adierazi gabe. Horrek errealitatea nolabait itxuraldatzen du.

Kolaborazio kasu batzuetan, itzultzaile bakarra agertuko da paratestuetan; beste batzuetan, berrikusketei dagokienez, autorearen berrikusle paperean ager daiteke. Joan Mari Irigoienek *Poliedroaren hostoak* (1982) liburua Edorta Agirrek itzuli zuen, eta 1997an argitaratu zen *La tierra y el viento* izenburupean. Itzultzailearen izena eman ostean, gaztelaniazko

bertsioa autoreak berrikusi zuela agertzen da. Bada autoitzultzailea lehenengo tokian agertzen duen paratesturik ere, itzultzaileen izenaren aurretik: autore beraren *Babilonia* liburuaren itzulpenean honakoa agertu zen, esaterako: “traducción del euskera, Joan Mari Irigoien, con la colaboración de Mikel Lasa, Paco Sagarzazu, Lourdes Ortiz y Begoña Alkiza”. Bestalde, bi itzultzaileen izenak maila berean ere ager daitezke, Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* (2003) edo *Zazpi etxe Franzian* (2009) liburuen gaztelaniazko bertsioetan bezala: bietan “traducción de Asun Garikano y Bernardo Atxaga” agertzen baita. Formulazio horietariko bakoitzak zehaztasun gehiago edo gutxiagorekin pertsona bakoitzaren parte hartzea norainokoa izan den erakusten du. Irigoienen lehenengo liburuan, autoreak itzulpena berrikusi egin duela ageri da; bigarrenak, beste kolaborazio mota bat erakusten du. Bernardo Atxagaren kasuan, kolaborazioak sistematikoagoa ematen du.

Ikus dezakegunez, elkarlanean eginiko itzulpenak ezin dira zaku berean sartu, ez dira homogeneoak. Kontuan izan beharrekoak dira pertsona kopurua, pertsona horiek jatorrizkoarekiko duten harremana, pertsona horien artean dagoen harremana, hizkuntza bakoitzarekiko daukaten harremana, eta, horiez guztiez gain, itzulpen prozesuan beteko duten rola edo izango duten egitekoa. Kolaborazio mota guztiak ez dira maila berean jartzekoak, baina, kolaborazioa egon baldin bada, berau aitortzea zilegi da, itzulpen prozesuaren ahalik eta ikuspegi zehatzena emate aldera.

### 3.5 ZEHARKAKO ITZULPENEA

Zeharkako itzulpenaz hitz egiten hasi aurretik, zertaz ari garen zehaztu beharko genuke lehendabizi, nozio horren bitartez ez baita beti gauza bera adierazi nahi.

Alde batetik, zeharkako itzulpena, itzulpen mota bat izan daiteke: itzulpena jatorrizko lanetik egin beharrean bitarteko hizkuntza batean dagoen bertsio batetik egitea.

Zuzenekoak eta zeharkakoak itzulpen estrategia modura ere sailkatu izan dira. Leona Van Vaerenberghek zuzeneko itzulpena jatorrizkoaren eduki eta formatuarekiko leiala den itzulpena dela esaten du. Zeharkakoa, berriz, honela definitzen du: “indirect translation is the strategy used when the need to communicate as clearly as possible is given priority over the need to give access to the original meaning without any explicit interpretation on the part of the translator” (Van Vaerenbergh, 2007: 244). Ikertzaile horren arabera, beraz, zuzeneko itzulpenetan testuinguruari buruzko informazioan izan diren moldaketak irakurleek konpentsatu beharko dituzte, zeharkako itzulpenen irakurleek informazio inplizitua xehe-xehe jasoko duten bitartean.

Itzulpen automatikoaren alorrean ere topatu ditugu zuzeneko eta zeharkako itzulpen nozioak. Hona hemen Mikel Forcadaren definizioa:

Les estratègies de traducció automàtica es poden dividir en dos grans grups, les *directes* i les *indirectes*. L'estratègia *directa* s'anomena així perquè la traducció d'una frase es produeix directament, sense que es genere una representació intermèdia de la frase; de vegades també se sol anomenar vagament la traducció *mot per mot*. L'estratègia *indirecta* produeix, a partir de la frase en la llengua d'origen (LO), una representació intermèdia de la frase que després s'usa per a traduir-la. Veurem més endavant de quina naturalesa són aquestes representacions intermèdies (Forcada, 2003)<sup>27</sup>.

Ikus dezakegun moduan, alor batean zein bestean ezberdina izan daiteke zeharkako itzulpenaren zentzua. Guk lehenengo zentzuari helduko diogu, hots, itzulpen motari.

Itzulpen mota horri buruzko hainbat definizio ezberdin topatu dugu. Graeber-en hitzetan, honela definitzen dira zeharkako itzulpenak: "nicht auf dem originalsprachigen Ursprungtext basieren, sondern auf einer Übersetzung desselben in eine andere Sprache" (1993: 216). Hori horrela izanik ere, itzulpen prozesua urrats batean baino gehiagotan ematen denez, jatorrizkotik urrats bat urrutiago egongo da: "diesen mittelbaren, indirekten Übersetzungen haftet der Makel an, sich durch den doppelten Vermittlungsvorgang gleich zweimal vom Geiste des Originals zu entfernen" (*ibid.*).

Harald Kittel editoreak honela deskribatzen du zeharkako itzulpena: "any translation based on a source (or sources) which is itself a translation into a language other than the language of the original, or the target language" (Kittel-Frank, 1991: 3).

Raymond S.C. Lie-k aurrekoa baino definizio zabalagoa darabil: "indirect translation can be, pragmatically, based on a source (or more than one source) which is itself a translation into the source language or the target language or any eclectic combination of languages" (2000: 708). Horren arabera, bitarteko bertsioa mota askotarikoa izan daiteke.

Zeharkako itzulpen mota ezberdinak ere aurki ditzakegu. Iturri modura erabilitako jatorrizko kopuruari dagokionez, badira bitarteko bertsio bakarria erabili dutenak eta baita bat baino gehiago erabili dituztenak ere. Adibide ugari topa daitezke historian zehar itzulpena egiteko jatorrizko bat baino gehiago erabili dutenak. Von Stackelbergeek itzulpen eklektiko modura definitzen ditu itzulpen mota horiek; Touryk, berriz, itzulpen konpilatu edo metatu (*compilative translations*) modura izendatu ditu (1995: 134). Horien artean ere kasuistika oso zabala aurki dezakegu: bitarteko bi bertsio edo bertsio kopuru zabalagoa erabili dutenak, batetik; eta, bestetik, jatorrizko bertsioa eta bitarteko hizkuntzako bertsioa erabili dutenak. Bitarteko bertsiotik eginiko beste bitarteko itzulpen batzuk ere badira, eta, horiek

<sup>27</sup> Ikus honako helbidea: <http://www.dlsi.ua.es/~mlf/iat/iat/node105.html>.

honako mailaketa honen arabera sailkatuko genituzke: bigarren eskuko itzulpenak, hirugarren eskukoak, etab.

Zeharkako itzulpenen bereizgarri nabarmenena bitartekaritza da, eta, lehen eskuko itzulpenekin alderaturik, handiagoak dira bitartekari (edo itzultzaile) kopurua, jatorrizko eta xede lanen arteko distantzia (hizkuntzen artekoa edo espazioari dagokiona), eta denbora-tartea. Zuzeneko itzulpena egiteko urrats bat nahikoa dugu, eta zeharkakoa egiteko bi urrats edo gehiago ematen dira; beraz, jatorrizkotik xede testura egongo den aldea ere nabarmenagoa izango dela pentsa daiteke. “Since indirect translation has such an intermediary, the information of the source language is liable to be lost a second time” (Jianzhong, 2003: 198). Manipulazioaren eskolako ikertzaileek defendatzen duten moduan, beti egongo da, testu baten itzulpena egiterakoan, itzultzailearen esku-hartzea, hots, manipulazioa. Theo Hermans-ek dioen moduan, “from the point of view of the target literature, all translation implies a degree of manipulation of the source text for a certain purpose” (1985: 11). Zeharkako itzulpenen kasuan, esku-hartze edo manipulazio horretan urrats bat gehiago izango dugu, idazketa bat gehiago; galera, gehikuntza edo transformazio bat gehiago, azken batean. Euskara eta gaztelaniaren arteko harremanean, gainera, bi hizkuntzak ez dira hain antzekoak (ez soilik egitura aldetik, baita estatus aldetik ere), eta, ondorioz, manipulaziorako aukera gehiago izan daiteke. Hortaz, bi hizkuntzen arteko mailaketak eta botere harremanak zerikusi handia izango dute itzulpenaren izaeran.

### 3.5.1 Terminologia

Zeharkako itzulpena definitu ostean, izenari berari erreparatuko diogu. Eztabaida zabala izan da fenomeno honen izendapenaren inguruan, eta hainbat aukera ere topatu ditugu literaturan zehar. Marínek aipatzen duen moduan (2008), “una de las consecuencias directas de esta falta de investigaciones es la falta de homogeneidad terminológica”.

1934an Blassneck-ek “Übersetzungen aus zweiter Hand” deitu zien, hots, bigarren eskuko itzulpenak. Fenomenoa definitzeko erabili zen lehen terminoa hori izan zela esan dezakegu (Roche, 1991: 17). Beranduago ere, Alemanian bertan, beste hainbat autorek ere hala deitu diote fenomenoari; besteak beste, Von Stackelberg-ek (1984) eta Graeber-ek (1993).

Harald Kittel-ek (1991: 26) beste sailkapen bat ere egiten du: *intermediate translation*, hau da, lehen eskuko itzulpena, bitartekari lanak egingo dituen, eta *mediated translation*, hau da, bigarren eskuko, bitartekaritzaren ondorengo emaitza.

Berritzulpen nozioak zentzu zabala izan dezake, eta horietariko bat zeharkako itzulpena dugu. Aurrez beste itzulpen bat izan dela esan nahi du berritzulpenak. Aukera ezberdinak aipatzen dituen arren, aurreko itzulpenaren hizkuntza berean eginiko itzulpenak aztertzen ditu berritzulpen modura Gambierrek; “la retraduction serait une nouvelle traduction, dans une

même langue, d'un texte déjà traduit, en entier ou en partie. Elle serait liée à la notion de réactualisation" (Gambier, 1994: 413). St. Andrék (2003: 60) ere berritzulpenaren bi adierak aintzakotzat hartzen ditu, baina hizkuntza bereko itzulpenentzat darabil berritzulpena bere artikuluan, eta errelebo itzulpena, hizkuntza ezberdinekoentzat. Berritzulpen izendapenak, beraz, ez du guztiz argi esaten zer adierazi nahi den.

Bestalde, Xu Jianzhongek beste aukera bat plazaratu zuen 2003an. Berritzulpen multzoaren baitan zehaztapena eginez, zuzeneko zein zeharkako berritzulpenak aipatzen ditu:

Retranslation means to translate for a second or more times from the original or from the translated versions of the original. So there are two kinds of retranslations: direct and indirect. Direct retranslation refers to the translation for the second or more times from the original: Indirect re/translation refers to the translation not from the original but from the other language translation(s) translated from the original (Jianzhong, 2003: 1993).

Beraz, Jianzhongek dioen moduan, zeharkako (berr)itzulpena jatorrizkoaren itzulpen batetik eratorritako itzulpena da.

Cay Dollerupek "jatorrizkoa" eta "xede testuaren" arteko harremana zuzenean egiten ez den egoerei buruzko artikulua bat plazaratu zuen. Bere aburuz, zeharkako itzulpena (*indirect translation*) izendapena honakoetan erabili beharko litzateke: "[in] cases where there are no genuine consumers of intermediate realisations" (Dollerup, 2000: 17). Eta errelebo itzulpena (*relay translation*), beste hauetan: "[in] those cases in which intermediary realisations are primarily intended for consumption in the language which later serves as the source language for subsequent translation(s)" (Dollerup, 2000: 17). Beraz, bitarteko bertsioren arabera terminologia proposatzen digu autore honek. Hala eta guztiz ere, ez du ematen errelebo itzulpen terminoak arrakasta handirik lortu duenik ikertzaileen artean.

Bestalde, Dollerup-ek artikulua berean erabilitako jatorrizkoen kopuruaren eta horien nolakotasunaren arabera sailkapena ere egiten digu. Batetik, itzulpen lagungarrien (*support translation*) erabilera aipatzen du. "Translating a given source text, translators check translations into languages other than their own target language in order to see whether colleagues have found satisfactory solutions to certain problems" (Dollerup, 2000: 23). Autore horren ustez, Itzulpen Ikasketen barruan fenomeno hori ez da ia aipatu ere egin, eta literatur itzulpenean, batez ere, "there may be problems of *droit moral*" (Dollerup, 2000: 24). Itzulpen lagungarriak esaldi pare bat itzultzeko erabil daitezke, edo, bestela, liburu oso bat itzultzeko, eta oso zaila izan daiteke, Dollerupek dioen moduan, errelebo itzulpen eta itzulpen lagungarrien arteko muga garbi ezartzea.

Elena Bandínek *texto meta fuente* izendapena darabil bere doktore tesian (2007). Nozio horren bitartez, bitarteko hizkuntza hori aldi berean xede eta iturri dela adierazten du, bitartekaritza hori zertan datzan guztiz irudikatuz.

Ringmar-ek, 2006ko bere artikuluan, fenomenoaren izendatzeko erabili diren terminoen zerrenda egiten du, eta guztira 9 modu ezberdin aipatzen ditu. Zeharkako itzulpena da, bere hitzetan, egokiena: “the term adopted here, *indirect translation*, seems to have the edge in usage over the other suggestions” (Ringmar, 2006: 3). Berriki Anthony Pymek ere itzulpengintzaren alorreko hiztegi bat argitaratu du, eta honakoa adierazten du, bertan, fenomenoaren izendatzeko sortu den nahaspilari buruz: “in the absence of any really happy solution, stick with *indirect translation* and accept *mediated translation*. Avoid the others” (Pym, 2011: 80). Beraz, hori izango da, *indirect translation* edo zeharkako itzulpena, guk ere gure lanean erabiliko duguna.

### 3.5.2 Zeharkako itzulpenaren jarduera eta ikerketa

Nahiz eta praktika hau oso zabala den, garaian garaiko eta tokian tokiko fama ez da berdina izan; unearren, hizkuntzaren eta herrialdearen arabera izan da. Erdi aroan, adibidez, testuen autoritatea ez zen hain garrantzitsua: “[there was] a lack of interest in the textual sources of originals” (Lie, 2000: 708). Testua xede testuan egoteak zuen garrantzia, ez beronen jatorriak. Liek aipatzen duen moduan, XVI. mendean frantsesetik itzultzen ziren ingelesera gaztelaniazko literatur lanak. “The adoption of an intermediary version of a text was sometimes determined simply by the personal preference of the literary translator or the extent of his knowledge of the source language” (Lie, 2000: 708). Egun, ordea, zeharkako itzulpenak modu negatiboan ikusten dira gure gizartean, eta nahiago izaten da zuzeneko itzulpenak egin.

Zeharkako itzulpena nahiko fenomeno arrunta izan da historian zehar, nahiz eta ez den azterketa zabalegirik egin gaiaren inguruan.

There is little doubt that ITr has been – and still is – a common practice; not least when (semi)peripheral languages are involved (...) The obvious importance of ITr ‘in real life’ has not, however, been reflected by a corresponding scholarly interest (Ringmar, 2006: 1).

Ikerketa sakonik izan ez den arren, oso ohikoa izan da hainbat tokitan eta hainbat unetan. Historian zehar, obra garrantzitsuak itzuli izan dira zeharka: kasurik ezagunena Bibliarena izan daiteke. Arameoz idatzia izan zen, baina sortu zenetik itzulpen ugari egin izan da bitarteko bertsiotatik. “Sometimes the original no longer exists. The Jesus of the New Testament must have spoken Aramaic, but no Aramaic text has been preserved. Modern Bibles are made from relay editions using different languages” (Dollerup, 2000: 21).

Literatura bakoitzak, garai jakinetan, zeharkako itzulpenak bitarteko hizkuntza jakinetatik egin izan ditu. Konparazio batera, XVIII. mendean,

Alemanian, obra ingelesak frantsesetik itzuli izan ziren (Graeber, 1993); bestalde, txineratik eta txinerara historian zehar obra kopuru zabala itzuli da zeharka (Jianzhong, 2003). Hizkuntza gutxituen artean ere, adibide ugari topa daiteke; bai historian zehar, eta baita gaur egun ere. Katalana eta gaelikoa hizkuntza pareari dagokionez, esate baterako, honakoa dio Jaume Vallcorbak: “no hi ha constància que ningú tradueixi del gaèlic (llegiu *irlandès*) al català” (Mac Síomóin-Branchadell, 2008: 130).

Zeharkako itzulpena hizkuntzaka, herrialdeka, garaika eta baita generoka ere banatu beharreko fenomeno da. “Bei der Beschreibung des Phänomens gilt es national- und epochenspezifischen Eigenarten in Rechnung zu stellen, daneben aber auch gattungsspezifische Merkmale” (Graeber, 1993: 216). HGLen kasuan, esate baterako, zeharkako itzulpena araua izan da euskarara eginiko itzulpenetan. Helduentzako literaturan, aldiz, ahalegin handiagoa egiten da zuzeneko itzulpenak egiteko. Lopez Gasenik euskarara itzultutako haur eta gazte literatura ikertu zuen bere doktore tesian, eta, itzulpen-estrategiei dagokienez, honako ondorio hau eman zuen: “Jatorrizko hizkuntzetatik itzulpenak 90eko hamarkadan egiten hasten dira nolabaiteko sistematikotasunez” (Lopez Gaseni, 2000: 293). Ordura arteko itzulpen ia guztiak zubi-hizkuntza erabilita burutu ziren (Lopez Gaseni, 2000: 292). Literatur sistema estratifikaturik dagoenez gero, HGLn arau izan daiteke zeharkakoa, baina helduen literaturan, berriz, ez da ontzat ematen; aldi berean, zuzenekoak argitaratzen saiatzen da. Helduen literaturan zeharkako itzulpenak estigma izango luke gertuko literaturetatik itzultzerakoan, baina ez urrunekoan kasuan; HGLn, berriz, estigmatik ez da izaten sarri gertukoekin ere.

Zeharkako itzulpenaren inguruko azterketa nahiko murrizta izan da orain dela gutxi arte. 1934an, Blassneck-ek ireki zuen ikerketaren bidea *Frankreich als Vermittler englisch-französischer Einflüsse im 17. und 18. Jahrhundert* lanaren bitartez. Literatura konparatuaren alorrean, baina, ez du izan merezi duen oihartzunik fenomeno honek. 1984an, Von Stackelberg-ek *Übersetzungen aus zweiter Hand. Rezeptionsvorgänge in der europäischen Literatur vom 14. bis zum 18. Jahrhundert* liburuan heldu zion berriro gaiari, eta XIV-XVIII mendeen artean izan ziren zeharkako itzulpenen berri ematen digu bertan. Zeharkako itzulpenaren inguruko ikerketa lan nabarmena egin zuen Göttingeneko Unibertsitateko “Die literarische Übersetzung” ikerketa-taldeak: besteak beste, Frantziaren eta hizkuntza frantsesak Alemanian izandako bitartekaritza lana aztertu zuen, batez ere (ikus von Stackelberg 1984, Graeber eta Roche 1988, Kittel eta Frank 1991, Graeber 1991).

Touryk zeharkako itzulpenari kapitulu oso bat eskaintzen dio bere 1995eko *Descriptive Translation Studies and Beyond* liburuan, eta Itzulpen Ikasketen barruan aztertu beharreko fenomeno modura agertzen du. Ez arazo edo fenomeno modura soilik: “[also] as a juncture where systemic relationships and historically determined norms intersect and correlate” (Toury, 1995: 130). Itzulpen mota ezberdinek erakusten digute hizkuntzak euren artean benetan zein harreman duten. Aurrez aipatu dugun moduan,



kulturen arteko harremanen seinale da zeharkako itzulpena: askotan agertzen bada menpekotasuna adieraziko du, zuzeneko harremanak izateko gaitasun eza. Zeharkako itzulpena estigma moduko bat izango da zentzu horretan. Zeharkako itzulpenak gutxitzen diren heinean, menpekotasuna ere gutxitzen joango da. Hizkuntza diglosikoen kasuan, zeharkako itzulpenen kopurua txikitzeak menpekotasuna leunduko du, baina ez guztiz desagerrarazi.

Egun, aztergai diren hizkuntza eta kultura kopurua zabalduz doa. Txinera eta mendebaldeko hizkuntzen inguruan lan egiten duten ikertzaileak badira: St. André (2003), Jianzhong (2003) eta Marín (2008), besteak beste. Hizkuntza eslabiarrekin lan egiten duen Ringmar ere ikertzaile garrantzitsua dugu alor honetan, hainbat artikulu argitaratu baititu zeharkako itzulpenaren inguruan (2006, 2008). Honeymanek (2004) arabieratik eginiko itzulpenak ditu aztergai, ingelesezko bitarteko itzulpenak erabiliz. Guk, euskarari loturiko errealitatearen bitartez, hizkuntza gutxituen arloko ekarpena egin nahiko genuke fenomeno honen inguruan.

Bitartekaritza lanak betetzen dituzten hizkuntzen inguruko artikuluan, Bauer-ek ingelesa aipatzen du egiteko horretarako mundu mailako hizkuntza nagusi modura. “English has become a sort of “Internationalese” to such a degree that translations into other intermediate languages are indeed no longer necessary” (Bauer, 1999: 21). Mendebaldekoak ez diren hizkuntzen kasuan (txineratik itzuliriko lanak aztertzen ditu berak), ingelesa da egun zubi lanetarako erabiltzen den hizkuntza nagusia. Hala ere, fenomeno horri herrialdez herrialde eta hizkuntzaz hizkuntza aztertuko bagenu, ohartuko ginatke askotariko egoerak direla munduan, eta halako baieztapenak ezin direla hain erraz egin. Mendebaldean bertan, hainbat azpisistema bereiz daitezke eta horietan erdigunean dagoen hizkuntza izango da erabiliko dena. Ringmar-ek aipatzen duen moduan (2008), “Iparraldeko literaturen” artean, islandiera eta finlandieraren arteko bitartekaritza suedierak eta, zenbaitetan, danierak bete dute. Literatura postkolonialen kasuan, itzulpenak hizkuntza kolonizatzaileen bitartez zabaltzen dira munduan zehar. Gure kasuan, Espainiako hizkuntza gutxituei begiratzen badiegu, gaztelania da ez bairik gabe zubi hizkuntza nagusia beste hizkuntzetarako itzulpenak egiteko. Euskaratik ia dena gaztelaniaren bitartekaritzari esker iritsi izan da beste hizkuntza batzuetara.

### **3.5.3 Zeharkako itzulpenerako arrazoiak**

Hainbat arrazoi egon daitezke zeharkako itzulpenaren atzean: lehenengo literaturarenganako interesa eta hizkuntzaren ezezagutzarengatik bitartekaria erabili beharra; bitarteko hizkuntzan lan batek izan duen harrera ona; bitarteko hizkuntza erreferentziazko literatura izanagatik, bertan garrantzitsuak izan diren lanak xede kulturara itzuli beharra edo nahia – bitarteko hizkuntzara eginiko itzulpenak barne–; jatorrizko kulturaren edo bitartekoan autore jakin batek duen prestigioa; eta abar.

Touryren arauari erreferentzia eginez, zeharkako itzulpenaren onargarritasun eta egokitasun irizpideak kontuan izan beharrekoak dira. “In

sectors where the pursuit of adequate translation is marginal, it is highly probable that indirect translation would also become common, on occasion even preferred over direct translation” (Toury, 1995: 60). Aipatu irizpideak, une jakin batean kulturen artean dauden harremanen araberakoak izango dira.

Urruneko bi literaturak elkarren berri izateko edo elkarrekin harremanetan jartzeko lehen urratsa izan daiteke zeharkako itzulpena. Zenbaitetan, beharrezkoa izango da bitartekari bat topatzea elkar ezagutarazteko, ondoren harremanak zuzenagoak izan daitezten. “Sie sind häufig der erste Schritt bei entstehenden Literaturbeziehungen: Eine bereits bekannte Kultur führt eine noch wenig bekannte oder schwer soweit hergestellt ist, dass diese durch eine direkte Rezeption abgelöst werden” (Graeber, 1993: 216).

Zeharkako itzulpenik ezean, harreman horiek ezinezkoak lirateke sarritan, edo denbora tarte zabalagoa beharko litzateke hori lortzeko. Gure kasuan, euskarara hurbilketarik ez zen gertatuko gaztelaniazko bitartekaritzarik ezean urruneko hainbat literaturen aldetik. Jianzhong-ek ere beharrezkotzat jotzen ditu zeharkakoak zuzeneko itzulpenik ezean. “If later, there is a direct translation that is better than the indirect re/translation, the indirect re/translation will be out of date and has fulfilled its mission” (Jianzhong, 2003: 199). Kultura txikiek, edo elkarrengandik oso urrun dauden bi kulturek, beharrezkoa dute une jakinetan zeharkako itzulpena elkarren berri izateko. “Indirect re/translation should be accepted although it loses some information with respect to the original; it is a reasonable interim solution in the absence of direct translation” (Jianzhong, 2003: 200).

Bestalde, literatura jakin bat biziberritzeko erabil daitezke itzulpenak: “during burgeoning periods of national literatures, translation has the important function of literary enrichment” (Lie, 2000: 708). Itzulpen horiek, oro har, gertuko hizkuntza bateko literatur lanak itzuliz egin izan dira, edo literatura horretan topa daitezkeen lanak itzuliz. Bide horretatik, jatorrizko lanak zein itzulpenak itzuli izan dira. Literatura ahula suspertzeko, inguruko literatur sistema indartsuetako erdigunean dauden lanak hartu izan dira itzulpenak egiteko iturri. Bitarteko hizkuntzaren prestigioa eta xede kulturarentzat erreferentziazko literatura izatea arrazoi nahiko garrantzitsuak izango dira hortaz. Euskararen kasuan, gaztelaniatik zein frantsesetik itzuli izan dira bai hizkuntza horietan sorturiko lanak eta bai literatura unibertsaleko beste hainbat lan ere. Euskaratik kanporatzerakoan, berriz, bitarteko hizkuntzaren prestigioa garrantzitsuagoa izan daiteke zenbaitetan jatorrizkoak piztu dezakeen interesa baino.

Zeharkako itzulpenak egiten diren kasu bakoitzean, agerian geratuko dira jatorrizko kulturaren –zubi lanak egiten dituen hizkuntzaren– eta xede kulturaren estatusa eta elkarren artean duten harremana. Eta testuinguru horietan bilatu beharko dira halako itzulpen bat egitearen arrazoiak. “Al fin y al cabo, la traducción indirecta es un claro reflejo de las relaciones entre

sistemas literarios y del estatus de cada uno de ellos” (Marín, 2008). Lehen ere aipatu dugun moduan, bitartekaritza kontu labaina da. Jatorrizkoa alboraturik, sarri lehenengo itzulpena hartzen baita jatorrizkotzat, eta itzultzailearen lana, autore lantzat. “Oft bekennen sie sich ausdrücklich zu einer Übersetzung als ihrer Textgrundlage, zumal diese Mittlerübersetzungen den Status von Originalen annehmen können” (Graeber, 1993: 216). Kasu horietan, jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko mugak lausoak izaten dira, eta liburuaren “jatorrizkotasuna” lehenengo itzulpenari ematen zaio.

Hizkuntzen arteko distantzia fisikoa garrantzitsua izan daiteke (Bauer, 1999: 22), baina ez da beti hala izaten. Hizkuntza gutxituen kasuan, adibidez, distantzia fisikoa baino hizkuntzari dagokiona da zeharkako itzulpena bultzatzen duena. Zeharkako itzulpena erabiltzeak kulturaren nolakotasuna agerian utziko du, testuinguruaren nondik norakoak erakutsiko dizkigu.

Unlike individual instances of translators turning to existing translations as their immediate sources, which may indeed represent no more than simple inability, or even a sheer whim, the recurrence of this practice, especially if regular patterns can be detected, should thus be taken as evidence of the forces which have shaped the culture in question, along with its concept of translation (Toury, 1995: 129).

Zentzu horretan, hizkuntzen arteko harremanak ere nolakoak diren ikusi ahal izango dira: itzulpenak beti norabide berean egiten badira, bitarteko hizkuntza beti bat eta bakarra baldin bada, menpekotasun harremanen seinale izango da zeharkako itzulpena.

Hau guztia esan ondoren, Ringmarren hitzak berretsi ahal izango ditugu; zeharkako itzulpena oso ohikoa izan den eta oraindik ere den arren, ikerketa oso urria izan dela fenomenoaren inguruan (Ringmar, 2006: 1).

**4**

# metodologia

Laugarren atala tesia osatzeko jarraitu dugun metodologiari eskainiko diogu. Katalogotik corpusera igartzeko Lambert eta van Gorpen ikerketa eredua jarraitu dugu, eta lehenengo azpiatalean horren berri emango dugu. Bertan, ikerketak dituen lau fase ezberdinen nondik norakoak azalduko ditugu. Teleskopioaren eta mikroskopioaren irudiak ardatz harturik, handienetik txikienerako bidea zertan datzan azalduko dugu. Hau da, liburuaren inguruko genetika abiatu eta testu mailako azterketetara nola igaroko garen erakutsiko dugu. Kapituluaren bigarren atal modura corpusen inguruko azalpen zabala emango dugu, gure metodologiaren barruan tresna garrantzitsua baitira: lehenik eta behin, tipologia mota ezberdinak aurkeztuko ditugu, eta zer nolako tresneria aurki dezakegun; ondoren, azterketa testuala egiteko corpusa osatuko dugunez, corpusaren osaketa egokia nola egin behar den azalduko dugu, zein irizpideren arabera; horrekin batera, corpusak nola ustia daitezkeen ikusiko dugu.

## 4.1 KATALOGOTIK CORPUSERA

Erabiliko dugun azterketa eredua Lambertek eta van Gorpek (1985) ezarritakoa izango da: “which contains the basic parameters of translational phenomena, as presented by Itamar Even-Zohar and Gideon Toury in the context of the so-called polysystem theory” (Lambert & van Gorp, 1985: 43).

Autore horien eskeman oinarriturik egin izan dira, besteak beste, TRACE ikerketa taldeko<sup>28</sup> hainbat lan: Merino (1994), Pérez L. de Heredia (2004), Bandín (2007) eta baita Barambones (2009), euskaratutako ikus-entzunezko produktuei buruzko tesia ere.

Literatur itzulpenak aztertzeke sortua izan zen eskema horrek eskaintzen digun abantaila nagusia norberak bere beharretara moldatzeko eskaintzen duen aukera da. “Su potencial reside, principalmente, en servir como andamio que ayude en la construcción del modelo, adaptándose y reformándose según fuere pertinente” (Merino, 1994: 46 *in* Barambones 2009: 322).

Lambertek eta van Gorpek diseinatu zuten azterketa ereduaren eskema nagusia ondorengo da:

1. Aurretiazko datuak
2. Azterketa makroestruturala
3. Azterketa mikroestruturala
4. Análisi intersistemikoa

Aurretiazko fasean, testuen inguruko informazio kontestuala eta estratestuala aztertzen da. “These preliminary data should lead to hypotheses for further analysis on both the macro-structural and the micro-structural level” (Lambert & van Gorp, 1985: 52).

Azterketa metodologikoaren lehen urratsa ikergai izango ditugun itzulpenen sortze-testuingurua aztertzea izango da. Itzulpenak zein egoeratan, zein tokitan, zein garaitan eta nola egin ziren ikusiko da fase horretan. Euskaratik itzuliriko lanen inguruko azterketa izaki, kultur testuinguruari buruz aritu gara lehendabizi. Horren ondoren, katalogo edo 0 corpus informatizatu bat osatuko dugu; bertan, euskaratik itzuli diren literatur lanak bilduko ditugu.

Euskaratik itzuli dena datu errealean bitartez ezagutuko dugu. Barambonesek dioten moduan, itzulpen datuen análisisia metodologia deskriptiboa erabiliz egingo dugu: “la metodología descriptiva nos permite obtener y analizar los datos secuenciando para ello las diferentes fases de la investigación de una forma ordenada” (Barambones, 2009: 35). Aipaturiko datu erreal horiek bildu aurretik, bilaketaren mugak ezarri beharko ditugu, eta, ondoren, corpusaren eraketari ekingo diogu. “La construcción de corpus informatizados se convierte en una pieza clave del protocolo de trabajo y una herramienta metodológica eficaz para la formulación de regularidades traductorales” (Barambones, 2009: 35-36).

Fase horretako identifikazio eta katalogazio lana honakoa da:

---

<sup>28</sup> TRACE itzulpen zentsuratuak ikertzea helburu duen ikerketa taldea da, Euskal Herriko Unibertsitateko zein Leongo Unibertsitateko ikertzaileak biltzen dituen. Hona hemen taldearen webgunea: <http://www.ehu.es/trace/inicio.html>.

En el proceso de construcción del Corpus 0/Catálogo se seleccionan qué fuentes y campos de información son relevantes, se diseña una ficha maestra, se seleccionan los registros válidos y se vuelca la información de las fuentes en los diferentes campos de la ficha maestra (Gutiérrez Lanza, 2005: 57).

1.176 sarrera (berrargitalpenak kontuan izanik) biltzen dituen katalogoa osatu ondoren, datuak ikuspuntu ezberdinetatik aztertuko dira (kronologia, autoreak, izenburuak, generoak, etab.), ahalik eta emaitza zabalenak jasotze aldera. “Este análisis detallado del catálogo nos permitirá identificar una serie de recurrencias o regularidades que serán empleadas para llegar a la siguiente fase de la investigación: la elaboración del corpus 1 con los textos completos” (Barambones, 2009: 38).

Emaitza nagusienari jarraiki, Bernardo Atxagaren lanak izango lirateke fenomeno horren errepresentagarri aberatsenak. Beraz, lehenengo corpus murriztuan Bernardo Atxagaren itzulpenak jasoko ditugu. Horrela, lehenengo corpus horren deskribapen xehea egin beharko da. Lehenengo azterketa deskriptibo hori egin ondoren, azterketa sakonago bat egiteko testu masa zabalegia izango denez, beharrezkoa izango zaigu bigarren corpus mugatuago batera iristea, lehenengo horren errerepresentatiboa izango dena. Hala ere, batetik besterako bide hori ez da izango automatikoa:

Hasta ahora hemos podido constatar que el salto metodológico no puede ser abrupto ni guiado por la necesidad de llegar al “texto” a toda costa. Se hace necesario establecer un corpus 1 (objeto del estudio contextual), previo al corpus 2 (objeto del estudio textual comparativo) y por definición anterior a la secuenciación de fases de análisis. El primero se establece utilizando información contextual; el segundo que deriva de aquel se presenta en forma de binomios textuales compuestos por textos originales y textos meta ya emparejados (TO-TM, TM-TM) siguiendo criterios objetivos de selección, perfilados en las fases anteriores del estudio; dichos pares serán los que se sometan a un estudio comparativo (Merino, 2003: 647).

Gure kasuan, lehenengo corpusetik bigarrenerako bidea irizpide jakin batzuen bitartez egingo dugu, katalogoaren ahalik eta errerepresentatiboena izan dadin eta, aldi berean, orekatua, bertan bilduko diren testuei dagokienez.

Metodologia deskribatzailearen barruan corpora definitu ondoren, berau aztertzeko bidea zein izango den zehaztu behar izan dugu. Horretarako, kanpotik barrurako bidea egingo dugu, Tymoczko definitzen duen moduan:

The best work shows a convergence – working toward the macroscopic from the direction of the microscopic, or vice versa, so that one’s data from the macroscopic level are complemented and confirmed by data from the microscopic level (Tymoczko, 2002: 17).

Corpusetan bildurikoak bere testuinguruan ezartzea eta testuinguru horren deskribapena izango dira eman beharreko lehenengo urratsak, esan bezala. Hona hemen Olohanen hitzak:

The need to contextualize and co-textualize translation and our study of it means that purely quantitative studies of corpus data are regarded as limited in their usefulness. This does not mean, of course, that they are of no use. Rather, it is acknowledged that we also need qualitative analysis and studies of data other than those extracted from corpora if we are to 'go beyond the words on the page' (Mason, 2002 *in* Olohan, 2004: 22).

Corpusa behin definiturik eta aztertu beharreko testuak aukeraturik, paratestuen azterketa zehatza egin beharko da, testua inguratzen duen informazio ahalik eta zabalena lortzeko. Testua eta argitalpen euskarriaren arteko lotura garrantzitsua da autorea eta literatur-lana irakurleari nola aurkeztzen zaion ikusteko. "(...) the paratext is clearly of crucial importance for translation, whose consumption depends on a particular contract of trust between reader, writer and publisher" (O'Sullivan, 2004-2005).

Liburuen inguruan dagoen informazioa aztertuko dugu, ahalik eta azterketa sakonena egite aldera. Itzulpen ikasketetan corpusean bilduriko testuez gain beste hainbat material ere erabili ohi da azterketa egiteko.

In Toury's model, on the other hand, since the aim of DTS is to explore the unidirectional relationship between function, product and process of translation, the study of the "interim decisions" made by the translator – as revealed by manuscripts, typescripts, corrected proofs – and the experimental investigation of product and process are considered appropriate and consistent with the empirical approach that characterises DTS (Laviosa, 2002: 17).

Liburuak banan bana aurkeztuko ditugu, eta bakoitzaren laburpena emango dugu jarraian. Argitalpenari dagokion informazioa ere aurkeztuko dugu, bai jatorrizkoei eta bai itzulpenei buruzkoak. Itzultzaileen eta argitaratzaileen informazioa ere eskainiko dugu atal honetan.

Egileak itzulpenaren inguruan esanikoak, itzultzailearen gogoetak, itzulpenen inguruan prentsan agerturikoak eta abar interesgarriak izan daitezke. Gure lanean, Genettek aipatzen dituen paratestuak ere kontuan izan ditugu, corpusetik kanpo egon baina corpusaren azterketaren osagarri izango diren heinean. Genetten arabera, paratestuak testua inguratzen duten datu guztiak dira. Bi multzo nagusitan banatzen ditu: peritestuak eta epitestuak. Lehenengoa liburuaren baitan biltzen den informazio guztia izan daiteke, eta, bigarrena, liburuaz kanpo dagoena.

Paratestuek itzulpena aurkezteko balio duten heinean, elementu garrantzitsuak izango dira testuek eurek eskaintzen duten informazioa osatzeko, hots, corpusaren azterketaren emaitzak aberatsagoak izan



daitezen. Testu bat xede hizkuntzan nola aurkezten den erakusten digute paratestuek, modu batera edo bestera aurkeztuko baitute itzulpena; kasuren batean, hala ere, itzulpena den ere ezkutatu egingo da.

Behin betiko corpusean bilduriko testuak, Bernardo Atxagaren jatorrizko 12 lan eta horien hainbat itzulpen, digitalizatu egingo ditugu, eta jatorrizkoak eta itzulpenak elkarrekin parekatu. Aurrez aipatu dugun moduan, gure corpusa eleaniztuna eta paraleloa izango da, eta jatorrizko testu-lagin bakoitzeko fitxategi eleaniztun bat osatuko dugu corpusekin lan egiteko software jakin bat erabiliz (Wordsmith Tools). Atxagaren hainbat testu hizkuntza ezberdinetan lerrokaturik izango ditugu emaitza modura.

Kanpotik barrura eginez, katalogoa eta corpusa bere testuinguruan aztertu ostean testuetara iritsiko gara azkenik, hau da, azterketaren bigarren eta hirugarren urratsetara. Testuok maila makroestruturalean landuko ditugu lehenengo, eta, ondoren, maila mikrotestualera joko dugu.

Makroestruturari dagokionez, liburuaren egitura osoari erreparatuko diogu, liburuen izenburuak, testuaren antolaketa eta kapituluaren banaketa. Horrek itzultzaileak zein bidetatik jo duen erakutsiko digu, eta maila mikroestruturalari buruzko pistak ere emango dizkigu.

(...) a translated text which is more or less 'adequate' on the macro-structural level will generally also be more or less adequate on the micro-structural level, but that it cannot be adequate on every specific level. In the same way we assume that a translation which is 'acceptable' on the macro-level will probably also be 'acceptable' on the micro-level (Lambert & van Gorp, 1985: 49).

Maila mikroestruturalean, berriz, jatorrizkotik xede testura igartzeko zein itzulpen fenomeno sortu diren identifikatzea izango dugu lehenengo helburua. Jatorrizko hizkuntzako hitzun modura, eta gure lanaren abiapuntua jatorrizko hizkuntza izanik, azterketa mikrotestualaren lehenengo pausoa soilik emango dugu, eta ondoren etorri beharko lukete azterketa zehatzagoek, xede hizkuntzetako ikertzaileen eskutik. Gure xedea ez da, inondik inora, azterketa testual sakona egitea corpuseko hizkuntza konbinazio bakoitzean, baizik eta euskaratik beste hizkuntzetara itzultzeko erabiltzen diren bide ezberdinen arteko alderaketa egiteko nahikoa izango dena soilik.

Mikrotestu mailako lehenengo analisi hori egiteko, itzulpen estrategiak identifikatu beharko ditugu. Ikerketa hori egin ahal izateko corpusaren %10a hartuko dugu hautaz, eta bilaketa testu masa horretan egingo dugu. Horretarako, Lambertek eta van Gorpek proposaturiko eskematik hiru teknika hartuko ditugu:

- Kenketa. Chestermanen arabera: "the omission of ST information deemed to be irrelevant" (Chesterman, 1997: 109). Maila honetan, testuaren barruan izaniko edozein kenketa hartuko dugu kontuan, baita laburpenak ere.

- Gehikuntza. “The addition of new (non-inferable) information which is deemed to be relevant to the TT readership but which is not present in the ST” (*ibid.*). Maila honetan, jatorrizkotik xede testura gehituriko informazioa sailkatuko dugu.
- Itzulpen-sortzailea. Jatorrizkotik xede testura aldeztetik berez ezin aurreikusi zitezkeen eraldaketak sailkatuko ditugu hemen.

Kategoria zehatzagoak erabili ohi dira, oro har, baina ikuspegi orokorra jasotzeko ohikoak baino nozio zabalagoak erabiltzea egokia iruditzen zaigu. Aurrez aipatu dugun moduan, gure lanaren helburua itzulpen mugimendu nagusiak identifikatzea izango da, eta, horretarako, hobe iruditzen zaigu ahalik eta azterketa zabalena egitea, bahe zabal bat erabiltzea lehen urrats honetan.

Lehen ikuspegi orokor hori azterketa konkretuekin osatuko dugu. Lortuko ditugun emaitzetatik abiatuz bi mailatan egingo ditugu azterketa zehatzak: maila semantikoan eta maila pragmatikoan. Aurrerago zehaztuko dugu nola gauzatu ditugun aipatu azterketa espezifikak.

Ikerketa fase bakoitzean itzulpen bide ezberdinei buruzko informazioa lortzen eta osatzen joango gara, hasieran geneuzkan hipotesiak baieztatuz edo ezeztatuz. “Rather, in every phase, from the very start, explanatory hypothesis will be formulated, which will then reflect backwards and affect subsequent discovery procedures” (Toury, 1995: 38). Fase bakoitzak aurreko fasean lorturikoarekin alderatu eta osatuko dira, ahalik eta ikuspegi zabalena bezain zehatzena lortuz. Touryk aipatzen duen moduan eta azterketa honek erakutsiko digun moduan, ikerketa prozesua kiribil formakoa izango da, atzera elikatzen joango baikara fase bakoitzean aurrez lorturikoa edo frogatu beharreko hipotesia. “The normal progression of a study is thus helical, then, rather than linear: there will always remain something to go back to and discover, with the concomitant need for more (or more elaborate) explanations (Toury, 1995: 38).

Azken urratsa testuingurura itzultzea izango da eta lorturiko emaitza guztien azalpena bilatzea bertan, beraien arteko lotura eginez.

It is at this stage also that explanation, as opposed to description, comes into its own, as all the tentative hypotheses which guided the analyses in steps 1-3 are pulled together into a coherent case to account for the findings and place them in a broader context (Hermans, 1999: 68).

Itzulpen prozesuan izan diren erregularitateak kontuan izanik, prozesu horretan indarrean egon diren arauak zeintzuk diren zehazten saiatu behar dugu, hortaz.

## 4.2 CORPUSEN ERABILERA

Gure lan metodologian duen pisua dela eta, arreta berezia eskaini nahi diogu corpusek Itzulpen Ikasketetan duten erabilerari. Corpora ez da edozein motatako testu bilduma, baizik eta Merinok dioen moduan, irizpide jakin batzuen bitartez (*mediante criterios justificados*) eratzen den bilduma (Merino, 2003: 642). Itzupen prozesuan indarrean egon diren arauak identifikatzeko tresna garrantzitsua izango da corpora. Hori horrela izanik, ezinbesteko tresna bihurtuko zaigu; “una herramienta metodológica decisiva a la hora de extraer regularidades en los comportamientos traductores” (Bandín, 2007: 25).

Atal honetan, corpusen sorrera eta tipologiaren inguruko zertzeladak emango ditugu lehendabizi; jarraian, euskal letretan corpusen erabilera nolakoa izan den zehaztuko dugu, horien artean, publikoak direnak eta erabilera pribatuko corpusak; eta, ondoren, corpusen eraketa eta ustiaketari buruz hitz egingo dugu. Atalaren amaieran, gure corpusaren nondik norakoak emango ditugu jakitera.

### 4.2.1 Corpusen erabilera: noiz eta nola hasi zen

Corpusetan oinarrituriko itzulpen ikasketak 90. hamarkadan sortu ziren, eta bi iturri nagusi hartu zituzten oinarri: corpus hizkuntzalaritza eta Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak. Ordura arte, corpus hizkuntzalaritza diziplinaren barruan soilik erabili ziren corpusak.

1964. urtea jo ohi da, *Brown* corpora argitaratu zen urtea hain zuzen ere, corpusgintza modernoaren eta corpus-hizkuntzalaritzaren hasiera-urtetzat (Areta *et al.*, 2008: 72). Horixe izan zen lehen corpus ‘elektronikoa’. “The Brown Corpus designed by Francis and Kucera in 1961-4 was the first corpus of written American English” (Kucera and Francis, 1967 in Laviosa, 2002: 5). *Computational Analysis of Present-Day American English* (1967) izenez argitaratu zuten lanean, hainbat iturritatik jasotako milioi bat hitzetako corpora osatu zuten, eta hainbat analisi konputazional egin zituzten.

Corpusen erabilera asko zabaldu da orduz geroztik, eta, gaur egun, corpus hizkuntzalaritzaz gain, beste hainbat arlotan ere erabiltzen dira, hala nola hiztegegintzan, terminologian, hizkuntza-irakaskuntzan, hizkuntza-teknologietan, itzulpen automatikoan, Itzulpen Ikasketetan, eta abar.

Corpusetan oinarrituriko itzulpen ikasketak, aurrez aipatu dugun moduan, 1990. hamarkadan sortu ziren corpus hizkuntzalaritza eta Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak oinarri harturik. Mona Baker-ek itzulpenak produktu modura eta prozesu modura aztertzeke corpus hizkuntzalaritzan erabiltzen ziren tresnak erabiltzea proposatu zuen ikuspuntu deskribatzaile batetik, arauemaile batetik baino. Bera izan zen nolabait alor berri horren sortzailea. “If Gideon Toury can be rightly regarded the father of Descriptive Translation

Studies, Mona Baker well deserves the affectionate title of mother of Corpus-based descriptive Translation Studies” (Laviosa, 2002: 18).

Corpus elektronikoak Itzulpen Ikasketetan erabiltzen hasi aurretik, eskuz sorturiko corpus txikiekin egiten zen lan. Baliabide elektronikoek eskuz maneia ezin zitekeen informazio masarekin lan egitea ahalbidetu zuten.

Corpus translation studies enable us, for example, to encode in compact and efficient forms, to access and interrogate vast quantities of data – more data than any single human being could ever manage to gather or examine in a productive lifetime without electronic assistance (Tymoczko, 1998: 1).

Corpusaren beraren definizioa ez da guztiz berdina corpus hizkuntzalaritzan eta corpusetan oinarrituriko Itzulpen Ikasketetan. Corpus hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, corpora hizkuntza-erakusgarri ‘errealen’ multzo ‘handi’ bat dela esan genezake, irizpide batzuen arabera bildua eta formatu elektronikoan biltegitua (IXA-Elhuyar, 2007). Kasu errealetan oinarriturik egon behar dute corpusek, testuak benetakoak izan eta ez berariaz corpuserako sortuak. Helburu nagusia errealitatearen deskribapena izango delarik. Itzulpen ikasketetan, berriz, corpusak helburu jakinetarako erabiltzen diren testu bildumak dira. Honela adierazten du Laviosak:

In Toury’s programme for Translation Studies the term ‘corpus’ does not have the same specialised meaning assigned to it by the discipline of corpus linguistics, but it generally refers to a relatively small collection of texts assembled and searched manually according to specified criteria. These collections include, for example, the texts of a particular translator, school of translators, author, or period of time (Laviosa, 2002: 12-13).

Touryren lana aipatuz Laviosak dioten moduan, irizpide oso zehatzak izan ohi dituzte corpusek Itzulpen Ikasketetan. Esku artean dugun lan honetan, esaterako, itzulpen mota ezberdinak biltzen dituen autore bat izan da corpora osatzeko irizpide nagusia.

Corpusetan oinarrituriko Itzulpen Ikasketek corpusaren erabilera ez dute nahi eta nahiezko, corpus hizkuntzalaritzaren kasuan bezala. Ikerketa metodo modura erabiltzen da, eta ez da ikerketaren oinarri bakarra.

DTS accepts a variety of methods of analysis, so long as they are empirical, descriptive and conceived from within the discipline of Translation Studies. Methodology is therefore considered just another dimension of DTS, not an integral part of its definition, as is the case for corpus linguistics, whose object of study is created by the methodology itself (Laviosa, 2002: 16-17).

Itzulpen ikasketetan, corpusean bilduriko testuez gain beste hainbat material ere erabil daiteke azterketaren gehigarri modura, aurrez 4.1 atalean azaldu dugun moduan; paratestuak, esaterako.

Laburbilduz, corpusek itzulpen ikasketen barruan ikerketa esparru oparoa ireki dutela esan genezake, metodologiari eta testuen ustiaketari dagokionez. Baina, ikerketan zehar erabiliko dugun metodo bat besterik ez da izango, beste hainbat metodorekin batera gure helburuak lortzeko baliagarri izango zaiguna.

#### 4.2.2 *Corpusen tipologia*

Corpusak helburu jakinen arabera osatu behar izaten dira eta mota ezberdinetakoak izan daitezke. IXA taldeak eginiko sailkapena (2007) aipatuko dugu laburki jarraian:

- Hizketa/testua: corpusean idatzizko zein ahozko grabazioak bil daitezke.
- Orokorrak/espezializatuak: hizkuntzaren erabilera-eremuaren arabera corpus mota ezberdinak lor ditzakegu.
- Elebakarrak/elebidunak/eleanitzak: corpusean jasotzen ditugun testuak hizkuntza batean, bitan edo gehiagotan egon daitezke. Corpus elebidun eta eleanitzen kasuan, biltzen diren testuak bata bestearen itzulpen direnean, corpusak paraleloak izango dira, eta bildutako testuak elkarren baliokide ez baina antzeko ezaugarriak biltzen dituztenean (gaia, urtea, mota...), corpusak konparagarriak izango dira. Tesi honetan, corpus eleaniztun paraleloa osatu dugu, eta aurrerago hitz egingo dugu horren inguruan zabalago.
- Gordinak/etiketatuak: corpus gordinek testuak argitaratu diren moduan jasoko dituzte; etiketatuetan, berriz, testuko hitzei edo hizkuntza-unitateei buruko informazioa gehitzen da.
- Sinkronikoak/diakronikoak: garai bereko edo ezberdinetako testuak biltzen dituzte.
- Erreferentzia-corpusak: corpusaren helburua hizkuntzaren erabilera-eremu guztietarako baliagarria edo 'adierazgarria' izatea denean, 'erreferentzia-corpusa' edo 'orotariko corpusa' dela esan ohi da (Sinclair, 2002: 10 *in* Leech 2002: 1 *in* Alegria *et al.* 2005: 2). Maiztasuna hartzen da kontuan corpus mota honetan.
- Orekatuak: argitaratutako testuen artean metodo estatistikoak erabiliz adierazgarritasuna eta aniztasuna bilatzen duten corpusei esaten zaie (IXA-Elhuyar 2007).
- Nazionala: hedadura handia duen hizkuntza baten erreferentzia nagusi bihurtu ohi den corpusa.
- Monitorea: etengabe eguneratzen den corpusa.

Gurea bezalako corpus eleaniztunen definizio orokorra honakoa izan daiteke: zenbait parametroren arabera ezaugarri komunak agertzen dituzten bi hizkuntzatako edo gehiagotako testu-bildumak (Alegria *et al.*, 2005: 2). Oro har, bi corpus eleaniztun mota nagusi bereiz daitezke: corpus paraleloa eta corpus konparagarria. Lehenengoa eduki bera edo baliokidea duten testuez osaturikoa da; hau da, jatorrizko testua eta honen itzulpenaz edo itzulpenez osaturikoa. Corpus konparagarriaren kasuan, hizkuntza bateko eta besteko testuak ez dira bata bestearen baliokide, baina antzeko ezaugarriak bete behar dituzte (eremua, generoa, denbora-bitartea, komunikazio-helburua...). Batak eta besteak helburu ezberdinak izan ohi dituzte.

Lan honetan, corpus paralelo eleaniztuna osatu dugu, euskarazko jatorrizkoak beraien itzulpenekin bilduz. Corpus paraleloen kasuan, ohikoena testu-bikoteez osatutako corpus elebiduna da (Alegria *et al.*, 2005: 2). Kasu horietan, baina, emaitzak ez dira hain aberatsak izango. Tymoczko dioenez (2002: 19), “translations like other organized texts tend to be self-referential, establishing their own linguistic norms and conventions”. Testu jakin bat itzultzailearen estiloak marka dezake, eta, beraz, “comparing two or more translated versions of the same source text or several translations of similar text types may make the norms of any given translation much more perceptible” (Tymoczko, 2002: 20). Ikuspegi zabalagoa lor dezakegu xede testu bat baino gehiago aztertuz.

(...) several (assumedly parallel) translations into different languages can also be studied comparatively, e.g., as a means of assessing the impact of various factors on the modelling of a translation, with an eye to drawing the distinction between what is universal and what is culture-, or language specific in this type of behaviour (Toury, 1995: 73-74).

Batean zein bestean arau berdinak ote dauden indarrean ikusi ahal izango dugu modu horretara. Gure corpusean, tesian markatu ditugun helburuak betetzeko eta ahalik eta emaitza aberatsenak lortze aldera, testu multzoak egin ditugu, corpus eleanitza osatuz; jatorrizko hizkuntza batez eta zazpi xede hizkuntzaz osatua.

Gure ikerketaren oinarri den corpus eleaniztuna, lehenengoa dela esan dezakegu euskara jatorrizko hizkuntza modura hartzen duena.

### 4.2.3 Euskarazko corpusak

Corpusgintzaren historia 1960. hamarkadan hasi zen, eta hainbat eta hainbat corpus sortzen joan dira orduz geroztik erabilera eta helburu oso ezberdinekin, alor ezberdinetako metodologia gisa. Alorren artean soilik ez, hizkuntzen arabera ere bereizketa bat egin behar da. “Corpusgintzaren historian eragin handia izan du ingelesak (aitzindari, gehienetan), eta bilakabidearen eta joeren eskema orokortzat har genezakeela uste dugu” (Areta *et al.*, 2008: 73). Euskararen kasuan, oso azterketa gutxi egin izan da

corpusetan oinarrituta, eta corpusen erabilera oso mugatua izan da gaur egunera arte; hizkuntzalaritzaren alorrean erabili dira, batez ere.

Areta *et al.*-en 2008ko artikuluan euskaraz eskuragarri dauden corpusen zerrenda egin dute, eta, bertan, mota eta helburu ezberdinetako 11 corpus bildu dituzte: Orotariko Euskal Hiztegiaren testu-corpora (OEHTC), XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa (XXMECE), Ereduzko Prosa gaur (EPG), Zientzia eta Teknologiaren Corpora (ZTC), Klasikoen Gordailua (KG), Ibinagabeitia Proiektua (IP), FonAtari, Bizkaifon, Basque Spoken Corpus (BSC), Basque FDB-1060 database (BFDB), Euskararen Prozesamendurako Erreferentziako Corpora (EPEC). Horiez gain, beste hiru corpus ere aipatzen dituzte: Euskarazko Testu Corpora, batetik; eta, bestetik, bi corpus eleaniztun: LEGE-bi corpora (Deustuko Unibertsitatea) eta Eroski-ren *Consumer* aldizkariaren español-galego-catalán-euskara corpora (Areta *et al.*, 2008: 75-76). “Badira sensu stricto ‘corpus’ ez diren testu-biltegiak, baina, linguistikoki prozesatuta daudenez edo bilatze-aukera bereziak eskaintzen dituztenez, interesgarriak izan daitezkeenak” (Areta *et al.*, 2008: 76). Horien artean *Armiarma*, *Bonaparte Ondarea*, *Eibar.org Materixala*, *Habe Ikasbil* eta beste aipatzen dituzte. Artikuluan aipatzen direnez gain, Itzulpen Ikasketen baitan Josu Barambonesek bere doktore tesian (2009) osaturikoa ere aipagarria iruditzen zaigu: ingelesezko eta euskarazko ikusentzunekeo testuak bildu zituen bertan ikertzaileak.

Artikulu horretan bertan, euskaraz ditugun corpusak beste hizkuntza batzuetan daudenekin alderatu dituzte, batzuetan eta besteetan aurki daitezkeen ezberdintasunak ikusteko. “Corpus-tipologiari begiraten badiogu, esan daiteke euskarazko produkzioak, bere txikian, gutxieneko aniztasuna agertzen duela” (Areta *et al.*, 2008: 77). Aipatzen den hutsuneetariko bat ahozko erreferentzia corpora izan daiteke. “Euskaraz *ahozko corpus* izenez (*spoken corpus*) bataiatutako proiektu bateratu eta erreferentzial baten hutsunea sumatzen dugu; gainera, gure ustez argi dago erreferentzia-corpora batek hizketa hein batean behintzat jaso behar lukeela” (Areta *et al.*, 2008: 77). Hutsune hori egun [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com) webguneak bete du, nolabait, eta euskarazko ahozko erreferentziako corpora bihur daiteke. Proiektuaren helburu nagusia “Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea [da]; hau da, gure herrietako adineko jendea elkarrizketatu, eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltzea” (Ahotsak<sup>29</sup>).

Inguruko 23 hizkuntzekin eginiko alderaketak erakutsi duen beste kontu bat kronologiari dagokiona da. Jasotako datuen arabera, *Orotariko Euskal Hiztegiaren testu-corpora* 1984an amaitu zen eta handik gutxira hasi ziren *Egungo Euskararen Bilaketa-lan Sistematikoa* (XX. mendeko Euskararen *Corpus Estatistikoa* deitzen dena egun) prestatzen. Lehenengoak testu historikoak biltzen ditu eta hiztegi gintzari lotuta dago; bigarrenak XX. mendeko testu idatziak biltzen ditu bere baitan. Erreferentziako corpusei

<sup>29</sup> <http://www.ahotsak.com/> webgunean kontsulta daiteke.

dagokienez, ingelesa aitzindaria izan da, eta alemana ere nahikoa aurreratua izan da (Areta *et al.*, 2008: 79). “Gainerako hizkuntzetan, gaur egun ezagunak diren corpus handi gehienak ere XX. mende amaierakoak eta XXI. mende hasierakoak dira. Beraz, gure iritzia da euskara ez zela ‘berandu’ iritsi corpusgintzara, ez behintzat beste hizkuntza nagusi asko baino askoz beranduago” (*ibid.*). Hala ere, “XX.mendearen amaieran, moteltze nabarmen bat gertatu da, eta corpus ‘handien’ eraketan hamarkada baten atzerapena dugu, gutxienez, inguruko hizkuntzekiko” (*ibid.*).

Corpusen tamaina hizkuntzaren neurriarekin batera doala ematen du. “Zenbat eta ‘txikiagoa’ hizkuntza (hedaduraz, hiltunez, diruz/aurrekontuz...), corpus apalagoak egiten dira: zenbat eta ‘handiagoa’ (hizkuntza), hainbat eta ugariagoak emaitzak, alde guztietatik begiratuta” (Areta *et al.*, 2008: 79). Esaterako, XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa, mende horretako euskal argitalpenen inbentario osoa jasotzen duena, 4.655.300 testu-hitzez osatua dago eta British National Corpus-a, berriz, 1980-1993 epealdiko testuak soilik jasotzen dituena, 100 milioi hitzez. Lexikoaren Behatokiaren corpus monitoreak, berriz, 10 milioi testu-hitzetik gora biltzen ditu bere baitan, eta Corpus of Contemporary American English-ek 425 milioi hitz, 1990-2011 epealdiari dagozkionak.

Hemen azaldutakoaren arabera, argi ikusi dugu corpusgintza Euskal Herrian corpus hizkuntzalaritzari hertsiki loturik egon dela. Itzulpen ikasketen inguruko azterketek Euskal Herrian ez dute presentzia nabarmenik izan; corpusen erabilera arlo horretan hutsala izan da. Gurearen moduko corpus elektronikoak, beraz, aitzindariak dira euskal Itzulpen Ikasketen baitan. Lopez Gasenik katalogazioa eta corpus mugatua ere osatu zituen bere lanean. Itzulpen ikasketen baitan egin den lan horretan, corpusen erabilera egin da, baina ez elektronikoa ezta lerrotatua ere. Bestalde, euskal corpusak ez dira soilik hizkuntzalaritzari lotuak egon, baizik eta gehien-gehienak euskarari lotuak daude, hots, elebakarrak dira. Eleanitzen artean bakanetakoa Consumer aldizkariaren corpusa dugu; nahiko berria izaki, Eroskiren jardunari loturik dago eta Espainiako lau hizkuntza ofizialak biltzen ditu. Publiko ez diren corpusen artean itzulpen memoriak dira ugariak, baina horiek beste maila bateko corpusak genituzke, eta ia gehienak euskara-gaztelania hizkuntza pareari lotzen zaizkio.

#### **4.2.4 Corpusak nolakoak izan behar duen**

Aurreko atalean, corpusen nolakotasuna eta corpus mota ezberdinak definitzen saiatu gara. Aipatu dugun moduan, norberaren ikerketa helburuen arabera izango da corpusaren tipologia ere. Baina, corpusaren egituraz gain, corpusean zer sartu, nola elikatu, zein galdera erantzungo dituen, eta abar ere definitu behar izaten dira. Atal honetan, corpusaren erabilera eta ustiaketaren inguruan hitz egingo dugu.

Hasteko eta behin, gogora dezagun zer den corpusa: “a corpus is a collection of pieces of language text in electronic form, selected according to



external criteria to represent, as far as possible, a language or language variety as a source of data for linguistic research” (Sinclair, 2004).

Sinclairren arabera, testu zati**n** bilduma bat da corpusa. Horrek esan nahi du, bertan bilduriko testuek ez dutela zertan testu osoak izan. Testu zatiak izan daitezke, nahiz eta egokiagoa izan ohi den testu osoak biltzea.

Corpusean bilduko ditugun testuen aukeraketa irizpide batzuen arabera egin behar izaten da, eta irizpide horiek testuez kanpoko irizpideak behar dute izan.

Selection criteria that are derived from an examination of the communicative function of a text are called external criteria, and those that reflect details of the language of the text are called internal criteria. Corpora should be designed and constructed exclusively on external criteria (Clear, 1992 *in* Sinclair, 2004).

Sinclairrek gomendatzen duen moduan, corpusaren edukia testuetan aurki daitezkeen hizkuntza elementuei begira baino testuen funtzio komunikatiboari begira osatu behar da. Gure corpusaren kasuan, kanpo irizpide horiek aurrerago azalduko ditugu luze eta zabal, baina labur-labur esatearren, jatorrizko kopuruarekin eta xede hizkuntza kopuruarekin dute zerikusia, eta baita argitalpen urtearekin edo itzulpen bideekin ere.

Corpusak helburu nagusi bat izan behar du, erantzun beharreko galdera bat edo galdera multzo bat, eta horri begira osatu beharko dugu berau. Corpusak ezin du osotasun bat bildu. Gure kasuan, adibidez, ezin dugu euskaratik itzuli den literatura guztia, jatorrizkoak eta itzulpen guztiak, corpusean bildu: informazio hori guztia gehiegizkoa da. Hortaz, literatura itzuli horretako hainbat lan aukeratuko ditugu guztiaren errepresentagarri izan daitezen. Eta errepresentagarritasun hori hainbat irizpideren arabera zehaztu beharko da. Irizpide horiek kontu handiz zehaztu beharko dira corpusaren oreka, eta errepresentagarritasuna horien arabera izango baitira.

The corpus designer should choose criteria that are easy to establish, to avoid a lot of labour at the selection stage, and they should be of a fairly simple kind, so that the margin of error is likely to be small. If they are difficult to establish, complex or overlapping they should be rejected, because errors in classification can invalidate even large research projects and important findings (Sinclair, 2004).

Errepresentagarritasuna helburu izan daiteke, baina corpusa osatzerakoan argi izan behar du ikertzaileak zeren errepresentagarri izango den.

(...) since the overarching aim of most corpus-based investigations of translation is to learn something about some aspects of translators’ behaviour, the question of representativeness extends beyond whether certain texts are representative of a certain genre to whether certain

translations are representative of translation behaviour (Olohan, 2004: 47).

Gure ikerketa lanean, Olohanek dioenarekin bat eginez, itzulpen bide ezberdinen errepresentagarritasuna bilatu dugu: autoitzulpen edo ez, kolaborazio edo ez, zeharkako edo zuzeneko itzulpenak, etab.

Errepresentagarritasunari dagokionez, corpus paralelo elebidunak hankamotz gera litezke zenbaitetan. Oro har, jatorrizko testu bakoitzeko itzulpen bakarra biltzen duten corpus elebidunak erabili ohi dira Itzulpen Ikasketetan. "This may hide an important aspect of the translational phenomenon, namely the differences existing between the various translations of the same original work" (Laviosa, 2002: 28). Hori ekiditeko Laviosak Malmkjaerek eginiko gomendioak aipatzen ditu:

Complementing norm-oriented studies, which justifiably require large amounts of text, with smaller and carefully constructed corpora which consist of one source text and as many translations of it as possible, so that in-depth investigations of entire texts can be performed (Laviosa, 2002: 28).

Xede hizkuntza berean ala xede hizkuntza bat baino gehiagotan bil dezakegu itzulpen multzo hori. Gure kasuan, jatorrizko bakoitzeko gutxienez 4 itzulpen bildu ditugu, guztiak ere hizkuntza ezberdinetan. Beraz, gure azterketak emango dituen emaitzak guztiz enpirikoak eta aberatsak izango direla esan daiteke, corpusgintza paraleloaren ikuspegitik.

Ikusi dugun moduan, beraz, ahalik eta irizpide sinpleenak ezarriko ditugu, testuaz kanpokoak eta ahalik eta errepresentagarrienak. Hori guztia lortzeko, ikertzailearen ezagutza ez da beti nahikoa izango, eta norberaren intuizioa ere –bere neurrian– erabili beharra izango da. Kontuan izan behar dugu corpusak sortzean ikertzailearen irizpide pertsonal eta subjektiboak agerikoak izango direla, beste edozein esperimendu zientifikotan gertatzen den moduan.

(...) behind the establishment of corpora, as behind the design of any experiment or research program or survey, lie intuition and human judgement. Corpora in translation studies are products of human minds, of actual human beings, and, thus, inevitably reflect the views, presuppositions, and limitations of those human beings. Moreover, the scholars designing studies utilizing corpora are people operating in a particular time and place, working within a specific ideological and intellectual context (Tymoczko, 1998: 3).

Tymoczkok aipatzen duen moduan, ikertzailea toki eta une jakin batean ari da lanean, eta bere interesak eta momentu horretako kultur interesek eragina izango dute bere lanean; erabakiorrak izango dira. Errepresentagarritasunari dagokionez, kanpo irizpide horiek ere unean uneko errealitatearen isla izango dira, garaian garaiko eta tokian tokiko

testuinguruen erakusle. Egoera horren jakitun izan behar du ikertzaileak modu erreflexibo batean jokatzeko.

Corpusaren tamainari dagokionean, ez dago mugarik; corpora nahi bezain handia izan daiteke. Garrantzitsuena norberaren helburuak argi izatea da. Corpora sortzerakoan planteatu diren hipotesiei erantzuteko moduko corpora nahikoa izango dugu. Aldi berean, errepresentagarria ere izan beharko du, eta ez txikiegia, datuak estrapolatu ahal izateko. Denbora eta finantziarioa ere kontuan izateko beste bi faktore dira. Eskura ditugun baliabideak oso mugatuak badira, corpusaren tamaina ere ezingo da handiegia izan, denbora eta lan handia beharko baikenuke lan hori burutzeko.

Corpusean sartuko ditugun testuak, testu zatiak edo laginak (*samples*), ahal izanez gero, testu osoak izango dira. “Language artefacts differ enormously in size, from a few words to millions, and ideally, documents and transcripts of verbal encounters should be included in their entirety” (Sinclair, 2004).

Aurrez aipatu dugun moduan, egokiena testuak bere osotasunean sartzea izan ohi da. Hala ere, oreka kontuan izan behar dugu. Testu kopuru jakin bat badugu corpusean, eta horiek elkarren artean tamainaz edo testu motaren arabera oso ezberdinak badira, orduan testu laginak aukeratzea hobea izaten da, batek ez diezaien besteei itzal handiegirik egin. Horrexegatik, oreka mantentze aldera, gure corpusean testu laburrak bere osotasunean sartu ditugu, eta kapitulu osoz osaturiko testu zatiak soilik sartu ditugu testu luzeenen kasuan.

Corpusa orekatua izan dadin, testu mota ezberdinen arteko proportzioak ongi arrazoituak izango dira. “The corpus builder should retain, as target notions, representativeness and balance. While these are not precisely definable and attainable goals, they must be used to guide the design of a corpus and the selection of its components” (Sinclair, 2004). Beraz, errepresentagarritasuna eta oreka helburu izan behar ditu ikertzaileak, nahiz eta bi nozioek nahiko lausoak diruditen zenbaitetan. Orekari dagokionez, testu tamainen eta testu moten artekoa izan behar du. Testu espezializatuak oreka hautsi lezake testu multzoan, adibidez. Corpusak ahal bezain homogeneoena izan beharko luke. Hala ere, testuen hiztegia eta elkarren arteko antzekotasuna barne irizpideak dira, eta, berez, ez lirateke baliagarriak izango corpusaren osaketan. Oreekak eta errepresentagarritasunak, homogeneotasunarekin batera, corpusean bilduriko testuak osotasunaren ordezkari egokiak direla esan nahiko du.

Azkenik, osagai eta izaera idealarekin batera, corpora osatzerakoan honakoa izan beharko genuke gogoan: “a compromise has to be reached between what is desirable and what is feasible on practical grounds” (Zanettin, 2000: 107). Hau da, ikertzaileak lortu nahi duena eta eskura dituen baliabideak izan behar dira kontuan, testuen eskuragarritasuna, proiektuak iraugo duen denbora eta baliabide ekonomikoak gogoan izanik.

### 4.2.5 Corpusak osatzea

Corpus elektronikoak sortzeko lehen baldintza testuak formatu elektronikoan izatea da. Aztertu nahi denaren arabera, testuak formatu elektronikoan izango ditu eskura ikertzaileak, baina, paperean argitaraturiko materiala aztertu nahi izatera, testuak eskaneatu egin beharko dira. Eskaneatu ondoren, prozesu horretan izaniko akatsak testu zuzentzailearen laguntzaz zuzentzea izango da ikertzaileak egin beharreko hurrengo urratsa, eta erabiliko den softwareak eskatzen duen formatuan jarriko ditu, azkenik.

Corpus paraleloak jatorrizko testua eta xede testuak parekatuz osatzen dira. Parekatzea honela defini daiteke: “Aligning consist in finding correspondences, in bilingual parallel corpora, between textual segments that are translation equivalents” (Kraif, 2002 in Alegria *et al.*, 2005, 3). Hau da, jatorrizko testuaren segmentu edo atalak itzulpenean dagokion atalarekin parez pare jartzea. Gurrutxaga *et al.*-en arabera, parekatze-maila ohikoenak ondorengoak dira: dokumentu mailakoak, esaldi mailakoak eta esalditik beherako itzulpen-unitateak (unitate lexikalak, unitate lexikalen artekoak, entitateak eta bestelako diskurtso unitateak). Zenbat eta maila txikiagoan egin parekatzea, orduan eta bilaketa zehatzagoak egin ahal izango ditu ikertzaileak.

Parekatu beharreko testuak elkarren artean ezberdintasunak agertzen badituzte, lerrokatze automatikoa egin ondoren eskuz konpondu beharko du ikertzaileak emaitzan agertzen diren akatsak. Testuak zenbat eta antzekoagoak izan elkarren artean, paragrafo kopuruari, esaldi kopuruari edo hitz kopuruari dagokionez, orduan eta zehatzagoa izango da software bidez eginiko lerrokatze automatikoa. Lerrokatze dokumentuak, hainbatetan, hala ere, berriusi gabe uzten dira, eta beraien erabilgarritasuna murrizturik geratuko da. Esaterako, Eroskiren Consumer Corpusa sarean dago eskuragarri eta hona hemen lerrokatzearen inguruko azalpena:

Esaldika lerrokatu dira dokumentuak, errazago ikusteko nola itzuli diren hitzak beste hizkuntzetara. Esaldikako lerrokatze hori automatikoki egin da, eta ez da perfektua. Euskara eta beste hizkuntzen arteko lerrokatzearen zuzentasun-portzentajea %82-84 ingurukoa da, eta beste hiruen artekoa [gaztelania, katalana eta galegoa] %89-93 ingurukoa (Consumer Corpusa, 2010).

Tesi honetan osaturiko corpusa paragrafo mailan eginga izan da. Esaldi mailako lerrokatzea egin genuen HGL liburu batekin proba modura, eta hor ikusi genuen lan eskerga zela maila horretako lerrokatzea esku artean genuen softwarea erabiliz. Bildutako testuek elkarren artean erakutsi dituzten moldaketa kopuru handia medio (literaturan ohikoagoa dena), eta konponketak eskuz egiteko behar den denbora kontuan izanik, lerrokatze maila egokiena hori zela erabaki genuen. Tesi honetako gure helburuak lortzeko, gainera, nahikoa dugu paragrafo mailan eginiko azterketa.

Testuak parekatzeko hainbat programa dauzka ikertzaileak eskura, besteak beste, MKAlign, WinMerge, The Translator Corpus Aligner, Multiconcord, Wordsmith Tools. Programa kopuru zabala dago merkatuan, eta, norberak dauzkan helburuen arabera, bata zein bestea aukera dezake. Gure tesian, Mike Scotten Wordsmith Tools programa erabili dugu. Bi hizkuntza baino gehiago aldi berean lerrotzen uzten du programa horrek, eta bertsio guztiak aldi berean ikus daitezke pantailan. Aipaturiko gainerako programek jatorrizko testu bat xede testu bakarrarekin soilik pareka daitekeenez, gure helburuak lortzeko hankamotz geratzen dira. Gure ikerketa eremua 1:1 eskema horretatik haratago doa eta erabili beharreko tresnek ere haratago joan beharko lukete, gurearen moduko kasuak aztertu ahal izateko. Hori izan da software hori aukeratzeko arrazoi nagusia.

#### 4.2.6 *Corpusen ustiaketa*

Corpusa diseinatu, zehaztu eta osatu ondoren, elektronikoki jarri ostean, azterketak egiteko garaia helduko da. Tresna oso emankorra izan daiteke corpusa, baina Bakerrek dioena kontuan izan behar dugu: “figures and frequencies are only a starting point” (Baker, 2004: 183). Corpusek ematen dizkiguten zenbakiei dagokien garrantzia eman behar zaie; testuen aspektu jakinak azpimarratzen dituzte, baina ikertzaileak hortik haratago joan behar du.

We need to take a closer look at the data and get a feel for the texts and what is happening in them, as well as the people who produce these texts, in order to move beyond low-level description to situated explanation. The value of raw figures and frequencies is simply that they draw our attention to some features that are likely to be worth investigating in more detail (Baker, 2004, 183).

Beraz, corpusen bidez egiten dugun azterketa kuantitatiboa hasiera puntua besterik ez da izango. Hortik aurrera, azterketa kualitatiboaren bitartez osatuko dugu gure deskribapena. Zanettinek aipatzen duen moduan, paperezkotik modu elektronikora pasatzen denean, corpusak paratestuari dagokion informazioa galtzen du, eta, horrexegatik, “the investigation of electronic corpora should, if possible, be coupled with the analysis of the printed source texts, for which the electronic versions are not a substitute but a complement” (Zanettin, 2000; 114). Aurrez esan dugun moduan, gure lanean corpusen erabilera paratestuen azterketarekin osatuko dugu.

Azterketa kuantitatiboaren interpretazioa ere aspektu garrantzitsua da. Ordenagailuak zenbakiak emango dizkigu, baina ikertzailea izango da zenbaki horiek interpretatuko dituena eta hortik ondorioak aterako dituena. “The computer can help us locate features – textual features – but it cannot explain them. The onus of interpretation still lies with the researcher” (Baker, 2004: 184).

Corpusetan oinarrituriko Itzulpen Ikasketen barruan, corpusen ustiaketa ez da erabiliko dugun edo erabili dezakegun metodo bakarra. Esan dugun moduan, corpusak erabili, erabiliko ditugu datuak ateratzeko, baina horiek interpretatu egin beharko ditugu, eta ondorioen arabera, lanean segi. Beste hainbat metodoren osagarri ere izan daiteke. “Nor does it, or should it, be seen as a free-standing methodology that does not need to be complemented by other methods of research. Like any other methodology, it can only take us so far, and no further” (Baker, 2004, 184).

Itzulpen Ikasketetan corpusen erabilera hizkuntzalaritzari loturik iritsi zen, eta, horregatik, oro har, aspektu linguistikoari begiratu zaiola esan dezakegu. Hala ere, testuen azterketa soiletik haratago joan dira corpusetan oinarrituriko ikasketak azken boladan, eta horien atzean zer dagoen aztertzeaz ere arduratu dira.

(...) although the materials of corpora are based upon the language medium of translations, interrogation of corpora can nonetheless serve to address not simply questions of language or linguistics, but also questions of culture, ideology, and literary criticism. Modes of interrogation – as well as care in the encoding of metatextual information about translations and texts – allow researchers to move from text-based questions to context-based questions. The flexibility and adaptability of corpora, as well as the openness of the construction of corpora underlie the strength of the approach (Tymoczko, 1998: 2).

Hizkuntzak kulturen interpretazio bide diren aldetik, beraz, corpusetan oinarrituriko Itzulpen Ikasketek kultura aztertzea ere badute helburu. Kultura historiako une eta leku jakin batean, hain zuzen ere.

(...) we need to know the specifics of different languages in translation exchanges, and the characteristics of translation as cultural interface at different times and places and under different cultural conditions. Such differences teach us as much as or more than commonalities of translation, and, they contribute as much or more not only to our theoretical investigations of translation phenomena but to the practical concerns of situating translation in a decentered, multicultural world (Tymoczko, 1998: 6).

Gure lanaren bidez, 8 hizkuntzako corpusaren bitartez, testuek jatorrizko kulturatik xede kulturetara igarotzean izan dituzten eraldaketak ikertuko ditugu. Corpusen bitartez, testuen arteko alderaketa egitean, horien artean egon daitezkeen antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertuko ditugu. Bata eta bestearen artean dauden ezberdintasunak izango ditugu aztergai nagusi, eta horren atzean dauden arrazoiak bilatu eta dagokion garrantzia eman. “[A corpus] is a powerful tool for perceiving difference and for valorizing difference as well” (Tymoczko, 1998: 6).

Corpusa ahalik eta egokien ustiatu ahal izateko, corpusak berak hainbat ezaugarri izango ditu. Corpusen tipologian agertu dugun moduan, corpusa gordina ala etiketatua izan daiteke. Hau da, corpusean sartu ditugun testuak lematizatu egingo ditugu, edo sartu bezala utzi. Lematizazioa “testuko hitza dagokion lema-, kategoria-, azpikategoria-, kasu- eta numero-informazioaz hornitzea da” (Aldezabal *et al.*, 2006: 5). Etiketa horri esker, bilaketetan emaitza aberatsagoak lortu ahal izango ditu ikertzaileak.

Lematizazioa kanonikoa ere izan daiteke, hots, jatorri etimologiko beretik eratorritako “forma desberdin guztientzat lema komun bat hautatzen da” (Aldezabal *et al.*, 2006: 5). Modu horretara, lema ezberdin modura sailkatuko lirakeenak lema bakar baten pean bilduko dira. Esate baterako, zuri, txuri eta xuri hitzak zuri lemaren barruan sar litezke. Horri loturik, hitzak ere estandarizatu egin daitezke, dialekto ezberdinetako hitzak aldaera estandarrean jarriz, esaterako. Gauza bera egin daiteke testuan agertu ahal diren akatsek: zuzendu eta idazkera estandarra eman. Euskararen kasuan, idazkera estandarra oso gaztea da, eta alde handiak egon daitezke duela 20 urteko edo gaur egungo testuen artean. Beraz, estandarizazioa nahiko tresna egokia izan daiteke corpusak aztertzerakoan.

Corpusetatik informazioa ustiatzeko hainbat baliabide eskaintzen dituzte software ezberdinek. Jarraian, kontsultatu ditugun programetan agertzen diren ohiko funtzioak azalduko ditugu.

- *Konkordantzia* funtzioaren bitartez, hitz bat bere testuinguruan ikusiko du erabiltzaileak. Wordsmith Tools-en erabiltzailearentzako oharretan honakoa adierazten da: “The point of a concordance is to be able to see lots of examples of a word or phrase, in their contexts” (Scott, 1998: 55).
- *Hitz zerrendak* funtzioak dokumentu bateko edo dokumentu multzo bateko hitz guztien zerrendak osatzen ditu, alfabetikoki edo maiztasunaren arabera.
- *Hitz gakoak* identifikatzeko funtzioa. Hitz gakoak dokumentu batean edo dokumentu multzo batean ohikoa baino sarriago agertzen diren hitzak dira.
- Estatistika.
- Hizkuntzaren maila ezberdinak nola aztertu corpusen bitartez.
- ...

Gure corpusa aztertzeko eskura genituen programen artean, Wordsmith Tools programaren aldeko hautua egin dugu. Itzulpen ikasketen baitan, sarri erabili izan da programa hori eskaintzen dituen azterketa-aukerengatik: konkordantzia, hitz zerrendak eta hitz gakoak, batik bat. Guretzat, erabakigarria izan da testuak parekatzeko tresna; Wordsmithek bi testu baino gehiago aldi berean lerrokatzeko aukera ematen du, eta ezaugarri hori berebizikoa izan zaigu. Zabalago hitz egingo dugu honi buruz 8.3 atalean.

**5**



# 5 katalogoa

---

Bosgarren atal honetan, katalogoari buruzko informazioa emango dugu. Lehenengo eta behin, euskaratik beste hainbat hizkuntzatarara eginiko liburuen itzulpenen katalogoa osatzeko prozesuaren nondik norakoak aurkeztuko ditugu. Katalogoa osatzeko irizpide nagusiak zeintzuk izan diren azalduko dugu eta zeintzuk izan diren kontsultatu ditugun iturri nagusiak. Bigarrenik, lorturiko emaitzak hainbat ikuspegitatik aztertuko ditugu: kronologiaren arabera, autore bakoitzaren jatorrizkoak kontuan izanik, autore bakoitzaren xede izenburuak kontuan izanik, autore bakoitzaren xede hizkuntza kopurua kontuan izanik, gehien itzuli diren izenburuen arabera, itzultzaileen arabera, generoka eta hizkuntzaka. Azkenik, azterketa horietan ateratako ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu.

## 5.1 KATALOGOAREN OSAKETA

Gure helburua euskal literaturatik zer eta nola itzuli den aztertzea denez, lehen eginkizuna idatzizko euskal lanen katalogoa osatzea izan da. Bilaketa hasi orduko, katalogoan sartu beharreko datuak zehaztu behar genituela ikusi genuen. Batetik, garaiari dagokionez; ahal bezain katalogo osatuena egin nahirik, eta ikusirik gure literaturan orain dela oso gutxi arte izandako produkzioa nahiko txikia dela, euskal literatura bere osotasunean hartzea pentsatu dugu. Hau da, bere hastapenetatik, XVI. mendetik, gaur egunera

arteko liburu guztiak izan ditugu kontuan. Hala ere, jakin badakigu euskaraz idatzitako literaturak azken 40 urteetan izan duela garapen nabarmenena, eta literatura horren itzulpena bere garapenari lotuta dagoela.

Bestalde, katalogoan sartuko ditugun hizkuntzak zeintzuk izango diren ere zehaztu behar izan dugu. Euskal literatura definitzerakoan (ikus 2.4.1. atala) arrazoitu dugun moduan, ikerlan honetan euskal literaturaz hitz egitean euskaraz idazten den literaturari buruz ari gara. Beraz, sorburu hizkuntza euskara duten lanak bakarrik izan ditugu kontuan. Xede hizkuntzei dagokienez, berriz, ez dugu inolako mugarik ezarri. Hau da, hizkuntza guztiak izan ditugu kontuan katalogoa osatzeko. Hala ere, itzulpen interlinguistikoak soilik bildu ditugu, eta ez, euskalkien artean edo euskara batua eta euskalkien artean eginiko itzulpenak. Mota horretako itzulpenak egon badauden arren, gure azterketa eremutik kanpo geratzen dira, eta aparteko azterketa batek jaso beharko lituzke fenomeno horren ingurukoak<sup>30</sup>. Jatorrizko euskal zein gaztelaniazko lanak edo euskarazko zein frantsesezko lanak biltzen dituzten zenbait antologia ere topatu dugu, baina jatorrizko lanak hizkuntza batean baino gehiagotan egonagatik baztertu egin ditugu<sup>31</sup>.

Hirugarren muga bat ere jarri behar izan dugu: itzulitako testuaren argitaratze modua edo euskarria: liburuak, aldizkariak edota interneteko web orriak, esate baterako. Katalogo osatu batek euskarri guztiak kontuan hartzea eskatzen badu ere, praktikotasun mugak direla eta, orain artean erabiliena izan den euskarria mugatu dugu katalogo hau. Beraz, lehen itzulian, liburuak soilik bildu genituen. Liburuak ez diren beste euskarri batzuetan argitaraturiko lanak biltzeari ere ekin diogu dagoeneko, baina momentuz ez dugu horien inguruko azterketa sakonik egin, eta, beraz, horien inguruko daturik ez dugu emango hemen. Arlo horrek badu interes berezirik, publikazio modu berriak sortu baitira azken boladan interneti esker<sup>32</sup>. Etorrizuneko azterketetan, euskarri horiek ere kontuan hartu beharko dira.

<sup>30</sup> Mota horretako itzulpenen artean, adibide ugari topa daiteke euskal literaturaren historian zehar. Konparazio batera, Pedro Antonio Añibarrok (1748-1830) Lapurdiko euskalkitik hainbat lan itzuli zituen bizkaierara, A. Palaciosen *Lora-sorta espiritual* edo Axularren *Gero* (Mendiguren Bereziartu 1995: 113). Gaur egun, oraindik ere, itzulpen intralinguistikorik egiten da, horietariko gehienak euskalkiren baten eta batuaren artean. Zuberoako pastoralak ditugu horien adibide bat: Jules Casenaveren *Ibañeta* pastoralaren kasuan, esaterako, euskara baturako itzulpena dakar liburuak, frantseserako eta gaztelaniarako itzulpenekin batera. HGL liburuak ere argitaratzen dira bizkaieraz eta batuaz, aldaera banatan. Iñaki Zubeldiaren *Mirari hegalaria* eta Txerrikumeen *abenturak*, esaterako, edo Mariasun Landaren *Irma*, azken hori Sabin Barnetabeñak egina.

<sup>31</sup> Mota horretakoak izan dira euskal idazleen lanak biltzen dituzten hainbat antologia; batik bat, lurraldetasunari edo identitateari begira bilduak eta ez jatorrizko hizkuntzaren arabera.

<sup>32</sup> Poesia lanen itzulpenak, bereziki, paperezko aldizkarietan zein web orrietan argitaratu izan dira. Genero horretako itzulpenak aztertzeke euskarri horiek landu beharko lirake.

Jatorrizko testua eta itzulpena, kasu batzuetan, ez dira euskarri berean argitaratu; esaterako, euskaraz liburu formatuan argitaraturiko testua xede hizkuntzan aldizkari batean<sup>33</sup> edo sarean argitaratua izan daiteke, edo alderantziz, euskaraz aldizkariaren batean argitaraturiko lanen bat edo argitaratu gabeko lanen bat<sup>34</sup> liburu formatuan argitaratu izana xede hizkuntzan. Gure katalogoan, xede hizkuntzan argitaratu den euskarria izan dugu kontuan kasu horietan guztietan, eta ez jatorrizkoarena.

Laburbilduz, euskal literaturaren beste hizkuntza batzuetarako itzulpenak aztertzeko hiru muga ezarri ditugu: lehenengoa, denborari dagokion muga, euskal literatura bere osotasunean hartzen duena; bigarrena, xede hizkuntzei dagokien muga, katalogoa osatzeko hizkuntza guztiak izan ditugu kontuan; eta hirugarrena, euskarri mota, liburueta mugatu dugu bilaketa.

Euskaratik kanporatutako literatur lanak zenbatzeko ahalegin bat edo beste ere topatu dugu, gure katalogoa sortu aurretikoak. Joan Mari Torrealdaik itzulpenari tartetxo bat egin zion *Euskal literatura gaur* (1997) liburuan, eta erdaraturiko liburuen zerrenda osatu zuen “Euskal liburuak erdaraz” atalean. Katalogo horretan, 136 itzulpen jaso zituen, eta bertan ageri diren HGL liburuak bildu zituen zerrenda gehigarri batean, 60 guztira. Sarrera bakoitzean, honako datuak jaso zituen: egilea, izenburua, jatorrizko argitaletxea, jatorrizko argitalpen data, itzultzailea, itzulpenaren izenburua, itzulpenaren argitaletxea, urtea eta xede hizkuntza.

---

<sup>33</sup> Esaterako, *Lezio berri bat ostrukari buruz* liburu modura argitaratu zuen Atxagak 1994. urtean, eta Tenerifeko *La página* aldizkarian argitaratu zen urte berean gaztelaniazko itzulpen bat.

<sup>34</sup> Bada bide luzea izan duen lan aipagarrikerik ere. Wentworth Websterrek euskal ipuinen antologia bat argitaratu zuen ingelesez (*Basque Legends*), 1877an. Ipuin horiek euskaldunen ahotik jaso zituen berak, eta horien transkribapenetatik abiatu egin zuen itzulpena. Ipuin horien transkribapenak Xipri Arbelbidek moldaturik argitaratuak izan ziren, 1993an; hots, jatorrizkoak itzulpena baino beranduago argitaratu ziren. Antzerako prozesua izan zuen Jean François Cerquand-en *Légends and récits populaires du Pays basque* liburuak (1875); mende bat beranduago argitaratu zituen Anuntxi Aranek jatorrizkoak euskaraz.

EGILEA	IZENBURUA	JATORRI ARGITAL	URTEA	ITZULTZAILEA	ITZULTAKO IZENBURUA	ITZULPENAREN ARGITALETXEA	URTEA	ITZULTAKO HIZKUNTZA
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Julia Costa, Margaret	Obabakoak	Pantheon	1993	Ingelesa
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Rodríguez Coalla, Lena	Obabakoak	Editora del Norte	1995	Bable
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Círculo de Lectores	1990	Gaztelera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Meksi, Mira	Me emrin e vajzerise laura sligo	Shitëpia Botuese "Globus P."	1995	Albaniera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Covaci, Aurel	Obabakoak	Ed. Eminescu	1995	Errumaniera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Roinila, Tarja	Obabakoak	Tammi	1994	Suomiera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Worren, Arne	Gjensyn med Obaba	Gyldendal	1993	Norvegiera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Roseen, Ulla	Obabakoak	Albert Bonniers	1994	Suediera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Ioannides, Stratos	Obabakoak. O Mythikós kosmos tes Obaba	Ekkremes	1993	Grekeria
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Sobolewska, Ana eta beste	Obabakoak	Ofizina Literacka	1992	Poloniera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Julia Costa, Margaret	Obabakoak	Hutchinson	1992	Ingelesa
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Vuyk-Boschiesz, Johanna	Obabakoak of het ganzenbord	Nijgh-Van Ditmar	1992	Holandesa
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Gonçalves, Egito	Obabakoak: Um lugar chamado Obaba	Quetzal	1992	Portugesa
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Giö Waeckerlin Induni	Obabakoak oder Das Gänsepiel	Schönbach	1991	Alemana
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Piloto di Castri, Sonia	Obabakoak	Einaudi	1991	Italiera
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Gabastou, André	Obabakoak	Christian Bourgois	1991	Frantsesa
Atxaga, Bernardo	Obabakoak	Erein	1988	Hernández Pibernat, Marta	Obabakoak	Ediciones B	1990	Katalana

5-1 Figura. Torrealdairen katalogoaren itxura

2005. urtearen amaiera aldera, gure katalogoaren lehen itzulia prestatzen ari ginelarik, [www.basqueliterature.com](http://www.basqueliterature.com) webgunea sortu zen, eta, besteak beste, euskaratik itzuliriko lanen zerrenda osatu zuen gune horretan Aiora Jakak. 2009. urtera arte zerrenda horretan agertzen ziren xede hizkuntza bakarrak gaztelania, frantsesa, ingelesa eta alemana ziren. Aipatu urtetik aurrera, ordea, lehenengo zerrenda horren orde osatuago bat jarri zuten eskuragarri, Mari Jose Olaziregik eginikoa. Guztira, 575 sarreraz osaturik dago katalogo hori, eta, sarrera bakoitzean, honako datu hauek eskaintzen dira: egilea, izenburua, jatorrizko argitaletxea eta argitalpen urtea, itzultzailea, xede izenburua, xede hizkuntza eta xede argitaletxea eta urtea.

Egilea	Izenburua	Argitaletxea	Urtea	Itzultzailea	Izenburua	Argitaletxea	Urtea	Hizku itza
AAVV (ed. J.M. Lasagabaster)	Antología de la narrativa vasca actual	Edicions del Mall	1986					Gazt
AAVV (ed. JM Lasagabaster)	Antología de la narrativa vasca actual	Edicions del Mall	1986	Michael Morris	Contemporary Basque Fiction	University of Nevada Press	1990	Ing
AAVV (Ed. DROBNÍČ, PRELENSKĀ) (Ed.: Iñaki Añelkoa)	Etzikoak. Antologija sodobne baskovske knizevnosti	Društvo slovenskih pisateljev	2006	M. Drobnic, M. Prelensnk			2006	Eslov
AAVV (Ed.: Jon Kortazar)					Antología de la poesía vasca Hitzeak Zubia. Bost poeta gazte = Puente de palabras. Cinco jóvenes poetas	Visor	1991	Gazt
AAVV (Ed.: Patricio Hernández)					Poesía vasca contemporánea	Litoral	1995	Gazt
AAVV (Ed.: Mari Jose Olaziregi)				Kristin Addis Elizabeth Macklin Amaia Gabanxio Linda White Margaret Jull Costa	An anthology of Basque Short Stories	Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno	2004	Ing
AAVV (Ed.: Mari Jose Olaziregi)	An Anthology of Basque Short Stories	CBS, University of Nevada, Reno	2004	Kristin Addis Elizabeth Macklin Amaia Gabanxio Linda White Margaret Jull Costa	Strange	Parthian	2008	Ing
AAVV (Ed.: Mari Jose Olaziregi)	An Anthology of Basque Short Stories	CBS, University of Nevada, Reno	2004	Roberta Gozzi Manu Lopez Gaseni Gerardo Markuleta Joseba Sarrionandia Iban Zaldúa Jorge Gimenez	Pintxos. Nuovi racconti baschi	Gran Via Edizioni	2005	It
AAVV (Ed.: Mari Jose Olaziregi)	An Anthology of Basque Short Stories	CBS, University of Nevada, Reno	2004	Manu Lopez GASeni Gerardo Markuleta Joseba Sarrionandia Iban Zaldúa	Pintxos. Nuevos cuentos vascos	Lengua de Trapo	2005	Gazt
AAVV (Ed.: Mari Jose Olaziregi)	An Anthology of Basque Short Stories	CBS, University of Nevada, Reno	2004	Manu Lopez GASeni Gerardo Markuleta Joseba Sarrionandia Iban Zaldúa	Pintxos. Nuevos cuentos vascos	Círculo de Lectores	2007	Gazt

5-2 Figura. Olaziregiren katalogoaren itxura

Euskal Literatura Itzuliaren katalogoa (ELI katalogoa) izendapena eman diogu gure katalogoari, eta aurreko lan horien hedapen bat dakarrela uste dugu, bai sarrera kopuruan baita sarrera bakoitzak biltzen dituen datu kopuruan ere. Datu bilketa nola egin dugun azalduko dugu jarraian. Mota askotariko hainbat iturritan egin dugu bilaketa: batetik, mundu zabaleko liburutegi eta datu-baseetan, internet bidez kontsultatu ditugunak, hala nola Index Translationum, Center for Basque Studies of the University of Nevada, Euskal Datubasea, Britania Haundiko unibertsitate liburutegien elkarte, British Library, Library of Congress, Die Deutsche Bibliothek, Hamburgeko Unibertsitateko Portugaldar, Espainiar eta Kataluniar filologien liburutegia, Bibliothèque Nationale de France, Espainiako ISBN, Biblioteca Nacional de España, Rebiun Espainiako unibertsitate liburutegien sarea, NDL Japoniako liburutegi nazionala, Herbeeretako Koninklijke Bibliotheek, Italiako Istituto Centrale per il Catalogo Unico delle Biblioteche Italiane per le Informazioni Bibliografiche, Portugalko Porbase – Base Nacional de Dados Bibliográficos, Poloniako Biblioteka Narodow, Norvegiako BIBSYS liburutegia, Finlandiako Fennica bibliografia nazionala, Danimarkako liburutegi nazionala, CCUC Kataluniako Unibertsitateen katalogo kolektiboa, Helsinkiko Unibertsitateko liburutegia, Suediako liburutegi nazionala, Txekiako liburutegi nazionala, Biblioteca de Catalunya, Biblioteca da tradución galega (BITRAGA) Vigoko Unibertsitateko datu basea eta American Literary Translators Associationen Annotated Books Received izeneko urteroko txostenak; bigarrenik, Euskal Herriko eragile ezberdinetan, horien artean, liburutegi eta datu-baseak, hala nola Euskal Idazleen Elkartearen webgunea, Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpretteen webgunea, Sancho el Sabio fundazioa, Euskaltzaindiaren Azkue liburutegia, Haberen liburutegia, Euskal literaturari buruzko webgunea (www.basqueliterature.com), Bilgunea Euskadiko liburutegien katalogo

kolektiboa, Ikeder euskal literatur agentziaren webgunea eta Berria egunkaria; hirugarrenik, argitaletxeen webguneetan, besteak beste, Susa, Alberdania eta Ttartalo euskal argitaletxeen artean eta Espainiako Atenea, Frantziako La Joie de Lire, Italiako Gran vía, Galiziako Faktoria K, Alemaniako Pahl-Rugenstein argitaletxearen [www.zubiak.de](http://www.zubiak.de) ataria edo Errusiako Gernika argitaletxearen [www.gernika.ru](http://www.gernika.ru) web orria; laugarrenik, norbanako edo elkarrean web orri bat edo beste ere baliagarriak izan zaizkigu, hala nola Italiako ACE Associazione Culturale Euskararen web orria eta Visat, Revista digital de literatura i traducció del PEN catalàren webgunea ([www.visat.cat](http://www.visat.cat)) edo Bernardo Atxaga, Unai Elorriaga, Mariasun Landa eta beste hainbat idazleren webguneak; bosgarrenik, hainbat liburu, artikulu edo argitalpen ere kontsultatu ditugu katalogoa osatzerakoan, besteak beste, Pedrerol i Pié autorearen *Littératures d'Espagne. Traductions en Français 1987-2001*, Joan Mari Torrealdairen *Euskal kultura gaur* eta *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa* liburuak, Mari Jose Olaziregiren *Bernardo Atxagaren irakurlea* lana, Jose Manuel Lopez Gaseniren *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* liburua, Iñaki Aldekoaren *Historia de la literatura vasca* liburua, Genaro de Sorrarainen *Catálogo de obras euskaras o Catálogo general cronológico de las obras impresas referentes a las provincias de Alava, Guipuzcoa, Bizcaya y Navarra* liburua eta Pere Martí i Bertranen “Literatura infantil i juvenil basca, en català” artikulua; azkenik, aurrez aipatuak izan diren Torrealdairen katalogoa –*Euskal kultura gaur* liburuan agertua– eta [www.basqueliterature.com](http://www.basqueliterature.com)-en argitaraturiko katalogoa ere kontsultatu ditugu.

Hainbat zailtasun izan dugu hemen aurkeztuko dugun katalogoa osatzeko. Gure katalogoa sorburu hizkuntza batean oinarritzen da, eta ez du mugarik xede hizkuntzei edo herrialdeei dagokienez. Sorburu hizkuntzan oinarrituriko bilaketak ez dira oso ohikoak izaten, eta liburutegi zein datu-baseek mota horretako bilaketak egiteko aukera mugatuak eskaintzen dituzte. Bilaketa ahalik eta zabalena egiteko, jatorrizko hizkuntza besterik ez zehaztea dugu egokiena. Bilaketa egin dugun iturrietariko bik soilik eskaini digute aukera hori: Index Translationumek eta ISBNek. Azken horrek, duela oso hilabete gutxitatik soilik gainera. BITRAGA datu-basean ere, hizkuntzaka lor daitezke emaitzak (bilaketa eremua hutsik utzita), eta gure lanerako behar ditugun emaitza posible guztiak kontsultatu ahal izan ditugu honela. Gainerako iturrietan bilaketa zehatzagoak egin behar izan ditugu. Honenbestez, hizkuntza mugak eta argitaratze tokia edo data, autorea edo liburuen izenburua jarri beharrak bilaketaren emaitzak murrizteko arriskua handitu dute, eta aukera posible batzuk kanpoan utzi dizkigu.

Hainbat iturritan bilaketa hizkuntzaka egin ezin bada ere, *Basque* modura sailkatu ere agertzen dira liburuak. Hala ere, nozio hori gai modura zehazten den kasu horietan kontuz ibili beharra dago, *Basque* horrek ez baitu beti euskarazkotik itzulua izan denik esan nahi, euskal gaiak jorratzen dituela baizik.

Katalogoa osatzerakoan izandako lehenengo zailtasuna informazio eza izan da. Askotan, ez dugu itzulpenaren inguruko inolako daturik aurkitu liburuetan, eta, itxura batera, itzulpenak izan daitezkeen liburuak ezin izan ditugu katalogatu prozesuaren inguruko informazio nahikorik izan ez dugulako. Beraz, informazio okerra ematea baino egokiagoa iruditu zaigu zalantzazko kasuak katalogotik kanpo uztea.

Euskal literaturaren konplexutasuna dela medio, itzulpenaren norabidearen inguruan ere hainbat arazo izan dugu. Katalogo zein datu-baseetan topaturiko datuak sarritan ez dira zuzen jaso, eta horrek hainbat nahasmen sortu ditu. Konparazio batera, Pako Sagarzazuren *Honelakoxea da nire arreba, eta zer? / Mi hermana es distinta* HGL liburuaren gaztelaniazko bertsioa euskarazkotik itzuli zen, ISBNren arabera, nahiz eta itzultzailearen izenik agertzen ez den. Liburua katalanez eta galegoz ere argitaratu zen, eta, azken horretan, itzulpena euskaratik egin dela esaten da. Euskarazko “jatorrizkoaren” datuak kontsultatuz gero, ordea, gaztelaniatik eginiko itzulpena dela ikus daiteke, Joxantonio Ormazabalek egina, hain zuzen ere.

Beste arazo bat ere aipatu nahiko genuke: sorburu hizkuntza gaztelania erabili duten hainbat lanen jatorrizkoa gaztelaniaz klasifikaturik egon daiteke, eta sailkapen horrek gure bilaketak zapuzten ditu. Autoreak ere hizkuntzaka edo herrialdeka sailkatu egon daitezke hainbat kasutan eta horrek ere arazoak eman ditzake. Katalogoaren lehen itzulian (2006. urteko azaroan), autoreak hizkuntzaka aukeratzeko aukera ematen zigun Library of Congressen katalogoak. Gure literaturaren esportatzaile nagusi den Bernardo Atxaga gaztelaniazko idazle modura klasifikaturik zuten bertan, eta, aurrez aipatu dugun polisistemen teoriari loturik, zera ikusten dugu: literatur sistema batean baino gehiagotan argitaratu duen idazlea sailkatzeko arazoak izan ditzakeela hirugarren literatura batek<sup>35</sup>. Hori guztia autoitzuliriko autoreen kasuan konplexuagoa izaten da gainera:

---

<sup>35</sup> Irakurleek ere autorearen jatorriaren edo idazten duen hizkuntzaren inguruko nahasmena izatea ez da arraroa halakoetan. Hona hemen Ur Apalategik agertzen duen adibidea: “Neronek aurtan bizitako gertaera bat datorkit burura, txit esanguratsua. Lapurdin, Euskal Herrian beraz, Angeluko liburutegi munizipalean nengoela bertako langile batekin hizketan hasi eta Atxagaren zenbait obra irakurriak dituela aitortzen dit (frantsesez, noski). Exegeta atxagarra naizen aldetik haren iritzia interesatzen zait eta galdera batzuk egiten dizkiot bere ‘rezeptzioaren’ nondik norakoak ezagutzeko asmotan. Orduan ohartzen naiz (zer harridura eta atsekabea nireak!) ez dakiela Atxagak euskaraz idazten dituela bere obrak... Atxaga ‘basque-espagnol’ zela jakinaren gainean, eta liburuan bertan ezerk ez baitzion adierazi obra jatorriz euskarazkoa zela, langile hark uste izan zuen Atxaga soilik espainolez idazten zuen idazlea zela” (Apalategi, 1998a: 71-72). Neroni ere antzerako egoera batean egon berria naiz, nahiz eta Euskal Herritik kanpo izan. 2011n Perpignaneko egin den autoitzulpen gintzari buruzko kongresu batean nire hitzaldiaren aurkezle lana egin behar zuen unibertsitate irakasleak aitortu zidan Atxaga irakurria zuela eta gustuko izan zuela. Hala baina, Apalategiren liburuzainaren modu berean, Perpignaneko irakasleak ez zekien Atxagak euskaraz idazten zuenik.

Baina gaztelerazko bertasioak edo berridazketak bere gain hartzea erabaki duenez gero “aldi berean euskal eta espainiar literatur esparruetan eskuhartzen duen idazle” gisara kontsidera daiteke. Frantses liburu saltokietan idazle asteasuarra idazle atzerritar eta itzulien apaletan sailkatzen badute, Espainiar irakurlearentzat Atxaga ez da idazle “atzerritarra”, ez eta idazle itzulia ere (Apalategi, 1998a: 72).

Kontsultaturiko hainbat iturritan, zehaztasun falta handia izan da. ISBNn eginiko bilaketetan, esaterako, jatorrizko hizkuntza besterik ez dugu zehaztu, baina, sarritan, euskaratik eginiko itzulpenak baino, euskarara eginiko itzulpenekin egin dugu topo. Bestalde, jatorrizko hizkuntza zehazteke zeukaten kasu guztiak bilaketatik kanpo ere geratzeko arriskua izan dugu. Zehaztasun falta hori beste maila batzuetan ere topatu dugu. Konparazio batera, ilustratzailea, batzuetan, itzultzaile modura sailkatu dute, edo alderantziz. Lanen izenetan edo autoreen izenetan akatsik ere bada. Itzulpena ez den lanen bat, itzulpen modura ere klasifikaturik aurkitu dugu ISBNren katalogoan, Iban Zalduaren *Si Sabino viviría* (2005) eleberria, kasu, Bego Montorio *et al.*-ek egina izan dela agertzen baita. Itxura guztien arabera, datu hori akats bat izango da, itzulpenaren erreferentzia beste libururen bati dagokiola ematen baitu. Hala ere, sistemaren egoera konplexuak horretarako bidea ematen du. Hau da, autore horrek, oro har, euskaraz argitaratzen ditu bere liburuak eta honako hau ere hala egin izana arruntzat jo da.

Liburu beraren inguruko informazio kontrajarria ere eskaini digute iturri ezberdinek, eta datu batzuk ezin izan ditugu guztiz argitu. Adibideak ugariak dira: Jon Maiaren *Riomundo* (2005) liburuaren izen bereko gaztelaniazko itzulpena 2009an argitaratu zen. Basqueliterature.com atarian Mari Jose Olaziregik osaturiko katalogoaren arabera, liburua José Campo Barandiaranek itzuli zuen, baina liburuaren paratestuetan Jon Maia bera ageri da itzultzaile modura; Patxi Zubizarretaren *Eztia eta ozpina* liburu (1995), ISBNren eta Alberdaniaren webgunearen arabera, autoreak berak gaztelaniaratu zuen, baina, basqueliterature.com-en arabera, Itziar Ortuondo izan zen zeregin hori burutu zuena. Joxean Sagastizabalen *Kutxidazu bidea, Ixabel* (1994) eleberria, Alberdaniaren webgunearen arabera, Jorge Gimenez Bechek itzuli zuen; basqueliterature.com-ek, ISBNk eta liburuaren paratestuek autoreak berak itzuli zuela azaltzen dute, aldiz.

Hori guztia kontuan izanik, katalogoa ahal bezain osatuena eta zehatzena izan dadin saiatu gara, baina emaitza guztiak ez dira izango espero bezain zehatzak. Itzulpen modura aurkeztu ez den lanen bat edo beste geratuko zitzaigun katalogoan sartzeko. Datuen baten inguruko zalantzak izan ditugunetan ere jaso egin ditugu katalogoan, izan itzulpen motari dagozkionak, itzultzaileari dagozkionak edo erabiliriko jatorrizkoari dagozkionak, nahiz eta horien azterketa ezin izan den guztiz sakona izan. Bestalde, itzulpenaren norabidearekin izaniko zalantzen ondorioz, hainbat



liburu katalogotik kanpo utzi behar izan dugu. Horiek guztiak testu mailako azterketa espezifikoen bidez argitu beharko lirateke kasuz kasu etorkizunean.

Ahal bezain datu gehien jaso dugu katalogoko sarreretan, baina, hala ere, ezinezkoa izan da informazio guztiz osatua biltzea: iturri ezberdinetan bilatuta ere, argitalpen bakoitzaren datu guztiak jasotzea oso zaila suertatu da, eta, honenbestez, hainbatetan datuak falta dira. Datu horietariko batzuk ez dira beste batzuk bezain garrantzitsuak katalogoaren azterketa egiteko, ISBN zenbakia esaterako, baina beste asko bai: itzultzailea, urtea, edo generoa, besteak beste. Beraz, azterketa ez da izango guk nahi bezain zehatza. Bilaketa bereziki nekeza izan da xede egilea nor den jakiterakoan, 142 kasutan ez baitugu jakin nor izan den itzultzailea, hau da, sarreraren %12,09an. Xede lekua (120 aldiz, sarreraren %10,22) eta xede orrialde kopurua (148 aldiz, hau da, sarreraren %12,60) jakitea ere ezinezkoa suertatu zaigu. Azkenik, bitarteko hizkuntzarik izan ote den ere, hau da, liburua jatorrizko euskarazkotik beharrean gaztelaniazko bertsioa erabiliz egin ote den, ezin izan dugu jakin 342 kasutan, hots, gaztelania ez beste hizkuntzetara eginiko itzulpenen %69an. Datu horrek nahiko ongi erakusten du kontu horren lausotasuna eta fenomeno hori aztertzeke beharra.

Ahalik eta bilaketa sakonena egiten saiatu gara, iturri kopuru zabala kontsultatuz, gure katalogoa ahal bezain aberatsena izan dadin. Gaiaren irisgarritasuna dela medio, badakigu katalogo hau ez dela guztiz osatua, halako katalogoek bere mugak izan ohi dituztela jakin bai baitakigu. Ezin dugu baieztatu euskaratik itzuli diren liburu guzti-guztiak jaso ditugunik, baina, eginiko lan sistematikoari esker, katalogoak errealitatea nahiko ongi islatzen duela iruditzen zaigu.

Excel programaren bitartez osatu dugu katalogoa. Tresna egokia da honelako datu bilketa bat egiteko, eta, ondoren, datuak aztertzeke. Katalogoaren lehen itzulian<sup>36</sup>, 2006ko azaroan, 851 fitxa bildu genituen. 2010. urtera arte argitaraturiko itzulpenekin osaturiko bigarren itzuli honetan katalogoak 1.176 sarrera biltzen ditu —berrargitalpenak kontuan izan gabe, berriz, 935 sarrera—. Fitxa bat dagokio xede argitalpen bakoitzari, eta fitxa bakoitza, era berean, hemezortzi kategoriatan banaturik dago, jatorrizkoari (autorea, izenburua, argitaratze data, argitaratze tokia, argitaratzailea, ISBN zenbakia, orri kopurua) eta xede argitalpenari (xede egilea, izenburua, argitaratze data, argitaratze tokia, argitaratzailea, ISBN zenbakia, orri kopurua, xede hizkuntza eta bitarteko hizkuntzarik erabili ote den) dagozkien datuak bilduz. Liburua zein generotakoa den ere jaso dugu. Azkenik, informazioaren iturriaren edo iturrien erreferentzia ere jaso dugu kasu bakoitzean. Hona hemen katalogoaren ikuspegi orokorra excel orrian.

<sup>36</sup> *Euskal literatura beste hizkuntzetara itzulia* ikerketa lan argitaragabea, 2006an lkasketa aurreratuen diploma lortzeko eginikoa.

27	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
27							Frantsesa		Conrad	1979 Paris		Procesos de la		35
28							Inglésa	Wentworth V. Blaque	1877 Londres			Griffith and		23
29	Peru gaztaria	1993 Donostia	Elkar, "Txalupa" saila	84-7529	32	Gaztelania	Jose Antonio	Pedro Pizaro	1983 Barcelona	La Olera	0		3	
30	Peru gaztaria	1993 Donostia	Elkar, "Txalupa" saila	84-7529	32	Gaztelania	Merce	En Pare	1993 Barcelona	La Olera	0		3	
31	Peru gaztaria	1993 Donostia	Elkar, "Txalupa" saila	84-7529	32	Gaztelania	Rosa Garcia	O Pedro	1983 Barcelona	La Olera	0		3	
32	Peru gaztaria	1993 Donostia	Elkar, "Txalupa" saila	84-7529	32	Gaztelania	Jose Antonio	Pedro Pizaro	1984 Barcelona	La Olera	0		3	
33	Peru gaztaria	1993 Donostia	Elkar, "Txalupa" saila	84-7529	32	Katalana	Merce	En Pare	1994 Barcelona	La Olera	0		3	
34	Alta Pibai	2000	Isatzabai Edehives	84-8325		Gaztelania	Idia Gilenes	Alta Pibai	2000 Euse-	Isatzabai	84-8325-		13	
35	Kirolaria	1954 Zarautz	Itxaropena			Gaztelania	P. Arburu	Kristalen (La br.)	1959				205 / 187	
36	Aufremendeko lirora: Irakurgailua						Frantsesa	P. Ignacio	Ori Aufremendeko l.	1966	Donostia	Aufremend		
37	Euskal iunuen antologia bat	1993 Iruñ	Alberdania	84-		195	Poloniera	Alicja	Pewnej nocy w	2001 Poznan		Don	0	14
38		1995 Eibko	Bilbo Bizkaia Kirola -	84-8060		104	Gaztelania	Bego	Antologia de la	1991 Madrid		Visor	84-7522-	29
39	Itxaroen eraman handia	1995 Eibko	Susa	84-		243	Gaztelania	Angela	El establon	2003 Hondarribia	Hiru	84-95788-		31
40	Katebgo gaudia	1995 Zarautz	Susa	84-		243	Gaztelania	Angela	El establon	2003 Hondarribia	Hiru	84-95788-		31
41	Canemibet heburu	1993 Donostia	Eusajagritza Elikarlanen - Susa			286	Gaztelania	Bego Montori	Objetivo Canem	2005	Donostia	Tiartiko		
42	Canemibet heburu	1993 Donostia	Eusajagritza Elikarlanen Fundazioa			286	Frantsesa	Bego Montori	Objetivo Canem	2005	Donostia	(Argitaragabea)		
43	Gasteizko	1997 Gasteiz	Gasteizko Udalak	84-505-			Gaztelania	Gasteizko	Gasteizko	1997 Gasteiz		Gasteizko udalak	0	16
44	Leturaren egunkari ezkutua	1997 Eibko	Eusajagritza	84-300-		147	Inglésa	Nesdi	Letitia	1998		Beramar		18
45	Hetzeez bestakideti	1979 Donostia	Egile Egitore	84-300-		228	Gaztelania	Tullberg	Alende al	1984 Donostia		Haranburu		27
46	Leturaren egunkari ezkutua	1993 Donostia	Elkar			142	Gaztelania	Leturia	1988 Madrid		Beramar	84-8634-01		35
47	Antigua 1900	1991 Donostia	Sociedad Oupuzcoana	84-7173-		350	Gaztelania	Antigua 1900		1993 Donostia		Argitziaren eta		
48	Euskal Herria heburu	1994 Tafalla	Txalaparta	84-8136-4		322	Gaztelania	Mertxe Eigo	Euskal Herria	1997 Tafalla		Txalaparta		
49	Mix: mañsura eta bakardadea			0			Gaztelania	Mia	2001 Bilbo		A. Alzoa		0	8
50				0			Gaztelania	Nahue	Cancha	1994 Otxaluen	LM Ed.		0	16
51	Osuak eta hirak	1997 Donostia	Elkar	84-7917-		248	Gaztelania	Xabier	Las relaciones	2001 Hondarribia	Hiru	84-8973-		20
52	Urtegi misterioak	1994 Donostia	Elkar, "Xaguzar" bilduma	84-7917-		72	Nederlandera	Wim Jansen	Het geheim van	2001 Groningen	Gogher		0	6
53	Erengua heburu	2000	Itxaropena	84-8116-			Gaztelania	Aitor Arana	La rima	2000 Barcelona	Estibe		0	10
54	Herri eta herri	1984 Zarautz	Itxaropena	0		175	Gaztelania	Piedra y pueblo	1983 Donostia		L. Haranburu		0	20
55	Euskal Herria			0			Gaztelania	Javier	Euskal Herria /	1979 Donostia		L. Haranburu	84-7407-	17
56	Makel bethera, Herri eta herri			0			Gaztelania (B)	Pendente	1978 Madrid			Ediciones	84-376-0211	39
57	Auto-stopeko ipuak	1994 Donostia	Erein	84-7588-		203	Gaztelania	Fernán	Los informes	1997 Hondarribia	Hiru		0	17
58	Urengiaren arduak	1998 Donostia	Erein	84-330-		384	Gaztelania	Jose Luis	Las buenas pal	2004 Donostia	Erein		84-97461746	32
59				0			Gaztelania							
60	Ulukia eta Makon	2001	Descôte de Brower	84-330-			Gaztelania	Zumbona y	2001 Bilbo		Descôte de	84-330-		3
61	Ulukia eta Makon	2001	Descôte de Brower	84-330-			Katalana	Dum-Zum i	2001 Bilbo		Descôte de			3
62	Kirolgaitia	1998 Iruñ	Alberdania	0			Gaztelania	Gerardo	Cartografía	2000 Gasteiz	Bassarai	84-89862		10
63	Hitzeko zulia	2000	Letras de Cal	84-			Gaztelania (B)	Rafal Vilber et	A porle das	2000 Santiago de	Letras de Cal	84-931169-		16
64	Tulabau	1993 Donostia	Elkar	84-7917-		206	Gaztelania	Jose Luis	Tulabau	2001 Donostia	Tiartiko		0	27
65	Heresi handirantz	1994 Leioa	Zubia	84-8147-		146	Gaztelania	Jon Arretxe	Hacia la gran	2001		Altzagura		
66	Zappa kolore	2000 Donostia	Elikarlanen	84-8331-4		130	Gaztelania	Jose Luis	Siete colores	2004 Barcelona	RBA		0	
67	Bedeigaitza ez dago?	1998 Bilbo	Aziolari	84-9093-		97	Katalana	Frau Joan	Cherenda de	1999 Barcelona	Cosí		0	8
68	Justoratzeta eta haria	1998 Donostia	Kirola fundazioa	84-7173-		157	Gaztelania (B)	Volandia	Justoratzeta eta	2005 Madrid	Atenea		0	
69	Abuztaren 15eko bazkalondoa	1979 Donostia	Kirola - Elkar	0			Gaztelania	José Auzh	La sultanesa	1994 Hondarribia	Hiru		0	18
70	Abuztaren 15eko bazkalondoa	1979 Donostia	Kirola - Elkar	0			Katalana	Maria	La sultanesa	1996		Colonna		
71	Gizon handia da mundua, eta	1998 Donostia	Elkar	0			Frantsesa (B)	Eduardo	Le monde est	1994 Donostia	Iratza		0	6
72	Sonakilearen semea	2003 Iruñ	Pantela	84-7681-		489	Nederlandera	Johanna	De zion van de	2005 Amsterdam	Mijn & Van	98-398-2022-3		
73	Erengua	1978 Bilbo	Pott			118	Gaztelania	Elopa		1978		Autor-Editor 1303	84-400-4998	11
74	Bizkaia	1978 Bilbo	Pott			118	Gaztelania (B)	Nueva Elogia o	1996 Madrid	Galeria Detursa	84-89156-11		12	
75	Nikolasaren abenturak eta	1979 Donostia	Elkar	84-7917-		92	Katalana	Josep	Nikolasa,	1989 Barcelona	Edicions B,		84-406-	7
76	Nikolasaren abenturak eta	1979 Donostia	Elkar	84-7917-		92	Gaztelania	Bernardo	Nikolasa,	1989 Barcelona	Ediciones B,		84-406-	7
77	Nikolasaren abenturak eta	1979 Donostia	Elkar	84-7917-		92	Katalana	Josep	Nikolasa,	1989 Barcelona	Ediciones de la	84-8284-		5
78	Nikolasaren abenturak eta	1979 Donostia	Elkar	84-7917-		92	Gaztelania	Bernardo	Aventuras de	1990 Donostia	Antonio San	84-85445-		7
79	Ramuntzo detektibea	1979 Donostia	Elkar	0			Katalana	Josep	Ramuntzo	1989 Barcelona	Edicions B,		84-406-	5
80	Ramuntzo detektibea	1979 Donostia	Elkar	0			Gaztelania	Bernardo	Ramuntzo	1989 Barcelona	Edicions B,		84-406-	7
81	Ramuntzo detektibea	1979 Donostia	Elkar	0			Katalana	Josep	Ramuntzo	1989 Barcelona	Edicions de la	84-8284-		6
82	Antonio Agresta	1982 Donostia	Erein, "Siberiko ipuin eta	84-		44	Katalana	Antonio	1992 Valencia		Edicions Bromera	84-7860-		6
83	Antonio Agresta	1982 Donostia	Erein, "Siberiko ipuin eta	84-		44	Gaztelania	Antonio	Agresta	2000 Alzira		Edicions Bromera		6
84	Antonio Agresta	1982 Donostia	Erein, "Siberiko ipuin eta	84-		44	Katalana	Antonio	Agresta	2000 Alzira		Edicions Bromera		6
85	Chuck Arambarri dentistak baten	1982 Donostia	Erein, "Bergano/Ziripot"	84-		42	Katalana	Josep	Chuck,	1985 Barcelona	Edicions de la	84-7410-		6
86	Chuck Arambarri dentistak baten	1982 Donostia	Erein, "Bergano/Ziripot"	84-		42	Katalana	Josep	Chuck,	1985 Barcelona	Edicions de la	84-7410-		6
87	Chuck Arambarri dentistak baten	1982 Donostia	Erein, "Bergano/Ziripot"	84-		42	Katalana	Josep	Chuck,	1990/02 Barcelona	Edicions de la	84-7410-		7

5-3 Figura. Katalogoaren ikuspegi orokorra

Katalogoaren bertsio eguneratua honako helbidean dago ikusgai: <http://www.ehu.es/ehg/eli><sup>37</sup>.

<sup>37</sup> ELI katalogoa eguneratzen jarraituko dugu hemendik aurrera ere, euskaratik itzuliriko literaturaren ikuspegi osoa izan dezagun hemendik aurrera ere. Aipatu helbidean egongo da ikusgai, EHuren Euskara Institutuaren webgunean.

The screenshot shows the Euskara Literatura Itzuliaren katalogoa (ELI) website. At the top, there is a header with the Euskara Institutua logo and navigation links for different campuses (Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako). Below the header, there is a search bar and a navigation menu on the left. The main content area is titled 'Euskal Literatura Itzuliaren katalogoa (ELI)' and contains search filters for 'testua', 'autorea', and 'hizkuntza'. A list of search results is shown on the right, including details about the 'Elizabete Manterolak' corpus.

5-4 Figura. ELI katalogoa on-line

Azterketa ezberdinak egin ditugu hainbat ikuspegitatik katalogoa oinarri hartuta, eta horien laburpena emango dugu jarraian.

## 5.2 AZTERKETA KRONOLOGIKOA

Jarraian, katalogoko datuak urtez urte begiratuko ditugu, euskaratik itzulitako lanen garapen kronologikoa nolakoa izan den ikusteko. Lehenengo begiratuan ohartuko gara itzulpen oso gutxi izan dela azken hamarkadetara arte. XX. mendearen hirugarren laurdenera arte euskal literatur produkzioa oso urria izan zela kontuan izanik, itzulpen kopurua ere urria da nahitaez, bai lan kopuruaren aldetik eta baita xede hizkuntza kopuruaren aldetik ere.

Gure katalogoaren arabera, euskaratik itzuliriko lehen liburua 1657an argitaratu zen, euskarazko eta frantsesezko bertsio elebidunean. 1665ean ere, beste bertsio elebidun bat argitaratu zen frantsesez eta euskaraz.

Bi mende beranduagora arte, ez dugu topatu beste itzulpenik. XIX. mendean, guztira, 20 itzulpenen berri jaso dugu gure katalogoan. Horien artean, abesti bildumak, atsotitz bildumak, kondairak eta erlijioaren inguruko liburuak topatu ditugularik.

XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran, loraldia izan zuen euskal literaturak, eta hainbat idazleren lanak argitaratu ziren, bai liburu formatuan eta baita aldizkarietan ere. Hala ere, pizkundea Espainiako Gerra Zibilak eta frankismoko urteek geldiarazi zuten. 1977. urtera arte, hau da, diktadura amaitu eta euskarak ofizialtasuna lortu arte ez zen normaltasun zantzurik izan euskal letretan.

Urte horretan sistema politikoaren aldaketak euskal literaturgintzara ekarritako berrikuntzek garai berria abiarazi zuten, eta, produkzioa hazten zihoan heinean, kanporatutako itzulpenak ere ugaltzen hasi ziren pixkanaka. Hurrengo hamarkadan, 1980-1989 urtealdian, 56 argitalpen izan ziren atzerriko hizkuntzetan guztira.

80ko hamarkadaren amaieran, egoera berriarekin batera, produkzioa gero eta egonkorragoa zen, eta modu sistematikoagoan egin ziren itzulpenak. Euskal literaturgintzak gora egin zuen, bai argitaletxe kopuruari dagokionez eta baita argitaratzen ziren liburu kopuruagatik ere. Kanporatze fenomeno horretan, eragina izan zuen 1989. urtean Bernardo Atxagak, *Obabakoak* lanari esker, Espainiako Literatur Sari Nazionala irabazi izanak. Lehen aldia zen euskaraz idatziriko lan batek halako sari bat jaso zuena. “Jamais auparavant une oeuvre écrite en langue basque n’avait obtenu une reconnaissance critique ou commerciale dépassant le cadre étroit de la communauté bascophone” (Apalategi, 2000: 227). Liburua 20 hizkuntzatarara baino gehiagotara itzuli zen, eta hedapen zabala eta kritikaren onespina lortu zituen. “Tanto la crítica extranjera como la nacional se rindió ante la calidad literaria de la obra y las lecturas que se sucedieron enriquecieron, sin duda, la propuesta literaria que nos presentaba el autor” (Olaziregi, 2001: 142). Olaziregik aurrerago argitzen duenez, euskal literatura ez zen atzerrian soilik ezagutarazi, baita espainiar estatuan ere. Agidanez, ordura arte nahiko ezezeaguna zen espainiar irakurlearentzat (itzulpen kopuru txikia zutelako eskura, besteak beste).

El hecho de que, por primera vez, un escritor en lengua vasca obtuviera el Premio Nacional de Narrativa incrementó la curiosidad de muchos críticos y estudiosos españoles y, por ello, durante los años 1989-1990, se publicaron reseñas y artículos en infinidad de periódicos y revistas de toda la geografía española. Con todo, hay un hecho que quedó bien patente y era el gran desconocimiento que se tenía, a nivel nacional, de la literatura vasca y de nuestra cultura en general (Olaziregi, 2001: 143).

Beraz, *Obabakoak* lanak garai berri bat ekarri zuela esan dezakegu. 1989. urtea mugarri izan zen ordura arte eginiko kanporako itzulpenaren eta baita ordutik aurrerakoaren artean ere. 90. hamarkadan, guztira 245 izenburu argitaratu ziren xede hizkuntzetan. Beraz, kopuru horrek jauzi nabarmena adierazten du aurreko garaiarekin alderatuz gero.

Jarraian aurkezten dugun taulan, XX. mendea hamarkadaz hamarkada banaturik ageri da. Bertan ikusiko dugu, 90. hamarkada izan dela guztietan emankorrena.

#### 5-1 Taula. XX. mendean eginiko itzulpenak

##### Hamarkadaka

1900-1909

1

1910-1919	1
1920-1929	1
1930-1939	7
1940-1949	1
1950-1959	5
1960-1969	6
1970-1979	11
1980-1989	56
1990-1999	245
2000-2010	562

Azken epealdia 2000. urtetik 2010. urtera artekoa dugu. Epealdi horretan euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzuliriko liburuen kopurua inoizko altuena dugu. Azken urtealdi horretan euskarazko produkzioa bera indarturik ageri zaigu, eta beste hizkuntza batzuetarako hedapenari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio. Bestalde, 2000. urtean euskal literatura kanporatzeko hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta EIEk, euskaraz idatziriko liburuak hizkuntza ezberdinetara itzultzeko. Ordura arte, euskarara eginiko itzulpenak bultzatzeko programak baziren (Literatura Unibertsala 1989tik aurrera eta Pentsamentuaren Klasikoak 1991tik aurrera). Oraingo honetan, liburuak euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzea lortu nahi izan zen. Hona hemen diru-laguntza horien helburua:

Era berean, eta kontuan hartuz euskal liburuak azken urteotan lortu duen kalitatea, Sailak funtsezkotzat jotzen du beste herri batzuk ere euren hizkuntzan euskal idazleek euskaraz zein gaztelaniaz idatzitako lanak irakurri ahal izan ditzatela, eta horrela, gure bibliografia-ekoizpena Euskal Autonomia Erkidegotik at ezagutaraztea (EHAA: 2003).

Lehenengo saiakeran, proiektuaren emaitzak ez ziren hain onak izan, eta dirudienez, azken urteetan, proiektua berrabiarazi egin dute modu soilagoan. 2003an eginiko deialdian laguntzak 36.000 euroko aurrekontua izan zuen, eta, ondoren, 2006tik aurrera, Kultura Sailak urtero egin du euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeko liburuen deialdia. Urte bakoitzeko aurrekontua 110.000-125.000 euro bitartekoa izan da, eta deialdiko 20-36 liburu bitarte itzuli dira. Xede hizkuntza kopurua edo argitaletxe kopurua ere ezberdina izan da deialdi bakoitzean, eta, hizkuntzen artean, gaztelania, alemana, errusiera, italiera, eta abar topa daitezke. Argitaletxeei

dagokienez, hainbat herrialdetakoak topa ditzakegu, baita Euskal Herrikoak bertakoak ere<sup>38</sup>.

2000-2010 urtealdiari dagozkion katalogoko datuei erreparatuz gero, guztira 562 xede izenburu topa daitezke. Hala ere, aipatu datua altuagoa dela uste dugu, hainbat itzulpen oraindik liburutegi ezberdinetako katalogoetan sartzeko egongo direla iruditzen zaigulako. Datuok erakusten duten moduan, argi eta garbi esan dezakegu honako urtealdi hau izan dela guztietan emankorrena.


Datuak mendez mendez begiratzuz gero, argi ikusiko dugu XXI. mendean honetan izan dela itzulpen gehien, nahiz eta mendearen lehen hamar urteak soilik igaro diren.

**5-2 Taula. Euskaratik eginiko itzulpenak mendez mendez**

Mendeka	
1600-1699	2
1700-1799	0
1800-1899	20
1900-1999	334
2000-2010	562

Bestalde, 80. hamarkadatik aurrerako epealdiari dagozkion datuak urtez urte begiraturik, argi ikusiko dugu garapen horrek orain arte erakutsi duen goranzko joera. Azken urteetan ikus daitekeen beherakada, aipatu berri dugun moduan, katalogatu gabeko lanei egotz diezaiokegu agian –denbora gutxi igaro baita argitaratu direnetik, eta baliteke datu-base edo katalogoetan oraindik ere ez agertzea– edo produkzioa egonkortze bidean egoteari. Azken 10 urteetan 40-60 itzulpen bitartean argitaratu dira urtero, batez bestekoa 50,1 itzulpen delarik.

<sup>38</sup> Datu gehiago *Diru-laguntzen taula* izeneko 1. eranskinean topa daiteke.



5-5 Figura. Kronologia taula

Garai ezberdinen inguruko datuak ikusi eta gero, hainbat hausnarketa egin dugu. Gure literatura oso gaztea da, eta, nahiz eta bost mendetako historia izan, azken mendean hartu du indarra, azken 40 urteetan batez ere. XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran, euskarara itzuliriko liburugintzak eta euskal sorkuntzak hazkundera izan bazuten ere, produkzioa oso txikia izan da azken 40 urte hauetara arte, eta, horren ondorioz, euskaratik beste hizkuntza batzuetara ez da liburu gehiegi itzuli lehenago. Euskal literatur sistemaren barruan, lanak kanporatzea ezaugarri berria da, azken urteei loturik dago. Nahiz XIX. mende bukaeran eta XX. hasieran liburu solte batzuk itzuli, fenomenoak bere hastapenak 80. hamarkadaren hasieran izan zituela esan dezakegu, eta aldaketa politikoa eta aldaketa kulturalaren arteko harremana nabarmentzen du horrek. 90. hamarkadan, itzulpen kopurua nabarmen hazi zen, eta xede hizkuntzak ere gero eta gehiago ugaltu ziren. Azken garaian, berriz, 2000. urtetik aurrera batez ere, kanporatze prozesua haziz joan da, eta beharrezkotzat jotzen da itzulpenak egitea gure literatura ezagutzera emateko. Administrazioa eta beste hainbat eragile urratsak ematen ari dira hedapen hori aurrera eramateko.

### 5.3 AUTORE BAKOITZAREN JATORRIZKO LAN KOPURUA

Katalogoan, guztira, 480 izenburu bildu ditugu. Kopuru horretan ez ditugu sartu xede argitalpenak antologiak diren kasuetan, jatorrizko bat baino gehiagotatik bildutako testu zatiak. Hau da, jatorrizko liburu zati soilak ez ditugu zenbatu. Modu berean, zenbaketa horretatik kanpo utzi ditugu euskaraz argitaratuak izan ez diren liburuak eta bertsiio elebidunetan agertu

direnak, hots, jatorrizkoa itzulpenarekin batera agertu den kasuak. Halaber, kasuren batean edo bestean ezin izan dugu jatorrizkorik identifikatu, kontsultatu ditugun iturrietan ez delako horren inguruko informaziorik ageri.

Jarraian, autore bakoitzak kanporatu duen jatorrizko lan kopurua aztertuko dugu. Guztira, euskaratik erdaretara 161 idazleren lanak itzuli dira, gure katalogoaren arabera. Kopuru horretatik kanpo utzi ditugu antologia biltzaile edo editoreak eta antologia horietan bilduriko autoreak. Hau da, monografia egileak besterik ez ditugu izan kontuan zenbaketa egiterakoan.


Lehenengo tokian, Juan Kruz Igerabide aurkitzen dugu jatorrizko 44 lanekin eta, bigarreanean, Bernardo Atxaga, 35ekin. Katalogoaren lehen itzulian, 2006. urtean, biak paretsu ageri ziren 33na lanekin, baina azken urteetan lehenengoaren lan gehiago argitaratu dira. Bien antzerako titulu kopurua itzuli bada ere, aldeak daude bien artean; Bernardo Atxagaren helduentzako literatura eta haur eta gazte literatura lanak itzuli dira, eta Juan Kruz Igerabiderenak, aldiz, haur eta gazte literatura lanak gehienbat. Hirugarren postuan, Patxi Zubizarreta idazlea dugu, 29 lanekin, eta, ondoren, nagusiki haur eta gazte literatur lanak argitaratu dituen Mariasun Landa, 23 lanekin<sup>39</sup>. Atzetik, Anjel Lertxundi dator, 14 lanekin, eta, jarraian, Xabier Mendiguren Elizegi, Harkaitz Cano eta Jon Arretxe, 10, 9 eta 8 lanekin, hurrenez hurren. Zazpi titulurekin hiru idazle ditugu, sei izenbururekin bost eta bostekin sei. Jarraian, lau izenburu itzuli dituzten 9 idazleko multzoa daukagu, beste 17 idazle 3 izenbururekin, eta beste 17 birekin. Gainerako 69 idazleek liburu bakarra kanporatu dute. Azkenik, 27 idazlek lanen bat itzuli dute, baina jatorriz euskara hutsez argitaratu gabea, hau da, elebiduna eta, honenbestez, itzulpen eta guzti argitaratu dute beraien liburua.

---

<sup>39</sup> Katalogoaren lehen itzulian Landa Zubizarretaren aurretik ageri zen emaitza hauetan.



## Autoreak jatorrizko izenburuka



5-6 Figura. Autoreak jatorrizko izenburuka

Kanporako produkzioaren gehiengoa (%14,37) lan bakarria idatzi duten idazleek osatzen dute. Ondoren, hurrenez hurren bi eta hiru (%3,54 bakoitzak) lan itzuli dituztenak dauzkagu. Bestalde, Igerabideren itzulpenek jatorrizko guztien %9,16 osatzen dute, eta Atxagaren lanek, jatorrizkoen %7,5.

Idazle askok lortu du bere lanen bat edo beste euskaratik kanporatzea, 161 idazle ez baitira gutxi. Hala eta guztiz ere, lan bakarria itzuli duten idazle kopuru zabalari erreparatuz gero, gehienek beren lana gaztelaniara itzuli dutela ohartuko gara. Horrek zera esan nahi du, xede hizkuntza nagusia gaztelania dugula eta hizkuntza hori ez beste batzuetara itzultzea oso gutxiren esku dagoela. Xede hizkuntzen artean estatukoetara soilik itzuli duten idazle kopurua ere altua da, guztira 102 idazle<sup>40</sup>. Beraz, ikusten dugunez, kanporako bidea gaztelaniara ez ezik, estatuko literatur sistemetara mugatzen da gehienbat.


## 5.4 AUTOREAK XEDE IZENBURUEN ARABERA

Atal honetan, banaka hartuko ditugu idazleak, eta bakoitzak euskaraz ez beste hizkuntza batzuetan argitaratu dituen ale guztiak hartuko ditugu kontuan, guztira beste hizkuntzetan zenbat liburu argitaratu dituen jakiteko. Idazlez idazleko kontaketa hasi aurretik, guztira zenbat xede izenburu izan den aipatu beharko genuke, ordea: 935 izenburu, 38 hizkuntzatan sakabanatuta.

<sup>40</sup> Gainerako 59 idazleen artean, hainbatek ingelesera ere itzuli dute, baina bertsio hori euskal irakurleei zuzenduriko argitalpenak izan dira 16 kasutan, Baigorri argitaletxeak argitaraturiko argitalpen elebidunak euskaraz eta ingelesez.

Idazle bakarrak izan du erdaretan argitaraturiko 100 liburu baino gehiago: Bernardo Atxagak. 173 xede izenburu izan dituzte bere lanek, eta, berrargitalpenak kontuan izango bagenitu, 300 argitalpenetik gora topatuko genituzke. Zerrendan, bigarren lekuan, Mariasun Landa dugu, 83 argitalpenekin euskara ez beste hizkuntzetan. Datua altua da gainontzeko idazleekin alderatuta, baina nahiko urruti dago Bernardo Atxagarengandik. Zerrendan ageri diren hurrengo bi idazleak Juan Kruz Igerabide eta Patxi Zubizarreta ditugu, 61 eta 57 argitalpenekin, hurrenez hurren. Bosgarren postuan ageri den Anjel Lertxundik 23 xede izenburu argitaratu ditu. Gainerako idazle guztiek 20 xede izenburutik behera argitaratu dituzte. 10 argitalpenetik gora izan duten 14 idazle soilik ageri dira gure katalogoan, eta 5-9 lan bitartean argitaratu duten beste 20 idazle. Beste hizkuntzaren batetara 2-4 lan artean itzuli duten 57 autore izan dira eta multzorik zabalena xede argitalpen bakarra izan duten idazleek osatzen dute, 70 izan baitira guztira.

Autoreko xede izenburu kopurua



5-7 Figura. Autoreko izenburu kopurua

Grafiko horretan argi ikusten dugu xede argitalpen kopuru handiena Bernardo Atxagarena dela, %18,52rekin. Segidan, Mariasun Landaren itzulpenak dauzkagu, %8,88rekin. Hirugarrenik, Igerabide dugu, %6,53rekin, eta, segidan, Zubizarreta, itzulpenen %6,10ekin. Lehenengo 8 autoreen itzulpenek xede izenburu guztien erdia osatzen dute, grafikoan ikus daitekeenez. Beste muturrean, xede argitalpen bakarra izan duten idazle multzoa daukagu, %7,49 osatzen dutelarik.

Oro har, idazle gehienek argitaletxe txikien eskutik egiten dute kanporako bidea. Honenbestez, euskal literaturan kanoniko diren zenbait idazlek eta lanek ez dute espero adinako oihartzunik lortu euskaratik kanpo. Oso gutxiren esku dago argitaletxe handi eta prestigiodunen eskutik

kaleratzea. Hori, Bernardo Atxagak soilik lortu du, Europako argitaletxe handiekin argitaratuz bere lan nagusiak:

Al contrario de lo que ocurriera en el caso de Atxaga, cuyas editoriales europeas son empresas prestigiosas de la talla de Einaudi en Italia, Christian Bourgois o Gallimard en Francia, o Hutchinson en el Reino Unido, la mayoría de las editoriales que han publicado obras traducidas de autores euskaldunes son editoriales pequeñas o con una capacidad de difusión escasa (Olaziregi, 2001: 140).

Datuok argi islatzen dute idazle bakarria dugula goi muturrean, eta bere argitalpen kopurua beste idazleengandik oso urruti kokatzen dela. Nolabait, Atxaga da euskarazko literaturaren esportatzaile nagusia, eta gainerakoak koska bat beherago kokatzen dira, xede hizkuntzetan izandako itzulpen kopuruari dagokionez. Euskal literaturaren ordezkari bakar modura ikusi izan da, eta, ondorioz, beste hainbat idazleren lana bere itzalpean geratu da.

## 5.5 AUTOREAK XEDE HIZKUNTZA KOPURUAREN ARABERA

Autoreak banaka hartuz, beren lanak zenbat hizkuntzatan argitaratu diren ikusiko dugu jarraian. Irizpide hori kontuan izanik, zerrendaren buruan, kasu honetan ere, Bernardo Atxaga ageri zaigu, 33 xede hizkuntzarekin, eta gainerako autoreekiko alde nabarmenez. Bigarren postuan, berriz, Mariasun Landa daukagu, 13 xede hizkuntzatarata itzulirik. Juan Kruz Igerabidek, Patxi Zubizarretak, Anjel Lertxundik eta Unai Elorriagak, berriz, euren lanak zortzina hizkuntzatarata itzulita ikusi dituzte. Miren Agur Meabek, Jesus Mari Olaizolak, Andoni Egañak eta Kirmen Uribek zazpina hizkuntzatarata, eta Xabier Mendiguren Elizegik, Joseba Sarrionandiak, Arantxa Iturbek eta Arantxa Urretabizkaiak seina hizkuntzatarata. Aipaturiko autore guztien lanak gaztelaniara eta katalanera itzuliak izan dira, eta, Sarrionandiarenak eta Urretabizkaiarenak izan ezik, gainerakoenak baita galegora ere. Gehientsuenek estatuko gainerako hizkuntza gutxituetara ere itzulita ikusi dituzte beren lanak, asturierara eta aragoierara kasu, eta, horretaz gain, baita ingelesera ere. Europako hainbat hizkuntza ere ageri dira zerrenda horretan: italiara, frantsesa edo errusiera, kasu.

Autore horiez gain, beste 18 autorek hiru eta bost hizkuntza bitartetara itzulita ikusi dituzte euren lanak, horietarik seik estatuko hizkuntzetara soilik, eta 33 idazlek, bina hizkuntzatarata, horietarik 11k estatuko hizkuntzetara soilik. Azken multzoa euren lana xede hizkuntza bakarrera itzulita ikusi duten 96 autorek osatzen dute. Horien artean, gehiengo zabalak, hirurogeita hemezortzik, gaztelaniara itzulita.

Jatorrizko liburu kopuru handia itzuli izanak ez du nahitaez esan nahi xede argitalpen kopuru zabala izango duenik idazle batek, edo xede hizkuntza kopuru zabalera helduko direnik bere lanak. Kasu batzuetan hala izaten da—Bernardo Atxaga edo Mariasun Landaren kasuan esaterako—, baina idazle

batetik bestera alde handia egon daiteke. Juan Kruz Igerabidek, adibidez, Bernardo Atxagak baino jatorrizko lan gehiago ikusi du itzulita, baina itzulpen eta hizkuntza kopurua zabalagoa da bigarrenaren kasuan. Igerabide beraren eta Mariasun Landaren artean ere aldea nabarmena da: biek ala biek ere HGL itzulpen kopuru zabalak badute ere, lehenengoak arrakasta handia lortu du estatuan; bigarrenak, berriz, hortik kanpora ere itzuli ditu bere liburuak. Beste kasu batzuetan, jatorrizko kopurua zabalak izanagatik ere, xede hizkuntza kopurua mugatua izango da. Jon Arretxeren kasuan, konparazio batera, jatorrizko 8 lanek itzulpen bana izan dute, baina guztiak ere hizkuntza berean argitaratu dira: gaztelaniaz.

## 5.6 IZENBURUAK

Atal honetan, izenburuen arabeko azterketa egingo dugu, izenburu bakoitza zenbat eta zein hizkuntzataraz itzuli den jakiteko. Ondorengo taula honetan, gehien itzuli diren hogeitaz liburuak bildu ditugu:

5-3 Taula. Gehien itzuliriko liburuaren zerrenda

	Liburua	Autorea	Zenbat itzulpen
1	Obabakoak	Bernardo Atxaga	25
2	Gizona bere bakardadean	Bernardo Atxaga	18
3	Soinujolearen semea	Bernardo Atxaga	14
4	Behi euskaldun baten memoriak	Bernardo Atxaga	13
5	Zeru horiek	Bernardo Atxaga	11
6	SPrako tranbia	Unai Elorriaga	8
7	Sugeak txoriari begiratzen dionean	Bernardo Atxaga	8
8	Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian	Bernardo Atxaga	8
9	Bi anai	Bernardo Atxaga	7
10	Xolak badu lehoien berri	Bernardo Atxaga	6
11	Joxepi dendaria	Mariasun Landa	6
12	Zazpi etxe Frantzian	Bernardo Atxaga	6
13	Tsan fantasma	Mariasun Landa	6
14	Izar berdea	Mariasun Landa	6
15	Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer?	Andoni Egaña	6
16	Nik eserita egiten dut, eta zer?	Arantxa Iturbe	6
17	Etxe bitan bizi naiz	Miren Agur Meabe	6
18	Zergatik ez du kantatzen txantxangorriak?	Xabier Mendiguren Elizegi	6
19	Arreba txiki bat dut, eta zer?	Jesus Mari Olaizola	6
20	Ostiraletako opila	Patxi Zubizarreta	6

Lehenengo hogeit hamar liburuek 6 argitalpen edo gehiago izan dute xede hizkuntzetan, baina hortik behera, 5 argitalpen edo gutxiago izan duten lan eta autore kopurua asko zabaltzen da.

Taulan ikus dezakegun moduan, *Obabakoak* liburua izan da beste hizkuntza batzuetara gehien itzuli den euskal obra, guztira 25 itzulpenekin. Jarraian, autore beraren *Gizona bere bakardadean*, *Soinujolearen semea* eta *Behi euskaldun baten memoriak* aurki daitezke, 18, 14 eta 13 itzulpenekin, hurrenez hurren.

Taula horretan argi ikusten dugun moduan, gehien itzuli diren lehen 10 liburuen artean 9 Bernardo Atxagarenak dira, eta bakarra, Unai Elorriagarena. Liburu horiek, hizkuntza askotara itzuliak izan dira, eta argitalpen kopuru zabala izan dute, bai euskaraz eta baita beste hizkuntza batzuetan ere.

Hurrengo 10 liburu itzuliaren zerrendan, autore kopurua zabaldu egiten zaigu, eta Atxagaren *Zazpi etxe Frantzian* eleberriaz gain, Mariasun Landaren 3 lan eta Andoni Egañaren, Arantxa Iturberen, Miren Agur Meaberren, Xabier Mendiguren Elizegiren, Jesus Mari Olaizolaren eta Patxi Zubizarretaren lan bana ere topatu ditugu. Deigarria da 10 horien artean Atxagarena izan ezik beste guztiak haur eta gazte literatur lanak izatea, eta xede hizkuntzak ere, oro har, estatuko hizkuntzak izatea gehienetan.

Gehien argitaratu diren lanak Bernardo Atxagaren helduentzako literatur lanak direla erakusten digute datuok, bai argitalpen kopuruari dagokionez eta baita hizkuntza kopuruari ere. Unai Elorriagaren lan bat ere badugu, Europako hainbat hizkuntzatarantz itzulia izan dena. Ondoren, Atxaga beraren eta Mariasun Landaren haur eta gazte literatur lanak ditugu, horiek ere argitalpen asko eta xede hizkuntza ezberdinetara itzuliak. Eta, atzetik, hainbat autoreren haur eta gazte literatur lanak datoz, Espainiako hizkuntza ezberdinetara itzuliak.

## 5.7 ITZULTZAILEAK

Honako atal honetan, itzultzaileen inguruko azterketa egingo dugu. Bildutako datuen arabera, osotara 390 itzultzailek itzuli dute libururen bat edo beste euskaratik. Bada, hala ere, itzultzailearen izenik lortu ahal izan ez dugun kasurik ere: 126, hain zuzen ere. Beraz, aipatu datua altuagoa dela pentsa dezakegu.

Itzultzaileen azterketa hizkuntzei loturik egin dugu, lehenengo eta behin, hizkuntza bakoitzean topa dezakegun itzultzaile kopurua ezagutzeko. Aurreikus daitekeen moduan, itzultzaile kopuru handiena itzulpen gehien izan den hizkuntzetan topatuko dugu: gaztelaniaz, katalanez, galegoz, alemanez, frantsesez edo ingelesez, esaterako.

Hizkuntza bakoitzak jaso duen lan kopurua itzultzaile kopuruarekin gurutatu dugu, azken horiek izan dezaketen espezializazio maila aztertzeko asmoz. Baina, lortutako emaitzaren bitartez, ezin izan dugu datu orokor

argirik eman. Liburu kopuru mugatua eta itzultzaile kopuru txikia denetan soilik atera ahal izan dugu datu garbirik bertatik. Esaterako, itzultzaile horiek nolabaiteko espezializazioa dutela ikus daiteke albanieraren, suedieraren edota danieraren kasuetan, pertsona bakarrak itzuli baititu hurrenez hurren 7, 4 eta 3 lan hizkuntza bakoitzera.

Jarraian, euskaratik gehien itzuli duten itzultzaileak nortzuk izan diren ikusiko dugu. Horretarako, hona hemen 6 liburu edo gehiago itzuli dituzten itzultzaileen zerrenda. Liburu kopuruaz gain, zenbat autoreren lanak diren edo zein itzulpen mota identifikatu ditugun ere gehitu dugu kasu bakoitzean, eta baita zein hizkuntzatara egiten duten lan ere.

#### 5-4 Taula. Gehien itzuli duten itzultzaileen zerrenda

	Itzultzailea	Zenbat liburu	Autore kopurua	Itzulpen motak	Hizkuntza
1	Draper, Diana	29	18	-	Ingelesa
2	Igerabide, Juan Kruz	26	1	Auto (25) Kol2auto (1)	Gaztelania
3	Hernández, Pau Joan	24	9	2 ziur zuz 1 ziur zeh 1 bietatik	Katalana
4	Atxaga, Bernardo	22	1	Auto-kol (8) Auto (14)	Gaztelania
5	Landa, Mariasun	22	1	Auto	Gaztelania
6	Giménez Bech, Jorge	20	8	Bb	Gaztelania
7	Montorio, Bego	19	15	Bb	Gaztelania
8	Gabastou, André	14	1	12 ziur zeh	Frantsesa
9	Markuleta, Gerardo	11	11	Bb (9) Kol (2)	Gaztelania
10	Gozzi, Roberta	10	8	6 ziur zuz	Italiera
11	Zubizarreta, Patxi	9	1	Auto (8) Kol2auto (1)	Gaztelania
12	Padrón, Jose Luis	9	6	Kol (1) Bb (8)	Gaztelania
13	Carballo Soliño, Xesús	8	6	1 ziur gazt	Galegoa
14	Meksi, Mira	7	2	3 ziur zeh	Albaniera
15	Chao Castro, Ignacio	7	4	3 ziur zeh	
16	Garikano, Asun	7	1	Kol	Gaztelania
17	Meabe, Miren Agur	7	1	Auto (6) Kol (1)	Gaztelania
18	Ortuondo, Itziar	7	1	Bb	Gaztelania
19	Cano, Harkaitz	6	1	Auto	Gaztelania
20	Santiesteban, Karlos	6	1	Auto	Gaztelania
21	Galarreta, Xabier	6	1	Auto	Gaztelania

22	Kerexeta, Xabier	6	1	Bb	Gaztelania
23	Jull Costa, Margaret	6	1	5 ziur zeh	Ingelesa
24	Sabán, Arantxa	6	1	Bb (5) Kol (1)	Gaztelania

Diana Draper topatu dugu zerrendaren buruan, guztira 29 lan ingelesera itzulirik. Guztiak ere Baigorri argitaletxeak argitaraturiko HGL liburu elebidunak izan dira. Aipatu zenbakia handiagoa izan daitekeela ere pentsatzen dugu, argitaletxe bereko eta sail bereko hainbat liburutan itzultzaile modura Mas Punto enpresaren izena ageri baita, baina itzultzailea nor izan den zehaztu gabe.

Bigarren postuan, Juan Kruz Igerabide autore eta autoitzultzailea daukagu. Horrek bere 26 lan autoitzuli ditu, eta horietariko bat Patxi Zubizarretarekin idatzia izan da, eta bien artean itzulia. Aipatzekoa da, ez berak ezta zerrendan ageri diren gainerako autoitzultzaileek ere ez dutela beste inoren lanik gaztelaniaratu. Horrek esan nahi du, euskarazko autoitzultzaileek, oro har, beren burua soilik itzultzen dutela norabide horretan. Zerrenda horretan dauzkagun gainerako autoitzultzaileak Bernardo Atxaga, Mariasun Landa, Patxi Zubizarreta, Miren Agur Meabe, Harkaitz Cano, Karlos Santisteban edo Xabier Galarreta ditugu. Horietariko hainbatek, autoitzulpen soilaz gain, kolaborazioa ere landu dute, hau da, nork bere lana beste itzultzaile baten laguntzaz itzultzea. Horren adibide ditugu Bernardo Atxaga edo Miren Agur Meabe.

Hirugarren postuan, katalanera gehien itzuli duen itzultzailea dugu: Pau Joan Hernández. Guztira 9 autoreren 24 lan itzuli ditu. Itzulpen motari dagokionez, mota ezberdinak landu ditu, nahiz eta informazio faltagatik ez dakigun kasu guztietan nola egin duen lan. Ziur esan dezakegu 2 liburu zuzenean itzuli dituela, beste bat zeharka gaztelaniatik eta, beste kasu batean, euskarazkoa zein gaztelaniazkoa erabili dituela jatorrizko modura<sup>41</sup>.

Zerrendan, jarraian, Jorge Giménez Bech, Bego Montorio, Gerardo Markuleta edo Jose Luis Padrón itzultzaileak ageri dira. Laurek euskal autore askoren lanak gaztelaniaratu izan dituzte.

Beste hainbat hizkuntzatarako itzultzaileak ere aurki daitezke taula horretan. Horietariko batzuk, autore jakin baten lanera mugatu dute beraien lana: frantsesera itzultzen duen André Gabastou Bernardo Atxagaren itzultzaile nagusia da, esaterako, eta gaztelaniazko bertsioetik egiten ditu itzulpenak; Margaret Jull Costa autore beraren ingeleserako lanen itzultzaile nagusia da eta gaztelaniazko itzultzen du honek ere. Beste hainbatek, berriz, autore ezberdinen lanak itzultzen dituzte: Roberta Gozzik italierara itzuli ditu hainbat euskal idazleren lanak, zuzenean horietariko asko; Xesús Carballo eta Ignacio Chao Castrok galegora itzuli dituzte beste hainbat lan.

<sup>41</sup> Itzultzaile honen lan egiteko moduz zabalago arituko gara corpusa aztertzerakoan.

Zerrenda horren azterketa amaitzeko autore bakarraren gaztelaniaratzailleak aipatuko ditugu. Multzo horretan, batetik, bakarka lan egiten dutenak dauzkagu –Itziar Ortuondo, kasu– eta, bestetik, autorearekin kolaborazioan lan egiten dutenak –Asun Garikano, kasu–. Arantza Sabánek, bi modutara egin izan du lan, beti autore bakarrarekin. Kolaborazioaren inguruan, ordea, ematen diren datuak sarritan zalantzazkoak izaten dira; sarri kolaborazioa egon denik ezkutatu egiten baita itzultzailearen edo autorearen bietakoren baten izena soilik emanenez. Beraz, azken multzoko datu horiek datu-baseek eskainitakoaren arabera soilik bildu ahal izan dugu.

## 5.8 GENEROAK

Euskal literaturatik itzuliriko lanak zein generotakoak izan diren aztertu aurretik, produkzioan bertan genero bakoitzak zer nolako presentzia duen ikusiko dugu.

Euskal literatur sisteman, inguruko literatur sistemetan gertatzen denaren antzera, genero bat dugu nagusi egun: narratiba. Horren barruan, berriz, eleberria eta ipuin laburrak aurkitzen ditugu batez ere.

Poesiari dagokionez, berriz, azken aldian ez du garai batean zuen arrakasta, eta nahiko gutxi argitaratzen da<sup>42</sup>. Saiakeren alorra pixkanaka hazten ari bada ere, oraindik ere nahiko urria dugu. Antzerkiari dagokionez, berriz, bazterreko generoa dela esan behar dugu.


Bestalde, haur eta gazte literaturak garrantzia nabarmena dauka euskal literatur sisteman. 80ko hamarkadatik gaur egunera arte, euskarak hezkuntza sisteman gero eta presentzia handiagoa lortu du, eta euskarazko literatur eskaria nabarmena izan da. Euskal Autonomia Erkidegoan, hezkuntza sistema hiru eredutan banaturik dago: A eredu, ikasleek gaztelaniaz ikasten dute eta euskara irakasgai modura daukate; B eredu, eskolak euskaraz eta gaztelaniaz jasotzen dituzte erdi eta erdi, eta D eredu, ikasleek euskara hutsean ikasten dute eta gaztelania irakasgai modura dute. Euskarazko eredu aukeratzen duen ikasle kopuruak gora egin du urtez urte, eta, adibidez, 2008-2009 ikasturteko matrikulazio datuen arabera, Haur Hezkuntzan matrikulaturiko ikasleen %70,05ek D eredu aukeratu zuten, %24,63k B eredu eta A eredu, %4,81ek. Oro har, eskoletako hezkuntza eredu euskalduntzea dela eta, euskarazko produkzio eskaria handia da. Euskal literatur sistemaren barruan, HGL genero emankorrena dugula esan genezake.

Itzulpenen arloan, euskaraz gehien argitaratzen den literatur generoa izan da kanpora gehien itzuli izan dena. Argitalpen kopuruka hartzen badugu, 446 izan dira euskaratik kanporatutako HGL xede lanak. Narratibaren barruan,

<sup>42</sup> Gure katalogoan liburuak soilik aztertu baditugu ere, jakin badakigu poesia itzulpen ugari izan dela euskarri ezberdinetan. Aldizkarietan argitaratu da poesia, eta, azken urteetan, interneteko hainbat webgunetan poesia edo ipuin laburrak aurki ditzakegu. Ikus, esaterako, Susa argitaletxearena edo [www.armiarma.com](http://www.armiarma.com) webgunea.



eleberria izan da itzuliena, 197 argitalpenekin, eta, gero, ipuin laburrak, 83 libururekin. Hirugarrenik, poesia lanak dauzkagu, 86 guztira, eta saiakera alorreko 25 lan itzuli dira hurrena. Azkenik, bazterreko genero modura sailkatuko genituzke abesti bildumak (10), antzerkia (9), atsotitzak (6), komikia eta nobela grafikoak (6), bidaia kronika (4), eta abarrak. Jarraian datorren grafiko honetan argiago ikus daitezke datuok:



5-8 Figura. Itzulpenak generoka

HGL, oro har, espainiar estatuko hizkuntzetara itzuli izan dela gehien ikusiko genuke hizkuntzen araberako azterketa egingo bagenu. Genero horretako itzulpenen %74,88 hizkuntza horietara eginak izan dira. Hainbat kasutan, estatuko hizkuntza ezberdinekin lan egiten duten hainbat argitaletxeren artean hitzartutako itzulpenak izan dira.

Kronologiari dagokionez ere, itzulpenen generoa aldatuz joan da lehenengo itzulpenetatik gaurdaino. XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran, eliz gaiei loturiko hainbat liburu aurkitu ditugu, eta baita abesti bilduma, atsotitz bilduma, kondaira bilduma, eta abar. 80. hamarkadatik aurrera, berriz, euskara ofizialdu eta hezkuntza sisteman sartu zenez geroztik, haur eta gazte literatur generoa indarra hartzen hasi zen. Aipagarria da itzulpen horiek espainiar estatuko hizkuntzetara aldi berean egindako edizio anitzetako politika mantentzen zuten argitaletxe elkartuen eskutik etorri zirela. Ordutik gaur arte, HGL izan da gehien kanporatu den generoa. Gainontzeko generoei dagokienez, helduentzako narratiba indarra hartuz joan

da, eta HGLekin batera gehien itzultzen den generoa dugu. Poesia lanen itzulpen kopurua oso murrizta da, eta itzuli den apurra beste hainbat euskarritan egin izan da, aldizkarietan edo on-line. Beraz, gure argazki hau ez da guztiz osatua poesiaren generoari dagokionez. Beste genero batzuk oso bazterrekoak dira, produkzioari dagokionez, eta ez dira ia itzuli ere egiten.

## 5.9 HIZKUNTZAK


Hizkuntzen inguruko azterketa eskainiko dugu atal honetan, hizkuntza bakoitzean agertu den titulu kopurua kontuan hartuz. Guztira, 38 hizkuntza ezberdinetara itzuli dira liburuak euskaratik. Ezberdintasun handiak ikus ditzakegu hizkuntza horien artean. Ezbairik gabe, euskaratik gaztelaniara itzultzen da gehien: gertutasunagatik, batetik, eta hego euskal herritarren elebitasuna dela medio, bestetik. Gure katalogoan bildutako datuen arabera, gaztelaniara guztira 436 liburu itzuli dira; horietarik, 359 elebakar, eta 77 bi eletan, hau da, gaztelaniaz eta euskaraz.

Bigarren postuan, katalana daukagu, 125 lanekin guztira. Hainbat iturrik katalanaren aldaera ezberdinak hizkuntza ezberdin modura sailkatu dituzten arren, guk denak zaku berean sartu ditugu, nahiz eta aldaera kontuan izan dugun dialekto modura. Zenbaketaren arabera, 116 lan Kataluniako katalanari dagozkio eta 9 valentzierari.

Hirugarren postuan, urrutixeago, ingelesa topatu dugu, guztira 79 lanekin. Deigarria da hizkuntza horretara itzuliriko 56 lan elebidunak izan direla eta 23 soilik elebakarrak. Elebidunen artean ingelesez eta gaztelaniaz argitaraturiko bat topatu dugu, eta gainerako guztiak, 55, euskaraz eta ingelesez. Liburu elebidun gehientsuenak Euskal Herriko Baigorri argitaletxeak argitaraturiko HGL liburuak dira, hau da, euskal hurrei zuzenduriko liburuak.

Laugarren postuan, galegoa daukagu, 60 lanekin guztira, eta, jarraian, frantsesa, 50ekin. Hizkuntza horretan ere, liburu elebidunen kopurua ez da urria, 16 aurkitu baititugu guztira.

Ondoren, Europako hainbat hizkuntza daukagu; italiara 28 itzulpenekin, alemana 25ekin eta errusiera 12rekin. Horien atzetik, espainiar estatuko beste bi hizkuntza gutxitu daukagu, asturierara 12 lanekin eta aragoiera 8rekin. Gainontzeko hizkuntzek hamar itzulpen baino gutxiago jaso dituzte. Bestalde, lan eleaniztunak ere topatu ditugu itzulpenen artean, hiru, bost edo sei hizkuntzatar itzuliak aldi berean.



**5-9 Figura. Itzulpenak hizkuntzaka**


Hizkuntza bakoitzak jasotako lan kopuruarekin ateratako grafiko honetan ere aurretik esandakoak argi ikus daitezke. Gaztelania da euskal lan gehien jaso duen hizkuntza %46,68rekin; euskaratik kanporatutako liburuen ia erdia osatzen dute hizkuntza horretako liburuek. Ondoren, espainiar estatuko beste bi hizkuntza nagusiak aurkitzen ditugu: katalana %13,38rekin eta galiziera %6,42rekin. Ingelesera itzuliriko liburuek, guztira, %8,45 osatzen dute, baina elebakarrak soilik hartuko bagenitu kontuan, hau da, gure mugetatik kanpora iritsitakoak, datua askoz ere baxuagoa genuke, %2,46 soilik. Jarraian, Europako hainbat hizkuntza aurkituko ditugu: frantsesa, alemana eta italiara. Gainontzeko hizkuntzek, grafikoak erakusten digun moduan, lan oso gutxi jaso dituzte.

Estatuko hiru hizkuntza nagusiek, gaztelania, katalana eta galegoak, xede testuen %66,48 osatzen dute, datuek erakusten duten moduan. Estatuko hizkuntzen artean, beraz, literatur sistemen arteko harremana estuagoa da bertatik kanporako hizkuntzen artean baino. Hain zuzen ere, gaztelaniara egin den itzulpen kopuruak erakusten du itzulpen bide hori guztiz berezia dela gainontzeko guztiekin alderatuz, produkzio osoaren ia erdia osatzen baitute.

Datuok ikusirik, gogora ekarri behar dugu Domínguezek (2010) landuriko CIE edo *comunidad interliteraria específica* nozioa; espainiar estatuko hizkuntzen arteko harremana berezia da gainerako hizkuntzekin alderatuz gero. Eta sub-sistema horren barruan, gaztelaniak berebiziko garrantzia hartzen du.

Datuak beste grafiko batean erakutsi nahi ditugu jarraian. Hizkuntzak hiru multzo nagusitan banatu ditugu: batetik, espainiar estatuko hizkuntza

nagusiak bildu ditugu; bestetik, Europako hizkuntzak<sup>43</sup>; eta hirugarrenik, mundu zabaleko gainontzeko xede hizkuntzak. Euskal HGL esportatzeko bideei zirkuitu deitu zieten Etxaniz Erlek eta Lopez Gasenik *90eko hamarkadako Haur eta Gazte Literatura* liburuan (Etxaniz Erle-Lopez Gaseni, 2005), eta guk ere antzeko iruzkina egingo dugu euskal literatura bere osotasunean hartuz.



5-10 Figura. Xede hizkuntzak multzoka

Taula horrek argi erakusten digun moduan, espainiar estatuko hizkuntzak dira euskal literaturaren itzulpenen xede hizkuntza nagusiak, %68rekin. Oso urrun baina presentzia esanguratsurekin kokatzen dira Europako hizkuntzak, %28rekin. Aipatu beharrekoa da, lehenengo multzoan 5 hizkuntzak hartzen dituztela produkzio osoaren bi herenak eta bigarren multzo horretako 26 xede hizkuntzek laurden bat pasatxo soilik osatzen dutela. Oso urrun geratzen dira Europaz kanpoko beste herrialde batzuetako xede hizkuntzak, 7 guztira; %3 soilik osatzen dute. Azken multzo batean bildu ditugu, Espainiako zein Europako hizkuntzez osaturiko edizio eleaniztunak, lehen bi multzotako hizkuntzez osaturikoak. Azken multzo horrek itzulpenen %1a biltzen du.

Europaz kanpoko hizkuntzetara oso lan gutxi iritsi dira, eta, horien artean, Bernardo Atxagaren lanen itzulpenak dira nagusi. Hizkuntza bakoitzera heldu den autore kopuruari erreparatuz gero, beraz, joera bera nabari daiteke. Zortzi hizkuntza soilik izan dira 10 autore edo gehiagoren lanak jaso dituztenak: gaztelania (137), katalana (36), ingelesa (33), frantsesa (21), galegoa (21), asturiera (12), alemana (11) eta errusiera (10). Italiarrek eta aragoierak 9 eta 8 autoreren lanak jaso dituzte, hurrenez hurren, eta gainerako hizkuntza guztiek, 3 autoreren lanak edo gutxiagorenak. Autore

<sup>43</sup> Ingelesa hizkuntza europar modura sailkatu dugu, nahiz jakin, Europan bertan zein Europatik kanpo argitaratu direla hizkuntza horretako itzulpenak. Herrialdeka baino, hizkuntzaka egin dugu sailkapena.

bakarraren lanak jaso dituzten 19 hizkuntzen artean 13tara Atxagarenak itzuli dira.

Lehenengo multzoaren barruan, gaztelaniarako itzulpenek zirkuitu bat osatzen dutela esan genezake. Era berean, azpi-zirkuituak ere badira horren barruan, argitaratze modua, argitaletxea eta beste hainbat datu kontuan izanez gero. Azpi-zirkuitu bat osatzen dute, konparazio batera, *itzulpen intraliterarioek* (Domínguez, 2010: 73), Euskal Herriko bertako argitaletxeek argitaratutako liburuek, xede publikoa Euskal Herriko publiko ez euskalduna edo euskaldun analfabetoa dutenek, hala nola Txalaparta, Hiru edo Alberdania argitaletxeek argitaraturikoeak. Liburu edo argitaletxe horien helburu nagusia euskaraz ez dakien bertako jendeak euskal literatura ezagutzera izango genuke; hizkuntza aldatzen da, baina ez lurraldea. Espainiar estatuko argitaletxeek argitaratutako helduen literatur liburuek beste azpi-zirkuitu bat osatzen dute. Eta euskaraz eta gaztelaniaz argitaratutako bertsiio elebidunek hirugarren azpi-zirkuitu bat osatzen dute.

Bestalde, katalanak ere beste zirkuitu bat osatzen du. Gaztelaniaren atzetik, euskaratik gehien inportatu duen hizkuntza da katalana. Bi hizkuntzek bizi duten egoera gutxitua antzekoa da, eta horrek elkarlana bultzatu izan du. Honen harira, hainbat liburu aurki daitezke euskaratik zuzenean katalanera itzuliak, eta, kasu batzuetan, katalanera soilik itzuliak. Galegoa, katalanaren antzera, Espainiako hizkuntza gutxitua izanagatik, multzo honetan sartuko genuke, baina jaso duen itzulpen kopurua askoz ere urriagoa da.

Bestalde, Etxaniz Erlek eta Lopez Gasenik euren *90eko hamarkadako haur eta gazte literatura* liburuan agertzen duten bezala HGLen kasuan ere zirkuitu ezberdinak badira.

(...) bat espainiar penintsulako hizkuntzetara egindako aldi bereko edizio anitzetako politika da, parte hartzen duten argitaletxeen arteko hitzarmenen bidez, hala nola “Argitaletxe Elkartuak”, Bromera, Elkar, Galaxia, La Galera, Libros del Peixe, Tándem eta Xordica argitaletxeen artekoa, 1996tik aurrera “Zazpi” bildumako 20tik gora titulu argitaratzeraino iritsi dira; horien artean zenbait euskal egile daude: Juan Kruz Igerabide, Xabier Mendiguren, Patxi Zubizarreta edo Joxan Ormazabalenak, besteak beste (Etxaniz Erle-Lopez Gaseni, 2005: 116).

Kanpora ateratzeko beste bide bat hizkuntza “autonomiko” batzuetan argitaratzen duten estatu espainiarreko argitaletxeak dira: Edebé, SM, Anaya eta abar. Bide horretatik itzuliak izan dira Aitor Arana, Mariasun Landa, Juan Kruz Igerabide, Patxi Zubizarreta eta beste.

Kanpoko merkatura iristeko hirugarren bidea estatu espainiarreko hizkuntza guztietarako deitzen diren sariketa literarioak dira, Baporea, Edebé sariak edo Apirila saria bezalakoak, irabazle suertatzen diren obrak estatuko zenbait hizkuntzatan argitaratzen baitituzte, Patxi

Zubizarreta, Mariasun Landa eta Juan Kruz Igerabideren kasuetan bezala (Etxaniz Erle-Lopez Gaseni, 2005: 116-117).

Helduen literaturari dagokionez, sariketa ezberdinek (Espainiako Sari Nazionala edo Euskadi Sariak, adibidez) hainbat idazleren lana kanporatzen lagundu dute. 1989. urtean Bernardo Atxagari *Obabakoak* lanagatik eman zioten Espainiako Sari Nazionalak aparteko garrantzia du euskal literaturaren kanporatzean. Horri esker, “kanpoko argitaletxe asko interesatu ziren euskal literaturaz oro har, eta Atxagaz partikularki” (Etxaniz Erle-Lopez Gaseni, 2005: 117). Arestian aipatu dugun moduan, *Obabakoak* beste hizkuntza batzuetara itzultzeak ez zuen esan nahi euskal literatura Europara zabaltzea soilik, baita Espainian ezagutaraztea ere.

Europako hizkuntzetarako bidea *Obabakoak*-en itzulpenarekin hasi zela esan dezakegu. Aurretik lan bat edo beste itzuli izan bazen ere hizkuntza horietara (frantsesera, batez ere), itzulpenak ugaltzen joan ziren Atxagak saria lortu ondoren, 90eko hamarkadan. Europako hizkuntzetara itzuliriko lanen artean ugariak Atxagarenak eta Mariasun Landarenak dira. Horiez gain, badira beste batzuk ere: Ramon Saizarbitoriaren *100 metro* edo *Bihotz bi*, esaterako, Europako hainbat hizkuntzatarara itzuli dira, eta Unai Elorriagaren *SPrako tranbia*, Sari Nazionala irabazi ostean ere, hainbat hizkuntzatarara itzuli da. Pixkanaka-pixkanaka, Europako hizkuntzetara egiten diren itzulpenak ugalduz doaz, nahiz eta, Mari Jose Olaziregik dioen moduan, “casos como los de Bernardo Atxaga siguen siendo absolutamente excepcionales y la literatura en lengua vasca todavía carece de medios para presentarse al mundo como lo que es, literatura con el objetivo principal de producir placer estético” (Olaziregi, 2001: 154-155).

Espainiaz kanpo argitaratu diren lanei dagokienez, zehaztapen bat ere egin behar da. Obraren kalitatea edo euskal irakurlearen harrera izan beharrean itzulpena egitera bultzatu duten irizpide nagusiak, hainbat kasutan, euskal literaturak gaztelaniara itzultitakoan izan duen arrakastaren arabera itzuli izan dira beste hizkuntza batzuetara, eta hori espainiar literaturarekiko bizi dugun nolabaiteko menpekotasunaren ondorio izan daiteke. Horren adibide izan daitezke Atxagaren *Obabakoak* edo Unai Elorriagaren *SPrako tranbia*, besteak beste.

Xede hizkuntzen garapen kronologikoari dagokionez, aipatzekoa da 1977. urtera arte egin ziren itzulpenak frantsesera eta gaztelaniara egin zirela batik bat. 80. hamarkadan egoera hori aldatzen hasi zen, eta xede hizkuntzen kopurua zabaldu egin zen. Garai hartan, frantsesaz eta gaztelaniaz gain katalanera eta galegora ere itzuli zen hainbat lan, haur eta gazte literatur liburuak, oro har, eta baita ingelesera eta alemanera ere. Frantsesaren kasua aipagarria da: aurretik lan gehien itzuli zuen hizkuntza izanik, orain gutxien itzultzen dutenetakoa baita. Datu horrek zera erakusten digu, antolamendu politikoak eragina duela eta Frantzian bertan hitz egiten diren hizkuntza gutxituetako literatur lanak frantsesaz jasotzeko zurruntasuna nabarmena dela. Euskarak Frantzian presentzia instituzionalik ez izateak euskal


kulturarekiko eta literaturarekiko harreman falta eragiten du. Bestalde, 90. hamarkadatik gaur egunera arte, xede hizkuntza kopurua nabarmen handitu da itzulpen kopurua haztearekin batera, guztira 38 xede hizkuntza ditugularik. Gaztelania izan da euskal lan gehien jaso duen hizkuntza hamarkada horretan. Jarraian, katalana, galegoa eta Europako hizkuntza nagusiak dauzkagu. Ingelesaren kasua aipagarria da, 90. hamarkadatik aurrera nabarmen hazi baitira hizkuntza horretara eginiko itzulpenak.

## **5.10 BI FENOMENO BEREZI**

Jarraian, gaztelaniaren nagusitasuna adierazten diguten bi fenomenori buruz hitz egingo dugu. Aurrez aipatu moduan, gaztelania da gure katalogoko xede hizkuntza nagusia. Gainontzeko hizkuntzekiko aldea oso handia da, euskal idazle gehienek (Hegoaldeko idazleak) euskaraz gain gaztelania ere menderatzen dutelako, eta espainiar estatuko literatur sistemarekiko mendekotasuna bizi dugulako. Bi fenomeno horiek autoitzulpena eta zeharkako itzulpena dira; batetik, autoreak euskaraz idatzitako lana gaztelaniara berak itzultzen du, eta, bestetik, gaztelania beste hizkuntza batzuetara itzultzeko bitarteko hizkuntza moduan erabiltzen da, euskarazko jatorrizkotik egin beharrean. Biak ala biak ere, beste hainbat ezaugarriren artean, Espainiar estatuko CIEren adierazle modura definitzen ditu Domínguezek (2010).

### **5.10.1 Autoitzulpena**

436 titulu ezberdin bildu ditugu gaztelaniaz katalogoan. Hizkuntza horretara eginiko itzulpenak hiru mota ezberdinetan sailkatu ditugu: batetik, autoitzulpenak; bestetik, autorea ez den itzultzaile batek eginiko itzulpenak, eta, hirugarrenik, autoreak itzultzailearekin elkarlanean eginiko itzulpenak. Datuak aztertuz gero, lehenengo postuan autoitzulpenak kokatzen direla ikusiko dugu, %39,67rekin. Bigarren postuan, oso hurbiletik jarraitzen diote egilea ez den itzultzaile batek eginiko itzulpenek, %38,53rekin. Hirugarren postuan autorearen eta itzultzailearen artean eginiko kolaborazio lanak kokatzen dira, %4,12rekin. Hiru multzo horietakoren batean sartu ezinik geratu diren liburuekin ere egin dugu topo: batetik, iturri ezberdinetan datu kontrajarriak topatzearen ondorioz, zalantzazko modura sailkatu ditugun kasuak dauzkagu, 13 guztira; bestetik, itzulpenaren inguruko daturik ematen ez duten liburuak, gaztelaniaratutako liburuen %14,67 osatzen dute horiek.



5-11 Figura. Gaztelaniaratze itzulpen motak

5-11 Figuran bilduriko datuak gaztelaniaratutako liburuei soilik dagozkie, baina horiez gain frantsesera eginiko beste lau autoitzulpen ere topatu ditugu: Itxaro Bordaren *100% Basque* (2003) eta *Hautsak errautsa bezain* (2002) liburuak eta Aurelia Arkotxaren *Septentrio* (2007), alde batetik, eta Etienne Decreptek 1924an argitaraturiko *Semetchia* izeneko antzezlan, bestetik. Frantsesezkoak oso kasu bakanak dira gaztelaniazkoekin alderatuta, gaur egungo euskal literatur produkzioa nagusiki Hegoaldean kokatzen dela kontuan izanik. Aurelia Arkotxak, Iparraldeko idazle den heinean, bere burua euskal literatura barruan bazterrekotzat dauka, “[in] the peripheral French Basque sub-system dependent on the central Basque literary system of the BAC [Basque Autonomous Community]” (Arkotxa, 2009: 32). Arkotxa beraren lanak zein Iparraldeko gainerako idazleenak Frantziaren bertan kokatuagatik, Frantziako literatur sistemaren alboratuta daude. Beste hainbat arrazoiren artean, aurrez aipatu dugun instituzionalizazio faltaren ondorioz, batik bat. Idazle horien lanak euskal literatur sistemaren bertan kokatuko dira, baina sistema horren periferian, ez baitira sistemaren erdi-erdian sortu, hots, Euskal Autonomia Erkidegoan<sup>44</sup>.

Liburuen paratestuek zein datu-base edo katalogoek ematen duten informazioa ez da guztiz zehatza datu horiek erakusten duten moduan. Kontsultatutako katalogo eta datu-baseek ematen duten informazioa ez da nahi bezain osatua, eta liburuak banan bana ikuskatzea ez da posible izan kasu guztietan. Zenbaitetan, datu kontraesankorrak bildu ditugu iturri ezberdinetan: itzultzaile izen ezberdinak jasotzea, edo, kasuren batean ere, itzulpenaren noranzkoa alderantziz ematea. Itzultzailearen izena ere ez da

<sup>44</sup> Ur Apalategik modu oso grafikoan irudikatzen du Ipar Euskal Herrian euskaraz sortzen den literatura: “(...) munduko literatur sistema nazioartekoan arras periferikoa den gure euskal literatur sistema xumearen periferian aurkitzen den azpi-sistema literario bat da: Iparraldeko euskarazko literatura. Periferiaren periferia beraz. Panpin errusiarren joko bat bailitzan guztia...” (Apalategi, 2005: 4).




kasu guztietan ageri peritestuetan; bada datu hori ezkututzen duen libururik. Informazio falta horren atzean arrazoi ezberdinak izan daitezke. Batetik, liburua itzulpena izan dela ezkutatu nahi izatea; itzulpenek jatorrizkoek baino prestigio gutxiago izaten dute, eta, ondorioz, gutxiago saltzen dira. Beraz, hainbat argitaratzailek nahiago izaten du itzulpen prozesua ezkutatu salmenta datuak hobekien izan daitezken. Autoitzulpenen kasuan, gainera, autorea itzulpenaren egilea izanik, nolabaiteko “jatorrizkotasuna” ematen zaio bigarren bertsio horri ere, eta bigarren maila batean uzten da euskarazko jatorrizkoa. Bestalde, itzulpena prestigio gutxiko jardura izanik, utzikeriak ere eraman izan du argitaratzaile bat baino gehiago datu horiek ez ematera; garrantziarik ez duen jardura dela uste izateak eta datu horrek inorentzat garrantziarik izango ez duelakoaren usteak itzulpena ez aitortzera daramatza.

Paratestuek emaniko datuen inguruan azterketa sakonagoa egingo dugu aurrerago, eta, honenbestez, hemen utziko dugu datu honen inguruko iruzkina.

### 5.10.2 Zeharkako itzulpena

Zeharkako itzulpenaren inguruko datu zehatzak ematea oso zaila iruditzen zaigu, hainbat eta hainbatetan datu hori ez delako paratestuetan ageri edo datu-base zein katalogoek ez dutelako jasotzen. Ondorengo grafikoan ikusi ahal dugun moduan, gaztelaniara ez beste hizkuntza batzuetara eginiko itzulpenen %69tan ez da ageri itzulpen motari buruzko informazio garbirik.



5-12 Figura. Gainerako hizkuntzetarako itzulpen motak

Grafiko horretan ikusi daitezkeen moduan, bi itzulpen topatu ditugu jatorrizko konpilatua erabili dutenak. Horrek zera esan nahi du, euskarazko zein gaztelaniarazko bertsiak erabili direla itzulpena egiteko. Hala ere, datu hori liburuetan horrela agertzea kasu bakanetan gertatzen da, eta hori itzultzaileen ahotik jasotako datua dugu. Bestalde, zeharka eginiko itzulpen

gehienak gaztelaniatik eginiko itzulpenak ditugu, 103 liburu. Horiez gain, frantsesezko, gaztelaniazko zein ingelesezko testuak erabiliz eginiko itzulpen bat ere topatu dugu, eta beste bi ingelesezko bertsiotik eginiko itzulpenak izan dira. Zuzenean eginiko itzulpenen artean, 4 autoitzulpenekin egin dugu topo, frantseserako itzulpenak hirurak ere.

Beraz, ez da erraza testu analisira iritsi aurretik itzulpenak zuzenki edo zeharka egiten diren zehaztea. Gure ikerketaren hurrengo urratsek lagunduko digute gure corpusaren baitan zer gertatzen den zehazten. Gainerako beste kasuetan, etorkizunean egingo diren azterketek argitu beharko dute kontua nola den.

## 5.11 ONDORIOAK

Ikusi dugun moduan, euskal literaturaren kanporako itzulpena nahiko fenomeno gaztea da, eta, nahiz eta azken urteetan bultzada handia izan duen, oraindik hainbat erronka ditu etorkizunerako.

Batetik, ikusi dugun moduan, idazle mordoxka batek lanen bat itzultzea lortu du. Jatorrizko lanei dagokienez zein xede hizkuntzetan izandako argitalpen kopuruari dagokionez, Bernardo Atxaga dugu, beste guztien gainetik, gehien itzuli den idazlea.

Bestalde, xede hizkuntzei dagokienez, guztira 38 hizkuntzatarara itzuli da euskal literatura. Bildutako datuek erakutsi digutenez, gaztelania izan da alde handiz euskal lan gehien jaso duena. Espainiar estatuko gainontzeko hizkuntzek ere jaso dituzte itzulpenak euskaratik, HGL liburuak batez ere. Europa mailan, berriz, alemana, frantsesa, ingelesa eta italiera ditugu euskal lanak jaso dituzten hizkuntza nagusiak, nahiz eta kopuru nahiko mugatuak izan. Bestalde, eta arestian esan dugun moduan, gainontzeko hizkuntzek oso lan gutxi jaso dute.

Itzultzaileei begiratzuz gero, hainbat motatako itzultzaileak topa daitezkeela ikusiko dugu: euskaratik lan bakarra itzuli dutenak, idazle bakarrean espezializaturikoak, autoitzultzaile soilak, kolaborazioan lan egiten dutenak, eta abar.

HGL dugu jaun eta jabe generoei dagokienez. Euskal literatur sisteman genero garrantzitsua da, eta, gure katalogoak erakutsi digunez, baita itzulpenetan ere. Bigarren tokian, narratiba dugu, eta hirugarren maila batetan kokatuko genituzke gainontzeko generoak, hala nola saiakera, poesia edo antzerkia.

Hainbat itzulpen bide erabili dira euskal lanak kanporatzeko. Batetik, eta gaztelaniaren kasuan bereziki, itzulpenak hiru motatakoak izan daitezke: autoitzulpena, kolaborazioa eta autorea ez den norbaitek eginiko itzulpena. Gainontzeko hizkuntzen kasuan, itzulpenak euskaratik zuzenean edo beste hizkuntza baten bitartez eginak izan dira.

Gaztelaniaratzeko prozesua autoreak berak egin, kolaborazioan egin edo beste itzultzaile batek egin, emaitzak ezberdinak izan daitezkeela pentsa daiteke. Autoreak berak ez du jatorrizkoa itzultzailearen begi berdinekin ikusten; berak sorturikoa da, berak daki zer esan nahi zuen idatzi zuenean. Itzultzaileak, berriz, distantzia jakin batetik ekingo dio itzulpenari eta bere lanak hiru fase izango ditu: irakurketa, interpretazioa eta itzulpena. Kolaborazioan bien arteko lanari ekin beharko diote, bataren zein bestearen rola zein izango den zehazturik.

Gaztelaniaren kasuan itzulpen guztiak zuzenean egin dira. Gainontzeko hizkuntzetan, zuzeneko eta zeharkako itzulpenak topatu ditugu. Zeharkako itzulpenek gaztelaniako bertsioa hartu dute oinarri ia beti. Kasu horietan, bitarteko bertsio hori bihurtzen da itzulpeneko iturri, eta jatorrizkotzat jotzen da, euskarazkoa ezkutuan utziz hainbatetan. Itzulpena zuzenean ala zeharka egin alderik egon badagoela pentsa dezakegu; ez dela gauza bera testu bat euskaratik zuzenean beste hizkuntza batera itzultzea ala euskaratik lehenengo gaztelaniara itzuli eta ondoren hirugarren hizkuntza batetara itzultzea. Zuzenean itzultzen denean, urrats bat ematen da, eta, zeharka itzultzen denean, bi. Testu bat itzultzen dugunean, testu horrek eraldaketa bat jasaten du, eta, zeharka itzultzen badugu, eraldaketa hori are handiagoa izango dela iruditzen zaigu. Kontuan hartu behar da, bestetik, zubi-itzulpena autoitzulpenaren bidetik egin den edo itzulpen alografoa izan den, hirugarren hizkuntza batera eginiko itzulpena aztertzerakoan.

Azterketa testualak adieraziko du enpirikoki hemen planteatzen ditugun hipotesiak. Hau da, itzulpen mota bat ala bestea egin alde ote dagoen emaitzen artean.

Azken auzi hori izango dugu hemendik aurrerako aztergai. Hau da, itzulpen mota ezberdinak egin egiten direla kontuan izanik, elkarren artean egon daitezkeen aldeak identifikatzen eta deskribatzen saiatuko gara. Horretarako, corpus murriztu bat baliatuko dugu testu azterketa egiteko.

6

# katalogo orokorretik corpusera

---

Katalogoaren azterketa amaiturik, corpusera igarotzeko zein urrats eman behar ditugun zehaztuko dugu atal honetan. Horretarako, aurreko ataleko ondorioak izango ditugu kontuan, eta ikertzen jarraitzeko interesgarriena iruditu zaigun testu-multzoa zein den erakutsiko dugu. Hori behin erabakita, testu-multzo horren autoreari buruzko bio-bibliografia bat aurkeztuko dugu labur. Ondoren, bere itzulpen bibliografia zabala aztertuko dugu, eta corpus mugatura iristeko zein lan izango diren egokienak ikusiko dugu.

## **6.1 KATALOGOTIK CORPUSERAKO URRATSAK**

Katalogoaren azterketak erakutsi digunez, hainbat itzulpen modu erabili dira euskal literatura kanporatzeko. Itzultzaileari dagokionez, autoitzulpena, kolaborazioa edo hirugarren itzultzaile baten itzulpena aurki ditzakegu. Itzulpena egiterakoan erabili den jatorrizko testuari dagokionez, berriz, itzulpen zuzenak, euskaratik eginak, eta zeharkakoak, bitarteko hizkuntza baten bitartez eginak.

Katalogoaren azterketaren bitartez zer itzuli den jakin nahi izan dugun moduan, zer hori nola itzuli den aztertzea izango da gure asmoa hemendik aurrera. Itzulpen prozesuaren arabera lortuko diren emaitzak elkarrengandik ezberdinak izan daitezkeela uste dugu. Horregatik, katalogo orokorretik abiatuak itzulpen mota horiek guztiak aztertzea izango dugu helburu hemendik aurrera.

Baina, katalogoa zabalegia zaigunez zeregin horretarako, corpus txikiago batekin egingo dugu lan. Orain artekoak ikusita, Bernardo Atxaga dugu aipaturiko itzulpen mota ezberdin guztiak jasotzen dituen idazle bakarra. Halaber, bere lanak izan dira gehien itzuliriko liburuak, bai xede argitalpenei dagokionez eta baita hizkuntza kopuruari dagokionez ere<sup>45</sup>. Beraz, azterketa testuala egiteko aukera zabalena bere lanen baitan topatu dugu. Gainerako autoreekin, itzulpen kopuru urriagoa medio, arazoak izango genituzke itzulpen bat baino gehiago alderatzeko, xede hizkuntzak zehazteko eta landuko ditugun generoak hautatzeko. Gainera, autore bakarraren lanak ikertzeak koherentzia testuala emango dio oinarrizko testuari.

Bestalde, lehen aldia izango da halako azterketa bat egiten dela. Horregatik, autore bakarrera mugatu dugu corpusaren aukeraketa. Metodologikoki garbiagoa eta egokiagoa iruditu zaigu hala egitea. Nahasgarria izango litzateke itzulpen kopuru eta motaren arabera desoreka nabarmenak erakusten dituzten autore bat baino gehiagoren lanak aztertzea lehen saiakera honetan. Aurrerago izango da aukerarik beste hainbat autoreen lanen itzulpenak aztertzeko eta autoreen arteko alderaketa egiteko.

Bestalde, Bernardo Atxagaren lanen inguruko azterketa batzuk topatu ditugu, baina gutxi dira itzulpenari buruzkoak; gehientsuenek idazlearen literatur unibertsoa dute ardatz. Hainbat doktore tesi<sup>46</sup> egin dira, beste hainbat liburu argitaratu<sup>47</sup>, eta ikerketa lan ugari burutu idazle honen lanaren

<sup>45</sup> Katalogotik corpuserako urratsa 2006an aztertu genuen katalogoaren lehen itzulitiki abiatuak egin genuen. Lehen bertsio hartan, jatorrizko kopuruan ere nagusi zen Atxaga, Igerabiderekkin parekatuak.

<sup>46</sup> Apalategi, U. (1998), "L'Évolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga, du champ littéraire basque au champ universel. Socianalyse du pathos atxaguien", Université de Pau et de Pays de l'Adour (argitaragabea).

Olaziregi, M.J. (1997), "Literatura eta irakurlea. Testu-estrategietatik soziologiara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan", Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaragabea).

Sobolewska, A. (1992), "La intertextualidad y la metatextualidad en la composición de la novela OBB de Bernardo Atxaga. Memoria de Licenciatura" Jagwellonicako Unibertsitatea, Filologia Hispanikoko Fakultatea (Tesina argitaragabea).

<sup>47</sup> Aldekoa, I (1992), *Antzara eta ispilua*, Erein.

Aldekoa, I., Etxeberria, G. (1999) *Atxaga Baionan*, Hiria & Egan.

Apalategi, U. (2000), *La Naissance de l'écrivain basque. Évolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga*, L'Harmattan.

Ascunce, J.A. (2000), *Bernardo Atxaga. Los demonios personales de un escritor*, Saturrarán.

inguruan. Lan horietariko batzuetan egiten zaio erreferentzia itzulpenari, besteak beste Olaziregiren, Apalategiren edo Ascunceren lanetan. Ikusi ahal izan dugunez, hala ere, gehien itzuli den euskal idazlea izan arren, orain arte ez da bere lanaren inguruko azterketa sakonik egin itzulpengintzaren baitan<sup>48</sup>.

## 6.2 BERNARDO ATXAGA

Bernardo Atxaga, Jose Irazu benetako izenez, 1951ko uztailaren 27an jaio zen Asteasun. Ekonomia Zientzien ikasketak burutu zituen, eta, literaturari bete-betean ekin aurretik, beste hainbat lanetan jardun zuen, hala nola euskara irakasle, irratiko gidoilari, liburu-saltzaile edo ekonomialari. Bere lehenengo argitalpena 1971. urtean heldu zen. *El Norte de Castilla* egunkarian “Los que anhelamos escribir” kontakizuna plazaratu zuen gaztelaniaz, eta, idatzi hartan, idazteko zuen grina nabarmendu zuen. 1972an, euskarazko lehen lana argitaratu zuen: *Borobila eta puntua* antzerki lana. Lehenengo liburua, *Ziutateaz* eleberri esperimentalak, 1976an heldu zen. Urtealdi oso oparoa izan zen hura Atxagarentzat literarioki. 1975ean, *Ustela* aldizkaria sortu zuen Donostian, Koldo Izagirrerekin batera. Beranduago, Bilbora itzulirik, *Pott* banda sortu zuten hainbat kideren artean, Joxemari Iturralde, Ruper Ordorika, Joseba Sarrionaindia eta Jon Juaristi besteak beste, eta izen bereko aldizkariaren sei zenbaki eman zituzten argitara. Literaturaz kanpoko helburuak betetzeko erabiltzen zen literatura garai hartan, nagusiki, eta Pott bandak literaturaren autonomia izan zuen aldarri. Pott bandaren emaitzen artean, Bernardo Atxagaren *Etiopia* (1978) poema-liburu abangoardista nabarmendu behar da, garai hartan euskal literatura garaikidearen ikurretari bat bilakatu zena.

1980. hamarkadan, literatur bideari profesionalki heldu nahi izan zion Bernardo Atxagak. “Banketxe batean zeukan lanpostua utzi eta beste inork hor arte saiatu ez zuena egiten saiatu zen, alegia, idazle profesionala bihurtzen, euskaraz idatziz” (Apalategi, 1998a: 67).

Pott banda desegin ostean, Atxaga Bartzelonara joan zen Filosofia ikastera. Garai hartan, antzerki lan dramatikoak idatzi zituen hainbat talderentzat eta baita zenbait haur eta gazte literatur lan ere, hala nola *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* (1979), *Ramuntxo detektibea* (1979) edo *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982). Haur eta gazteei

---

Olaziregi, M.J. (1998), *Bernardo Atxagaren irakurlea*, Erein. Beste hizkuntza batzuetan ere argitaratu da liburu hau: *Leyendo a Bernardo Atxaga* (2002), gaztelaniaz, edota *Waking the hedgehog. The literary universe of Bernardo Atxaga* (2005), ingelesez.

Otaegi, L. (1999), *Bernardo Atxaga. Egilearen hitza*, Labayru Ikastegia.

<sup>48</sup> Manu Lopez Gaseniren *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* (2005) liburuan, *Sara izeneko gizona* liburuaren autoitzulpenari buruzko azterketa izan da aurkitu dugun azterketa bakarrenetarikoa. Bestalde, Mario Santanak *Soinujolearen semea* liburuaren gaztelaniarako, katalanerako eta galegorako itzulpenak aztertu zituen “On Visible and Invisible Languages” (2009) artikuluan.

zuzenduriko lanek lagundu zioten profesionalizazio bide horretan “bokazio literarioari jarraipena ematen” (Apalategi, 1998a: 67). Garai hartan asmatu zuen Obaba lurralde imaginarioa ere: *Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena* (1982) kontakizunean –beranduago *Obabakoak* liburuaren lehen kapitulu izango zenean– agertu zen lehenengoz herria, eta bertan girotu zituen garai hartako hainbat lan, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (1984), *Sugeak txoriari begiratzen dionean* (1984) edo *Bi anai* (1985), besteak beste. Geografia imaginario hartan kokatu zuen *Obabakoak* (1988) narrazio bilduma arrakastatsua ere. Liburu horri esker, 1989. urtean, Espainiako Narratiba Saria jaso zuen, eta, honenbestez, mundu hispanikoaren baitan errekonozimendu handia izan zuen, eta hogeitaz hitzuntzatik gorako atekak ireki zizkion.

*Obabakoak* entzutetsuaren ondorengo lanek, helduei zein haur eta gazteei zuzendurikoei, oihartzun handia izan dute euskal literaturaren baitan, baina baita Espainian eta beste hainbat herrialdetan ere. Bere ibilbide luzean, hainbat eta hainbat genero landu izan ditu: narratiba, antzerkia, poesia, saiakera, haur eta gazte literatura, irratirako eta telebistarako gidoiak, eta beste. Literatur generoen arteko mugetan ere aritu izan da hainbat aldiz, hala nola *Groenlandiako lezioa* (1998) liburuaren kasuan.

90. hamarkadan, helduen literaturari dagokionez, errealismora egin zuen jauzi Obabako geografia imaginarioaren ondotik, eta garaiko Euskal Herrian girotutako lanak argitaratu zituen: *Gizona bere bakardadean* (1993) eta *Zeru horiek* (1995) ditugu adibide nagusiak. Biek ala biek ere organizazio terrorista bateko partaide izandako pertsonaia bana dute liburuaren ardatz. Hamarkada horretan bertan, haur eta gazte literatur eremuan ere lan ugari argitaratu zituen Atxagak: Xola eta Bambuloren moduko sailek arrakasta handia izan dute gaztetxoenen artean, eta, helduxeagoei dagokienez, *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) eta *Sara izeneko gizona* (1996) izan ziren lanik aipagarrienak.

Hamarkada berriarekin, 2003. urtean, *Soinujolearen semea* eleberriarekin “Obabaren ideia poetikotik abiatutako zikloa” itxi nahi izan zuen idazleak (Zabala, 2003). Liburuak arrakasta handia lortu zuen eta hainbat hizkuntzataraz itzulita izan zen. Liburu haren atzetik saiakera liburu pare bate re argitaratu ditu, hala nola *Lekuak* (2005) edo *Markak. Gernika 1937* (2007). 2009an argitaratu zuen helduentzako fikziozko azken lana: *Zazpi etxe Frantzian* izenez. Liburu horretan, ohikoa zuen geografiatik haratago joanez eten bat egin du bere ibilbidean. XX. mende hasierako Kongon giroturiko kontaketa jasotzen du azken eleberri horretan.

Jaso dituen sarien zerrenda ere nahiko zabala da, besteak beste, Euskadi Saria hiru aldiz jaso du (1989, 1997 eta 1999an), Espainiako Narratiba Sari Nazionala (1989), Milepages saria (1991), Tres Coronas de los Pirineos Atlánticos saria (1995), Eusko Ikaskuntza saria (2002), Cesare Pavese poesia saria (2003), Grinzane Cavour saria (2008), Mondello saria (2008) edo Espainiako Kritikaren saria hainbat alditan (1978, 1985, 1988, 1993, 2003).



Bestalde, aipagarria da Bernardo Atxaga, beste hainbat euskal idazleren modura, itzultzaile lanetan ere aritu izan dela; ez soilik bere lanak itzuliz, baita besteenak euskaratuz zein euskaratik gaztelaniara itzuliz ere.

Literatura ardatz izanik, bere ibilbide osoan zehar, beste arte mota batzuetan ere aritu da kolaborazio lanetan: musikaren alorrean, Ruper Ordorikarekin edo Mikel Laboarekin elkarlanean aritu izan da, besteak beste, eta, eskultura edo pinturaren alorrean, Eduardo Chillidarekin edo Jose Luis Zumetarekin ere egin izan du lan.

2009 urtean Euskaltzaindiaren eskutik sortu zen Erlea aldizkariaren zuzendaria da; euskal letretan erreferentziazko literatur aldizkari izateko helburuz sorturiko aldizkari profesionala.

Gaur egun, autore baten kanonizazioaren sintoma da bere lanen filmazioa. Honakoak dira bere lanetan oinarrituriko lan nagusiak: *Obabakoak* liburuan oinarrituriko *Obaba* filma, Montxo Armendarizen eskutik; *Zeru horiek* liburuan oinarrituriko izen bereko filma, Aizpea Goenagaren zuzendaritzapean egina, eta estrenatu berria den *Bi anai* filma, izen bereko liburuan oinarritua eta Imanol Rayok egina.

Bernardo Atxaga euskal letretako idazle profesional bakarrenetakoa da. Idazkuntza du bere bizimoduaren ardatz, eta hori gurean oso gutxiren eskura dagoen egitekoa da. Erreferentziazko idazlea dugu gaur egun aktiboan dauden idazleen artean.

### 6.3 LEHEN CORPUSA

Aipatu dugunez, gure ikerlanean aurrera egiteko katalogoko informazioa zabalegia denez, corpus murriztago bat osatu beharko dugu. Horretarako, 1. corpusa osatuko dugu hasteko, testu-multzo zerrenda mugatu bat biltzen duena, eta, ondoren, behin betiko ikergai izango dugun testu-multzoak osatuko duen 2. corpusa zein izango den zehaztuko dugu.

Aurreko atalean aipaturiko irizpideei jarraiki, lehenengo corpusean, Bernardo Atxagaren lanak eta beraien itzulpenak zerrenda batean bilduko ditugu. Katalogoan orain arte genuen informazioa osatu egin behar izan dugu horretarako. Hasiera batean, sailkapen hori itzulpen moten arabera egin nahi izan dugu, baina datu horiek lortzeko hainbat zailtasun izan dugu, aurrez aipatu dugun moduan: batetik, hainbat lan esku artean izateko aukerarik ez dugu izan, eta kontsultatu ditugun katalogoetan zaila izan zaigu itzulpenaren inguruko daturik jasotzea; bestetik, esku artean izan ditugun hainbat liburutan, itzulpenaren inguruko daturik ez da ageri, edo datu horiek ez dira guztiz fidagarriak. Hainbatetan, informazioa ezkutatzeko, datuak zeharka emateak edo datu okerren bat emateak gaizkiulertuak sortu dizkigu. Nahiz eta katalogazio lana ahalik eta sakonen eta zehatzen egiten saiatu garen, itzulpenaren nolakotasuna jasotzea ez da posible izan kasu guztietan. “Unfortunately, there is an inherent difficulty here, in terms of *corpus construction*: the more significant the role of intermediate translation, the

more severe the problems involved in establishing the body of texts that should be taken into account” (Toury, 1995: 134). Hori guztia kontuan izanik, ondorengo taulan Bernardo Atxagaren lanak eta horien itzulpenak bildu ditugu, baina zein itzulpen mota erabili den zehaztu gabe. Azterketarekin aurrera jarraitu ahala joango gara datu horiek erakusten.

Corpusaren inguruan ohartxo bat egin nahiko genuke hurrengo urratsa eman aurretik: aztertzen ari garen lanak garaikideak dira, eta, honenbestez, bai katalogoa eta bai corpusean bildu beharreko lanak etengabe ari gara eguneratzen. Katalogotik corpuserako bidea hasi genuenetik gaur egunera arte, lanak gehituz joan gara, bai batean eta bai bestean. Hemen eskaintzen ditugun datuak 2010 urte bukaera artekoak dira.

6-1 Taula. Lehenengo corpusa: 1. corpusa

	Gaz	Kat	Gal	Fr	Ing	It	Ale	Por	Ned	Sue	Fin	Nor	Dan	Gre	Alb	Txe	Ast	Kro	Pol	Ara	Tur	Esp	Gae	Heb	Err	Esl	Bul	Hun	Jap	Rus	Kor	
ETP	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
HB	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
NAEK	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
RD	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
AA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
CADBE	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
TI	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
ABH	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
JP	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
BL	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
STX	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
BA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
OBB	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
BEBM	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
AJU	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
GBB	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
ZR	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
XL	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
ZH	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
SIG	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
XB	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
BLU	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
BK	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
GL	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
XE	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
SS	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
XA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
BTP	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
NJJ	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
MHEH	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
LBBOB	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
MM	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
MG37	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
ZEF	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
GA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
(65)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
(UCSLL)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
(IBP)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

<sup>49</sup> Taula honetan, hizkuntzen eta liburuen izenburuen laburdurak erabili ditugu. Tesiaren hasieran (ikus XIII orria) dagoen "Laburdurak" atalean ikus daiteke bakoitzaren oinarrian dagoen obra edo hizkuntza.

Aurreko taulan ikusten dugunez, guztira, 35 jatorrizko lan itzuli dira 31 hizkuntzatarara: horietatik 32 gaztelaniara itzuliak izan dira, 26 katalanera, 15 italierara, 14 frantsesera, 10na alemanera eta ingelesera eta 8 galegora. Finlandierak eta portugesak bosna itzulpen dituzte. Gainontzeko hizkuntzek 4 liburu edo gutxiago jaso dituzte. Horiez gain, bada liburu bana katalanez, frantsesez zein italieraz jatorrizko modura formatu ezberdinez agerturik, hots, xede izenburuak ordain zuzenik ez duena euskaraz liburu euskarrian. Orotara, beraz, 180 itzulpen.

**6-2 Taula. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen kopurua hizkuntzaka**

1	Gaztelania	32
2	Katalana	27 (+2)
3	Italiera	16
4	Frantsesa	15
5	Alemana	10
6	Ingelesa	10
7	Galegoa	8
8	Finlandiera	5
9	Portugesa	5
10	Nederlandera	4
11	Suediera	4
12	Turkiera	4
13	Kroaziera	4
14	Daniera	3
15	Grekeria	3
16	Esloveniera	3
17	Arabiera	3
18	Txekiera	3
19	Albaniera	2
20	Bulgariera	2
21	Hebraiera	2
22	Errumaniera	2
23	Poloniera	2
24	Errusiera	2
25	Norvegiera	1
26	Asturiera	1
27	Esperantoa	1
28	Hungariera	1
29	Japoniera	1
30	Gaelikoa	1
31	Koreera	1

Gehien itzuli den liburua *Obabakoak* izan da, 25 hizkuntzatara itzulia. Ondoren datoz *Gizona bere bakardadean*, 18 hizkuntzatara itzulia, *Soinujolearen semea* 13rekin (gehi beste bat argitaratzeke), *Behi euskaldun baten memoriak* eta *Zeru horiek*, 11 hizkuntzatara.

**6-3 Taula. Bernardo Atxagaren liburuak itzulpen kopuruka**

1	Obabakoak	25
2	Gizona bere bakardadean	18
3	Soinujolearen semea	14
4	Behi euskaldun baten memoriak	13
5	Zeru horiek	11
6	Sugeak txoriari begiratzeko dionean	8
7	Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian	8
8	Bi anai	7
9	Xolak badu lehoien berri	6
10	Zazpi etxe Frantzian	6
11	Henry Bengoa inventarium	5
12	Etiopia	5
13	Sara izeneko gizona	5
14	Xola eta basurdeak	4
15	Bambulo. Lehen urratsak	4
16	Bambulo. Krisia	3
17	Nire jaioterriko jendea	3
18	Xola eta Angelito	3
19	Nikolasaren abenturak eta kalenturak	3
20	Ramuntxo detektibea	2
21	Antonino Apreta	2
22	Txitoen istorioa	2
23	Asto bat hypodromoan	2
24	Jimmy Potxolo	2
25	Astakiloak jo eta jo	2
26	Zeruak	2
27	Bambulo. Ternuako penak	2
28	Markak. Gernika 1937	2
29	Lezio berri bat ostrukari buruz	2
30	Chuck Aranberri dentista baten etxean	1
31	Xola ehizan	1
32	Groenlandiako lezioa	1
33	Markonitar handien ekintza handiak	1
34	Mundua eta Markoni	1
35	Guillermoren azalpena	1

Generoei dagokienez, haur eta gazte literatura liburuak kanporatu ditu gehien, 23 guztira. Jarraian, helduentzako narratiba liburuak dauzkagu, 11 titulu guztira, 2 poesia liburu eta beste bi saiakera lan ere agertu dira beste hizkuntzetan eta, azkenik, antzerki lan bat. Hala ere, itzulpen gehien izan dituzten izenburuen artean, helduen narratiba liburuak nabarmentzen dira; gehien itzuliriko lehenengo bost liburutatik 4 helduentzako narratiba liburuak izan dira. Bestalde, jatorrizkoan haur eta gazte literatur lan modura argitaraturiko lan batzuk xede hizkuntzetan helduentzako kontakizun modura ere argitaratu dira, hala nola *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* edo *Sugeak txoriari begiratzen dionean*.

#### 6-4 Taula. Bernardo Atxagaren liburuak generoka

GENEROA	OBRAK
Haur eta gazte literatura	
	Nikolasaren abenturak eta kalenturak
	Ramuntxo detektibea
	Antonino Apreta
	Chuck Aranberri dentista baten etxean
	Txitoen istorioa
	Asto bat hypodromoan
	Jimmy potxolo
	Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian
	Sugeak txoriari begiratzen dionean
	Behi euskaldun baten memoriak
	Astakiloak jo eta jo
	Xolak badu lehoien berri
	Xola eta basurdeak
	Sara izeneko gizona
	Bambulo. Lehen urratsak
	Bambulo. Krisia
	Xola ehizan
	Xola eta Angeliño
	Bambulo. Ternuako penak
	Nire jaioterriko jendea
	Markonitar handien istorio handiak
	Mundua eta Markoni
	Guillermoren azalpena
Helduentzako literatura	
	Bi anai
	Obabakoak
Narratiba	Gizona bere bere bakardadean
	Zeruak
	Zeru horiek

	Soinujolearen semea
	Zazpi etxe Frantzian
	Sei soldadu
	Itzultzaile bat Parisen
	Un cheveu sur la langue
Saiakera	Groenlandiako lezioa
	Markak. Gernika 1937
Poesia	Etiopia
	Henry Bengoa, Inventarium
Antzerkia	Lezio berri bat ostrukari buruz

Kronologiari buruzko datuak ondorengo taula honetan agertuko ditugu, eta, horrekin, Atxagaren itzulpenen taula orokorraren ikuspegia osatuko dugu. Lehenengo zutabean, jatorrizkoa zein urtetan argitaratu zen ageri da. 1978. urtean argitaratu zuen Bernardo Atxagak bere lehen liburua, eta urte hartatik gaur egunera arteko epealdia urtez urte azaldu dugu. Bigarren zutabean, euskaraz argitaraturiko lanak agertzen dira; hirugarrenean, itzulpenen argitalpen urtea dator, eta, eskuineko zutabean, berriz, gainontzeko hizkuntzetan agerturiko lanak. Liburuen izenak laburtuta agertzen dira, euskarazko izenburuaren arabera. Gainontzeko hizkuntzei dagokienez, izenburuaren ondoan hizkuntzaren laburdura ere agertzen da<sup>50</sup>.

**6-5 Taula. Bernardo Atxagaren lanak eta euren itzulpenak kronologikoki**

Jatorrizkoaren urtea	Euskarazkoa	Xede argitalpen urtea	Erdaretan
1978	ETP	1990	ETPgazt
		1994	ETPkat
		1995	ETPfr
		2001	ETPfin
		2002	ETPit
1979	NAEK	1989	NAEKgazt
			NAEKkat
	RD	2010	NAEKit
1980	-	-	RDgazt
			RDkat
1981	-	-	-
1982	AA	1999	AAgazt

<sup>50</sup> Tesiaren hasieran (XIII orrian), “Laburdurak” atalean, liburuen eta hizkuntzen laburdurak ikus daitezke, hurrenez hurren.

	CADBE	1992	AAkat
	TI	1985	CAEDBEkat
		1999	Tlgazt
		1992	Tlkat
1983	-		
1984	ABH	1999	ABHgazt
		1992	ABHkat
	BL	1990	BLgazt
			BLkat1
			BLgal
		1995	BLfr
		2001	BLit
			BLkat2
		2009	BLkro
			BLing
	STX	1989	STXgazt
		1990	STXkat1
		1992	STXgal
		2000	STXgae
		2001	STXit
			STXkat2
		2009	STXkro
			STXing
	JP	1999	JPgazt
		1992	JPkat
1985	BA	1995	BAGazt
		1996	BAfr
		2001	BAit
			BAkat
			BAing
		2009	BAkro
1986	HB	1994	HBkat
		1995	HBfr
		2001	HBfin
		2002	HBit
1987	-		
1988	OBB	1989	OBBgazt
		1990	OBBkat
		1991	OBBfr
			OBBit
			OBBale
		1992	OBBing
			OBBport



			OBBned
			OBBpol
		1993	OBBgre
		1994	OBBsue
			OBBfin
			OBBnor
		1995	OBBalb
			Oblast
			OBBerr
		1997	OBBdan
		1999	OBBara
		2001	OBBtur
			OBBkro
		2003	OBBheb
		2004	OBBjap
		2008	OBBgal
		2009	OBBerr
		2010	OBBkor
1989	-		
1990	-		
1991	BEBM	1992	BEBMgazt
			BEBMit
		1993	BEBMkat
		1994	BEBMfr
			BEBMned
			BEBMalb
		1995	BEBMale
		1997	BEBMtxe
		1998	BEBMgal
		1999	BEBMesp
		2000	BEBMport
		2001	BEBMara
1992	-	-	-
1993	AJJ	1993	AJJgazt
		1996	AJJit
	GBB	1994	GBBgazt
		1995	GBBkat
			GBBfr
			GBBned
			GBBfin
			GBBgre
			GBBtxe
		1996	GBBing

			GBBsue
		1997	GBBale
		1998	GBBport
			GBBesl
		2002	GBBdan
			GBBtur
		2006	GBBhun
		2007	GBBbul
		2010	GBBheb
1994	LBBOB	1994	LBBOBgazt
	ZR	1995	ZRfr
		1996	ZRgazt
1995	XL	1995	XLgazt
			XLkat
		1997	XLit
		1998	XLale
		1999	XLfr
	ZH	1996	ZHgazt
			ZHgre
		1998	ZHit
			ZHsue
		1999	ZHkat
			ZHing
			ZHale
			ZHfin
		2001	ZHesl
		2002	ZHtur
	MM	1995	MMgazt
1996	SIG	1996	SIGgazt
		1997	SIGkat
		1998	SIGgal
		2000	SIGfr
			SIGit
	XB	1997	XBgazt
		1998	XBkat
			XBale
		1999	XBfr
1997	MHEH	1997	MHEHgazt
1998	BLU	1998	BLUgazt
		1999	BLUkat
		2000	BLUit
			BLUale
	BK	1998	BKgazt

		1999	BKkat
		2000	BKale
1999	BTP	1999	BTPgazt BTPkat BTPfr
		2002	
2000	XE	2000	XEing
2001	-	-	-
2002	-	-	-
2003	SS	2004	SSgazt SSkat
		2005	SSgal SSdan
		2006	SSale SSesl SSrus
		2007	SSfr SSit SSnor SSdan
		2008	SSing
2004	XA	2005	XAgazt
		2005	XAkat
		2008	XAfr
2005	GA NJJ	2005	GAing NJJgazt NJJkat NJJgal
2006	-	-	-
2007	MG37	2007	MG37gazt
		2008	MG37kat
2008	-	-	-
2009	ZEF	2009	ZEFgazt ZEFkat ZEFgal ZEFport
		2010	ZEFing ZEFfr

Aurreko taula horretatik, honako ondorio hauek atera ahal izan ditugu:

- 30 urte hauetan, 35 jatorrizko lan itzuli dira guztira.

- 80. hamarkadan, bere lan oso gutxi itzuli zen: *Chuck Aranberri dentista baten etxean* liburuak soilik. Hau da, lehenengo 10 urteetan itzulpen bakarria egin zen.
- *Chuck Aranberri dentista baten etxean* liburuaren katalanezko bertsioaz (1986) gain, ez da izan itzulpenik 1989 urtera arte.
- *Obabakoak* argitaratu eta hurrengo urtetik aurrera, 1989. urtetik aurrera, bere lanen itzulpenak ugaritu egin ziren, eta, orduz geroztik, urtero itzulpen bat baino gehiago argitaratu da.
- *Obabakoak* lana itzultzearen ondotik, aurrez argitaratu zituen beste liburu batzuen itzulpenak ere egin ziren, hala nola *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* eta *Sugeak txoriari begiratzen diorean*.
- *Chuck Aranberri dentista baten etxean* liburuaren itzulpenaz gain, 70. eta 80. hamarkadetan plazaraturiko lanen itzulpenak 1989. urtetik aurrera argitaratu dira.
- *Obabakoak*-en ondoren argitaratu dituen liburuen kasuan, itzulpenak euskaraz argitaratu eta denbora gutxira argitaratu dira.
- Lehenengo beti gaztelaniazko itzulpena argitaratzen da eta ondoren dira gainerako itzulpenak. *Siberiako ipuin eta eta kantak* saileko lau liburuak izan ezik, zeinak katalanez lehenago argitaratu ziren gaztelaniaz baino. Kasu horretan, ordea, gaztelaniazko bertsioak Hegoamerikan argitaratu dira, Espainian beharrean. Bestalde, hiru kasutan soilik ez dugu gaztelaniazko itzulpenik izan: CADBE katalanez soilik argitaratu da, eta GA eta XE, ingelesez bakarrik.
- *Etiopia* poesia liburuaren itzulpenak jatorrizkoa argitaratu eta 15 urte baino gehiago igaro ondoren egin dira, behin sari nazionala lortu ondoren. Guztiak ere *Henry Bengoa, inventarium* lanaren itzulpenarekin batera argitaratu dira. Makroestruturaz hori gaztelaniaz horrela agertu zen lehenik eta, ondoren, modu berean agertu da gainerako hizkuntzetan ere.
- Haur eta gazte literatur lanak, oro har, gaztelaniara eta/edo katalanera itzuli dira, eta jatorrizkoaren eta xede testuen artean 10 urte edo gehiago igaro dira. Kasurik deigarriena *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* liburuaren itzulerazko bertsioa dugu, jatorrizkoa baino 31 urte beranduago argitaratua.
- BL eta STX lanen itzulpenak *Obabakoak* itzuli eta nahiko segidan argitaratu ziren xede hizkuntzetan. Bi narrazio horiek eta *Bi anai* kontakizuna batera argitaratu diren kasuetan (katalanez, itzuleraz zein kroazieraz), argitalpena berantiarra izan da: jatorrizkoa baino 15 urte inguru igaro ostean, formatu horretan gaztelaniaz argitaratu eta gero.
- *Bi anairen* gaztelararako itzulpena jatorrizkoa baino 10 urte beranduago iritsi zen, eta frantsesezkoa gaztelaniazkoa baino urte bat

beranduago. Ingelesezko, katalanezko eta italierazko itzulpenak 2001 urtean plazaratu ziren, jatorrizkoa baino 16 urte beranduago.

- *Obabakoak* liburuaren lehen itzulpenak oso segidan argitaratu ziren, gertuko hizkuntzen kasuan batez ere. Urruneko hizkuntzek denbora gehiago behar izan dute argitalpena jasotzeko. Esanguratsua da, hala ere, galizierako itzulpena ez dela 2008. urtera arte argitaratu.
- Hortik aurrerako liburuek antzerako denbora tartea izango dute jatorrizkoa eta itzulpenen artean: gaztelaniazkoa euskarazkoaren urte berean edo urtebete beranduago argitaratuko da; katalanezkoa ere gaztelaniazkoaren antzera; Europako hizkuntza nagusiek 2-5 urte artean behar izan dute itzulpenak argitaratzeko, eta badira denbora gehiago behar izan duten beste hizkuntza batzuk ere.
- *Zazpi etxe Frantzia* eleberria, orain arteko azkena, euskaraz gaztelaniazko, katalanezko eta galizierazko itzulpenekin aldi berean argitaratu zen. Jatorrizkoa eta itzulpenak batera argitaratu diren lehen aldia izan da.

### 6.3.1 *Peritestuek diotena datu zehatzetan*

Lehenengo corpusaren azterketarekin amaitzeko, bertako liburuen paratestuetan emaniko informazioa aztertuko dugu. Katalogoa osatzen hasi aurretik, itzulpenak nola egin ziren zehaztea ez zitzaigun eginkizun zaila iruditzen. Baina datuak biltzeari ekin ahala, eta behin betiko corpusa zehazterakoan, datu guztiak zuzen ematea zer nolako lana zen ohartu ginen. Liburuek ez dituzte itzulpenaren inguruko datuak modu berean ematen: batzuetan, itzulpen prozesuaren nondik norako guztiak agertzen dira kredituetan; beste batzuetan, itzulpen prozesuari buruz ere hitz egiten du autoreak berak, edo itzultzaileak ohar baten bidez; hainbatetan, itzultzailearen izena ageri da, baina ez zein hizkuntzatatik itzuli duen; kasuren batean edo bestean, itzulpenari ez zaio inongo erreferentziarik egiten, eta irakurleak pentsa dezake esku artean duen liburua jatorriz xede hizkuntzan bertan idatzia izan dela. Kasuistika oso zabala topatu dugu, eta horien guztien inguruko azterketa xehea egitea beharrezkoa iruditu zaigu.

Azterketa hau egiteko Bernardo Atxagaren lanen ahalik eta itzulpen gehien lortzen saiatu gara. Lehenengo corpus honetan bilduriko liburu guztiak aztertu nahi izan ditugu, baina ez da lan samurra izan lanok eskuratzea, herrialde askotan argitaratuak izan baitira: horietariko batzuk lortzea ia ezinezkoa izan zaigu. 32 jatorrizko lanen 161 argitalpen baliatu ditugu guztira, 25 hizkuntzatan agertuak. Itzulpen beraren argitalpen ezberdinak ere kontuan izan ditugu, ahal izan dugun neurrian, guztiek ez baitute informazio bera ematen. Horien artean, behin betiko corpuseko itzulpen guztiak bildu ditugu eta horietatik haraindi lortu ahal izan ditugun guztiak.

Honako azterketa hau egiteko Genettek peritestu modura sailkaturiko atal guztiak izan ditugu kontuan. Itzulpenaren inguruko datuak, oro har, azalean, izenburuaren azpian liburuen lehen orrietan edo kredituetan ikusi

ahal izan ditugu. Hala ere, zenbaitetan, aparteko atalen bat ere ageri da autorearen edo liburuaren inguruko azalpenak emateko, eta horrek ere informazio zabalagoa eskaini digu azterketa hau egin ahal izateko. Adibidez, *Obabakoak*-en itzulpen gehienetan, Ibon Sarasolaren hitzaurreaz gain, Bernardo Atxagak liburuaren gaztelaniazko bertsioaren amaieran gehituriko “A modo de autobiografía” izeneko atala ere ageri da. Liburuaren itzulpenaren inguruko hausnarketa labur bat ikus daiteke bertan. Bestalde, *Bi anai*-ren gaztelaniazko bertsioan –eta ondoren frantsesera, ingelesera eta italierarako itzulpenetan– epilogoak agertzen da, eta bertan ere itzulpenaren berri ematen zaigu. Epilogoak gain, *Behi euskaldun baten memoriak*-en gaztelaniazko argitalpen baten azal-hegaletan, autoreak berak autobiografia labur bat egiten du, normalean euskaraz idazten duela adieraziz eta gaztelaniaratzeko lana sarritan bere esku egoten dela esanez, nahiz eta, kasu horretan, beste batek itzulia izan den. Itzultzaileen ohar batzuk ere topatu ditugu beste batzuetan itzulpenaren inguruko azalpenak emanez: *Obabakoak*-en katalanezko, frantsesezko, galegozko eta ingelesezko itzulpenetan dauden itzultzailearen oharrak, kasu.

Paratestuen azterketa hau hainbat ikuspuntutatik egingo dugu: batetik, datu orokorrak emango ditugu, eta, bestetik, obrak eta hizkuntzaka banaturik.

Peritestuen inguruko azterketa hau egiteko, batetik Touryk<sup>51</sup> (1995: 58) planteaturiko galderak eta, bestetik, Lambertek<sup>52</sup> (Hermans, 1999: 65) eginikoak izan ditugu kontuan. Horietan oinarriturik, antzerako galderak erantzuten saiatu gara, itzulpen prozesuaren ahalik eta informazio gehien lortze aldera. Jarraian erakutsiko dugun eskema erabili dugu:

- Aitortzen al da itzulpena?
  - Azalean
  - Lehen orrietan, izenburuaren azpian
  - Kredituetan
- Itzultzailearen izena ageri da?
  - Azalean
  - Lehen orrietan, izenburuaren azpian

<sup>51</sup> “Is indirect translation permitted at all? In translating from what source languages/text-types/periods (etc.) is it permitted/prohibited/tolerated/preferred? What are the permitted/prohibited/tolerated/preferred mediating languages? Is there a tendency/obligation to mark a translated work as having been mediated, or is this fact ignored/camouflaged/denied? If it is mentioned, is the identity of the mediating language supplied as well? And so on” (Toury, 1995: 58).

<sup>52</sup> “Is the book identified as a translation? Is the translator’s name mentioned? Where and in what typeface? Is there a genre indication? Does this correspond to that of the source text? Are we told the work is ‘translated by x’ or ‘translated from language x by translator y?’” (Hermans, 1999: 65).

- Kredituetan
- Euskarazko jatorrizkoaren izena ageri da?
  - Gaztelaniazkoaren izena ageri da?
- Jatorrizkoa euskaraz idatzi zela ageri da?
  - Euskarazkoaren argitalpen datuak ageri dira?
  - Gaztelaniazkoaren argitalpen datuak ageri dira?
- Bitarteko bertsioa erabili dela agertzen da?
  - Bitarteko bertsioa bitarteko moduan ala jatorrizko moduan ageri da?
- Itzulpenaren urrats guztiak erraz identifika ditzake irakurleak (eusgazt-xede)?
- Kredituez gain, badago itzulpenaren inguruko hausnarketarik edo daturik?
- Oharrak

### 6.3.1.1 Datu orokorrak

#### 6.3.1.1.1 Itzulpenaren aitortza

Aztertu ditugun argitalpen guztietatik gehien-gehienetan, 145 kasutan, itzulpena aitortu egin da, eta 16 kasutan soilik, ez: horietatik 14 gaztelaniarako itzulpenak izan dira, eta 2, katalanera eginak. Gainontzeko hizkuntzetako argitalpen guztiek aitortu dute, beraz, itzulpena. Deigarria da harreman sistematiko handiena erakusten duten literatur sistemak direla itzulpena aitortzeko zailtasun gehien erakutsi dutenak. Sistema horien arteko harremanak besteen modukoak ez diren seinale izan daiteke hori.




6-1 Figura. Itzulpenen aitortza liburuetan

Liburuaren azalean oso kasu gutxitan aitortu da itzulpena. Lau aldiz soilik ageri da aurrealdean: *Obabakoak* eta *Zazpi etxe Frantzian* eleberrien galegozko itzulpenetan, *Obabakoak*-en japonierazko bertsioan eta finlandierazko *Poemas e híbridos* (*Henry Bengoa*, *Inventarium* eta *Etiopia* biltzen dituena) liburuaren itzulpenean soilik. Galegozko bi liburuaren kasuan, liburuak argitaratu dituen Faktoria K argitaletxeak helduentzako Narratiba K


sailean argitaraturiko liburu guztietan agertzen da itzultzailearen izena azalean. Beraz, argitaletxearen politika hori dela esan dezakegu.

Beste 11 kasutan, itzulpenaren aitortza azalaren atzealdean egin da. Azken kasu horiek frantsesez (7), ingelesez (2) eta turkieraz (2) topatu ditugu.



6-2 Figura. Itzulpenaren aitortza liburuaren azalean


Liburuaren erdietan baino gehiagotan aitortu dute itzulpena liburuaren barrualdean, izenburuaren azpian. Aitortzen den kasu askotan, zein hizkuntzatatik itzuli den ageri ohi da, baina, beste batzutan, itzulpenaren egilearen izena soilik ageri da.



6-3 Figura. Itzulpenaren aitortza lehen orrietan

Azalean edo barruan izenburuaren azpian agertzeaz gain, liburuaren kredituetan ere ager daiteke itzulpenaren inguruko daturik. Horiek modu oso ezberdinetan eman daitezke: itzultzailearen egilea, copyright-aren datuetan; itzulpenaren egilearen izena eta jatorrizko liburuaren datuak; itzulpenaren nondik norako guztien deskribapen zehatza; etab. Modu bateko zein besteko informazioa eman, guk hemen aitortza hori egiten ote den soilik jaso nahi izan dugu; ez dugu bataren edo bestearen argitasunari buruzko baloraziorik egingo. Kasu gehienetan –ia hiru laurdenetan– aitortzen da itzulpena kredituetan. Kredituetan agertzen ez den gehienetan, aurrez azalean edo lehen orrietan eman delako izan ohi da.






6-4 Figura. Itzulpenaren aitortza kredituetan

#### 6.3.1.1.2 Itzultzailearen izena

Itzulpena aitortzen den kasu guztietan agertzen da itzultzailearen izena ere liburuan. Aurrekoan bezala, kontsultatutako 161 liburuetatik 138 kasutan agertzen da itzultzailearen izena. Agerpen tokiari dagokionez ere, itzulpena azalean eta izenburuaren azpian barrualdean aitortzen bada, itzultzailearen izena ere ageri ohi da. Kredituetan, ordea, gutxixeagotan agertzen da itzultzailearen izena.



6-5 Figura. Itzultzailearen izena non ageri den

#### 6.3.1.1.3 Euskarazko jatorrizkoaren izena


Euskarazko jatorrizkoaren izena %56,52tan ageri da. Orokorrean, jatorrizkoaren izena kredituetan ageri da. Hala ere, itzulpenaren inguruko hausnarketaren bat agertzen den kasuren batean ere —epilogoetan edo hitzaurrean, kasu— topatu dugu datu hori.



6-6 Figura. Euskarazkoaren izena ageri ote den


Aipaturiko datuak irakurlego motarekin gurutzatuko bagenitu, berehala ohartuko ginateke itzulpenaren inguruko datuak eskaintzea garrantzitsuagoa dela helduei zuzenduriko liburuen kasuan haur edo gazteei zuzendurikoetan baino. Horrela, euskarazkoaren izena ageri den kasuen %67,04 helduentzako liburuak dira, eta agertzen ez den argitalpenen %58,20 osatzen dute HGL liburuek.

Gaztelania ez beste hizkuntzetera eginiko itzulpenetan begiratuz gero, euskarazkoaz gain edo euskarazkoaren ordeztzat gaztelaniazkoa agertzen da. Kontsultaturiko 161 kasuetatik 45 itzulpen gaztelaniara eginak izan dira, eta, hortaz, jatorrizko izena agertzekotan euskarazkoa agertuko da horietan, %55,5 kasutan hain zuzen ere. Gainontzeko 116 argitalpenei dagokienez, %56,03 alditan ageri da gaztelaniazko jatorrizkoaren izena. Beraz, proportzioa euskarazkoa agertzen denaren antzekoa dela ikus dezakegu.



6-7 Figura. Gaztelaniazkoaren izena ageri ote den

Xede hizkuntza gaztelania ez den gainontzeko hizkuntzeterako itzulpenetan, euskarazkoaren izenburua agertzen den 91 kasuetatik 30etan ez da gaztelaniazkoa ageri; aldiz, gaztelaniazkoa agertzen den 65 kasuetatik 30 kasutan, ez da euskarazkoaren izenburua ageri. Bestalde, euskarazko eta gaztelaniazko izenburuak, biak, 35 kasutan topatu ditugu. Inongo jatorrizkoren erreferentziarik egiten ez den 17 argitalpen izan da orotara.




6-8 Figura. Jatorrizkoaren izena zein hizkuntzatan ageri den

Aurreko grafikoan agertzen diren kasuak banaka-banaka begiratuta bi izenburuak agertzen diren kasu ia guztiak, bat izan ezik, helduei zuzenduriko lanak izan direla ohartuko gara. Izenbururik agertzen ez den kasuetan, berriz, nahiko antzerakoak dira datuak: 7 helduentzako liburu eta 10 HGLkoak.

#### 6.3.1.1.4 *Jatorrizkoa euskaraz idatzi zela ageri da?*

Kredituetan jatorrizko izenburua euskaraz agertu ala ez, batzuetan ez da argi adierazten liburua euskaraz idatzi ote den. Xede hizkuntzetan jatorrizkoaren izena euskaraz irakurtzen duenak, oro har, hizkuntza hori gaztelania ez dela irudika dezake. Baina euskaraz idatzi dela espreski adierazteak jatorrizkoarekiko lotura mantentzen lagun dezake. Kontsultatu ditugun kasuen %36,02an soilik agertzen da aipatu datua.



6-9 Figura. Jatorrizkoa euskaraz idatzi zela aitortzea

Euskaraz idatzi izanaren aitortza oso modu ezberdinetan egin daiteke; kredituetan azalpen soil bat emanez, esaterako. Hala ere, datu hori kredituetan ez ezik, hitzaurrean, epilogoan edo itzultzailearen ohar batean ere topa dezakegu.

Oso kasu bakanetan eskaintzen zaio irakurleari euskarazko jatorrizko liburuaren argitalpen daturik. Kontsultatutako argitalpenen %82,61ean ez da inongo daturik ageri; %8,07an argitalpen urtea bakarrik agertzen da, copyright-aren ondoan; eta, 2 kasutan soilik, argitaratzailearen izena besterik ez da ematen. Euskarazkoaz gain, gaztelaniazkoarenak ere ager daitezke gainerako hizkuntzetan. 41 soilik dira guztira bata zein bestearen daturik ematen ez dutenak, hots, kasu guztien %25,46. Aipatu hizkuntza horietan, %43,10ek ageri dituzte gaztelaniazkoaren argitalpen datu guztiak; %6,03k, argitalpen urtea soilik; eta %44,82k ez du gaztelaniazkoaren inolako daturik ematen.

Euskarazko argitalpenaren inguruko daturik ematen ez denetan, 35 aldiz agertzen da gaztelaniazkoaren daturen bat; aldiz, euskarazkoaren datuak agertu bai, baina gaztelaniazkoak ez da ageri 11 kasutan. 22 alditan bi jatorrizkoen datuak agertzen dira, eta, aipatu moduan, 41 aldiz, berriz, ez da ageri ez bataren ez bestearen daturik.

#### 6.3.1.1.5 *Gaztelaniazko bertsioa erabili dela agertzen ote den*

Gaztelania ez beste xede hizkuntzei dagokienez, itzulpenak zuzenak ala zeharkakoak izan daitezke. Kasu guztietan galdetu nahi izan dugu gaztelania erabili ote den erakusten duen daturik espreski ematen den, zuzeneko den zantzuren bat izan arren. Begiratu ditugun liburuen %57,75ek aitortzen du gaztelania erabili duela itzulpena egiteko jatorrizko bertsio modura.


Gainontzekoetan, zuzenean euskaratik itzuli direla agertuko da zenbaitetan, baina, gehien-gehienetan, ezkutatu egiten da itzulpena egiteko zein hizkuntza hartu den oinarri.



6-10 Figura. Gaztelaniazko bertsioa erabili den agertzea

Liburuek itzulpenaren inguruan emandako datuak ikusirik, gaztelania jatorrizko ala bitarteko moduan erakusten den ikusiko dugu jarraian. Lan bat bitarteko ala jatorrizko modura aurkezten ote den jakiteko, kredituetan begiratu dugu lehenengo eta behin. Bertan gaztelaniazkoaren datuak soilik agertzen badira, jatorrizkotzat jo dugu, besterik ezean. Kredituez gain, epilogoak, hitzaurreak, itzultzaile oharrak eta abarrak ere begiratu ditugu.


Kontuan izan behar dugu kasuen %42,25ean ez dela agertzen liburuetan gaztelaniatik itzuli denik; beraz, liburu horietan guztietan galdera hori ezin izan dugu erantzun. Gainontzekoei dagokienez, 31 kasutan jatorrizko modura ikus daiteke gaztelaniazkoa; aldiz, 34 kasutan, bertsio hori bitarteko hizkuntza modura identifika dezakegu. Portzentaia nahiko handia dela azpimarratu behar dugu, ia bi liburutatik batean ez baita agertzen.



6-11 Figura. Gaztelaniazkoa bitarteko ala jatorrizko modura agertzen den

#### 6.3.1.1.6 Itzulpenaren urrats guztiak erraz identifika ditzake irakurleak (eus-gazt-xede)?

Datu horiek guztiak aztertu ondoren, gaztelania ez gainontzeko xede hizkuntzetako itzulpenek bitarteko bertsioa erabili dutela argi ikus daitekeen edo ez galdetuz gero, %29,31 kasutan soilik erantzungo genuke baiezia. Argitalpenen %62,93k itzulpen prozesua nahiko lauso erakusten dute.



6-12 Figura. Itzulpen prozesua nolakoa izan den argi ikus ote daitekeen

#### 6.3.1.1.7 *Kredituez gain badago itzulpenaren inguruko hausnarketarik edo daturik?*

Ez da ohikoena itzulpenaren inguruko erreferentziarik egitea kredituez, azalaz edo lehen orriez kanpo. Kontsultaturiko liburuetatik 112 kasutan ez da inolako erreferentziarik ageri. Sarreran aipatu dugun moduan, autorea beraren edo itzultzailearen oharrak izaten dira ohikoenak, hitzaurre edo epilogo modura, oro har.

#### 6.3.1.2 **Datuak liburuka**

Emandako datuak orokorrean harturik, oso esanguratsuak dira, eta Bernardo Atxagaren lanen itzulpen bideen inguruko ikuspegi orokorra eskaintzen digute. Jarraian, liburuz liburu alderik ba ote den erakutsiko dugu, hau da, liburu jakin batzuek modu batera edo bestera erakutsi ote dituzten datuak. Datu guztiak banaka-banaka emateak luzeegi joko ligukenez, informaziorik interesgarriena soilik azalduko dugu atal honetan.

*Bi anai*, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* eta *Sugeak txoriari begirutzen dionean* liburuen itzulpen guztietan aitortzen da itzulpena, eta itzultzailearen izena ere den-denetan ageri da. *Bi anai* 1995ean gaztelaniaz argitaratu zenean, itzulpenaren nondik norakoak ematen zituen epilogo gehitu zen. Gaztelaniaratzearen berri ematen duen epilogo hori bera frantsesera, ingelesera eta italierara ere itzuli da.

*Obabakoak* narrazio bildumaren 29 argitalpen erabili ditugu azterketa honetan. Guztietan egin da itzulpenaren aitortza eta itzultzailearen izena ere denetan eman da. Euskarazkoaren izenburua gainontzeko hizkuntza guztiek mantendu badute ere, ia kreditu guztietan (2 kasutan izan ezik) jatorrizko izenburuari ere egin zaio erreferentzia. Jatorrizkoa euskaraz idatzi zela bitan izan ezik guztietan ageri da; kredituetan ez bada, hitzaurrean edo amaierako autobiografian. Jatorrizko argitalpen datuei dagokienez ere, sei kasutan soilik ez dira ageri euskarazkoak, eta 25etik lautan soilik ezkutatu dira gaztelaniazkoak ere gainontzeko xede hizkuntzetan; beste hiru kasutan, ezin izan dugu jakin, xede hizkuntza irakurtzeko gaitasun eza dela medio. 25 itzulpen horietatik 16tan argi eta garbi ikusi ahal izan dugu itzulpena

zeharkakoa izan dela, gaztealaniaren bitartez egina. Liburu guztietatik 25 kasutan itzulpenari erreferentzia egin zaio oin oharretan, itzultzailearen oharretan edo autobiografian.

*Behi euskaldun baten memoriak* liburuari dagokionez, begiratu ditugun argitalpen guztietan aitortzen da itzulpena, eta itzultzailearen izena ere denetan ageri da. Jatorrizkoaren izena ere kasu guztietan agertzen da euskaraz; nahiko datu deigarria, datu orokorrekin alderatuz gero, han %56,52an bakarrik agertzen baitzen. Gainera, liburu honen inongo itzulpenetan ez da ageri gaztelaniazkoaren izenbururik, ezta zeharka itzuli diren zantzuak ditugunetan ere. Hala ere, jatorrizkoa euskaraz idatzi zela 6 aldiz soilik ageri da; gainontzeko 7 kasuetan ez zaio jatorrizko hizkuntzari inolako erreferentziarik egiten. Euskarazkoaren argitalpen datuak behin bakarrik agertzen dira, eta gaztelaniazkoak, hirutan besterik ez. Gaztelaniazkoa jatorrizko hizkuntza modura hiru itzulpenetan soilik agertzen da: errumanieraz, frantsesez eta portugesez. Bestalde, behin bakarrik ikus daiteke guztiz garbi zeharkako itzulpenaren prozesua; beste bi alditan, nahiko argi ikus daiteke alemanezko eta esperantozko itzulpenetan zuzeneko itzulpena izan dela.

*Gizona bere bakardadean* eleberriari dagokionez, begiratu ditugun 18 liburuetatik 17tan egiten da itzulpenaren aitortza; gaztelaniazko argitalpen batean, Círculo de lectores argitaletxearen 1994koan, ez da ageri liburua itzulpena denik ezta itzultzailearen izenik ere. Gaztelania ez gainontzeko hizkuntzen kasuan, 16 argitalpenetatik 11 aldiz soilik ikus dezakegu gaztelania hartu dela oinarri itzulpenean, eta, horietatik zazpitan, nahiko argi identifika daitezke zeharkako itzulpenaren nondik norakoak. Liburu honen katalanezko 3 kasu aztertu ditugu: horietariko batek itzultzailearen izena soilik agertzen du, baina beste biek informazio kontraesankorra ematen dute erabili den jatorrizko bertsoaren inguruan.

*Sara izeneko gizona* liburuari dagokionez, gaztelaniazko bertsoan ez da ageri itzulpenaren inguruko daturik; bai, aldiz, gainontzeko itzulpenetan. Gainontzeko xede hizkuntzek gaztelaniazko bertsoari buruzko datuak ematen dituzte jatorrizkoaren ingurukoak adierazterakoan.

*Bambulo. Lehen urratsak* eta *Bambulo. Krisia* liburuen kasuan launa itzulpen aztertu ditugu, eta gaztelaniazkoek ez beste guztiek aitortzen dute itzulpena. Itzulpen bakarrean (BKfr) egiten zaio euskarazko jatorrizkoari edo argitalpen datuei erreferentzia, eta, beraz, nekez ikus daiteke benetan zein izan den itzulpen prozesua gainerako guztietan. Gauza bera gertatzen da *Xola eta basurdeak* liburuaren kasuan, gaztelaniazko bertsoan ez baita itzulpena denik ere agertzen. Nahiko arraroa iruditu zaigu hori sail bereko aurreko liburuaren –*Xolak badu lehoien berri*– itzulpena euskaratik egin dela eta nork egin duen argi eta garbi agertzen baita. Beste hainbat HGL libururen gaztelaniazko itzulpenetan ere ez da itzulpenik aitortu (*Ramuntxo detektibea* edo *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* kasu), ezta katalanezko beste hainbatetan ere (*Txitoen istorioak* eta *Antonino Apreta*, esaterako).

*Henry Bengoa, Inventarium eta Etiopia* liburuen lau itzulpen kontsultatu ditugu, guztiak ere bi lanak elkarrekin argitaratuak. Guztietan ere itzulpena aitortzen da, baina jatorrizkoa euskaraz idatzi zela bakarrean zehazten da (frantsesezkoan), eta ez kredituetan, itzultzailearen hitzaurrean baizik.

*Zeru horiek* liburuaren kasuan, gaztelaniazko edizio ia guztietan ez da itzulpena denik ageri. Kasu bakarrean agertzen dira itzultzailearen izena eta jatorrizko izenburua, eta argitalpen hori 2008koa da. Ondorioz, gaztelania oinarri hartu duten xede hizkuntzetan jatorrizkoaren inguruko datuak ematen direnean, gaztelaniazkoarenak emango dira, erabili duten bitarteko bertsio horretan euskarazkoaren daturik agertzen ez delako. Katalanezkoan eta finlandierazkoan soilik ageri da euskarazko jatorrizkoaren izenburua.

*Soinujolearen semea* eleberriaren 11 itzulpen aztertu ditugu, eta guztietan aitortzen da itzulpena. Euskarazkoaren izenburua ere guztietan ageri da, eta, 9tik 7 kasutan, gaztelaniazkoaren izenburua ere ageri da. Itzulpena egiteko gaztelaniazko bertsioa erabili dela 5 kasutan soilik ageri da.

### 6.3.1.3 Datuak xede hizkuntzaka

Aurreko atalean liburuz liburu alderik nabari ote zitekeen jakin nahi izan dugun moduan, oraingo honetan, hizkuntza batetik bestera itzulpen aitortza berdin egiten ote den edo hizkuntza bakoitzak berezitasunik agertzen ote duen ikusiko dugu.

Gaztelaniara eginiko 43 itzulpen kontsultatu ditugu, eta 29tan itzulpena aitortu bada ere, 14 kasutan ez da prozesuaren inguruko daturik ageri. Itzultzailearen izena 27 aldiz eman da, baina 16 aldiz ezkutatu. Euskarazkoaren jatorrizko izena 23 aldiz agertu da, eta 20 aldiz, berriz, ez. Jatorrizkoa euskaraz idatzi zela, espreski, 16 aldiz soilik onartzen da. Gainera, euskarazkoaren argitalpen datuak 2 aldiz soilik ematen dira; beste hiru kasutan, jatorrizkoaren argitalpen urtea ageri da, eta bi aldiz, argitaletxea. Hori guztia kontuan izanik, gaztelaniaren egoera gainerakoekin alderatuta berezia dela esango genuke. Besteetan itzulpenaren inguruko datu gehiago eman ohi da eta argiago adierazi itzulpena dela.

Katalanezko 30 argitalpenetatik 28 aldiz aitortu da itzulpena. Beste biak haur eta gazte literaturako bi liburu dira, eta, horietan, ez da ageri itzulpenari buruzko ezer. Argitalpen horietatik 15 aldiz soilik ageri da euskarazkoaren jatorrizko izena; gaztelaniazkoa, berriz, 4 aldiz soilik. Itzulpena gaztelaniazkotik egin dela, espreski, 4 aldiz soilik agertzen da; beraz, gehiengo handi batean, itzulpen prozesua nahiko lauso ikusten dela esan genezake.

Galegoz begiratu ditugun 7 itzulpenetan, guztietan agertzen da itzultzailearen izena. Euskarazkoaren jatorrizko izena 5 aldiz ageri da, baina bitan bakarrik zehazten da jatorrizkoa euskaraz idatzi zela. Hiru aldiz esan dezakegu itzulpen prozesuaren nondik norako guztiak argi ikus daitezkeela.

Frantsesezko 13 itzulpen begiratu ditugu, eta, guztietan, argi eta garbi adierazten da itzulpena egiteko gaztelaniazko bertsioa erabili dela. Hala ere, euskarazkoaren datuak ezkutuan uzten dira sarritan, eta gaztelaniazkoa jatorrizko bakartzat erakusten da.

11 itzulpen kontsultatu ditugu ingelesez, eta, bitan izan ezik, gainerakoetan argi ikusten da itzulpena gaztelaniazko bertsiotik abiatu egin dela. Aipatu bi horiek euskaratik zuzenean eginak izan dira. 11tik 8 kasutan oso argi adierazten da itzulpen prozesua nolakoa izan den.

Alemanezko 10 itzulpenetatik batean izan ezik beste guztietan agertzen da itzulpena gaztelaniazkoetik egin dela. Hamargarren itzulpena, berriz, euskaratik zuzenean egin da. Hala ere, bost aldiz soilik ikus daiteke nabarmen itzulpen prozesu osoa.

Italierazko 12 argitalpenek aitortzen dute itzulpena. 4 aldiz soilik agertzen da jatorrizko euskarazkoaren izena eta 11 aldiz gaztelaniazkoa. Zazpi aldiz soilik esaten da itzulpena gaztelaniatik egin dela. Hala ere, itzulpen gehienetan, 9tan, itzulpen prozesua ez da argiegi ere erakusten.

Gainerako hizkuntzetako 4 itzulpen edo gutxiago kontsultatu ditugu. Guztietan ere aitortu da itzulpena. Finlandierazko liburu guztietan, esaterako, itzulpena zeharkakoa dela esaten da eta guztietan ere nahiko argi ikus daiteke itzulpenaren nondik norakoa; portugesezko lau argitalpenetatik hirutan nahiko argi ikus daiteke gaztelaniazko bertsioa bitarteko modura erabili dela; turkieraren kasuan, guztiak ere zeharkako itzulpenak direla ikus daiteke, gaztelaniazkoaren izenburua ageri baita, baina hainbatetan euskarazkorik egon denik ez da aipatzen; suedierazko lau argitalpenetatik bakarrean ikus daiteke guztiz garbi itzulpen prozesua bere osotasunean.

Itzulpen bakarra kontsultatu ahal izan dugun hizkuntzen artean, hainbatek nahiko garbi erakusten dute zeharkako itzulpen prozesuaren konplexutasuna (albaniera, esloveniera, norvegiera) edo euskarazkotik zuzenean egin dela (esperantoa). Beste batzuetan, berriz, ez (asturiera, errumaniera, hungariera).

#### 6.3.1.4 Datuak generoka

Azpi-atal honetan, generoka alderik nabarmendu ote dugun ikusiko dugu. Helduentzako eta haur eta gazte literaturaren artean egingo dugu banaketa. Azterketa egiteko, guztira, 70 haur eta gazte literatur lan kontsultatu ditugu, eta 91 helduentzako lan.

Kontsultatutako argitalpen guztien artean, 16 lan dira itzulpena aitortzen ez dutenak; horietariko 10, HGL liburuak.

Kredituetan euskarazko izenburua agertzen ez den kasuen %58,20 haur eta gazte literaturari dagozkie.

Jatorrizkoa euskaraz idatzi zela agertzen den kasu kopurua murriztagoa da HGLn, helduentzako literatur lanetan baino. Agertzen ez den kasuen %62,22 da HGL. Jatorrizkoa euskaraz idatzi dela aitortzen duten liburuen



kasuan, berriz, HGL liburuak gutxiago dira, 56 kasutatik 15 soilik, hau da, %26,78.

Euskarazko argitalpen datuak agertzen dituzten argitalpen guztien %79,06 helduentzako literatur lanak dira. Horietan, jatorrizkoa oso present ageri da, haur eta gazte literatur lanen aldean. Argitalpen datu horiek agertzen ez diren kasuen erdia baino gehiago, %54,28, haur eta gazte literatur liburuak dira.

Gaztelania ez beste hizkuntzen kasuan, bitarteko bertsioaren erabileraren aitortzan ere aldeak igarri ditugu, irakurle motaren artean. Bitarteko bertsio horren erabilera aitortzen duten liburuen %64,17 helduen literatur lanak dira. Aitortzen ez dutenen kopuruan, berriz, haur eta gazte literatur liburuak gehixeago dira, %53,65.

Oro har, itzulpen bide osoa argi agertzen duten 34 lanetatik 30 helduentzako literatur lanak dira; hau da, haur eta gazte literatur lanek %11,76a soilik osatzen dute. Itzulpen bide hori argi ikusten ez den kasuetan, alderantziz gertatzen da; HGL lanak gehiago dira, kasu guztien %58,90.

### 6.3.1.5 Ondorioak

Ondorio nagusi modura itzulpena, oro har, argitalpen guztietan aitortu egiten dela esan genezake. Oso gutxitan ezkutatu da itzulpen prozesua, eta egin den kasuen gehiengoa gaztelaniara eginiko itzulpenek osatzen dute. Informazio hori ezkutatu den kasuetan, bertsio hori oinarri harturik beste hizkuntza batzuetara eginiko itzulpenetan euskarazko jatorrizkoaren inguruko daturik ere ez da ageri, ondorioz.

Itzulpen prozesua oso gutxitan aitortu da liburuen azaletan: lau aldiz bakarrik azalaren aurrealdean eta 11 aldiz atzealdean. Gehien-gehienetan, liburuaren barrualdean aitortu da itzulpena, izenburuaren azpian edo kredituetan.

Itzulpena aitortu den kasu ia guztietan itzultzailea nor izan den ere agertzen da.

Euskarazkoaren jatorrizko izena begiratu ditugun argitalpenen erdietan baino gehiagotan agertzen da (%56,52an). Xede hizkuntza gaztelania ez den kasuetan, hizkuntza horretako bertsioaren izena, berriz, %56,03tan agertzen da.

Ez da oso ohikoa jatorrizko liburua euskaraz idatzi zela berariaz adieraztea; %36,02 kasutan soilik aurkitu dugu. Euskarazkoaren zein gaztelaniazkoaren argitalpen datuak ere ez dira oso maiz ematen.

Zeharkako itzulpenen erdietan baino gehiagotan, %57,75etan, itzulpena gaztelaniatik egin dela adierazten da. Hala ere, itzulpen prozesua zehatz-zehatz nola izan den adierazten duten liburu kopurua askoz ere txikiagoa izan da (%29,31).

Liburuz liburu begiratzuz gero datuak, *Obabakoak*-en itzulpenek ematen dute argien itzulpenaren nondik norakoan berri. *Bi anai*, *Gizona bere*

*bakardadean* eta *Soinujolearen semea* eleberrien itzulpen gehienek ere nahiko argi erakusten dute. Aitzitik, *Zeru horiek* edo *Behi euskaldun baten memoriak* liburuek zeharo ezkututzen dute itzulpen prozesua.

Hizkuntzei dagokienez, gaztelania da zalantzarik gabe itzulpen prozesuari buruzko informazio gutxien eman duen hizkuntza. Bestalde, katalanezko hainbat itzulpenetan jatorrizkoaren izenburua euskaraz agertu arren, itzulpen prozesuaren inongo daturik ez da ematen. Galegoz ere, ez da argi adierazten, oro har, itzulpen prozesua zer nolakoa izan den. Frantsesak, alemanak eta ingelesak, aldiz, nahiko argi erakusten dute gaztelaniatik eginiko itzulpenak izan ohi direla maiz, nahiz eta itzulpen prozesuaren nondik norakoak ez eman zehatz-mehatz. Itzuleraz, gaztelaniazkoaren datuak eman ohi dira sarri, baina ez dute espreski adierazten zeharkako itzulpena izan den kasuetan. Hori guztia kontuan izanik, zera esan dezakegu, hizkuntza batzuek koherentziaz jotzen dutela eta sistematikoki beti ematen dutela itzulpenaren berri. Beste hainbatetan datuak ez dira oso argi ematen edo itzulpena ez da beti aitortzen. Hor igar daiteke hizkuntza bakoitzak edo literatur sistema bakoitzak itzulpenekiko erakusten duen jarrera.

Datuek erakutsi digutenez, gaztelaniazko itzulpenen kasua gainerakoekin alderatuta ezberdina da. Besteetan argiago aitortu ohi da liburuaren itzulpen izaera. Sistema nagusiak barne itzulpentzat jotzen duenez, naturaltzat jotzen da eta ezkutatu egiten da hainbatetan. Autoitzulpena ere egiten denez, errekonozimendu falta ageri da, eta autore rola nabarmentzen da itzultzailearena ixilduz. Itzulpena ez aitortzea pentsaezina litzateke bi sistema nagusiren arteko harremanean (gaztelaniatik alemanerako itzulpenetan, kasu); euskaratik gaztelaniarako hizkuntza parean, ordea, normaltzat jotzen da.

Azkenik, ikusi ahal izan dugunez, itzulpen bidearen aitortza zehazkiago egin ohi da helduentzako literatur lanetan haur eta gazte literatur lanetan baino. Gogoan har dezagun Even-Zoharrek (1990) aipatzen duen sistemaren estratifikazioa: bere hitzetan, hizkuntza guztiak eta literatur sistema guztiak maila ezberdinetan banaturik daude eta hainbat arlo (helduentzako literatura, kasu honetan) kanonizatuago daude beste batzuk baino (HGL, ikus daitekeenez). Eta estratu bakoitzean arau batzuek garrantzia handiagoa izango dute beste estratu batzuetan baino. Horrexegatik, itzulpen prozesua batean bestean baino argiago emateak garrantzia handiagoa izan dezake.

## 6.4 BEHIN BETIKO CORPUSA

Lehenengo corpusaren deskribapena egin ostean, Bernardo Atxagaren lanen azterketa zabala egin daitekeela ikus dezakegu, euskarazko jatorrizko eta xede hizkuntzetara itzuli diren testuen arteko hainbat alderaketa.

Itzulpen moten artean zein alde egon daitekeen ikusteko egin beharreko azterketa testualerako zabalegia zaigu lehenengo corpus hori, bai hizkuntza kopuruari dagokionez eta baita lan kopuruari dagokionez ere. Horrexegatik,

hainbat irizpide erabiliz pixka bat mugatuko dugu, bigarren corpusa ahal bezain adierazgarriena eta erabilerraza izan dadin aldi berean.

Gure asmoa corpus mugatu hori ahalik eta errepresentatiboena izatea da. Horrexegatik, bigarren corpusa zehazteko, batetik, gehien itzuli diren lanak aukeratuko ditugu, hau da, hizkuntza kopuru zabalenera itzuliriko lanak. Bestalde, hizkuntzei dagokienez, liburu gehien jaso duten hizkuntzak aztertuko ditugu. Ondorengo corpusean, genero guztiak bilduko ditugu, ahalik eta errepresentatiboena izan dadin. Eta azkenik, kronologiari dagokionez ere, lanik zaharrenak eta berrienak biltzen saiatuko gara, denbora tarte ezberdinetan argitaraturiko liburuak jasoz. Idazkuntza denboran zehar eboluzionatzen joaten da, itzulpenarekin batera, eta gure asmoa bilakaera hori jasotzea izango da. Beraz, 1980. hamarkadako hainbat lanetatik hasi eta 2003ra arteko lanak jaso ditugu.

Hartzaile mota ere kontuan izan dugu. Bernardo Atxagaren lanetan, eta, oro har, euskaratik itzuliriko lanetan haur eta gazte literatura eta narratiba izan dira generorik itzulienak. Beraz, helduentzako literaturarekin batera haur eta gazteentzako liburuak bildu ditugu behin betiko corpusean. Poesia lanak alde batera utzi ditugu oraingoz, konplexutasun handia ekarriko lukeelako horiek lehen hurbilketa honetan kontuan hartzeak. Bestalde, Bernardo Atxagak berak bidalitako posta elektronikoko batean ondokoa agertzen zigun: “poesia kontuetan ‘itzulpena’ esatea ez da oso zilegi. Bertasioak dira, nire ustez”<sup>53</sup>. Beraz, behin betiko corpusean poesia lanak alde batera uztea egokia iruditu zaigu. Saiakera lanak ere landu ditu Atxagak, baina kopuru txikian eta ez dira hainbeste itzuli beste hainbat lanekin alderaturik.

Jarraian aurkezten dugun taulan, bigarren corpusa zehaztuko dugu, aipatu berri ditugun irizpideen arabera. Bertan, Bernardo Atxagaren 12 lan jasotzen dira eta zazpi xede hizkuntza daude ordezkaturak. Sailkapen hori horrela egiteko honako muga hauek ezarri ditugu: batetik, aukeratutako lanak gehien itzuli diren lanak dira. Lan horiek guztiak gutxienez lau hizkuntzatara itzuliak izan dira<sup>54</sup>. Corpus honetatik kanpo geratu diren gainontzeko lanak hiru hizkuntzatara edo gutxiagotara itzuli dira. Bestalde, xede hizkuntzei dagokienez, gaztelania, katalana, galegoa, frantsesa, ingelesa, alemana eta italiara aukeratu ditugu. Hizkuntza horiek izan dira bost itzulpen baino gehiago jaso dituzten hizkuntza bakarrak. Hizkuntza horiek osatzen dute, batetik, espainiar estatuko hizkuntzen zirkuitu nagusia, eta, bestetik, Europako hizkuntza nagusien zirkuitua. Azkenik, beharrezkoa iruditzen zaigu halako ikerketa bat gauzatzeko gure hizkuntza-gaitasunari buruzko iruzkin bat gehitzea: aipatu hizkuntza guztiak ezagutzen ditugu, nahiz eta gure gaitasuna guztietan ez den maila berekoa.

<sup>53</sup> 2007ko otsailaren 24an bidalitako mezu elektronikoa adierazia.

<sup>54</sup> *Zazpi etxe Frantzia*n eleberririk sei itzulpen izan ditu, baina corpusa zehaztu ondoren eta azterketa aurreraturik geneukala argitaratu ziren bai jatorrizkoa eta bai itzulpenak, beraz, ez dugu bertan jaso.

Ondorengo dugu bigarren corpusa:

**6-6 Taula. Behin betiko corpusa: 2. corpusa**

	eus	gazt	kat	gal	fr	ing	ale	it
1	BL	X	X / X	X	X	X		X
2	STX	X	X / X	X		X / (X)		X
3	BA	X	X		X	X		X
4	OBB	X	X	X	X	X	X	X
5	BEBM	X	X	X	X		X	X
6	GBB	X	X		X	X	X	X
7	ZH	X	X			X	X	X
8	XL	X	X		X		X	X
9	XB	X	X		X		X	
10	SIG	X	X	X	X			X
11	BLU	X	X				X	X
12	SS	X	X	X	X	X	X	X
	Guztira	12	14	6	9	7 (+1)	8	11

Hori izango da hemendik aurrera erabiliko dugun behin betiko testu corpusa, eta hori oinarri harturik abiatuko ditugu hemendik aurrerako azterketak ere. Hori egin aurretik, ordea, corpus honen deskribapen xehea egingo dugu hurrengo atalean.



**7**

# corpusaren deskribapena

---

Atal honetan, corpusa bera deskribatuko dugu. Lehenengo eta behin, corpusa datu orokorretan aztertuko dugu eta, jarraian, corpusean ditugun testuak deskribatuko ditugu. Batetik, liburuak berak emandako informazioa jasoko dugu, eta, bestetik, liburuaz kanpo hainbat iturritatik jaso dugun informazioa ere baliatuko dugu aurreko datuak osatzeko. Datu horiek Gerard Genettek *Paratexts. Thresholds of interpretation* (1997) liburuan erabiltzen duen paratestu tipologiaren bitartez emango ditugu (4.1 atalean emandako definizioaren arabera). Gogora dezagun paratestuak bi motatakoak izan daitezkeela: liburuetan bertan ematen direnean, peritestuez hitz egingo dugu, eta liburuaz kanpo eskuraturiko datu guztiak epitestu modura sailkatuko ditugu.

Datu orokorrez eta paratestuez gain, itzultzaile eta argitaletxeen inguruko informazioa ere bildu nahi izan dugu atal honetan, hasierako ikuspegi ahalik eta zabalena emateko asmoz.

## 7.1 BEHIN BETIKO CORPUSAREN IKUSPEGI OROKORRA

Aurreko atalean Bernardo Atxagaren lanen behin betiko corpus murriztua aurkeztu dugu (187. orrialdean). Lehen begiratu batean, datu deigarrienak honakoak iruditu zaizkigu:

- Datu gordinak
  - 8 hizkuntza bildu ditugu: jatorrizkoa eta 7 xede hizkuntza.
  - Guztira, 12 dira jatorrizko liburuak.
  - 80 testu daude guztira.
  - 68 bitestu daude guztira. Gogora dezagun bitestuak –Harrisek 1988an Itzulpen Ikasketetan sortutako nozioa– parekaturiko testu bikoteak direla. Ondoren aurkezten dugun taula honetan, bitestu guztiak ikus daitezke, jatorrizkoa xede itzulpenaren ondoan jarririk.

7-1 Taula. Corpuseko bitestuak

Liburuak	Bitestuak
BL	BLEus-BLgazt
	BLEus-BLkat1
	BLEus-BLkat2
	BLEus-BLgal
	BLEus-BLfr
	BLEus-BLit
	BLEus-BLing
STX	STXeus-STXgazt
	STXeus-STXkat1
	STXeus-STXkat2
	STXeus-STXgal
	STXeus-STXing1
	STXeus-STXit
	STXeus-STXing2
BA	BAeus-BAgazt
	BAeus-BAkat
	BAeus-BAfr
	BAeus-BAing
	BAeus-BAit
OBB	OBBeus-OBBgazt
	OBBeus-OBBkat
	OBBeus-OBBgal
	OBBeus-OBBfr
	OBBeus-OBBing
	OBBeus-OBBale



	OBBeus-OBBit
BEBM	BEBMeus-BEBMgazt BEBMeus-BEBMkat BEBMeus-BEBMgal BEBMeus-BEBMfr BEBMeus-BEBMale BEBMeus-BEBMit
GBB	GBBeus-GBBgazt GBBeus-GBBkat GBBeus-GBBfr GBBeus-GBBing GBBeus-GBBale GBBeus-GBBit
ZH	ZHeus-ZHgazt ZHeus-ZHkat ZHeus-ZHing ZHeus-ZHale ZHeus-ZHit
XL	XLeus-XLgazt XLeus-XLkat XLeus-XLfr XLeus-XLale XLeus-XLit
XB	XBeus-XBgazt XBeus-XBkat XBeus-XBfr XBeus-XBale
SIG	SIGeus-SIGgazt SIGeus-SIGkat SIGeus-SIGgal SIGeus-SIGfr SIGeus-SIGit
BLU	BLUeus-BLUgazt BLUeus-BLUkat BLUeus-BLUale BLUeus-BLUit
SS	SSeus-SSgazt SSeus-SSkat SSeus-SSgal SSeus-SSfr SSeus-SSing SSeus-SSale SSeus-SSit

- Hizkuntzaka
  - Gaztelaniaz, 12 liburuen itzulpen bana daukagu.
  - Katalanez, 12 liburuen itzulpenak dauzkagu. BL eta STX liburuek bina itzulpen izan dituzte.
  - Galegoz, guztira, 6 itzulpen izan dira: BL, STX, OBB, BEBM, SIG eta SS.
  - Frantsesez, guztira, 9 itzulpen: STX, ZH eta BLU kenduta beste guztiak.
  - Ingelesezt, guztira, 7 itzulpen argitaratu dira, eta beste argitaragabe bat (STX) ere badaukagu.
  - Alemanez, 8 itzulpen aurkitu ditugu guztira: *Obabakoak*-en aurreko hiru lanak (BL, STX eta BA) eta XB kenduta beste guztiak.
  - Italieraz, 11 itzulpen guztira: XB ez beste liburu guztienak.
  
- Liburuka
  - *Soinujolearen semea* eta *Obabakoak* dira corpuseko hizkuntza guztietara itzuli diren lan bakarrak.
  - *Gizona bere bakardadean* galegora izan ezik corpuseko hizkuntza guztietara itzuli da.
  - *Behi euskaldun baten memoriak* ingelesera izan ezik hizkuntza guztietara itzuli da.
  - *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* alemanez izan ezik beste hizkuntza guztietan dago.
  - *Sugeak txoriari begiratzen dionean*, *Bi anai*, *Zeru horiek*, *Xolak badu lehoien berri* eta *Sara izeneko gizona* bost hizkuntzatara itzuli dira guztiak ere.
  - *Xola eta basurdeak* eta *Bambulo*. *Lehen urratsak* lau hizkuntzatara itzuli dira.
  
- Generoa
  - Generoei dagokienez, poesia eta saiakera bazter utzi ondoren, 8 haur eta gazte literatur liburu eta 4 helduentzako narratibazko liburu ditugu.
  - Haur eta gazte literatur liburuen artean, *Xola* saileko bi liburu eta “*Bambuloren istorio bambulotarrak*” bildumako ale bat jaso ditugu haur txikienei zuzenduak, eta gazteentzako liburuen artean sailka ditzakegu *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, *Sugeak txoriari begiratzen dionean*, *Behi*

*euskaldun baten memoriak* eta *Sara izeneko gizona*. Aurrez aipatu bezala, lehenengo bi kontakizunak helduentzako literatur lan modura ere argitaratu dira zenbait hizkuntzatan.

- Helduei zuzenduriko liburuen artean, ipuin bilduma bat jaso dugu, *Obabakoak*, eta lau eleberri: *Bi anai*, *Gizona bere bakardadean*, *Zeru horiek* eta *Soinujolearen semea*.
- Kronologia
  - Kronologiari dagokionez, libururik zaharrenak *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* eta *Sugeak txoriari begiratzen dionean* dira, 1984koak biak ere; ondoren, *Bi anai*, 1985ekoa; jarraian, *Obabakoak* (1988), *Behi euskaldun baten memoriak* (1991), *Gizona bere bakardadean* (1993), *Zeru horiek* eta *Xolak badu lehoien berri* (1995), *Sara izeneko gizona* eta *Xola eta basurdeak* (1996), eta *Bambulo lehen urratsak* (1998). *Soinujolearen semea* da behin betiko corpusean bildu dugun lanik berriena, 2003an argitaratua euskaraz.

7-2 Taula. Taula kronologikoa

		Eus	gazt	kat	gal	fr	Ing	ale	It
1	BL	1984	1990	1990/ 2001	1990	1995	2009		2001
2	STX	1984	1990	1990/ 2001	1992		2009/ (-)		2001
3	BA	1985	1995	2001		1996	2001		2001
4	OBB	1988	1989	1990	2008	1991	1992	1991	1991
5	BEBM	1991	1992	1993	1998	1994		1995	1992
6	GBB	1993	1994	1995		1995	1996	1997	1996
7	ZH	1995	1996	1999			1999	1999	1998
8	XL	1995	1995	1995		1999		1997	1998
9	XB	1996	1997	1998		1999		1998	
10	SIG	1996	1996	1997	1998	2000			2000
11	BLU	1998	1998	1999				2000	2000
12	SS	2003	2004	2004	2005	2007	2007	2006	2007

- Itzulpenen argitalpen datei dagokienez, berriz, gaztelaniaren kasuan, itzulpen zaharrena *Obabakoak* liburuarena da, 1989koa. Ondoren etorri ziren *Sugeak txoriari begiratzen dionean* eta *Bi letter* (1990), *Behi euskaldun baten memoriak* (1992), *Gizona bere bakardadean* (1994), *Xolak badu lehoien berri* (1995), *Zeru horiek* eta *Sara izeneko gizona* (1996), *Xola eta basurdeak* (1997) eta *Bambulo lehen urratsak* (1998) eta *Soinujolearen semea* (2004). Ikus dezakegunez, *Obabakoak*-en

ondorengo liburu guztiak euskarazkoa argitaratu den urte berean edo urtebete beranduago argitaratu dira gaztelaniaz. Liburu guztietan lehenengo gaztelaniazko itzulpena agertu da eta ondoren etorri dira gainerako hizkuntzetarakoak. Beraz, hori da kanporako lehen urratsa eta gainerako itzulpenak nolabait baldintzatuko dituen.

- Katalanaren kasuan, *Obabakoak*, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* eta *Sugeak txoriari begiratzen dionean* liburuak 1990ean argitaratu ziren, eta, ondoren, *Behi euskaldun baten memoriak*, 1993an; *Gizona bere bakardadean* eta *Xolak badu lehoien berri*, 1995ean; *Sara izeneko gizona*, 1997an; *Xola eta basurdeak*, 1998an; *Zeru horiek* eta *Bambulo, lehen urratsak*, 1999an. Baren itzulpena eta BL eta STX liburuen bigarren bertsioak 2001ean plazaratu ziren eta *Soinujolearen semea* eleberria 2004an. Katalanezko liburu gehienak ere euskarazkoaren eta gaztelaniazkoaren nahiko segidan argitaratu izan dira, bi urteren barruan beti ere. *Zeru horiek* liburuaren itzulpena berantiarra izan zen, hiruzpalau urte beranduago argitaratu baitzen. Bestalde, jatorrizkoaren eta xede testuaren arteko denbora alde handiena *Contes d'Obaba* liburuak izan du. *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, *Sugeak txoriari begiratzen dionean* eta *Bi anai* liburuak biltzen dituen alea izan zen, 2001ean argitaratua, hau da, euskarazko jatorrizkoak baino 14-15 urte beranduago eta ipuin berak biltzen dituen gaztelaniazkoa baino sei urte beranduago.
- Galegoz, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* 1990ean argitaratu zen; *Sugeak txoriari begiratzen dionean*, 1992an; *Behi euskaldun baten memoriak* eta *Sara izeneko gizona*, 1998an, eta *Soinujolearen semea*, 2005ean. Galegoz argitaraturiko liburuak ere nahiko segidan argitaratu dira, BEBM liburuaren itzulpena izan ezik, 1998an argitaratu baitzen; euskarazkoa baino 7 urte beranduago. *Obabakoak* liburuaren itzulpena da berriena, 2008an argitaratua, jatorrizkoa baino 20 urte beranduago.
- Frantsesaren kasuan, *Obabakoak* 1991an argitaratu zen, eta, horren atzetik, *Behi euskaldun baten memoriak*, 1994an; *Gizona bere bakardadeank* eta *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, 1995ean; *Bi anai*, 1996an, *Xolak badu lehoien berri* eta *Xola eta basurdeak* HGL liburuak, 1999ean; *Sara izeneko gizona*, 2000an, eta, 2007an, *Soinujolearen semea*. Frantsesera itzuliriko liburuak jatorrizkoarekin denbora alde nahiko txikiarekin itzuli dira, bi, hiru edo lau urte beranduago gehienetan. Denbora alde handiena BL

liburuaren itzulpenak izan du, euskarazkoa baino 11 urte eta gaztelaniazkoa baino 5 urte beranduago argitaratua.

- *Obabakoak* liburua 1992an argitaratu zen ingelesez, eta ondoren etorri ziren *Gizona bere bakardadean*, 1996an; *Zeru horiek*, 1999an; *Bi anai*, 2001ean, eta *Soinujolearen semea*, 2007an. *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* eta *Sugeak txoriari begiratzten dionean* narrazioak *Two Basque Stories* izeneko liburuki bakarrean argitaratu dira, 2009an, hots, jatorrizkoak baino 25 urte beranduago. Bestalde, STX liburuaren itzulpen argitaragabe bat ere topatu dugu Amaia Gabantxok egin. Liburu gehienak nahiko segidan argitaratu dira ingelesez, BAren itzulpena eta BL eta STX izan ezik, euskarazkoa baino 16 eta gaztelaniazkoa baino 6 urte beranduago argitaratu baitzen lehenengoa, eta, beste bi liburuak, jatorrizkoa baino 25 urte beranduago.
- *Obabakoak* 1991an itzuli zen italierara, eta *Behi euskaldun baten memoriak*, 1992an. Ondoren, *Gizona bere bakardadean* argitaratu zen, 1996an, eta *Xolak badu lehoien berri*, *Xola eta basurdeak* HGL liburuak eta *Zeru horiek* eleberria, 1998an. *Sara izeneko gizona* eta *Bambulo, lehen urratsak* 2000. urtean argitaratu ziren eta, 2001ean, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, *Sugeak txoriari begiratzten dionean* eta *Bi anai* biltzen dituen *Storie di Obaba* liburua. Azkenik, 2007an argitaratu zen *Soinujolearen semea*. Liburu gehienek lau urte inguru behar izan dituzte italieraz kaleratzeko, eta *Storie di Obaba* liburuak behar izan du denborarik gehien, euskarazkoa baino 16 eta gaztelaniazkoa baino 6 urte beranduago argitaratu baitzen.
- Alemanaren kasuan, *Obabakoak* 1991an argitaratu zen; *Behi euskaldun baten memoriak*, 1995ean; *Gizona bere bakardadean* eta *Xolak badu lehoien berri*, 1997an; *Xola eta basurdeak*, 1998an; *Zeru horiek*, 1999an; *Bambulo. Lehen urratsak*, 2000an, eta, azkenik, *Soinujolearen semea*, 2006an. Hizkuntza honetara eginiko liburuen itzulpenak nahiko denbora tarte txikia behar izan dute; euskarazko jatorrizkoak baino hiruzpalau urte beranduago argitaratu dira, orokorrean.

Ikus dezakegunez, nahiz eta jatorrizkoak 80. hamarkada hasieratik aurrerakoak izan, itzulpen gehien-gehienak 90. hamarkadakoak dira. Obraren estatusa aldatzen denetik, sari nazionalari esker, itzultzeko abiadura eta itzulpen kopurua nabarmen hazi dira. Lehenago itzulpen bat edo beste egiten bazen, ordutik aurrera jatorrizkoaren oso jarraian eta hizkuntza askotara itzuliko da.

Hemen aurkeztu ditugun datuak nahiko orokorrak dira. Hurrengo atalean paratestuek diotena xehe-xehe aurkeztuko dugu, liburuka, hemen aurkezturikoak osatze aldera.

## **7.2 PERITESTUEN LIBURUZ LIBURUKO AZTERKETA**

Corpusean bilduriko liburuen aurkezpena egingo dugu hemen, eta, horretarako, liburuetan biltzen den informazioa erabiliko dugu. Batetik, jatorrizkoak nolakoak diren, nork argitaratu dituen eta zein generotakoak diren azalduko dugu, eta, jarraian, liburu bakoitzaren laburpena emango dugu. Ondoren, itzulpenak aurkeztuko ditugu, eta horietan biltzen den informazioa aztertuko dugu: itzulpen prozesuaren inguruan ematen duten informazioari erreparatuko diogu bereziki, itzulpena zein motatakoa izan den definitzeko. Genettek peritestu modura definitzen duen informazio guztia izango dugu kontuan; hau da, liburuan bertan testuaz gain dagoen guztia arakatuko dugu: liburuen azaletatik hasi, kredituen orrietatik pasa eta hitzaurre edo epilogoetara arte. Itzulpen prozesua aitortzen ote den, non eta nola deskribatuko dugu.

Liburuak banaka-banaka aurkeztuko ditugu, euskaraz argitaratu diren ordena kronologiko berean.

### **7.2.1 *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian (1984)***

#### **7.2.1.1 Jatorrizkoa**

Haur eta gazte literatura barruan sailkatu behar dugu liburu hau, gazteentzat idatzirikoa kontakizuna baita. Euskarazko liburuan, Erein argitaletxearen Auskalo-Bumeran sailean argitaraturikoan, kontakizuna 12 urtetik aurrera irakurtzeko gomendioa egiten da.

Liburuak guztira 100 orrialde inguru ditu, 10.183 hitz guztira. Osorik erabiliko dugu corpusean.

#### **7.2.1.2 Argumentua**

Liburu honetako pertsonaia nagusia Martin Agirre da, gaztetan Obabatik Ameriketara joandako artzain euskalduna. Old Martinek bat-batean Euskal Herritik bi gutun jasoko ditu, bere bi lagun minen heriotzaren berri emanez. Horien kariatara, oroitzapenak bizi-bizi agertuko zaizkio. Jaioterriko eta gaztetako kontuak azalduko ditu liburuan, egun, Ameriketan, Boisen, duen bizimoduaren nondik norakoak tartekatuz. Kontakizunaren erdigunea, gaztetan, Obaban, bere bi lagunek eginiko harrijasotze apustua izango da. Euskalduna izanik, eta Euskal Herrira itzultzeko asmoz pasa dituen urteak Ameriketan, euskal narrazioan ingelesezko hitzak tartekatuko ditu. Atxagaren lan askok du izaera heteroglosiko hori. Pertsonaia nagusia ingelesez ez dela

ongi moldatzen erakutsiko da hizketa elebidun horren bitartez, eta horrexegatik ezin duela nahi bezain ongi komunikatu bere bilobarekin.

### 7.2.1.3 Itzulpenak

Liburu honen 7 itzulpen topatu ditugu: gaztelaniaz, katalanez (2), galegoz, frantsesez, italieraz eta ingelesez; alemanera, berriz, ez da itzuli.

Gaztelaniaz, hainbat argitalpen izan ditu kontakizunak. Ediciones B-n, Hora cero sailean, *Sugeak txoriari begiratzten dionean* narrazioarekin batera argitaratu zenean, adin zehaztapenik ez zuen azaldu liburuak. Hala ere, letra tamaina nahiko handia da, haur eta gazte literaturan ohikoa denez. Argitaletxe berean baina Via Libre sailean izandako argitalpena tamaina txikiko liburua da, eta helduei zuzenduago dago. Bestalde, *Historias de Obaba* liburua –BL, STX eta BA biltzen dituena– helduei zuzenduriko argitalpena da.

Gaztelaniarako itzulpena Arantza Sabánek egin da; beraz, egilea ez den beste itzultzaile batek itzuli du. Kontakizun hau ez da bera bakarrik argitaratu: hainbat argitalpen izan ditu STXekin batera, *Dos letters* izenburupean, eta beste hainbat, *Historias de Obaba* izenburupean, STX eta BArekin batera. Guztietan ere, argi agertzen da kontakizunaren itzultzailea Arantza Sabán dela. Jatorrizkoaren izena ere argi agertzen da kredituetan.

Katalanezko itzulpenak bi argitaletxeren eskutik argitaratu ziren. Bi argitalpen horietan ez da inondik inora ageri adinaren inguruko erreferentziarik. Lehenengoa Edicions B-k Via lliure bilduman argitaratu zuen, eta izen bereko gaztelaniazko sailaren argitalpenaren itxura bera du. Bestalde, *Contes d'Obaba* liburua Magrana argitaletxeak argitaratu zuen, eta helduei zuzenduriko argitalpena dela esan dezakegu.

Paratestuen arabera, kontakizun honen bi itzulpen egin dira katalanera: lehenengoa, *Dues Letters* liburuan argitaratua, Marta Hernándezek egin zuen 1990. urtean, eta bestea, *Contes d'Obaba* liburuan agerturikoa, Pau Joan Hernándezek egin, 2001. urtean. Bietako batean ere ez da argi agertzen zein izan den itzulpena egiteko erabili den jatorrizkoa, itzultzailearen izena soilik agertzen baita. Bestalde, kredituetan, jatorrizkoen izenburuak euskaraz agertzen dira; beraz, itxura batera, itzulpen zuzenak izan daitezkeela pentsa dezakegu.

Galegozko alea Galaxia argitaletxearen eskutik etorri zen, eta, bertan, aurrekoetan bezala, ez da adinaren inguruko erreferentziarik ageri. Galegorako itzulpena, zeharkakoa, Leandro García Bugarínek egin da. Costa Oesteren 2005eko argitalpeneko kredituetan argi irakur daitekeen moduan, itzulpena autoreak gaztelaniara egin zuen bertsiotik egin zen (“A partir da versión castelá do propio autor”).

Galegoz argitaraturiko liburuaren arabera, autoreak berak egin zuen gaztelaniarako jatorrizkoaren itzulpena, baina, gaztelaniazko testuaren, argitalpen ezberdinetan, itzulpena Arantza Sabánek egin zuela adierazten zaigu. Beraz, kontraesana aurkitzen dugu batak zein besteak emaniko datuen

artean. Hipotesi modura esan dezakegu, autoreak itzulpen prozesuan duen presentzia (kasu honetan, itxuraz, faltsua) azpimarratzeak bermea eman ahal diola itzulpenari.

*Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* beste hainbat kontakizunekin batera argitaratu zen frantsesez *Un cheveu sur la langue* liburuan, *Le Serpent à Plumes* argitaletxearen eskutik. Argitalpenak adinaren inguruan ezer ez badio ere, helduentzat eginiko liburukia da, itxura guztien arabera. André Gabastouk egin zuen itzulpena gaztelaniatik, horrela ikus dezakegu azalaren atzealdean eta baita lehenengo orrietan izenburuaren azpian ere. Kredituetan, jatorrizkoen izenburuak gaztelaniaz agertzen dira.

*Two Basque Stories* izeneko liburuan argitaratu zen ingelesera eginiko itzulpena 2009an, STX narrazioarekin batera. Itzulpen hori, jatorrizkoa baino 25 urte beranduago argitaratua, oso berantiarra izan da, eta Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies-en eskutik argitaratu da. Liburuaren lehen orrietan nahiz kredituetan argi esaten denez, liburua euskaratik itzuli zuen Nere Letek: “Translated from Basque by Nere Lete”. Horretaz gain, jatorrizkoaren inguruko datuak ere agertzen dira kredituetan:

Bernardo Atxaga's *Two Basque Stories* was originally published as *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* and *Sugeak txoriari begiratzen dionean* by Erein (Basque Country-Spain) © 1984 (Atxaga, 2009b)

Italieraz, kontakizuna *Sugeak txoriari begiratzen dionean* eta *Bi anai* narrazioekin batera argitaratu zuen Einaudik *Storie di Obaba* liburuan. Bildumarengatik ondoriozta dezakegu helduei zuzenduriko argitalpena dela. Italierara eginiko itzulpena Paola Tomasinellirena da. Ez da argi eta garbi esaten itzulpena zein motatakoa den, baina kredituetan jatorrizkoaren izena *Historias de Obaba* dela ikus dezakegu, hau da, gaztelaniazko argitalpena – italizkoaren egitura bera aurkezten duena– eta hiru kontakizunak biltzen dituena.

Beraz, gaztelaniarako itzulpen zuzena beste itzultzaile batek egin dela diote paratestuek, nahiz eta galegozko alean bestelakorik esaten den. Ingeleserako itzulpena ere zuzena da, eta bi zeharkako itzulpen ere badauzkagu, galegora eta frantsesera eginak. Italierazkoaren kasuan, guztiz xehe esaten ez bada ere, nahiko argi ikus daiteke gaztelaniatik eginiko itzulpena dela. Katalanerako bi itzulpenetan, aldiz, ez da ematen itzulpenaren nondik norakoaren berri argirik.

## 7.2.2 *Sugeak txoriari begiratzen dionean* (1984)

### 7.2.2.1 Jatorrizkoa

Liburu hau haur eta gazte literatura barruan sailkatu behar dugu, gazteentzako idatziriko liburua baita. Erein argitaletxearen Auskalo-Bumeran saileko liburuan, kontakizuna 12 urtetik aurrera irakur daitekeela agertzen da.



Auskalo saileko beste argitalpen batean, berriz, ez da ageri adinaren inguruko erreferentziarik.

50 orrialde inguru ditu liburuak, 4.776 hitz guztira. Osorik erabiliko dugu corpusean.

### 7.2.2.2 Argumentua

Sebastian, hirian bizi den nerabea, Obabara joango da bere senideekin uda igarotzera. Izeba-osabek Aitona Martinen esku utziko dute mutikoa. Sebastian aspertu antzera ibiliko da, hiriaren aldean herrian zeregin gutxi izango baitu. Denborak aurrera egin ahala, gero eta erosoago sentituko da herrian, eta bere adinean ohikoa den lehen maitasuna ere ezagutuko du. Aitonak animaliekin duen harremanaren nondik norakoak ere argitzen saiatuko da, herrian bera izango baita errotat hartuko ez duen bakarria. Aitonaren gorabeherak zahartzaroari buruzko hausnarketa bultzatzen dute.

### 7.2.2.3 Itzulpenak

Liburu honen 7 itzulpen topatu ditugu: gaztelaniaz, katalanez (2), galegoz, italieraz eta ingelesez (2). Alemanera eta frantsesera, ez da itzuli.

Gaztelaniarako itzulpena Arantza Sabánek egin da; beraz, itzulpen alografoa. Kontakizuna ez da bakarrik argitaratu: *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* ipuinarekin batera argitaratu izan da gaztelaniaz, *Dos letters* izenburupean, eta baita *Historias de Obaba* izeneko liburuan ere, bi kontakizun horiek *Bi anai* eleberriarekin batera. Argitalpen ezberdinetan, kontakizunaren itzultzailea eta jatorrizkoaren izena kredituetan agertzen dira.

Bi itzulpen egin dira katalanera: lehenengoa Marta Hernándezek egin zuen 1990. urtean, eta, bestea, Pau Joan Hernándezek, 2001. urtean. Bi kasuetan ere, kontakizuna *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* kontakizunarekin batera argitaratu zen. Aurrez esan dugun moduan, bi liburuek ez dute azaltzen itzulpena zein hizkuntzatatik egin den. Bietan ala bietan ere, jatorrizko izenburuak euskaraz ageri direla ikus dezakegu kredituetan.

Galegozko itzulpena Martín Mendizábalek eta Xosé Manuel González Barreirok egin da, kredituetan agertzen denez. Ez dakigu ziur zein motatako itzulpena den, paratestuek ez diote inongo jatorrizkori erreferentziarik egiten eta.

Kontakizun honen bi itzulpen topatu ditugu ingelesez. Batetik, 2009an *Two Basque Stories* izeneko liburuan argitaraturikoa, BL kontakizunarekin batera. Aurrez aipatu dugun moduan, jatorrizkoak baino 25 urte beranduago argitaratu ziren bi ipuin horien itzulpenak. Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies izan zen argitaratzailea, eta Nere Lete, itzultzailea, lehen orrietan nahiz kredituetan irakur daitekeen moduan. Jatorrizkoaren izena ere irakur daiteke euskaraz kredituetan. Nere Leteren itzulpenaz gain, Amaia

Gabantxok eginiko beste bertsio argitaragabe bat ere eskuratu ahal izan dugu. Azken horren bitartez, azterketa testuala aberatsagoa izango dugu. Bertsio hori, euskarazko jatorrizkotik egina izan da. Aipagarria da bi itzulpenak ere alderantzizkoak izan direla, hau da, euskaldunek beraiek eginak ama hizkuntza ez duten ingelesera. Gure corpusean nahiko bazterreko fenomenoa bada ere, ohikoa izaten da hizkuntza gutxituetan (2005: 35), Pokornek dioen moduan.

Italierazko itzulpena Paola Tomasinellirena da, eta *Storie di Obaba* liburuan argitaratu zen. Jatorrizko hizkuntzari erreferentziarik egiten ez bazaio ere, jatorrizkoaren izenburua gaztelaniaz agertzen da kredituetan.

Kontsultaturiko itzulpenetan, euskarazkoan ez bezala, inongo kasutan ez dugu topatu adinaren inguruko erreferentziarik.

Laburbilduz, autorea ez den beste itzultzaile batek eginiko itzulpena daukagu gaztelaniaz. Bestalde, ingeleserako bi itzulpenak zuzenak dira, paratestuen arabera. Italierazko liburuan berariaz esaten ez bada ere, nahiko argi ikusten da gaztelaniazko eginiko itzulpena dela. Katalanerako bi itzulpenek eta galegozkoak ez dute informazio garbirik ematen itzulpen prozesuaren inguruan.

### **7.2.3 *Bi anai (1985)***

#### **7.2.3.1 Jatorrizkoa**

Liburu hau haur eta gazte literatura barruan sailkatu behar dugu. Gazteentzako idatziriko eleberria da. Kontsultatu ditugun argitalpenetan, ez da ageri adinaren inguruko erreferentziarik; ez euskaraz, ezta xede hizkuntzetan ere. Xede irakurlearen inguruko mugak lausoak izan daitezke, argitalpen bilduma edo sailaren arabera xede irakurle bati edo besteari zuzendurik egon baitaiteke kontakizuna.

110 orrialde inguru ditu liburuak, 19.015 hitz guztira. Osorik erabiliko dugu corpusean.

#### **7.2.3.2 Argumentua**

Eleberri honetako narratzaileak Obaba herriaren inguruan bizi diren txori, katagorri, suge eta antzarak izango dira. Horien ahotik ezagutuko du irakurleak Paulo eta Daniel anaien istorioa. Bi horien aitaren heriotzean du hasiera kontakizunak. Honek Pauloren esku utziko du adimen urriko Daniel anaiaren ardura. Bi anaietan gazteena mutiko ixil, zuzen eta zintzoa, etxeko nagusi, zerrategiko nagusi eta anaiaren arduradun nagusi izango da, eta azken eginbehar horrek duen pisua jasangaitza izango zaio. Anaiaren jokaeraz haraindi, aita eta ama beregan utziriko arduraren pisuak, osaba-izeba eta Carmen bere lehengusuaren handinahiak eta herritarrek Paulorengan ezarritako presioa izango zaio, hala ere, itogarrien. Nerabezaroan maitasunak

sorrarazten duen grina, heriotzaren gogorra edo marjinalitatea izango dira nobelan landuko diren gaietariko batzuk.

### 7.2.3.3 Itzulpenak

Liburu hau corpuseko 5 hizkuntzataraz itzuli da: gaztelaniara, katalanera, frantsesera, ingelesera eta italierara. Galegora eta alemanera, ez da itzuli.

Gaztelaniazko itzulpena, lehenengoz, 1995ean agertu zen Ollero y Ramos argitaletxearen eskutik, hau da, jatorrizkoa baino hamar urte beranduago. Itzulpena Bernardo Atxagak egin zuen; hau da, autoitzulpena da. BL eta STXekin batera ere argitaratu zen, 1997an, *Historias de Obaba* liburuan. Bakarka edo beste bi kontakizunekin batera argitaratu denean ere, itzultzailearen eta jatorrizko euskarazkoaren izenak ikus ditzake irakurleak kredituetan. Gaztelaniazko paratestuei dagokienez, liburuaren amaieran bada epilogo bat, eta, bertan, autoreak liburuaren gaztelaniaratzearen berri ematen digu. Jatorrizkoa eta itzulpenaren arteko distantziari buruz mintzatzen da, distantzia kronologikoa eta autorearen egoera pertsonalaren aldaketari buruz. Bestalde, autoitzulpenaren aurretik beste itzulpen saiakera bat izan zela ere aipatzen da:

Fue bastante leído en el País Vasco, y hubo incluso un intento de publicarlo en castellano –gracias al primer traductor del texto, Joseba Urteaga–, pero todo quedó en casi nada. Otros libros míos –“Dos letters”, “Obabakoak”– oscurecieron la marcha de “Bi anai” en el País Vasco, en tanto que fuera de él, al otro lado de la muralla, el silencio siguió total (Atxaga, 1995a).

Baren aurretik beste hainbat lan gaztelaniaratu zirela aipatzen du hor, eta, nolabait, bazterrean utzi zutela *Bi anai*-ren gaztelaniaratzea 1995ean azkenean argitaratu zen arte.

Katalanezko itzulpena Pau Joan Hernàndezek egin zuen, eta *Contes d’Obaba* liburuan argitaratu zen. Paratestuetan ez da ageri zein hizkuntzatatik egin zen itzulpena. Kredituetan, jatorrizkoaren izena euskaraz ageri da. Beraz, irakurleak itzulpena zuzenean egin izan dela pentsa dezake.

Frantseserako itzulpena gaztelaniatik egin zuen André Gabastouk, hala irakur dezakegu azalaren atzealdean eta liburuaren lehenengo orrietan, izenburuaren azpian. Kredituetan, jatorrizko izenburua euskaraz ageri da, eta ondoan dauka gaztelaniazko izenburua parentesi artean.

Ingeleseko itzulpena ere zeharkakoa da, gaztelaniatik egin; hala irakur dezakegu liburuaren lehen orrietan, izenburuaren azpian –“Translated from the Spanish by Margaret Jull Costa”–. Kredituetan, jatorrizkoa 1995ean gaztelaniaz argitaraturikoa dela ageri da, eta ez zaio euskarazkoari inongo erreferentziarik egiten.

Italierazko itzulpenean, ez da ageri itzulpena zein hizkuntzatatik egin den. Baina jatorrizkoaren izena gaztelaniaz ageri da kredituetan.

Gaztelaniazko argitalpenetan agerturiko gaztelaniaratzeko prozesuari buruzko epilogoaren itzulpena dator frantsesezko, ingelesezko eta italierazko itzulpenetan ere. Ez da inongo azalpenik ematen, ordea, xede hizkuntzetarako itzulpen prozesuari buruz.

Laburbilduz, autoitzulpen bat eta bi zeharkako itzulpen aitortzen dira liburuetan. Katalanezko eta italierazko bertsiok, berriz, ez dakigu zehatz-mehatz zein itzulpen bide egin duten, nahiz eta bigarrean jatorrizkoaren izena gaztelaniaz egonagatik, zeharkakoa dela ia segurutzat jo behar dugun.

Euskaraz gertatzen den moduan, xede testuetan ere ez da ageri adinaren inguruko erreferentziarik. Aurrez esan bezala, generoaren inguruko muga lausoa izan daiteke, argitaratzen den bilduma edo argialetxearen arabera.

## **7.2.4 Obabakoak (1988)**

### **7.2.4.1 Jatorrizkoa**

Liburu hau ipuin bilduma bat da: 26 kontakizun biltzen ditu, eta 403 orrialde ditu guztira. Helduentzako narratiba modura sailka dezakegu. Liburu guztia corpusean jasotzeak hori desorekatuko lukeenez eta testu azterketa motelduko lukeenez, testu kopurua mugatu dugu. Liburuko lehenengo hiru kapituluak hartu ditugu kontuan, 18.423 hitz guztira. Corpusean sartu beharreko lagina ausaz aukeratu baino nahiago izan dugu beste irizpideren bat baliatu. Aipaturiko lehenengo hiru kapitulu horiek euskaratik gaztelaniarako itzulpenean ordena aldaketa jasan dute, eta hori izan da testuaren lagina hautatzeko arrazoi nagusia.

### **7.2.4.2 Argumentua**

Liburu honetan, Obabako mundu imaginarioa plazaratuko du Atxagak. Obaba Euskal Herrian kokaturiko herria izango da, baina muga geografiko edo kronologiko argirik ez du azalduko. Toki imaginarioa izanik ere, bertan agertzen diren istorioak ezagunak egingo zaizkio irakurleari. Txikitan ezaguturiko tokia da Obaba, bizipenez beterikoa, eta luzaroan bizirik iraun duen garai baten amaieran kokatuko da.

Liburuan biltzen diren lehenengo bost narrazioak autoreak aurretiaz plazaratuak izan ziren, eta liburuan biltzeko berridatziak. Obabako mundu mitikoan kokatzen dira kontakizunak, nahiz eta horietariko azkena, liburuaren lehenengo eta bigarren atalen arteko zubi lana egiten duena, Villamediana toki errealaan kokatu. “Azken hitzaren bila” deritzan liburuaren bigarren atalean, oharpen literarioak eta hausnarketa metaliterarioak izango dira nagusi. Atal horretan, Obabarekiko uruntasuna nabaritu du irakurleak. Pertsonaiek istorioak kontatuko dituzte; batetik, originaltasunaren eta plagioaren inguruan, eta, bestetik, irudimenezko munduen existentziaren sinesgarritasunaz.

### 7.2.4.3 Itzulpenak

Liburu hau corpuseko xede hizkuntza guztietara itzuli da. Itzulpen guztiak ere nahiko jarraian etorri ziren. Galegorako itzulpena da salbuespena, 2008. urtean argitaratu baitzen.

Bernardo Atxagak berak itzuli zuen liburua gaztelaniara, hala agertzen da kredituetan. Ibon Sarasolaren hitzaurrearen ondoren eta “Infancias” izenburupean datorren liburuaren lehen atalaren artean, honako ohar hau ageri da: “Quiero agradecer a Joseba Urteaga, Bakartxo Arrizabalaga y Pilar Muñoa la ayuda que me prestaron a la hora de traducir este libro” (Atxaga, 1989a). Beraz, ikus dezakegunez, itzulpen prozesuan jatorrizkoaren egileaz gain, beste pertsona batzuk ere izan zuten arduraren bat.

Katalanerako itzulpena Marta Hernándezek egin zuen, 1990ean. Kredituetan, ez da ageri zein hizkuntzatatik egin den itzulpena, eta jatorrizkoaren izena euskaraz agertzen da. Kontuan izan behar da euskal izenburua hizkuntza gehienetan berdin mantendu dela, eta, jatorrizkoari erreferentzia egiten zaionean, ezin dugula jakin *Obabakoak* izeneko jatorrizko hori euskarazkoa ala gaztelaniazkoa den. 1990ean Ediciones B-k argitaratutako liburuan narrazioa hasi aurretik honako oharra ageri da:

Per desig exprés de l'autor, la traducció catalana d'aquesta obra s'ha fet a partir de la versió castellana del propi Bernardo Atxaga i no de l'original en llengua basca (Atxaga 1990a).

2005ean Edicions 62-k argitaraturiko liburuan, berriz, ohar editoriala guttiz desagertu da; ez digu ematen jatorrizko hizkuntzaren inguruko daturik. Amaierako autobiografia modukoa ere ez da ageri argitalpen horretan.

Galegora eginiko itzulpena oso berantiarra da, jatorrizkoa baino hogeitau urte beranduago argitaratua, 2008an. Itzultzailearen izena azalean bertan agertzen da, idazlearenaren azpian. Kredituetan ere, jatorrizkoaren izena agertzen da, eta horien azpialdean honako ohar hau ere bai:

Esta obra traduciuse ao galego desde a versión en castelán realizada por Bernardo Atxaga do seu orixinal en éuscaro. (Atxaga, 2008c: 4)

Frantseseko itzulpena gaztelaniazkoetik egina da. “Traduit de l'espagnol par André Gabastou” irakur dezakegu azalaren atzealdean eta lehenengo orrietan, izenburuaren azpian (Atxaga, 2007a: 5). Kredituetan, euskarazkoaren zein gaztelaniazkoaren argitalpen datuak agertzen dira. Azkenik, liburuaren amaieran, azken orrian, itzultzailearen oharra ageri da oin ohar gisa:

Obabakoak a fait l'objet en Espagne d'une double publication, l'une en basque (Editorial Erein, Saint-Sébastien, 1988), l'autre en espagnol (Ediciones B, Barcelone, 1989). La présent volume est une traduction du

texte castillan, selon la volonté de Bernardo Atxaga qui en est, par ailleurs, l'auteur (Atxaga, 2007a: 409).

Ohar horren bitartez, itzulpen bidearen inguruko datu guztiak argi eta garbi ematen ditu frantsesezko argitalpenak. Kontsultatu ditugun argitalpen guztietan, informazio bera agertzen da, guztiak ere Christian Bourgois argitaletxearen eskutik ateratakoak.

Ingeleseko itzulpena Margaret Jull Costak egin zuen gaztelaniazko bertsiotik. Hainbat argitalpen izan ditu, bai Erresuma Batuan eta baita Estatu Batuetan ere. Guztietan ere, itzulpenaren inguruko informazio bera topatu dugu barrualdeko peritestueta. Kasuren batean, itzulpenaren datuak azalaren atzealdean ematen dira: AEBetako Vintage-ek 1994an argitaraturikoan, "Translated from the Spanish by Margaret Jull Costa" ikus daiteke (Atxaga, 1994b), eta etxe berak 2007an Erresuma Batuan argitaraturikoak "Translated by Margaret Jull Costa" diosku (Atxaga, 2007b). Barrualdean, liburuaren lehen orrietan izenburuaren azpian guztietan ere, itzultzailearen izena ageri da. Narrazioa hasi aurretik, itzultzailearen ohar bat ere badator:

*Obabakoak* was originally written in Basque and published by Editorial Erein in 1988. This English translation is based on the author's own Spanish version, published by Ediciones B in 1989 (Atxaga, 1993: vii).

Itzulpen prozesua bere osotasunean ikus dezake irakurle anglosaxoiak aurreko ohar horretan.

Alemanerako itzulpena ere zeharkakoa da. Liburuaren lehenengo orrietan, izenburuaren azpian, "Aus dem Spanischen von Giò Waeckerlin Induni" irakur dezakegu. Kredituetan, berriz, euskarazkoaren izenburua eta beronen argitalpen datuak ere ageri dira, eta baita gaztelaniazkoaren argitalpen datuak ere.

Italierazko bertsioan, itzultzailearen izena lehen orrietan ageri da, eta jatorrizkoaren izena, kredituetan. Horien amaieran, honako ohar hau ere irakur dezakegu:

Publicato per la prima volta in lingua basca da Editorial Erein. Questa edizione è pubblicata d'intesa con Ediciones B S.A., Barcellona, Spagna. (Atxaga, 1991: II)

Euskaraz argitaratu zela esaten bada ere, eta gaztelaniazko argitalpenaren datuak ematen badira ere, ez du argi eta garbi azaltzen itzulpena zeharkakoa denik.

Datuak aztertutik, nahiko ongi ikus daiteke kasu guztietan bertsio bakoitzaren itzulpen bidea: guztira, autoitzulpen bat eta 6 zeharkako itzulpen dauzkagu.

## **7.2.5 Behi euskaldun baten memoriak (1991)**

### **7.2.5.1 Jatorrizkoa**

Liburu hau gazteentzako eleberria da. Euskarazko argitalpenetan ez da adinaren inguruko erreferentziarik ageri. Hala ere, Pamiela ttikia sailean argitaratu zen kontakizuna, hau da, haur eta gazte literaturari eskainiriko bilduma batean.

180 orrialde ditu guztira, 31.755 hitz. Bere osotasunean erabiliko dugu corpusean.

### **7.2.5.2 Argumentua**

Mo izeneko behi euskaldunaren gorabeherak izango dira liburu honen ardatz. Euskal Herriko baserri batean jaio zen gerra zibilaren ostean eta haurtzaroa Balantzategiko ukuiluetan igaroko du, baserriko gainontzeko behiekin batera. Ondoren, bizitzak beste bide batzuk hartzera eramango du, La Vache qui Rit bere lagunarekin lehenengo, bakarrik ondoren, eta Zuberoako komentu bateko larreetan emango ditu bere helduaroko egunak Pauline Bernardette mojaren alboan. Gazteei zuzenduriko eleberri honek guda ostea izango du istorioaren ardatz. Bakardadea, desertua, laguntasuna eta beste zenbait gai ere jorratuko dira behia narratzaile eta protagonista nagusi duen liburu honetan.

### **7.2.5.3 Itzulpenak**

Honako liburu hau corpuseko hizkuntza guztietara itzuli da, ingelesera izan ezik.

Gaztelaniarako itzulpena Arantza Sabánek egin da. Kotsultatutako liburuetan, datu hori kredituetan ikusi ahal izan dugu. 1992an SMk argitaratutako liburukiaren azal-hegaletan itzulpenaren inguruko informazioa irakur daiteke:

Escrito en Paris y traducido luego –por Arantxa Sabán– en Lekeitio, recibió su repaso final en una zona del sur de Francia llamada les Cévennes; un lugar que todavía conserva el recuerdo de un viajero que por allí pasó y por allí sufrió la cabezonería de una tal Modestine: Robert Louis Stevenson (Atxaga, 1992).

Ohar hori kontuan izanik, liburuaren gaztelaniaratzea elkarlana izan dela esan genezake; hau da, itzultzaileak itzuli zuen lana, eta errepasoa idazleak eman dio testuari. Kredituez gain liburuak biltzen duen informazioa kontuan hartu ez bagenu, itzultzaileak eginiko lana dela pentsatuko genuke. Beraz, peritestu guztiak kontuan izatea garrantzizkoa dela ikus dezakegu kasu honetan.

Liburua katalanera Teresa Maria Castanyerek itzuli zuen 1993an. Itzultzailearen izena kredituetan soilik ageri da, eta ez da esaten zein hizkuntzatatik itzuli duen liburua. Jatorrizkoaren izenburua euskaraz ageri da, baina jatorrizko argitalpenaren inguruko informazioa gaztelaniazko bertsioari dagokio. Kontsultatu ditugun argitalpen guztietan, informazio bera ageri da.

Galegoaren kasuan, katalanezkoan bezala gertatzen da; itzultzailearen izena, Valentín Arias, kredituetan soilik ageri da, eta, toki berean, euskaraz ageri da jatorrizkoaren izena, nahiz eta ematen diren argitalpen datuak gaztelaniazkoarenak izan.

Frantseserako itzultzailearen izena –André Gabastou– eta zein hizkuntzatatik itzuli duen –gaztelaniatik– liburuaren lehen orrietan izenburuaren azpian ageri da. Kredituetan, izenburu originala euskaraz agertzen da, eta, jarraian, gaztelaniazkoaren argitalpen datuak ematen zaizkigu: “édition originale publiée par Ediciones SM, Madrid, 1992”.

Alemanerako bertsioa Ludger Meesek eginiko zuzeneko itzulpena dugu. Liburu honen kredituetan, jatorrizkoaren izena euskaraz irakur dezakegu eta baita itzultzaileak zein hizkuntzatatik egin zuen lan ere: “Aus dem Baskischen von Ludger Mees”.

Italieraren kasuan, itzultzailearen izena, Agostino Perani, liburuaren lehen orrietan izenburuaren azpialdean agertzen da. Kredituetan, berriz, jatorrizkoaren izena euskaraz ageri da, baina copyright-ean agertzen diren argitalpen datuak gaztelaniazkoari dagozkio.

Gaztelaniazko, katalanezko, galegozko eta italierazko itzulpenak etxe beraren eskutik eta bilduma berean argitaratuak izan dira (El Barco de Vapor gaztelaniaz, El Vaixell de Vapor katalanez, O Barco de Vapor galegoz eta Il Batello a Vapore italieraz), eta hori azalean, liburuaren makrostrukturan eta paratestuetan ere nabari daiteke. Aipaturiko lau bertsio horien liburuaren kontraletan eleberria 12 urtetik gorako gazteei zuzendurik dagoela agertzen da. Bestalde, frantsesezko itzulpenean adinaren inguruko erreferentziarik agertzen ez bada ere, Catégorie 4-ren barruan kokatzen da liburua, Lecture Junior-en barruan.

Peritestuak emaniko datuak kontuan izanik, bi itzulpen zuzen dauzkagu, gaztelaniara eta alemanera: lehenengoa, itzultzaileak egin eta autoreak erreparatua; bigarrena, beste itzultzaile batek egin. Zeharkako itzulpena ere aitortzen da frantsesez, eta, gainontzeko hiru itzulpenetan, liburuak ez dute ageri eta garbi esaten zein itzulpen mota erabili den.

## **7.2.6 Gizona bere bakardadean (1993)**

### **7.2.6.1 Jatorrizkoa**

Helduentzako suspense eleberria dugu honako hau, Pamiela argitaletxearen eskutik argitaratua. Guztira, 349 orrialde ditu eta, *Obabakoak*-ekin eta *Soinujolearen Semea*-rekin batera, Atxagaren liburu



luzeenetarikoa dugu. Corpusean 20.143 hitzetako lagin murriztu bat jaso dugu. Hautaketa egiteko arrazoi sendorik ez dugu aurkitu, kontaketa jarraia da eta. Beraz, aurrerago egingo dugun azterketa testualerako lagina ausaz aukeratu dugu. Liburuaren lehen 100 orriak hartu ditugu azterketa egiteko, hau da, testu osoaren %25 inguru.

### 7.2.6.2 Argumentua

Carlos, eleberriko pertsonaia nagusia, garai batean organismo armatu bateko militantea izan zen, eta, egun, Bartzelona inguruko hotel bateko okindegiaren arduraduna da. Gizon bakartia da Carlos. Organismoan kide izan zituen lagun batzuekin batera ireki zuen hotela, Euskal Herritik kanpo. Hainbat urtetan organismotik urrundurik eman eta gero, atentatu bat egin duen bikotea ezkutatuko du okindegiko sotoan. Ekintza horren nondik norakoak eta pertsonaiaren barne egoera izango dira liburuaren helduleku nagusiak. Batetik, bi aktibistak gorde izanak bere mugimenduak kontrolatu beharra ekarriko dio, poliziaren presentzia gero eta nabarmenagoa izango baita. Bestalde, egun pairatzen duen bakardadea, iraganaren pisua eta bere barne gatazkak izango dira istorioaren ardatz.

### 7.2.6.3 Itzulpenak

Liburu hau gaztelaniara, katalanera, frantsesera, ingelesera, alemanera eta italierara itzuli da, hau da, galegoa izan ezik gainontzeko hizkuntza guztietara.

Gaztelaniarako itzulpena Arantza Sabán eta Bernardo Atxagaren artean elkarlanean egin izan da, paratestuetan agertzen denez.

Pau Joan Hernándezek egin zuen katalanerako itzulpena. Paratestuetan irakurri dugunaren arabera, nahiko nahasmendu bada itzulpen honen inguruan. Columna argitaletxeak 1995ean argitaratutako liburuan, itzultzailearen izena soilik irakur dezakegu. 1996an Cercle de Lectors etxeak argitaratutako liburukiaren hasieran, itzultzailearen izena ageri da izenburuaren azpian. Kredituetan jatorrizkoaren izena euskaraz ageri da, eta, jarraian, honako oharra: “Traducció del castellà de Pau Joan Hernández”. Bromera argitaletxeak 1995an argitaratutako edizioan, berriz, itzultzailearen izena copyrightaren datuetan soilik irakur daiteke. Itzulpenaren inguruan, ondorengo azaltzen du: “aquesta novela és traducció directa i íntegra de l’original *Gizona bere bakardadean*”. Hiru liburuetako itzulpena berbera denez, argitaletxeren batek datu okerrak eman ditu. Liburu honen kasuan, informazio peritestuala argigarria ez denez, haratago joan beharra dago; azterketa testualak erakutsi beharko du zer nolako itzulpena den benetan.

Frantsesera eginiko itzulpena gaztelaniatik egin izan dela irakur dezakegu azalaren atzealdean eta liburuaren lehenengo orrietan izenburuaren azpian. Itzultzailea André Gabastou izan da. Kredituetan, jatorrizko izenburua gaztelaniaz ageri da, eta ematen diren argitalpen datuak ere gaztelaniazkoari dagozkio.

Ingelesaren kasuan, liburuaren hasierako orrietan, itzulpena gaztelaniatik Margaret Jull Costak egin zuela agertzen da. Ondoren, kredituetan, itzulpen prozesuaren nondik norakoak azaltzen dira:

First published in Spain, in Basque with the title *Gizona bere bakardadean*, and by Ediciones B, Barcelona, in a Spanish translation by Arantza Sabán and Bernardo Atxaga, with the title *El Hombre Solo*, 1994 (Atxaga, 1996a).

Alemanezko itzulpena Giò Waeckerlin Indunik egin zuen. Liburuaren hasierako orrietan izenburuaren azpian agertzen denez, itzulpena gaztelaniatik egina da. Ingelesaren moduan, alemanezkoak ere antzeko azalpena ematen dio irakurleari:

Die Originalausgabe erschien 1993 unter dem Titel *Gizona bere bakardadean* bei Pamiela, Iruña (Navarra). Die spanische Ausgabe erschien 1994 in der Übersetzung von Arantza Sabán und Bernardo Atxaga unter dem Titel *El hombre solo* bei Ediciones B, Barcelona (Atxaga, 1997).

Italierazko itzulpena, liburuaren hasierako orrietan izenburuaren azpian agertzen denez, Giovanni Lorenzik egina da. Kredituetan oso argi agertzen da zein izan den itzulpenak harturiko bidea; lehenengo eta behin, euskarazkoaren izenburua ematen da; jarraian, gaztelaniazkoarena, eta, ondoren, itzulpena gaztelaniatik egina izan dela esaten da:

Titolo dell'edizione originale in lingua basca: *Gizona bere bakardadean*  
Titolo originale dell'edizione spagnola nella traduzione di Arantza Sabán e Bernardo Atxaga su cui è stata condotta la presente edizione italiana:  
*El hombre solo*  
Traduzione dallo spagnolo: Giovanni Lorenzi (Atxaga, 1995b: 4)

Beraz, kolaborazio bat eta lau zeharkako itzulpen aitortzen dituzte liburuek. Katalanezko itzulpenaren paratestuek diotena kontraesankorra da, eta, beraz, momentuz, ezin dugu zein itzulpen mota den zehaztu.

## 7.2.7 Zeru horiek (1995)

### 7.2.7.1 Jatorrizkoa

Helduentzako narratibaren barruan kokatzen da honako eleberrri labur hau. Erein argitaletxeak argitaratu zuen 1995ean. 140 orrialde ditu guztira, eta 24.429 hitz. Bere osotasunean sartu dugu corpusean.

### 7.2.7.2 Argumentua

Azken urteak Bartzelonako kartzela batean igaro ondoren, liburu honetako protagonistak etxera –Bilbora– itzultzeko autobusa hartuko du. Autobusean igaroko dituen orduak izango dira eleberrian igaroko den denbora guztia. Kartzelatik atera berri den protagonistak bi moja eta bi polizia agente izango ditu bidaide. Kartzelan igarotako urteak, organizazio terroristan igarotako denbora eta bikotekidearekin igarotako uneak izango ditu gogoan bidaian, baina baita etorkizuna ere; preso emaniko urteen ondoren, askatasuna zer den ezagutuko du, eta bakardadean ekin beharko die ondorengo egunei. Egonkortasunik gabeko etorkizunean, maitasunaren falta somatuko du, eta, poliziaren presioa jasan beharko du babesik gabeko eta zalantzez beteriko une horietan.

### 7.2.7.3 Itzulpenak

Liburu hau gaztelaniara, katalanera, ingelesera, alemanera eta italierara itzuli da, corpuseko 5 hizkuntzatar, beraz. Frantsesera eta galegora ez da itzuli.

Kontsultatu ditugun gaztelaniazko hainbat eta hainbat argitalpenetan, ez da ageri itzulpenaren inguruko daturik. Itxura batera, liburua jatorrizkotzat har dezake irakurleak. 2008an Punto de Lecturak argitaraturiko alean soilik topatu ditugu itzulpenaren inguruko datuak. Horrek zera esan nahi du, gaztelaniazko bertsioa lehen aldiz argitaratu eta 12 urte beranduago aitortu dela lehendabizikoz itzulpena. Eleberriaren ale horretan, jatorrizkoaren izena eta itzultzailearen izena –Bernardo Atxaga– ageri dira.

Katalanaren kasuan, itzulpena Pau Joan Hernándezek egin zuen. Kredituetan, jatorrizko izenburua euskarazkoa dela agertzen du.

Ingeleserako itzulpena gaztelaniatik egin da, liburuaren hasieran izenburuaren azpian jartzen duen moduan, Margaret Jull Costak egin. Jatorrizkoaren izena eta argitalpen datuak gaztelaniazkoari dagozkio. Ez da inondik inora ageri aurrez euskaraz argitaratu zenik.

Alemanez ere, ingelesaren nahiko antzera agertzen dira itzulpenaren inguruko datuak. Hasieran, izenburuaren azpian, itzulpena Willi Zurbrügenek gaztelaniatik egin zuela ageri da, eta, kredituetan, gaztelaniazkoaren izena eta bertsio horren argitalpen datuak agertzen dira. Azalaren atzealdean ere, jatorrizkoaren inguruko datuak ematen dira.

Italierarako itzulpena Giovanni Lorenzik egin da. Kredituetan agertzen denez, gaztelania izan zen erabiliriko jatorrizko bertsioa, eta agertzen diren jatorrizkoaren datuak ere gaztelaniazkoaren testuari dagozkio.

Beraz, *Zeru horiek* liburuaren hiru zeharkako itzulpen aitortzen dira. Gaztelaniazko bertsioaren lehen aleetan irakurleak ez du jakingo liburua jatorrizkoa ala itzulpena den, ez baita itzulpen prozesuaren inguruko daturik ematen. Punto de Lecturaren ale horretan soilik topatuko du liburua

autoitzulpena izan dela. Katalanezko itzulpena, berriz, ez dakigu zein hizkuntzatatik egin izan den.

## **7.2.8 Xolak badu lehoien berri (1995)**

### **7.2.8.1 Jatorrizkoa**

Honakoa haurrentzako liburua da. Erein argitaletxeak argitaratu ditu Xolaren abenturen liburu guztiak. 52 orrialde ditu guztira, eta 2.721 hitz. Osorik sartu dugu gure corpusean.

“Holaxe bizi da Xola” bildumaren lehen alea dugu honakoa. Bildumak argi eta garbi pentsarazten du haurrentzako argitalpena dela, baina liburuan ez da adinaren inguruko erreferentziarik agertzen: ez azalean ezta barrualdean ere.

### **7.2.8.2 Argumentua**

Xolaren abenturen lehen alea dugu honako liburua. Afrikan luze egoniko lagun bat Groggo jaunaren etxera etorriko da egun batez, eta han bizitakoez arituko da. Lehoia animalia botoretsua eta dotorea dela esango du, eta Xolak bere burua lagunak deskribatutakoaren modura ikusiko du. Ordutik aurrera, lehoi baten modura jokatu du.

### **7.2.8.3 Itzulpenak**

Liburua gaztelaniara, katalanera, frantsesera, alemanera eta italierara itzuli da: guztira 5 hizkuntzatarara. Galegora eta ingelesera, ez da itzuli.

Gaztelaniazko itzulpena autoreak berak egin da, eta datu hori kredituetan agertzen da kontsultatu ditugun edizio guztietan. SMk 1995ean argitaratutako liburukiaren azal-hegaletan autoreak bere biografia txiki bat agertzen du, eta, bertan, honakoa ageri da:

(...) normalmente escribo en vasco y luego me traducen o me traduzco. Esta vez ha sido de la segunda de las maneras. Me traduje a mí mismo con la ayuda y la inspiración de los hermanos Ane y David, dos personas que conocen mucho a Shola (Atxaga, 1995c).

Katalanerako itzulpena Núria Prats i Espar-ek egin zuen. Peritestueta ez da inondik inora ageri zein hizkuntzatatik egin den itzulpena; kredituetan, jatorrizko izenburua euskaraz soilik agertzen da.

André Gabastouk frantseseratu zuen liburua gaztelaniatik: liburuaren hasieran ageri da izenburuaren azpian. Kredituetan ageri diren jatorrizkoaren izenburua eta argitalpen datuak gaztelaniazkoari dagozkio.

Alemanaren kasuan, liburuaren hasieran irakur daiteke itzulpena Katrin Schulzek egin zuela gaztelaniatik. Kredituetan, berriz, jatorrizkoaren izenburua euskaraz agertzen da, baina, jatorrizkoaren argitalpen datuei dagokienez, gaztelaniazkoak datoz.

Italierarako itzulpena Maria Bastanzettik egin zuen, liburuaren hasieran izenburuaren azpian agertzen denez. Jatorrizko liburu gisa, gaztelaniazkoa agertzen da kredituetan, eta euskarazkoari ez zaio inongo erreferentziarik egiten.

Beraz, autoitzulpen bat eta bi zeharkako itzulpen aitortu dira. Katalanezkoa eta italierazkoaren kasuan, ez da berariaz esaten zein bertsio erabili den, nahiz eta lehenengoan euskarazko jatorrizkoaren izena eta bigarreanean gaztelaniazkoarena ageri.

Euskarazkoaren modura, ez alemanerako itzulpenean ezta frantsesezko bertsioan ere ez da adinaren inguruko erreferentziarik agertzen. Gaztelaniazko, italierazko eta katalanezko argitalpenetan liburuak 7 urtetik gorako haurrentzat dela agertzen da kontrazalean.

## **7.2.9 Xola eta basurdeak (1996)**

### **7.2.9.1 Jatorrizkoa**

Honako hau ere haurrentzako liburuak da, eta aurrekoaren argitaletxe eta sail berean argitaratua izan zen. Guztira 55 orrialde ditu, eta 4.024 hitz. Osorik sartu dugu gure corpusean.

Aurreko liburuaren modura, euskarazkoan adinaren inguruko daturik ez da ematen azalean, ezta barrualdean ere.

### **7.2.9.2 Argumentua**

Xolaren abenturen inguruko bigarren lana da honako hau. Grogio jaunak ehizera joateko gonbidapena jaso du, baina ez du joateko gogorik izango. Xolak, berriz, joan egin nahiko du, nahiz eta ehiza zer den eta basurdeak zer diren jakin ez. Behin ehizean hasita, taldearen buruan ibiliko da, eta denon miresmena izango du. Baina, gauean, basurdea zer den ikustean, zertan ari den ohartuko da benetan.

### **7.2.9.3 Itzulpenak**

Liburuak gaztelaniara, katalanera, frantsesera eta alemanera itzuli da: guztira, 4 hizkuntzatara. Ez da itzuli galegora, ingelesera eta italierara. Italierara ez da itzuli honako liburu hau, baina *Shola e i leoni* aurreko liburuaren azalaren barrualdean Xolaren bigarren liburuak argitaratu egingo zela iragarri zuten: “Di prossima pubblicazione in questa stessa serie: *Shola e i cinghiali*”.

Gaztelaniazko itzulpenean, ez da itzulpenaren inguruko daturik ageri, eta irakurleak zera pentsa dezake, liburuak ez dela itzulpena, baizik eta jatorrizko gaztelaniaz idatzirikoa liburuak.

Katalanerako itzulpena Gorette López Herediak egin zuen, liburuaren hasieran eta kredituetan ageri denez. Kredituetan ageri diren datuak, jatorrizkoaren izena eta argitalpen datuak, gaztelaniazko bertsioarenak dira.

Frantseserako itzulpena André Gabastouk egin zuen gaztelaniazko bertsiotik, liburuaren hasieran irakur daitekeenez. Kredituetan agertzen diren jatorrizkoaren izena eta argitalpen datuak gaztelaniazko itzulpenarenak dira.

Alemanerako itzulpena gaztelaniazko bertsiotik egin zuen Katrin Schulzek: izenburuaren azpian dator liburuaren lehen orrietan. Kredituen arabera, jatorrizko liburua gaztelaniazkoa da.

Beraz, frantsesera eta alemanera eginiko itzulpenak zeharkakoak dira, eta, pentsa daiteke, katalanezkoa ere hala izango dela, kredituetan jatorrizkoaren izena gaztelaniaz agertzen delako. Gaztelaniazkoa ez dakigu zein itzulpen motaren bitartez egin zen.

Irakurlekoari dagokionez, gaztelaniaz eta katalanez, liburua irakurtzeko gutxieneko adina 7 urtekoa dela adierazten da. Frantsesez eta alemanez, ez da ageri adinaren inguruko erreferentziarik. Hala baina, alemanezko liburuaren amaieran, *Xolak badu lehoien berri* liburuaren alemanezko edizioaren iragarkia dator, eta, honi buruzko informazioan, liburu hori irakurtzeko adin gomendioa agertzen da: “Ab 7 Jahre und zum Vorlesen”.

## **7.2.10 Sara izeneko gizona (1996)**

### **7.2.10.1 Jatorrizkoa**

Gazteentzako eleberri historikoa da honakoa, gerra karlisten garaian girotua. Guztira 150 orrialde ditu liburuak, 21.555 hitz. Osorik sartu dugu gure corpusean.

Euskarazkoan, ez da adinaren inguruko daturik ageri, baina Pamiela ttikia sailean argitaratu da, beraz, haur eta gazte literaturaren barruan kokatzen da.

### **7.2.10.2 Argumentua**

Lehen gerra karlistaren baitan kokaturik dago Martin Saldiasen istorioa. Zumalakarregi jeneralaren zerbitzuan, zelatari lanak egingo ditu liberalak nahasteko emakume izena daraman gizonak. Jenerala eta bere gizonak Etxarri Aranazen daudelarik, Martin Saldias Bilbotik abiatuko da harantz mezu garrantzitsu bat eramatera. Bidaia horretan, beraien artean kontrako bandoaren zelatariren bat dagoen susmoa izango du, eta nor izan daitekeen jakiten saiatuko da. Gerrara bere gogoz joaniko Martin Saldiasek gerraren alde ilunak ezagutuko ditu barrutik.

### 7.2.10.3 Itzulpenak

Corpuseko 5 hizkuntzatarara itzuli da liburu hau: gaztelaniara, katalanera, galegora, frantsesera eta italierara.

Gaztelaniazko liburuan, ez da itzulpenaren inguruko inolako berririk eman; beraz, irakurleak jatorriz testua gaztelaniaz idatzia izan dela pentsa dezake.

Katalanezko itzulpena, liburuaren hasieran izenburuaren azpian agertzen denez, Carme Geronèsek eta Carles Urritzek egina da. Ez da ageri zein hizkuntzatatik egin zuten lan. Kredituetan, jatorrizkoaren izenburua gaztelaniaz agertzen da, eta argitalpen datuak ere hizkuntza horretan argitaratutako bertsioarenak dira.

Galegorako itzulpeneko kredituetan ageri denez, Valentín Arias izan zen itzultzailea. Jatorrizkoaren izenburua eta argitalpen datuak gaztelaniazkoarenak dira.

Frantseserako itzulpena André Gabastouk egin zuen gaztelaniazko bertsiotik, liburuaren hasieran irakur daitekeenez. Kredituetan, hemen ere, gaztelaniazko bertsioaren datuak agertzen dira.

Italierarako itzulpena Leonardo Dehòk egin zuen, izenburuaren azpian ageri denez liburuaren lehen orrietan. Kredituetan, “Titolo dell’originale spagnolo *Un espía llamado Sara*” ageri da; beraz, argi ikus daiteke gazteleratik eginiko itzulpena dela, batetik, eta, bestetik, euskarazko jatorrizkoari ez zaiola inongo erreferentziarik egiten, desagertu egin dela xede hizkuntzan.

Beraz, itzulpen prozesua zeharkakoa izan dela argi ikus daiteke italierazkoan eta frantsesezkoan. Galegoz eta katalanez argitaratuetan, ez da zehazki esaten, baina zeharka eginak izan direla pentsa daiteke, kredituetan jatorrizkoen izenak gaztelaniaz agertzen dira eta. Azkenik, irakurleak ez du gaztelaniarako itzulpenaren daturik ezagutzen.

Gaztelaniazkoa SM argitaletxearen Gran Angular sailean argitaratu zen, baina ez da adinaren inguruko inongo daturik ageri. Frantsesez eta italieraz ere, ez da adinaren inguruko ezer esaten. Galegoz, azalaren atzeko aldean, “A partir dos 12 anos” ageri da.

Euskarazkoan izan ezik beste hizkuntza guztietan, autorearen oharra agertzen da sarreran, gazteentzako eleberri historikoa dela adierazten duena. Honakoa irakur daiteke bertan:

Espero que los lectores jóvenes se diviertan con ellas, o más todavía, espero que les gusten lo suficiente como para aconsejar su lectura a otros lectores no tan jóvenes (Atxaga, 1996b: 5).

Beraz, xede irakurle nagusiak gazteak badira ere, hori irakurrita argi uzten du autoreak, helduek ere irakurtzea gustatuko litzaiokeela. Ohar hori

gaztelaniaz agertu ondoren corpuseko xede hizkuntza guztietan ere agertzeak zer pentsatua eman dezake itzulpenerako erabiliriko iturriari buruz.

### **7.2.11 *Bambuloren istorio bambulotarrak. Lehen urratsak (1998)***

#### **7.2.11.1 Jatorrizkoa**

Haur eta gazteentzako literatur liburua da honakoa, “Bambuloren istorio bambulotarrak” bildumako lehen alea. Erein etxeak argitaratu zuen 1998an. 119 orrialde ditu orotara, eta 16.300 hitz. Osorik sartu dugu corpusean.

Jatorrizkoan, ez da irakurleen adin tartearen inguruko gomendiorik ageri.

#### **7.2.11.2 Argumentua**

Bambulok Baratxuri Buru ezagutuko du Jon, Ariadna eta Ainhoa bere nagusiekin liburutegira joango den batean. Haren eskutik jakingo du txakur familia ezagun baten oinordeko dela eta bere senideak historian zehar pertsonaia oso garrantzitsuak izan zirela. Orduan, Madrilera joango da historiari buruz oker kontatzen diren hainbat gauza aldatzen saiatzera.

#### **7.2.11.3 Itzulpenak**

Corpuseko 4 hizkuntzatara itzuli da liburua: gaztelaniara, katalanera, alemanera eta italierara.

Gaztelaniazko bertsioaren argitalpenetan, ez da ageri itzulpenaren inguruko daturik eta jatorrizkotzat har dezake irakurleak.

Katalanerako itzulpena, liburuaren kredituetan agertzen denez, Sofia de Ruy-Wambak egin zuen. Itzulpenaren inguruko datu gehiagorik ez da ageri liburuan.

Italierarako itzulpena, liburuaren hasierako orrietan izenburuaren azpialdean ageri denez, Michele Piuminik egin zuen. Kredituetan, itzultzaileak liburua gaztelaniatik itzuli zuela ageri da, eta jarraian ematen zaizkigun jatorrizkoaren izenburua eta argitalpen datuak gaztelaniazkoarenak dira. Ez da inon ageri liburua jatorriz euskaraz idatzi zenik.

Alemanezko itzulpena gaztelaniatik egin zuen Sabine Müller-Nordhoffek, liburuaren hasieran eta kredituetan agertzen denez. Kredituetan, jatorrizko gaztelaniazkoaren izenburua eta argitalpen datuak ematen dizkigute.

Beraz, zeharkako bi itzulpen aitortzen dira: italierazkoa eta alemanezkoa. Gaztelaniazkoa eta katalanezkoa ez dakigu nola egin diren.

Irakurleari dagokienez, italierazkoan bakarrik topatu dugu adinaren zehaztapena (“A partire da 9 anni”). Gainontzekoetan, euskarazkoan bezala, ez da inongo erreferentziarik agertzen.



## 7.2.12 *Soinujolearen semea (2003)*

### 7.2.12.1 Jatorrizkoa

Helduentzako eleberria dugu honako hau, Pamiela argitaletxeak plazaratua. Guztira 468 orrialde ditu, eta berau da autorearen lanik luzeena. Corpusean sartu dugun testurik berriena da; corpora zehazterakoan autorearen azken lana zen. Testuaren lehenengo bi kapituluak hartu ditugu gure corpusean, 13.453 hitz guztira. Testuaren zati hori aukeratzeko arrazoia corpuseko xede hizkuntza guztietan bigarren kapituluan ordena aldaketa bat ikusi izana da.

### 7.2.12.2 Argumentua

Liburu honen bitartez, autoreak ordura arte idatziriko guztia bildu nahi izan zuen. David liburuko protagonistak liburu bat osatu nahi izango du bere bizitza kontatuz, bere bi alabek bere testigantza izan dezaten koskortzen direnean. Egun, Estatu Batuetan bizi da protagonista, txikitako Obaba hartatik urrun, eta memoria modura idatziko du liburua: egungo bere munduan, paradisu modura sentitzen duen horretan, desagerturiko Obabako mundu hartaz ariko da, aldi berean, bere memorian oso bizi dirauena. Umetako Obabak, gaztetako bizitza unibertsitatean, hirian, organizazio armatuan emaniko denbora, etxekoekiko eta herriarekiko loturak indar handia izango dute oraindik ere beregan. Daviden bizitzako azken egunetan, txikitako adiskide duen Josebaren konpainia izango du, eta oroitzapenek leku berezia hartuko dute une horietan.

### 7.2.12.3 Itzulpenak

Liburu hau corpuseko hizkuntza guztietara itzuli den bigarren liburua da, *Obabakoak* eleberriarekin batera. Hala ere, aurrekoaren kasuan ez bezala, *Soinujolearen semea*-ren itzulpenak nahiko jarraian argitaratu ziren.

Gaztelaniarako itzulpena Asun Garikanok eta Bernardo Atxagak elkarlanean egin zuten. Datu hori liburuaren lehen orrietan izenburuaren azpian eta kredituetan irakur daiteke. Azken horretan, euskarazko jatorrizko izenburua ere ageri da.

Katalanezko itzulpena Pau Joan Hernándezek egin zuen, liburuaren hasieran izenburuaren azpian ageri denez. Kredituetan, berriz, euskarazko jatorrizkoaren izena ematen zaigu.

Bai kredituetan eta baita liburuaren hasieran izenburuaren azpian itzultzailearen izena agertzen da galegozko itzulpenean, Ramón Nicolás Rodríguez. Kredituetan, euskarazko jatorrizkoaren izena ere ageri da.

Frantseserako itzulpena André Gabastouk egin zuen gaztelaniatik, hala irakur dezakegu azalaren atzealdean eta liburuaren lehenengo orrietan izenburuaren azpian. Kredituetan, jatorrizko izenburua euskaraz ageri da, eta ondoan dauka gaztelaniazko izenburua parentesi artean.

Ingeleseko itzulpena gaztelaniatik egin zuen Margaret Jull Costak, liburuaren hasieran irakur daitekeenez. Hizkuntza horretan ere, aurrekoaren antzeko azalpena irakur daiteke kredituetan:

First published in Basque with the title *Soinujolearen semea* in 2003  
First published in Spanish as *El hijo del acordeonista* (translated by Asun Garikano and Bernardo Atxaga) in 2004 by Alfaguara, Madrid (Atxaga, 2007c)

Alemanezko itzulpena, liburuaren hasieran ageri denez, Matthias Strobelek egina da gaztelaniazko bertsiotik. Kredituetan, itzulpenari buruzko azalpen argia ematen dute:

Die baskische Originalausgabe erschien 2003 unter dem Titel *Soinujolearen semea*  
In Absprache mit dem Autor liegt der deutschen Übersetzung die spanische Übersetzung von Asun Garikano und Bernardo Atxaga zugrunde (*El hijo del acordeonista*)  
Abweichungen wurden mit dem Autor abgestimmt (Atxaga, 2006: 4)

Italierazko itzulpena Paola Tomasinellik egin du, liburuaren lehen orrietan irakur dezakegunez. Kredituetan, berriz, itzulpenaren inguruko hainbat datu ematen zaizkigu:

Titolo originale basco: *Soinujolearen semea*  
Titolo originale spagnolo: *El hijo del acordeonista*  
Traduzione in spagnolo di Asun Garikano e Bernardo Atxaga (Atxaga, 2007d)

Gaztelaniazko bertsioa euskaratik itzuli ote zen ez da argi eta garbi adierazten, ezta italierazko itzulpena gaztelaniazkotik egin ote zen, baina hori pentsaraz diezaioke irakurleari.

Hortaz, lau liburutan itzulpena zeharkakoa dela aitortzen da, eta beste batean, kolaborazioa. Galegozko eta katalanezko itzulpenek ez dute aitortzen zein itzulpen mota erabili duten.

## **7.3 ARGIALETXEEN INGURUKO AZTERKETA**

### **7.3.1 Azterketa**

Atal honetan, itzulpenaz zuzenean arduratu ez baina prozesuan eragina dutenei buruz arituko gara, argialetxei buruz, hain zuzen ere. Argitaratzaileek itzulpen prozesuan eragina dute nahi eta nahi ez: liburuak beraien eskutik plazaratzen diren heinean, plazaratze hori nola egingo den, zein baliabiderekin, zein indarrekin, neurri egokiagoak zein diren markatuko dute beraiek. Eta Atxagak berak esan zigun moduan, "itzulpenak gutxiago

saltzen direnez” (Atxaga, 2008a) hartuko diren neurriak ez dira oro har itzulpenaren guztiz aldekoak izango.

Jarraian, liburu bakoitza zein argitaletzek plazaratu duen agertzen duen taula aurkeztuko dugu, eta, ondoren, argitaletxeak banaka-banaka aurkeztuko ditugu. Eskainiko dugun ikuspuntua nahiko orokorra izango da eta tokian tokiko ikertzaileek sakondu beharko lukete hemen abiaturikoa.

## 7-3 Taula. Argialetxeak

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	Ing	Ale	it
Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian Erein	Dos Letters Ediciones B	Dues letters Edicions B Vaig rebre dues letters en molt poc temps Bromera	Dúas letters Galaxia	Deux letters Le Serpent à Plumes	I Received Two Letters All at Once Center for Basque Studies University of Nevada	■	Due letters Einaudi
Sugeak txoriari begiratzin dionean Erein	Cuando la serpiente... Ediciones B Círculo de Lectores	Quan la serp Edicions B Quan la serp mira l'ocell Bromera	Cuando a serpe mira o paxaro Galaxia Ir Indo	■	When a Snake Stares at a Bird Center for Basque Studies University of Nevada	■	Quando un serpente... Einaudi
Bi anai Erein	Dos hermanos Seix Barral Ollero y Ramos Ediciones B Círculo de Lectores	Dos germans Bromera	■	Deux frères Christian Bourgois	Two Brothers The Harvill Press	■	Due fratelli Einaudi
Obabakoak Erein	Obabakoak Ediciones B Círculo de lectores Punto de lectura Suma de letras Alfaguara	Obabakoak Edicions B Edicions de la Magrana Edicions 62	Obabakoak Faktoria K	Obabakoak Christian Bourgois	Obabakoak: a novel Hutchinson Pantheon Vintage Harvill Secker	Obabakoak; oder, das Gänsepiel Schönbach Unionsverlag	Obabakoak: storie Einaudi

Behi euskaldun baten memoriak Pamiela	Memorias de una vaca Ediciones SM Círculo de lecturas	Memories d'une vache Cruïlla SM	Memorias dunha vaca SM	Mémoires d'une vache Gallimard	■	Memoiren einer baskischen Kuh Altberliner Verlag Fischer Verlag	Memorie di una mucca Piemme
Gizona bere bakardadean Pamiela	El hombre solo Ediciones B Círculo de lectores Bromera	L'home sol Edicions B Cercle de lectors Bromera	■	L'home seul Christian Bourgois	The Lone Man The Harvill Press	Ein Mann allein Unionsverlag Giunti	L'uomo solo Giunti
Zeru horiek Erein	Esos cielos Ediciones B Punto de lectura	Auells cels Edicions de la Magrana	■	■	The Lone Woman The Harvill Press	Woman Fenster zum Himmel Suhrkamp Insel	Sotto un altro cielo Giunti
Xolak badu lehoien berri Erein	Shola y los leones SM Círculo de lectores	La Xola i els lleons Cruïlla	■	Shola et les lions La Joie de Lire	■	Shola und die Löwen Altberliner Verlag	Shola e i leoni Piemme
Xola eta basurdeak Erein	Shola y los jabalíes SM Círculo de lectores Alfaguara	La Xola i els senglars Cruïlla	■	Shola et les sangliers La Joie de Lire	■	Shola und die Wildschweine Altberliner Verlag	■
Sara izeneko gizona Pamiela	Un espía llamado Sara Acento Editorial El gran angular SM	Un espía anomenat Sara Cruïlla SM	Un espía chamado Sara SM	Un espion nommé Sara La Joie de Lire	■	■	Un uomo in codice Adriano Salani

Bambulo. Lehen urratsak Erein	Bambulo. Primeros pasos Alfaguara	Bambulo. Primers passos Grup Promotor d'Ensenyament i Difusio Català	■	■	■	Bambulos wahrer Lügengeschichte n Altberrliner Verlag	Un cane davvero speciale Feltrinelli
Soinujolearen semea Pamiela	El hijo del acordeonista Alfaguara Círculo de Lectores	El fill de l'acordeonista Edicions 62	O fillo do acordeonista Xerais de Galicia	Le fils de l'accordéoniste Christian Bourgois	The Accordionist's Son Harvill Secker	Der Sohn des Akkordeonspielers S Insel Suhrkamp	Il libro di mio fratello Einaudi

### Euskarazkoak:

Bernardo Atxagaren corpuseko lanak euskaraz bi argitaletxeren eskutik argitaratu dira: *Erein* eta *Pamiela*.

*Erein* argitaletxea 1976. urtean sortu zen, Donostian, Gero eta Etor argitaletxeen sustraietan oinarrituz. Euskara batua sortu berria zen, eta euskarazko hezkuntza indartzen hasia. Garai hartan beste hainbat argitaletxe ere sortu ziren euskal hezkuntza zein euskal kulturaren inguruan, eta mugimendu haren barruan kokatu behar dugu *Ereinena* ere. Helburu nagusien artean, euskaraz literatura sortzea eta ikasmateriala euskaraz sortzea izan zituen. Torrealdaik, euskal liburugintzaren baitan erdi mailako argitaletxe modura sailkatu zuen (1997: 567).

Egun, hiru ildo nagusitan dihardu lanean: batetik, euskal literaturako liburuak argitaratzen, bai helduentzat eta baita gazte zein haurrentzat ere; bestetik, testuliburuak sortu eta argitaratzen; azkenik, saiakerak argitaratzen, euskaraz zein gaztelaniaz, euskal kultura zein gizarteari loturikoak beti ere.

*Pamiela* argitaletxearen sorrera izen bereko aldizkariari loturik etorri zen. 1983. urtean sortu zen *Pamiela* aldizkaria Iruñeako Auzolan liburu-denda inguruan zebilen lagun batzuen ekimenez.

Egun, bere liburu produkzioaren baitan, helduentzat zein haur eta gazteentzat literatura, saiakera eta dibulgazio lanak argitaratzen ditu. Nafarroari loturiko lanek arreta berezia izan dute, bertako argitaletxea izaki. Produkzioari dagokionez, nahiko argitaletxe txikia dela esan genezake. Bestalde, Bernardo Atxaga bera argitaletxearen kide ere bada.

### Gaztelaniazkoak:

Atxagaren lanak Ediciones B, Círculo de lectores, Alfaguara eta SMren eskutik plazaratu dira nagusiki gaztelaniaz.

Gaztelaniaz agertu zen corpuseko lehen liburua *Obabakoak* izan zen; Ediciones B argitaletxearen eskutik argitaratu zen lehenik. Ondorengo liburuak ere argitaletxe horren eskutik plazaratu ziren: *Dos letters*, *Dos hermanos*, *El hombre solo* eta *Esos cielos*.

Ediciones B argitaletxe nahiko garrantzitsua izan zen Espainiar merkatuan, eta Hego Amerikan ere bazituen filialak. Bartzelonako argitaletxe hori 1986. urtean sortu zen, Editorial Brugueraetik abiaturik. Helduentzako zein haur eta gazteentzako literatura plazaratzen zuen argitaletxeak. Egun Grupo Z-ren partaide da. Zeta bolsillo Grupo Zetaren barruan dagoen azpiatal bat da, eta bere helburu nagusia kalitatezko literatura prezio onean eskaintzea da. Bilduma horretan argitaratu ziren *Historias de Obaba* eta *El hombre solo*.

Círculo de lectores 1962an sortu zuten Reinhard Mohnnek eta Pere Quintanak. Enpresa horrek elkarte modura egiten du lan. Bertako bezeroak kide izan behar dute, eta katalogo-aldizkaria jasotzen duten bakoitzeko erosketa bat egin behar dute. Beraz, ohiko argialetxeekin alderaturik, honek bezero kopuru mugatuagoa duela esan dezakegu, baina horiek ohiko irakurleak dira, eta argialetxearekiko leialak. Enpresaren helburu nagusia kultura zabaltzea da.

Círculo de lectoresek Espainiako lau hizkuntza nagusitan argitaratu ohi ditu liburuak, eta Atxagaren lanak gaztelaniara eta katalanera itzulirik argitaratu zituen. Gaztelaniaz honakoak plazaratu zituen: *Dos Letters, Dos hermanos, Historias de Obaba, Obabakoak, Memorias de una vaca, El hombre solo, Shola y los leones, Shola y los jabalíes* eta *El hijo del acordeonista*. Katalanez, berriz, *L'home sol* besterik ez du argitaratu etxe honek.

Ollero y Ramos argialetxeak Madrilen du egoitza, eta, oro har, monografiak, bibliografia-errepertorioak, enkuadernazioa, bibliofilia, liburu zaharrak eta literatur aldizkariak lantzen ditu. BAREN gaztelaniarako itzulpena argitaratu zuen 1995ean.

Seix Barral 1911. urtean sortu zen, Bartzelonan, eta hiriko liburugintzan erreferentziatzko argialetxea izan da. 1982. urtetik Grupo Planetaren kide da. Argialetxe honek ere BAREN itzulpena argitaratu zuen gaztelaniaz.

Grupo Santillanaren barruan biltzen diren hainbat argialetxek ere argitaratu dituzte Bernardo Atxagaren lanak, hona hemen argialetxe horiek banan bana:

Punto de lectura 2000. urtean Santillana taldearen baitan sorturiko azpiatala da. Poltsiko liburuak argitaratzea izan da enpresa horren jarduera nagusia. 15 herrialdetan hedatzen du bere jarduera, eta literatur genero ezberdinak landu ditu.

Suma de letras, bestalde, Santillana taldearen barnean sortu zen 2004. urtean. Helduentzako narratiba komertziala plazaratzea dute helburu nagusi, eta jardueraren ardatz nagusia genero eleberria da.

Alfaguara argialetxea Camilo José Cela idazleak sortu zuen 1964. urtean, eta, bertan, bere lanetariko hainbat plazaratu zituen, eta baita garaiko beste hainbat idazleren lanak ere. 1980an, argialetxea Santillana taldeak erosi zuen, eta, honenbestez, haur eta gazte literatura lanak agertzen hasi ziren. Egun, Espainiako argialetxe nagusienetakoa dugu. Bernardo Atxagaren hainbat lanen gaztelaniazko bertsioak argitaratu ditu, hala nola OBB, BLU eta SS.

Bestetik, SM taldea argialetxe espainiarra da, eta testu-liburuak zein haur eta gazteentzako liburuak plazaratzen ditu. Argialetxea 1938an sortu zen, Gasteizen, Sociedad de Maríaren laboradura modura, Ediciones SM izenez. 1945etik aurrera Madrilen izan du egoitza. Egun, testu-liburuen zein haur eta gazte literaturaren alorretan erreferentziatzko argialetxea da Espainia mailan, eta baita Iberoamerikako beste 8 herrialdetan ere.



Argitaletxe honen eskutik plazaratu dira gaztelaniaz BEBM, XL, XB eta SIG. Bestalde, Acento Editorial SM taldearen barruan sortu zen 1992 urtean, helduentzako literaturaren beharriari erantzuteko. SIGen itzulpena atal honetan ere argitaratu zen. Azkenik, El gran Angular SM barruko sail enblematikoa da, Espainiako haur eta gazte literatur alorreko erreferentzia dena. Honek ere SIGen gaztelaniazko bertsioa eman zuen argitarara.

#### Katalanezkoak:

Katalanez, Bernardo Atxagaren lanak hainbat argitaletxetan argitaratu dira. Argitaletxe horietariko hainbatek gaztelaniako bere lanak ere argitaratu dituzte, esate baterako, Ediciones Bk eta Cercle de lectorsek.

Ediciones Bk hasiera hasieratik argitaratu izan ditu liburuak gaztelaniaz zein katalanez. Katalanez argitaraturiko lanetan, argitaletxearen izena ere hizkuntza horretara egokiturik agertzen da, Edicions B. Argitaletxe honek Atxagak katalanera itzuliriko lehenengo lanak argitaratu zituen, hala nola *Dues letters*, *Obabakoak* edo *L'home sol*.

Cercle de lectors 1989an sortu zen Círculo de Lectores enpresaren baitan. Enpresaren katalanezko atala da, eta bertan argitaratu zen *L'home sol*.

Bromera 1986. urtean jarri zen abian, Valentziako Alzira herrian. Valentziako argitaletxe garrantzitsuenetariko bat da egun, eta bere jarduna katalanaren eremu guztira zabaltzen da. Etxe honek mila izenburutik gorako katalogoa osatu du hainbat generotako lanak bilduz, bai haur eta gazte literatura eta baita helduentzako narratiba, olerkia, saiakera, antzerkia, eta abar ere.

Cruilla SM taldearen barruan sortu zen 1984an, katalanezko merkatuaren beharriari erantzuteko. Egoitza nagusia Bartzelonan dauka. Atxagaren lanei dagokienez, SMK argitaraturiko lan berak itzuli ditu Cruilla argitaletxeak, guztiak ere HGLen barruan: *Behi euskaldun baten memoriak*, *Sara izeneko gizona*, *Xolak badu lehoien berri* eta *Xola eta basurdeak*.

1975ean sortu zen Edicions de la Magrana, Bartzelonan. Hastapenetan, politikari buruzko liburuak eman zituen argitarara, eta gai kopuru zabalagoari heldu zion beranduago. 2000. urtean, RBA taldeak bereganatu zuen argitaletxea. Egun, RBaren barruan katalanez helduei zuzenduriko fikzio eta ez fikziozko lanak argitaratzeko zigilua da La Magrana. *Obabakoak* eta *Aquells cels* argitaratu ditu argitaletxe honek.

Edicions 62 izena ematen dion urte berean jaio zen, Bartzelonan. Sortzaileek argitaletxe generalista, unibertsal eta modernoa sortu nahi zuten. Urte hauetan guztietan, 4.000 izenburutik gora argitaratu dituzte genero mota zabal batean. Gaur egun, urtean 100 izenburu berri inguru plazaratzen ditu argitaletxeak. Bernardo Atxagaren lanik esanguratsuenak argitaratu dituzte, hala nola *Obabakoak* liburuaren berrargitalpena, *Obaba* filmea plazaratu ondoren, eta *Soinujolearen semea*.

Grup Promotor d'Ensenyament i Difusió Català Santillana taldearen baitako enpresa bat da. Talde enpresarialaren azpiatal modura funtzionatzen

du Katalunian, hezkuntza sistemaren beharriari erantzunez. HGLko Bambuloren abenturak argitaratu dira argialetxe honetan.

#### Galegozkoak:

Galaxia argialetxea 1950. urtean sortu zen, eta, egun, galegozko letretan dauden artean garrantzitsuena dela esan daiteke. 2.000 izenburu inguru argitaratu ditu urte hauetan guztietan. Sortu zenean, argialetxearen helburu nagusia hizkuntza galegoak historian izandako garrantzia eta bere balore kulturala sorkuntzaren zein pentsamenduaren transmisioaren bidez berreskuratzea izan zen. Bere bildumen artean, klasikoak, literatura unibertsaleko lanen itzulpenak, poesia, saiakera, aisialdiko zein ingurugiroari buruzko gidak, bidaia-liburuak, haur eta gazte literatura, gastronomia, ikas-liburuak, hiztegiak, eta abar aurki daitezke. Bernardo Atxagaren lehenengo lanak argitaratu zituen argialetxe honek, *Dúas letters* eta *Cando a serpe mira o paxaro*.

Ir Indo argialetxea 1985. urtean sortu zen, Vigon, galegoa gizartearen prestigiozko hizkuntza modura zabaltzeko asmoz. Hasiera hartan, erreferentziatzeko lanak argitaratzea izan zuen helburu nagusi. Aurrerago, narratibazko liburuak argitaratzeari ekin zion, bai galegoz sortuak eta baita galegora itzuliak ere. Gerora, haur eta gazte literatur liburuak ere argitaratu dituzte. Gure corpuseko *Sugeak txoriari begiratzen dionean* argialetxe honen eskutik heldu zen.

2005ean sortu zen Faktoria K, eta bere helburu nagusiak sortzaile galiziarrek merkatu internazionalen ezagutaraztea eta lan garrantzitsuak galegora ekartzea ziren. Haur, gazte zein helduen artean zabaldu du bere produkzioa hainbat generotan, hala nola poesia, narratiba, zientzia, haur eta gazte literatura, komikia, argazkigintza eta artea. Etxe honen eskutik argitaratu dira galegoz corpuseko *Obabakoak* eta baita Atxagaren azken eleberria ere –*Zazpi etxe Frantzian*–.

SMk, gaztelaniaz gain, galegoz ere argitaratu ditu hainbat liburu. Katalunian ez bezala, galegozko lanak SM izenez argitaratzen dira. Gure corpuseko *Behi euskaldun baten memoriak* eta *Sara izeneko gizona* plazaratu ditu.

Xerais de Galicia 1979an sortu zen, Vigon, eta 1988. urtetik Grupo Anayaren zati da. Literatur genero guztietako liburuak zein ikas-materiala eta dibulgazio liburuak argitaratzen ditu batez ere galegoz. Egun, bere katalogoan dauden izenburuen %22a hezkuntza materialari dagokio. Literatur lanek katalogoaren %23 osatzen dute, eta hainbat generotako lanak argitaratzen dituzte, besteak beste, narratiba, poesia, antzerkia edo literatura galegozko klasikoak. *Soinujolearen semea*-ren galegozko itzulpena etxe honek argitaratua izan da.

#### Frantsesezkoak:

Éditions Gallimard 1919. urtean sortu zen, Parisen, Éditions de la Nouvelle Revue Française-en baitatik. Argitaletxe independentea da. Frantzian erreferentziako argitaletxe bilakatu da urte hauetan guztietan, bertako zein kanpoko idazleen lanak argitaratuz. Askotariko generoak landu ditu, eta bilduma kopuru oso zabala argitaratu du. Hainbat filial ere biltzen ditu bere baitan. 2003. urtean, 1.418 izenburu argitaratu zituen. Etxe honek Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* liburua plazaratu zuen frantsesez, Gallimard Jeunesse sailean.

Christian Bourgois-ek 1966an sortu zuen izen bereko argitaletxea Dominique de Roux idazlearekin batera. Berrogei urteren buruan, erreferentziako argitaletxe bilakatu da, frantziar idazle berritzaileen zein mundu mailako idazle ezagunen lanak frantsesez plazaratuz. Atxagaren helduentzako narratibazko lan gehien argitaratu dituen argitaletxe frantsesa da, hala nola *Bi anai*, *Obabakoak*, *Gizona bere bakardadean* eta *Soinujolearen semea*.

La Joie de Lire Genevako argitaletxea 1987an sortu zen. Haur eta gazteei zuzenduriko literatur lanak argitaratzen ditu batez ere. Gure corpusari dagokionez ere, genero horretako literatura lanak plazaratu ditu, guztiak ere Récits bildumaren baitan: *Xolak badu lehoien berri*, *Xola eta basurdeak* eta *Sara izeneko gizona*.

Le Serpent à Plumes argitaletxea 1993an sortu zen, izen bereko aldizkaritik abiatu. Beste hainbat kulturatako lanak frantsesez argitaratu izan dituzte gai oso ezberdinei buruz. 2004an, Éditions du Rocher etxeak erosi zuen, eta, egun, Le Serpent à Plumes argitaletxe horretako bilduma baten izena da. Atxagaren lanen artean, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* argitaratu zuten *Un cheveau sur la langue* liburuan, beste hainbat kontakizun laburrekin batera.

Frantsesez argitaratzaile ezberdinak izanagatik ere itzultzailea bat eta bakarra izan da kasu guztietan. Beraz, autorearekiko nolabaiteko gertutasuna mantendu da eta argitaletxeek ez dute baldintzatu zein itzultzailek itzuli.

#### Ingelesezkoak:

The Harvill Press, Erresuma Batuko argitaletxe garrantzitsua, 1946an eratu zen. Ingelesez idazten duten idazleen lanez gain, hainbat hizkuntzatako autoreen lanak itzuli dituzte ingelesera, besteak beste, frantsesa, italiara, gaztelania, alemana, errusiera, arabiera eta hebraieratik. Harvill Pressek *Bi anai*, *Gizona bere bakardadean*, *Zeru horiek* argitaratu zituen ingelesez. 2002an, Random House-ek erosi zuen argitaletxea eta Secker & Warburg-ekin bateratu zen 2004an. Bi argitaletxe entzutetsu horien batuketaren ondorioz, zigilu indartsu bat osatu zen, Harvill Secker, eta, bertan, Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* argitaratu eta *Obabakoak* berrargitaratu dira.

Hutchinson Erresuma Batuko argitaletxea zen. 1985. urtean, Hutchinson Century Publishing-ekin bateratu, eta bien artean Century Hutchinson sortu

zuten. Lau urte beranduago, konpainia hura Random House-en atal bihurtu zen. Argialetxe horren eskutik merkaturatu zen Erresuma Batuan *Obabakoak*.

Pantheon books 1942an eratu zuten, New Yorken, faxismotik ihesi Ameriketara joaniko hainbat europar intelektualek. 1961. urtean, Random Housek Pantheon erosi zuen eta Knopf Publishing Group-eko atal bilakatu zen. Argialetxeak fikzio eta ez fikziozko lanak argitaratu ditu bere ibilbidean zehar, horien artean, Bernardo Atxagaren *Obabakoak*.

Vintage Books Estatu Batuetan sortu zen, 1954an. Argitaratutako lanen artean, munduko literaturako autoreen eta Estatu Batuetako idazleen lanak biltzen dituzte. 1990ean, Vintagek Erresuma Batuan bigarren egoitza bat ireki zuen. Bi herrialdeetako enpresek independenteki funtzionatzen dute, baina biak ala biak ere Random Housen atal dira. Vintagek *Obabakoak* Estatu Batuetan zein Erresuma Batuan merkaturatu zuen.

Random House 1927an sortu zen, Estatu Batuetan, eta ibilbide luzea izan du, mundu mailako erreferente bilakatu arte. Gaur egun, argialetxe talde internazionala da, eta hainbat argialetxez eta berauen 30 zigilu baino gehiagoz osaturik dago. Alemaniako Bertelsmann AG ikusentzunezko konpainiaren dibisioa da berau, aldi berean. Mundu mailan, ingelesez argitaratzen duten argialetxe nagusienetakoa da Random House: 2008an, salmentei dagokionez, 262,7 milioi dolarreko irabaziak izan zituen, eta bigarren postuan dago Hachetten atzetik.

Orain arte aipaturiko ingelesezko itzulpen guztiak Random House taldearen eskutik plazaratu dira. Horiez gain, ordea, ingelesez argitaratu diren corpuseko azken bi izenburuak (BL eta STX) liburuak bakarrean argitaratu ditu Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketa Zentroak (Center for Basque Studies). Erakundearen helburu nagusia euskal gaiari loturiko ikerketa egitea eta gaiari buruzko liburuak argitaratzea da. Mari Jose Olaziregik zuzenduriko Basque Literature Series bildumaren baitan argitaratu da liburua. Aipatu bilduman euskal literatur lanak ingelesera zuzenean itzulirik argitaratu dituzte (orain arte sei dira bilduma horretako lanak).

#### Alemanezkoak:

Schönbach argialetxea 1989an sortu zen, Hannoverren, eta, bi urte beranduago, beste bulego bat ireki zuten Suitzan. Argialetxeak, besteak beste, nazioarteko literatura ezberdinetako lanak alemanez ematea du helburu, bereziki, gutxiengo etniko eta linguistikoenak. Eta horren baitan koka genezake *Obabakoak* lanaren argitalpena.

Unionsverlag 1975ean sortu zen Suitzan. Hastapenetan, langile klasearen borroka izan zuen ardatz; narratiba –baina ez fikzioa–, kontakizun politikoak, esate baterako. Berehala hasi zen mundu mailako literatur lanak alemanera itzultzen ere. Ohiko literatur eremuetatik kanpoko autoreen lanak alemaneratu zituen, eta, sarritan, horietariko hainbatek arrakasta lortu dute munduan zehar denboraren poderioz. Guztira 280 autoreen lanak argitaratu

ditu Unionsverlagek, horien artean, Bernardo Atxagaren *Obabakoak* eta *Gizona bere bakardadean*.

Suhrkamp Verlag 1950. urtean sortu zen, Frankfurt am Main-en, eta, gaur egun, Berlinen du bere egoitza nagusia. Argitaletxe talde zabala da, ondorengo argitaletxeek osatua: Insel Verlag, Deutsche Klassiker Verlag, Jüdische Verlag, Verlag der Weltregionen eta Theaterverlag. Lantzen dituzten liburuen artean, entretenimenduzko literatur lanak, alemanak zein kanpokoak, eta giza-zientziei loturiko liburuak aurki daitezke. Argitaletxe garrantzitsua da alemaniar letretan: 2008. urtean 45 milioi euroko irabaziak izan zituen. Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* eta *Zeru horiek* lanak Insel/Suhrkamp argitaletxeak argitaratu ditu.

Altberliner Verlag Lucie Groszer 1945ean sortu zen, Berlin erdialdean, eta, argitaletxearen historia guztian zehar, haur eta gazte literatur lanak eman zituzten argitara, harik eta 2008. urtean kaudimen gabeziagatik itxi behar izan zuten arte. Argitaletxe honen eskutik merkaturatu ziren Atxagaren haur eta gazte literatur lanak Alemanian, besteak beste, *Behi euskaldun baten memoriak*, *Xolak badu lehoien berri*, *Xola eta basurdeak* eta *Bambulo. Lehen urratsak*.

Fischer Verlag 1886an sortu zen, Berlinen, eta egoitza nagusia Frankfurt am Mainen du egun. Alemanezko literatur eremuan, argitaletxe garrantzitsuenetakoa da entretenimenduzko literaturaren alorrean. Gaur egun, Fischer Verlag enpresa taldea da, eta bere baitan daude Fischer Taschenbuch, Krüger Verlag, Scherz Verlag, O.W. Barch, Schatzinsel eta Theater und Medien. Alemanezko eta beste hainbat hizkuntzako idazleen literatur lanez gain, beste hainbat alor ere jorratzen ditu, hala nola historia, politika, psikologia, etab. Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* merkaturatu zuen alemanez.

#### Italierazkoak:

Einaudi argitaletxea 1933an sortu zuen Giulio Einaudik. 1994an, Mondadori taldearen baitako argitaletxe bihurtu zen. Argitaletxeak hainbat bilduma ditu, eta, horietan, Italiako zein beste herrialde batzuetako literatura, literatura klasikoa eta beste landu izan ditu. Egun, italiar argitaletxe nagusienetakoa dugu Einaudi. Gure corpusean bilduriko *Obabakoak*, *Storie di Obaba* eta *Il libro di mio fratello* etxe honen eskutik argitaratuak izan dira.

Giunti Italiako argitaletxe zaharrenetakoa dugu. 1840tik aurrera ari da jardunean, bai liburugintzan eta baita liburu salmentan ere, eta, gaur egun, liburu-denda kopuru handiena duen katea da Italian. Argitaletxeak askotariko gaiak lantzen ditu, eta genero mota zabala. Gure corpuseko *Gizona bere bakardadean* eta *Zeru horiek* etxe horrek argitaratu zituen.

Piemme argitaletxea 1982an jaio zen, erlijioari buruzko lanak argitaratuz, nagusiki. Haur eta gazte literatur lanak ere argitaratu ditu beranduago, batez ere, “Il battello a vapore” sailean, eta genero horretan erreferentziatzko

argialetxea dela esan genezake. Beste hainbat genero eta testu mota ere argitaratu ditu Piemmek, hala nola helduentzako narratiba eta fikziozkoak ez diren egungo gaietarako buruzko lanak. 2003. urtetik aurrera, Mondadori taldearen kide izango da. Piemmek italieraz *Behi euskaldun baten memoriak* eta *Xolak badu lehoien berri* argitaratu ditu.

Adriano Salani argialetxea 1862an sortu zen, Florentzian. Mundu mailan ezagunak diren haur eta gazte literatur lanak argitaratzen ditu, batik bat. Atxagaren lanen artean, *Sara izeneko gizona* eman du argitara.

Feltrinelli 1954an sortu zen, Milanen, literatura popularra egiteko helburuz. Gaur egun, Italiako argialetxe nagusienetakoa dugu, eta hainbat eta hainbat bilduma argitaratu ditu, eta askotariko gaiak landu. Izen bereko liburu-denda sare zabala Italiako garrantzitsuenetakoa da. Feltrinelli argialetxeak Bernardo Atxagaren *Bambulo. Lehen urratsak* argitaratu du.

### 7.3.2 Ondorioak

Ikusi ahal izan dugunez, Atxagaren lanak argialetxe kopuru zabalean eta mota askotarikoetan argitaratu izan dira. Euskarazkoei dagokienez, Erein eta Pamiela izan dira argitaratzaileak, erreferentziazko argialetxeak egun.

Gainerako hizkuntzetako argitaratzaileei dagokienez, denetarik topatu ahal izan dugu. Hainbat liburu argialetxe ezberdinetan argitaratu dira. Kasurik nabarmenena *Obabakoak* liburuarena da, argialetxe batek baino gehiagok argitaratu baitu hainbat hizkuntzatan.

Haur eta gazte literatur lanak, zenbaitetan, genero horretan espezializaturiko etxeen bitartez heldu dira merkatura, hala nola, SM, Cruilla, Le Serpent à Plumes edo Piemme.

Helduentzako literatur lan ospetsuenak nahiko argialetxe ezagunetan argitaratuak izan dira: Christian Bourgoisen, Frantzian; Einaudin, Italian; Suhrkampen, Alemanian; edo Harvill Seckerren, ingelesez.

Bada kontuan izan beharreko beste zerbait ere. Bernardo Atxaga katalogoan oinarrituta bere lanaren hedapenagatik aukeratu dugu. Baina itzulitako liburuak argitaratu dituzten argialetxeen inguruan bada alde nabarmen bat gainontzeko idazleekiko. Honelaxe adierazten du Mari Jose Olaziregik:

Las diferencias que marca Bernardo Atxaga no se refieren, solamente, al número de obras traducidas, sino al número de lenguas diferentes a las que han sido traducidas cada una de ellas. (...) Pero además, hay otro dato que resulta importante en lo que atañe a la recepción y difusión de las traducciones. Nos referimos a las editoriales europeas o americanas que avalan las diferentes ediciones. Y es que, al contrario de lo que ocurriera en el caso de Atxaga, cuyas editoriales europeas son empresas prestigiosas de la talla de Einaudi en Italia, Christian Bourgois o Gallimard en Francia, o Hutchinson en el Reino Unido, la mayoría de las editoriales que han publicado obras traducidas de autores euskaldunes

son editoriales pequeñas o con una capacidad de difusión escasa (Olaziregi, 2001: 139-140).

Beraz, aurkeztu ditugun datuetan oinarrituta, eta Olaziregik esandakoaren arabera, alde nabarmena ikus daiteke Bernardo Atxaga eta gainontzeko euskal idazleen artean honetan ere, argialetxeak handiagoak eta garrantzitsuagoak baitira idazle asteasuarraren kasuan.

## **7.4 ITZULTZAILEEN INGURUKO AZTERKETA**

### **7.4.1 Azterketa**

Jarraian, corpuseko liburuen itzulpenaz arduratu direnen inguruko azterketa labur bat egingo dugu. Jatorrizko kulturatik abiatutako azterketa izanik, ez da izango xede kulturetan berariaz bakoitzean abiatutako litzatekeen azterketa bezain sakona, baina aurre-azterketa modura har daiteke. Horretarako, taula batean bildu ditugu, liburu bakoitza zein itzultzailek eta zein hizkuntzatara itzuli duen jakiteko. Itzultzaileen inguruko informazioa paratestuetatik atera dugu, oro har. Hori horrela izanik, hainbat libururen kasuan ez dakigu nor den itzultzailea (*Xola eta basurdeak*, *Sara izeneko gizona* eta *Bambulo. Lehen urratsak*). Ikerketak aurrera egin ahala datu horiek osatzen saiatuko gara.

7-4 Taula. Itzultzaileak

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	Ing	Ale	It
Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian	ED (Bb / Auto)	ED(zz) / ED(zz)	Zeh	Zeh	Zuz	■	ED(Zh) Paola Tomasinelli
Sugeak txoriari begiratzen dionean	Bb	ED(zz) / ED(zz)	ED	■	Zuz / zuz	■	ED(Zh) Paola Tomasinelli
Bi anai	Auto	ED(zz)	■	Zeh	Zeh	■	ED(Zh) Paola Tomasinelli
Obabakoak	Auto	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	ED(Zh) Sonia Piloto di Castri
Behi euskaldun baten memoriak	Bb / Kol	ED(zz)	ED(zz)	Zeh	■	Zuz	ED(zz) Agostino Perani



Gizona bere bakardadean	Kol	Bernardo Atxaga eta Arantza Saban	ED	■	Zeh	André Gabastou	Zeh	Margaret Jull Costa	Zeh	Giovanna Waeckerlin Induni	Zeh	Giovanni Lorenz
Zeru horiek	Auto	Bernardo Atxaga Pau Joan Hernández	ED(zz)	■	■	■	Zeh	Margaret Jull Costa	Zeh	Willi Zübruggen	Zeh	Giovanni Lorenzi
Xolak badu lehoien berri	Auto	Bernardo Atxaga Núria Prats i Espar	ED(zz)	■	■	■	■	■	Zeh	Katrin Schulz	ED(Zh)	Maria Bastanzetti
Xola eta basurdeak	ED	Goretti López	ED(zh)	■	Zeh	André Gabastou	■	■	Zeh	Katrin Schulz	■	■
Sara izeneko gizona	ED	Carme Geronès eta Carles Urritz	ED(zh)	ED(zh)	Zeh	André Gabastou	■	■	■	■	ED(Zh)	Leonardo Deho
Bambulo. Lehen urratsak	ED	Sofia de Ruy- Wamba	ED	■	■	■	■	■	Zeh	Sabine Müller- Nordhoff	Zeh	Michele Plumini
Soinujolearen semea	Kol	Bernardo Atxaga eta Asun Garikano	ED(zz)	ED(zz)	Zeh	André Gabastou	Zeh	Margaret Jull Costa	Zeh	Matthias Stroebel	Zeh	Paola Tomasinelli

Hiru itzultzailek itzuli dituzte liburuak gaztelaniara: Bernardo Atxagak, Arantza Sabanek eta Asun Garikanok. Lehenengo biek bakarka zein kolaborazioan itzuli dituzte liburuak: bakarka, Bernardo Atxagak 4 liburu itzuli ditu, eta Arantza Sabanek, 1; bestalde, Bernardo Atxagak eta Arantza Sabanek elkarlanean liburu bat itzuli dute, eta Bernardo Atxagak eta Asun Garikanok, beste bat. Badira beste hiru kasu (XB, SIG, BLU) liburuetan itzultzailearen izenik ageri ez denik. Beste bi kasutan, datuak ez dira guztiz garbiak: ezin zehatz mehatz jakin, BLren kasuan, Arantza Sabanek itzuli duen ala Bernardo Atxagak, datu kontraesankorrak bildu baititugu; BEBMren kasuan, berriz, itzultzailearen lanaren errepasoa autoreak egin zuen, beraz, ez dakigu kolaborazio izendapena eman diezaiokegun ala itzultzaileari soilik aitortu itzulpen lana.

Katalanaren kasuan, 7 itzultzaile ezberdin dauzkagu: lehenengo lan garrantzitsuak (OBB, BL eta STX) Marta Hernándezek itzuli zituen; gazteentzako literaturari dagokionez, Teresa María Castanyerrek BEBM itzuli zuen, eta Carme Geronèsnek eta Carles Urritzek, elkarlanean, SIG; gainontzeko haur literatur liburuaren kasuan, itzultzaile banak liburu bana itzuli du (Núria Prats i Espar, Goretti López eta Sofia de Ruy-Wamba); Pau Joan Hernándezek GBBtik aurrera argitaratu diren helduen literatur liburu guztiak itzuli ditu (GBB, ZH, BL, STX, BA eta SS). Azken hori, katalanezko idazleen elkartearen (Associació d'escriptors en llengua catalana) webgunearen itzultzaileen inguruko atalean, euskara-katalana hizkuntza parean ageri den itzultzaile bakarra dugu.

Galegoaren kasuan, bi itzultzailek bina liburu itzuli dituzte, Valentín Arias-ek eta Ramón Nicolás-ek. Lehenengoak gazteentzako bi liburu itzuli ditu, BEBM eta SIG, eta bigarrenak, berriz, helduentzako bi eleberri, OBB eta SS. Gainontzeko bi liburuak itzultzaile ezberdinek itzuliak izan dira; BL, Leandro García, eta STX, Martín Mendizabal eta Xosé Manuel González Barreireoren artean.

Frantsesera itzuli diren liburu guztiak itzultzaile berak itzuli ditu: André Gabastouk; bai helduentzako literatura, eta baita HGL ere. Bernardo Atxagaren ahotsa itzultzaile honen eskutik jaso dute frantsesek, eta bere ahotsak definitu du, nolabait, jatorrizko idazlearen ahotsa. Itzultzaile horrek gaztelaniaz idazten duten beste hainbat idazleren lanak ere itzuli ditu, Enrique Vila-Matasenak, Juan Carlos Onettirenak edo Rosa Monterorenak, esaterako.

Ingelesaren kasuan, argitaratu diren liburu gehienak eta nagusienak Margaret Jull Costak itzuli ditu. Hala ere, BL eta STX kontakizunak biltzen dituen liburua Nere Leteren eskutik etorri da. Bestalde, bada argitaratu gabeko beste lan bat, STX, Amaia Gabantxok itzulirikoa. Azken bi itzultzaileak euskaratik egin dituzte euren itzulpenak, lehenengoak ez bezala. Margaret Jull Costak portugesezko zein gaztelerezko hainbat idazleren lanak ingeleseratu ditu, besteak beste, Fernando Pessoaarenak, Eça de Queirozenak edo Javier Maríasenak.

Alemanaren kasuan, 6 itzultzaile aurkitu ditugu guztira. Horietako hiruk bina lan itzuli dituzte, eta gainontzeko hirurek, lan bana. Alemanera itzuliriko lehenengo bi lanak, OBB eta GBB, Giovanna Waeckerlin Indunik itzuli zituen; Xolaren bi liburuak, Katrin Schulzek, eta Bambulorenak, Sabine Müller-Nordhoffek; gazte literaturako BEBM, zuzenean itzuli zuen Ludger Meesek; eta beste bi eleberririk, Willi Zürbruggenek (ZH) eta Matthias Stroebelek (SS).

Italieraz, guztira 7 itzultzaile ezberdin ditugu. Horietatik bik soilik itzuli dute lan bat baino gehiago. OBB Sonia Piloto di Castrik itzuli zuen; BEBM, Agostino Peranik; hurrengo biak, GBB eta ZH, Giovanni Lorenzik itzuli zituen; SIG, Leonardo Dehok; XL eta BLU haur eta gazteentzat liburuak itzultzaile banak itzuli zituzten, Maria Bastanzettik eta Michele Piuminik; azkenik, italieratutako azken bi liburuak, BL, STX eta BA biltzen dituen *Storie di Obaba* eta SS, Paola Tomasinellik itzuli ditu.

Itzultzaile zerrenda zabal horren barruan, denetarik topatu ahal izan dugu. Batzuk itzultzaile profesionalak dira, eta liburu kopuru zabala itzuli dute. Beste hainbatek liburu bat edo beste besterik ez dute itzuli. Index Translationumen, itzultzaile bakoitzak eginiko itzulpenak kontsultatu ditugu. Iturri horrek emaniko informazioa ez da guztiz osatua, baina nahiko argi isla dezake batoren zein bestearen lanaren nondik norakoa. Webgune horretatik jasotako datuen arabera, itzultzaile profesionalen artean honakoak ditugu nabarmentzekoak: Pau Joan Hernández (176 liburu), Willi Zürbruggen (91), André Gabastou (70), Margaret Jull Costa (67), Maria Bastanzetti (63) edo Giovanna Waeckerlin (44). Zerrenda horretan, aipatzekoa da Carles Urritz eta Carme Geronèsen kasua, guztira 114 lan itzuli baitituzte elkarlanean. Beste muturrean, lan bat edo beste soilik itzuli duten itzultzaileak dauzkagu, hala nola Ludger Mees (3), Giovanni Lorenzi (4) edo Amaia Gabantxo (2)<sup>55</sup>.

Liburu kopuruaz gain, itzultzaile bakoitzaren hizkuntza konbinaketei ere erreparatu diegu, euskal lanekiko zein harreman izan duten ikusteko asmoz. Datu horrek, sarritan, itzultzaileek euskaratik baino gaztelaniatik lan egiten dutela iradokitzen digu. Esaterako, Margaret Jull Costak, portugesez 38 lan ingeleseratu ditu, 27 gaztelaniatik eta bana euskaratik zein italieratik. Datuon arabera, oso zaila iruditzen zaigu euskaratik itzuliriko lan hori zuzenean egin izana, itzultzailea gaztelaniatik itzultzen duen profesionala baita. Bilduriko datuen arabera, itzultzaile profesionalen artean Pau Joan Hernándezek itzuli du euskaratik lan gehien, eta presentzia nabarmena dute euskaratik katalanera eginiko itzulpenek bere ibilbidean. Gainerako itzultzaile profesionalak 3 lanetik behera itzuli dituzte eta zalantzarikoa dirudi zenbaitetan euskarazko jatorrizkoa erabili izana iturri modura. Itzultzaile amateurren edo ez hain profesionalen artean, lan kopuru urria itzuli dutenen

<sup>55</sup> Index Translationumetik jasotako datuen arabera, bada lanik itzuli ez duenik ere, baina horrek, berriro ere, iturriaren hutsuneak agerian uzten ditu. Herrialde bakoitzeko liburutegi nazionaletan ere egin nahi izan dugu bilaketa, ahalik eta emaitza osatuena lortze aldera, baina kontsultaturiko katalogo horietan, ezin izan dugu itzultzailearen araberrako berriazko bilaketarik egin.

artean, informazio oso gutxi eskaintzen digu taula horrek eta zaila da ezer garbirik esatea itzulpen motaren inguruan.

### 7.4.2 Ondorioak

Lehenengo eta behin, gaztelaniaren kasua berezia dela esan behar dugu. Bernardo Atxaga, elebiduna izanik, euskaraz gain hizkuntza horretan idazteko gai da, eta, arrazoi hori dela eta, itzulpen prozesuaren zati da, edo prozesuan bertan parte hartu gabe ere, epaitzeko gai da. Lehen aipatu moduan, hiru itzultzaile izan dira nagusiki bere lanak itzuli dituztenak: Bernardo Atxaga bera, Arantza Saban eta Asun Garikano. Hirurek ere, bakarka eta elkarlanean itzuli dituzte liburuak, nahiz eta, gure corpusari dagokionez, Asun Garikanok elkarlanean soilik itzuli duen. Horrela, hiru itzulpen mota ezberdin dauzkagu gaztelaniaz: autoitzulpenak (BAk itzuliak), kolaborazioak (BA-ASK edo BA-AGk elkarlanean itzuliak) eta autorea ez den itzultzaile batek itzuliak (ASK itzuliak). Aniztasuna ikusten da eta ez itzulpen bide bakarra, beraz.

Itzultzaile guztiak banan-banan aztertu ostean, frantsesez soilik topatu dugu itzultzaile bakarra, Atxagaren lan guztiak itzuli dituena: André Gabastou. Ingelesaren kasuan ere, argitaratu diren lan guztiak, bat izan ezik, Margaret Jull Costak itzuli ditu; beraz, antzerako maila batean izango lirateke bi itzultzaile horiek. Bestalde, gogora dezagun ingelesera zuzenean itzuliriko lanak Nere Letek itzuliak izan direla, eta Amaia Gabantxok argitara gabe dagoen lan bat ere itzuli duela.

Ikusi dugun moduan, beraz, frantsesez, eta, antzerako neurrian, ingelesez, ahots bakarreko Atxaga jaso dute, itzultzailea kasu denetan, edo ia denetan, pertsona bat eta bakarra izan delako. Beste hainbatetan, ahots askotariko Atxaga topa daiteke, liburu bakoitza pertsona ezberdinak itzuli baitu. Italicieraz eta alemanez, esaterako, aniztasuna ageri da eta ahotsa gutxitan errepikatzen da. Itzultzaile horien estiloak eta idazteko moduak autorearekin berarekin izaniko harremana ere islatuko du; beraz, itzulpenen harreran ere nolabaiteko eragina izan dezakeela pentsa daiteke. Hori horrela izanik, itzultzailez itzultzaileko bitestuen taula bat osatu dugu, testu azterketa egiterakoan baliatuko duguna itzultzaileen araberrako alderik ba ote den ikusi ahal izateko.

Hainbat kasutan, HGL itzuli duten itzultzaileek ez dute helduen literatur lanik itzuli. Hori gertatzen da, adibidez, Bambuloren eta Xolaren liburuekin katalanez, alemanez eta italicieraz; BEBM eta SIG liburuekin katalanez, galegoz eta italicieraz, eta BEBMrekin alemanez.

Itzultzaileen generoari dagokionez, nahiko paretsu ageri dira. Guztira 33 itzultzaile dauzkagu eta horietarik 16 dira gizonezkoak eta 17 emakumezkoak. Hizkuntzaka begiratuz gero, nahiko deigarria da galegoz gizonak soilik topatu izana eta ingelesez, berriz, emakumeak soilik. Katalanez ere, 8 itzultzailetatik 2 besterik ez dira gizonezkoak. Horietarik batek, helduentzako narratibazko lanak soilik itzuli ditu eta HGL libururik ez. Alemanezko HGL liburuaren artean, bestalde, 4tik 3 kasutan emakumeek eginak izan dira.

Gainerakoan, ez da alde nabarmenagirik nabari liburuen generoen eta itzultzaileen generoen artean.

Itzultzaileen arteko bi motatako kolaborazioak aurkitu ditugu: batetik, aurrez aipatu dugun moduan, autoreak itzultzaile baten laguntzaz itzuli ditu hainbat lan gaztelaniara; Arantza Sabanekin batera, GBB, eta Asun Garikanorekin batera, BLU eta SS. Bestetik, STX taldearekin itzuli zuten Martin Mendizabalek eta Xosé Manuel González Barreirok, eta SIG katalanera ere Carme Geronèssek eta Carles Urritzek itzuli zuten. Kasu horietan, autorea ez da kolaborazioaren partaidea izan.

## 7.5 BEHIN BEHINEKO EMAITZA OROKORRA

Liburuz liburuko deskribapena amaituta, eta liburu bakoitzak itzulpenaren inguruan dioena ikusirik, itzulpen bideari buruzko lehen datuak esku artean ditugu. Egin berri dugun deskribapenean ikusi ahal izan dugun moduan, datuak ez dira kasu guztietan irakurlearen eskura jarri, gaztelaniara eginiko hainbat itzulpen jatorrizko modura aurkeztu direnean, esaterako. Argitalpenetik argitalpenera, datuak aldatu egin dira zenbaitetan, *Zeru horiek* eleberraren gaztelaniazko aleetan, kasu. Emaniko datuak zalantzazkoak dira beste batzuetan: *Gizona bere bakardadean* liburuaren katalanezko itzulpenaren hiru argitalpenetan adierazitakoa horren adibide. Liburuek diotena guztiz garbia ez denez, fidagarritasun mugatua dauka bertan adierazitakoak. Eta zehaztasun falta horrek peritestuaren araberrako sailkapena guztiz erabilgarria ez dela adierazten digu. Touryk *assumed translations* edo “balizko itzulpenez” hitz egiten du, itzulpen modura aurkeztu diren testuez ari delarik (1995: 32). Guk kontzeptu hori gure ikerketara ekarri nahi izan dugu, itzulpenari baino itzulpen bideari buruz hitz egiteko: peritestuaren adierazitakoa “balizko itzulpen modua” dela esango genuke, beraz. Hori horrela izanik, jarraian aurkeztuko dugun taulan orain arte bildutako datuen araberrako “balizko itzulpen moduak” zehaztuko ditugu. Aurrerago ikusiko dugu, orain zehaztutakoak zuzenak diren edo ez.

Gaztelaniari dagokionez, peritestuaren autoitzulpen modura sailkaturiko itzulpenak gorri aurkituko ditugu (auto); laranja, autorea eta itzultzailearen arteko kolaborazioa adierazi dugu (kol), eta urdin argiz, autorea ez beste itzultzaile batek eginiko itzulpena (bb). Gainontzeko hizkuntzen kasuan, zuzenean eginiko itzulpenak (zuz) urdin ilunez zehaztu ditugu, eta berdez, zeharka eginikoak (zeh). Itzulpen prozesuaren nondik norakoak argi ikusten ez diren kasuak morez adierazi ditugu (ED). Horietariko hainbat liburutun, jatorrizkoaren izena euskaraz agertu da, eta kasu horietan, itzulpena euskaratik zuzenean egin izan daitekeela ematen du. Horietan, ED zehaztapenaren ondoan, parentesi artean “(zz)” gehitu dugu; hau da, “ez dakigu, baina zuzeneko itzulpena izan daiteke”. Jatorrizkoaren izenburua gaztelaniaz agertzen denean, berriz, “(zh)” gehitu dugu; hau da, “ez dakigu, baina, ematen duenez, zeharkako itzulpena izan da”. Beharrezkoa da kasu

horietan balizko itzulpen mota markatzea, hau da, ez guztizko ziurtasunez, testuetara iritsi arte ez baitugu hala egiterik izango. Touryk dioen moduan, “on the basis of information of this kind, texts which in all likelihood could not have been translated from the ultimate original would be tentatively marked ‘mediated translations’. The next step, establishing their immediate sources, will often be only *probabilistic*” (Toury, 1995: 134). Nahiz eta biltzen goazen datu gehienek norabide hori erakutsi, zalantza puntua beti mantendu beharko dugu, ez baitute zertan kontsultaturiko iturriek dioten modukoak izan.

Honakoa da peritestuen azterketaren emaitza:

7-5 Taula. Behin betiko corpora: liburuek diotena

	eus	gazt	kat	gal	fr	Ing	ale	It
1	BL	ED (Bb /Auto)	ED(zz)// ED(zz)	Zeh	Zeh	Zuz		ED(Zh)
2	STX	Bb	ED(zz)// ED(zz)	ED		Zuz// (zuz)		ED(Zh)
3	BA	Auto	ED(zz)		Zeh	Zeh		ED(Zh)
4	OBB	Auto	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	ED(Zh)
5	BEBM	Bb / Kol	ED(zz)	ED(zz)	Zeh		Zuz	ED(zz)
6	GBB	Kol	ED		Zeh	Zeh	Zeh	Zeh
7	ZH	Auto	ED(zz)			Zeh	Zeh	Zeh
8	XL	Auto	ED(zz)		Zeh		Zeh	ED(Zh)
9	XB	ED	ED(zh)		Zeh		Zeh	
10	SIG	ED	ED(zh)	ED(zh)	Zeh			ED(Zh)
11	BLU	ED	ED				Zeh	Zeh
12	SS	Kol	ED(zz)	ED(zz)	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh
	Guztira	1 bb 3 kol 4 auto 4 ED	1 zeh 13 ED	2 zeh 4 ED	9 zeh	5 zeh 2 zuz (1 zuz)	7 zeh 1 zuz	4 zeh 7 ED

- Liburu guztiak itzuli dira gaztelaniara, eta 12 itzulpen dauzkagu orotara; liburuek diotenaren arabera, guztira 4 autoitzulpen dauzkagu, 3 kolaborazio eta liburu 1 beste itzultzaile batek itzulia. Hiru kasutan, ez da itzulpenaren inguruko daturik ageri eta beste batean datu kontraesankorra bildu dugu.
- Katalanez, liburu batean soilik ageri da, espreski, itzulpen prozesuaren inguruko daturik. Gainontzeko kasu guztietan, ez dakigu zehatz-mehatz nola egin den itzulpena. Kredituetan, batzuetan, jatorrizkoaren izena gaztelaniaz ageri da, eta, beste batzuetan, euskaraz, nahiz eta hori ez izan nahikoa itzulpenaren nondik norakoak argitzeko.

- Galegoaren kasuan, bi liburutan argi azaltzen da itzulpena gaztelaniatik egina izan dela. Beste bi kasutan, itzulpenari buruz, ezer ez, baina jatorrizkoaren izena euskaraz agertzen da, eta beste behin, gaztelaniaz. *Sugeak txoriari begiratzeko diorean* liburuan, ez da jatorrizkoaren izenik ere ageri.
- Frantsesezko itzulpen guztiak zeharkakoak izan dira.
- Ingelesezt, zeharka itzuliriko 5 liburu dauzkagu, eta beste bi, zuzenean itzulirikoak. Argitaragabe dagoen STX zuzenean itzuli du Amaia Gabantxok.
- Alemanez, zeharka itzuliriko 7 lan eta zuzenean itzuliriko lan bat dauzkagu.
- 4 liburu zeharka itzuli dira italierara. Gainontzeko 7 kasuetan, itzulpenaren ingurukorik ez da ageri, eta horietariko 6tan jatorrizkoaren izenburua gaztelaniaz ageri da. Horrek zeharka itzuli direla pentsarazten digu.

Taula honek argi eta garbi erakusten du peritestuaz azterketak ez digula informazio guztia eskaintzen. Hizkuntza batzuetan besteetan baino nahasmendu handiagoa nabari daiteke eta horietan argitu beharko dira kontuak aurrerago, beste iturri batzuetara joz.

## 7.6 EPITESTUEN AZTERKETA

### 7.6.1 Azterketa

Liburuetan itzulpenaren inguruan ematen diren datuak ez direla sistematikoki beti berdin ematen ikusi dugu aurreko atalean. Itxura batera, arazorik eman beharko ez lukeen datua da itzulpen aitortzarena, baina, aztertu ostean, kontua uste baino konplexuagoa dela egiaztatu ahal izan dugu. Liburuez gain falta zaizkigun datuak epitetuetatik jasoko ditugu, hau da, datu horiek liburuz haraindiko beste hainbat iturritatik lortzen saiatu gara, eta horien inguruko azalpenak emango ditugu atal honetan.

Gogora dezagun, lehenengo eta behin, Genettek zer dioen bigarren paratestu mota honen inguruan. Bere hitzetan, epitetuak liburuz kanpo kokatutako elementuak dira. “The distanced elements are all those messages that, at least originally, are located outside the book, generally with the help of the media (interviews, conversations) or under cover of private communications (letters, diaries, and others)” (Genette, 1997: 5). Guk, batez ere, epitetu publikoak erabili ditugu, baina oraindik ere geratzen zitzaizkigun zalantzak argitze aldera autorearekin berarekin harremanetan jarri eta postaz zein elkarrizketa bidez ere lortu dugu informazioa.

Epitetuen azterketan topatu ditugun daturik gehienak gaztelaniarako itzulpenari dagozkio. Bada katalanari dagokionik ere, baina ez dugu hainbeste erreferentzia topatu gainerako hizkuntzetan; horietan, peritestuak nahiko garbi erakutsi dute itzulpenaren nondik norakoa eta epitetuak kontsultatzen

beharra ez da hainbestekoa izan. Nahasmendua dagoen harremanetan argitu behar dira kontuak gehien.

Lorturiko datuak ez ditugu liburuz liburu corpuseko hurrenkera berean emango. Aitzitik, egokiagoa iruditu zaigu itzulpen motaka agertzea datuak. Beraz, gaztelaniazko testuetatik abiatuta, autorea ez beste itzultzaile batek eginiko itzulpenekin hasiko gara, ondoren autoitzulpenekin jarraitu eta azkenik kolaborazioei buruz jardungo dugu. Ondoren, gainerako hizkuntzetako itzulpenen ingurukoak argitzen saiatuko gara.

Gaztelaniazko hiru<sup>56</sup> itzulpenetan itzultzailearen izenik ez da ageri, ez eta itzulpenaren inguruko daturik ere. Datu horiek ezkutatzean, liburuaren oinarrian dagoen lana gutxiesten da, eta gaztelaniazkoa, jatorrizko modura aurkeztu. Horien berri jakiteko Bernardo Atxagarekin berarekin jarri ginen kontaktuan, itzultzailea nor zen jakiteko. Posta elektronikoz argitu zigunez, “*Zeru horiek* liburua Asun Garikanok itzuli zuen, baina argitaletxeari “ahaztu” egin zitzaion kredituetan jartzea” (Atxaga, 2007e<sup>57</sup>). Beraz, argitaletxearen arreta faltaren erruz, espainiar irakurleak ez zuen itzulpenaren inguruko erreferentziarik jaso. Eta, ondorioz, zeharka eginiko itzulpenetan ere, jatorrizko modura gaztelaniazko bertsioa soilik agertu zen. Euskarazkoa ezkutatzean gaztelaniazkoa agertzen da jatorrizko modura, eta horrek liburuak gaztelaniazko literatur sistemaren barruan kokatzen ditu, eta ez, euskal literatur sistemaren barruan.

Atxagak esan bezala, “argitaletzekoek badakite itzulitakoa normalean gutxiago saltzen dela” (Atxaga, 2008a). Merkatuaren exigentziak gogorrrak dira, eta, horrexegatik, itzulpen prozesua ezkutarazi egiten dute hainbatetan, autorearen nahiaren aurka. *Zeru horiek* liburuan itzulpenaren berri agertu ez zela eta, honako azalpenak ematen ditu autoreak:

Ediciones B-n garai hartan aldaketa asko egon ziren, exekutiba aldaketa izan zen, eta *Zeru horiek* Asun Garikanok itzuli zuen eta, bat batean, ez zen azaldu. Badakizu, galdetzen duzu, baina *de facto* halaxe da, eta bai, batek esaten du ni ez nintzen konturatu baina badakizu horregatik dela. Eta, orduan, erne egon behar duzu hurrengoetan eta beti esan “jarri egin behar da”. Hala ere, batzuetan, autorearekin batera jarri behar duzu, bestela jende asko atzendu egiten delako (Atxaga, 2008a).

Autorearen beraren hitzak, beraz, ez datoz bat peritestueta ikusi dugun informazioarekin; ezin ziur jakin autoreak esaten duen moduan itzultzaileak itzuli duen liburua ala, paratestuek dioten moduan, autorea bera izan ote den itzultzailea. Azterketa testualera igaro beharko dugu emaitza zein den ikusteko eta bat ala bestea izan den jakiteko.

<sup>56</sup> Azterketa hasi genuenean lau ziren itzultzaile izenik ez zuten liburuak, *Zeru horiek* liburuak ez baitzuen oraindik aitortu itzulpena. Gogoratu, 2008ko argitalpen batean azaldu zela lehenengo aldiz liburu horren itzulpenaren berri.

<sup>57</sup> 2007-2-24an autoreak guri bidalitako posta elektronikoko batean esana.



Posta elektronikoz autoreak esan zigunez, *Xola eta basurdeak* autoitzulpena izan zen; *Bambulo. Lehen urratsak* liburua, berriz, Asun Garikano eta bien artean elkarlanean eginiko itzulpena. Autoreak adierazi digunez, haur eta gazteentzako literatur lanak itzuli behar direnean, “lanaren astunak edo lanaren luzerak erabakitzen du” itzulpen prozesua nolakoa izango den. “Nik lan gehiago egiten dut haur literatura [itzultzen], baina, hain zuzen, ba 10 folio direlako, edo 15 folio, eta, azken batean, menderatu egiten duzu” (Atxaga, 2008a). Alegia, adierazpen horien arabera, ez da beharrezkoa, gainontzeko liburuen kasuan bezala, itzultzaile batekin elkarlanean aritzea. “Laburrak dira eta (...) egiten dira di-da batean eta kitto” (Atxaga, 2008a).

*Obabakoak* gaztelaniara Bernardo Atxagak berak itzuli zuela agertzen da liburuaren kredituetan. Hala ere, interesgarria da liburu honen kasuan argitaratu aurretik egin zuen bidea. Izan ere, Espainiako Sariketa Nazionalera aurkezteko gaztelaniarako itzulpena egiteko 4 itzultzailek gehi idazleak berak egin baitzuten itzulpena.

*Vasos Comunicantes* aldizkariaren 4. zenbakian eta *Senez*-en Juan Garziak eginiko elkarrizketa batean jasoak bildu ditugu, itzulpenaren nondik norakoak agertzeko. Gaztelaniaratzeko ideia eta proposamena honela laburtzen ditu Atxagak berak:

Hablando más en concreto del asunto de la traducción, me ocurrió que, hacia el año 88, una lectora y crítica que se llama Mercedes Monmany vio un cuento que yo había publicado en una revista de Pamplona, que en aquella época dirigía Sánchez Ostiz. Y entonces empezó, muy poco a poco, el proceso de la traducción. A partir de ese cuento y a partir de la traducción de otro cuento infantil, supongo que empezó a correrse la voz, al menos en dos o tres editoriales, de que las cosas que hacía podían tener cierto interés. Fue entonces cuando me llega la proposición de traducir *Obabakoak*. Era tan, era tan in..., insólito este hecho, que yo no lo tomé en cuenta, sinceramente. Es decir, cuando me hablaron de traducir yo pensé que muy bien, que era una posibilidad entre mil, que era como lanzar una botella al mar; sobre todo, insisto, debido a esa separación absoluta del mundo vasco...

(...)

Con ese pequeño corredor a través del cuento que publiqué traducido en la revista de Sánchez Ostiz, y la lectura de Mercedes Monmany, llega esa propuesta para traducir mi libro, que yo no tomo en serio hasta que ocho meses más tarde vuelven a llamarme, vuelven a citarme y me hacen una propuesta (Atxaga, 1994a: 57-58).

Sari Nazionalera aurkezteko garaia heldu zenean, berriz, liburua itzultzeko prozesua nolakoa izan zen azaltzen du:

Kontua zen nik hasiera hartan oso urruti ikusten nuela; iruditzen zitzaidan beti bezala, ezta?, testigantza moduko bat edo; “han badago euskaldun bat”... eta ez nuen pentsatzen sekula hori aurrera joango zenik. Baina zer gertatu zen? Ba, bialdu nuela aurreneko zatia –neronek

itzulitakoa– **Esteban Werfell**, batez ere, eta beste pare bat, eta orduan epaimahaiko batzuk esan zuten gehiago bidaltzeko... Kontua da **Esteban Werfell** oso ondo ikusi zuela. Eta orduan, hiru hilabete aurrean, eta nik ezin nuela hura bukatu. Orduan hasi nintzen itzultzaile bila ero moduan... Eta hiru itzultzaile aurkitu nituen. Bakoitzak hartu zuen zati bat, esate baterako, **Villamedianakoa** batek, beste batek **Azken hitzaren bilaren** tarteko zerak, besteak bertako ipuin bakanak. Nik banatu nuen liburua tonuaren arauera, alegia, jendeak itzul zezala tonu berdinean zegoen testua. Eta hala osatu genuen hirurehun eta hogeitaren bat orrialde, oso-osorik ez, beraz. Horiek izan ziren epaimahaikoek irakurri zutena. Nik pixka bat txukundu nituen gainera... (Garzia, 1990: 14-15).

Ikus dezakegunez, liburuaren itzulpena Sari Nazionalari guztiz loturik dago. Epaimahaiak irakurri eta ulertu ahal izateko, eta obra bera baloratzeko beharrezkoa zuten itzulpena, saria emango bazioten. Egoera berezi horretan egin zen itzulpena.

Sariaren ondorenean liburuaren gaztelaniazko argitalpena etorri zen baina hori baino lehen idazleak berak liburua guztiz txukundu behar izan zuen. Itzulpen prozesu hura nolakoa izan zen adierazten du jarraian:

Gero etorri zen argitaratu beharra. Eta argitaratzeko orduan ni sartu nintzen Barcelonako hotel batean, hantxe egon nintzen bi hilabete atera gabe (...) Lan egiten nuen hamasei orduatik hogeitara egunero-egunero... Pentsa ze lan izan zen. Desesperagarria! (...)(Garzia, 1990: 15).

Prozesua oso gogorra izan zen autorearentzat, aurrez esku ezberdinek eginiko lana bateratu eta argitaratzeko moduko lan txukun bat prestatu behar izan zuen. Jarraian, itzulpen prozesuaren zailtasunei buruz esanikoak irakur daitezke:

Berridatzi egin nuen. Orraztu nuen Sari aurretik, baina gero berriro dena dena goitik behera berritu egin nuen. Orduan konturatu nintzen ezinezkoa dela ohizko itzulpen hori: guk normalean itzulpena esaten dugunean zera ulertzen dugu: hemen testu bat, hemen bestea; ahalik eta paralelotasun gehiena, eta abar. Eta orduan, bi hizkuntzak ondo menderatzen badira, maila berean edukiz gero, paralelotasun hori ezinezkoa da, edo ez da komeni, nire eritzirako. Literaltasuna eta jatorrizko testuarekiko errespetua, hori segituan konturatzen zara, hasi orduko konturatzen zara, ezinezkoa dela. Hain zuzen ere, errazagoa delako idaztea, itzultzea baino; askatasun gehiago daukazu eta orduan errazagoa da... Hemen daukazu arazo bat (paperean marrazten hasten da) ia soluziorik ez daukana ohizko itzulpenaren arauera, ezta? Ba, erlatibo bat oso trakets gelditzen dena kasu honetan. Askoz errazagoa da, fuit!, beste alde batetik joan, eta orduan bertsio bat egiten duzu... (Garzia, 1990: 16).

Jatorrizkoa eta itzulpenaren arteko parekotasuna ez da, beraz, erabatekoa *Obabakoak* liburuari dagokionez. Elkarrizketatzaileak honakoa gaineratu du azken adierazpen horien ondoren:

(Honetantxe zetzan nire kezketako bat, askori entzuna baitiot —eta neure irudipena halaxe zen— ezin zela guztiz itzulpentzat jo **Obabakoak**ena, bertsioztat baizik. Elkarrizketariak ez du, hala ere, oraingo honetan bere ausardia frogatzeko aukerarik izan, berak aipatu baitu hitza. Badaezpada ere, haatik, ea hala den galdetzen diot, eta Atxagak baietz, zati batzu itzulpen alderago eta beste batzu bertsio libreago egiten dutela, baina orohar bertsio izena dagokiola) (Garzia, 1990: 16).

Beraz, orain artekoak ikusita, *Obabakoak* liburua gaztelaniaratzeari oso prozesu konplexua izan zela ondoriozta dezakegu, eta itzulpen baino, bertsio izena hobekiago dagokiola.

*Sara izeneko gizona* liburuaren gaztelaniazko bertsioan ez da itzulpenaren inguruko daturik agertzen. Honako gazteentzako eleberri hau autoitzulpena da, Manu Lopez Gasenik *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* liburuan azaltzen duenez.

*Sara izeneko gizona* liburuak ere bide luzea egin zuen liburu formatuan argitaratu zen arte. Hona hemen Manu Lopez Gasenik, *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* liburuan lan honen argitalpen bidearen inguruan emandako azalpena:

Obra horren lehen bertsioa 80ko hamarkadan sortu zen, Euskadi Irratiko “Antzoki iluna” irratsaiorako euskarazko irrati-gidoi gisa. Orduko hura euskara ikasten ari ziren helduei zuzendutako irrati-nobela moduko bat izan zen, 12 kapituluz osatua, *Sara: Zumalakarregiren zelatari* tituluaren pean, eta gerora, 1990ean, irratiko grabazioarekin batera argitaratua. Sei urte geroago, 1996ko udan, Diario Vasco eta El Correo egunkarietan istorio horren moldaketa bat argitaratu zen, gaztelaniaz eta 15 emanalditan zehar, “Un espía llamado Sara” izenarekin. Handik gutxira, berriz, testu hori (titulu berarekin eta geroago aipatuko ditugun gehiketa batzuekin) liburu formatoan argitaratu zen Acento argitaletxean eta, geroxeago, euskaraz, *Sara izeneko gizona* tituluarekin, Pamiela argitaletxean, biak gazteentzako bildumak (Lopez Gaseni, 2005: 73-74).

Testuaren bilakaerari dagokionez, irratsaiorako eginiko testua guztiz itxuraldatu zen egunkarietako argitalpenerako lehendabizi, eta liburu formaturako, ondoren.

Ezer baino lehen, esan behar da *Sara: Zumalakarregiren zelatari* izeneko irrati gidoia beste testuekin konparatuta hain desberdina izanik, ia ezinezkoa dela konparazio baterako baliagarriak gerta daitezkeen testu-binomioak ezartzea. Hori dela eta, geroko itzulpenetako sorburu

testutzat baino gehiago, eleberria izango zenaren enbrioi narratibo autonomotzat hartu beharko genuke.

Euskal Herriko bi egunkaritan *Un espía llamado Sara* izenarekin emanaldika argitaratutako narrazioari dagokionez, oso aldaketa gutxi erakusten ditu handik gutxira izenburu berarekin argitaratuko zen eleberriarekiko, salbuespen garrantzitsu batekin: kapitulu bakoitzari erantsitako epilogoak artean ez ziren existitzen, eta gerora gazteentzako argitalpenetarako propio sortu ziren. Beste aldetik, egunkarietako hamabost emanaldiak zazpi kapitulu bihurtu ziren eleberrietan (gaztelaniaz zein euskaraz) (Lopez Gaseni, 2005: 76-77).

Testuaren itzulpen prozesuari dagokionez, itzulpena euskaratik gaztelaniara baino gaztelaniatik euskarara egin zela adierazten du Lopez Gasenik, Juan Luis Zabalak Bernardo Atxagari eginiko elkarrizketa bat oinarri harturik:

(...) Atxagari egin zioten beste elkarrizketa batean, orainoan 1996an *Sara izeneko gizona* eleberriaren argitalpena izan zela eta, kasu horretan itzulpen prozesua desberdina izan zela azaldu zuen, gaztelaniaren eta euskararen ekarpenez osatutako sorkuntza metodo bat proposatzearekin batera:

Duela 16 urteko irrati-nobelatik abiatuta, nobela hau gaztelaniaz idatzi dut eta gero euskaratu egin dut. Euskaratzerakoan euskararekin zer gertatzen zen ikusi nahi nuen. Itzulpen guztietan bortxaketa bat dago, eta nik bortxaketa hori norberak egiten duenean zer gertatzen den jakin nahi nuen (...) Nire lanak euskaratik erdarara itzultzean, testu bera erdaraz trinkoagoa gelditzen zitzaidala iruditzen zitzaidan beti, torloju bat bezala, hobeto asentatuta. Alderantzizko bidea egin nahi izan dut kasu honetan (...) Orain erabakita daukat nola jokatuko dudan nobelarekin. Euskaraz idatziko dut aurrenekoz, gero, behar den diziplina jarri eta borondatearen poderioz, hori erdaratu egingo dut eta, azkenik, berriro idatziko dut euskarazkoa gazteleraizko itzulpenetik sortzen zaizkidan bariazioak aintzat hartuz. Nik uste dut horrela testua ondo lotuta geldituko dela, zehaztasun aldetik aberatsagoa izango dela (Zabala, 1996: 30 in Lopez Gaseni, 2005: 73-74).

Ur Apalategik ere plazaratu zuen jatorrizkotasunaren inguruko gogoeta Atxagari buruzko bere ikerlanean:

*Sara izeneko gizona* jadanik ez dakigu ondo ia euskaraz idatzi duen lehenik ala alderantziz (idazleak berak prentsan argitzen duenez, lehenik euskaraz, ondoren gazteleraiz eta azkenik errepasso berri bat euskarazko bertsiolari). Horrez gainera, gazteleraizko argitalpena euskarazkoari aurreratu zaio liburudendetan, “argitaletxeen arteko koordinazio falta zela-eta” (*dixit* Atxaga)” (Apalategi, 1998a: 78).

Guk geuk Atxaga berari posta elektronikoz auzi honen galde egin genion. Ez euskarazko liburuan ezta gaztelaniazkoan ere ez da itzulpenaren inguruko

ezein datu ageri, eta Lopez Gaseniren azterketei esker dakigula esan genion autoitzulpenaren berri. Ondorengo izan zen bere erantzuna:

Egia esan, ez naiz gogoratzen. Nolanahi den, liburu bezala euskaraz egin nuen lehenik. Aurren atera zen egunkarietan, baina ez da testu bera (atalen epilogoak daude tartean, testua erabat aldatzen —eta hobetzen— dutenak) (Atxaga, 2007e).

Honenbestez, liburuaren sorkuntza eta itzulpen-moldaketa lana nahiko konplexua izan dela ikus dezakegu adierazpen horien guztien bitartez. Zaila da sorburu hizkuntza zein izan den zehaztea.

Aipatu berri dugun moduan, itzulpenaren inguruko daturik ez da inondik inora ageri, ez euskarazko argitalpenetan ezta gaztelaniazkoetan ere. Hori ikusirik, Lopez Gasenik paratestuak aztertu zituen, eta honakoa ondorioztatu:

Gaztelaniazko eta euskarazko eleberrien konparaziotik, zenbait desberdintasunez ohartzeko gara paratestuetatik beretatik. Kontrazalekoak berdinak badira ere (lehen kapitulutik ateratako testuak dira), gaztelaniazko bertsioko bi paratestu desagertu egin ziren euskal bertsiotan, hain zuzen ere, arestian aipatutako “Nota preliminar” delakoa, non Atxagak gazte literaturaren alorrean kokatzen baitu obra eta *Behi euskaldun baten memoriak* aurreko gazte eleberriarekin konparatzen; eta azken ohar bat, gaztelaniazko testuan tartekatutako poemaren jatorria aitortzen duena (fikzioan Barrez frantsesaren poema liburukoak zirenak eta, gaztelaniazko bertsiotan “curiosamente, no estaban en francés, sino en español” —Atxaga, 1996b: 92—): Carlos Alvar-ek egindako Poesía de Trovadores antologiari, hain zuzen ere (Lopez Gaseni, 2005: 76-77).

Atxagaren iritziko, gaztelaniarako itzulpena egiteko euskal idazleek, idazle elebidun diren aldetik, present egon beharko lukete. “Itzultzailearekin lan egin behar da eta bi hizkuntzak ezagutuz gero nire ikuspuntutik ez da batere logikoa, zuk ezagutu hizkuntza bat, itzultzailea hor dago, biok bizirik zaudete” (Atxaga, 2008a). Itzultzailearekin elkarlana nahi eta nahiezkoa zaio autoreari.

Atxagak, guk eginiko elkarrizketan (2008), bere autoitzultzaile-kolaboratzaile lanak bilakaera bat izan duela esan zigun. Hasierako lanetan bera itzulpen prozesuan oso present zegoela, eta, adibidez, *Sugeak txoriari begiratzen dionean* liburuaren itzulpena “goitik behera nik idatzia da”<sup>58</sup> (Atxaga, 2008a). Gaur egun, ordea, “urte batzuk elkarrekin lan eginez (...) [Asun Garikanorekin] tailer horretan ikasi egiten duzu, eta badakizu itzultzailearekin nola lan egin” (Atxaga, 2008a).

Kolaborazio-lanaren nondik norakoak zehatz-mehatz ezagutzea zaila izaten da, mugak oso lausoak baitira. Itzulpenean parte hartzen dutenek soilik

<sup>58</sup> Gogora dezagun, peritestueta itzultzailearen izena ageri dela autorearen ordez.

ezagutzen dute norberaren eginkizuna zer nolakoa izan den. Batak eta besteak zein neurritan duten itzulpenaren ardura idatziz ematea, beraz, ez da batere samurra. Batzuetan, itzultzailea egon egon dela onartuko da, nahiz eta gero lanik handiena autoreak egin; beste batzuetan, autoreak “autoritate” handiagoa duenez merkatuari begira, nahiago izango da bere izena ematea. Gauzak horrela, peritestueto informazioak ez du sarritan errealitatea islatzen eta epitestueto laguntza guztiz beharrezkoa izango da. Hala ere, epitestuetoetik ez ditugu beti behar ditugun datuak lortuko eta haratago jo beharko dugu, testuetoara.

Gainontzeko hizkuntzetako lanei dagokienez, kasu guztietan agertzen da itzultzailearen izena. Itzulpena liburu guztietan aitortzen bada ere, itzulpen prozesua izango da ezkutatu dena edo nola egin den argi eta garbi azalduko ez dena. Lehen aipatu dugun moduan, arazo gehien gertuko edo hurbileko sistemen artean topatu dugu –gaztelaniaz batez ere, baina baita katalanez edo galegoz ere–, eta ez hainbeste kanpoko sistema ezberdinen artean.

Mario Santanak *Soinujolearen semea*-ren inguruko azterlanean, ondorengo irakurri ahal izan dugu katalanerako eta galegorako itzulpenen inguruan:

While the Spanish edition muddles the reality of the Basque original, the Catalan and Galician ones choose to ignore the existence of Atxaga’s Spanish adaptation. In *El fill de l’acordeonista*, both the information on the inside flap of the jacket and the copyright page clearly note that *Soinujolearen semea* is the original that is being translated. So does the Galician translation, in which, on the copyright page, thanks are extended to the literary agency Ikeder and Ediciones Pamiela, publisher of the Basque original edition. The Catalan and Galician versions claim to be translations of the original Basque, but they are in fact based on the Spanish version: they feature the same changes mentioned above with regard to the Alfaguara edition—the opening poem, the transposition, retitling, or elimination of sections, and the revised acknowledgments. In these translations, Atxaga’s Spanish version is used as the source but nevertheless rendered invisible to the reader. The Catalan edition also eliminates the cover shared by the Basque and Spanish editions (which is reproduced in the Galician version), and replaces it with the frontispiece of the original—thus, the link to the Basque is preserved, but the parallels to the Spanish are obliterated (Santana, 2009: 221-222).

Katalanerako itzulpena Pau Joan Hernàndezekin egin zuen, eta, berarekin izaniko elkarrizketa batean<sup>59</sup>, liburua gaztelaniatik itzultzeko eskatu ziotela esan zigun:

També hi ha casos en que la editorial et diu que “l’autor m’ha dit que el tradueixis del castellà per que troba que els canvis que ha introduït ho

<sup>59</sup> Pau Joan Hernàndezekin elkarrizketa 2010eko irailaren 7an egin genuen.

converteixen en un text definitiu”. Això amb Atxaga em va passar amb *Soinujolearen semea*. Això ho tradueixo del castellà (Hernández, 2010a).

Hernàndezek dioen moduan, zubi testua kanonizatu egiten da, jatorrizkoaren kaltetan. Kasu honetan, autoreak berak bultzatuta, Atxagak berak nahiago baitu bitarteko hizkuntzatik itzultzea<sup>60</sup>. Zubi hizkuntzako bertsioak jatorrizkoa ordezkatzan du eta euskarazko jatorrizkoaren jatorrizkotasuna zalantzan geratzen da, ez baita behin betiko testu; gaztelaniazkoa bihurtzen da behin betiko jatorrizko. Beraz, euskarazkoa behin behineko jatorrizko modura geratzen da, zerbait faltako balu bezala. Eta zerbait hori gaztelaniazko itzulpenarekin lortzen dela ematen du.

Horri loturik gogoan hartu beharko genuke Benjaminek itzulpenaren inguruan eginiko gogoeta. Horren arabera, itzulpena ez da jatorrizkoaren “zentzua” irakurleei helarazteko tresna soil. Itzulpena jatorrizkoarengandik aparte sortu da, nahiz eta jatorrizkotik eratorrita, eta aparteko bizitza dauka. Nolabait jatorrizko testua osatzen du.

Zeharkako itzulpenak direla eta honakoa adierazi du Santanak *Soinujolearen semea* liburuaren katalanerako eta galizierarako bertsioei buruz:

If I bring to light the peculiarities of the Catalan and Galician translations it is not to decry the practice of indirect translation. After all, to the extent that *El hijo del acordeonista* can be arguably regarded not as a translation of the original Basque, but rather as another version written by the same author in a different language, most of the concerns about the potential for errors and misinterpretations in mediated translations do not hold. But that does not mean that the use of the Spanish version as the intermediary source should be free from scrutiny (Santana, 2009: 222).

Zeharkako itzulpena egin egiten bada, erabilera horren nondik norakoak liburuan agertzea zilegi izan beharko luke. Katalanaren kasuan, *Obabakoak* ere gaztelaniatik itzuli zen eta hori adierazten zuen ohar bat agertzen zen liburuan (begiratu 7.2.4.3 atala). *El fill de l'acordeonista*-ren kasuan, berriz, ez da ezer adierazi.

Zeharkako itzulpenak egiteko autoreak berak beste itzultzaile batekin batera eginiko gaztelaniazko bitarteko bertsioa erabiltzeak xede itzulpena zilegi bihurtzen duela adierazten digu jarraian Santanak.

<sup>60</sup> *Markak. Gernika 1937* (2007) liburuaren alemanera itzultzen ari den David Lindemann itzultzaileak zera esan digu, autoreari berari galdetuta euskarazkotik ala gaztelaniazkotik itzultzea zer nahiago duen, autoreak bere esku, itzultzailearen esku, utzi zuela erabakia, itzultzaileak nahiago duen bertsioa erabiltzeko aukera emanez, bi bertsioak autorarenak berarenak baitira. Lindemannek euskarazko bertsioa hartu du oinarri.

In the search for norms governing the behavior of the Spain's literary polysystem, and based on the treatment given to the translations of Atxaga's novel, one would be inclined to conclude that each of its linguistically-defined components (the Spanish, the Catalan, and the Galician) feels compelled to affirm its autonomy and independence as the primary provider of literature. In the case of the Catalan and Galician translations, to recognize the use of the Spanish version could signal the acknowledgment of the existence of a dominant language as a mediating factor—even though I would argue that in this case the deciding mediation is not simply the Spanish text, but also the authorial self-translation. In other words, when translations or versions of a text by a minority-language author are available by the same author in another, more accessible language, that second version is regarded as a legitimate source for translations into other languages. But the fact is, even if the use of Atxaga's Spanish version could be perfectly legitimate, it has been hidden in the Catalan and Galician paratexts—as if to assert that those two languages share with Basque a common space where Spanish is nonexistent (Santana, 2009: 223).

Beraz, autoreak eginiko gaztelaniazko xede-sorburu testua erabiltzea zilegi bada, irakurlea nola edo hala engainatu egiten da berau erabili dela ezkutatzuz gero. Gainera, literatura ezberdinen arteko lotura sistemikoak ezkututzen dira.

Katalanez, orokorrean, itzulpen prozesua ezkutatzera jo da. Corpusean bildu ditugun 14 liburuetatik batean soilik agertzen da zehatz-mehatz itzulpena nola egin den: *Obabakoak* eleberriaren itzulpenean. Liburu horren itzulpen guztietan adierazi da, gainera, itzulpenaren nondik norakoa; katalanezkoan, ohar baten bitartez adierazi da. Gainontzeko liburuetan irakurleak ez daki oso ongi zein hizkuntzatatik egin den itzulpena, nahiz eta kredituetan jatorrizkoaren izena euskaraz edo gaztelaniaz agertu, horrek ez du esan nahi hori izan denik itzulpena egiteko erabili den bertsioa.

Katalanez topatu dugun kasurik bereziena *Gizona bere bakardadean* liburuarena da. Hiru argitalpen izan ditu, eta, hiruretan, informazio kontrajarria agertzea da: batean, itzultzailearen izena soilik agertzen da; bestean, euskaratik itzuli dela, eta, hirugarrenean, gaztelaniatik egin dela itzulpena. Informazio ezaren ordez, honako kasu honetan informazio faltsua jasoko du irakurleak. Pau Joan Hernández itzultzailearekin hitz egin genuen paratestuen auzi hori argitze aldera, eta, haren esanetan, euskarazkoa zein gaztelaniazkoa erabili ditu liburu hori itzultzerakoan. “À *Gizona bere bakardadean* treballava amb el castellà i el euskera al mateix temps” (Hernández, 2010a). Honakoa izan zen itzuli zuen Atxagaren lehen liburua, eta euskarazkoa zein gaztelaniazkoa hartu zituen bere itzulpenerako oinarri. Horiek horrela erabiltzeko erabakia itzultzaieak berak hartu omen zuen kasu hartan.

Euskaratik zuzenean itzultzeko gai diren itzultzaileek bi bertsio izaten dituzte eskura: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa, eta biak erabil ditzakete



itzulpenerako iturri modura, sistematikoki ala ez. Hernàndezek nahiko sistematikoki erabiltzen omen ditu bi bertsioak itzulpenerako iturri modura: “així és com m’agrada” (Hernàndez, 2010a). Euskarazko zein gaztelaniazko testuak aurrean izanik, bi bertsioak alderatzen ditu hirugarren batetara iristeko:

Agafu les dues versions i miro de combinar-les per arribar a una tercera. Fas el que pots, i, de vegades, hi ha canvis que no els entens, hi ha canvis que sí que els entens; hi ha canvis que et semblen una mica de autocensura; hi ha canvis que, jo com a autor ho entenc; hi ha canvis que de cara a un mercat espanyol no pots fer, de cara a un mercat català sí (Hernàndez, 2010a).

Hitz horiek ongi erakusten dute Pau Joan Hernàndezentzat badela gaztelaniaz esan ezin, baina katalanez esan daitezkeen hainbat gauza. Hori izan daiteke bi testuak iturri modura erabiltzeko arrazoiatariko bat.

Euskaratik zuzenean beste hizkuntza batzuetara itzultzeko gai diren itzultzaileentzat, gaztelaniazko bertsioa ere hor dago, jatorrizkoaz gain, eta, euskarazkoa erabili arren jatorrizko testu modura, gaztelaniazkoa ere hor izango du erreferentzia modura.

Aurrez aipatu dugun *Soinujolearen semea*-n eta *Zeru horiek*-en kasuetan, hala ere, Hernàndezek ez du gainerako kasuetan bezala jokatu. Lehenengoa, gaztelaniatik itzultzeko eskatu zioten. Bigarrena, berriz, nahiko muturreko kasua omen da. Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak elkarrengandik ezberdinak dira, eta Hernàndezek editoreari galdetu omen zion zein itzuli behar zuen. “Ez al dira ba berdinak?” izan zen jaso zuen erantzuna. Atxaga, euskaraz, Atxaga da, eta Atxaga, gaztelaniaz, Atxaga. Eta katalanez? Itzultzailearen aburuz, erabaki horiek ez dira itzultzaileak hartu beharrekoak (Hernàndez, 2010a).

Itzultzaile honen aburuz, bertsio bat ala bestea erabili hautuaz haratagoko aukerarik ere bada, eta irtenbide hori honela definitzen du: “molt més arriscada i complexa, però, des del meu punt de vista, l’única realment satisfacòria” (Hernàndez, 2010b).

Es tracta d’arribar a una tercera versió, fidel a la traducció de Bernardo Atxaga a l’espanyol, però incorporant-hi, en la mesura del possible, els elements de la versió original que ja no hi són presents. Una versió que podríem anomenar de consens, i que requereix en alguns casos només petits retocs (*L’home sol*, *El fill de l’acordionista*), però en d’altres, canvis importants que obliguen a prendre decisions més o menys arriscades (*Aquells cels*). Encertada o no, aquesta fórmula de traducció, que ha acabat comptant amb l’aprovació de l’autor, ha estat la que he emprat sistemàticament en la narrativa de Bernardo Atxaga i ha estat, al capdavall, la manera com aquesta ha arribat als lectors catalans. Uns lectors que, si tenen la curiositat de comparar versions, podran

constatar, sorpresos, la desobediència contumaç del traductor (Hernández, 2010b).

Paratestuetan itzulpena aitortzeak badu eraginik salmentan, baina, Katalunian, argitalpen datak eta gaztelaniazko bertsioarekiko aldiberekotasunak garrantzia berezia dute. “Sekulako garrantzia du Katalunian. (...) Aldi berean ateratzen baduzu Katalunian, ba zuk katalanez sal ditzakezu (...) ba bost aldiz gehiago, bost aldiz esaten dut e! Gaztelaniaren orpotik ateratzen baduzu baino” (Atxaga, 2008a).

Liburuek ematen duten informazio soilarekin ezin dugu jakin katalanerako liburuak, *Obabakoak* salbu, zein itzulpen bideren bitartez itzuli diren. Hori horrela izanik, hizkuntza horretarako itzulpenen inguruan galdetu genion autoreari.

Niri galdetuz gero, zer erantzuten dut? Ba nik erantzuten dut beti, ahal bada, egin gaztelaniatik. Oraingo honetan ere [*Zazpi etxe Frantzian*] esan dut, ahal bada, egin gaztelaniatik. Nire pentsakera da: gaztelaniaz nik badakit zer den, nik egin dut, gure tailerrean hobeto esanda, gure tailerrean egin dugu. Ba, gurea da. (...) badakit bi hizkuntzak, biak, esan beharrik ez dago, erromantzeak dira (...) Nik badakit tarte hori oso laburra dela, eta orduan askoz ere seguruago sentitzen naiz gaztelaniatik egiten denean. Bueno egin, behin egitea edo aldi behin egitea zuzenean eta abar, bueno, hori beste diskurtso mota batean sartzen da, ez da diskurtso literario bat, literarioan izango litzateke non aterako den, zure ustez, ondoena. (...) zer da funtsezkoa bizitza honetan? Da jakitea zer den erdikoa, zer den garrantzitsua eta zer den sekundarioa. Hori da fundamentala, eta, nire ustez, itzultzeko orduan, zure helburua da beste liburu hori aterako dena, hori izatea ahalik eta onena. Eta horretarako berme gehiago eman behar du. Latin hizkuntza batetik beste latin hizkuntza batetara tarte gutxiago dago (Atxaga, 2008a).

Atxagak elkarrizketan esan zigunaren arabera, nahiko argi ikus dezakegu berak egile modura eragina duela itzulpena zein hizkuntzatatik egingo den erabakitzerakoan. Gaztelaniazko xede-helburu testua berak itzultzailearekin elkarlanean egiten duelako, batik bat. Nolabait esateko, bigarren testu horren egilea ere badenez, zilegi da testu hori jatorrizko modura erabiltzea katalanera edo beste edozein hizkuntzatarara itzultzeko. Katalanaren kasuan, batik bat, bi hizkuntza latinoen arteko tarte txikia izanik, literarioki emaitza hobea dela uste du egileak.

Hitz horiekin Atxagak gaztelaniazko bertsioaren kanonizazio prozesuan laguntzen du, berak bertsio hori jotzen baitu behin betikotzat.

Itzulpena zuzenean ala zeharka egin Atxagak berak zeresanik ba ote duen galdetuta honakoa da idazlearen erantzuna: “nik hartzen dut erabaki hori gehien gehientsuenetan. Batzuetan, ez dago beste erremediorik” (Atxaga, 2008a).

Bestalde, bada beste datu kontraesankor bat ere kredituetan, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* liburuaren galegozko itzulpenean. Obra horren gaztelaniazko argitalpen guztietan, argi eta garbi adierazten da itzulpena Arantza Sabanek egina dela. Galegozko liburuan, ordea, gaztelaniazko itzulpena autoreak egina dela agertzen da: “A partir da versión castelá do propio autor” (Atxaga, 2005: 6).

Bi iturrietan ematen den datua egiaztatzen saiatu garen arren, beste hainbat iturritan ere informazio kontrajarria topatu dugu. Esate baterako, [www.basqueliterature.com](http://www.basqueliterature.com) euskal literaturaren atariko katalogoan, gaztelaniarako itzultzaileen izenak ez dira liburuetan agertzen diren berak.

Galegozko gainontzeko lau kasuetan ez da agertzen itzulpen prozesuaren berri, nahiz eta itzultzailearen izena kasu guztietan azaldu. Eta, epitestuetan ere, ez dugu informazio gehiagorik topatu. Katalanaren modura, hizkuntza honetan ere ez da informazio garbirik ematen.

Italieraz, azkenik, 11 itzulpenetatik 7 kasutan ez dakigu oso ongi itzulpen prozesua zein izan den, nahiz eta batean izan ezik gainerako guztietan jatorrizkoaren izena gaztelaniaz agertzen den eta horrek itzulpenak zeharka egin direla pentsarazten digun.

### 7.6.2 Ondorioak

Epitestuen inguruko azterketa honi esker, peritestuen azterketaren amaieran genuen informazioa zabaldu ahal izan dugu. Liburuez haraindi, aldizkari, elkarrizketa eta liburuetan jasotako informazioari esker ondorioztatu dugu ezin dugula kasu guztietan liburuek ematen dituzten datuez itsuki fidatu; batetik, itzulpenaren inguruko datuak ez dira beti agertzen, edo erdizka soilik agertzen dira; bestetik, informazio hori ez da kasu guztietan errealitatearen isla izango. Itzulpen prozesuari buruz jaso ditugun epitestuak baliagarriak dira peritestuek diotena balioztatzeko edo zalantzan jartzeko.

Peritestuen azterketaren emaitza modura eman dugun taula atal honetan lorturikoekin osatu dugu, eta jarraian aurkeztuko dugu. Gaztelaniaratze prozesuaren inguruko datuak izan dira eskuratu ditugun gehienak; bai argiaraturiko epitestuetan eta baita autorearekin izandako elkarrizketan ere. Katalanaren kasuan, Pau Joan Hernández itzultzailearekin izaniko elkarrizketa izan dugu informazio iturri nagusi. Epitestu gehiegi ere ez dugu topatu gainontzeko hizkuntzetako itzulpenen inguruan; beraz, datuak ez dira gehiegi osatu edo aldatu hizkuntza horietan. Hala ere, epitestuetako informazioaren bitartez ezin izan dugu kasu guztietan itzulpen bidea identifikatu, eta, beste zenbaitetan, kontraesanak agertu dira peritestuetan lortutako informazioarekin alderaturik. Peritestuen kasuan bezala, epitestuekin ere kontuz ibili beharra dago, “one can never be sure just what they represent” (Touy, 1995: 181). Ondorioz, testu mailara igaro beharko dugu itzulpena nola egin den zehatz-mehatz jakin ahal izateko, batetik, eta itzulpen bide bakoitzean erabilitako estrategiak deskribatzeko, bestetik.

7-6 Taula. Azterketa paratestualaren ondoren lorturiko datuak

	eus	gazt	kat	Gal	fr	ing	Ale	it
1	BL	ED (Bb /Auto)	ED(zz)/ Biak	Zeh	Zeh	zuz		ED(Zh)
2	STX	Bb / Auto	ED(zz)/ Biak	ED		Zuz / (zuz)		ED(Zh)
3	BA	Auto	Biak		Zeh	Zeh		ED(Zh)
4	OBB	Auto	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	ED(Zh)
5	BEBM	Bb / Kol	ED(zz)	ED(zz)	Zeh		Zuz	ED(zz)
6	GBB	Kol	Biak		Zeh	Zeh	Zeh	Zeh
7	ZH	Auto / Bb	Zuz			Zeh	Zeh	Zeh
8	XL	Auto	ED(zz)		Zeh		Zeh	ED(Zh)
9	XB	Auto	ED(zh)		Zeh		Zeh	
10	SIG	Auto	ED(zh)	ED(zh)	Zeh			ED(Zh)
11	BLU	Bb	ED				Zeh	Zeh
12	SS	Kol	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh
	Guztira	5 Auto 2 Kol 1 Bb 4 ED	2 Zeh 4 Biak 1 zuz 7 ED	3 Zeh 3 ED	9 Zeh	2 Zuz (+1 Zuz) 5 Zeh	1 Zuz 7 Zeh	4 Zeh 7 ED

Taula horrek argi erakusten digu orain arte bilduriko informazioa nahiko lausoa dela hainbat kasutan. Gaztelaniari dagokionez, esaterako, zalantzazko lau kasu ditugu oraindik, katalanez 7, galegoz 3 eta italieraz 7.



8

# corpusa digitalizatzen

---

Behin betiko corpusa zein izango den zehaztu ondoren eta paratestu azterketa eginda, aukeraturiko testuak eskuratu, digitalizatu eta lerrokatu egin behar izan ditugu, testu azterketak egiten hasi aurretik. Atal honetan, fase horren nondik norakoak azalduko ditugu.

## 8.1 LIBURUAK ESKURATZEA

Corpus bat osatzerakoan, kontuan izan behar dugun lehenengo gauza aztertu nahi ditugun testuen eskuragarritasuna da. Olohanek dioen moduan, “the case or difficulty of compiling and using a parallel corpus depends to a large extent on availability of texts and their translations” (Olohan, 2004: 25). Atal honetan, beraz, gure corpuseko liburuak eskuratzeari buruz eta horretarako izan ditugun arazoez arituko gara.

Zortzi hizkuntzatan argitaraturiko liburuak bildu ditugu corpusean, beste hainbeste herrialdetan argitaratuak guztiak ere, eta, horrexegatik, banaka-banaka lortu behar izan ditugu. Euskarazko testuak eskura geneuzkan, etxean bertan ia denak, eta erraza izan da guztiak biltzea, herriko udal liburutegian bertan lortu ahal izan baititugu gainontzekoak. Gaztelaniazkoak eskuratzeari ez da batere lantegi zaila izan, inguruko udal liburutegietatik hartu ahal izan baititugu guztiak ere.

Gainontzeko hizkuntzetan argitaratutako liburuen kasuan, berriz, zailagoa izan da testu guztiak lortzea. Horietariko batzuk Euskal Herriko liburutegietan lortu ahal izan ditugu, Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioaren liburutegian batik bat, Bernardo Atxagaren hainbat itzulpen baitituzte bertan. Bestalde, EHUko Unibertsitateko liburutegietan eta Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian ere eskuratu ahal izan ditugu beste hainbat. Azkenik, udal liburutegietan ere aurkitu dugu gure corpuseko libururik ere: konparazio batera, *Aquells cells*, Gasteizko Ignacio Maria Aldekoa liburutegian, eta *Un cane davvero speciale*, Arrasateko udal liburutegian.

Hemen bertako liburutegietan aurkitu ezin izan ditugun liburuak liburutegi arteko maileguaren bitartez Espainiako edo Europako hainbat liburutegitatik lortzen saiatu gara. Nahiko prozesu luzea izan ohi da hori, eskatu ondoren hilabete edo gehiago itxaron behar izaten baita liburuak eskuratzeko. Mailegu horrek ez du beti ongi funtzionatzen eta italierazko liburu baten kasuan hainbat hilabetez egon behar izan dugu zain: *Sotto un altro cielo* liburua eskuratzeko ia ezinezkoa suertatu zaigu, hilabete eta urte luzez modu batean zein bestean lortzen saiatu ostean, 2010eko udazkenean eskuratu dugu (ikerketa oso aurreratuta genuenean). Duela 13 urte inguru argitaratu zen liburua, eta argitalpen bakarra izan zuen. Gaur egun, deskatalogaturik dago. Hainbeste saiatu ondoren liburua lortuko ez genuela uste genuen, baina kasualitateak kasualitate, liburutegi arteko mailegu bidez zein internet bidez erosita, liburuaren bi ale eskuratu ditugu ia aldi berean.

Liburuak lortzeko azken modua internet bidezko erosketak izan dira. Liburuak bilatzea ez zen batere zaila izan eta oso denbora gutxian jaso genituen etxean, banaka-banaka eskatuta han-hemengo liburu-dendetan.

Bestalde, itzulpenik berrienak gu lanean hasi ondoren argitaratu dira eta horiek, beranduago lortu ahal izan ditugu, azterketa testuala abian genuelarik. Eskuratzen azkenak honakoak izan ziren: *Obabakoak*-en galegozko itzulpena, 2008ko udan, eta BL eta STX liburuen ingelesezko itzulpenak, *Two Basque Stories* liburuan, 2009. urtean.

## 8.2 DIGITALIZAZIOA

Corpusa osatzen hasi aurretik, testuak elektronikoki eskura daitezkeen ala ez pentsatu behar da. Elektronikoki eskura ez badaitezke, eskaneatu egin beharko dira. Gure kasuan, Atxagaren testuak ez zeuden elektronikoki eskuragarri, eta, beraz, digitalizazioari ekin behar izan genion corpusa diseinatu orduko.

Corpuseko testuen luzera kontuan izanik, osorik edo atalka erabiliko genituen erabaki behar izan genuen. Horretarako, ez genuen zenbaki zehatz bat hartu kontuan. Oro har, liburu laburrenak, 200 orrialdetara iristen ez direnak, osorik erabiltzea erabaki genuen, eta, hortik gorako liburuen kasuan (*Obabakoak*, *Gizona bere bakardadean* eta *Soinujolearen semea*), atal bana hartzea erabaki genuen, liburu bakoitzaren %25a gutxi gora behera.



Testuak digitalizatzeko etxean geneukan eskanerra erabili genuen (Epson perfection 1260). OCR programa erabili dugu testuak eskaneatu eta txt formatura pasatzeko. Programa horrek galegoa izan ezik corpuseko gainerako hizkuntza guztiak ezagutzeko aukera ematen zuen. Hizkuntza horren kasuan, gaztelania edo portugesa erabili ditugu testu formatura pasatzeko, arazo gutxien emango zuten aukerak zirelakoan.

Testuak 20 orrialdeka eskaneatu genituen, eta, ondoren, gorde, testu kopuru handiegia batera gordez gero arazoak ematen baitzizkigun. Testua osorik eskaneatutakoan atal guztiak (20 orrialdeka zeuden zatiak) elkartu genituen eta dokumentu bakarra sortu liburu bakoitzeko.

Aipatu berri dugun moduan, txt formatura pasa aurretik testua zein hizkuntzatan idatzita zegoen adierazi behar zen, programak berak testua hobeto ezagutu zezan. Programak ez zituen hizkuntza guztiak berdinduz ezagutzen, batzuk besteek baino arazo gehiago ematen zuten. Gaztelania, frantsesa eta ingelesaren kasuan nahiko erraz errekonozitu zituen testuak. Gainontzeko hizkuntzen artean, berriz, hainbat arazo izan ditugu: hizkiak ez errekonozitzea (alemanean Umlautak duten hizkiak, kasu) edo hizki bat beste hizki baten ordean agertzea (euskarazko testuetan “il” agertu ordez “d” hizkia agertzea, “lt” hizkien ordean “k” edo “m” hizkia “rri” behar duen tokian), etab.

Testu formatutik, beraz, Word programara pasa genituen testuak, eta, zuzentzailearen laguntzaz, testuak zuzendu genituen, aipaturiko akatsak konponduz eta paragrafo markak ezabatuz, lerro bakoitza paragrafo modura markaturik agertzen baitzen. Hala eta guztiz ere, corpuseko hizkuntza guztietan ez genituen zuzentzaileak eskura; alemanez, italieraz eta galegoz testuak zuzentzaileak erabili gabe zuzendu behar izan ditugu.

Euskarazko testuen kasuan, beste arazo bat ere izan dugu: erabat normalizatu gabeko idazkera medio, zuzentzaileak errekonozitzen ez dituen ahozko hizkeraren hainbat bereizgarri agertzen dira: “haundi” “handi” ordez, “ixildu” “isildu” beharrean, “ttiki”, “panparroi”, etab. Bestalde, *Behi euskaldun baten memoriak* liburuan, Pauline Bernadette pertsonaiak zubereraz hitz egiten du eta euskalki horretako hizkera okertzat jotzen du zuzentzaileak. Kasu horietan, zuzentzaileari jaramonik egin gabe jatorrizkoa zegoen moduan utzi dugu.

Oin oharrak ere azaldu dira hainbat testutan, eta, lerrokatzean arazorik eman ez diazaguten, ezabatu egin ditugu zuzenketa prozesuan, nahiz eta kontuan izango ditugun kultur elementuak edo hizkuntzari dagozkion erreferentziak aztertzerakoan.

Azken arazo bat ere izan dugu digitalizazio prozesuan; haur eta gazte literatur liburuen kasuan, hainbat orrialdetan marrazkiak agertzen dira testuaren aldamenean. Halako zenbait kasutan, eskanerrak ez zuten testua bera errekonozitu, edo ulertezinezko hizkiz errekonozitzen zuten marrazkia, eta horrek zuzenketa prozesua zaildu digu. *Behi euskaldun baten memoriak*

liburuaren frantsesezko itzulpenean, adibidez, orrialde askotan agertzen dira irudiak, eta zuzenketa moteldu digu horrek.

Digitalizazio prozesua hilabeteetan zehar luzatu da, eta uste baino askoz ere gehiago iraun digu. Batetik, eskanerrarekin testu kopuru handia digitalizatzeko tresnak berak emandako arazoak konpondu beharragatik, digitalizazio prozesua nahiko mantsoa delako. Erabiliriko eskanerra ere ez da oso tresna modernoa, eta horrek ere asko mantsotu du prozesua. Bestetik, zuzenketa prozesua aurrez iruditu baino neketsuagoa izan delako.

Digitalizazio prozesuak luze jotzea ez da arraroa izaten. “(...) building an electronically accessible archive of texts which are sufficiently representative of a particular field may take several months of full-time commitment” (Williams-Chesterman, 2004: 40-41). Hona hemen Olohanek aipatzen duen kasua, adibide modura:

Kenny (2001:118-19) estimates that in compiling her German-English Parallel Corpus of Literary Texts (GEPCLT) she could scan and OCR approximately 50,000 words per hour, but needed, on average, approximately one hour per 6,000 words for subsequent proof-reading and editing (although it should be noted that some texts require very little editing whereas others produce a lot of scanning and OCR errors due to typeface and print quality) (Olohan, 2004: 50).

Gure kasuan, ez dugu kalkulu zehatzik egin zenbat denbora behar izan dugun eskaneatze prozesuan eta zenbat denbora zuzenketa egiteko, baina aipuan esaten denetik gertu egon gintezkeela uste dugu.

Digitalizazio prozesua amaiturik, behin betiko corpusaren benetako zenbakiak atera ditugu. Liburuka banatuta bildu ditugu ondorengo taula honetan:

**8-1 Taula. Datuak liburuen arabera**

<sup>61</sup>	Orr kop	Hitz kop	Karaktereak (espazio gabe)	Karaktereak (espazioekin)	Parag	Lerroak	Esaldi kop	Parag
BLeus	22	10.183	60.779	70.695	262	1.063	859	262
BLgazt	25	14.931	65.197	79.765	317	1.219	970	317
BLkat1	25	15.200	65.916	80.760	314	1.207	953	313
BLkat2	25	15.256	65.501	80.406	312	1.203	930	312
BLgal	24	14.276	62.402	76.319	316	1.172	978	316
BLfr	27	16.360	73.535	89.650	318	1.306	1.033	318
BLit	24	13.998	65.545	79.243	303	1.174	931	303
BLing	21	13.293	56.804	69.856	233	1.023	969	233
<b>BLguztira</b>		<b>113.497</b>	<b>515.679</b>	<b>626.694</b>				
STXeus	12	4.776	30.424	34.977	219	579	503	219

<sup>61</sup> 2-6 zutabeetan ageri diren datuak Word programan eskuratu ditugu. Azken bi zutabeetakoak, WordSmith Tools-en.

STXgazt	13	6.755	30.771	37.274	233	607	530	233
STXkat1	12	6.794	30.168	36.711	230	591	537	229
STXkat2	13	6.892	30.738	37.377	240	606	530	241
STXgal	11	5.476	25.222	30.475	210	513	512	210
STXing	12	6.561	30.232	36.590	210	595	483	208
STXing2	11	5.950	27.310	33.047	208	538	519	208
STXit	12	6.388	30.560	36.721	233	593	523	233
<b>STXguztira</b>		<b>49.592</b>	<b>235.425</b>	<b>283.172</b>				
BAeus	45	19.015	114.207	132.362	872	2.192	1.509	860
BAGazt	45	25.209	113.850	138.235	712	2.189	1.841	692
BAkat	45	26.073	115.617	140.921	696	2.179	1.812	676
BAfr	47	27.363	123.819	150.729	711	2.288	1.837	691
BAing	44	25.868	112.773	138.001	704	2.168	1.785	678
BAit	43	24.002	114.125	137.452	710	2.136	1.804	685
<b>BAGuztira</b>		<b>147.530</b>	<b>694.391</b>	<b>837.700</b>				
OBBeus	43	18.423	116.107	134.013	543	2.125	1.534	543
OBBgazt	44	24.254	113.112	136.762	564	2.164	1.604	564
OBBkat	43	24.722	112.930	137.036	564	2.125	1.590	564
OBBgal	38	22.659	106.957	129.056	561	1.863	1.593	561
OBBfr	46	25.664	122.158	147.500	613	2.268	1.659	613
OBBying	43	25.155	111.687	136.331	550	2.122	1.599	550
OBByale	48	24.435	127.316	151.326	567	2.368	1.493	567
OBByit	45	23.711	118.354	141.684	570	2.188	1.613	570
<b>OBByuztira</b>		<b>189.023</b>	<b>928.621</b>	<b>1.113.708</b>				
BEBMeus	72	31.755	192.344	223.005	979	3.530	3.272	979
BEBMgazt	73	40.510	185.738	225.137	990	3.575	3.212	990
BEBMkat	72	41.870	187.387	228.273	992	3.548	3.199	992
BEBMgal	70	37.751	176.232	212.861	994	3.431	3.198	994
BEBMfr	78	44.723	207.297	251.008	1.133	3.876	3.295	1.133
BEBMale	87	44.766	234.834	278.642	965	4.310	2.948	962
BEBMit	79	42.311	211.709	252.919	988	3.868	3.316	988
<b>BEBMguztira</b>		<b>283.686</b>	<b>1.395.541</b>	<b>1.671.845</b>				
GBBeus	44	20.143	127.227	146.955	363	2.148	1.466	363
GBBgazt	44	26.460	122.652	148.642	379	2.159	1.558	379
GBBkat	43	26.819	121.038	147.413	368	2.106	1.441	351
GBBfr	45	27.292	129.411	156.489	373	2.199	1.646	394
GBBying	43	26.887	120.407	146.933	375	2.120	1.465	375
GBByale	45	23.917	127.516	151.072	371	2.223	1.605	389
GBByit	44	25.343	127.521	152.534	380	2.173	1.562	380
<b>GBByuztira</b>		<b>176.861</b>	<b>875.772</b>	<b>1.050.038</b>				
ZHeus	59	24.429	152.510	175.907	940	2.919	2.659	940
ZHgazt	65	34.654	161.300	194.815	1.033	3.181	2.865	1.033
ZHkat	58	32.428	146.958	178.375	924	2.863	2.622	924
ZHing	63	35.359	157.180	191.693	1.029	3.092	2.734	1.029

ZHale	69	33.849	176.209	209.056	1.021	3.380	2.741	1.021
ZHit	64	32.723	164.551	197.177	1.022	3.132	2.848	1.022
<b>ZHguztira</b>		<b>193.442</b>	<b>958.708</b>	<b>1.147.023</b>				
XLeus	7	2.721	16.095	18.669	124	304	275	124
XLgazt	6	3.117	14.141	17.117	126	284	273	126
XLkat	6	3.302	14.394	17.553	129	295	270	129
XLfr	7	3.439	15.669	19.036	128	313	274	128
XLale	7	3.200	16.240	19.308	147	326	259	139
XLit	8	3.682	17.851	21.363	174	377	287	171
<b>XLguztira</b>		<b>19.461</b>	<b>94.390</b>	<b>103.046</b>				
XBeus	10	4.024	24.022	27.842	192	462	416	192
XBgazt	10	5.147	24.148	29.088	192	479	420	192
XBkat	10	5.309	23.742	28.840	194	471	407	194
XBfr	10	5.531	25.945	31.412	198	492	425	198
XBale	11	5.255	27.405	32.476	196	529	432	194
<b>XBguztira</b>		<b>25.166</b>	<b>125.262</b>	<b>149.658</b>				
SIGeus	52	21.555	137.687	158.334	827	2.556	2.280	827
SIGgazt	52	27.913	132.679	159.682	825	2.557	2.270	818
SIGkat	52	28.846	132.754	160.776	830	2.530	2.256	829
SIGgal	50	25.626	125.468	150.184	822	2.460	2.266	815
SIGfr	53	29.449	140.286	169.460	837	2.625	2.283	830
SIGit	52	27.217	136.686	163.087	826	2.562	2.312	819
<b>SIGguztira</b>		<b>160.606</b>	<b>805.560</b>	<b>961.523</b>				
BLUeus	39	16.300	100.639	116.258	620	1.903	1.932	620
BLUgazt	39	19.993	96.003	115.292	635	1.892	1.894	635
BLUkat	38	20.594	96.931	116.836	627	1.880	1.883	627
BLUale	46	22.310	117.969	139.645	640	2.243	1.768	622
BLUit	38	19.525	95.540	114.480	611	1.849	1.838	611
<b>BLUguztira</b>		<b>98.722</b>	<b>507.082</b>	<b>602.511</b>				
SSeus	28	13.453	83.372	96.614	164	1.393	1.321	164
SSgazt	29	17.603	82.759	100.074	166	1.435	1.526	166
SSkat	30	18.726	85.871	104.355	167	1.474	1.517	167
SSgal	28	16.460	79.101	95.295	163	1.382	1.516	164
SSfr	30	19.224	87.926	106.995	168	1.486	1.551	168
SSing	29	18.503	81.435	99.802	168	1.403	1.455	168
SSale	30	16.540	85.687	102.118	170	1.466	1.398	170
SSit	30	17.704	84.780	102.301	223	1.476	1.528	173
<b>SSguztira</b>		<b>138.213</b>	<b>670.931</b>	<b>807.554</b>				
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.595.799</b>	<b>7.807.362</b>	<b>9.354.472</b>				

Bigarren taula honetan, datuak hizkuntzaka banaturik emango ditugu:

## 8-2 Taula. Datuak hizkuntzaka

	Orr kop	Hitz kop	Karaktereak (espazio gabe)	Karaktereak (espazioekin)	Parag	Lerr	Esaldi kop	Parag
BLEus	22	10.183	60.779	70.695	262	1.063	859	262
STXeus	12	4.776	30.424	34.977	219	579	503	219
BAeus	45	19.015	114.207	132.362	872	2.192	1.509	860
OBBeus	43	18.423	116.107	134.013	543	2.125	1.534	543
BEBMeus	72	31.755	192.344	223.005	979	3.530	3.272	979
GBBeus	44	20.143	127.227	146.955	363	2.148	1.466	363
ZHeus	59	24.429	152.510	175.907	940	2.919	2.659	940
SSeus	28	13.453	83.372	96.614	164	1.393	1.321	164
XLeus	7	2.721	16.095	18.669	124	304	275	124
XBeus	10	4.024	24.022	27.842	192	462	416	192
SIGeus	52	21.555	137.687	158.334	827	2.556	2.280	827
BLUeus	39	16.300	100.639	116.258	620	1.903	1.932	620
<b>Eus guztira</b>	<b>433</b>	<b>186.777</b>	<b>1.155.413</b>	<b>1.335.631</b>	<b>6.105</b>	<b>21.174</b>	<b>18.026</b>	<b>6.093</b>
BLgazt	25	14.931	65.197	79.765	317	1.219	970	317
STXgazt	13	6.755	30.771	37.274	233	607	530	233
BAGazt	45	25.209	113.850	138.235	712	2.189	1.841	692
OBBgazt	44	24.254	113.112	136.762	564	2.164	1.604	564
BEBMgazt	73	40.510	185.738	225.137	990	3.575	3.212	990
GBBgazt	44	26.460	122.652	148.642	379	2.159	1.558	379
ZHgazt	65	34.654	161.300	194.815	1.033	3.181	2.865	1.033
SSgazt	29	17.603	82.759	100.074	166	1.435	1.526	166
XLgazt	6	3.117	14.141	17.117	126	284	273	126
XBgazt	10	5.147	24.148	29.088	192	479	420	192
SIGgazt	52	27.913	132.679	159.682	825	2.557	2.270	818
BLUgazt	39	19.993	96.003	115.292	635	1.892	1.894	635
<b>Gazt guztira</b>	<b>445</b>	<b>246.546</b>	<b>1.142.350</b>	<b>1.381.883</b>	<b>6.172</b>	<b>21.741</b>	<b>18.963</b>	<b>6.145</b>
BLkat1	25	15.200	65.916	80.760	314	1.207	953	313
BLkat2	25	15.256	65.501	80.406	312	1.203	930	312
STXkat1	12	6.794	30.168	36.711	230	591	537	229
STXkat2	13	6.892	30.738	37.377	240	606	530	241
BAkat	45	26.073	115.617	140.921	696	2.179	1.812	676
OBKat	43	24.722	112.930	137.036	564	2.125	1.590	564
BEBMkat	72	41.870	187.387	228.273	992	3.548	3.199	992
GBKat	43	26.819	121.038	147.413	368	2.106	1.441	351
ZHkat	58	32.428	146.958	178.375	924	2.863	2.622	924
SSkat	30	18.726	85.871	104.355	167	1.474	1.517	167
XLkat	6	3.302	14.394	17.553	129	295	270	129
XBkat	10	5.309	23.742	28.840	194	471	407	194
SIGkat	52	28.846	132.754	160.776	830	2.530	2.256	829
BLUkat	38	20.594	96.931	116.836	627	1.880	1.883	627
<b>Kat guztira</b>	<b>472</b>	<b>272.831</b>	<b>1.229.945</b>	<b>1.495.632</b>	<b>6.587</b>	<b>23.078</b>	<b>19.947</b>	<b>6.548</b>

BLgal	24	14.276	62.402	76.319	316	1.172	978	316
STXgal	11	5.476	25.222	30.475	210	513	512	210
OBBgale	38	22.659	106.957	129.056	561	1.863	1.593	561
BEBMgal	70	37.751	176.232	212.861	994	3.431	3.198	994
SSgal	28	16.460	79.101	95.295	163	1.382	1.516	164
SIGgal	50	25.626	125.468	150.184	822	2.460	2.266	815
<b>Gal guztira</b>	<b>181</b>	<b>122.248</b>	<b>575.382</b>	<b>694.190</b>	<b>3.066</b>	<b>10.821</b>	<b>10.063</b>	<b>3.060</b>
BLfr	27	16.360	73.535	89.650	318	1.306	1.033	318
BAfr	47	27.363	123.819	150.729	711	2.288	1.837	691
OBBfr	46	25.664	122.158	147.500	613	2.268	1.659	613
BEBMfr	78	44.723	207.297	251.008	1.133	3.876	3.295	1.133
GBBfr	45	27.292	129.411	156.489	373	2.199	1.646	394
SSfr	30	19.224	87.926	106.995	168	1.486	1.551	168
XLfr	7	3.439	15.669	19.036	128	313	274	128
XBfr	10	5.531	25.945	31.412	198	492	425	198
SIGfr	53	29.449	140.286	169.460	837	2.625	2.283	830
<b>Fr guztira</b>	<b>343</b>	<b>199.055</b>	<b>926.046</b>	<b>1.122.279</b>	<b>4.479</b>	<b>16.853</b>	<b>14.003</b>	<b>4.473</b>
BLing	21	13.293	56.804	69.856	233	1.023	969	233
STXing	12	6.561	30.232	36.590	210	595	483	208
STXing2	11	5.950	27.310	33.047	208	538	519	208
BAing	44	25.868	112.773	138.001	704	2.168	1.785	678
OBbing	43	25.155	111.687	136.331	550	2.122	1.599	550
GBbing	43	26.887	120.407	146.933	375	2.120	1.465	375
ZHing	63	35.359	157.180	191.693	1.029	3.092	2.734	1.029
SSing	29	18.503	81.435	99.802	168	1.403	1.455	168
<b>Ing guztira</b>	<b>266</b>	<b>157.576</b>	<b>697.828</b>	<b>852.253</b>	<b>3.477</b>	<b>13.061</b>	<b>11.009</b>	<b>3.449</b>
OBBale	48	24.435	127.316	151.326	567	2.368	1.493	567
BEBMale	87	44.766	234.834	278.642	965	4.310	2.948	962
GBBale	45	23.917	127.516	151.072	371	2.223	1.605	389
ZHale	69	33.849	176.209	209.056	1.021	3.380	2.741	1.021
SSale	30	16.540	85.687	102.118	170	1.466	1.398	170
XLale	7	3.200	16.240	19.308	147	326	259	139
XBale	11	5.255	27.405	32.476	196	529	432	194
BLUale	46	22.310	117.969	139.645	640	2.243	1.768	622
<b>Ale guztira</b>	<b>343</b>	<b>174.272</b>	<b>913.176</b>	<b>1.083.643</b>	<b>4.077</b>	<b>14.845</b>	<b>12.644</b>	<b>4.064</b>
BLit	24	13.998	65.545	79.243	303	1.174	931	303
STXit	12	6.388	30.560	36.721	233	593	523	233
BAit	43	24.002	114.125	137.452	710	2.136	1.804	685
OBBit	45	23.711	118.354	141.684	570	2.188	1.613	570
BEBMit	79	42.311	211.709	252.919	988	3.868	3.316	988
GBBit	44	25.343	127.521	152.534	380	2.173	1.562	380
ZHit	64	32.723	164.551	197.177	1.022	3.132	2.848	1.022
SSit	30	17.704	84.780	102.301	223	1.476	1.528	173
XLit	8	3.682	17.851	21.363	174	377	287	171
SIGit	52	27.217	136.686	163.087	826	2.562	2.312	819

BLUit	38	19.525	95.540	114.480	611	1.849	1.838	611
It guztira	439	236.604	1.167.222	1.398.961	6.040	21.528	18.562	5.955
GUZTIRA		1.595.909	7.807.362	9.364.472				


Aurreko taula horietan ikus daitekeen moduan, guztira, milioi bat eta erdi hitz baino gehiago eta 9 milioi karakteretik gora biltzen ditu gure corpusak<sup>62</sup>.

### 8.3 WORDSMITH TOOLS 4

Testuak digitalizatu eta zuzendu ostean, testuekin lanean hasteko garaia iritsi zen. Horretarako, corpora ustiatzeko ahalik eta tresna egokiena aukeratu behar izan genuen. Kontuan izan genituen batetik, datuak erazteko eginkizunak; bestetik, testuak parekatzeko tresna egokia izatea.

Lehenago esan dugun moduan, testuak parekatzeko hainbat programa dauzkagu eskura merkatuan, besteak beste, WinAlign, MKAlign, WinMerge, The Translator Corpus Aligner, Multiconcord edo Wordsmith Tools. Programa horiek begiratu eta ebaluatu ostean Wordsmith Tools programa erabiltzea hobetsi genuen, programa horren Viewer and Aligner aplikazioak bi hizkuntza baino gehiago aldi berean lerrotzen uzten baitu, eta bertsio guztiak aldi berean ikus daitezke fitxategi berean. Gainerakoek ez dituzte 2 testu baino gehiago aldi berean parekatzen, itzulpen memoriak sortzeko erabiltzen direnek, kasu. Muga handiegia da gure lanerako, testu eta hizkuntza kopuru handiarekin ari baikara lanean. Abantaila handia eman digu, horrexegatik, Mike Scotten Wordsmith Tools programak, ondorengo irudian ikus daitekeen moduan, grafikoki oso erabilgarria izan baitzaigu.

<sup>62</sup> Beste hainbat ikertzailek ere antzerako tamainako corpusekin egin izan dute lan euren azterketetan. Esaterako, Mike Nelsonek (University of Manchester) milioi bat hitzeko corpora erabili zuen *A Corpus-Based Study of Business English and Business English Teaching Materials* tesian ([http://users.utu.fi/micnel/business\\_english\\_lexis\\_site.htm](http://users.utu.fi/micnel/business_english_lexis_site.htm)). Bestalde, *Patterns of Translation of Metaphor in Annual Reports in American English and Mexican Spanish* izeneko doktore-tesian María de Montserrat Rodríguez Márquezek 618.329 hitzez osaturiko corpora sortu zuen (BESPC izeneko) ([http://epubs.surrey.ac.uk/7176/1/Rodriguez\\_Marquez.pdf](http://epubs.surrey.ac.uk/7176/1/Rodriguez_Marquez.pdf)). Adibide gehiago ikusteko ondorengo [webgunea](http://www.lexically.net/wordsmith/corpus_linguistics_links/papers_using_wordsmith.htm) kontsulta daiteke: [http://www.lexically.net/wordsmith/corpus\\_linguistics\\_links/papers\\_using\\_wordsmith.htm](http://www.lexically.net/wordsmith/corpus_linguistics_links/papers_using_wordsmith.htm).



8-1 Figura. WordSmith Toolsen Viewer and Aligner aplikazioaren irudia

Testuak parekatzeko tresna testu analisirako aplikazioekin integratuta dauzka programa honek. Guztia programa berean izatearen abantaila kontuan izanik, WordSmith Toolsen alde egin genuen.

Gure helburu nagusia jatorrizko testua bere itzulpenekin parekatzea izango da, horrek azterketa testuala egiteko erraztasunak emango baitizkigu.

Before this kind of data can be extracted, it is usually necessary for the texts in languages A and B (assuming it is a bilingual parallel corpus) to have been aligned. Put simply, alignment means linking a unit of text in one language with a unit of text in another language. There are software tools that assist in this process (...). Where texts have to be aligned before using a concordancer, it is common practice to align automatically and then check the results and make corrections manually (Olohan, 2004: 26).

Olohanek dioten moduan, jatorrizko testuak xede testuekin banaka-banaka testu unitateka banaturik parez pare jartzean datza lerrokatzea. Olohanek akatsak dauden tokietan ikertzaileak eskuz konpondu behar dituela ere aipatzen du, eta lerrokatze prozesuaren atalik neketsuena hori izan dela esan dezakegu.

Lerrokatzeak maila ezberdinetan egin daitezke. Olohanek aipatzen duen moduan, “alignment may make use of sentence or word boundaries or lengths, lists of anchor words, a bilingual lexicon, probability scores, or a combination of algorithms” (Olohan, 2004: 55). Gure kasuan, WordSmith Tools programak bi modutara ahalbidetzen digu lerrokatzea: esaldi mailan edo paragrafo mailan. Bata ala bestea aukeraturik, programak berak automatikoki



lerrokatzen ditu testuak. Hala ere, lerrokatze automatiko hori zuzendu beharra izan genuen, desfase handi samarrak identifikatu baikekituen (literatur testuekin lan egiterakoan ohikoagoa da hori).

Alignment also needs to be checked, as automatic alignment may have difficulty copying with instances in which one sentence in one language maps onto two or more in the other language or in which a text has been restructured in translation (...) (Olohan, 2004: 55).

Esaldi mailako lerrokatzea paragrafo mailan egiten dena baino zehatzagoa da. Baina jatorrizkoaren eta xede testuen arteko egitura aldaketa nahiko handiak topatu genituzenez eta lerrokatu beharreko testu masa ere handi samarra zenez, paragrafo mailako lerrokatzea egitea erabaki genuen azkenean, gure helburuak betetzeko nahikoa zela iritzita. Zanettinek dioen moduan (2000: 107), “in corpus building it is always necessary to find a happy medium between what is desirable and what is practicable”. Beraz, digitalizazioan eta corpus diseinuan testu azterketetan baino denbora gehiago ematea ez zitzaigun egokia iruditu, azken hori baita gure helburu nagusia.

Lehenengo eta behin, jatorrizkoak xede itzulpenekin banaka-banaka lerrokatu genituen; hau da, testu binomioak sortu genituen. Euskarazkoak xede testuekin lotzeaz gain, gaztelaniazkoak ere xede testuekin lotu genituen, lerrokatze automatikoa gauzatzea oso erraza delako. Modu honetara, automatikoki sorturiko bitestu horien bitartez, xede testuak euskarazkoarekin zein gaztelaniazkoarekin alderatuko ditugu, eta antzekotasun handiagoa baterekin ala bestearekin erakusten duen ikusi. *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian eta Sugeak txoriari begiratzen dionean* liburuek bina itzulpen izan zituzten katalanez, eta horiek jatorrizko eta gaztelaniazko testuekin lerrokatzeaz gain, biak elkarren parez pare ere jarri genituen. Guztira, 120 testu pare sortu genituen.

Hainbat hilabetez testuak digitalizatu eta lerrokatzen aritu ostean, bi testu baino gehiago elkarrekin lerroka zitezkeela ohartu ginen, eta, honela, jatorrizko testu bakoitza bere xede testu guztiekin batera lerrokatu dugu. Testu multzoak oso erabilgarriak izango dira testu mailako azterketa egiteko, fitxategi bakar batean aztertu beharreko testu guztiak batera ikusi eta aztertu ahal izango baititugu. Guztira, 12 testu multzo lortu ditugu; liburu bakoitzeko multzo bana. Hona hemen eskema:

**8-3 Taula. Corpuseko testu multzoak jatorrizko bakoitzeko**

BL	Eus+gazt+kat1+kat2+gal+fr+it	7 testu
STX	Eus+gazt+kat1+kat2+gal+ing1+ing2+it	8 testu
BA	Eus+gazt+kat+fr+ing+it	6 testu
OBB	Eus+gazt+kat+gal+fr+ing+ale+it	8 testu
BEBM	Eus+gazt+kat+gal+fr+ale+it	7 testu
GBB	Eus+gazt+kat+fr+ing+ale+it	7 testu
ZH	Eus+gazt+kat+ing+ale+it	6 testu

XL	Eus+gazt+kat+fr+ale+it	6 testu
XB	Eus+gazt+kat+fr+ale	5 testu
SIG	Eus+gazt+kat+gal+fr+it	6 testu
BLU	Eus+gazt+kat+ale+it	5 testu
SS	Eus+gazt+kat+gal+fr+ing+ale+it	8 testu

Wordsmith Tools asko erabili izan da corpusetan oinarrituriko Itzulpen Ikasketen baitan<sup>63</sup>, eta erreferentzia nabarmena da diziplinaren barruan.


Michael Scottek sorturiko programa horrek hiru eginkizun nagusi ditu: Concord, Keywords eta Wordlist. Lehenengo aukeraren bitartez, hitz bat edo esaldi bat aukeratu, eta testuan zehar agertzen diren bere konkordantzia guztiak kontestuan bertan ikus daitezke. Hainbat aukera eskaintzen dizkigu aplikazio honek: “[It will] give you access to information about collocates of the search word, dispersion plots showing where the search word came in each file, cluster analyses showing repeated clusters of words (phrases) etc.” (Scott, 1998: 54). Hona hemen hitzak bere kontestuan erakusten dituen irudia:

N	Concordance	Set	Tag	Word	#	os.	#	os.	#	os.	File	%
1	Ordo zahararen mantua hat zintzen Obabako zeruaren urdintasuean, ibai itxikiaren eitzetatik hasita			urdin	14.472	096	0%	0	8%	0	t\ba\baeusuk.txd	76%
2	prestatzen az ziren: bi besoren luzerakok, goriak, hotiak, herriko festetarako pentsatuta zeuden			urdin	14.636	107	7%	0	7%	0	t\ba\baeusuk.txd	77%
3	politik dituela. Ez al zain iruditzen? —Bai Teresa, noski, urdin urdinak. Baina begien bistan zegoen Carmenek ez			urdin	12.256	922	3%	0	4%	0	t\ba\baeusuk.txd	64%
4	dituela. Ez al zain iruditzen? —Bai Teresa, noski, urdin urdinak. Baina begien bistan zegoen Carmenek ez zuela			urdin	12.257	922	0%	0	5%	0	t\ba\baeusuk.txd	64%
5	—gehitu zuen beste neskari eskutik heldu eta zinta urdin zabal bat erakutsi erazit. —Carmenek arrazo du, ez			urdin	14.763	116	3%	0	8%	0	t\ba\baeusuk.txd	77%
6	ez zegok, Paulo, horregatik aukeratu diagu kolore honi. Urdina edo jari ezkeren baten bat nahastu egingo huake,			urdin	17.116	365	2%	0	0%	0	t\ba\baeusuk.txd	90%
7	jari ezkeren baten bat nahastu egingo huake, badakik urdin batetik bestera alde gutxi dagoela. Ez al zaik ondo			urdin	17.126	365	1%	0	0%	0	t\ba\baeusuk.txd	90%
8	Oso edade handikoa zen, eta aurrepeko zainek hain urdinak ziruditen bere azal zuriaren azpian. Pauloren			urdin	14.609	121	7%	0	8%	0	t\ba\baeusuk.txd	78%
9	jende guztia goxogintza ikastera joango da. Bere zain urdinka haiek puztu egiten ziren hitz egiten zuenean.			urdin	15.224	159	0%	0	0%	0	t\ba\baeusuk.txd	80%
10	laino guztiak, ez mendtegiaren itota zegoen laino itiki eta urdinka batek. Alderantziz, laino hura ikustarekin			urdin	12.189	912	3%	0	4%	0	t\ba\baeusuk.txd	64%
11	du horrenbeste eun? Ez al gaude ba uztailean? Erabat urdin zen, ondas, nik zeharkatu berrin nuen zerua, egun			urdin	1.241	87	0%	0	7%	0	t\ba\baeusuk.txd	7%
12	ere baizik lumeratu zuten hain esanek. Muturaren urdin ziren eta esplikatu eramanerara zuzenduta zeuden.			urdin	1.462	100	3%	0	8%	0	t\ba\baeusuk.txd	8%
13	gauza gutxia iruditu zitzaidan. Begiratu nion zeruari eta urdintasun berrin bat antzeman nuen hain, baina ere baino			urdin	344	25	0%	0	2%	0	t\ba\baeusuk.txd	2%
14	antzman nuenean, ere ikara uxatu eta zeruaren urdintasunerantz igo nintzen. Eguzkia apur bat zokorotua			urdin	725	51	7%	0	4%	0	t\ba\baeusuk.txd	4%
15	zeruak segitzen zuen lehian, errenditu gabe, artean urdin zegoen, eta bere urdina argitu egiten zen etzetan,			urdin	3.843	291	5%	0	0%	0	t\ba\baeusuk.txd	21%
16	eta udarako eguzkiagatik, eta udarako zeru urdinagatik, eta leku hartan betriko gelditzea pentsatzen			urdin	4.772	372	7%	0	5%	0	t\ba\baeusuk.txd	25%
17	zitiaion tristura ere ez zen hutsetik jarioa izaten, begi urdinetako mutil hark zeukan kulpia guztia. Izan ere, Paulo			urdin	10.630	798	5%	0	7%	0	t\ba\baeusuk.txd	57%
18	lehian, errenditu gabe, artean urdin zegoen, eta bere urdina argitu egiten zen etzetan, lurarekin mugante			urdin	3.847	291	4%	0	0%	0	t\ba\baeusuk.txd	21%
19	eta etzan bat bezala baneratzaren zen zeruaren urdintasun hartan. Kampaia hotsegiten hasi zen dorre			urdin	3.913	295	4%	0	1%	0	t\ba\baeusuk.txd	21%
20	dantzatu. Ez baizik eta Altzurükükoe, baina baita Urdinabe, Kakaeta eta beste leku antzetakoe ere.			urdin	14.092	370	7%	0	5%	0	t\ba\baeusuk.txd	44%
21	etoni ziren guregana. Altxa egin nituen begiak: zerua urdin zegoen. Zorrotu egin nuen belaria: belar artean			urdin	24.045	361	8%	0	6%	0	t\ba\baeusuk.txd	76%
22	txartu zitzaion Haundiri: udako zerua, normalean hain urdin eta alai, lainotu egin zen zeharo. Eta berak nozitu			urdin	30.131	946	4%	0	5%	0	t\ba\baeusuk.txd	95%
23	zituen, eta—azal txurkora, aurregi edo lepoko zainko urdinak agendan uzten zizkiona—botila kristalarekin			urdin	6.344	634	4%	0	0%	0	t\ba\baeusuk.txd	20%
24	gorri zirenek beltzak ematen zuten, eta txuriek, urdinak. Gorribloak alfombra ilun bat egiten zion lurari.			urdin	9.320	970	0%	0	9%	0	t\ba\baeusuk.txd	29%
25	berak baino dotoreago hegan egiten zekiena, eta luma urdin bizkora. —Zertan ari zara gentsatzen? —esan zidan			urdin	9.754	010	6%	0	1%	0	t\ba\baeusuk.txd	31%
26	sakababatuta: zazpitan, berriz, ez dauka, eta zerua urdin-urdin ageri da. 2. Txonak. Oso desagertu-zale dira			urdin	9.345	117	8%	0	8%	0	t\ba\baeusuk.txd	57%
27	esaten diot nik. Eta berak: “Itasoa handia, itasoa urdina, nik itasoa ikusi nahi”. Baina gero, josten			urdin	8.777	041	4%	0	4%	0	t\ba\baeusuk.txd	54%
28	Herrian zegoen bere lekua hango mendi berde edo urdinen artean kokaturiko herrien batean. Baina, nolana			urdin	14.289	042	3%	0	1%	0	t\ba\baeusuk.txd	71%
29	zuen: bai, ondo zegoen terrazan. Plater txuriek, serbiletan urdinak, mantel berri txuriek, banderako gori eta			urdin	9.521	689	2%	0	7%	0	t\ba\baeusuk.txd	48%
30	hitzein nahi. Carlos karreterako gasolinategiaren argi urdin eta gorriak oharu zen, eta ondorenean—kolore			urdin	15.551	109	5%	0	7%	0	t\ba\baeusuk.txd	78%
31	suður zuloetan eta begi zirkuituetan sentitzea, zeru urdinetako begiadiari begiak malkotu arte eustea,			urdin	16.433	150	3%	0	2%	0	t\ba\baeusuk.txd	82%
32	jabetu egin zen, errealitate ez zuela gasolinategiko argi urdin eta goriak ekarki, baizik eta telefono dei hark.			urdin	15.615	112	8%	0	8%	0	t\ba\baeusuk.txd	78%

8-2 Figura. Concorden, hitza bere kontestuan

<sup>63</sup> Ondorengo helbidean Wordsmith erabiliz egin diren ikerketa lanen zerrenda zabala kontsulta daiteke: [http://www.lexically.net/wordsmith/corpus\\_linguistics\\_links/papers\\_using\\_wordsmith.htm](http://www.lexically.net/wordsmith/corpus_linguistics_links/papers_using_wordsmith.htm).

Hitza bera corpusean zehar ere non eta zenbat agertzen den laburpen grafikoa ere eskaintzen du, besteak beste:



8-3 Figura. Hitzak corpusean duen presentziaren laburpena

Keywords aplikazioaren bitartez, testuan agertzen diren hitz gakoak aurki daitezke.


The program compares two pre-existing word-lists, which must have been created using the WordList tool. One of these is assumed to be a large word-list which will act as a reference file. The other is the word-list based on one text which you want to study (Scott, 1998: 70).

Hitz gakoaren zerrenda ematen digu emaitza modura, zenbat aldiz ageri den esanez, eta hitz gakotasuna zein mailatakoa den adieraziz:

N	Key word	Freq.	%	. Freq.	RC. %	eyness	P	emmas	Set
1	ESTEBAN	40	0,22	40	0,02	91,70	000000		
2	MAISTRAK	32	0,17	43	0,02	61,72	000000		
3	WERFELL	23	0,12	23	0,01	52,71	000000		
4	MANUEL	20	0,11	21	0,01	44,65	000000		
5	UEN	18	0,10	18		41,25	000000		
6	BAÑA	16	0,09	16		36,66	000000		
7	DUC	14	0,08	14		32,08	000119		
8	MUGATSEKO	13	0,07	13		29,79	000453		
9	GUTUNA	17	0,09	29	0,02	27,67	001407		
10	GILTZA	13	0,07	15		27,52	001523		
11	EGUIN	12	0,07	12		27,50	001545		
12	CIAN	12	0,07	12		27,50	001545		
13	WERFELL-EK	12	0,07	12		27,50	001545		
14	HAMBURGORA	12	0,07	12		27,50	001545		
15	MORROI	15	0,08	23	0,01	26,44	002695		
16	HAMALAU	15	0,08	24	0,01	25,63	004105		
17	IGANDE	13	0,07	17		25,51	004380		
18	MORROIAK	12	0,07	14		25,24	005028		
19	ITUEN	11	0,06	11		25,20	005127		
20	KAIERA	11	0,06	11		25,20	005127		
21	ESAN	58	0,32	1.429	0,74	-53,87	000000		

8-4 Figura. Key Wordsen emaitza I

Concorden moduan, hitz gakoak liburuaren zein pasartetan ageri diren ere ikus dezakegu:



8-5 Figura. Key Wordsen emaitza II

Azkenik, Wordlist-ek testu batean edo testu multzo batean agertzen diren hitz guztien zerrenda ematen du, alfabetikoki edo maiztasunaren arabera.

These [word lists] can be used simply in order to study the type of vocabulary used, to identify common word clusters; to compare the frequency of a word in different text files or across genres; to compare the frequencies of cognate words or translation equivalents between different languages; to get a concordance of one or more of the words in your list (Scott, 2004-2007: 132).

N	Word	Freq	%	Texts	%emmas	Set
1	A	72	0,42	1	100,00	
2	à	349	2,05	1	100,00	
3	À	15	0,09	1	100,00	
4	ABANDONNE	1		1	100,00	
5	ABANDONNE	1		1	100,00	
6	ABOIE	1		1	100,00	
7	ABORD	6	0,04	1	100,00	
8	ABORDONS	1		1	100,00	
9	ABRUTIS	1		1	100,00	
10	ABSENCE	1		1	100,00	
11	ACCEPTERAIENT	1		1	100,00	
12	ACCORD	6	0,04	1	100,00	
13	ACCORDE	2	0,01	1	100,00	
14	ACCORDA	1		1	100,00	
15	ACCORDONISTES	1		1	100,00	
16	ACCORDER	1		1	100,00	
17	ACCUSER	1		1	100,00	
18	ACHEVA	1		1	100,00	
19	ACOLYTE	2	0,01	1	100,00	
20	ACTE	1		1	100,00	
21	ADIEUX	1		1	100,00	
22	ADORAIT	1		1	100,00	
23	ADORE	1		1	100,00	
24	ADRESSAINT	1		1	100,00	
25	ADULTES	2	0,01	1	100,00	
26	ADVERSAIRES	1		1	100,00	
27	AFFAIRE	4	0,02	1	100,00	
28	AFFLUÛ	1		1	100,00	
29	AFFRONTAIT	1		1	100,00	
30	AFFRONTERAIENT	1		1	100,00	
31	AFIN	1		1	100,00	
32	AGENOUILLER	1		1	100,00	

8-6 Figura. WordListen hitz zerrenda alfabetikoki ordenaturik

## 8.4 GIZA++ PROGRAMAREKIN PROBA

Azterketa testuala egiteko tresna egokiak bilatzen ari ginelarik, Giza++ izeneko softwarearekin egin genuen topo eta gure corpusaren atal bati aplikatu diogu IXA taldearen laguntza<sup>64</sup>. Tresna horren bitartez, esaldi mailan parekaturiko bi testuak elkartzen dira testu batean zein bestean aldi berean agertzen diren hitzak elkarlotuz eta kointzidentzia tasa altuenak sortzen dituzten hitz bikoteak erauzten ditu<sup>65</sup>.

Itzulpen ikasketetan egiten diren corpusen azterketa deskriptiboetan gisa horretako tresnek duten erabilgarritasuna neurtze aldera, proba txiki bat gauzatuko dugu. Horretarako, corpus guztitik euskaratik gaztelaniara itzuliriko testu bakar bat erabili dugu, *Soinujolearen semea*, proba egiteko corpusa bere osotasunean oso handia izango delako.

Giza++ erabiltzerakoan, aztertu beharreko bi testuak esaldi mailan parekaturik egotea garrantzitsua da, emaitzak hobek izan daitezken. Aurrez esan dugun bezala, gure corpusa paragrafo mailan lerrokatua dagoenez, esaldi mailan lerrokatutako binomio testual bakarrak egin dugu proba. Etorkizunean

<sup>64</sup> Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko ikerketa taldea da IXA. Hizkuntzaren tratamendu automatikoa egiten dute lan, euskararen arloan batik bat. Informazio gehiagorako, hona hemen taldearen web-gunea: <https://ixa.si.ehu.es/ixa/index.html>.

<sup>65</sup> Honako orrialde honetan informazio gehiago topa daiteke: <http://www.statmt.org/moses/giza/GIZA++.html>.

---

emaitza fidagarriagoak lortu ahal izango genituzke, corpusa esaldi mailan lerrokatuz.

Azterketa mikrotestuarean erakutsiko dugu zein emaitza lortu dugun tresna honen erabileraren bitartez.



**9**



# azterketa makrotestuala

---

Deskribapenaren fasea amaitu ondoren eta digitalizazioaren esperientzia baliatuz, azterketa makroestruturalari ekingo diogu. Baina urrats honi ez diogu zerotik ekingo; digitalizazio eta lerrokatze prozesuek erakutsi digute sarritan desadostasunak egon badaudela jatorrizkoaren eta itzulpenen artean. Aurre prestaketa horrek pentsarazi digu makroestruturari dagozkion hainbat aldaketa izan direla itzulpenak egiterakoan. Alde nabarmenenak, intuitiboki ikusi ahal izan dugunaren arabera, euskaratik gaztelaniara azaldu dira.

Atal honetan, testu azterketa zehatzera heldu aurretik kontuan izan beharreko liburuaren egitura orokorra aztertuko dugu. Batetik, izenburuen azterketa egingo dugu. Liburuak aurkezterakoan, izenburua izaten da daturik garrantzitsuena, egilearekin batera, eta liburuaren aurkezpen datu horren itzulpenen azterketa egingo dugu. Ondoren, testuaren egiturari erreparatuko diogu. Testuaren antolaketa, ordena, kapituluaren banaketa eta paragrafo kopurua zer nolakoak izan diren deskribatuko dugu, bai euskarazko testuetan eta bai itzulpenetan, eta horien artean egon daitezkeen aldeak aztertuko ditugu.

## **9.1 IZENBURUEN INGURUKO AZTERKETA**

Azterketa makroestrukturalaren lehen egitekoa, corpuseko liburuaren izenburuen inguruko analisi labur bat izango da. Itzulpenetan izenburuak nola moldatu diren eta zein aldaketa jasan dituzten ikusiko dugu.

Ondorengo taula honetan bildu ditugu jatorrizko izenburuak eta itzulpenetakoak:

## 9-1 Taula. Liburuen izenburuak

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	Ing	Ale	It
Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian	Dos letters	Dues letters/ Vaig rebre dues letters en molt poc temps	Dúas letters	Deux letters	Two Letters at Once	■	Due letters
Sugeak txoriari begiratzen dionean	Cuando la serpiente...	Quan la serp.../ serp mira l'ocell	Quando a serpe mira o paxaro	■	When a Snake Stares at a Bird/ When the Snake Stares at the Bird	■	Quando un serpente...
Bi anai	Dos hermanos	Dos germans	■	Deux frères	Two brothers	■	Due fratelli
Obabakoak	Obabakoak	Obabakoak	Obabakoak	Obabakoak	Obabakoak. A Novel	Obabakoak; oder, das Gänsepiel	Obabakoak: storie
Behi euskaldun baten memoriak	Memorias de una vaca	Memories d' una vaca	Memorias dunha vaca	Mémoires d'une vache	■	Memoiren einer baskischen Kuh	Memorie di una mucca
Gizona bere bakardadean	El hombre solo	L'home sol	■	L'homme seul	The Lone Man	Ein Mann allein	L'uomo solo
Zeru horiek	Esos cielos	Aquells cels	■	■	The Lone Woman	Fenster zum Himmel	Sotto un altro cielo
Xolak badu lehoien berri	Shola y los leones	La Xola i els lleons	■	Shola et les lions	■	Shola und die Löwen	Shola e i leoni
Xola eta basurdeak	Shola y los jabalies	La Xola i els senglars	■	Shola et les sangliers	■	Shola und die Wildschweine	■
Sara izeneko gizona	Un espia llamado Sara	Un espia anomenat Sara	Un espia chamado Sara	Un espion nommé Sara	■	■	Un uomo in codice
Bambulo. Lehen urratsak	Bámbulo. Primeros pasos	Bambulo. Primers passos	■	■	■	Bambulos wahre Lügengeschichten	Un cane davvero speciale
Soinujolearen semea	El hijo del acordeonista	El fill de l'acordeonista	O fillo do acordeonista	Le fils de l'acordeoniste	The Accordionist's Son	Der Sohn des Akkordeonspielers	Il libro di mio fratello

*Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* liburuaren itzulpen gehienetan, izenburua laburtu egin dute, eta “Bi letter”-en baliokide modura utzi: *Dos letters* gaztelaniaz, “Deux letters” (*Un cheveu pour la langue* liburuaren barruan) frantsesez, *Dúas letters* galegoz edo “Due letters” (*Storie di Obaba* liburuaren barruan) italieraz. Katalanaren kasuan, *Dues letters* izenburupean Via Lliure sailean Ediciones B-k argitaratutako liburuan, “Dues letters” izenarekin aurkezten da kontakizuna, baina, *Contes d’Obaba* libururako eginiko itzulpenean, izen osoa agertzen da, euskarazkoan bezala: “Vaig rebre dues letters en molt poc temps”. Ingelesez ere, denborari erreferentzia mantendu egin zaio, aditza ezabatu egin den arren: “Two Letters All at Once”.

*Sugeak txoriari begiratzen dionean* liburuaren kasuan ere, antzeko zerbait gertatu da; itzulpen batzuetan, izenburua laburtuta agertzen da, gaztelaniaz, italieraz edo katalanezko Marta Hernándezen itzulpenean kasu. Gainontzekoek izenburua bere osotasunean jaso dute: “When the Snake Stares at the Bird” ingelesezko argitaratu gabeko itzulpenean, “When a Snake Stares at a Bird” Nere Leteren itzulpenean *Two Basque Stories* liburuan, “Quan la serp mira l’ocell” katalanez (*Contes d’Obaba* liburuan), edo *Cando a serpe mira o paxaro* galegoz. Kontakizun hori galegoz soilik argitaratu da bakarka, eta euskarazoak zuen egitura bera mantendu diote izenburuari, aipatu berri dugunez. Gaztelaniaz eta katalanez, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* kontakizunarekin batera argitaratu zuen Ediciones B-k, eta azken horren izenburua ageri da liburuaren azalean. Beraz, *Sugeak txoriari begiratzen dionean* kontakizuna itzalean geratu da argitalpen horietan.

*Bi anai* liburuaren itzulpen guztiek izenburua hitzez hitz itzuli dute.

Aurreko hiru narrazioak batera argitaratu zituzten gaztelaniaz, katalanez eta italieraz, eta bilduma horiek ondorengo izenak jaso zituzten: *Historias de Obaba* gaztelaniaz, *Contes d’Obaba* katalanez eta *Storie di Obaba* italieraz.

*Obabakoak* liburuaren itzulpen gehienek mantendu dute jatorrizko izena, nahiz eta hizkuntza gehienetan ahoskatzeko arazo bat baino gehiago izan. Gainera, ulermen edo erreferentzia aldetik ere zailtasunak sor ditzake jatorrizko izenburua mantentzeak. Xede hizkuntzetan hitz hori oso arrotza da, eta exotiko puntua ere ematen zaio liburuari halako izen bitxi baten bidez. Hainbat kasutan, izenburua bere horretan utzi dute; gaztelaniaz, katalanez eta frantsesez, kasu. Beste hainbatetan, azalpen txiki bat gehitu diote aldamenean. Honela, ingelesezko itzulpenak *Obabakoak*, *a novel* izena jaso du; italieraz *Obabakoak: storie*. Bi azalpen horien bidez, irakurleak zein liburu mota den jakingo du, zein generotako liburu irakurtzera doan. Alemanaren kasuan (nederlandararen modura, besteak beste), gehitu zaion azalpena autoreak gaztelaniazko bertsioan liburuaren amaieran gehituriko autobiografiatik aterea da; antzararen jokuari buruz hitz egiten da bertan, eta horri erreferentzia egiten zaio *Obabakoak: oder, das Gänsespiel* (*Obabakoak: edo antzararen jokua*) izenburuan.

Corpus honetatik kanpo geratu diren beste zenbait hizkuntzatan ere beste hainbat erreferentzia gehitu dira, horietariko batzuk Obaba herria aipatzen dute, hala nola *Gjensyn med Obaba* norvegieraz, *Obabakoak: o míticos cosmos tis obaba* grekeraz, *Obabakoak (Um lugar chamado Obaba)* portugesez.

Euskarazko izenburua mantendu izanak garrantzia handia du, jatorrizkoarekiko lotura erakusten baitu nolabait, nahiz eta liburuaren itzulpen ia guztiak zeharkakoak izan.

*Behi euskaldun baten memoriak* liburuaren gaztelaniazko bertsioan behi euskalduna, behi soil bihurtzen da izenburuan (*Memorias de una vaca*). Hizkuntza aldaketan, behiaren euskalduntasuna galdu egin da, eta, gaztelaniatik abiatu diren itzulpenen kasuan, behi euskaldunak bere jatorria galdu egingo du (katalana, galegoa, frantsesa eta italiera). Ez da gauza bera gertatzen euskaratik zuzenean itzuliriko hizkuntzen kasuan. Horietan, behi euskaldunak euskaldun izaten jarraitzen du: alemanez *Memoiren einer baskischen Kuh* eta corpus honetatik kanpo geratu den esperantozkoan (*Memorajoj de euska bovino*) ere bai.

Aldaketa horren inguruan, autoreak berak honakoa azaldu zuen:

Este libro originalmente se llamaba *Behi euskaldun baten memoriak*, es decir, directamente traducido, *Memorias de una vaca vasca*. Pero claro, a mi me parecía que eso de vaca vasca era una cacofonía o al menos a mi oído no le sentaba bien. Así que, pensé entonces, había que prescindir del adjetivo y dejarlo en *Memorias de una vaca* (Atxaga, 1994a: 44).

Beraz, kakofonia omen, euskaratik gaztelaniarako moldaketaren arrazoi. Hala ere, gaztelania oinarri hartu duten itzulpenek kakofonia horren ondorioak jasan dituzte, nahiz eta hizkuntza horietan halako arazorik ez izan. Dena dela ere, eta kakofoniaren arrazonamendua baztertu gabe, ezabaketa horren atzean arrazoi ideologikoak ere egon daitezkeela pentsa daiteke: ez da gauza bera gaztelaniazko irakurlearentzat behiari bere jatorria zehaztea edo ez. Oso eremu labainkorra izan daiteke, eta are gehiago izenburuan ematea. Xede-irakurleagoari begira eginiko aldaketa izango genuke, beraz, Apalategik dioen moduan: “Tituluak itzulpenean jasandako mozketak txikia –‘euskaldun’ izenlagunaren desagertzea– ongi adierazten digu hasiera batean, seguraski, Atxagak euskal irakurleagoa baizik ez zuela buruan liburu hau idazterakoan” (Apalategi, 1998a: 73).

*Gizona bere bakardadean* liburuaren itzulpenak ere ez du moldaketa handiegirik jasan bere itzulpen guztietan, eta gizona eta bakardadea dituzte ardatz.

*Zeru horiek* liburua hitzez hitz itzuli zen bai gaztelaniara (*Esos cielos*) eta baita katalanera (*Aquells cels*) ere. Alemanaren kasuan, pixkatxo bat aldatu da izena, *Fenster zum Himmel* (Zerurako leihoa) modura itzuli baitute. Hala ere, zeruarekiko erreferentzia ez du inongo momentutan aldatu, eta, beraz, jatorrizkotik gertu kokatzen da. Gauza bera gertatzen da italieraren kasuan:

*Sotto un altro cielo* (Beste zeru baten azpian) du izena, eta zeruarekiko erreferentzia ere hor dago. Italiarazko kasuan, hala ere, beste zeru bati buruz hitz egiten da, kartzelaz kanpoko zeruaz ari dela pentsa dezakegu, askatasunaren zeruaz, nolabait esateko. Zeruarekiko erreferentzia oso garrantzitsua da gainera liburu honetan, une oro protagonistaren aldartea zeruak hartzen duen kolorearen arabera deskribatzen baitu idazleak.

Aldaketarik nabarmenena liburuaren ingelesezko bertsoiak jasan du. Kasu horretan, beste inongo hizkuntzatan ez bezala, jatorrizkoan ageri den zeruarekiko erreferentzia galdu egin da. Ingelesez *The lone woman* (Emakumea bere bakardadean) izena eman zaio liburuari. Izenburu horrek erreferentzia intratestual zuzena egiten dio Atxagaren aurretiko liburu bati, *The lone man* (*Gizona bere bakardadean*) liburuari hain zuzen ere. Jarraipena dela pentsa dezake irakurleak, edo gai beraren inguruan arituko dela. Hein batean, bi kasuetan organizazio terrorista bateko kide ohi bi dira protagonistak: batean, gizona, eta bestean, emakumea. Bietan, bi protagonistak kartzelatik paseak dira: gizonak bere bizitza berregina du; emakumea, berriz, atera berria da, eta bizitza berriari ekitera doa. Bietan ala bietan ere, pertsonaiak bakar-bakarrik daude munduan. Horiek izango lirateke bi liburuen arteko lotura nagusiak.

*Xolak badu lehoien berri* liburuaren itzulpen guztietan zertxobait aldatu da jatorrizkoaren zentzua, baina lehoien inguruko erreferentzia bere horretan mantendu da: *Shola y los leones*, *La Xola i els lleons*, *Shola et les lions*, *Shola und die Löwen* eta *Shola e i leoni*. Guztiek ere egitura bera agertzen dute, euskarazkotik ezberdin samarra. Xolaren bigarren liburuari dagokionez, *Xola eta basurdeak*, xede izenburu guztiak hitzez hitzezko itzulpenak dira, eta jatorrizkoaren zentzua bere horretan mantentzen dute.

*Sara izeneko gizona* liburuaren kasuan aldaketa txiki bat gertatu da xede liburu guztietan. Euskarazko izenburuan, Sara gizona aipatzen da eta gaztelaniazkoan Sara espia; beraz, zehaztu egiten da zer den Sara lanbidez. Hizkuntza erromanikoetan, artikulua (un) erakutsiko digu Sara gizonezkoa dela. Ondorioz, katalanez, galegoz eta frantsesez ere Sara espia izango da. Italiararen kasuan, berriz, izenburua guztiz aldatu da, *Un uomo in codice*, eta ez da ageri gizonaren izenik.

Bambulo saileko liburuaren itzulpenetan ere izan da moldaketarik. Gaztelaniaz eta katalanez, euskarazko izenburuaren egitura mantendu egin da. Horrela, *Bambulo. Lehen urratsak*, gaztelaniaz, *Bámbulo, primeros pasos* da, eta *Bambulo. Primers passos* katalanez. Alemanaren kasuan, *Bambulos wahre Lügengeschichten* (Bambuloren benetako gezurrezko istorioak) izenburuarekin itzuli da. HGL liburu alemaniarretan tradizio handia du “Lügengeschichte” horrek<sup>66</sup>, azpтитulu modura edo gaineratzen da sarri. Modu

<sup>66</sup> Hona hemen hainbat adibide: Janoschen *Janosch's wahre Lügengeschichten* (2011), Dirk Herrmannen *Von Lügengeschichten und Heldenballaden* (2011), Alexandra Cavéliusen *Detektiv- und Lügengeschichten* (1999), Harre Bösekeren *33 ziemlich wahre*

honetara, xede kulturara egokituz, liburua zein generotakoa den nabarmentzen da. Italiarazko itzulpena *Un cane davvero speciale* (Txakur oso berezi bat) izenburuarekin argitaratu da, eta ez da protagonistaren izena inondik inora ageri.

*Soinujolearen semea* liburuaren corpuseko itzulpen ia guztiek egitura eta semantika oso antzekoa mantendu dute. Moldaketa bakarra, italiarazko bertsioak jasan du. *Il libro di mio fratello* izenburupean argitaratu da. *Il libro di mio fratello*, “Anaiaren liburua”, lehen atalean aipatzen da, pertsonaia nagusiak (Davidek) idatzi dituen memorien gainean Joseba pertsonaia eginiko liburua aipatzen denean. Azkenik, izenburu hori baztertu eta *Soinujolearen semea* aukeratu da. Italiaraz, ordea, beste izenburu horren aldeko hautua egin dute. Jatorriz izan behar zuen izenburua jartzea arrazoi estetikoengatik egin da italiaraz:

Nonbait italiaraz soinujolea oso hitz itsusia da, filarmonicista, uste dut dela. Eta orduan idatzi zidan Paolo Collok, (...) orduan zen Einaudiko buru, eta esan zidan “¿me puedes decir otro título? Porque filarmonicista es una palabra terrible en italiano (...). Hasi nintzen pentsatzen eta “el libro originalmente se llamaba *El libro de mi hermano*” (...) eta esan zidan “estupendo” (Atxaga, 2008a).

### 9.1.1 Ondorioak

Izenburuak liburuaren aurkezpen datu nagusiak diren aldetik, garrantzitsua iruditzen zaigu horiek nola itzuli diren ikustea. Kontuan izatekoa da, beraz, izenburua euskaraz mantendu izana *Obabakoak* liburuaren itzulpen gehienetan; nolabait esateko, euskal literaturaren ordezkari edo adibide gisa aurkezten delako. Ordura arte ezezaguna zen euskal literatura literatura bitxi eta exotiko gisa aurkeztu zen liburu horren bitartez.

Bestalde, izenburua moldatzerakoan edo laburtzean, kontuan izan behar da kentzen den elementuak bertan duen esanahia. Hau da, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* izenburua laburtuz (“Bi letter” soilik itzuliz), informazioa galdu egingo da, baina galtzen denak ez du berebiziko garrantziarik. *Behi euskaldun baten memoriak* liburuaren kasuan, ordea, behia euskalduna dela ezkutatzek beste maila bateko galera dakar. Behiaren eta, aldi berean, liburuaren jatorria ezkututzen da. Aurrez aipatu dugun moduan, gainera, kenketa horren ondorioak ez ditu gaztelaniazko bertsioak soilik pairatuko, baita zeharka itzuli diren hizkuntza guztiek ere, nahiz eta horietan kakofoniarik izan ez.

Liburu horretatik aurrera, idazleak badaki bere lanak bi irakurlego mota ezberdini zuzendurik egongo direla eta horrek, idazkuntzan bertan ere eragina izan dezake.

L'auteur sait que chacune des lignes qu'il rédige sera ensuite "traduite" par lui-même et parviendra à un second lectorat ayant des caractéristiques opposés à celles du premier et "recevant" le texte avec un "horizon d'attente" formé par un héritage intertextuel radicalement différent (Apalategi, 2000: 251).

Egia esan, hortik aurrerako liburuetan ez dugu halako alderik ikusi liburuaren izenburuari dagokionez. Liburuaren egiturari dagokionean edo maila mikrotestuarean egingo ditugun analisisetan aztertu beharko da bi irakurlegori zuzenduriko elementuen presentzia.

*Sara izeneko gizona* liburuaren kasuan, zehaztapena izan da moldaketen ardatz. Xede hizkuntzetan, guztiak ere erromanikoak, artikulua bitartez adierazten da pertsonaia nagusiaren generoa, eta, beraz, lanbidea adierazi, generoa beharrean.

Hainbatetan, izenburua guztiz aldatzen da. *Zeru horiek* liburuaren ingelesezko izenburua kasu berezia iruditu zaigu, autorearen aurretiazko liburu bati egiten baitio erreferentzia, eta, beraz, irakurleak aurrekoaren jarraipena dela edo antzeko gaiak hitz egingo dela pentsa dezake.

Aipagarria da itzulpen sortzaile bat baino gehiago izan dela italiaraz. Izenburu aldaketaren adibide esanguratsu bat *Soinujolearen semea*-ri eman zaiona da. Aurrez esan bezala, arrazoi estetikoak direla medio, liburuak izenburu oso ezberdina dauka hizkuntza horretan.

Honenbestez, ikus dezakegu izenburuen azterketa honek itzulpen moten inguruan informazio argigarria eskaini dezakeela. Aurrez zehazteke geneuzkan datuak osatzeko aukera ematen digula, euskaratik gaztelaniarako bidean aldaketak egon diren kasuetan batik bat. Iturri modura zein testu erabili ahal izan den zantzuak eskaini dizkigu hainbat kasutan, BLren, STXren edo BEBM liburuaren kasuan, esaterako.

## 9.2 LIBURUEN EGITURA

Liburuaren egiturak banan banan aztertzeko, narrazioen aurkibideak eta testuaren egitura orokorra izan ditugu kontuan. Euskarazkoak erakusten duen ordena, kapitulu kopurua, narrazioaren antolakuntza eta paragrafo kopurua aztertu ditugu, eta, ondoren, itzulpenekin alderatu. Azterketa lanez lan banatu dugu, azterketa paratestualaren atalean bezala, eta jarraian aurkeztuko ditugu azterketaren nondik norakoak.

### 9.2.1 *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian (1984)*

Corpuseko lehenengo lana ipuin laburra da, eta narrazioak ez du inongo etenik. Makrostrukturari dagokionez, jatorrizkotik itzulpenetara egiturak ez du moldaketa handirik jasan.



Euskarazko testuan, Antton Olariagaren irudiak txertatu dira. Bestalde, gaztelaniazko inongo argitalpenetan ez da irudirik ageri, ez eta katalanezko, galegozko, italierazko edota frantsesezko liburuetan ere. Ingeleseztiko itzulpenean, jatorrizkoan ageri diren Olariagaren irudiak txertatu dira.

Paragrafo kopuruari erreparatzen badiogu, aldeak oso nabarmenak izango dira. Euskarazko testuan 262 paragrafo eta gaztelaniazkoan 317 paragrafo zenbatu ditugun bitartean, xede hizkuntza ia guztietan 303-318 paragrafo artean ageri dira. Ingelesez, ordea, kopurua euskaraz baino urriagoa da: 233 guztira. Datu horrek nahiko ongi erakusten du zuzenean itzuli duela ingelesezko itzultzaileak.

### **9.2.2 Sugeak txoriari begiratzen dionean (1984)**

Liburuaren egiturari dagokionez, kontakizun laburra da. Narrazioa jarraia da, eta, jatorrizkotik itzulpenetara, makroegiturak ez du aldaketa handirik jasan.

Euskarazkoa haur eta gazteentzako argitalpena da: letra tamaina handia du, eta Antton Olariagaren irudiak tartekatzen dira kontakizunean.

*Sugeak txoriari begiratzen dionean*, bai gaztelaniaz, bai katalanez eta baita italieraz ere, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* kontakizunarekin batera argitaratu da, eta, aurrez esan bezala, hizkuntza horietako inongo argitalpenetan ez da irudirik ageri.

Galegoz, kontakizuna bera bakarrik argitaratu da, gainontzeko xede hizkuntzetan ez bezala, eta, argitalpen honetan, Marcela Santorumen irudiak txertatu dira testuan.

Ingeleseztiko narrazioa *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* ipuinaren itzulpenarekin batera argitaratu da, eta jatorrizkoan agertzen diren Antton Olariagaren irudiak txertatu dira argitalpen honetan ere.

Paragrafo kopuruak, liburu honen kasuan, ez du alde nabarmenik jasan jatorrizkotik itzulpenera. Euskaraz 219 paragrafo zenbatu ditugu. Ingeleseztiko bi itzulpenetan eta galegozkoan hainbat paragrafo gutxiago ageri dira (208-210 artean) eta gaztelaniaz, italieraz eta katalanez paragrafo kopurua zertxobait altuxeagoa da (230-240 artean). Kopuruak ez badira ere gehiegi urruntzen, bi norabide kontrajarri ikusten dira: murriztailea galegoz eta ingelesez, gehitzekoa gainerakoetan.

### **9.2.3 Bi anai (1985)**

Liburuaren egiturari dagokionez, euskarazko testua hamabi kapitulutan banaturik dago, eta atal bakoitza, erromatar zenbakiz sailkaturik. Corpuseko itzulpen guztietan, berriz, testua 10 ataletan banaturik dago, eta bakoitza goiburu zein azpi-goiburu eta guzti aurkezten da: nor den mintzo eta kapituluaren izenburua agertzen direlarik. Itzulpenetan ez bezala, euskarazkoan, kapitulu bakoitzaren narratzailea testua irakurri ahala ezagutzen du irakurleak.

Euskarazko lehenengo bi kapituluak bakar batean bildurik agertzen dira gaztelaniazko bertsioan, eta baita bosgarren eta seigarren kapituluak ere.

Gainontzeko itzulpenek ere egitura berdina mantendu dute; hori dela eta, gaztelaniatik egin direla garbi ikus dezakegu.

Paragrafo kopuruari dagokionez alde handiak daude euskarazkotik (872) gainerako bertsioetara, ehun paragrafo baina gehiagoko aldea ageri baita beraretan: 696 eta 712 paragrafo artean guztietan ere.

Azkenik, testu mailako zehaztapen txiki bat egitearren, euskarazko VI kapituluaren azken esaldia hurrengoaren lehen esaldi bihurtu da gaztelaniazko itzulpenean eta, ondorioz, gainerakoetan.

#### 9-2 Taula. *Bi anai*-ren egitura

Eus	Gazt	Kat	Fr	Ing	It
I II	Relato del pájaro Sobre la voz interior. Muerte y promesa. Paulo y Daniel	Relat de l'ocell Sobre la veu interior. Mort i promesa. Paulo i Daniel	Récit de l'oiseau Au sujet de la voix intérieure. Morte et promesse. Paulo et Daniel	The bird's story Concerning the inner voice. A death and a promise. Paulo and Daniel	Racconto dell'uccello Sulla voce interiore. Morte e promessa. Paulo e Daniel
III	Sigue el relato del pájaro Recuerdos y preocupaciones de un sacerdote	Continua el relat de l'ocell Records i preocupacions d'un sacerdot	Le récit de l'oiseau se poursuit Souvenirs et préoccupations d'un prêtre	The bird's story continues The thoughts and preoccupations of a priest	Continua il racconto dell'uccello Ricordi e preoccupazioni di un sacerdote
IV	Relato de las ardillas Cómo reconocimos a Daniel. Las chicas de los pasteles	Relat dels esquirolos Com vam reconèixer Daniel. Les noies dels pastissos	Récit des écureuils Comment nous reconnûmes Daniel. Les filles aux gâteaux	The squirrel's story How we recognised Daniel. The girls with the cakes	Racconto degli scoiattoli Come riconoscemmo Daniel. La ragazza dei dolci
V VI	El pájaro reanuda su relato Vida de Paulo. Conversación con Carmen. El amor de Teresa	L'ocell continua el seu relat Vida de Paulo. Conversa amb Carmen. L'amor de Teresa	L'oiseau reprend son récit Vie de Paulo. Conversation avec Carmen. L'amour de Teresa	The bird takes up the story again Paulo's life. A conversation with Carmen. Teresa's love	L'uccello riprende il suo racconto Vita di Paulo. Conversazione con Carmen. L'amore di Teresa
VII	Relato de la estrella Charla informal entre dos amigas	Relat de l'estel Xerrada informal entre dues amigues	Récit de l'étoile Bavardage informel entre deux amies	The star's story An informal chat between two girls	Racconto della stella Chiacchiera informale tra due amiche

VIII	Relato de la serpiente Las palabras que traía el agua	Relat de la serp Les paraules que duia l'aigua	Récit du serpent Les mots charriés par l'eau	The snake's story The words brought by the water	Racconto del serpente Le parole portate dall'acqua
IX	El pájaro reanuda su relato Una conversación seria. Discusión en el taller de costura	L'ocell continua el seu relat Una conversa seriosa. Discussió al taller de costura	L'oiseau reprend son récit Une conversation sérieuse. Discussion dans l'atelier de couture	The bird takes up the story again A serious conversation. An argument at the sewing class	L'uccello riprende il racconto Una conversazione storia Discussione nel laboratorio di cucito
X	La serpiente reanuda su relato Preparativos para la fiesta	La serp continua el seu relat Preparatius per a la festa	Le serpent reprend son récit Préparatifs de la fête	The snake takes up the story again Preparations for the fiesta	Il serpente riprende il racconto Preparativi per la festa
XI	Prosigue el relato de la serpiente La carrera de cintas	Continua el relat de la serp La cursa de cintes	Le récit du serpent se poursuit La course aux rubans	The snake's story continues The ribbon race	Prosigue il racconto del serpente La corsa dei nastri
XII	Relato de la oca salvaje El viaje final	Relat de l'oca salvatge El viatge final	Récit de l'oie sauvage Le voyage final	The wild goose's story The final journey	Racconto dell'oca selvatica Il viaggio finale

Makrostrukturaz ari garelarik, gogora dezagun *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, *Sugeak txoriari begiratzen dionean* eta *Bi anai* narrazioak liburu bakar batean bildurik argitaratu direla gaztelaniaz, katalanez eta italieraz. Gaztelaniaz eta katalanez, narrazioak aparte ere argitaratu ziren aurretik, baina italieraz hirurak batera soilik argitaratu dira. Bai gaztelaniaz eta baita italieraz ere, narrazioen ordenak euskaraz argitaratu ziren kronologia bera mantentzen du. Katalanez, berriz, *Contes d'Obaba* liburuan, ordena aldatu egin da: *Bi anai* da liburuko lehenengo testua eta jarraian datoz *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* eta *Sugeak txoriari begiratzen dionean*.

### 9-3 Taula. *Historias de Obaba*-ren egitura

Gazt	Kat	It
<i>Historias de Obaba</i>	<i>Contes d'Obaba</i>	<i>Storie di Obaba</i>
- Dos letters	- Dos germans	- Due letters
- Cuando una serpiente...	- Vaig rebre dues letters en molt poc temps	- Quando un serpente...
- Dos hermanos	- Quan la serp mira l'ocell	- Due fratelli

Horrenbestez, orain arte aztertu ditugun hiru liburuak argitaratzeko modu oso ezberdinak topatu ditugu. Euskaraz, hiru kontakizunak banaka argitaratu ziren. Gaztelaniaz, *Obabakoak* eleberriaren ondoren BL eta STX elkarrekin argitaratu ziren. 1995ean, berriz, BA bakarrik argitaratu zen. Bi urte beranduago, 1997an, hiru kontakizunak elkarrekin argitaratu ziren *Historias de Obaba* izenburupean.

Katalanez ere antzeko bidea jarraitu dute lehen bi kontakizunek; BL eta STX batera argitaratu ziren 1990ean. BA, berriz, ez da inoiz bakarrik argitaratu. Hiru narrazioak biltzen dituen *Contes d'Obaba* 2001ean argitaratu zen. Liburu horretan ageri diren BL eta STXen itzulpenak ez dira lehenengo liburukoaren berdinak, hau da, bi kontakizun horien bi itzulpen egin ziren. Lehenengoak Marta Hernándezenak dira, eta bigarrenak, Pau Joan Hernándezenak. Esan beharra dago, ipuinen izenburuak ere ezberdin agertzen direla bi liburuetan: Marta Hernándezen itzulpenean, gaztelaniazkoaren antzera, izenburu laburrak agertzen diren bitartean (*Dues letters* eta *Quan una serp...*) Pau Joan Hernándezenak euskarazkoen egiturari jarraitzen die (*Vaig rebre dues letters en molt poc temps* eta *Quan la serp mira l'ocell*). Kasu berezia ematen du honek eta datu gehiago bilatu beharko dugu testu mailan itzulpena nondik egin den argitzeko.

Galegoz, lehenengo bi narrazioak bakarrik argitaratu dira eta bakoitza bere aldetik. Beraz, gainerako hizkuntzekin alderaturik, modu ezberdinean argitaratu dira, gehientsuenetan batera argitaratu baitira.

Frantsesez, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* kontakizuna *Un cheveu sur la langue* liburuaren baitan argitaratu zen, Atxagaren beste hainbat narraziorekin batera. *Bi anai*-ren itzulpena biltzen duen liburua, berriz, 1996an agertu zen, gaztelaniazko bertsioaren oso segidan.

Ingelese, *Bi anai*-ren itzulpena 2001. urtean argitaratu zen, bera bakarrik, gaztelaniazkoa argitaratu eta 6 urtera. *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* eta *Sugeak txoriari begiratzen dionean* kontakizunen itzulpenak elkarrekin argitaratu ziren, 2009an, euskal lanak argitaratzen dituen bilduma baten baitan. Azken kontakizunaren itzulpen argitaragabea ere aurkitu dugu, bestalde.

Italieraz hiru kontakizunak *Storie di Obaba* izeneko liburuan argitaratu ziren, 2002an, gaztelaniazko *Historias de Obaba* liburuaren egitura bera mantenduz.

#### 9-4 Taula. BL, STX eta BA argitaratze moduak

Eus	Gazt	Kat	Gal	fr	Ing	it
BL			<i>Dues letters</i>	Deux letters (dentro del libro <i>Un cheveu sur la langue</i> )		

STX		<i>Cando a serpe mira o paxaro</i>	(When the snake stares at the bird)
BA	<i>Dos hermanos</i>		<i>Deux frères</i> / <i>Two brothers</i>
BL, STX	<i>Dos letters - Dos letters - Cuando una serpiente...</i>	<i>Dues letters - Dues letters - Quan una serp...</i>	<i>Two Basque Stories - Two Letters All at Once - When a Snake Stares at a Bird</i>
BL, STX, BA	<i>Historias de Obaba - Dos letters - Cuando una serpiente - Dos hermanos</i>	<i>Contes d'Obaba - Dos germans - Vaig rebre dues letters en molt poc temps - Quan la serp mira l'ocell</i>	<i>Storie di Obaba - Due letters - Quando un serpente... - Due fratelli</i>

Taula horretan ikusten denaren arabera, argitalpen moduak hizkuntza batzuetan argi erakusten du gaztelaniazko bertsioak egin diola bide itzulpenari, italieraren kasuan *Storie di Obaba*-n, edo frantsesezko zein ingelesezko *Bi anai*-ren itzulpenetan.

#### 9.2.4 Obabakoak (1988)

Liburua ipuin laburren bilduma bat da. Guztira, 26 ipuin agertzen dira bi ataletan banaturik; lehenengoan, elkarren artean inongo loturarik agertzen ez duten 6 kontakizun agertzen dira, eta “Azken hitzaren bila” izenburua daraman bigarren atalean, berriz, 20 ipuin biltzen dira. Atal horretako ipuinen izenburu batzuk letra etzanez agertzen dira, eta besteak, letra arruntez. Aurkibidearen amaieran, idazleak ohar bat gaineratzen du: “liburu honetako lanak edozein ordenetan irakur daitezke. Halere, hemengo berberari jarraitzea komeni da izena letra makurtuaz idatzita daukatenetan” (Atxaga, 1988: 5). Beraz, nahiz eta ipuin batzuk ez izan inongo zerikusirik elkarren artean, badira hurrenkera bat jarraitzen duten beste batzuk. Guztiarekin ere, “Azken hitzaren bila” ataleko kontakizunen izenburuen lehen hizkiek alfabetoaren hurrenkera jarraitzen dute, Atik hasi eta Zra arte.

Gainontzeko bertsio guztietan euskarazkoan baino ipuin bat gutxiago agertzen da; 25 guztira. Guztietan ere, lehen ataleko “Jose Francisco: Obabako erretoretxean azaldutako bigarren aitortza” kontakizuna galdu da.

Euskarazko ipuinak bi ataletan banaturik zeuden, eta itzulpenetan hiru ataletan ematen dira. Lehen ataleko kontakizunak “Infancias” izenburuaren barruan bildu dira gaztelaniaz. Bestalde, lehen ataleko azken kontakizuna (“Hamaika hitz Villamedianako herriaren ohoretan eta bat gehiago”) aparteko atal modura, bigarren atal modura, agertzen da. Aipatzekoa da izenburu honek jasan duen eraldaketa: “Nueve palabras en honor al pueblo de Villamediana”. Euskarazko bigarren ataleko ipuinak bere horretan mantendu dira itzulpenean, baina hirugarren atalean. Euskarazko testuak kontakizunak irakurtzeko hurrenkeraren inguruan ematen zuen gomendioa desagertu egin da, eta kontakizunen izenburuak ez dira letra etzan eta letra arruntetan bereizten, guztiak ere modu berean idatzirik ageri dira. Bestalde, “Azken hitzaren bila” ataleko ipuinek ez dute alfabetoaren ordena jarraitzen inolako xede hizkuntzatan.

Ipuinen ordena ere aldatu egin da itzulpenetan. Lehenengo ataleko kontakizunen hurrenkera ez da berdina jatorrizkoan eta itzulpenetan. Euskaraz laugarren zegoen ipuina (“Esteban Werfell”) lehenengo izatera pasatu da itzulpenetan. Bigarren ipuina zena (“Jose Francisco: Obabako erretoretxean azaldutako bigarren aitortza”) desagertu egin da. Atxagak berak honakoa diosku kontakizun hori kendu izanaz: “Hurbilegi nuen; hitz bakoitza konotazio itzulezinez josia dago; nik normalean tarte bat, distantzia bat markatzen dut, eta pertsonaiak bere kasa mintzo dira... Baina hor... Nik ez baitakit nola izan litezkeen erregistro horiek erdaraz...” (Garzia, 1990: 14). Beraz, ipuin hori ez itzultzearen erabakia pertsonaiekiko zuen lotura estuegian oinarritzen da. Itzulezintasuna baino gaztelerazko bertsioa goitik beheraino berak kontrolatu nahi izanak ere eragin zuen erabaki horretan (Garzia, 1990: 14).

Autoitzulpenaz ari delarik, ipuinaren desagerpenaren inguruan Lopez Gasenik xede irakurlea du arrazoi nagusitzat:

(...) Bernardo Atxagak *Obabakoak* liburuaren gaztelaniazko bertsioa argitaratu zuenean ipuin bat faltan egoteak galderak eragin zituen irakurleen baitan. Zergatik kendu ote zuen? Garbi dago, autoitzultzailearen ikuspegitik, oso bestelako irakurleria baten aurrean agertu behar zela eta horrek beste planteamendu bat eskatzen zuela (Lopez Gaseni, 2005: 46).

Lehenengo ataleko gainontzeko ipuinak hurrenkera berean agertzen dira gaztelaniaz ere. Lehen atal horretako ipuinen ordena-aldaketaren inguruan eginiko ondorengo hausnarketa interesgarria izan daiteke, aldaketaren arrazoiak zein izan diren jakiteko:

Las variantes que se dan en esta primera parte revelan una gran importancia semántica. Además de la supresión de uno de los relatos, se verifica un nuevo orden respecto al original. ¿Qué importancia tienen estos cambios y qué sentido guardan dichas modificaciones? Ambas composiciones, tanto la euskérica como la castellana, refuerzan el

sentido y función de un hecho de escritura orientado a los destinatarios reales de la novela. Este hecho de escritura parece, por tanto, relevante dentro del engranaje semántico de la obra. La diferencia entre ambos relatos es que la historia de Lizardi concreta un suceso de ficción centrado en el país y costumbre vascas, mientras la historia de Esteban Werfell, aunque su acción principal discurre en Obaba, proclama un sentido más universal al proyectar una ambientación germánica en el entramado geográfico de Obaba. Cabe afirmar que la historia de Lizardi en consonancia con el origen del personaje y con la lengua del mismo potencia la dimensión euskérica del relato, mientras que la historia de Esteban Werfell en relación con el sentido del tema y con la acción del personaje reafirma la dimensión foránea de la novela. Por tanto, estas variaciones manifiestan por parte del autor una voluntad decidida de adecuación narrativa entre los lectores reales de la novela y la lengua empleada tanto en la emisión como en la recepción (Ascunce, 2000: 27-28).

Gaztelaniazko bertsioak “Infancias” izena jaso izanaz ondorengo adierazten digu Ascunce:

En la versión española se rompe con la idea dominante en el original y se impone como denominador común la unidad de personaje, ya que todos los relatos de una manera u otra están vistos y planteados desde la perspectiva de unos ojos infantiles o es la infancia la protagonista de los mismos, razón de adecuación con el título de esta primera parte: “Infancias” (Ascunce, 2000: 28).

Euskarazkoan lehenengo ataleko azken ipuinari (bigarren ataleko ipuin bilakatu denari) itzulpenetan izenburua aldatu egin zaio, aurrez esan dugun moduan. “Hamaika hitz Villamedianako herriaren ohoretan eta bat gehiago” izenburutik “Nueve palabras en honor al pueblo de Villamediana” izatera pasatu da. Aldaketa honi buruzkoa da ondorengo Ascunceren hausnarketa:

No sólo se excluyen dos relatos del original euskérico, en concreto las narraciones número cinco y siete, para adecuarlo al número nueve de la versión castellana, sino que tal modificación responde también a razones de sentido semántico. En euskera, hamaika significa, además del número once, cantidad indefinida con sentido de ilimitación, algo semejante al “mil y uno” español. Desde este punto de vista, la versión euskérica hace relación al principio de totalidad de la narración. Como dice el texto: “Hamaika hitz eta bat gehiagotan erabakiko dut herri hartan pasa nuen bolada luzea”. Por su parte, nueve en castellano implica idea de perfección o exactitud, reforzando el sentido de adecuación y acabamiento. En este sentido, parece que la versión castellana se adecúa mejor con la idea de precisión que se expone en el relato introductorio, cuando el narrador propone que todo relato debe responder a las exigencias de la propia narración. Con la historia de los locos, se defiende el término-idea de lo justo y de lo perfecto. Las variantes, de esta manera, responden, dentro de un similar espacio

semántico, a un claro juego de adaptaciones entre las diferentes lenguas propias de los distintos destinatarios o lectores (Ascunce, 2000: 29).

“Azken hitzaren bila” atalean sailkaturiko kontakizunek hurrenkera bera jarraitzen dute. Ez dugu alderik hauteman euskaratik beste hizkuntzetara. Atal horretako ipuinen izenburuei dagokienez, ipuinaren zentzua gehiegi aldatzen ez duten hainbat moldaketa txiki identifikatu ditugu; besteak beste, “Aspaldi, artean gazte eta berde nintzela” “Jóvenes y verdes” bihurtu da, laburtzeaz gain, lehenengo pertsona desagertu eta pluralera pasatu da; “Margarete, Heinrich” izenekoa “Margarete y Heinrich, gemelos” bihurtu da, pertsonaien elkarren arteko harremana zehaztu da; “Ondo plajiatzeko metodoaren azalpen laburra eta adibide bat” izena duen ipuina “Método para plagiar” izenburura laburtu da; “Zuzia iratxekirik dagoenean bizi da” ipuina “La antorcha” izatera pasatu da eta esaldia hitz bakar batez laburtuz esanahia ez da euskarazkoa bezain argigarria. Bestalde, eraldaketa nabarmenak ere topatu ditugu: “Cocteauk” izeneko ipuinak “Acerca de los cuentos” izenburua jaso du, eta “Eskuarekin agur egiten zigun norbaik” kontakizunak “Mister Smith”.

Paragrafo kopuruari erreparatuz gero aldeak ez dira oso nabarmenak kasu gehienetan. Euskarazkoan 543 paragrafo<sup>67</sup> agertzen dira eta xede hizkuntzetan 550 eta 570 artean. Frantsesez, ordea, kopuru hori asko hazi da eta guztira 613 paragrafo zenbatu ditugu.

Beraz, itzulpenetan ageri diren moldaketa guztiak gaztelaniarako autoitzulpenean eginak izan dira. Ondorioz, testu hori oinarri hartu duten itzulpenetan mantendu egin dira moldaketa horiek, eta ez dugu aipatzeko moduko eraldaketarik somatu gainerako xede hizkuntzetan, frantsesezko paragrafo kopurua kenduta. Gaztelaniazkoan gehitutako Ibon Sarasolaren hitzaurrea katalanezko testuan (eta corpusetik kanpo geratutako beste hainbat hizkuntzatan) ere ageri da, eta bukaeran Bernardo Atxagak gehituriko autobiografia ere corpusean jaso ditugun itzulpen guztietan ere ageri da. Ingelesezko eta italierako testuetan, berriz, hitzaurre modura euskarari buruz hitz egiten duen autorearen poema bat dator.

---

<sup>67</sup> Aipatu paragrafo kopurua corpusean bilduriko testu zatiari besterik ez dagokio, hots, liburuko hiru kapituluri.



## 9-5 Taula. OBB egitura

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	Ing	Ale	It
	A modo de introducción a la literatura vasca	A manera de introducción a la literatura vasca			Prologue (The author speaks of his language, <i>eusker</i> a)		Prologo (L'autore parla della sua lingua, l' <i>eusker</i> a)
	INFANCIAS	INFANTESES	INFANCIAS	ENFANCES	CHILDHOODS	KINDHEITEN	INFANZIE
Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena	Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell
Jose Francisco: Obabako erretoretxean azaldutako bigarren aitortza	--	--	--	--	--	--	--
Post tenebras spero lucem	Exposición de la carta del canónigo Lizardi	Exposición de la carta del canonge Lizardi	Exposición da carta do cóengo Lizardi	Exposition de la lettre du chanoine Lizardi	An exposition of Canon Lizardi's letter	Über Kanonikus Lizardis Brief	Lettera del canonico Lizardi
Esteban Werfell	Post tenebras spero lucem	Post tenebras spero lucem	Post tenebras spero lucem	Post tenebras spero lucem	Post tenebras spero lucem	Post tenebras spero lucem	Post tenebras spero lucem
Gauero aterako nintzateke paseatzera I.Katharina-ren azalpena	Saldria a pasear todas las noches I.Declaración de Katharina	Sortiria a passear cada nit todas as noites I.Declaració de Katharina	Sairía a pasear todas as noites I.Declaración de Katharina	J'irais bien me promener tous les soirs I.Déclaration de Katharina	If I could, I'd go out for a stroll every night I.Katharina's statement	Ich ginge jeden Abend spazieren I.Katharina's statement	Me ne andre ia passeggio ogni notte I.Dichiarazione di Katharina

Gauero aterako nintzateke paseatzera II.-Marie-ren azalpena	Saldria a pasear todas las noches II:Declaración de Marie	Sortiria a passejar cada nit II.Declaració de Marie	Sairía a pasear todas as noites II.Declaración de Marie	J'irais bien me promener tous les soirs II.Déclaration de Marie	If I could, I'd go out for a stroll every night II.Marie's statement	II. Dichiarazione di Marie
Hamaika hitz Villamedianako herriaren ohoretan eta bat gehiago	NUEVE PALABRAS EN HONOR AL PUEBLO DE VILLAMEDIANA	NOU PARAULES EN HONOR DEL POBLE DE VILLAMEDIANA	NOVE PALABRAS EN HONRA DA VILA DE VILLAMEDIANA	NEUF MOTS EN L'HONNEUR DU VILLAGE DE VILLAMEDIANA	NINE WORDS IN HONOUR OF THE VILLAGE OF VILLAMEDIANA	NOVE PAROLE IN ONORE DEL PAESE DI VILLAMEDIANA
					Das Erinnerungsverm ögen Die erste Erinnerung Die zweite Erinnerung Die dritte Erinnerung Die vierte Erinnerung Die fünfte Erinnerung Die sechste Erinnerung Die siebte Erinnerung Die achte Erinnerung Die neunte Erinnerung	
AZKEN HITZAREN BILA	EN BUSCA DE LA ÚLTIMA PALABRA	A LA RECERCA DE L'ÚLTIMA PARAULA	DEÁ BUSCA DA DERRADEIRA PALABRA	A LA RECHERCHE DU DERNIER MOT	IN SEARCH OF THE LAST WORD	IN CERCA DELL'ULTIMA PAROLA



Margarete, Heinrich	Margarete y Heinrich, gemelos	Margarete i Heinrich, bessons	Margarete e Heinrich, xemeigos	Margarete et Heinrich, jumeaux	Margarete und Heinrich, zwillinge	Martarete e Heinrich, gemelli
Ni, Jean Baptiste Hargous	Yo, Jean Baptiste Hargous	Jo, Jean Baptiste Hargous	Eu, Jean Baptiste Hargous	Moi, Jean - Baptiste Hargous	Ich, Jean-Baptiste Hargous	Io, Jean-Baptiste Hargous
Ondo metodoaren azalpen laburra eta adibide bat	Método para plagiar	Mètode per plagiar	Método para plaxiar	Méthode pour plagier	Die Kunst des Plagiats	Metodo per plagiare
Pitzadura bat elur izoztuan	Una grieta en la nieve helada	Una esquerda a la neu glaçada	Unha fenda na neve xeadá	Une crevasse dans la neige glacée	In der Gletscherspalte	Un crepaccio nella neve gelata
Rhineko ardo bat hartuz	Un vino del Rhin	Un vi del Rhin	Un viño do Rhin	Un vin du Rhin	Ein Kühler Rheinwein	Un vino del Reno
Samuel Telleria Uribe	Samuel Telleria Uribe	Samuel Telleria Uribe	Samuel Telleria Uribe	Samuel Telleria Uribe	Samuel Telleria Uribe	Samuel Telleria Uribe
Wie Lie Deshang	Wie Lie Deshang	Wie Lie Deshang	Wie Lie Deshang	Wie Lie Deshang	Wie Lie Deshang	Wie Lie Deshang
X eta Y	X e Y	X i Y	X e Y	X et Y	X... Y...	X e Y
Zuzia iratxekirik dagoenean bizi da	La antorcha	La torxa	O facho	Le flambeau	Die Fackel	La fiaccola
A modo de autobiografia	A manera d'autobiografia	A xeito do autobiografia	EN GUISE D'AUTOBIOGRAP HIE	By way of an autobiograph	Die Symbolik des Gänsespiels. Eine autobiographie Art Biographie	

### **9.2.5 Behi euskaldun baten memoriak (1991)**

Egiturari dagokionez, gazteentzako eleberri honek bederatzi kapitulu ditu, eta bakoitzak goiburu bat darama, bai jatorrizkoan eta baita itzulpenetan ere. Moldez eta esanahiz, antzekoak dira bertsiio guztiak, eta ez da inongo aldaketarik izan kapitulu kopuruari edo ordenari dagokienez.

Paragrafo kopuruari dagokionez, hemen ere aldaketa nabarmenenak frantsesez topatu ditugu, kopurua askoz ere handiagoa baita (1.133) gainerakoetan baino. Euskaraz 979 paragrafo ditugu eta gaztelaniaz, katalanez, galegoz eta italieraz kopuru hori apur bat igo den bitartean (988-994), alemanez jaitsi egin da (965).

Euskarazko testuan ez da irudirik ageri, ezta gaztelaniazko, galegozko, alemanezko eta italierazko liburuetan ere. Katalanezko testuan, Arnal Ballesterren zuri-beltzezko ilustrazioak ageri dira testuan txertaturik.

Frantsesezko argitalpenean txertatzen diren koloretako irudiak Roland Sabatierrenak dira. Bestalde, liburuaren amaieran, eleberriaren atzetik, Bernardo Atxagari eginiko elkarrizketa bat eta ilustratzailearen zenbait azalpen ere badatoz.

## 9-6 Taula. BEBM egitura

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	It	Ale
Lehen kapitulua. Nire barruko ahotsaren agindua, edo nola hartu nuen behi memoriak idazteko erabakia. Elurte baten oroitzapena	Capítulo primero El mandato de mi voz interior, o cómo tomé la decisión de escribir estas memorias vacunas. Recordo de una nevada	1 L'ordre de la meva veu interior, o com vaig prendre la decisió d'escriure aquestes memòries de vaca. Record d'una nevada	Capítulo primero O mandato da miña voz interior, ou cómovoix interieure, tomei a decisión de escribir estas memorias vacúas. Lembranza dunha nevarada	Chapitre premier Ce que m'ordonne ma m'ordonne ma intérieur, ou cómovoix interieure, comment j'ai pris la decision d'ecrire ces memoirs d'une vache. Souvenirs d'une tempête de neige	1. Il dettato della mia voce interiore, ovvero come presi la decisione di scrivere queste memorie vaccine. Ricordo di una nevicata	Erstes Kapitel Der Befehl meiner inneren Stimme, oder wie ich den Entschluss fasste, diese Kuh-Memoiren zu schreiben. Erinnerung an ein Schneetreiben
Bigarren kapitulua Zergatik naizen nire jaiotxe Balantzategira itzultzen. Pauline Bernadettek esaten dizkidanak. Nire lehen golpea, jaiotza	Capítulo segundo Por qué no regreso a casa natal. Lo que me cuenta Pauline Bernadette. El primer disgusto, el mi nacimiento	2 Per què no torno a Balantzategui, la meva casa natal. El que m'explica Pauline Bernadette. El primer disgust, el meu naixement	Capítulo segundo Por qué non regreso a Balantzategui, a miña casa natal. O que me conta Pauline Bernadette. O primeiro disgusto, o meu nacemento	Chapitre deux Pourquoi ne suis-je pas revenue à Balantzategui, ma maison natale? Ce que me raconte Pauline Bernadette. Ma première contrariété, autrement dit ma naissance	2. Perché non ritorno a Balantzategui, la mia casa natale. Ciò che mi racconta Pauline Bernadette. La prima delusione, la mia nascita	Zweites Kapitel Warum ich nicht zu meinem Geburtshaus Balantzategi zurückkehre. Was mir Pauline Bernadette erzählt. Mein erster Rückschlag: meine Geburt

Hirugarren kapitulua	Capítulo tercero	3	Ulleres Verdes	i	Capítulo terceiro	Chapitre trois	3.	Occhiali Verdi	Drittes Kapitel
Antiaju Berde eta bere laguntzaileak.	Gafas Verdes y sus dos subordinados. Los cuentos de la torre de Babel.	els seus subordinats. Els contes de la torre de Babel.	Lentes Verdes e os seus dous subordinados. Os acolytes. Les contos da torre de Babel.	e	Lentes Verdes e os seus dous subordinados. Os acolytes. Les contos da torre de Babel.	Lunettes Vertes et ses deux acolytes. Les histoires de la tour de Babel.	e	i suoi tirapièdi. La storia della torre di Babele.	Grünbrille und seine Gehilfen. Die Geschichte vom Turmbau zu Babel. Eine Kuh namens La Vache qui Rit rettet mich und untrrichtet mich über den Krieg, der vor kurzer Zeit zu Ende gegangen ist
Babel dorreaten kontuak. La Vache qui Rit izeneko behiak salbatu egiten nau, eta gerra bukatu berriaren albiste ematen dit gero	Una vaca anomenada La Vache qui Rit em salva la vida i m'informa de la guerra que acaba de terminar	Una vaca anomenada La Vache qui Rit em salva la vida i després m'informa de la guerra que ha acabat no fa gaire	Una vaca anomenada La Vache qui Rit em salva la vida i després m'informa de la guerra que ha acabat no fa gaire		Una vaca chamada La Vache qui Rit salvame a vida e despois m'informa da guerra que acaba de rematar	La Une vache nomée La Vache qui Rit me sauve la vie et m'apprend sur la guerre qui vient de se terminer		Una mucca chiamata La Vache qui Rit mi salva la pelle e poi mi informa della guerra appena finita	
Laugarren kapitulua	Capítulo cuarto	4	La meva dolça	4.	Capítulo cuarto	Chapitre Quatre	4.	La mia dolce	Viertes Kapitel
Nire Balantzategiko bizimodu ezta eta horren ondorio txarrak.	Mi dulce vida en Balanzategui y sus malas consecuencias. La personalidad de Genoveva.	Balanzategui i les seves males conseqüències. La personalitat de Genoveva.	A miña dulce vida en Balanzategui e asses fâcheuses consecuencias. A La personalité de Genoveva. Un banquet en Dannos un banquet a les vacas negras. Lo que va passar la nit del banquet		A miña dulce vida en Balanzategui e asses fâcheuses consecuencias. A La personalité de Genoveva. Un banquet en l'honneur des vaches noires. Ce que se passa ce soir-là	Mon doux séjour à Balanzategui et ses cattive consequences. La personnalité de Genoveffa. Preparano un banchetto per l'onneur des vaches noires. Ce		Mein Dolce Vita auf Balantzategi und dessen unangenehme Folgen. Der Charakter Genovevas. Ein Bankett für uns schwarze Kühe. Ein Zwischenfall in einer Bankettnacht	
Genovevaren koloreko behioi banketea ematen digute. Bankete gauean gertatu zena	Nos dan un banquete a las vacas negras. Lo que sucedió la noche del banquete	Ens donen un banquet a les vacas negres. El que va passar la nit del banquet	El banquete ás vacas negras. O que sucedeu a noite do banquete		Xenoveva. Dannos un banquet en l'honneur des vaches noires. Ce que se passa ce soir-là	banquet en l'honneur des vaches noires. Ce		Genovevas. Ein Bankett für uns schwarze Kühe. Ein Zwischenfall in einer Bankettnacht	
Boskarren kapitulua	Capítulo quinto	5	Abandono la	5.	Capítulo quinto	Chapitre cinq	5.	Lascio la	Fünftes Kapitel
Behi makalen konpainia uzten dut, eta horrek desertura eramaten nau.	Abandono la compañía de las vacas tontas, y eso me lleva al desierto. La camioneta	companyia de les vaques estúpides, i això em porta al desert. La camioneta	Abandono la compañía de les vacas parvas, e iso lévame ó deserto. A camioneta		Abandono la compañía das vacas parvas, e iso lévame ó deserto. A camioneta	Je renonce à la compagnie des vaches stupides, ce qui me mène dans le désert. Le Chevrolet		Lascio la compagnia delle mucche stupide e mi ritrovo nel deserto. Il camioncino Chevrolet porta wüste. Der	

Chevrolet	Chevrolet trae	Chevrolet duu	Chevrolet trae	apporte de plus	ancora dell'altra	Chevrolet-
kamioiak gero	cada vez más	cada vegada més	cada vez más	en plus	biada. Scopro	Lastwagen bringt
eta pentsu	pienso. Descubro	pinso. Descubro	penso. Descubro	d'aliment. Je	uno dei segreti	dimmer mehr
gehiago ekartzen	uno de los	Descobreixo un	un dos segredos	découvre l'un	Balanzategui	Trockenfütter.
du.	secretos de	dels secrets de	da Balanzategui	des secrets de	Balanzategui	Ich erfahre ein
Balantzategiko	Balanzategui	Balanzategui	Balanzategui	Balanzategui	Balanzategui	Geheimnis von
sekretu batez						Balanzategi
jabetzen naiz						
Seigarren	Capitulo sexto	6 Una llarga	Capitulo sexto	Chapitre six	6. Una lunga	Sechstes Kapitel
kapitulua	Una larga	conversa entre	Unha longa	Longue	conversazione	Ein langes
La Vache eta	entre la Vache y	<i>La Vache</i> i jo. El	La Vache e mais	conversation	con La Vache. Lo	Gespräch
bion arteko	yo. El Pesado me	pesat em parla	entre la Vache e	entre la Vache et	Scocciatore mi	zwischen La
elkarrizketa	sobre Alfa i	Omega. Comença	eu. O Pesado	moi. Le Lourdaud	parla di Alfa e	Vache und mir.
luzea. Setatsuak	habla sobre Alfa	Omega. Comença	falame sobre	me parle d'alpha	Omega. La	Dickkopf erzählt
Alfa eta Omegaz	y Omega.	a girar la Gran	Alfa e Omega.	et d'omega. La	Grande Ruota dei	mir von Alpha
hitz egiten dit.	Comienza a girar	Roda dels	Comenza a xira-	grande roue des	Segreti inizia a	und Omega. Das
Sekretuen Gurpil	la Gran Rueda de	Secrets. Passen	la Gran Roda dos	secrets	L'agguanto di	geheime
Handia jiraka	los Secretos. Se	greus	Segredos.	commence à	Occhiali Verdi	beginnt sich zu
hasten da.	producen graves	esdeveniments a	Producense	tourner. Graves	beginnt sich zu	drehen. Auf
Balantzategin	acontecimientos	Balanzategui	graves	événements à	Balanzategi	geschehen
gauza latzak	en Balanzategui		acontecimentos	Balanzategui	Balanzategi	schwer wiegende
gertatzen dira			en Balanzategui		Balanzategi	Dinge
Zazpigarren	Capitulo séptimo	7 Canvia la	Capitulo sétimo	Chapitre sept	7. Cambia la vita	Siebties Kapitel
kapitulua	Cambia la	situació de	Cambia la	Changement de	a Balanzategui.	Die Lage auf
Aldatu egiten da	situación en	Balanzategui. <i>La</i>	situación de	situation à	La Vache e io	Balanzategi hat
Balantzategiko	Balanzategui. <i>La</i>	<i>Vache</i> i jo caiem	Balanzategui. <i>La</i>	Balanzategui.	cadiamo nelle	sich geändert. La
egoera. Zenbait	Vache y yo	a les urpes d'uns	Vache e mais eu	Nous tombons, la	grinfie di alcuni	Vache und ich
mutil gazteren	caemos en las	nois. Em recordo	caemos nas	Vache et moi,	ragazzi. Il	fallen in die
atzaparretan	garras de ciertos	de Sant Eutropi	gadoupas de	entre les griffes	ricordo di una	Hände einiger
erortzen gara	La muchachos. Me	en una festa de	certos rapaces.	de certains	fa paesana mi	junger Männer.
Vache eta biok.	acuerdo de San	poble	Acórdame de	garçons. Dans	fa ripensare alla	Auf einem
Eutropio	Eutropio en una		Santo Eutropio	une fête de	storia di	Dorffest einnere



Santuarekin gogoratzen naiz herri festa batean	fiesta del pueblo	nunha festa villega	village, je me souviens de Saint Eutrope	Sant'Eutropio	ich mich an den Heiligen Eutropius
Zortzigarren kapitulua	Capítulo octavo	Capítulo oitavo	Chapitre huit	8. La Vache e io	Achtes Kapitel
Mendi mendian bizitzeari ekiten diogu La Vache eta biok, eta basurdeak	La Vache y yo comenzamos a vivir en pleno monte, y vemos a los jabaliés. Los problemas que surgen entre nosotras, o cómo nos separamos.	La Vache e mais eu comenzamos a vivir en pleno monte, e vémo- los xabaris. Os problemas que xorden entre nós, ou cómo nos separamos.	Nous nous mettons, la vache et moi, à vivre en pleine montagne, et nous aprecevons les sangliers. Les problèmes qui surgissent entre nous, ou comment nous nous séparons.	ce ne andiamo a vivere sui monti e inontriamo i cinghiali. I problemi che sorsero fra di noi, ovvero come ci separammo. Una seria conversazione con Lo Scocciatoire a proposito dell'India, del Pakistan e di altri luoghi del pianeta	La Vache und ich beginnen ein Leben in der Einsamkeit der Berge, und wir sehen dabei Wildschweine. Unsere Probleme miteinander, oder wie wir uns trennten. Ich führe ein ernstes Gespräch mit Dickkopf über Indien, Pakistan und andere Orte dieser Welt
apartatu ginen elkarrengandik. Hizketaldi serioa daukat	Mantengo una seria conversación con amb el Pesat El Pesado acerca de la India, Pakistan y otros lugares del planeta	Mantño unha seria conversación co Pesado acerca de India, o Paquistán e outros lugares do planeta	nous, ou comment nous nous séparons. Conversations avec le lourdaud au sujet de l'Inde, du Pakistan et d'autres endroits de la planete	conversazione con Lo Scocciatoire a proposito dell'India, del Pakistan e di altri luoghi del pianeta	oder wie wir uns trennten. Ich führe ein ernstes Gespräch mit Dickkopf über Indien, Pakistan und andere Orte dieser Welt
Setatsuarekin India, Pakistan eta beste lekuetaz	Pakistan y otros lugares del planeta	Paquistán e outros lugares do planeta	au sujet de l'Inde, du Pakistan et d'autres endroits de la planete	altri luoghi del pianeta	und andere Orte dieser Welt
Bederatzigarren kapitulua	Capítulo noveno	Capítulo noveno	Chapitre neuf	9. Qui finiscono	Neuntes Kapitel
Oraingoz behintzat, hementxe bukatzen dira memoriak	Aquí se acaban estas memorias, al menos de momento	Aquí acaban estas memorias, polo menos de momento	Sur ce s'achèvent ces mémoires, du moins pour le moment	queste memorie, almeno per il momento	Neuntes Kapitel Hier enden meine Memorien, wenigstens für heute

### 9.2.6 *Gizona bere bakardadean (1993)*

Testua jarraia da egitura aldetik. Ikusten denez, ez dauka egitura alde nabarmenik jatorrizkotik itzulpenetara.

Paragrafo kopuruari dagokionez, xede hizkuntza guztietan euskaraz (363) baino gehiago ageri dira, baina aldeak ez dira oso nabarmenak: katalanez (368), alemanez (371), frantsesez (373), ingelesez (375), gaztelaniaz (379) eta italieraz (380).

### 9.2.7 *Zeru horiek (1995)*

Eleberri labur honen testua jarraia da, ez dago ataletan banaturik. Hala ere, testua hiru aldiz eteten da, protagonistak dituen hiru ametsak tartekatzen. Bakoitza “Ametsa” izenburupean agertzen da, eta testuan txertaturik agertzen dira; ez dago orrialde aldaketarik.

Gaztelaniaz, “ametsak” aparteko orrietan ageri dira. Izenburuak (“El sueño”, “Segundo sueño”, “Tercer sueño”) larriz eta orri erdian ageri dira, aparteko kapituluak bailiran. “Ametsa” amaitu ondoren, narrazioaren jarraipena aparteko kapitulu modura dator, hurrengo orrian, testua orri erdian hasten delarik. Kontsultaturiko argitalpen guztietan, egitura berdina agertzen da.

Katalanezko itzulpenean, hiru “ametsak” testuan txertaturik agertzen dira; ez dago eten handiegirik, euskarazko testuaren antzera. Hiru kasuetan “El somni” agertu eta testuak aurrera darrai. “Ametsak” amaitzean ere eten txiki bat ageri da, baina ez dago orrialde aldaketarik.

Italieraz, aparteko orrietan hasten dira “ametsak”, gaztelaniaz bezala, eta goiburu banaz aurkezturik daude: “Il sogno”, “Secondo sogno” eta “Terzo sogno”. Hirurak ere aparteko kapitulu modura hasi eta amaitzen dira.

“Ametsak” aparteko kapitulu modura agertzen dira ingelesez. Testua eten eta hurrengo orrian hasten da “amets” bakoitza, eta, bukatu ondoren ere, orri aldaketa dago. Bigarren eta hirugarren “ametsak” ere zenbakiz agertzen dira: “The dream”, “Second dream”, “Third dream”.

Alemanez ere, “ametsak” aparteko atal modura aurkezten dira. Gaztelaniaz, italieraz eta ingelesez bezala, bigarren eta hirugarren “ametsak” zenbaturik agertzen dira: “Der Traum”, “Zweiter Traum”, “Der dritte Traum”.

Paragrafo kopuruari erreparatuz gero, gaztelaniaz, ingelesez, alemanez eta italieraz kopuruak euskaraz baino dezente altuagoak dira: euskaraz 940 paragrafo dauden bitartean, aipatu hizkuntzetan 1.021-1.033 artean ageri dira. Katalanez, berriz, euskaraz baino zertxobait gutxiago, 924 guztira.

Datu horiek, beraz, berretsi egiten digute gaztelaniazkoa izan dela itzulpenaren iturri italieraz, ingelesez eta alemanez.

### **9.2.8 *Xolak badu lehoien berri (1995)***

Aurrez esan bezala, honakoa haurrentzako kontakizun laburra da, eta narrazioa jarraia da euskarazkoan. Halaxe gertatzen da italierazko itzulpenean ez beste guztietan ere. Italierazko *Xola e i leoni* liburua lau kapitulutan banaturik dago. Kapituluaren banaketaz gain, maila txikiagoko etenak tartekatu dira narrazioan, eta bakoitzaren ondorengo testuko lehen hitza letra larriz hasten da. Formatu kontuak aldatu badira ere, testuak berak ez du eraldaketarik jasan italierazko itzulpenean.

Paragrafo kopurua euskaraz, gaztelaniaz, katalanez zein frantsesez oso antzerakoa da, 124 eta 129 bitartean guztietan ere. Alemanez gehixeago ageri dira (147) eta italieraz, berriz, nabarmen hazi da kopurua, 174 guztira.

Euskarazko testuan agertzen diren irudiak Mikel Valverderenak dira: koloretako 38 irudi, guztira. Italierazko itzulpenean izan ezik gainontzeko hizkuntza guztietan agertzen diren irudiak Mikel Valverderenak dira. Italierazko ilustratzailea, berriz, AntonGionata Ferrari da. Gaztelaniaz, katalanez eta alemanez irudien ordena, kopurua eta koloreak euskarazkoan bezala mantendu dira, oro har. Hala baina, frantsesezko argitalpenean irudi kopurua nabarmen gutxitu da, eta zuri-beltzean ageri dira.

Oro har, beraz, italierazkoa moldez gainerakoen aldean ezberdinagoa dela ikus dezakegu.

### **9.2.9 *Xola eta basurdeak (1996)***

Esan bezala, honakoa haurrentzako kontakizun laburra da, eta narrazioa jarraia da bertan.

Paragrafo kopuruan ez da alde nabarmenik ageri jatorrizkoaren eta xede hizkuntzen artean, guztiak ere 192 eta 198 artean kokatzen dira.

Euskarazko liburuaren ilustratzailea Mikel Valverde da. Bere irudiak gaztelaniaz, katalanez, frantsesez eta alemanez mantendu egin dira. Frantsesezko edizioan, Xolaren aurreko liburuan bezala, irudi gutxiago agertzen dira, eta horiek zuri-beltzean datoz. Kasuren batean, irudia erditik moztuta ere ageri da.

Egiturari dagokionez, hortaz, ez dugu alde nabarmenagirik ere topatu, ez bada frantsesezko irudien murrizketa.

### **9.2.10 *Sara izeneko gizona (1996)***

Gazteentzako eleberri hau 7 kapitulutan banaturik dago, eta kapitulu bakoitzaren amaieran hitz-atze bat ageri da, kapituluaren agerturiko pertsonailetako batek kontakizunen inguruan pentsatzen duena adierazteko. Egiturari dagokionez, lehen begiratuan ez da aldaketa handirik ikusten jatorrizkotik itzulpenetara. Aipatzekotan, euskaraz agertzen ez den hasierako oharra eta gainerako guztietan gehitu dena aipatu beharko genuke. Beraz, horrek erakusten du beste behin ere gaztelaniak zubi lana egin duela.

Paragrafo kopuruan ez da alde nabarmenik ageri euskarazkoaren (827) eta gainerako hizkuntzen artean: gaztelaniaz (825), katalanez (830), galegoz (822), frantsesez (837) eta italieraz (826).

Jatorrizko liburuan ez da irudirik ageri testuan zehar, ez eta xede hizkuntza gehienetan ere. Marrazkiak txertatu dituen liburu bakarra katalanezkoa da, Carmen Segovia delarik ilustratzailea.

## 9-7 Taula. SIG egitura

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	It
--	Nota preliminar	Nota preliminar	Nota preliminar	Note préliminaire	Nota dell'autore
I Valdivielso tenienteak pentsatu zuena	Capítulo 1 Lo que pensó el teniente Valdivielso	1 El que va pensar el teniente Valdivielso	Capítulo I O que pensou o teniente Valdivielso	Chapitre I Ce qu'en a pensé le lieutenant Valdivielso	Capitolo I Cosa pensò il tenente Valdivielso
II Aranburuk pentsatu zuena	Capítulo 2 Lo que pensó Aranburu	2 El que va pensar l'Aranburu	Capítulo II O que pensou Aranburu	Chapitre II Ce qu'en a pensé Aranburu	Capitolo II Cosa pensò Aranburu
III Arranoak pentsatu zuena	Capítulo 3 Lo que pensó el águila	3 El que va pensar l'águila	Capítulo III O que pensou a águila	Chapitre III Ce que l'aigle a pensé	Capitolo III Cosa pensò l'aquila
IV Merino tenienteak pentsatu zuena	Capítulo 4 Lo que pensó el teniente Merino	4 El que va pensar el teniente Merino	Capítulo IV O que pensou o teniente Merino	Chapitre IV Ce qu'en pense le lieutenant Merino	Capitolo IV Cosa pensò il tenente Merino
V Carrasco sargentuak pentsatu zuena	Capítulo 5 Lo que pensó el Sargento Carrasco	5 El que va pensar el sergent Carrasco	Capítulo V O que pensou o sarxento Carrasco	Chapitre V Ce qu'a pensé le sergent Carrasco	Capitolo V Cosa pensò il sergente Carrasco
VI Valdivielso tenienteak hil ondoren pentsatu zuena	Capítulo 6 Lo que después de morir pensó el teniente Valdivielso	6 El que va pensar després de morir el teniente Vadivielso	Capítulo VI O que depois de morrer pensou o tenente Valdivielso	Chapitre VI Ce qu'en pense le lieutenant Valdivielso avant de mourir	Capitolo VI Cosa pensò il tenente Valdivielso dopo la sua morte
VII Arenal kafeko ugazaba- andreak pentsatu zuena	Capítulo 7 Lo que pensó la dueña del Café Arenal	7 El que va pensar la mestressa del Café Arenal	Capítulo VII O que pensou a dona del Café Arenal	Chapitre VII Ce qu'en a pensé la patrone du Café Arenal	Capitolo VII Cosa pensò la padrona del Café Arenal

### **9.2.11 *Bambuloren istorio bambulotarrak. Lehen urratsak (1998)***

Haurrentzako liburu hau egitura aldetik ez da guztiz jarraia. Ez dago ataletan banatuta, baina testua hainbatetan mozten da, beste hainbat testu tartekatzeke. Itzulpenetan, euskarazkoaren moduan mantendu da egitura.

Paragrafo kopuruan aldeak nabari daitezke. Euskarazkotik (620) gaztelaniazkora (635) hamabost paragrafoko aldea dago. Alemanez, 640ra iritsi da kopurua. Bestalde, katalanez zenbakia pixka bat baxuagoa da, 627; italierazko bertsioan ageri dira gutxien, berriz, 611 guztira.

Euskarazko testuaren ilustratzailea Mikel Valverde da, eta bere irudiak gaztelaniazko, katalanezko eta italierazko testuetan ere argitaratu dira. Oro har, irudi berak mantendu dira, baina italierazko argitalpenean irudi kopurua nabarmen gutxitu da. Bestalde, alemanezko liburuan ez dira jatorrizko irudiak mantendu, eta Sabine Wilharm izan da ilustratzailea kasu honetan.

## 9-8 Taula. BLU egitura

Eus	Gazt	Kat	Ale	It
Hitzaurrea, Bantuloren idazkariak Bantulori buruz idatzia	Prólogo sobre Bambulo escrito por su secretario	Pròleg sobre Bambulo escrit pel seu secretari	Erste Schritte. Bambulos Schreiber verfasst ein Vorwort über den Helden dieser Geschichte	Prologo su Bambulo scritto dal suo segretario
Bigarren hitzaurrea. Nola lortu nituen Bantuloren paper eta dokumentuak	Segundo prólogo. Cómo conseguí los papeles y documentos de Bambulo	Segon Pròleg. Com vaig aconseguir els papers i documents de Bambulo	Zweiter Prolog. Wie ich die Papiere und Unterlagen von Bambulo erhielt	Come entrai in possesso delle carte e dei documenti di Bambulo
Lehen atala. Hasieraren hasiera. Bambulo bere hiriko liburutegi batera joaten da bere etxekoekin eta ez zekien gauza bat jakiten du	Primer libro. Los primeros pasos. Bambulo visita la biblioteca de su ciudad natal y aprende algo que no sabía (algo bastante importante, por cierto)	Primer llibre. Els primers passos. Bambulo visita la biblioteca de la seva ciutat nadiua i aprèn quelcom que no sabia (quelcom prou important, per cert)	Erstes Buch. Die ersten Schritte. Bambulo stattet die Bibliothek seiner Geburtsstadt einen Besuch ab und erfährt etwas, das er noch nicht wusste (etwas sehr Wichtiges, so viel steht fest)	Primo libro. I primi passi. Bambulo visita la biblioteca della sua città natale e impara una cosa che non sapeva (una cosa piuttosto importante, senza dubbio)
Bambulok bere egunkarian idatzitakoa	Lo que escribió Bambulo en su diario íntimo	El que va escriure Bambulo en el seu diari íntim	Was Bambulo in seinem geheimen Tagebuch schrieb	Dal diario personale di Bambulo
Bambulok liburutegiko erroketaz bere egunkarian idatzitakoa	Lo que escribió Bambulo sobre su caída en la biblioteca	El que va escriure Bambulo sobre la seva caiguda a la biblioteca	Was Bambulo über seinem Sturz in der Bibliothek niederschrieb	Ciò che Bambulo scrisse sulla sua caduta in biblioteca
Pantxi Baratzuri Buruk liburu zaharrean aurkitu eta Bantulori erakutsitako izkribua	Documento que Panchi, Cabecita de ajo encontró en el libro Grandes episodios de la gran familia Bambulo. Bambuleguit	Document que en Panxi, Cabeça d'Alli, va trobar en el llibre Grans Episodis de la Gran Família Bambulo	Dokument, das Panchi Knoblauchzehe in dem Buch entdeckte. Die grossen Episoden der Familie Bambulo	Documento che Panchi Testina d'Aglio trovò nel libro Grandi Episodi della Grande Famiglia Bambulo

Pantxi Baratzuri Buruk liburu zaharrean aurkitu eta Bambulori erakutsitako izkribua	Documento que Panchi, Cabeça d'Ali, va trobar en el libre Grans episodis de la Gran familia Bambulo Bambulsson	Document que en Panchi, Cabeça d'Ali, va trobar en el libre Grans episodis de la Gran familia Bambulo grossen Familie Bambulo	Dokument, das Panchi Knoblauchzehe in dem Buch entdeckte. Die grossen Episoden der grossen Familie Bambulo	Documento che Panchi Testina d'Aglio trovò nell libro Grandi Episodi della Grande Famiglia Bambulo
Ariadnak bere egunkarian idatzitakoa	Lo que escribió Ariadna en su diario	El que va escriure l'Ariadna en el seu diari	Was Ariadna Tagebuch schrieb	Dal diario di Ariadna
Jonek bere egunkarian idatzitakoa	Lo que escribió Jon en su diario	El que va escriure en Jon en el seu diari	Was Jon in sein Tagebuch schrieb	Dal diario di Jon
Bambulok bere egunkarian idatzitakoa	Lo que escribió Bambulo en su diario	El que va escriure Bambulo en el seu diari	Was Bambulo Tagebuch schrieb	Dal diario di Bambulo
Mariak Bambulori buruz bere senarrari kontaktutakoa	Lo que María contó sobre Bambulo en una carta	El que la María va explicar sobre Bambulo en una carta	Was María in einem Brief über Bambulo erzählte	Ciò che Maria scrisse su Bambulo in una lettera
Mariak Bambuloren desagerpenaz kontaktutakoa	Lo que María contó sobre la desaparición de Bambulo	El que María va explicar sobre la desaparició de Bambulo	Was María über Bambulos Verschwunden schrieb	Ciò che Maria scrisse sulla scomparsa di Bambulo
Nik neronek desagerpenei buruz idatzi nuen	Lo que yo mismo escribí sobre desapariciones	El que jo mateix vaig escriure sobre desaparicions	Was ich selbst über das Verschwunden geschrieben habe	Ciò che io stesso scrissi sulle scomparse
Mariak bere etxeke egoerari buruz	María vuelve a describir la situación de su casa	La María torna a descriure la situació de casa seva	María beschreibt noch einmal die häusliche Situation	María torna a scrivere della situazione di casa
Bambulok Madriletik bidalitako gutuna	Carta que Bambulo envió desde Madrid	Carta que Bambulo va enviar des de Madrid	Brief, den Bambulo aus Madrid schickte	Lettera di Bambulo da Madrid
Bambulori Madrilen egindako elkarrizketa	La primera entrevista de Bambulo	La primera entrevista a Bambulo	Bambulos erstes Interview	La prima intervista di Bambulo



Bambuloren Historia Bambulotarra	Bambulistica historia de Bambulo. Prólogo	Bambulistica història de Bambulo	Bambulos wahre Lügengeschichten	Bambulistica storia di Bambulo
Bambuloren Historia Bambulotarra	Bambulistica historia de Bambulo. Capitulo Salomon	Bambulistica història de Bambulo	Bambulos wahre Lügengeschichten	Bambulistica storia di Bambulo

Liburu honetan hainbeste  
tan egindako idazkariak  
azken oharra zuzentzen diotrabajado en la confección del tomo que aquí tiene su  
irakurleari final

Nota escrita por el  
secretario que tanto ha  
del tomo que aquí tiene su aquí arriba al seu final

Nota escrita pel secretari  
que tant ha treballat en la  
confecció del volum que  
final

Schriftliche Anmerkung des Nota scritta dal segretario  
Sekretärs, der nach all der che tanto ha faticato per  
Arbeit an diesem Band la realizzazione del volume  
einen Schlusspunkt setzt che qui si conclude

### 9.2.12 *Soinujolearen semea (2003)*

*Soinujolearen semea* da Bernardo Atxagaren eleberririk luzeena. Testua bera hainbat ataletan banaturik dago. Orokorrean, alde gutxi ikus daiteke jatorrizkoaren eta itzulpenen artean egiturari dagokionez, baina honakoak dira guk identifikatu ditugunak eta Mario Santanaren “On Visible and Invisible Languages: Bernardo Atxaga’s *Soinujolearen semea* in Translation” artikuluan berretsi ditugunak.

Euskarazkoan, “Izenak” atalaren barruan “Barne eskaintza” laugarren azpiatal modura aurkezten zaigu, eta “Lubis eta beste lagunak”, bosgarren azpiatal modura. Corpuseko itzulpen guztietan, ordena hori trukatu egin da eta laugarrena bosgarren tokira pasa da, eta bosgarrena, laugarrenera. Gainera, “Barne eskaintza” atal nagusi modura ageri da jatorrizkoan ez beste hizkuntza guztietan, eta ez azpiatal modura euskarazkoan ageri den moduan.

“Ikatz koxkorra” atalaren barruan agertzen den bigarren kontakizuna, “Pirpo eta Txanberlain, hiltzaileak” izena daramana, desagertu egin da itzulpen guztietan.

“Bigarren barne eskaintza. Tximeletak” atalaren izenburua aldatu egin da gaztelaniarako itzulpenean (“La baraja”), eta gainontzeko itzulpenek gaztelaniazko izenaren zentzu bera mantendu dute.

“Euskadi askatzearen aldeko mugimendua eta Toshiro” atalaren izenburua laburrago ageri da itzulpen guztietan (“Toshiro”), eta pertsonaiaren izena soilik mantendu da.

Paragrafo kopuruari erreparatuz alde nabarmen bakarra topatu dugu: italierazko bertsioan gainerakoetan baino (163-170 artean) dezente gehiago ageri dira (223).

Bestalde, narrazioz kanpoko elementuei erreparatuz gero, eleberriaren hasieran euskaraz ez dagoen olerki bat (“Vida y muerte de las palabras”) ageri da galegoz izan ezik gainontzeko xede hizkuntzetan.

Azkenik, liburuaren amaieran esker ona adierazi die idazleak 14 pertsonari euskarazkoan, eta eskertza zerrenda hori sei pertsonatara mugatzen da liburuaren gainontzeko bertsio guztietan.

Egiturak berak erakusten digu, hortaz, gaztelania erabili dutela corpuseko gainerako hizkuntzek itzulpenerako iturri testu modura.

## 9-9 Taula. SS egitura

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	Ing	Ale	It
	Muerte y vida de las palabras	Mort i vida de les paraules	Índice ((ou cordón)	Vie et mort des mots	The Death and Life of Words	<i>Tod und Leben der Wörter</i>	Morte e vita delle parole
Hasiera	El comienzo	El començament	O comenzo	Le Début	The beginning	Der Beginn	L'inizio
Izenak	Nombres	Noms	Nomes	Prénoms	Names	Namen	Nomi
-Liz, Sara	-Liz, Sara	-Liz, Sara	-Liz, Sara	-Liz, Sara	-Liz, Sara	-Liz, Sara	-Liz, Sara
-Juan	-Juan	-Juan	-Juan	-Juan	-Juan	-Juan	-Juan
-Mary Ann	-Mary Ann	-Mary Ann	-Mary Ann	-Mary Ann	-Mary Ann	-Mary Ann	-Mary Ann
-Barne eskaintza	-Lubis y los demás	-Lubis i els altres amics	-Lubis e os demais amigos	-Lubis et les autres amis	-Lubis and other friends	-Lubis und die anderen Freunde	
-Lubis eta beste lagunak	Dedicatoria interior	Dedicatoria interior	Dedicatoria interior	Dédicace intérieure	Internal dedication	Widmung	Dedica interna
Ikatz koxkorra	Trozo de carbón	Tros de carbó	Anaco de carbón	Morceau de charbon	A piece of coal	Kohlstück	Pezzo di carbone
-Obabako lehen amerikanoa	El primer Obaba americano de Obaba	-El primer "americano" d'Obaba	O primeiro americano de Obaba	Le premier Américain d'Obaba	-Obaba's first American	<i>Der erste amerikaner in Obaba</i>	Il primo americano di Obaba

Pirpo eta Txanberlain, hiltzailak

Egur puxketa kixkalia	Madera quemada	Fusta cremada	Madeira queimada	Bois brûlé	Burnt wood	Verbranntes Holz	Legna bruciata
Bigarren bame eskaintza. Tximeletak	La baraja	-El joc de cartes	A baralla	Le jeu de cartes	-The deck of cards	<i>Das Kartenspiel</i>	Il mazzo di carte
Abuztuako egunak	Días de agosto	Dies d'agost	Días de agosto	Jours d'août	August days	Augusttage	Giorni d'agosto
Euskadi askatzearen aldeko mugimendua eta Toshiro	-Toshiro	-Toshiro	-Toshiro	-Toshiro	-Toshiro	- <i>Toshiro</i>	-Toshiro
Hiru aitopen	-Tres confesiones	-Tres confessions	-Tres confesións	-Trois confessions	-Three confessions	- <i>Drei Beichten</i>	Tre confessioni
Esker onak	AgradecimientoAgraime nts	AgradecimientoAgraime nts	AgradecimentoRemercim nts	AgradecimentoRemercim nts	Acknowledgme nts	<i>Danksagungen</i>	Ringraziamenti
LISTARIA	Index (el cordó)	Index (el cordó)	Table (le cordon)	Table (le cordon)		<i>Inhaltsverzeichnis</i> Schnur	Indice

### 9.2.13 Ondorioak

Makrostrukturari buruzko azterketa hau azterketa testualaren lehen urratsa izan da. Testuen egitura orokorra aztertuz hainbat desadostasunen berri izan dugu eta, horien bitartez, itzulpen tipologiari buruz geneukan informazioa osatu ahal izan dugu.

Oro har, makrostrukturarekin loturiko aldaketa nabarmenenak euskaratik gaztelaniara izan direla esan genezake, lerrokatze prozesuak pentsarazi digun moduan, eta gainerako hizkuntzetako liburuak erabili duten jatorrizkoari lotu zaizkiola, aldaketa handiegirik sartu gabe.

*Obabakoak* izan da egitura alde nabarmenenak erakutsi dituen liburua: kapitulu bat ezabatzeaz gain, ordena aldaketa ere bada bertan eta, beste maila batean, izenburuen moldaketa ere bai. *Soinujolearen semea* liburuan ere moldaketa eta ordena aldaketaren bat edo beste topatu dugu, baina, ez dira izan aurrekoaren adinakoak. *Bi anai* eleberri laburrari dagokionez, kapituluei izenburuak gehitu zaizkie xede testuetan eta 12 kapitulu izatetik 10 izatera igaro dira; hala ere, ez da ezabapenik egon, batura baizik. Kapitulumen banatutako gainerako hiru liburuetan (BEBM, SIG eta BLU) ez dugu nabarmentzeko moduko alderik igarri jatorrizkotik itzulpenetara. Paragrafo kopuruari dagokionez, hainbat kasutan aldaketa handiak izan dira jatorrizkotik gaztelaniazko bertsiora, batez ere, BL, BA eta ZH liburuetan.

Bestalde, BL, STX eta BAren argitalpenek alde handiak erakutsi dituzte hizkuntza bakoitzean argitaratu diren moduaren arabera, baina ez du inolako loturarik testu mailako moldaketekin. Argitalpen modu horiek nabarmendu egin dute, zenbaitetan, zein motatako itzulpena izan den: argitaratzeko modua gaztelaniazkoaren parekoa denetan, esaterako, italiarren kasuan.

Testu jarraia ageri duten liburuen kasuan, ezin izan dugu alderik identifikatu lehen begiratuan. Maila mikrotestualean ikusi beharko dira horietan izan daitezkeen aldeak.

Identifikaturiko aldeak itzulpen motaren arabera begiratzuz gero ez dugu nabarmentzeko moduko alderik topatu autoitzulpen, kolaborazio edo itzulpen alografoen artean. Horren ordez, kronologiari loturiko alderik badela pentsa daiteke lehendabizi. Hasierako liburuetan, OBB eta BAn batez ere (biak ala biak ere autoitzulpenak), aldeak nabarmenak dira. Baina, SIG ere autoitzulpena izan arren, berantiarragoa, alderik ez da ageri, ez kapitulumen egiturari dagokionik ez eta paragrafo kopuruari dagokionik ere. Bestalde, kronologiaren araua —lehenengo liburuetan alde handiagoak izatearena— ez da beti betetzen, ZH eta SS liburuetan, berantiarragoak izanagatik ere, euskarazkotik gaztelaniazko bertsiora moldaketak ageri baitira. Beraz, beste faktore batzuen araberrako moldaketak izango direla ondoriozta dezakegu eta ezin dugu arau garbirik eman itzulpen motari dagokionez, kasuan kasuko aldeak soilik identifikatu baititugu.

Gaztelania ez beste xede hizkuntzen kasuan, zeharkako itzulpenak izan daitezkeen kasuetan, ez dugu alde nabarmenik topatu gaztelaniazkoetik. Horrek esan nahi du, nahiko gertu mantendu dela itzultzailea erabili duen testuarekiko. Igarri ditugun aldeak formalak izan dira, batik bat: *Xolak badu lehoien berri* liburuaren italiarazko liburuan ageri diren etenak, ilustratzaile aldaketa, irudi kopurua gehitzea edo kentzea, aurkibidean kapituluaren mailaketari emandako itxura, etab. Beraz, orain arte genekiena baieztatu ahal izan dugu, hau da, gaztelaniarazte prozesuak gainerako hizkuntzetarako itzulpenarekin ezberdintasunak erakusten dituela.

Peritestuaren eta epitestuaren azterketen ondoren egin bezala, hurrengo urrats honetan identifikaturiko datuekin aurrez aurkeztu dugun itzulpen moten taula eguneratu dugu. Hona hemen oraindik orain erakusten duen itxura:

9-10 Taula. Itzulpen moten taula azterketa makrotestualaren ostean

	eus	gazt	kat	Gal	fr	ing	Ale	it
1	BL	ED (Bb /Auto)	ED(zh)/ Biak	Zeh	Zeh	zuz		ED(Zh)
2	STX	Bb / Auto	ED(zh)/ Biak	ED (zz)		Zuz / (zuz)		ED(Zh)
3	BA	Auto	Biak		Zeh	Zeh		ED(Zh)
4	OBB	Auto	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	ED(Zh)
5	BEBM	Bb / Kol	ED(zh)	ED(zh)	Zeh		Zuz	ED(zh)
6	GBB	Kol	Biak		Zeh	Zeh	Zeh	Zeh
7	ZH	Auto / Bb	Zuz			Zeh	Zeh	Zeh
8	XL	Auto	ED(zz)		Zeh		Zeh	ED(Zh)
9	XB	Auto	ED(zh)		Zeh		Zeh	
10	SIG	Auto	ED(zh)	ED(zh)	Zeh			ED(Zh)
11	BLU	Bb	ED				Zeh	Zeh
12	SS	Kol	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh
	Guztira	5 Auto 2 Kol 1 Bb 4 ED	2 Zeh 4 Biak 1 zuz 7 ED	3 Zeh 3 ED	9 Zeh	2 Zuz (+1 Zuz) 5 Zeh	1 Zuz 7 Zeh	4 Zeh 7 ED

Itzulpen moten inguruko taula horretan zehaztutako bat edo beste egin dugu. Batetik, BL eta STXren katalanerako lehenengo itzulpenen izenburuek duten egitura gaztelaniaren parekoa denez, hizkuntza horretatik eginak izan diren zantzuak erakusten dituzte. Gauza bera pasatzen da BEBM liburuaren katalanerako, galegorako eta italiararako itzulpenekin; nahiz eta peritestuaren jatorrizkoaren izenburua euskaraz ageri den, izenburuan “euskaldun” izenondoa kendu izanak gaztelaniazkoetik eginak izan direla pentsarazten digu. Azkenik, STXren galegorako itzulpenaren izenburuak

alderantzizkoa iradokitzen du; euskarazkoaren egituraren parekoa erakusten duenez zuzenko itzulpena dela ematen du.

**10**



# 10 azterketa mikrotestuala

---

Teleskopioaren ikuspegitik mikroskopioarenera etorrira, honako honetan alderdi mikrotestualari ekingo diogu. Atal honek bi zati nagusi izango ditu: lehenik eta behin, corpusaren deskribapen jarraia egingo dugu; bigarrenik, azterketa espezifikoak.

Deskribapen jarraia egiteko corpusaren lagin edo zati bat hautatuko dugu, eta zati hori ahalik eta heterogeneoena izan dadin, bertako laginak aleatorioki hautatuko ditugu. Euskarazko testuaren eta gainerakoen artean dauden aldean deskribapen jarraia egingo dugu horietan, eta alde nagusiak zein alorretakoak izan diren identifikatzen saiatuko gara.

Azterketa espezifikoak, berriz, corpusa bere osotasunean harturik egingo ditugu. Deskribapen jarraian lortutako ondorioetan bermatuta, testu azterketa zehatzago bat egiteko arloak definitu ditugu. Bi mailatakoak izango dira egingo ditugun azterketak: lehenengoa, maila pragmaikoan egingo dugu, eta izen bereziak aztertuko ditugu bertan; bigarrena, maila semantikoari dagokio, eta koloreen itzulpena izango dugu aztergai. Azken puntu modura, corpusak aztertzeke aurrerapauso modura, Giza++ izeneko tresna berri batekin eginiko proba aurkeztuko dugu. Proba horren bitartez, corpusak

aztertzeo tresnen inguruko hausnarketa bultzatu nahiko genuke eta informatika tresna berrien beharra azpimarratu.

## **10.1 DESKRIBAPEN JARRAIA**

Behin azterketa makrotestuala amaituta, obren testu nagusia aztertzeo garaia heldu da. Hala ere, testu azterketak ahalik eta emaitza gehien eman diezazkigun, hainbat parametroren barruan zehaztuko dugu ikerketa, eta, ondoren, corpora ahalik eta zehatzen aztertzen saiatuko gara eskura ditugun programa informatikoen laguntzaz.

Testuak digitalizatzerakoan eta lerrokatzerakoan jatorrizkoak hainbat aldaketa jasan dituztela ikusi ahal izan dugu. Eraldaketa horiek sailkatze aldera eta azterketa testualaren parametroak zehazteko asmoz, lehenik eta behin, corpuseko testu guztien %10 aztertuko dugu lagin aleatorioen bitartez. Fase horretan lortutako emaitzak garrantzitsuak izango dira azterketa testualaren bigarren fasean aztertu beharreko elementuak zeintzuk izango diren zehazte aldera.

### ***10.1.1 Laginen bidezko azterketa orokorra. Lehenengo ondorioak***

Aipatu berri dugun moduan, itzulpenen deskribapen jarraia egingo dugu honako atal honetan. Gure helburua euskarazko jatorrizkoa eta xede testuen behin betiko harremana zein den zehaztea denez, orain arteko datuak baieztatzeo edo baztertzeo, testuak esaldiz esaldi alderatuko ditugu jatorrizkotik abiatuz (nahiz eta gaztelaniazkoa bereziki kontuan izango dugun, printzipioz xede-iturri testu modura lan egiten baitu sarritan). Honela, testu guztien arteko harremanak identifikatu ahal izango ditugu. Horretarako, hiru multzo nagusitan banatuko ditugu testuen artean ikusiriko desadostasunak fase honetan: gehikuntza, kenketa eta itzulpen sortzailea. Desadostasunak sailkatzeo eraldaketa orokor modura hautatu ditugu hiru maila horiek, eta kasuan kasuko moldaketen inguruko ikuspegi zabala emango digute. Lehenengo eta behin, zer nolako moldaketak egin diren ikusi nahi dugu orokorrean; aurrerago, interesgarriak iruditzen zaizkigun moldaketetan sakonduko dugu zehazkiago.

Atal honen funtzio nagusia, beraz, bahe lana egitea izango da. Bahe lan hori egiteko, beraz, corpusetik testu masa jakin bat hartu behar dugu, batetik, corpus osoaren errepresentagarria izango dena eta, aldi berean, horrelako lan zehatz bat egiteko modukoa izango dena. Corpuseko hizkuntza guztiak eta obra guztiak bertan bilduko ditugu, emaitzak ahalik eta errealean izan daitezen.

Hainbat aukera posible aztertu ostean, jarraian azalduko duguna iruditu zaigu egokiena. Aurrez aipatu dugun moduan, bahe funtzioa izango du atal honek, eta, horretarako, sare moduko bat osatuko dugu. Sare horretan,

corpusaren %10 bilduko dugu, hau da, 150.000 hitzetik gora, gutxi gorabehera. Kopuru nahiko zabala iruditzen zaigu, gure atal honetako helburuak lortzeko.

Kopurua zehaztu ostean, testu zatiak aukeratu ditugu. Aipatu dugun moduan, corpuseko jatorrizko testu guztiak eta horien itzulpenak biltzen saiatuko gara. Horretarako, testu zati txikiak aukeratuko ditugu. Testu zati txiki horiek arbitrarioki aukeratuak izango dira, hau da, ez dugu aurretiazko irizpiderik erabiliko testu zati horiek zeintzuk izango diren erabakitzeke. Bestalde, testu zati horiek egokiak izan beharko dute azterketa jarraia egiteko, hau da, ez laburregiak ezta luzeegiak ere. Laburregiak izanez gero, azterketa ez litzateke nahi bezain sakona izango; luzeegiak izanez gero, berriz, denbora mugak tarteko, testu zati gutxiago ikertuko genituzke, eta horrek azterketa hankamotz utziko luke. Hori guztia kontuan izanik, 4.000 karaktereko testu zatiak erabiltzea erabaki dugu, aipatu arrazoiak medio, kopuru nahiko egokia iruditu baitzaigu.

Testu zatiak aukeratzeko modua ere zehaztu behar izan dugu. Aukeratuko ditugun ausazko laginetan, jatorrizkoa eta bere itzulpenak bildu behar ditugu ahalik eta emaitza aberatsenak jasotzeko. Horretarako, lehenengo eta behin, euskarazko testu masaren %10 hartuko dugu, eta testu zati horiei dagozkien itzulpenak hartuko ditugu segidan. Euskarazkoak soilik izan ditugu kontuan %10 hori zehazteko, hizkuntzaka banatu gabeko sailkapen bat egin izan bagenu, hainbat testu zati dagokion itzulpenik gabe gelditu ahal izango baitzen, edo testu beraren itzulpen guztiak jaso gabe, edo itzulpenak jatorrizkorik gabe. Hautatu dugun bidea emaitza fidagarriak lortzeko guztiz egokia dela uste dugu.

Euskarazko testuei dagozkien 4.000 karaktereko ausazko lagin horiei kasu bakoitzean dagokion testu masa gehituko diogu. Word programak eskaintzen digun hitzak zenbatzeko aukeraren bitartez zehaztu dugu testu bakoitzak duen karaktere kopurua, jarraian aurkezten dugun 10-1 Taulan ikusten den moduan. Karaktereak espazioekin aukera hautatu dugu, Word programarekin bilaketak egitea errazagoa baita datu honen bitartez espazio gabeko karaktereen bitartez baino. Guztira 1.335.631 karaktere zenbatu ditugu.

**10-1 Taula. Euskarazko corpusa zenbakitan**

	Orri kop	Hitz kop	Karakterea k (espazio gabe)	Karakterea k (espazioekin)	Paragraf	Lerroak	Esaldikop	Paragraf kop
BLeus	22	10.183	60.779	70.695	262	1.063	859	262
STXeus	12	4.776	30.424	34.977	219	579	503	219
BAeus	45	19.015	114.207	132.362	872	2.192	1.509	860
OBBeus	43	18.423	116.107	134.013	543	2.125	1.534	543
BEBMeus	72	31.755	192.344	223.005	979	3.530	3.272	979
GBBeus	44	20.143	127.227	146.955	363	2.148	1.466	363
ZHeus	59	24.429	152.510	175.907	940	2.919	2.659	940

XLeus	7	2.721	16.095	18.669	124	304	275	124
XBeus	10	4.024	24.022	27.842	192	462	416	192
SIGeus	52	21.555	137.687	158.334	827	2.556	2.280	827
BLUeus	39	16.300	100.639	116.258	620	1.903	1.932	620
SSeus	28	13.453	83.372	96.614	164	1.393	1.321	164
<b>Guztira</b>	<b>433</b>	<b>186.777</b>	<b>1.155.413</b>	<b>1.335.631</b>	<b>6.105</b>	<b>21.174</b>	<b>18.026</b>	<b>6.093</b>

Euskarazko testu masaren %10 aukeratzeko testuak kronologikoki antolatu ditugu, aurreko taula horretan agertzen diren hurrenkeran. Ondoren, ausazko laginak egiteko proportzioak kalkulatu ditugu: 40.000 karaktereko 4.000 aztertuko ditugu, lehenengo 4.000 karaktereak, zehazkiago esateko. Guztira, 33,39 lagin atera zaizkigu kalkuluen arabera eta, beraz, 34 lagin osatuko ditugu.

Jarraian dugun taula horretan ikus daiteke zein modutara zehaztu ditugun behin betiko laginak. Lehenengo eta behin, karaktereen arabera sailkapena egin dugu, lagina zein karakteretan hasiko den eta zeinetan amaituko den zehazteko. Tartean, aztertuko dugun 4.000 karaktereko testu zatia zein izango den adieraziko dugu. Ondoren, karaktere kopuru horiek testuari berari aplikatuko dizkiogu, eta, bertan ikusiko dugu, aurrez aipatu dugun hurrenkera kronologikoaren arabera, zeintzuk izango diren aukeratuko ditugun testu zatiak. Lehenengo eta behin, 40.000 karaktereko testu zatiak markatu ditugu, eta, jarraian, behin betiko ausazko laginak zeintzuk izango diren.

#### 10-2 Taula. Laginak zenbakitan

	Zenb	Zenb	Corpusa	Liburua	Liburua	Liburua	Liburua
	Hasiera	Amaiera	Corpus zatiak	Hasiera	Amaiera	Laginaren hasiera	Laginaren amaiera
1.	1	4.000	40.000	BL 1	BL 40.000	BL 1	BL 4.000
2.	40.001	44.000	80.000	BL 40.001	STX 9.305	BL 40.001	BL 44.000
3.	80.001	84.000	120.000	STX 9.306	BA 14.303	STX 9.306	STX 13.305
4.	120.001	124.000	160.000	BA 14.304	BA 54.303	BA 14.304	BA 18.303
5.	160.001	164.000	200.000	BA 54.304	BA 94.303	BA 54.304	BA 58.303
6.	200.001	204.000	240.000	BA 94.304	OBB 1.941	BA 94.304	BA 98.303
7.	240.001	244.000	280.000	OBB 1.941	OBB 41.940	OBB 1.941	OBB 5.940
8.	280.001	284.000	320.000	OBB 41.941	OBB 81.940	OBB 41.941	OBB 45.940
9.	320.001	324.000	360.000	OBB 81.941	OBB 121.940	OBB 81.941	OBB 85.940
10.	360.001	364.000	400.000	OBB 121.941	BEBM 27.928	OBB 121.941	OBB 125.940
11.	400.001	404.000	440.000	BEBM	BEBM	BEBM	BEBM

				27.929	67.928	27.929	31.928
12.	440.001	444.000	480.000	BEBM 67.929	BEBM 107.928	BEBM 67.929	BEBM 71.928
13.	480.001	484.000	520.000	BEBM 107.929	BEBM 147.928	BEBM 107.929	BEBM 111.928
14.	520.001	524.000	560.000	BEBM 147.929	BEBM 187.928	BEBM 147.929	BEBM 151.928
15.	560.001	564.000	600.000	BEBM 187.929	GBB 4.923	BEBM 187.929	BEBM 191.928
16.	600.001	604.000	640.000	GBB 4.924	GBB 44.923	GBB 4.924	GBB 8.923
17.	640.001	644.000	680.000	GBB 44.924	GBB 84.923	GBB 44.924	GBB 48.923
18.	680.001	684.000	720.000	GBB 84.924	GBB 124.923	GBB 84.924	GBB 88.923
19.	720.001	724.000	760.000	GBB 124.924	ZH 17.968	GBB 124.924	GBB 128.923
20.	760.001	764.000	800.000	ZH 17.969	ZH 57.968	ZH 17.969	ZH 21.968
21.	800.001	804.000	840.000	ZH 57.969	ZH 97.968	ZH 57.969	ZH 61.968
22.	840.001	844.000	880.000	ZH 97.969	ZH 137.968	ZH 97.969	ZH 101.968
23.	880.001	884.000	920.000	ZH 137.969	XL 2.061	ZH 137.969	ZH 141.968
24.	920.001	924.000	960.000	XL 2.062	XB 23.392	XL 2.062	XL 6.061
25.	960.001	964.000	1.000.000	XB 23.393	SIG 35.550	XB 23.393	XB 27.392
26.	1.000.001	1.004.000	1.040.000	SIG 35.551	SIG 75.550	SIG 35.551	SIG 39.550
27.	1.040.001	1.044.000	1.080.000	SIG 75.551	SIG 115.550	SIG 75.551	SIG 79.550
28.	1.080.001	1.084.000	1.120.000	SIG 115.551	SIG 155.550	SIG 115.551	SIG 119.550
29.	1.120.001	1.124.000	1.160.000	SIG 155.551	BLU 37.216	SIG 155.551	BLU 1.217
30.	1.160.001	1.164.000	1.200.000	BLU 37.217	BLU 77.216	BLU 37.217	BLU 41.217
31.	1.200.001	1.204.000	1.240.000	BLU 77.217	SS 958	BLU 77.217	BLU 81.216
32.	1.240.001	1.244.000	1.280.000	SS 959	SS 40.958	SS 959	SS 4.958
33.	1.280.001	1.284.000	1.320.000	SS 40.959	SS 80.958	SS 40.959	SS 44.958
34.	1.320.001	1.324.000	1.360.000	SS 80.959	SS 96.614	SS 80.959	SS 84.958

Atariko azterketa mikrotestualak egiteko erabiliko ditugun testu zatiak identifikatu ondoren, corpus guztitik bakandu ditugu testu horiek, eta, ondoren, adibide modura erakusten dugun laginaren luzerako testu zatiak atera zaizkigu. Jarraian adibide modura datorrena 12. laginari dagokio eta BEBM liburukoa da:

sapelaitzak berak baino dotoreago hegan egiten zekiena, eta luma urdin bizikoa.

—Zertan ari zara pentsatzen? —esan zidan La Vachek begiak zerurantz altxatzen nituela ikusiz—. Ez da inongo txoria, baizik eta Genovevaren disketako bat, piano musika, jakin nahi baduzu. Genovevak gauero ez, baina askotan entzuten ditu diskak. Goazen orain ikuilura. Ikulua etxeko salaren azpian dago, eta ikaragarri ondo aditzen da han jartzen dutena. Nahiz eta ordu hartan, munduan neraman denbora gutxiarekin, diskak zer ziren jakin ez, poz batean abiatu nintzen bere atzetik. Esaera zaharrak dioen bezala:

"Behiaren poz bakarrak, musika eta belarrak"

—Segituko dugu gaurko kontuekin, asko hitzegin beharrean gaude oraindik —xuxurlatu zidan La Vachek ikuiluan sartu aurretik.

Sartu nintzen azkenean, eta musikak hunkitu egin ninduen. Ez zen sarrera txarra izan. Azkenean Balantzategiko ikuiluan nengoen, nire etxean. Eta musika entzuteko txokorik onenean bilduta zeuden behiek agur egin zidatenean, zer moduz Mo, ongi etorria Mo, aurrera Mo, nor sentitu nintzen. Ez, behi izatea ez zen gauza gutxia.

#### LAUGARRENKAPITULUA

Nire Balantzategiko bizimodu ezta eta horren ondorio txarrak. Genovevaren nortasuna. Beltz koloreko behioi banketea ematen digute. Bankete gauean gertatu zena.

Ni heldu ondoren hamabi behi izan ginen Balantzategin, bost gorri eta zazpi beltz. Gehienak, La Vache qui Ritek aurreratu bezala, makalak ziren, egun osoa jaten edo erdi lotan pasatzen zutenetakoak, baina, alde onak ere ikusiz, atseginak ziren, behi gozo gozoak, zernahi laguntza emateko prest egoten zitzaizkidanak. Guzti guztiek, gorri zein beltzek, nire aldamenean egon nahi zuten, nirekin batera etzan, nirekin batera joan belazeetara edo erreka txokoetara. Eta bitarte guzti horretan, nire belarri jaioberri eta xamurrek hitz ederra besterik ez zuten entzuten, Mo zatoz mesedez alpapa hau probatzera, Mo jar zaitez mesedez itzal hartan. Eguna joan eta eguna etorri, beti halaxe, beti aise eta erraz, morroiez inguratuta bezala.

Agian ezti gehiegi izan zen guzti hura, ez dakit. Edo bai, badakit, dudarik gabe ezti gehiegi izan zen, eta ondorioz nagitu egin nintzen, eta ondorioz alfertu, eta ondorioz Balantzategiko teilatu babesetik aldegitako gauza ez nintzela jarri. Ikulutik atariko belazeetara eta atariko belazeetatik ikuilura, horixe zen nire ibilbide guztia. Erantsita nengoen etxe hartako ormetara: eulia ezti potearen kristalari erantsita egoten den bezalaxe, berdin berdin.

Eta burua?, esango dit norbaitek. Zer gertatzen zen zure buruarekin? Bada, bolada hari zegokionez, euliarena bezain kaskarra zela, ezertaz konturatzeko abildaderik ez zuena. Ez zen konturatzeko, kasu, La Vacheri egiten ari nintzaion mesprezioaz. Zeren, jakina, beti etxe ingumetan geldituz ez bainuen ikusi ere egiten, ez bainuekan berarekin traturik. Nik banekien non egongo zen La Vache, Antiaju Berde eta errotako hortzaundiak zaintzen alegia, eta bisita bat egin behar niola pentsatzen nuen egunero; ordea azkenean Balantzategiko lokatz ez-tian sartuta gelditzen zitzaizkidan lau hankak. Era berean, gogoratu egiten nuen biok kanposantu ttikian edukitako hizketaldia, eta gerra kontu haiekin jarraitu egin beharko genukeela esaten nion neure buruari, baina batzuetan goizegi eta besteetan beranduegi iruditzen zitzaidan arazo haietaz arduratzeko, eta hurrengo egunerako uzten nuen dena. Esaera zaharrak dioen bezala:

"Behia dabil gerotik gerora,  
sekula ez da helduko sorora"

Ez, ni ere ez nintzen errotako sorora heltzen, eta lagunik gabe gelditzeko arriskuan nengoen. Benetako laguna galtzeko arriskuan, esan nahi dut, zeren La Vache ez eta beste behiak, behi makalak, ez bainituen sekula lagun izan; adiskide, belazekide edo ganbelakide bai, baina lagun ez.

Guztiarekin, nik Balantzategin aurkitzen nuen ezta ez zuten behi makalek bakarrik egiten. Banuen beste arrazoi bat etxe inguruetan geratzeko, eta hori zen Genoveva, gerran gizona galdutako gure nagusia.

Genoveva pertsona oso serioa zen, hitz gutxikoa, berrogeitamar urte ondo beteak zituen. Gaurko

Sailkapena karaktereen arabera egin dugunez, laginen hasiera eta bukaeretan hitzak erdizka banatu dira gehientsuenetan. Kasu horietan guztietan, karaktereari zegokion hitza gehitu egin dugu azterketarako.

Hori guztia egin ostean, testu zatiak dagozkien itzulpenekin alderatzeko garaia heldu da. Horretarako Wordsmith Tools programan lerrokaturik dugun corpusera jo dugu, eta testu zatiak bertan identifikatu ditugu. Hortik aurrera, testu zati horiek alderatzeari eta bakoitzean identifikatu ditugun moldaketak sailkatzeari ekin diogu.

Atalaren hasieran esan dugun moduan, desadostasunak hiru talde nagusitan banatu ditugu: gehikuntza, kenketa eta itzulpen sortzailea. Hiru nozio horiek nahiko zabalak izan daitezke, eta estrategia konkretu ezberdinak har ditzakete beren baitan, baina nahikoak izango dira gure helburuak lortzeko. Bata zein bestearen artean egon daitezkeen mugak ere lausoak izango dira zenbait kasutan, eta, beraz, sailkapen zehatz bat egiteko muga garbiak ezartzea oso zaila iruditu zaigu.

Wordsmith Tools programan, hizkuntza bakoitza kolore batez markaturik eman dugu, hizkuntza bakoitzean dagoen testu zati bakoitza errazago ikusi ahal izateko. Word programan osatu ditugun laginetan ere, sistema bera erabiltzea egokia iruditu zaigu. Bestalde, identifikatu ditugun desadostasunak hiru kolorez azpimarraturik eman ditugu: horiz kenketak, berdez gehikuntzak eta urdinez itzulpen sortzaileak.

Hona hemen aztertutako lagin batek duen itxura. Zortzigarren laginari dagokio adibidea eta BEBM liburukoa da:

3.811	—Antiaju Berdek trampa-jarri nahi izan dio Usandizagari—azaldu nion lagunari— <b>Kanpoan dela</b> , sinestarazi nahi izan dio herrian albiste-hori zabalduz, Burgosera zihoala eta abar. Eta hasieran, bai sinestu ere Usandizagak. Baina azken unean, jabetu egin da engainuz eta oharra pasa die mendikoei. Hori da Antiaju Berdek ulertzen ez duena, nola tortu duen informazioa pasatzea. Horregatik ueste du irratia bat daukatela. □	□	□	□	
Gazt	—Gafas Verdes ha querido tender una trampa a Usandizaga—le explique <b>yo a mi vez</b> . <b>Levaba un buen rato pensando con lógica, y estaba empezando a entender cosas</b> . Difundió en el pueblo la noticia de que iba a <b>burgos</b> , y demás, y al principio Usandizaga se lo creyó. Pero en el último momento se ha dado cuenta del engaño y ha pasado a los del monte el aviso <b>de que no vengán</b> . Lo que no entiende Gafas Verdes es cómo lo hace, <b>de que sistema se valen los de Balanzategui para comunicarse</b> . Por eso <b>bram</b> que tienen una radio. □	K2, G2, G3, GZ, IS2, IS1	□	□	□
Kat	—L'Ulteres-Verdes ha volgut parar una trampa a Usandizaga—. <b>Explicámel-le</b> . Va difondre pel poble la notícia que anava a Burgos i tot això, i al principi Usandizaga s'ho va creure. Però a l'últim moment s'ha adonat de l'engany i ha passat als de la muntanya l'avis <b>de que no vengán</b> . El que no entén l'Ulteres-Verdes és com ho fa, <b>de quin sistema es valen els de Balanzategui per comunicar-se</b> . Per això creu que tenen una ràdio. □	K2, G2, G3, GZ, IS2, IS1	□	□	□
Gal	—Lentes Verdes quixolle poner unha trampa a Usandizaga—. <b>Explicámel-le</b> eu. Levaba un bo cacho a pensar <b>con lóxica, e estaba empezando a entender cosas</b> . Difundí na vila a noticia de que ía a Burgos e demais, e o primeiro Usandizaga creullo. Mais no último momento decatouse do engano e pasou ós do monte o aviso <b>de que non vengán</b> . O que non entende Lentes Verdes é cómo o fai, <b>de qué sistema se valen os de Balanzategui para comunicarse</b> . Por iso creu que teñen unha radio. □	K2, G2, G3, GZ, IS2, IS1	□	□	□
Fr	—Lunettes-Verdes a voulu tender un piège à Usandizaga, <b>je lui ai expliqué</b> . Il a fait courir dans le village le bruit qu'il allait à <b>Burgos et d'autres trucs du même genre</b> et, au début, Usandizaga est tombé dans le panneau. Mais au dernier moment il a compris l'astuce et a averti ceux de la montagne, en <b>disant de ne pas venir</b> . Ce que ne comprend pas Lunettes-Verdes, c'est comment il fait, <b>par quel système ceux de Balanzategui entrent en communication avec les autres</b> . C'est pour quoi il pense qu'ils ont une radio. □	K2, G2, G3, GZ, IS2, IS1	IS-gazt-ekiko	□	□
It	—Occhiali Verdi ha cercato di tendere un tranello a Usandizaga. <b>Io gli ho spiegato</b> . Ha fatto credere a tutti che se ne sarebbe andato a Burgos. All'inizio, ci ha creduto anche Usandizaga, ma poi dev'essersi accorto dell'inganno e, prima che fosse troppo tardi, deve aver avvisato quelli del monte. Quello che Occhiali Verdi <b>non</b> <b>capisce</b> è <b>come facciano quelli di Balanzategui a comunicare con quelli del monte</b> . È per questo che pensa che abbiano una radio. □	K2, G2, G3, GZ, IS2, IS1	□	□	□
Ale	«Grünbrille hat Usandizaga doch eine Falle gestellt», erklärte ich der <b>Braten</b> -Freundin. «Er hat im Dorf das Gerücht unter die Leute gebracht, dass er und seine Soldaten nach Burgos <b>zu einem Fest müssten</b> . Und Usandizaga ist prompt darauf eingefallen, zumindest am Anfang. Im letzten Moment hat er jedoch den <b>Braten</b> <b>gerochen</b> und die Leute vom Berg gewarnt. Wie er das allerding's geschafft hat, darüber zerbricht sich Grünbrille den Kopf. <b>Die einzige Lösung, die ihm einfällt</b> , ist die mit dem Funkgerät. □	G1, G2, IS2, IS2	□	□	□

10-1 Figura. Lagin batek duen itxura

Gehikuntzaren alorrean, jatorrizkoan agertzen ez zen edozein elementu hartu dugu halakotzat. Esaterako, 33. laginean agertzen den ondorengo adibidean, euskaraz agertzen ez zen “americano” gehitu da gaztelaniazko testuan.

### 10-3 Taula. Gehikuntza adibidea

Eus	Parke batean nekez ase daitezkeen premiak dauzkat
gazt	Siento necesidades que difícilmente pueden satisfacerse en un parque americano
Kat	Sento necessitats que difícilment es poden satisfer en un parc americà
Gal	Sinto necesidades que difícilmente poden satisfacerse nun parque americano
Fr	J'ai des besoins difficiles à satisfaire dans un parc américain
Ing	I have certain needs that would be hard to meet in an American park
Ale	Ich habe da so ein Bedürfnis, das sich in einem amerikanischen Park nur schwer erfüllen läßt
It	Ho delle necessità che difficilmente possono essere soddisfatte in un parco americano

Gehikuntzaren alorrean, beraz, jatorrizkoan agertzen ez zen baina itzulpenean ageri den eduki semantiko guztia markatu dugu. Eduki hori hitz solte bat (G1) edo hitz multzoa (G2) izan daiteke, baina baita esaldi bat (G3) edo paragrafo oso bat ere (G4). Gehikuntza mailaren arabera parentesi artean agertzen diren zenbakiak gehitu ditugu (ikus 10-1 Figura).

Kenketari dagokionez, jatorrizko testuan agertzen zen eduki semantikoa ezabatzea da kontuan hartu duguna eta ezabaketa horiek guztiak markatu egin ditugu. Kasu honetan ere, mailaketa berdina egin dugu: hitz bat kentzen denean lehenengo kenketa maila izango da (K1), hitz multzoa denean bigarren mailakoa (K2), esaldi bat desagertzen denean hirugarrenkoa (K3) eta paragrafo osoari dagokionean laugarren mailakoa (K4) (ikus 10-1 Figura). Ondorengo izan daiteke kenketa adibide bat, 30. laginetik ateria:

### 10-4 Taula. Kenketa adibidea

Eus	Etxekoak baino hobeak! —esan zuen Bambulok makarroi platera hustu eta gero.
Gazt	¡Mejores que los de casa! —exclamó Bambulo.
Kat	Millors que els de casa! —va exclamar Bambulo.
Ale	Besser als die zu Hause!«, rief Bambulo aus.
It	Meglio di quelli di casa! - esclamò Bambulo.

Itzulpen sortzaileari dagokionez, jatorrizkoan agertzen den eduki semantikoa itzulpenean beste modu batera eraldatuta ematean datza. Sarritan, gehikuntza edo kenketarekin batera agertuko da, edo horiekin oso muga lausoak izan ditzake. Mota honetako aldaketak era askotarikoak izan daitezke: kultur erreferentziak, sintaxiari loturikoak, edo beste hainbat motatakoak. Aurreko bi kasuetan bezala, aldaketa horiek luzeraren arabera sailkatu ditugu batetik laurako mailaketari eutsiz: hitz bakarreko eraldaketak



(IS1), hitz multzo batenak (IS2), esaldi mailakoak (IS3) eta paragrafo mailakoak (IS4) (ikus 10-1 Figura). Hona hemen 16. laginean agertzen den adibide bat:

#### 10-5 Taula. Itzulpen sortzailearen adibidea

Eus	Carlosek burua astindu zuen
Gazt	Carlos hizo una mueca de disgusto
Kat	Carlos va fer una ganyota de disgust
Fr	Carlos fit une grimace de dégoût
Ing	Carlos winced
Ale	Carlos verzog verärgert das Gesicht
It	Carlos fece una smorfia di disappunto

#### 10.1.1.1 Laginen azterketaren emaitzak

Honako atal honetan, laginak banaka-banaka aztertu ondoren identifikatu ditugun moldaketen inguruko iruzkina emango dugu. Datu orokorrak eta lagin bakoitzari dagozkionak emateaz gain hizkuntzaz hizkuntzako datuak ere emango ditugu, eta baita liburuz liburukoak ere.

Alderaketa euskarazkoa eta gainerako testuen artean eginga izan da, nahiz eta jakin badakigun aurreko faseetatik, hainbat eta hainbat testu ez direla zuzenean hizkuntza horretatik itzuliak izan. Harreman horien nolakotasuna eta testuen arteko loturak finkatzeko metodologia gisa erabili dugu bide hori.

Datu orokorrak hogeita hamalau laginak kontuan hartuz lortu ditugu. Gehikuntzei dagokienez, hitz multzoak (G2) izan dira gehien agertu direnak, 862 guztira. Esaldiei dagokienez (G3), 339 gehitu dira, eta hitz soilak (G1), 238 aldiz. Paragrafo mailako gehikuntzak (G4) hutsaren hurrengoia izan dira, 4 soilik. Kenketei dagokienez, hemen ere hitz multzoenak izan dira gehienak, 585 kasurekin; jarraian esaldi mailakoak izan dira ugariak, 385 kasurekin; hirugarrenik, hitz bakarreko kenketak, 291 kasurekin, eta, azkenik, nahiko kenketa gutxi topatu dugu paragrafo mailan, 43 guztira, baina gehikuntzak baino gehiago hala ere. Itzulpen sortzaileari dagokionez, hemen ere hurrenkera berbera jarraitu da: hitz multzoak, 1.511 aldiz eraldatu dira; esaldiak, 807 aldiz; hitz soilak, 669 aldiz, eta, azkenik, paragrafo mailako 98 moldaketa topatu ditugu. Datu horiek horrela izanik, argi eta garbi ikus dezakegu hiru multzoen artean itzulpen sortzailearena dela ugariena. Bigarren lekuan, gehikuntzak topa ditzakegu, eta, hirugarrenik, kenketak.

Hizkuntzaz hizkuntzako datuak ere ez dira gehiegi aldatzen, banan bana hartuz gero. Hala ere, hizkuntzaka eginiko azterketa orokorraren bitartez lorturiko emaitzak ez dira guztiz baliagarriak izango, xede hizkuntza bakoitzera lan kopuru ezberdina itzuli baita. Hori horrela izanik, hizkuntza ezberdinen arteko aldeak ikusteko liburuz liburu lorturiko datuak begiratuko ditugu.

Gaztelaniari dagokionez, lehen begiratuan, gehien erabiliriko prozedura itzulpen sortzailearena izan dela ikus dezakegu, bigarren mailakoa batik bat. Hona hemen halako kasu baten adibidea:

#### 10-6 Taula. 21. laginean ageri den IS2 adibidea

Eus	Julien Sorel eta Renal anderearen istorioak gutxienez berrogei orduko plazer bizia emana zion gartzelara sartu eta handik urtebetera edo
Gazt	La historia de Julien Sorel y la señora Renal le había proporcionado <b>muchas horas de placer</b> cuando llevaba alrededor de un año en la cárcel
Kat	La història de Julien Sorel i la senyora Renal li havia proporcionat <b>moltes hores de plaer</b> quan feia un any que era a presó
Ing	The story of Julien Sorel and Madame de Renal had given her <b>many hours of pleasure</b> at a difficult time, when she had been in prison for about a year
Ale	Die Geschichte von Julien Sorel und Frau de Renal hatte ihr nach etwa einem Jahr im Gefängnis <b>viele erfreuliche Stunden</b> beschert
It	La storia di Julien Sorel e eli Madame de Rênal le aveva procurato <b>molte ore eli piacere</b> quand' era più o meno un anno che si trovava in carcere

Hala ere, zenbaitetan, hirugarren mailakoak presentzia nabarmenagoa izan du, 3. eta 10. laginen artean esaterako. Gehikuntzek ere ez dute presentzia bera izan lagin guztietan: batzuetan garrantzia oso handia izan dute, 3. edo 7. laginetan kasu; beste batzuetan, ez dira ia agertu ere egin, 15. eta 33. laginetan, esaterako. Kenketekin ere berdintsu gertatu da: 8.ean eta 11.ean, esaterako, ez da ia ezer kendu; 23.ean eta 31.ean, berriz, dezente. Moldaketa kopuruari bere osotasunean begiraturaz gero, nabarmena da 2. laginean –BL liburuari dagokionean– izan dela moldaketa gehien, eta 24-28 laginen artean –XL, XB eta SIG liburuenak–, gutxien. Hona hemen, esaterako, BL liburuan ageri den moldaketen adibide bat:


#### 10-7 Taula. Bigarren laginaren adibide bat

Eus	<b>Obabako plazaren ondoan iturri bat dago, lau kainukoa, eta hantxe</b> bildu ginen denok, nire bi lagunak, aitona, <b>beste bi testigu</b> eta ni neroni. Neskak ere atzetik etorri zitzaizkigun, jakina, nobedadea zegoen han <b>zer entzuna eta zer kontatua</b> . Iturriaren hotsak jan egiten zituen gure talde hartan esaten ziren hitzak, eta sekretu itxura bat ematen zion asuntoari. <b>Inguruko neska haiek ere doi-doi entzuten zuten guk esaten genuena.</b>
Gazt	Nos reunimos todos, mis dos amigos, el anciano y yo mismo, <b>bajo un viejo árbol que se levantaba en el centro de la plaza</b> . Las chicas también vinieron, porque olían novedades, claro, <b>pero el anciano se giró hacia ellas y les dijo que allí no pintaban nada, que se apartaran.</b>
Kat1	Al darrere de la plaça d'Obaba hi ha una font amb quatre canelles, i allà ens vam reunir tots: els meus dos amics, l'ancià, un parell de testimonis i jo mateix. Les noies ens van venir al darrere perquè ensumaven que hi havia novetats que pagaria la pena d'escoltar i explicar. El soroll de l'aigua de la font mig tapava les veus del nostre grup, i feia que semblés que estàvem tractant l'assumepte amb un gran secret. Suposo que les noies amb prou feines ens sentien.
Kat2	Ens vam reunir tots, els meus dos amics, el vell i jo mateix, <b>sota un vell arbre que s'alçava al centre de la plaça</b> . Les noies també van venir, perquè ensumaven novetats,

- és clar, però el vell s'hi va girar i els va dir que allà no hi pintaven res, que s'apartessin.
- Fr Nous nous réunîmes tous, mes deux amis, le vieux et moi-même, sous un vieil arbre qui se dressait au beau milieu de la place. Les filles aussi vinrent, parce qu'elles flairaient, bien sûr, qu'il y aurait du nouveau, mais le vieux se tourna vers elles, leur dit qu'elles n'avaient rien à faire là et leur demanda d'aller voir ailleurs. Puis, quand il n'y eut plus que nous quatre, il prit la parole :
- It Ci riunimmo tutti, i miei due amici, il vecchio e io, sotto un albero centenario situato al centro della piazza. Vennero anche le ragazze, perché adoravano le novità, certo ma il vecchio si voltò e disse che lì non c'era posto per loro, che se ne andassero.
- Gal Reunímonos todos, os meus dous amigos, o vello e mais eu, debaixo dunha árbore que había no medio da praza. As rapazas viñeran tamén porque cheiraban que había algunha novidade, claro, pero o vello volveuse para elas e díxolles que alí non tiñan nada que pintar elas, que fosen coa música a outra parte.
- Ing There's a fountain with four spouts near the plaza of Obaba and we gathered right there, my two friends, the old man, two more witnesses, and me. The girls also came after us because they smelled something cooking. The sound of the fountain hushed our words and gave our dealings a sense of secrecy. Those girls standing there were listening carefully to what we said.

Hasiera batean itzulpen-prozedurak liburuz liburu aldatzen direla pentsa badezakegu ere, liburu berari dagozkion lagin ezberdinetan ere aldeak nabari daitezke. Esaterako, 23. lagina ZHri dagokio, moldaketa gehien izan dutenetakoa izan arren, liburu beraren 21. laginak moldaketa kopuru askoz ere murriztagoa dauka.

Aldaketak itzulpen motaren arabera alderatzen saiatu gara, autoitzulpena, besteren itzulpena eta kolaborazioaren artean alde nabarmenik ba ote den ikusteko, baina ez dugu bakoitzari loturiko araurik topatu. Lehenxeago aipatu dugun moduan, 24-28 laginetan ditugu moldaketa gutxien, eta horiek XB, XL eta SIG liburuen itzulpenei dagozkie, hirurak ere autoitzulpenak direlarik. Seigarren laginean ere, BARI dagokionean, ez da hainbeste moldaketa izan, nahiz eta liburu bereko eta OBBko gainerako laginetan (autoitzulpenak guztiak ere) moldaketa gehiago izan den. Nabarmentzekoa da desadostasun gehien lehenengo bi liburuetan (BL eta STX) topatu dugula, zeinak ez dakigun ziurtasunez nork itzuli dituen. Bi liburuen jatorrizkoaren eta itzulpenaren artean denbora tartea nahiko zabala izan zen, biak ala biak ere, jatorrizkoa baino 6 urte beranduago itzuliak izan baitziren. Gainerakoan, aurrez esan bezala, ez dugu liburuz liburu arau orokorrik topatu, liburu beraren lagin ezberdinetan izandako moldaketa kopurua aldatu egin baita.



**10-2 Figura. Gaztelaniazko laginetan identifikaturiko moldaketak itzulpen-prozeduren arabera**

Gainerako hizkuntzen kasuan bai, arau orokor bat nabari daiteke itzulpen mota ezberdinen artean: zuzenean eginiko itzulpenek, oro har, moldaketa askoz gutxiago izan dute zeharka eginikoeek baino. Jarraian, euskarazko testuekin alderaturik lortu ditugun datuak aurkeztuko ditugu hizkuntzaka.

Katalanari dagokionez, nabarmentzekoa da moldaketa gehien jasan duten laginak, gaztelaniazkoan bezala, BL eta STX liburuei dagozkienak izatea. Dena dela, lehenengo kalaren bigarren itzulpenean lehenengoan baino askoz moldaketa gutxiago nabari daiteke. Gutxien izan dutenen artean, 22.etik 29.erako laginak ditugu, ZH, XL, XB eta SIG liburuei dagozkienak.

Datuak liburuz liburu begiratu gero, eta gainerako hizkuntzekin alderatuta, bada ezberdintasunik lagin batzuetan. Lehenengo bi laginetan, BL liburuari dagozkienetan, bina itzulpen topa daitezke. Horietako bigarrenean, Pau Joan Hernàndezek eginikoan, eta lehenengo laginari erreferentzia eginez, gainerako bertsioetan baino gehikuntza eta itzulpen sortzaile gehiago topatu dugu, hitz multzoenak batez ere, eta gainerako hizkuntzetan baino kenketa gutxiago izan da. Bigarren laginean ere, kenketa gutxiago izan da beste hizkuntzetan baino. GBB liburuari dagozkion lau lagin aztertu ditugu, eta hainbat moldaketa ikus daitezke horietan katalanez. Moldaketa nabarmenenak 16. laginean topa daitezke, lau horien artean lehenengoan, alegia. Lagin horretan, gainerako hizkuntzetan baino maila guztietako moldaketa gutxiago nabari da, euskarazko jatorrizkoari lotuago dagoela ikus daiteke. Jarraian, lagin horretako adibide bat daukagu:

#### 10-8 Taula. 16. laginaren adibidea

Eus "Ezin esan hire anaiari mesede handirik egin zionik. Non dago ba Kropotki orain? Ez al dago ba sanatorio psikiatriko batean?", entzun zuen orduan bere baitan. **Bere**

---

	<b>kontzientziaren ahotsetako bat zen, denen artean desatseginena.</b>
Gazt	«No puede decirse que a él le sirviera de mucho. Si no me equivoco, Kropotky está ahora en un sanatorio psiquiátrico», oyó entonces en su interior.
Kat	«Però no es pot dir que a ell li servis de gaire. On és ara, en Kropotki? No està en un sanatori psiquiàtric?», va sentir com deia una veu al seu interior. La més desagradable de les veus de la seva consciència.
Fr	« On ne peut pas dire qu'à lui, cela lui ait beaucoup servi. Si je ne me trompe, Kropotky est à présent dans un hôpital psychiatrique », entendit-il alors en lui.
Ing	"Well, it certainly didn't do him much good. Unless I'm very much mistaken, Kropotky is now in a psychiatric hospital," he heard a voice say inside him.
Ale	Willst wohl nicht behaupten, daß es ihm viel genützt hat. Wenn ich mich nicht täusche, ist Kropotky heute in einer psychiatrischen Klinik, hörte er in sich eine Stimme sagen.
It	"Non si può dire che a lui sia servita molto. Se non mi sbaglio, Kropotky ora è in una clinica psichiatrica", udì allora dentro di sé.

Gainerako hiru laginetan, aldeak egon badaude ere, ez dira lehenengo horretakoak adinakoak. Hainbatetan euskarazko jatorrizkoari lotuta dagoela ematen du; beste hainbatetan, gaztelaniazkoa ere iturri modura erabili duela nabari daiteke. ZH liburuari dagozkion laginetan, bestalde, 20-23 bitartekoetan, gainerako hizkuntzetan baino askoz moldaketa gutxiago topatu ditugu, eta ageri diren gehienak itzulpen sortzaileak izan dira. Hona hemen, moldaketa gutxi ageri dutenen adibide bat:

#### 10-9 Taula. 20. laginaren adibidea; katalanez moldaketa gutxi ikus daiteke

---

Eus	—Hobe duzu erretzaileen eremuan ez bidaiatzea —esan zion enpleguatuak zorrozki. Berari apur bat historikoa zela iruditu zitzaion—.
Gazt	—No quisiera entrometerme, pero yo en su lugar no viajaría en la zona de fumadores —dijo el empleado hablando con mucha rapidez. —Deme el billete, por favor —insistió ella. La gente histérica le desagradaba profundamente.
Kat	—Faria millor viatjant a la de no fumadors —va replicar l'empleat ràpidament. A ella li va semblar una mica histèric—.
Ing	"I don't want to poke my nose in, but, if I was you, I wouldn't travel in the smoking section," said the young man, talking very fast. "Look, just give me the ticket," she insisted. She had a deep dislike of hysterical people.
Ale	»Ich will mich nicht einmischen, aber an Ihrer Stelle würde ich nicht im Raucherbereich reisen«, sagte der junge Mann, die Worte hastig hervorstoßend. »Bitte, geben Sie mir meine Fahrkarte«, beharrte sie. Hysterische Menschen waren ihr entschieden zuwider.
It	"Non è per intromettermi, ma io al suo posto non viaggerei nella zona fumatori", disse l'impiegato parlando molto rapidamente. "Mi dia il biglietto, per favore", insisté lei. La gente isterica la indisponeva profondamente.

Beste hainbat laginetan ere topatu dugu hainbat moldaketa, baina ez orain arte aipaturikoak bezain nabarmenak.

Galegoari dagokionez, guztira 19 laginen ordainak topatu ditugu. Gaztelaniaz eta katalanez bezala, bigarren laginean topa daitezke moldaketa gehien hizkuntza honetan. Gutxien, berriz, hirugarren laginean, STX liburuari dagokionean. Hona hemen lagin horren adibidea:

## 10-10 Taula. STX liburuari dagokion lagina

Eus	Itxura bakarrik, ezen ezinezkoa baitzitzaion bilketa horrek -marrubia fruitu gordea denez- eskatzen zuen arreta jartzea. Bere pentsamenduak beste leku batean zeuden: aitona -txoriarekin aurrena, sugearekin gero- erakutsitako joera hartan, hain zuzen ere.
Gazt	El único preocupado era Sebastián. Caminaba por las orillas del camino, como buscando fresas, y aparentaba no estarlo; pero no podía quitarse de la cabeza las conversaciones que el abuelo Martín había sostenido primero con el pájaro y luego con la serpiente.
Kat1	L'únic que estava preocupat era Sebastián. Caminava pel marge del camí, com si busqués maduixes, i feia veure que no n'estava, però el cas és que no es podia treure del cap les converses que l'avi Martín havia tingut primer amb l'ocell i després amb la serp.
Kat2	L'únic preocupat era Sebastián. Caminava per les vores del camí, com si busqués maduixes, i feia veure que no estava amoïnats; però no es podia treure del cap les converses que l'avi Martín havi sostingut de primer amb l'ocell i després amb la serp.
Gal	Só o aparentaba, porque a busca —sendo o amorote un froito escondido— resultáballe imposible pola atención que esixe. Os seus pensamentos estaban noutra parte, na conversa do avó, primeiro co paxaro e despois coa serpe.
It	L'unico preoccupato era Sebastián. Caminava sull'orlo del sentiero, comme in cerca di fragole, e faceta finta di niente; ma non poteva levarse dalla testa le conversazioni sostenute dal nonno Martín prima con il pettirosso e poi con il serpente.
Ing1	He could only pretend, because in truth, the search was nearly an impossible feat, and not only because wild strawberries like to hide. He simply couldn't concentrate, his mind was somewhere else: right now it was wondering about Aitite's amazing routine, first with the bird, then with the snake.
Ing2	He only pretended because strawberries are hidden fruits, and it was impossible for him to give the attention that such a task required. His thoughts were elsewhere, with his grandfather's conversations, first with the bird, and then with the snake.

Aurreko adibide horretan ikus daitekeenez, galegozko bertsioa, ingelesezkoen modura, euskarazkoari oso loturik ageri da, eta hortik itzulia dela ondoriozta dezakegu.

Itzulpen-prozedurei dagokienez, itzulpen sortzailea izan da nabarmen gehien erabili dena.

Datuak liburuz liburu begiratzuz gero, aipagarria da moldaketa kopuruak gaztelaniazko bertsioetatik gehiegi ez aldentzea ia lagin guztietan. STX liburuari dagokion laginean soilik, bigarrean, datuak guztiz bestelakoak dira; gaztelaniaz 40 aldaketa baino gehiago dauden bitartean, galegozkoak ez dira 10era iristen. Aldaketa horietan, gainera, ez da gehikuntzarik ageri, gaztelaniazkoan ohikoa izan den prozedura. Kenketaren bat edo beste eta itzulpen sortzaileak topa ditzakegu.

Frantsesez, 27 izan dira euskarazko laginen ordaina izan duten testu zatiak. Gaztelaniaz bezala, 2. laginean topa daitezke moldaketa gehien eta gutxien 24.etik 28.era.

Hizkuntza horretan ez dugu topatu gaztelaniazko moldaketetatik gehiegi aldentzen den laginik; beraz, itzultzaileak nahiko gertutik eutsi dio kasuan kasu erabili duen bitarteko testuari. Berretsi egin da, hortaz, lehendik bagenekiena.

Ingelesari dagokionez, guztira, 21 laginen ordaina topatu dugu, horietarik batean bi ordain dauzkagularik. Moldaketa gehien GBB liburuari dagokion 16. laginean eta ZHri dagokion 23.ean topatu dugu, bietan ala bietan, datuak gaztelaniazkoaren oso paretsuak direlarik. Gutxien, berriz, BLri dagozkion bi laginetan eta STXri dagokion laginaren bi bertsioetan. Gogora dezagun, bi liburu horien ingelesezko itzulpenak zuzenak direla. Eta orain berretsi egin da. Horietan guztietan ere, itzulpen sortzailea izan da gehien ageri den prozedura, lehen edo bigarren mailakoa beti ere.

Gainerako hizkuntzekin alderatuz, BLren itzulpenaren bi laginak gaztelaniazkoetik aldentzen diren bakarrak dira ingelesezkoak; lehenengo laginean, gainerakoetan 30 moldaketatik gora dauden bitartean, ingelesezkoan 16 besterik ez daukagu; eta, bigarrenaren kasuan, gainerakoetan 50 moldaketatik gora topa daitezkeen bitartean, ingelesez 7 besterik ez dira ageri. STXri dagokion hirugarren laginean, galegozko itzulpenaren antzera, ingelesezko bi bertsioetan ere moldaketa oso gutxi izan da, eta gehientsuenak itzulpen sortzaileak izan dira. Gainontzeko laginetan, ez dugu horiek adinako alderik topatu, guztietan ere datuak ez dira gaztelaniazko zenbakietatik gehiegi aldentzen. Baten bat aipatzekotan, 22. laginean, ZHri dagokiona, hitz bakarreko itzulpen sortzaile gehixeago egon da ingelesez gaztelaniaz baino. 32. laginean, berriz, SS eleberriarri dagokionean, kenketa gehiago izan da ingelesez. Azken horretan, hizkuntzari edo eleaniztasunari loturiko kenketak izan dira, batez ere, hau da, jatorrizkoan esaldi bat ingelesez eman eta itzulpena ere eman da jatorrizko hizkuntzan, eta ingelesez hori desagertu egin da, jarraian ageri den adibidean ikus daitezkeen moduan:

#### 10-11 Taula. 32. laginaren adibidea

Eus	«Behar al duzu gure laguntzarik?» «Can we help you?», galdetu zion Mary Annek zizelarekin ari zen gizonari gu bion arteko gaztelaniatik ingelesera pasatuz.
Gazt	«Can we help you?» —«¿Podemos ayudarle en algo?»—, preguntó Mary Ann al hombre que estaba esculpiendo el epitafio, pasando del español que hablábamos entre nosotros al inglés.
Kat	«Can we help you?» —«El podem ajudar en alguna cosa?»—, va preguntar Mary Ann a l'home que estava gravant la làpida, passant de l'espanyol que parlàvem entre nosaltres a l'anglès.
Gal	«Can we help you?» —«Podemos axudalo en algo?»—, preguntoulle Mary Ann ao home que estaba a esculpir o epitafio, pasando do espanol que falabamos entre nós ao inglés.
Fr	« Can we help you ? » - « On peut vous aider ? » - demanda Mary Ann à l'homme qui était en train de graver l'épithaphe, passant de l'espagnol que nous parlions entre nous à l'anglais.
Ing	<b>Do you need any help?</b> Mary Ann asked the man carving the gravestone, shifting into English from the Spanish we normally spoke together.
Ale	- Can we help you? Possiamo aiutarla ? - domandò Mary Ann all'uomo che stava scolpendo l'epitaffio, passando dallo spagnolo che parlavamo tra noi all'inglese.
It	»Can we help you?« fragte Mary Ann den <b>Steinmetz</b> .

25 laginen ordainak topatu ditugu alemanez. Horien artean moldaketa gehien izan dutenak BLU liburuari dagokion 30. lagina eta ZHri dagokion 23.a izan dira. Moldaketa gutxien izan dutenen artean dugu, berriz, XL liburuari dagokion 24. lagina.

Liburuz liburuko moldaketak ikusiz, eta gainerako hizkuntzekin alderaturik, BEBM liburuari dagozkion 11-15. laginetan alemanezkoak ezberdinak dira. Bost lagin horietan moldaketa gutxiago izan da alemanez, gainerako hizkuntzetan baino, itzulpena euskarazkotik egina izan baita. Hona hemen horren adibide bat:

#### 10-12 Taula. 13. laginaren adibidea

Eus	Lehenago hostoei bezala, orain puntu gorritzat hari begiratzen nion, areago gorrituko ote zen, azkenean erabat beztuko ote zen edo ez ote zen beztuko, eta apustuak ere egiten nizkion neure buruari, baietz aldamenekoak baino gehiago irau, ezetz gaurko gauean erori.
Gazt	Vigilaba aquel punto rojo por si se ponía aún más rojo, o por si le salía una mancha amarilla, y me hacía apuestas sobre lo mucho o lo poco que iba a tardar su caída.
Kat	Vigilava aquell punt vermell per si es feia encara més vermell, o per si li sortia una taca groga, i em feia juguesques sobre si trigaria poc o molt a caure.
Gal	Vixiaba aquel punto vermello por se aínda se poñía mais vermello, ou por se lle saía unha mancha amarela, e apostaba sobre o moito ou pouco que ía tarda-la súa caída.
Fr	Je surveillais ce point rouge pour voir s'il allait devenir encore plus rouge, ou si une tache jaune allait sortir, je me demandais dans combien de temps elle allait tomber et faisais des paris avec moi-même.
Ale	Ähnlich wie ich es vorher mit den Blättern gemacht hatte, betrachtete ich nun jenen rötlichen Punkt am Himmel und begann mit dem gleichen Spiel: Ob er wohl noch roter werden würde? Ob bald wohl ein gelblicher Fleck auftauchen würde? Auch das Wettbüro eröffnete ich wieder: Wetten, dass er länger leuchtet als die anderen! Wetten, dass er in dieser Nacht noch nicht herunterfällt, und so weiter.
It	Continuavo a fissare quel punto rosso, cercando di vedere se diventava ancora più rosso, o se gli usciva qualche macchia gialla. E avevo anche iniziato a scommettere quanto ci avrebbe messo a cadere...

Hamalagarrenean izan ezik gainerakoetan oso kenketa eta gehikuntza gutxi ageri da; itzulpen sortzaileak dira gehientsuenak. Itzulpen-prozedura horrek duen presentzia nabarmena hizkuntza moldaketari loturik ageri da, batez ere. Zubereraz hitz egiten duen pertsonaia frantsesez hitz egiten ageri baita alemanezko testuan, gainerako bertsioetan gertatzen den moduan. Gainerako laginetan ez dugu liburu horretan adina alde topatu alemanaren eta gainerako hizkuntzetako bertsioen artean. Hala ere, bada moldaketarik, ZH liburuaren 20. laginean esaterako; bertan, itzulpen sortzaile gehiago topa baitaiteke. XL liburuaren 24. laginean ere, datuak gaztelaniazkotik zertxobait aldentzen dira, eta antzera gertatzen da BLU liburuari dagozkion 29. eta 30. laginetan. Azken horretan, bereziki, deigarria iruditu zaigu alemanezko itzulpenean gaztelaniaz ageri diren gehikuntzen bikoitza topatu izana. Itxura batera, itzultzailearen jarrera sortzailea dago horren atzean. Azkenik, 33.



laginean, SS eleberriari dagokionean, gainerako hizkuntzetan baino moldaketa gehiago topa daitezke. Ikus, esaterako, 10-11 Taulan ageri den adibidea.

Italieraz, guztira, 33 lagin topatu ditugu. Moldaketa gehien, gainerako hizkuntzen moduan, 2. laginean topatu dugu, 60 inguru. Gutxien, berriz, SIG liburuari dagozkion 26. eta 27. laginetan.

Liburuz liburuko azterketa eginez gero, eta gainerako hizkuntzekin alderatuz, XL liburuari dagokion 24. laginean topatu dugu kasurik deigarriena italieraz. Bertan, zortzi gehikuntza ageri dira, gainerakoetan bat edo bi soilik agertzen diren bitartean. Hona hemen horietariko bat:

**10-13 Taula. 24. laginaren adibidea: italieraz gehikuntza ageri da.**

Eus	-Goazen parkera paseatzera, Xola. Eta ez ezetzik esan!
Gazt	-¡Vamos a pasear al parque, Shola! ¡Y no me digas que no!
Kat	-Anem al parc a passejar, Xola! I no em diguis que no!
Fr	- Shola, on va se promener au parc ! Et ne me dis pas non !
Ale	»Komm, wir gehen im Park spazieren, Shola! Und sag gar nicht erst nein!«
It	-Shola, andiamo al parco! E non rispondermi che non <b>ne hai voglia, oggi non sento ragione! Muoversi!</b>

Topatu ditugun gainerako adibideetan, ez da moldaketa handiegirik izan, eta, bat aipatzearren, BEBM liburuari dagokiona aipatuko dugu: liburu horretako ia lagin guztietan, 11.ean izan ezik, gainerako hizkuntzetan baino moldaketa gehixeago izan da italieraz. Gainerako laginetan, italierazko datuak gaztelaniazko eta beste hainbat hizkuntzatako datuen oso antzerakoak izan dira.

### 10.1.1.2 Azterketaren ondorioak eta hemendik aurrerakoak

Laginen azterketak testuen arteko harremanetan maila mikrotestualean sakontzeko aukera eskaini digu. Euskara jatorrizko hizkuntza modura eta gainerako hizkuntza guztiak xede hizkuntza modura sailkatu baditugu ere erabiliriko metodologian, lortutako emaitzei esker ikusi ahal izan dugu 1:1 eskemak ez duela errealitatea islatzen eta gehienetan gaztelaniazkoa izaten dela bitarteko testua. Hori dela eta, euskarazko eta gainerako testuen alderaketan bildu ditugun datu gordinek ez dute errealitatea den modukoa erakusten.

Gaztelaniazko bertsioetan itzulpen sortzailea izan da itzulpen-prozedurarik erabiliena. Maila ezberdinetako eraldaketak kontuan izanik, 538 kasu topatu ditugu guztira, hau da, gehikuntza eta kenketa kasuen bikoitza gutxi-gorabehera, horiek hurrenez hurren 265 eta 241 kasu izan baitituzte. Ez dugu alde deigarririk topatu autoitzulpenen, besteren itzulpenen eta kolaborazioen artean. Gogora dezagun gainera, hainbat kasutan ez dugula oraindik orain jakiterik izan zein itzulpen mota izan den erabili dena (ikus

9-10 Taula). Aurrez aipatu dugun moduan, 24-28 laginetan izan da moldaketa gutxien (XL, XB eta SIG liburuei dagozkienak), hirurak ere autoitzulpenak. Baina, beste autoitzulpen batzuen kasuan (BA eta OBB, esaterako), datuak altuagoak dira. Itzulpen mota guztietako datuak antzerakoak izan direla ematen du, beraz. Generoen arteko ezberdintasunik ere ez du ematen gertatzen denik.

Azterketa honi esker xede testuen eta euskarazkoen eta gaztelaniazkoen arteko harremanak zer nolakoak diren ikusi ahal izan dugu, aurreko urratsetatik haratago. Katalanaren kasuan, esaterako, ZHren itzulpenean ikusi dugu euskarazko testua izan dela itzulpenerako erabili den testu nagusia. Gauza bera gertatzen da STXren galegozko itzulpenean: datu gordinek eraldaketa gutxiago erakusten dute gaztelaniazkoak zein zeharkako itzulpenek baino.

Kasurik gehienetan gaztelaniazkoetik abiatutako zeharkako itzulpenak egin direla esan dezakegu. Azterketa mikrotestuak honek itzultzaileak erabili duten iturri testuarekiko gertu mantendu direla erakutsi digu. Zeharkako itzulpenei dagokienez, zera esan dezakegu, eraldaketa kopurua eta erabiliriko itzulpen-prozedurak gaztelaniazko testuetan agertutako antzerakoak direla. Nahiko gutxi dira italiarazko XLren itzulpenaren modukoak, gaztelaniazko itzulpen sortzaile kopuru altuagoa agertzen dutenak. Euskarazkoetik zuzenean eginiko itzulpenei dagokienez, gaztelaniazko itzulpenean eta bertsio horretatik eginiko zeharkako itzulpenetan baino moldaketa gutxiago identifikatu dugu kasu guztietan. Itzulpen-prozedurei dagokienez, gehikuntza eta kenketa gutxiago identifikatu dugu, batez ere, itzulpen zuzenetan. Hortik ondoriozta dezakegu gaztelaniarako zuzeneko itzulpenak ez daudela gainerako hizkuntzetarako zuzeneko itzulpenen pare: gainerako hizkuntzetarako itzultzaileek oso gertutik eusten diote jatorrizkoari; gaztelaniazkoan, berriz, autorea nolabait itzulpen prozesuaren zati izan denez beti, emaitza askoz ere sortzaileagoa izan da.

Aurrez esan dugun moduan, kalen azterketaren bitartez modu orokorrean begiratu nahi izan diogu corpusari maila mikrotestuarekin. Atal honetan aurkeztutako datuak lehenengo emaitzak izango ditugu testuen arteko harremanak zehazteko, testu bakoitzean izan diren moldaketak identifikatu ahal izateko eta itzultzaile bakoitzak kasu bakoitzean erabili duen itzulpen bidean sakondu ahal izateko. Hala ere, azterketa espezifikoa egitea beharrezkoa izango zaigu atal honetan lortutako emaitza orokorretatik haratago iristeko.

Kalen azterketa egiteko erabili ditugun hiru irizpide orokor horien barruan hainbat moldaketa mota espezifikoki identifikatu ahal izan dugu. Batetik, sintaxi aldaketa edo ordena aldaketa; pertsona aldaketa ere topatu dugu, singularretik pluralera edo pertsona jakin batetik pertsona desagertzerak edo estilo inpersonalerak pasatzea; bestalde, estilo zuzeneko esaldiak zeharkako estiloan ere jarri dira; hizkuntzaz hizkuntzako pertsona tratuaren ere ezberdintasunak topatu ditugu hitanoa, berorika eta horien ordainak

ematerakoan; generoaren inguruan ere izan da aldaketarik, ezabaketa, gehikuntza edo zehaztapena kasu. Beste hainbat motatako moldaketak ere topatu ditugu, gehienak kultur erreferentziei loturikoak: zenbakiak (orduari dagozkionak, adinari dagozkionak, eta abar), janariak edo edariak, izen propioak, abestiak, koloreak, esapideak, dialekto edo hizkuntza aldaketa edo ezabaketa, onomatopeiak, eta abar.

Ikusten dugunez, maila eta mota ezberdinetako eraldaketa ugari identifikatu ahal izan dugu honako fase honetan. Ez da gure helburua identifikaturiko guztiak aztertzea, eta, gainera, horrek tesi honen mugetatik at eramango gintuzke. Identifikaturiko fenomenoaren artean azterketa espezifikoko egiteko egokienak zeintzuk izango diren erabaki beharko dugu, honenbestez.

Aurrera egiteko azterketa espezifikokoak maila ezberdinetan egin genitzake, esaterako, semantikoan, pragmatikoan edo sintaktikoan. Maila bakoitzaren barruan ere mota askotariko alderdiak izan genitzake aztergai. Ikerketa lan honen helburua, ordea, ez da azterketa mikrotestual xehea egitea (ez dugu, gainera, hori egiteko nahikoa gaitasunik hizkuntza gehienetan), baizik eta itzulpen mota ezberdinen arteko konparaketaren lehen ikuspegia eskaintzea. Horrexez, maila semantikoan eta pragmatikoan aztergai bana hautatzea erabaki dugu: batetik, koloreak hautatu ditugu, kulturari hertsiki loturiko elementuak izaki eta sinbologia zabala dutenak (hitz polisemikoak zenbaitetan), maila semantikoa jorratzeko aukera eskainiko baitigute; eta, bestetik, izen bereziak, horien erabilera aztertuz maila pragmatikoan sakondu ahal izango baitugu. Batak zein besteak agerpen kopuru zabala dute gure corpusean, laginen azterketan ikusi ahal izan dugunez, eta ohiko elementuak dira hizkuntzan. Bi elementuok bilaketa sistematikoa eta zehatza egiteko aukera ematen digute, beste hainbat ohiko elementuren aldean<sup>68</sup>, eta bilaketak egiteko erraztasuna hobetsi dugu hautaketa egiterakoan, eskura dauzkagun tresnak kontuan izanik. Laginak aztertzerakoan ikusi dugu ez soilik asko ageri direla gure corpusean, baizik eta azaleko azterketan baliagarriak direla itzulpen motak aztertzeko; abagune egokia izan daitezke itzultzaileen jokaera ikusteko. Horrela, itzulpen bide ezberdinak zehazteko azken informazio iturria baliatuko dugu eta behin betiko emaitzak lortu ahal izango ditugu.

<sup>68</sup> Elementu horien artean zenbakiak, ahaidetasun harremanak, asteko egunak, hilen izenak, etab. izan daitezke. Hasiera batean, maila sintaktikoa ere lantzeko asmoa bagenuen, juntagailuen azterketa eginez, baina azterketa horren konplexutasunak eta ikerketa bere asmoak lortzeko dagoeneko nahikoa zabala izateak gerorako uztea egokiagoa zela pentsarazi zigun azkenean.

## 10.2 AZTERKETA ESPEZIFIKOAK

### 10.2.1 *Maila pragmatikoa: izen propioak*

Maila mikrotestualean egin ditugun azterketa espezifikoen artean lehenengoa izen berezien ingurukoa izango da. Testuetan betetzen duten funtzioa eta horiek hizkuntzaz hizkuntza nola igaro diren ikusiko dugu gure corpuseko testuetan barna.

Izen bereziak itzultzen diren ala ez, hortxe lehenengo galdera. Hainbat ikertzailek aipatu duenez (ikus Moya 2000, Nord 2003 edo Franco Aixelá 2000, esaterako), izen bereziak ez direla itzultzen uste du jende askok: “‘Proper names are never translated’ seems to be a rule deeply rooted in many people’s minds” (Nord, 2003: 182). Zenbaitek uste izan du izen bereziak zentzurik ez duten hitzak izanik, ez direla itzuli behar. “The fallacy of this view thus lies in the incorrectness of the background assumption: not all proper names are mere identifying labels – in fact, most of them turn out to carry meaning of one sort or another” (Vermes, 2001: 91). Uste hori oso zabaldua egon arren, izen berezien itzulpenaren inguruan lan egin duten ikertzaile horiek erakutsi digute kultur erreferente diren heinean izen bereziak itzuli, itzultzen direla. “It is obvious that proper names are indeed translated, if we regard ‘translation’ as a process of linguistic and/or cultural transfer” (Nord, 2003: 183).

Atal honetan, lehendabizi izen bereziak zer diren definitu nahiko genuke; zerk bereizten duen izen berezi bat izen arrunt batetatik. Jarraian, zein metodologia jarraitu dugun erakutsiko dugu, eta ez genituzke aipatu gabe utzi nahi bide horretan izan ditugun arazoak ere. Ondoren, azterketa bera nola gauzatu dugun erakutsiko dugu, eta zein emaitza lortu ditugun. Azterketa, lehenengo eta behin, liburuz liburu egingo dugu, eta, ondoren, orokorrean. Amaieran, hainbat ondorio emango dugu.

#### 10.2.1.1 Izen bereziak vs. izen arruntak

Azterketari ekin aurretik, izen bereziak zer diren eta izen arruntekin alderaturik zein berezitasun duten ikusiko dugu. Elvira Cámarak dioen moduan, izen berezia pertsona izen zein leku izenekin lotzen dugu eskuarki. “When we mention this grammatical category [proper names], right away we think of anthroponyms (names of persons) and toponyms (names of places), although they are only a part of the whole problem” (Cámara, 2008). Hala baina, jarraian ikusiko dugun moduan, askotariko izen bereziak topa ditzakegu edozein hizkuntzatan.

“Eneko” edo “Getaria” modukoak izen bereziak direla ez du inork zalantzan jarriko, eta, era berean, “*Obabakoak*”, liburuaren izenburua, edo “Eusko Jauriaritza”, erakundearen izena ere, izen berezi direla ez dugu ezbaian jarriko. Baina zerk bihurtzen du izen bat berezi? Javier Franco Aixelák hiru irizpide aipatzen ditu izen bereziak definitzeko: irizpide formalak,

irizpide erreferentziala eta semantikoa. Irizpide formalek izenek hartzen duten formari egiten diote erreferentzia: gaztelaniaz hizki larriz idatzi behar direla esaten da hainbat hiztegitan ikertzaile horren hitzetan, nahiz eta hori ez izan izen bereziei soilik loturiko ezaugarria. “Se trata de una convención ortográfica que a todas luces serviría en el mejor de los mundos para certificar la condición de NP, pero no para definirlo” (Franco Aixelá, 2000: 56). Idazketari dagokionez, ordea, hizkuntza bakoitzak bere legeak ditu eta ez dira baliokideak euskarazkoak, ingelesezkoak edo alemanezkoak. Ingelesez esaterako, hilabete izenak, besteak beste, larriz idatzen dira, euskaraz ez bezala. Alemanez izen guztiak (arrunt zein berezi) larriz idatzi behar direnez, batzuen eta besteen artean ezberdintzea oso zaila izaten da. Christiane Nord-ek 2003an eginiko izen berezien azterketa batean ere antzeman zuen hori. Ondorengo aipuan *Alice in Wonderland* lanean agertzen den *White Rabbit* alemanera nola itzuli aipatzen du:

Translating into Romance languages it is easy just to follow the author’s model capitalizing the generic nouns. In German, however, all nouns are written with a capital first letter, therefore, capitalization cannot be used as a means to mark them as proper names. The only way out of the dilemma would have been to use the nouns without the definite article, but this procedure cannot be found in the German translations of our corpus. (Nord, 2003: 193).

Irizpide formalekin jarraituz, Franco Aixelák gaztelaniaren kasuan, artikuluen erabilera ere guztiz zehaztugabea dela adierazten du, eta los Pirineos, la China edo las Américas modukoak eman, adibide. Artikuluaren erabilera edo izena singularrean edo pluralean agertzea arazo bihur liteke hainbatetan.

Bestalde, morfologikoki ere kategoria ezberdinetako izenak topa daitezkeela aipatzen du.

(...) los NP no cuentan con ninguna limitación morfológica en su composición, ya que existen muchos “atípicos” en tanto están compuestos por palabras pertenecientes a otras categorías, de tal modo que sólo se consideran NP en formulaciones concretas referidas entes igualmente determinados. Me refiero a topónimos del tipo de “Sierra Nevada”, títulos de obras como *El principito*, apodos como “el Rata”, etc., cuya condición de NP no se deriva en absoluto de las palabras que lo forman, sino de su función social como tales (Franco Aixelá, 2000: 58).

Erreferentzia-irizpidea oso ohikoa da izen bereziak izen arruntetatik bereizteko. “Cuando alguien nos dice que un ente determinado se diferencia de otros de su misma clase por la denominación ‘X’, inmediatamente atribuimos a esa incógnita la condición de NP” (Franco Aixelá, 2000: 59). “Jone” izena duen pertsona ugari dago; ez dago bat eta bakarra munduan. Aitzitik, izen bereziak pluralean ere erabili litezke testuinguru jakinetan. “(...)

los NP que realmente tienen una referencia real única en términos absolutos son probablemente la excepción” (Franco Aixelá, 2000: 59).

Irizpide semantikoari dagokionez, sarritan esaten da izen bereziek inolako esanahirik ez dutela eta ez dutela izendatzen duten horren ezaugarririk ezagutzera ematen. Baina hainbat ikertzailek kontrakoa frogatu dute, Franco Aixelák edo Nordek esaterako. Hots, izen bereziek izendatzen dutenaren nondik norakoaz zantzuren bat eman, ematen dutela:

If we are familiar with the culture in question, a proper name can tell us whether the referent is a female or male person (*Alice - Bill*), maybe even about their age (some people name their new-born child after a pop star or a character of a film that happens to be *en vogue*) or their geographical origin within the same language community (e.g., surnames like *McPherson* or *O'Connor*, a first name like Pat) or from another country, a pet (there are “typical” names for dogs, cats, horses, canaries, etc., like *Pussy* or *Fury*), a place (*Mount Everest*), etc. (Nord, 2003: 183).

Ezaugarri objektiboez gain, badira hainbat konnotazio iradoki ditzaketen izenak ere, Vermesek ondorengo adibidearekin frogatzen duen moduan:

What happens, however, when you happen to hear about some person whose name is ‘Flower’? In this case, you will perhaps think, even though you may not know that person, that such a nice name must belong to a nice woman too. (Or, as was pointed out to me, that her parents must have belonged to the flower-power generation of the 60’s). In this example, then, the mentioning of the name has invited some expectation on your part as to the personality of the bearer of that name (or to the personality of her parents, for that matter). In other words, it has evoked certain connotations. You might argue that the proper name ‘Flower’ coincides in form with the common name ‘flower’ and it is only by virtue of this coincidence that the proper name has a ‘meaning’ (Vermes, 2001: 95).

Fernandesek ere, izenei identifikatzaile funtzioa emateaz gain eta erreferentzia puntu bakar direla esateaz gain, beste hainbat funtzio ere izan ditzaketela dio. “Therefore, names are viewed as mono-referential – they refer to a single entity – but not as mono-functional, since they may function as carriers, for instance, of semantic, semiotic, and/or sound symbolic meanings in literary works” (Fernandes, 2006: 45).

Hainbatetan, izen bat berezia edo arrunta den erabilerak esango digu. Eta zenbaitzuetan bata zein bestearen arteko muga oso lausoa izango da.

Whether a given noun is common or proper is not always easy to decide. There are borderline cases that could be classified either way. Also, a given noun may change category depending on how it is used. For

instance, a common noun referring to a given landscape feature may turn into a proper noun with a unique referent. Examples include names such as Saari 'island', Kymi 'large river' etc. (Särkkä, 2007).

Gure corpusean ere, muga oso lausoak ikusi ditugu. Hitz arruntetatik izen berezi eginiko hainbat adibide topatu dugu: Setatsua, izen berezi bihurturiko adjektiboa; edo Arratoia, izen berezi eginiko izen arrunta, esaterako. Bizkar Oker pertsonaiaren deitura ere ezaugarri fisiko horretatik sortua izan da. *Gorria eta Beltza* liburuaren izenburua ere bi koloreren izenez osatua dago, eta, beste testuinguru batean, ez litzateke izen berezi modura sailkatuko.

Hizkuntza bakoitzak bere konbentzio edo ohiturak ditu beste hizkuntza batzuetako izenak bereganatzerakoan, eta itzultzaileak horien arabera jokatu beharko du. Garai ezberdinetan ere modu ezberdinetara itzuli izan dira izen bereziak; batzuetan, transferentzia bitartez; beste batzuetan, itzulpen linguistikoz; beste hainbatetan, egokitzapen ortografikoa eginez; eta abar. Gaztelaniaz, esaterako, Franco Aixelák XX. mendea hiru garaitan banatzen du eta bakoitzean nola jokatu den azaldu:

A efectos de la evolución, cabe postular tentativamente dos épocas con una lógica fase de transición: la primera o época antigua partiría al menos de los años veinte hasta principios de los sesenta, luego se produce un periodo de transición hasta la segunda mitad de los setenta con una importante vacilación de las traducciones por defecto, y finalmente los últimos veinte años habrían dado paso a un marco moderno bastante diferente en las traducciones por defecto, marco que seguiría evolucionando en términos generales hacia una cada vez mayor conservación (Franco Aixelá, 2000: 230).

Ingelesez egun transferentziaren aldeko apustua dela nagusi aipatzen du Moyak, eta egokitzapena ez dela hainbeste erabiltzen.

En la cultura anglosajona, en cambio, hoy ya no se adaptan los nombres regioes extranjeras, sean pertenecientes a personas vivas o muertas, sino que se transfieren (cfr. Kingscott 1990:16). La única persona viva cuyo nombre sufre una adaptación al pasar al inglés es el Papa (John Paul II) (Moya, 2000: 40).

Itzultzaileak xede kulturaren indarrean dauden ohitura edo konbentzio horiek onartu ala ez erabaki beharko du. Erabiliko dituen itzulpen estrategiek itzultzaile bakoitzak zer nolako jokaera izan duen erakutsiko digute; jatorrizkoari begirako itzulpena eginez gero, egokitasunaren aldeko apustua egingo du; eta onargarritasuna hobetsiko du, xede kulturako ohiturak jarraituz gero.

Garaian garaiko joerak garrantzitsuak izan arren, ez dira erabiliko diren irizpide bakarrak. Elvira Cámarak dioen moduan, beste hainbat faktore ere

izan behar da kontuan. “There are more factors that make translation a singular exercise in every case. Thus, the text function and type of reader, for example, are decisive in decision making” (Cámara, 2008). Literatur-lan bat helduei edo haurrei zuzenduta egoteak, esaterako, itzultzailearen erabakia guztiz baldintzatuko du. Beraz, genero bakoitzeko ohiturak ere garrantzitsuak izango dira.

### 10.2.1.2 Izen berezien sailkapena: mota ezberdinak

Izen berezi batek edozer gauza izenda lezake, aurreko atalean ezagutzera eman dugun moduan; bai pertsonak, animaliak edo toki izenak, baina baita liburu edo pelikulen izenak ere. Batetik, beraz, izen prototipikoak izango genituzke; bestetik, berriz, edozein hitz motaz izenda litezkeen izaki edo elementuak.

At one end of the scale we find the most prototypical names, proper nouns, which supposedly lack any logical content but may carry several assumptions in their encyclopaedic entries. At the other extreme we have composite names made up of words from any of the lexical and grammatical word classes: nouns, adjectives, adverbs, even verbs, prepositions, articles, auxiliaries, and so on (Vermes, 2001: 104-105).

Bigarren mota horretako izenei Vermesek *phrasal names* deitzen die, eta, bere hitzetan, ez dute bereizgarririk gainerako esapide arruntekin. “What makes them names, eventually, is that they are *used* as such in the given context. It turns out, then, that a name is more of a pragmatic category than a semantic (or grammatical) one” (Vermes, 2001: 105). Beraz, izenen alderdi pragmatikoa kontuan izan beharreko ezaugarria da.

Aurrez esan bezala, izenek izaki edo elementu jakin bat izendatzen dute testuinguru jakin batean. Vermesek defendatzen duen moduan, “in theory, we may distinguish as many types of proper name as many classes of entities we can discern in the world” (Vermes, 2001: 105). Izen bereziak modu askotara sailka litezke. Batetik, esanahiaren arabera sailkatu ahal izango genituzke. Eta, horrela eginez gero, honako sailkapen posible bat lortuko genuke: pertsonaia izenak (ohikoak edo berariaz libururako sortuak); pertsonaia izen asmatuak (zentzua dutenak edo ezizenak); pertsonaia famatuak; toki izen asmatuak; toki izen ezagunak; izen berezi bihurturiko izen arruntak; jaien izenak; erlijioarekin loturiko izenak; mendiak, lakuak, ibaiak, itsasoak, kobazuloak, etab.; museoak, barkuak, zinema-aretoak, futbol zelaiak, etxe izenak, etab.; plazak, kaleak, etab.; marka izenak; historiako garaia; organizazioak, taldeak, etab.; espezieen izenak; artelanak, liburuak, kantu izenak, etab.; asmatutako artelanak; astronomiari loturiko izenak; beste batzuk.

Franco Aixeláren hitzetan, ordea, sailkapen tradizional hori ez zaio berebizikoa izango itzultzaileari. “En principio no tratará de forma distinta a una obra que se llame *Alfred* que a su antropónimo homónimo, al menos no



por el hecho de pertenecer a dichas categorías” (Franco Aixelá, 2000: 71). Izendatzen dutena ibai bat izan edo pertsona izen bat izan berdin izango zaio itzultzaileari, beste hainbat faktore garrantzitsuagoak izango baitzaizkio izena itzultzerakoan. Horrexegatik ikertzaile horrek itzultzailearentzat egokiagoa den sailkapen bat proposatzen digu: ohiko izen bereziak (*NP convencionales*) eta izen berezi adierazkorrak (*NP expresivos*).

Los convencionales (“Juan”, “París”, “García”) tienden a estar constituidos por palabras que carecen de carga semántica no gramatical aparte de su funcionamiento como NP, mientras que los expresivos tienden a estar formados o a incluir en su formación palabras pertenecientes a categorías con una carga semántica definida más allá de su pertenencia a un NP (“El libro del buen amor”; “Land’s End”; “(Ivan) el Terrible”) (Franco Aixelá, 2000: 72-73).

Azterketa testuari loturik egitea, beraz, garrantzitsua da, testuingururik gabeko irizpideez haratago. Hala ere, beste bi irizpide ere gaineratzen ditu bi multzoetan aplikatzekoak, eta horiek bai, nolabait, testuaz kanpoko irizpideak izango lirakekeela: izen berriak (*NP novedosos*) edo aurretiazko itzulpena duten izenak (*NP dotados de traducción prefijada*). Bereizketa hori garrantzitsua da, itzultzaileak ezberdin jokatu duen duelako batzuen ala besteen aurrean. Bigarren kasuan, aurretiazko itzulpenen bat egonez gero, itzultzaileak hori erabili ala ez erabaki beharko du, eta, gehienetan, erabiltzearen aldeko apustua egingo du. Lehenengoaren kasuan, berriz, erabaki posible ugari izango du eskura.

Kontsultaturiko lanetan, sailkapen osatuena eta itzulpenari loturik egokiena berau iruditu zaigu, eta kontuan izango dugu gure azterketan.

### 10.2.1.3 Izen berezien itzulpen-estrategiak

Ikertzaile ugari landu du izen berezien itzulpena, eta bakoitzak norbere estrategia-sailkapena eskaini du. Estrategia kopuru zabala bildu ahal izan dugu, eta, terminologia aldetik, hainbat arazorekin egin dugu topo, ez baitute guztiek izendapen bera erabiltzen estrategia berarentzat.

Jarraian, sailkapen horietariko batzuk aipatuko ditugu. Estrategia kopuru zabala bildu dute horietariko zenbaitek, eta gure proiektuaren helbururako zabalegiak izango zaizkigu. Labur-labur, esanguratsuenak aipatuko ditugu. Guztiak ikusi ondoren, gure lanean erabiliko dugun sailkapen murriztua emango dugu atalaren amaieran.

Christiane Nordek (2003) bederatzi itzulpen estrategia bereizi zituen HGLren itzulpenean: erreprodukzioa, kalkoa, exonimoa, egokitzapena, ordezkapena, neutralizazioa, izenik eza, omisioa eta, aparteko estrategia modura, anotazioa. Nahiko zerrenda zabala izan arren, ez ditu estrategia guztiak bere baitan bildu, gehikuntza esaterako, ez baita aipatzen.

Cámarak (2008), berriz, zortzi estrategia bildu ditu: kopiatzea, transkribapena, ordezkapena, itzulpena, ez itzulpena edo ezabatzea, izen

berezia izen arrunt bihurtzea, gehitzea eta izen arrunta izen berezi bihurtzea. Norden zerrendarekin alderatuz, anotaziorik ez du bere baitan bildu, eta transkribapenaren barruan bildu ditu Nordek exonimo eta egokitzapen modura sailkatutakoak.

Moyak (2000), ingelesetik gaztelaniaratutako kazetaritza testuen itzulpenak aztertu ostean, honako oinarritzko eskema eman zuen:

- a) nombre propio → el mismo nombre propio
  - b) nombre propio → diferente nombre propio
  - c) nombre propio → no nombre propio
  - d) nombre propio → 0 (omisión total)
  - e) no nombre propio → nombre propio
  - f) 0 (omisión total) → nombre propio
- (Moya, 2000: 173)

Ikus dezakegun moduan, ez du zehazten itzulpen estrategia jakinik, baizik eta itzulpen prozesuaren ondoren zein emaitza dugun erakusten du.

Vermesek (2001) ondorengo zortzi estrategiak identifikatu zituen: transferentzia, ordezkapena, transliterazioa edo naturalizazioa, itzulpena, moldaketa edo guztizko eraldaketa, izen osoa edo zati bat ezabatzea, izenari zati bat gehitzea edo gehikuntza osoa eta izenaren zentzua orokortzea.

Särkkäk (2007) jarraian agertzen direnak aipatzen ditu bere ikerlanean: jatorrizkotik aldatu gabe inportatzea, xede hizkuntzako sistema fonologiko edo grafologikora egokitzea, azalpen batekin zabaltzea, ezabatzea edo gehitzea izen berezia. Ikus dezakegunez, gainerakoekin alderatuta nahiko zerrenda laburra da honakoa.

Azkenik, Franco Aixeláren (2000) sailkapena izan da topatu dugun zabalena, guztira hamabi estrategia bildu baititu. Bi multzo nagusitan banatu ditu: kontserbazioa eta ordezkapena. Lehenengo multzoan honako sei estrategiak bildu ditu: errepikapena, egokitzapen ortografikoa, egokitzapen terminologikoa, itzulpen linguistikoa, glosa estratestuala eta glosa intratestuala. Bigarren multzoan, berriz, beste sei estrategia: neutralizazio mugatua, neutralizazio absolutua, naturalizazioa, egokitzapen ideologikoa, omisioa eta sorkuntza autonomoa (Franco Aixelá, 2000: 84). Kontserbazioaren eta ordezkapenaren bi muturrak oinarri harturik gauzatu du bere azterketa.

Ikus dezakegunez, itzulpen estrategia zabalera topatu dute guztiek ere, baina izendapenetan ez da batasun handiegirik nabari. Estrategiak ikertzaile bakoitzak aztertu duen errealitatera egokiturik agertzen dira. Horrela, esaterako, anotazioa edo glosa estratestualaren moduko estrategiak ez ditugu kasu guztietan topatu.

Gure azterketan ez zaigu estrategia kopuru zabalegia komeni, gure helburua ez baita ikerketa monografiko bat eginez horietako bakoitzak xede hizkuntzetan duen pisua aztertzea. Itzulpen mota bakoitzak zer nolako joera agertzen duen aztertu nahi dugu, eta, horretarako, estrategiak lau multzo

nagusitan banatzea nahikoa izango dugu: transferentzia, hots, izena jatorrizkotik xede testura bere horretan itzultzea; egokitzapena, ortografikoa edo kulturala, exonimoak edo tokian tokiko aurretiazko ordainak erabiltzea; itzulpen linguistikoa, izenaren zentzua mantenduz xede hizkuntzan ematea; eta, azkenik, itzulpen sortzailea, izen propioa modu sortzailean itzultzea, ezabatzea edo izen propioen bat gehitzea.

#### 10.2.1.4 Metodologia

Izen berezien azterketaren lehen fasean, izen horiek testuetan identifikatu behar izan ditugu, ondoren guztien zerrenda egin eta ordainen inguruko azterketa egin ahal izateko. Horretarako, testuz testu izen bereziak bilatu behar izan ditugu. Izen berezien ezaugarri nagusia, irizpide formalei dagokienez, gainerako hitzak ez bezala, letra larriz idazten direla da. Gure corpuseko hizkuntza guztietan horixe da euren bereizgarria, alemanez izan ezik. Hizkuntza horretan izen guztiak, bereziak zein arruntak, letra larriz idazten baitira. Beraz, kasu guztietan ezin izango dugu bilaketa modu bera erabili.

Izen berezien hainbat azterketa ikusita, bilaketak modu ezberdinetan egin daitezke; eskuz banaka-banaka, programa batzuen bitartez, lematizazioaren bitartez, etab. Gure corpusa gordina denez, eta inolako lematizaziorik izan ez duenez, bilaketa egitea nahiko lan nekeza suertatu da. Hasiera batean, Wordsmith Tools programaren Wordlist aukeraren bitartez egitea pentsatu genuen. Baina hasi aurretik hainbat arazo ikusi genizkion aukera horri: lehenengo eta behin, hitz zerrenda hitz bakarrekin soilik egin daiteke, eta, beraz, izen konposatuak (*Mary Ann* eta *Bizkar Oker*, kasu) ezin izango genituzke identifikatu; bestetik, hitz zerrenda horretan, hitz bakoitzeko hizki guztiak larriz agertzen dira, eta horrek ez du uzten lehen begiratuan letra larriz edo xehez idatziriko izenen arteko alderik ikusten; bestalde, hitzak testuinguruz kanpo agertzen direnez, ezin dugu identifikatu izen arruntez osaturiko izen bereziak zeintzuk diren. Honenbestez, aukera hori baztertu eta beste batzuk aztertu ditugu. Izen bereziak identifikatzeko programak garatzen ari dira hainbat alorretan. Horiek, baina, ez dituzte izen berezi mota guztiak bere baitan hartzen, sarritan, eta, oro har, hizkuntza handietan sortuak izan dira. Gure corpusean jatorrizko testuak euskaraz idatziak izanik, halako tresnek arazoak izango dituzte. Gainera, testuan zehar ez dira euskarazko izenak soilik agertzen, badira gaztelaniazkoak, ingelesezkoak, alemanezkoak etab. Bestalde, badira testu jakin batetarako berariaz izen berezi bihurturiko hitz arruntak ere. Beraz, horrelako tresna bat hankamotz geldituko litzateke modu guztietara.

Azkenean, Word testu prozesadorearen “bilatu” aukera erabili dugu; bertan hizki hizki egin dugu bilaketa, letra larria eta izartxoak bilatuz: A\*, B\*, etab. Hots, A maiuskulaz hasten den edozein hitz, B maiuskulaz hasten den edozein hitz, eta abar. Bilaketan, puntu ondorengo hitzak kentzea bururatu zitzaigun hasiera batean zarata handia kenduko genuelakoan, baina, modu

horretara, puntu ondoren agertzen diren izen berezirik aurkituko ez genukeenez, bada ez bada ere, bilaketa zabala egitea hobetsi dugu, hots, maiuskulaz hasten den hitz oro bilatzea. Beraz, erabiliriko modua ez da izan nahi bezain azkarra. Lematizazioa izango litzateke, automatikoki egiteko modurik izango balitz, izen berezien bilaketa egiteko modurik egokien eta eraginkorrena (arazo guztiak konpontzen ez dituen arren). Etorkizuneko azterketetan kontuan izan beharko litzateke.

Hasiera batean, bilaketa euskarazko jatorrizkoan soilik egitea nahikoa izango zela iruditu zitzaigun, baina kasuren batean euskaraz agertzen ez den izen propioen bat edo beste xede testuetan gehitu egin dela ikusi ahal izan dugu. Horregatik, bilaketa hizkuntza guztietan egitea iruditu zaigu egokiena, emaitza ahalik eta osatuena lortze aldera.

Hizkuntzaz hizkuntza berezitasunak eta oztopoak ere bilatu ditugu. Esan bezala, alemanaren kasua izan da muturrekoena. Hizkuntza horretako testuak osorik erreparatu behar izan ditugu ahalik eta emaitzarik fidagarriena lortze aldera. Hizkuntza erromanikoen artean, azentu markaz ere bilatu behar izan ditugu bokalak. Esaterako, “Los Ángeles” hiriaren izena A maiuskula azentu markaz bilatu ezean ez genukeen aurkituko. Bestalde, badira hizkuntza batzuetan asko errepikatzen diren hizkiak ere. Frantsesez, esaterako, lehenengo pertsonaren izenordea (*je*) esaldi askoren hasieran agertzen da, hizkuntza horretan sujeta nahi eta nahi ez adierazi behar baita aditz jokatu bakoitzeko. Beraz, “J\*” bilaketa oso astuna suertatu da. Modu berean, ingelesezko bere ordaina, “I”, izan esaldi hasieran edo erdian, beti agertu ohi da handiz, eta, modu berean, bilaketa hori ere oso astuna izan da. Hainbat hizkuntzatan, ingelesa kasu, herritar izenak ere (American, Basque, etab.) handiz ageri dira, eta horrek moteldu egin du prozesua.

Behin izen bereziak identifikatuta, agerpen kopurua zenbatzea izan dugu hurrengo egitekoa. Bilaketa Wordsmith programaren bi aplikazioren bidez egin dugu: Wordlist eta Concord. Lehenengoak testu batean edo gehiagotan agertzen den hitz guztien zerrenda egiten du, eta datuak bi modutara aurkezteko aukera ematen du: agerpen kopuruaren arabera edo ordena alfabetikoaren arabera. Bigarrenak hitz bat edo hitz multzo bat bilatzen du testu guztian zehar; agertzen den kasu bakoitzaren testuingurua ematen du, eta testuan zehar zenbat aldiz agertu den erakutsi. Batak zein besteak emaniko informazioa elkarren osagarri dira. Hitz zerrendak, esaterako, modu azkar batean eta lehen begiratuan ematen digu hitz bakoitzaren agerpen kopurua, eta bilaketa nahiko azkar egiteko aukera eskaintzen du. Hala ere, ez du bereizten hizki larri edo xeheen artean, eta, izen berezi bihurturiko hitz arrunten kasuan, nahitaezkoa da bereizketa hori agertzea. Concordek ere ez du hizki larri edo xeheen arteko diskriminazio aukerarik ematen. Honenbestez, Concorden bilaketa egin ostean emaitzak banaka-banaka erreparatu behar dira. Esaterako, katalanez “alemanya” agertu ala “Alemanya” ez da gauza bera; lehenengoak norbanakoaren herritartasuna agertzen du, eta bigarrenak, herrialdearen izena. Beraz, emaitzak banan bana begiratu ostean lortuko dugu zenbaki erreala.

Bestalde, hitz zerrendan hitzak banaka agertzen dira eta ezin da hitz elkartuen (*Mary Ann*, *Bizkar Oker*, etab.) bilaketarik egin. Horiek Concorden bidez bilatu ditugu. Concord aplikazioak hitz jakin bat bilatzen du eta deklinaturik dauden kasu guztiak pantailaratzeko edo hitz baten genero eta pertsona kasu guztiak ikusteko izartxo bat gehitu behar zaio hitz bakoitzari amaieran, “Manuel\*” esaterako. Nahiko modu errazean egin daiteke bilaketa, baina, hitz laburren kasuan, izartxoa gehituta zarata handia ere agertuko zaigu pantailan, “Mo\*”-ren kasuan bezala. Kasu honetan, hobe hitz zerrenda alfabetikoa hartu eta deklinabide kasuak gehitzea. Bilaketak egiterakoan ere, bi aplikazioek arazoak eman dizkigute katalanezko “l geminada” hizki elkarketarekin (l·l). Hitz berezi moduan ematen baititu elkarketa horren lehenengo eta bigarren zatiak; *Gal·les*, esaterako, Gal eta les modura ematen ditu bilaketak. Alemanez, berriz, hitz elkartu asko dago, baita hitz bereziak ere, eta horiek hitz kopuruaren barruan sartu behar dira, nahiz eta elkarketaren lehenengo edo bigarren zati izan. Bigarren zati denean, bilaketa izartxoa aurretik jarrita egin beharko litzateke. Bestalde, hizkuntza horretan izen arruntak ere hizki larriz idazten direnez, izen berezi bihurturiko hitz arruntak ere hizki larriz idazten direnez, izen berezi bihurturiko hitz arruntak ez da hain erraza, lehenengo begiratuan ezin baita bereizi zein den arrunta eta zein berezia. Berariaz esku artean ditugun testuetarako berezi bihurtu diren izen arruntez gain, badira beste hainbat ohikoagoak ere: “Valle doktoreak” (*Zeru horiek* liburuan) esaterako, gaztelaniazko testuan arazoak eman ditzake. Bukatzeko, kasuren batean edo bestean, bi pertsonaiek izen bera dute, eta izenen arabera bilaketa denez, ez dugu pertsonaien arteko bereizketarik egin halakoetan. *Gizona bere bakardadean* liburuan *Doro* izeneko aita- semeak agertzen dira, esaterako.

Identifikazio eta bilaketa prozesuak eta bertan izaniko arazoak nolakoak izan diren aipatu ostean, azterketa egiteko erabiliriko metodologiari ekingo diogu buru-belarri. Liburuz liburu egingo dugu azterketa, lehenengo eta behin. Bakoitzeko, bi taula osatuko ditugu: lehenengoa, izen guztien taula, hizkuntza guztietan izaniko moldaketekin eta ordena alfabetikoan emango dugu. Taula horretan, jatorrizkotik xede testuetara topatu ditugun moldaketak lau multzotan banatu ditugu, eta moldaketa horiek kolore banaz eman:

- Beltzez: transferentzia bidez itzuliriko izenak, hots, jatorrizkotik batere moldaketarik jaso ez duten izenak.
- Berdez: egokitzapenak, ortografiari dagozkion aldaketak edo exonimoak erabili dituztenak.
- Arroxaz: itzulpen linguistikoak, zentzua mantenduz xede hizkuntzara egokitu direnak.
- Urdinez: itzulpen sortzaileak edo xede hizkuntzan sortu edo desagerturiko izenak.

Bigarren taula batean, izen bakoitza zenbat aldiz agertu den hizkuntza bakoitzean ikusiko dugu, eta hizkuntzen artean alde nabarmenik egon den aztertuko dugu.

Taula bakoitzaren xehetasunak aztertu ostean, azterketa orokorrari ekingo diogu. Hizkuntza bakoitzak erakusten dituen ezaugarriak, estrategia ohikoena eta gutxien erabili direnak zeintzuk izan diren, oro har, errepikaturiko izenik izan ote den liburu ezberdinetan, izen bereziek aurretiazko itzulpenik ba ote duten eta abar ikusiko dugu. Azkenik, itzulpen mota ezberdinen arteko alderaketan sakontzeko gure helburuari izen berezien azterketa honek zer ekarpen egiten dion ikusiko dugu.

### 10.2.1.5 Liburuz liburuko deskribapena

Izen propioen azterketa aurkeztuko dugu jarraian, liburuz liburu. Aurreko ataletan egin bezala, liburuak kronologikoki ordenaturik sailkatu ditugu. Azterketa hau egiteko euskarazko testuak hartu ditugu jatorrizko modura eta horiekin alderatu ditugu gainerako testuak ere. Hemen agertuko ditugun datu nagusiak azterketa horretatik lortuak izan dira. Hala ere, ikerketaren aurreko urratsetan ikusi dugunez, euskarazko testua ez da beti iturri modura erabili itzulpenean eta, hortaz, alderaketa gaztelaniazko testuekin ere egin dugu, hots, gaztelaniazko testua eta gainerako hizkuntzetako testuekin<sup>69</sup>. Azterketa horien bitartez testuen arteko harremanen nolakotasunean sakontzea izan dugu helburu.

#### 10.2.1.5.1 *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*

Liburu honetan, Euskal Herritik Estatu Batuetara emigratutako gizon baten istorioa agertzen da. Narrazioa lehenengo pertsonan kontatzen du protagonistak bere zahartzaroan. Beraz, agertzen diren izenak euskarazkoak zein ingelesezkoak izango dira gehienbat. Guztira, 18 izen berezi topatu ditugu jatorrizkoan.

Liburu honen euskarazko testuan agertzen diren 18 izenetatik 11 transferentziaz igaro dira gaztelaniara, 4 egokitzapen izan dira, 2 itzulpen linguistiko eta itzulpen sortzaile 1. Horiez gain, beste 7 izen ere gehitu dira, itzulpen sortzaile modura sailkatu ditugunak. Azken hori, nahiko zenbaki altua iruditu zaigu gainerako estrategiekin alderaturik.

Ingelesezko bertsioari dagokionez, itzulpen sortzaile bakarra topatu dugu, 15 transferentzia eta 3 egokitzapen. Ikus dezakegunez, euskarazko jatorrizko izenak nagusiki transferentzia bidez igaro dira hizkuntza horretara.

Katalanezko lehenengo itzulpenean, galegozkoan, frantsesezkoan eta italierazkoan ageri diren datuak gaztelaniazkoaren oso antzerakoak dira, ia berdinak. Bestalde, katalanezko bigarren itzulpenean guztira 15

<sup>69</sup> Atal honetan erakusten diren taula guztiak euskarazko testua hartu dute erreferentzia. Azterketa osatze aldera, erreferentzia modura gaztelania duten taulak ere osatu ditugu; 2. eranskinean kontsulta daitezke horiek.

transferentzia, egokitzapen bat, bi itzulpen linguistiko eta 6 itzulpen sortzaile topatu ditugu. Datuok ikusirik pentsa daiteke lehenengoek gaztelaniazko bertsioa izan dutela oinarri eta azken honek euskarazkoa.

Euskarazkoaren ordeztu gaztelaniazko testua hartzen badugu erreferentzia modura, alde oso txikiak topatuko ditugu. Esaterako, itzulpen sortzaileak bat, bi edo batere ez dira izango katalanez, galegoz, frantsesez zein italieraz. Transferentzia kopurua, berriz, nabarmen handia izango da katalanezko lehenengo testuan (21), galegoaren kasuan (23) eta italieraz (21).

Liburuko protagonista Estatu Batuetan *Old Martin* ezizenez ezagutzen da, eta izendapen hori bere horretan mantentzen da gainerako hizkuntzetan ere. Baina *Martin* soilik agertzen denetan, katalanezko bigarren itzulpenean, frantsesezkoan eta ingelesezkoan izan ezik beste guztietan *Martin* agertzen da, azentu-marka eta guzti. Abizena, berriz, *Agirre*, gaztelaniazko grafiara egokitu da itzulpenean, eta hizkuntza horretako grafia mantendu da katalanezko bigarren itzulpenean eta ingelesezkoan izan ezik; horiek, euskarazko jatorrizko grafia erabili baitute. Datu horrek itzulpeneko oinarri euskarazko testua izan dela erakusten digu.

*Martin*-en emaztea izandako *Maria*-k *Martin*-en tankerako aldaketa jasan du. Hau da, izena bera mantendu egin da, baina azentu-marka gehitu zaio, gaztelaniazko grafiara egokituz. Honetan ere, katalanezko bigarren itzulpenean, frantsesezkoak eta ingelesezkoak ere jatorrizko euskal grafia mantendu dute, edo, bestela, bakoitzak bere grafiara egokitu du izena. Halako kasuek egokitzapenak zenbait hizkuntzatan duen garrantzia erakusten digute.

*Aitona Martin*-en herriko lagunak ezizenez ezagutu ditu irakurleak. Goitizen horiek beraien itxuraren adierazgarri dira: *Iharra*, lehendabizikoa, eta *Beltza*, bigarrena. Ezizen horiek ere itzuli egin dira, xede irakurleek goitizen horien zentzua jaso dezaten. Ingelesezko bertsioa izan da horiek euskaraz mantendu dituen bakarra. Euskarazko testuan ingelesezko hitz edo esapideak tartekatzen dira kontakizunean. Ingelesezko testuan, berriz, alderantziz gertatzen da; euskarazkoak txertatzen dira. Zentzu horretan, izen horiek transferitzean, aitona lagunaren izenak ziren bezala oroitzen dituela erakutsi nahia agertzen da.

Toki izenei dagokienez, exonimoak erabili dira xede hizkuntzetan: batzuetan jatorrizkoan agertzen den berdina, moldaketarik gabe (*Reno*, *Idaho*, etab.); beste batzuetan, xede hizkuntzetan ohikoa den moduan, *Irlanda*, esaterako, *Irland* da ingelesez. *Obaba* herri izena jatorrizkoan agertzen bada ere, katalanezko bigarren itzulpenean eta ingelesezkoan izan ezik gainerako itzulpen guztietan desagertu egin da. Horrek erakusten du, aipatu bi bertsioek jatorrizkoari nahiko gertutik eutsi diotela, gaztelaniazko bertsioaren aldean.

Ingelesezko pertsona izenei dagokienez, ez dute moldaketarik jasan, eta jatorrizkotik bere horretan transferitu dira. *Mickey Mouse*-i buruz ere hitz

egiten da, eta hizkuntza guztietan ingelesez ematen da hau, euskaraz agertzen den moduan, frantsesez izan ezik (laburtu egin da: *Mickey*).

Jatorrizkoan *Euskal Herria* izena agertzen ez bada ere, itzulpen guztietan egiten zaio erreferentzia tokiaren ingelesezko izendapenari: *Basque Country*. Ingelesez, behin soilik; katalanezko bigarren itzulpenean 7 aldiz, eta gainerakoetan, 9 aldiz. Euskarazko irakurleak badaki uneoro *Obaba* Euskal Herrian kokaturiko tokia dela, baina gainerako hizkuntzetan zehaztapena gehitu egin da. Gaztelaniazkoan askotan gehitu da zehaztapena, eta ondorioz, baita hori iturri modura erabili duten bertsoetan ere.

Bestalde, badira euskarazkoan agertzen ez diren sei izen propio, leku izenak zein pertsonaien izenak, gaztelaniazko itzulpenean sortuak izan direnak, eta, ondorioz, katalanezko bi itzulpenetan, galegozkoan, frantsesezkoan eta italierazkoan ere agertzen direnak. Horietariko izenen bat edo beste falta da katalanezko bigarrenean edo italierazkoan, baina oro har, bere horretan mantendu dira. Katalanezko bigarrenean agertzeak zera pentsarazten du, bertso hori egiterakoan itzultzaileak bi testuak aurrean izan dituela. Euskaratik eginiko ingelesezko itzulpena da izen propio horiek biltzen ez dituen itzulpen bakarra. Gaztelaniazko testuan gehituriko elementuek, agerpen kopuruari erreparatzen badiogu, ez dute garrantzia berezirik, behin edo bi aldiz soilik agertzen baitira testu guztian zehar. Hala ere, baliagarriak zaizkigu itzulpena nola egin den ikusteko kasu bakoitzean.



## 10-14 Taula. BL izenen taula

eus	Gazt	Kat1	Kat2	Gal	Fr	Ing	It
Agirre	Aguirre	Aguirre	Agirre	Aguirre	Aguirre	Agirre	Aguirre
Alaska	Alaska	Alaska	Alaska	Alaska	Alaska	Alaska	Alaska
Amerika/ Ameriketa	América	América	América	América / Américas	Amérique	America /States	America
Beltza	Negro	Negro	Negro	Negro	Noiraud	Beltza	Negro
Boise	Boise	Boise	Boise	Boise	Boise	Boise	Boise
Europa	Europa	Europa	Europa	Europa	Europa	Europe	Europa
Fort Knox	Fort Knox	Fort Knox	Fort Knox	Fort Knox	Fort Knox	Fort Knox	Fort Knox
Idaho	Idaho	Idaho	Idaho	Idaho	Idaho	Idaho	Idaho
Iharra	Flaco	Xuclat	Sec	Fraco	Efflanqué	Iharra	Flaco
Irlanda	Irlanda	Irlanda	Irlanda	Irlanda	Irlande	Ireland	Irlanda
Jimmy	Jimmy	Jimmy	Jimmy	Jimmy	Jimmy	Jimmy	Jimmy
Kathleen	Kathleen	Kathleen	Kathleen	Kathleen	Kathleen	Kathleen	Kathleen
Maria	Maria	Maria	Maria	Maria	Maria	Maria	Maria / Maria
Martin	Martin Aguirre	Martin Aguirre	Martin Aguirre	Martin Aguirre	Martin Aguirre	Martin	Martin Aguirre
Mickey Mouse	Mickey Mouse	Mickey Mouse	Mickey Mouse	Mickey Mouse	Mickey	Mickey Mouse	Mickey Mouse
Obaba	--	--	Obaba	--	--	Obaba	--

Old Martin	Old Martin	Old Martin	Old Martin	Old Martin	Old Martin	Old Martin	Old Martin	Old Martin
Reno	Reno	Reno	Reno	Reno	Reno	Reno	Reno	Reno
-	Basque Country	Basque Country	Basque Country	Basque Country	Basque Country	Basque Country	Basque Country	Basque Country
-	Roma	Roma	Roma	Roma	Roma	Rome	-	-
-	Rockefeller	Rockefeller	Rockefeller	Rockefeller	Rockefeller	Rockefeller	-	Rockefeller
-	Hollywood	Hollywood	Hollywood	Hollywood	Hollywood	Hollywood	-	Hollywood
-	Haití	Haití	Haití	Haití	Haití	Haití	-	Haití
-	Chevrolet	Chevrolet	Chevrolet	Chevrolet	Chevrolet	Chevrolet	-	Chevrolet
-	Nick Carter	Nick Carter	Nick Carter	Nick Carter	Nick Carter	Nick Carter	-	Nick Carter

Agerpen kopuruari dagokionez ere, aldeak nabari daitezke izen batzuen kasuan. *Jimmy* pertsonaia, adibidez, 24 aldiz aipatzen da euskarazkoan eta ingelesezkoan, berriz, 25 aldiz. Gainontzeko hizkuntza guztietan 40 inguru dira izen horri eginiko aipamenak. *Irlanda*-ren kasuan, berriz, euskarazkoan 11 aldiz agertzen bada ere, gainontzeko hizkuntzetan 5 aldiz edo gutxiagotan soilik agertzen da izen hori. *Iharra* 73 aldiz aipatzen da euskarazkoan eta gainontzeko hizkuntza guztietan, ingelesezkoan izan ezik (75 aldiz), 80tik gora aipamen izan ditu izen propioak. *Idaho*, euskarazkoan, behin soilik agertzen da, eta gaztelaniazkoan, katalanezko lehenengoan, galegozkoan, frantsesezkoan eta italierazkoan 4 aldiz agertzen da; katalanezko bigarreanean, 3 aldiz, eta behin soilik, ingelesezkoan.

10-15 Taula. BL izenen agerpen taula

	eus	gazt	Kat1	Kat2	Gal	fr	Ing	It
Agirre	2	1	1	3	1	1	2	1
Alaska	2	2	2	2	2	1	2	2
Amerika/ Ameriketa	17	18	18	19	16	16	12	18
Basque Country	-	9	9	7	9	9	1	9
Beltza	106	106	104	107	105	99	101	105
Boise	5	6	6	6	6	6	4	6
Chevrolet	-	1	1	1	1	1	-	1
Europa	2	2	2	2	2	2	2	2
Fort Knox	3	3	3	3	3	3	3	3
Haití	-	1	1	1	1	1	-	1
Hollywood	-	1	1	1	1	1	-	1
Idaho	1	4	4	3	4	4	1	4
Iharra	73	83	83	81	82	75	83	82
Irlanda	11	5	5	5	5	5	2	5
Jimmy	24	41	41	37	42	39	25	42
Kathleen	32	34	34	33	34	33	29	34
Maria	7	5	5	6	4	5	8	3+2 (i)
Martin	54	37+11 (i)	37+12(i)	43	43+3 (i)	48	53	41+8 (i)
Mickey Mouse	1	2	2	1	2	2	1	2
Nick Carter	-	1	1	1	1	1	-	1
Obaba	1	-	-	1	-	-	1	-
Old Martin	35	36	37	31	34	37	36	37
Reno	1	1	1	1	1	1	1	1
Rockefeller	-	1	1	-	1	1	-	1
Roma	-	1	1	1	1	1	-	-

Datuak ikusirik, gaztelaniazkoa nahiko itzulpen sortzailea izan dela esan dezakegu, eta aldea badela jatorrizkoaren eta bertsio horren artean: izen berrien gehikuntza, agerpen kopuruarekiko aldeak, grafiaren egokitzapena, etab.

Gainontzeko hizkuntzen kasuan, ingelesezkoa jatorrizkotik nahiko gertu nabaritzen da izen propioak mantentzerakoan. Xede hizkuntzan bertan erabiltzen diren izen internazionalak (aurretiazko itzulpena dutenak) soilik egokitu dira, hala nola *America* edo *Ireland*. Izen propioen agerpen kopuruari dagokionez, berriz, euskarazkoaren nahiko antzekoak izan dira.

Katalanezko lehenengo itzulpena, galegozkoa, frantsesezkoa eta italierazkoa gaztelaniazko bertsiotik eginak izan dira. Guztiek ere gaztelaniazko grafia hartu dute erreferentzia modura, eta, gehienetan, berau mantendu dute. Frantsesezkoan, azentu markak kendu eta xede hizkuntzara egokitu dituzte hainbat izen (*Maria*, *Martin*). Gainontzeko itzulpenen antzera, hizkuntza horietan ere internazionalki ezagunak diren izenak bakoitzak bere hizkuntzara egokitu ditu. Azkenik, gaztelaniaz gehitu diren izen berriak bertsio hauetan ere agertzen dira. Italieraz, *Roma* desagertu egin da; gainontzean, gehikuntza guztiak bere horretan mantendu dira. Itzulpen sortzaileak 7-9 artean izan dira.

Bukatzeko, katalanezko bigarren itzulpenean euskarazko izenen grafiak mantendu egin dira, jatorrizkoaren kutsua gordetze aldera. Beste guztietan bezala, internazionalki ezagunak diren izenak katalanera egokitu dira, eta *Beltza* eta *Iharra*-ren ezizenak ere itzuli egin dira, horien esanahia garrantzitsua delako liburuan. Gainontzean, gaztelaniaz sorturiko izen ia denak katalanezko itzulpen honetan ere agertu dira. Izenen agerpen kopuruari erreparatuz gero, gaztelaniazko kopuruetatik gertuxeago dabilela esan dezakegu. Lehen aipatu modura, 15 transferentzia, egokitzapen bat, bi itzulpen linguistiko eta 6 itzulpen sortzaile topatu ditugu eta. Itzulpen sortzaile horiek, gainera, gaztelaniaz gehituriko berak dira. Datu horiek pentsarazten digute, hortaz, itzultzaileak bi jatorrizkoak aurrean izan baditu ere, gaztelaniazkoa izan duela iturri nagusi.

#### **10.2.1.5.2 Sugeak txoriari begiratzen dihonean**

Lan labur honetan, guztira, zortzi izen berezi topatu ditugu euskarazko testuan: hiru pertsonaia nagusien izenak, animalia izen bat, hiru leku izen eta pertsonaia ezagun baten izena.

Datuak ikusirik eta hizkuntza guztietako itzulpen estrategiak kontuan izanik, orotara 38 transferentzia aurkitu ditugu, 10 egokitzapen, itzulpen linguistiko bat eta 22 itzulpen sortzaile euskarazko jatorrizkotik. Gaztelaniazko testua, katalanezko lehenengo bertsioa eta italierazkoa nahiko itzulpen sortzaileak dira, 12 izenetatik 6 itzulpen sortzaileak izan baitira. Gainera, katalanezko testu horretan eta italierazkoan transferentzia bidez igaro dira izen guztiak, gaztelaniazko testua hartzen badugu erreferentzia modura.

Katalanezko bigarren bertsioan, 7 izen igaro dira transferentzia bidez euskarazkotik, eta 2 itzulpen sortzaileak izan dira. Galegoz, berriz, 4 transferentzia izan dira, 3 egokitzapen (guztiak ere pertsonaien izenei dagozkien grafia moldaketak) eta itzulpen linguistiko zein sortzaile bana. Datuak ikusita itzulpen hau jatorrizkoari nahiko lotuta igaro dela ikusten dugu, nahiz eta egokitzapenak gainerako hizkuntzetan baino garrantzia handiagoa izan duen galegoz. Honenbestez, itzulpena zuzenean egin dela baieztatu dezakegu.

Ingelesezko bi bertsioetan, transferentzia izan da estrategia erabiliena, 7 eta 8 kasurekin hurrenez hurren. Lehenengoan, itzulpen sortzaile bat ere ageri da, eta, bigarrean, egokitzapen bat. Beraz, jatorrizko izenak bere horretan mantentzea izan da bietan ere arau.

Pertsonaia nagusiaren izenari (*Sebastian*) azentu marka gehitu zaio gaztelaniaz, katalanezko lehenengo itzulpenean, galegoz eta italieraz. Bere horretan mantendu da, berriz, katalanerako bigarren itzulpenean eta ingelesezko bi itzulpenetan. Agerpen kopuruan ez da alde nabarmenik ageri. Galegoz, kasu batean laburtu egin da izena eta *Sebas* modura agertzen da.

*Aitona Martin*-en kasuan ere, egokitzapen bera gertatu da hizkuntza berdinetan. Hots, gaztelaniaz, katalanezko lehenengo itzulpenean, galegoz eta italieraz azentu marka eta guzti ageri da izena; katalanerako bigarren itzulpenean eta ingelesezko bi itzulpenetan, berriz, azentu markarik gabe.

*Mariatxo* neskatoaren kasuan, itzulpen sortzailea topatu dugu gaztelaniaz, pertsonaiak *Marta* izena hartu baitu. Ondorioz, katalanezko lehenengo itzulpenean eta italieraz ere, *Marta* ageri da. Bestalde, katalanezko bigarren itzulpenean eta ingelesezko bietan, *Mariatxo* bere horretan agertzen da, eta galegoz, berriz, grafia egokituta, *Mariacho*. Jatorrizkoaren izenaren grafia xede testuan mantenduz, katalanean eta ingelesezkoetan bezala, nahiko modu errazean egiten da jatorrizkoaren oihartzuna xede testuan.

Astoaren izena, *Fangio*, eta *Obaba* eta *Terranova* leku izenek ez dute moldaketarik izan itzulpenetan, ezta *Robinson Crusoe* pertsonaia ezagunak ere. *Napoles* toki izena, berriz, ingelesezko bi itzulpenetan ageri da bere horretan, eta galegozkoan "napolitana"-gatik ordeztu da. Gainerako itzulpen guztietan, desagertu egin da hiriari eginiko erreferentzia.

Euskaraz agertzen ez zen izenik ere gehitu da zenbait xede hizkuntzatan. Euskarazko testuan aitona elizako salmo batzuk xuxurlatzen ari den bitartean, gaztelaniazko testuan *Lily Marleen* kantatzen ariko da. Erreferentzia guztiz aldatu da testu horretan, eta, ondorioz, abiapuntu modura gaztelaniazko testua erabili den kasuetan ere, erreferentzia hori guztiz eraldatuko da: katalanezko bi testuetan eta italierazko itzulpenean. Puntu honetan ikus dezakegu katalanezko bigarren itzultzailea gaztelaniazko testuari lotu zaiola.

Gaztelaniaz hiru izen-abizen ere gehitu dira une jakin batean: *Juan Garmendia*, *Alfredo Britz* eta *Ainhoa López*. Garrantzia handirik ez dute

---

kontakizunean, behin soilik aipatzen baitira, baina horiek katalanezko lehenengoan eta italierazko testuan ere agertuko dira.

10-16 Taula. STX izenen taula

Eus	Gazt	Kat1	Kat2	Gal	Ing1	Ing2	It
Aitona Martin	Abuelo Martin	Avi Martín	Avi Martin	Avo Martín	Aitite Martin	Grandpa Martin	Nonno Martin
Fangio	Fangio	Fangio	Fangio	Fangio	Fangio	Fangio	Fangio
Mariatxo	Marta	Marta	Mariatxo	Mariacho	Mariatxo	Mariatxo	Marta
Napoles	--	--	--	napolitanas	Napoles	Naples	--
Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba
Robinson Crusoe	Robinson Crusoe	Robinson Crusoe	Robinson Crusoe	Robinson Crusoe	Robinson Crusoe	Robinson Crusoe	Robinson Crusoe
Sebastian	Sebastián	Sebastián	Sebastian	Sebas / Sebastián	Sebastian	Sebastian	Sebastián
Sebastian Bera	Sebastián	Sebastián	Sebastian Bera	Sebastián Bera	Sebastian Bera	Sebastian	Sebastián
Terranova	Terranova	Terranova	Terranova	Terranova	Terranova	Terranova	Terranova
--	Ainhoa López	Ainhoa López	--	--	--	--	Ainhoa López
--	Alfredo Britz	Alfredo Britz	--	--	--	--	Alfredo Britz
--	Juan Garmendia	Juan Garmendia	--	--	--	--	Juan Garmendia
--	Lily Marlen	Lily Marlen	Lily Marlen	--	--	--	Lily Marlen

Izenen agerpen kopuruari erreparatzen badiogu, ez dugu alde nabarmenik topatu liburu honen itzulpenetan, guztietan ere nahiko antzera mantendu dira, jatorrizkoan agertzen ziren modura.

**10-17 Taula. STX izenen agerpen taula**

	eus	gazt	Kat1	Kat2	gal	Ing1	Ing2	It
Ainhoa López	-	1	1	-	-	-	-	1
Alfredo Britz	-	1	1	-	-	-	-	1
Fangio	11	10	10	10	11	11	11	10
Juan Garmendia	-	1	1	-	-	-	-	1
Lily Marlen	-	7	7	7	-	-	-	7
Mariatxo	29	-	-	29	29	29	25	-
Marta	-	31	31	-	-	-	-	31
Martin	26	24	24	25	23	23	20	24
Napoles	1	-	-	-	-	1	1	-
Obaba	16	14	14	14	15	16	17	14
Robinson Crusoe	1	2	2	2	1	1	1	1
Sebastian	81	80	79	79	80 / 1 (Sebas)	84	81	79
Terranova	11	11	11	11	11	11	11	11

Aurrez esan dugun moduan, gaztelaniazko bertsioa nahiko sortzailea izan da, izen erdiak izan baitira itzulpen sortzaile modura sailkatuak. Bertsio horretatik eginak izan diren katalanezko lehenengo itzulpenak zein italierazkoak oso gertutik eutsi diote iturri testuari, moldaketarik sartu gabe.

Aurreko liburuaren modura, datuek pentsarazi digute katalanezko bigarren itzulpena egiteko bi iturri erabili dituela itzultzaileak. Bertsio horretan ageri diren itzulpen sortzaileak gaztelaniazko testuan eginiko aldaketa berdinak izan dira: *Napoles*-en ezabaketa eta *Lily Marleen*-en gehikuntza. Ez dakigu zerikusi zuzenik izango ote duen, baina aldaketa jasan duten bi izenak euskaldunak ez diren bakarrak dira testu guztian. Horrek pentsarazten digu, jatorrizko hizkuntzako izen propioak direnak mantentzeko joera duela itzultzaileak; kanpoko izenekin, ordea, moldaketak errazago egiten dituela, kasu honetan gaztelaniazko iturriari lotutakoak.

Galegozko izenen itzulpen estrategiak ikusirik nahiko argi ondoriozta daiteke itzultzaileek euskarazko jatorrizkoa izan dutela oinarri. Hizkuntza horretan, egokitzapenerako joera nabari daiteke, batez ere pertsonaien izenei dagokienez. Azterketa honek erakutsi digu, hortaz, itzulpen modua, orain arteko paratestuen eta makroegituraren azterketetan argitu gabe zegoena.



Azkenik, ingelesezko itzulpen zuzenei dagokienez, itzultzaileek transferentzia bidez eman dituzte euren zuzeneko itzulpenak, batik bat. Horrek esan nahi du, nahiko gertutik eutsi diotela jatorrizko testuari.

### 10.2.1.5.3 *Bi anai*

Liburu honetan agertzen den izen berezi kopurua nahiko mugatua da; euskarazko testuan 10 soilik agertzen dira. Horietatik gehientsuenak bere horretan mantendu dira xede hizkuntzetan. Euskarazko testuan 10 izen berezi soilik ageri badira ere, xede hizkuntzetan 15-16 agertzen dira. Horrek erakusten du itzulpen nahiko sortzailea izan dela. Estrategiei dagokienez ere, erabiliena kasu guztietan itzulpen sortzailea izan da. Itzulpen sortzaile multzoaren barruan, gehikuntza izan da estrategiarik erabiliena: bai jatorrizkoan ez zeuden elementuak gehitzeagatik eta baita transposizioak erabiltzeagatik ere. Transferentzia 26 aldiz erabili da, guztira, 4tan egokitzapena eta 10 aldiz itzulpen linguistikoa. Xede hizkuntza guztietan zenbakiak berberak dira eta ez du ematen bat bestea baino sortzaileagoa izan denik.

Erreferentzia modura gaztelaniazko bertsioa hartuz gero, ez dugu itzulpen sortzailerik topatu. Gainerako hiru estrategietako kasuak bai: 43 transferentzia guztira, 9 egokitzapen eta 16 itzulpen linguistiko. Beraz, aurrez geneuzkan datuak, espero bezala, berretsi egin dira eta oso argi ikus daiteke guztiak ere gaztelaniatik eginiko itzulpenak izan direla. Gainerako xede hizkuntza horietan itzultzaileek euren “jatorrizkoari” heldu diote moldaketa handiegirik egin gabe.

Autoreak barne ahots bati buruz ere hitz egiten du, eta jatorrizkoan *Mintzoa* izena eman dio. Izen berezi hori, ordea, itzulpenetan hizki xehez idatzirik agertzen da, eta, beraz, hainbat zailtasun izan ditugu bilaketak egiterakoan, izen arrunt modura idatzirik baitago: voz, veu eta abarrak adiera berezian zein arruntetan nahastu egin dira.

Egokitzapenei dagokienez, pare bat adibide topatu ditugu. *Jainkoa*-ri edo *San Juan* egunari erreferentzia egiten zaienean, horiek xede hizkuntzetara egokitu dira, izena itzuliz edo moldatuz.

Itzulpen sortzaileei dagokienez, *Maria* pertsonaiaren izena, Pauloren eta Danielen ama, gaztelaniazko itzulpenean *Sara* bihurtu da, eta gainontzeko hizkuntzetan ere izen berri hori hartu du pertsonaiak.

*Amerika*-ri erreferentzia, itzulpenetan, *California* eta *Idaho* herrialdeen izenez ordeztu da. Bestalde, euskarazkoan agertzen ez ziren *Grezia*, *Valencia* eta *Magnificat de Palestrina* ere agertzen dira itzulpen guztietan.

Azken erreferentzia *Antonio*, *Don Ignacio* eta *Don Hipólito*-ri dagokie. Hiru pertsonaia horiek euskarazkoan ez dira izen bereziz agertzen: lehenengoari, “osaba” deitzen zaio; bigarrenari, “erretorea”, eta hirugarrenari, “zinta karreraren arduraduna”. Beraz, istorioan bertan

agertzen ziren pertsonaiei aurrez zehaztu gabeko izena eman zaie gaztelaniaz, eta, ondorioz, gainontzeko hizkuntzetan.

10-18 Taula. BA izenen taula

eus	Gazt	Kat	fr	ing	it
Amerikak	California o Idaho	Califòrnia o Idaho	Californie ou Idaho	California or Idaho	California o Idaho
Carmen	Carmen	Carmen	Carmen	Carmen	Carmen
Daniel	Daniel	Daniel	Daniel	Daniel	Daniel
Jainkoa	Señor	Senyor / Déu	Seigneur / Dieu	Lord / God	Signore / Dio
Maria	Sara	Sara	Sara	Sara	Sara
Mintzoa	(voz)	(veu)	(voix)	(voice)	(voce)
Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba
Paulo	Paulo	Paulo	Paulo	Paulo	Paulo
San Juan	San Juan	San Joan	Saint-Jean	St John	San Giovanni
Teresa	Teresa	Teresa	Teresa	Teresa	Teresa
(arduradun)	Don Hipólito	Senyor Hipólito	Don Hipolito	Don Hipolito	Don Hipólito
(erretorea)	Don Ignacio	Mossèn Ignacio	Don Ignacio	Don Ignacio	Don Ignacio
(osaba)	Antonio	Antonio	Antonio	Antonio	Antonio
--	Grecia	Grècia	Grèce	(Greek)	Grecia
--	Magnificat de Palestrina	Magnificat de Palestrina	Magnificat de Palestrina	Palestrina's Magnificat	Magnificat di Palestrina
--	Valencia	València	Valence	Valencia	Valencia

Izenen agerpen kopuruari dagokionez, aipagarria da horietariko hainbat euskaraz baino sarriago agertzen direla gainontzeko hizkuntzetan: *Obaba*, *Carmen* eta *Teresa*, esaterako. *Sara* ere *Maria* baino sarriago agertzen da itzulpenetan, gaztelaniaz hala gertatzen delako.

Liburu honen bereizgarrietako bat narratzailearekin lotuta dago. Narratzailea aldatzen doa atalez atal, eta guztietan ere animaliak dira; istorioaren testigu diren katagorriak edo sugearen modukoak. Beraien begiez ikusten dutena deskribatzen dute, eta, pertsonaiei izenez deitu beharrean, askotan, ikusten dituzten ezaugarrien arabera izendatzen dituzte: beltzez jantzitako gizona, barre itxusiko neska edo buru handia. Hainbatetan, euskarazko testuan izena gutxiagotan agertzea transposizioekin lotuta egongo da, hots, euskaraz deskribapena agertzen zen lekuan xede hizkuntzetan izen bereziz ordeztu izanarekin. Ikusi egin beharko litzateke estiloaren aldetik zer nolako moldaketa ekarri duen bata zein bestea erabiltzeak. Hala ere, arrazoi horretaz gain, gehikuntza arrunta ere agertzen da.

10-19 Taula. BA izenen agerpen taula

	eus	gazt	kat	fr	ing	It
Ameriketa	1	--	--	--	--	--
California	-	1	1	1	1	1
Carmen	44	94	91	93	95	93
Daniel	179	179	176	173	192	175
Grecia	-	1	1	1	(1)	1
Idaho	-	1	1	1	1	1
Jainkoa	3	1 <sup>70</sup> +2	1+2	1+2	1+2	2+2
Magnificat de Palestrina	-	1	1	1	1	1
Maria / Sara	6	12	12	12	12	11
Mintzoa	35	75 (-14) <sup>71</sup>	88 (-30) <sup>72</sup>	83 (-29) <sup>73</sup>	76 (-24)	74 (-16)
Obaba	31	45	45	44	44	43
Paulo	259	242	240	238	256	242
San Juan bezpera	3	4	4	4	4	4
Teresa	41	71	69	69	75	70
Valencia	-	2	2	1	2	2
(arduradun) / Don Hipólito	(4)	2	2	2	2	2
(erretorea) / Don Ignacio	(10)	16	13	16	16	16
(osaba) / Antonio	(8)	6 / (12) <sup>74</sup>	6 / (12)	6 / (13)	6 / (12)	6 / (12)

Datuak aztertu ostean, gaztelaniazkoa nahiko itzulpen sortzailea dela esango genuke. Ikusi dugun moduan, testuan agertzen ez ziren sei izen gehitu dira, eta beste bi erabat aldatu. Agerpen kopuruak ere nabarmen aldatu dira zenbait kasutan. Hori horrela izanik, Atxagaren autoitzultzaile rola nabarmen geratu da: beste edozein itzultzailek txertatuko ez lituzkeen moldaketak gehitu ditu autoreak testuan.

Gainerako hizkuntzei dagokienez, itzultzaileak erabili duten jatorrizkoari oso loturik agertu dira, hots, gaztelaniari. Aurrez geneuzkan datuak berretsi dizkigu, beraz, azterketa honek.

<sup>70</sup> *Señor* hitzak beste adieretan ere agertzen dira hitz zerrendan, berdina beste hizkuntzetan ere (ing ez).

<sup>71</sup> Parentesi artean agertzen direnak ez dira *Mintzo*-ren zentzu berean erabiltzen, hau da, *voz*, *veu* edo dena delakoaren erabilera arrunta egiten da.

<sup>72</sup> Katalanez *veu* ahots edo mintzo izateaz gain ikusi aditzaren 3. pertsona singularra ere bada orainaldian; beraz, ezin izen modura bakarrik bereizi lematizatu gabe.

<sup>73</sup> Frantsesez *voix* singularra zein plurala izan daiteke eta horrek arazoak ere ematen ditu.

<sup>74</sup> *Osaba* hitza agertzen den kasuak (*Antonio*-rekin batera agerturikoak ere barruan sartuta).

#### 10.2.1.5.4 Obabakoak

Corpusean, liburu honetako 3 ipuineko lagina bildu dugu, eta, ipuinak elkarren artean independenteak direnez, izen zerrenda ipuinka egin dugu. Agerpen kopuruari dagokionez, berriz, guztiak bateraturik egin dugu bilaketa errazagoa suerta dakigun.

Datu gordinei dagokienez, itzulpen estrategia erabiliena transferentzia izan da kasu guztietan, 201 kasurekin. Ondoren, itzulpen sortzailea izan dugu, 160 kasurekin, eta, jarraian, egokitzapenak, 150 kasurekin. Itzulpen linguistikoak 28 besterik ez dira izan.

Itzulpen sortzaile kopuru nahiko handia topatu dugu, zenbaki horien arabera. Maila ezberdinetan bana litezke multzo horren barruan sartu ditugunak. Esaterako, gaztelaniaz 5 kenketa, 15 gehikuntza eta 2 eraldaketa topatu ditugu. Horietaz gain, frantsesez transposizio bat ere topatu dugu, eta ingelesez zein alemanez, gehikuntza partziala ere bai.

Erreferentzia modura gaztelaniazko testua hartzen badugu, hemen ere transferentziak hartuko du pisurik nabarmenena, 253 kasu guztira, eta, ondoren, egokitzapen kopuru zabala topatuko dugu, 122 guztira. Itzulpen linguistikoari dagokienez, 51 kasu izango dira, eta, azkenik, 8 itzulpen sortzaile besterik ez (bana frantsesez, alemanez eta italieraz eta 5 ingelesez).

Izen berezien kopurua ere euskaraz 59koa zen, eta, gaztelaniaz, 72koa. Gainerako hizkuntza ia guztietan ere, 72koa izango da. Frantsesez, berriz, 74koa. Gainerako xede hizkuntzek gaztelaniazkoa izan dutela oinarri erakusten du datu horrek, aurrez genekien moduan.

Lehenengo ipuinean, erreferentzia erlijioso ugari agertzen da, ipuineko protagonistetariko bat erretorea baita. Horrela, santu izenak edo Jainkoari erreferentziak xede hizkuntzetara egokitu dira. *Javier* umearen izena, santuaren izena daramana, mantendu egin da xede hizkuntza guztietan, galegozkoan izan ezik. *Matias* pertsonaiari, berriz, azentu marka gehitu zaio gaztelaniaz, eta horrela mantendu da gainerako xede hizkuntzetan, alemanez izan ezik; hizkuntza horretan egokitu egin baitute.

Itzulpen sortzaileei dagokienez, euskarazkoan agertzen ziren *Jesus*, *Monrad* eta *San Jose* ezabatu egin dira eta gaztelaniaz *Loyola* eta *Solino* gehitu. *Loyola*-ri dagokionez, ingelesezkoan *Jesuit*-ez ordeztu da, esan nahi dena errazago identifika dezan xede irakurleak, eta italieraz, berriz, desagertu egin da. Ingelesezkoan, *Camilo Lizardi* izena ezabatu egin da.

Bigarren ipuinean, “Post tenebras spero lucem” izenekoan, toponimo ugari agertzen da, eta gehientsuenak Euskal Herriz kanpoko tokiei dagozkie. Guztiak ere exonimoen bidez egokiturik agertzen dira xede hizkuntzetan. Bestalde, badira itzulpenetan moldez izen berezi modura ageri diren hainbat elementu: *Su mejor amigo*, *Confuso Corazón* edo *Corazón Asustado*. Elementu horiek, euskarazkoan agertzen badira ere, ez dira izendapen jakin batez ematen, eta ez dira izen berezi modura sailkatu, honenbestez. Bihotz

nahastua, esaterako, euskaraz 3 aldiz soilik agertzen da, itzulpenetan ordainak 7 aldiz agertzen diren bitartean.

Bost bataio-izen (*Cristina, Carlos, María, Ignacio* eta *David*) gehitu dira gaztelaniazko bertsioan, eta gainerako bertsioetan mantendu. Izen horiek behin soilik agertzen dira eta ez dute pisu berezirik narrazioan, nahiz eta xede hizkuntzetan agertzea gaztelaniazkoaren bitartekaritzaren seinale izan.

“Esterban Werfell” ipuinaren kasuan, hainbat egokitzapen ortografiko topatu dugu itzulpenetan; horietariko gehientsuenak alemanezko izenak izan dira, eta alemanezko testuan moldatu dira batik bat. Esaterako, protagonistaren abizenari bigarren “l”-a ezabatu zaio. *Eichendorf* elkarreak euskarazkoan amaierako “f” bakarria agertzen duen bitartean, itzulpen guztietan birekin agertzen da: gaztelaniaz gehitu ondoren bitartekaritza horren zantzuak azaltzen dira, hortaz, gainerakoetan. *Maria Vöckel* neskatoaren abizena ere Umlaut gabe agertzen da xede hizkuntza guztietan. *Johameshof* kalearen izena alemanez egokitu egin da, eta *Johanneshof* bilakatu. Gainera, bai alemanez eta baita ingelesez ere, kalearen erreferentzia alemanez gehitu zaio atzetik (*Johameshofstrasse* ingelesez eta *Johanneshofstraße* alemanez). *Binnen* lakua *Binnensalter* bilakatu da ingelesezko zein alemanezko bertsioetan. Ikus dezakegunez, alemanez batik bat, bere kultura propioko izenak direnak moldatu egin dira, jatorrizkoan zegoenaren onargarritasuna lortzeko egokitzapena beharrezkoa dela iritzita.

Egokitzapen horiez gain, bada aldaketa sortzaileagorik ere. Batetik, *Theodor Vogel* pertsonaiaren abizena *Steiner* bihurtu da. Bestetik, *Gorria* pertsonaiaren ezizena, bere ile gorriari erreferentzia egiten diona, *Andrés* bilakatu da gaztelaniazko testuan, eta ondorioz, baita beste itzulpenetan ere. Galegoz soilik egokitu da izena, *André*. Ezizenak iradokitzen duena guztiz ezabatu da pertsonaiari ponte-izen berria emanez.

## 10-20 Taula. OBB izenen taula

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	Ing	Ale	It
Camilo Lizardi	Camilo Lizardi	Camilo Lizardi	Camilo Lizardi	Camilo Lizardi	--	Camilo Lizardi	Camilo Lizardi
Eclesiastes	Eclesiastés	Eclesiastès	Eclesiastés	Eclésiaste	Eclesiastes	Eclesiastes	Eclesiaste
Francisco santua	Francisco	Francesc	Francisco	François	St Francis	Heiligen Franz Xavier	Francesco
Gure Jauna	Dios Nuestro Señor	Déu Nostre Senyor	Deus o Noso Senhor	Notre Seigneur / notre Père	God our Father	Gottvater, Unser Herr	Signore nostro
Jainkoa / Jaincoa	Dios	Déu	Deus	Dieu	God	Gott	Dio
Javier	Javier	Javier	Xavier	Javier	Javier	Javier	Javier
Jesus	--	--	--	--	--	--	--
Laplace	Laplace	Laplace	Laplace	Laplace	Laplace	Laplace	Laplace
Lizardi	Lizardi	Lizardi	Lizardi	Lizardi	Lizardi	Lizardi	Lizardi
Matias	Matias	Matias	Matias	Matias	Matias	Matias	Matias
Monrad	--	--	--	--	--	--	--
Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba
San Jose	--	--	--	--	--	--	--
Sion	Sion	Sió	Sión	Sion	Zion	Zion	Sion
(holandarra)	(holandesa)	(holandès)	(holandesa)	Hollande	--	--	(olandesa)
--	Loyola	Loiola	Loyola	Loyola	(Jesuit)	Loyola	--

	Solinus	Solinus	Solino	Solinus	Solinus	Solino
--						
Afrika	África	África	Áfrique	Africa	Afrika	Africa
Albania	Albania	Albania	Albania	Albania	Albania	Albania
Ameriketa	América	América	Amérique	America	Amerika	America
Anibal	Anibal	Annibal	Hannibal	Hannibal	Hannibal	Annibale
Asia	Asia	Àsia	Asie	Asia	Asien	Asia
Canton	Cantón	Canton	Canton	Canton	Kanton	Canton
Cartago	Cartago	Cartago	Carthage	Carthage	Karthago	Cartagine
Chungking	Chungking	Chongqing	Chongking / Chungquing	Chungking	Chungking	Chungking
Dalmau Carles	Dalmau Carles	Dalmau Carles	Dalmau Carles	Dalmau Carles	Dalmau Carles	Dalmau Carles
Dinamarca	Dinamarca	Dinamarca	le Danemark	Denmark	Dänemark	Danimarca
Egipto	Egipto	Egipte	Egypte	Egypt	Ägypten	Egitto
Erroma	Roma	Roma	Rome	Rome	Rom	Roma
Himalaya	Himalaya	Himálaia	Himalaya	Himalayas	Himalaya	Himalaya
Hong Kong	Hong Kong	Hong Kong	Hong-Kong	Hong Kong	Honkong	Hong Kong
Manuel	Manuel	Manuel	Manuel	Manuel	Manuel	Manuel
Melanargia Russiae	Melanargia Russiae	Melanargia Russiae	Melanargia Russiae	Melanargia russiae	Melanargia Russiae	Melanargia Russiae

Moro	Moro	Moro	Moro	Moro	Moro	Moro	Moro	Moro	Moro	Moro
Mugats	Mugats	Mugats	Mugats	Mugats	Mugats	Mugats	Mugats	Mugats	Mugats	Mugats
Nanking	Nanking	Nanquin	Nanqing / Nanquin	Nankin	Nanking	Nanking	Nanking	Nanking	Nanking	Nanchino
Nilo	Nilo	Nil	Nilo	Nil	Nile	Nil	Nil	Nil	Nil	Nilo
Nymphalis Antiope	Nymphalis Antiope	Nymphalis antiope	Nymphalis Antiope	Nymphalis Antiope	Nymphalis antiope	Nymphalis antiope	Nymphalis Antiope	Nymphalis Antiope	Nymphalis Antiope	Nymphalis Antiope
Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba	Obaba
Otxoa	Otxoa	Otxoa	Ochoa	Ochoa	Ochoa	Ochoa	Ochoa	Ochoa	Ochoa	Ochoa
Pakistan	Pakistan	el Pakistan	Paquistán	le Pakistan	Pakistan	Pakistan	Pakistan	Pakistan	Pakistan	Pakistan
Pekin	Pekin	Pequin	Pequin	Pékin	Peking	Peking	Peking	Peking	Peking	Pechino
San Juan	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Shangai	Shangai	Xangai	Shangai	Shangai	Shanghai	Shanghai	Schanghai	Shanghai	Shanghai	Shangai
Taiwan	Taiwan	Taiwan	Taiwan	Taiwan	Taiwan	Taiwan	Taiwan	Taiwan	Taiwan	Taiwan
Txina	China	Xina	China	Chine	China	China	China	China	China	Cina
Vanessa	Vanessa	Vanessa	Vanessas	Vanessa	(red admiral)	Vanessis	Vanessis	Vanessis	Vanessa	Vanessa
(bihotz nahastua)??	Confuso Corazón Cor	Confús / Confós Cor	Toldado Corazón Coeur Confus	Her Confused Heart	Her Confused Heart	Herz Verwirrt	Herz Verwirrt	Cuore Confuso	Cuore Confuso	Cuore Confuso
(lagunik lagunena)	Su Mejor Amigo Amic	EL Seu Millor Amic	O Seu Mellor Amigo	Son Meilleur Ami Her Best Friend	MEINEN BESTEN FREUND	Suo Miglior Amico	Suo Miglior Amico	Suo Miglior Amico	Suo Miglior Amico	Suo Miglior Amico



	Gran Prueba	Gran Prova	Gran Proba	Grande Epreuve	Great Test	GROSSEN HERAUSFORDERU	Grande Prova
-	Corazón Asustado	Cor Espantat	Corazón Asustado /	Coeur Effrayé	Frightened Heart	GEQUÄLTEN HERZEN	Cuore Spaventato
-	María	María	María	María	María	María	María
-	Ignacio	Ignacio	Ignacio	Ignacio	Ignacio	Ignacio	Ignacio
-	David	David	David	David	David	David	David
-	Carlos	Carlos	Carlos	Carlos	Carlos	Carlos	Carlos
-	Cristina	Cristina	Cristina	Cristina	Cristina	Cristina	Cristina
-	Clyandra	Clyandra	Clyandra	Clyandra	Clyandra	Clyandra	Clyandra
--	Falena	Falena	Falena	Phalena	Falena	Falena	Falena
-	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----
Alemania	Alemania	Alemania	Alemaña	Allemagne	Germany	Deutschland	Germania
Binnen lakua	Binnen	Ilac Binnen	Iago Binnen	lac Binnen	Binnenalster lake	Binnenalster	Binnen
Buschstrasseko Opera	Buchstrasse	Òpera de Buschstrasse	Ópera de Buschstrasse	Opéra de la Buschstrasse	opera house in Buschstrasse	Buschstraße	Buschstrasse
Eichendorff	Club Eichendorff	Club Eichendorff	Club Eichendorff	Club Eichendorff	Club Eichendorff	Club Eichendorff	Club Eichendorff
Esteban	Esteban	Esteban	Esteban	Esteban	Esteban	Esteban	Esteban
Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell	Esteban Werfell
Gorria	Andrés	Andrés	André (Andrés)	Andrés	Andrés	Andrés	Andrés
Hamburgo	Hamburgo	Hamburgo	Hamburgo	Hambourg	Hamburg	Hamburg	Amburgo



Agerpen kopuruei erreparatzen badiegu, desadostasun dezente topatu dugu. *Obaba* herriaren izena euskaraz 40 aldiz soilik agertzen da, itzulpenetan 52-55 aldiz agertzen den bitartean. Lehenengo ipuinean agertzen den *Javier* euskaraz 13 aldiz agertzen da, eta, itzulpenetan, 23 eta 26 artean. *Albania* ere euskarazkoan itzulpenetan baino (19-25 aldiz) gutxiagotan agertzen da, 16 aldiz. *Mugats* ingelesez behin bakarrik agertzen da, eta, gainerakoetan, 11 eta 13 artean. Hirugarren ipuinari dagokionez, aipagarria da *Werfell* abizena euskaraz askoz gehiagotan agertzea, 42 aldiz, itzulpenetan baino, 23-24 artean. Azpimarragarria da alemanaren kasua, 26 aldiz soilik agertzen baita. *Hamburgo*-rekin ere antzerako zerbait gertatzen da, euskaraz 28 aldiz agertzen den bitartean itzulpenetan 20-22 artean soilik agertzen baita. *Gorria*-ren izenarekin ere gauza bera gertatzen da, 23 aldiz ageri baita jatorrizkoan eta gainerako bertsioetako *Andrés* (edo *André*) 16-17 aldiz soilik. Alderantzizko kasua genuke *Maria Vöckel*-ena: euskarazkoan 17 aldiz soilik agertzen den bitartean xede hizkuntzetan 23 eta 27 artean agertzen da eta. *Maria* izena, gainera, ipuin honetan azentu marka gabe agertzen da baina bigarren ipuinean gaztelaniazkoan gehitu den *María*, behin soilik agertzen dena, azentu marka eta guzti agertzen da.

10-21 Taula. OBB izenen agerpen taula

	eus	Gazt	Kat	Gal	fr	ing	ale	it
Afrika	4	4	3	4	4	4	4	4
Albania	16	21	21	21	22	25	19	23
Alemania	3	2	2	2	2	2	2	2
Amerika	1	2	2	2	2	2	3	2
Anibal	6	4	4	4	4	4	4	4
Asia	5	5	5	5	5	5	5	5
bihotz nahastua	3	6+1 <sup>75</sup>	4+2+1 <sup>76</sup>	6+1 <sup>77</sup>	7	7	7	7
Binnen lakua	1	1	1	1	1	1	1	1
Buschstrasseko Opera	1	2	2	2	2	2	2	2
Cabo Desolación	--	2	2	2	2	2	2	2
Camilo Lizardi	4	1	1	1	1	--	1	1
Canton	1	1	1	1	1	1	1	1
Carlos	--	1	1	1	1	1	1	1
Cartago	2	2	2	2	2	2	2	2
Chunking	3	3	3	1+1 <sup>78</sup>	3	3	3	3
Clyandra	--	1	1	1	1	1	1	1
Corazón	--	3+1 <sup>79</sup>	3+1 <sup>80</sup>	3+1 <sup>81</sup>	4	4	4	4

<sup>75</sup> 6 aldiz, *Confuso Corazón*, eta, behin, *Corazón Confuso*.

<sup>76</sup> 4 aldiz, *Confús Cor*, 2 aldiz, *Confós Cor*, eta, behin, *Cor Confós*.

<sup>77</sup> 6 aldiz, *Toldado Corazón*, eta, behin, *Corazón Toldado*.

<sup>78</sup> Behin, *Chungquín*, eta, beste behin, *Chungquing*.

Asustado								
Cristina	--	1	1	1	1	1	1	1
cuesta de los canónigos	--	1 <sup>82</sup>	1 <sup>83</sup>	1 <sup>84</sup>	1	1	1	1 <sup>85</sup>
Dalmau Carles	1	1	1	1	1	1	1	1
David	--	1	1	1	1	1	1	1
Dinamarca	1	1	1	1	1	1	1	1
Eclesiastes	1	1	1	1	1	1	1	1
Egipto	1	1	1	1	1	1	1	1
Eichendorf	3	4	4	4	4	4	4	4
Erroma	1	1	1	1	1	1	1	1
Esteban	40	44	43	43	43	45	46	45
Esteban Werfell	20	21	20	21	19	21	18	21
Falena	--	1	1	1	1	1	1	1
Francisco santua	1	1	1	1	1	1	1	1
Gorria	23 <sup>86</sup>	16	16	15+1 <sup>87</sup>	16	16	16	17
Gran Prueba	--	1	1	1	1	1	1	1
Gure Jauna	1	1	1	1	1	1	1	1
Hamburgo	28	21	21	21	21	22	20	21
Himalaya	1	1	1	1	1	1	1	1
Holanda	-- <sup>88</sup>	-- <sup>89</sup>	-- <sup>90</sup>	-- <sup>91</sup>	1	--	--	1
Hong Kong	1	1	1	1	1	1	1	1
Ignacio	--	1	1	1	1	1	1	1
Jainkoa / Jaincoa	1+5	6	6	6	4	6	4 <sup>92</sup>	3
Javier	13	24	24	24	24	26	23	24
Jesus	1	--	--	--	--	--	--	--
Johameshof	8	7	7	7	7	7	2+5 <sup>93</sup>	7

<sup>79</sup> 3 aldiz, *Asustado Corazón*, eta, behin, *Corazón Asustado*.

<sup>80</sup> 3 aldiz, *Espantat Cor*, eta, behin, *Cor Espantat*.

<sup>81</sup> 3 aldiz, *Asustado Corazón*, eta, behin, *Corazón Asustado*.

<sup>82</sup> Dena segidan ez.

<sup>83</sup> Dena segidan ez.

<sup>84</sup> Dena segidan ez.

<sup>85</sup> Dena segidan ez.

<sup>86</sup> Beste zortzi aldiz, *gorri* kolore modura.

<sup>87</sup> Behin, *Andrés*, eta, beste 15etan, *André*.

<sup>88</sup> Behin, *holandar*.

<sup>89</sup> Behin, *holandés*.

<sup>90</sup> Behin, *holandès*.

<sup>91</sup> Behin, *holandesa*.

<sup>92</sup> *Gott* hitzarekin hainbat hitz konposatu daude horiez gain, 7 kasu guztira.

<sup>93</sup> Bi aldiz, *Johanneshof*, eta, beste 5 aldiz, *Johanneshofstraße*.

Joseph Eichendorff	--	1	1	1	1	1	1	1
Laplace	1	1	1	1	1	1	1	1
Lizardi	7	10	10	9	10	11	10	11
Loyola	--	2	2	2	2	-- <sup>94</sup>	2	1
Manfred	1	--	--	--	--	--	--	--
Manuel	22	24	24	24	24	12	24	24
María	28 <sup>95</sup>	1+29 <sup>96</sup>	1+28 <sup>97</sup>	1+29 <sup>98</sup>	1+29 <sup>99</sup>	1+29 <sup>100</sup>	30 <sup>101</sup>	30 <sup>102</sup>
Maria Vöckel	17	25	24	26	26	26	23	27
Matias	18	16	16	16	16	16	14	16
Melanargia Russiae	1	1	1	1	1	1	1	1
Monrad	1	--	--	--	--	--	--	--
Moro	6	7	7	7	7	7	7	7
Mugats	13 <sup>103</sup>	11 <sup>104</sup>	11 <sup>105</sup>	11 <sup>106</sup>	11 <sup>107</sup>	1	11 <sup>108</sup>	14 <sup>109</sup>
Nanking	2	2	2	1+1 <sup>110</sup>	2	2	2	2
Nilo	1	1	1	1	1	1	1	1
Nymphalis Antiopa	2	2	2	2	2	2	2	2
Obaba	40	53	53	52	52	53	55	53
Otxoa	4	4	4	4	4	4	4	4
Pakistan	1	1	1	1	1	1	1	1
Pekin	5	5	5	5	5	5	5	5

<sup>94</sup> *Loiola*-ren ordez, *jesuit* agertzen da.

<sup>95</sup> Guztiak, "Esteban Werfell" ipuinekoak.

<sup>96</sup> Behin, azentu marka eta guzti "Post tenebras spero lucem" ipuinean, eta, beste 29 alditan, azentu marka gabe "Esteban Werfell" ipuinean.

<sup>97</sup> Behin, azentu marka eta guzti "Post tenebras spero lucem" ipuinean, eta, beste 28 alditan, azentu marka gabe "Esteban Werfell" ipuinean.

<sup>98</sup> Behin, azentu marka eta guzti "Post tenebras spero lucem" ipuinean, eta, beste 29 alditan, azentu marka gabe "Esteban Werfell" ipuinean.

<sup>99</sup> Behin, azentu marka eta guzti "Post tenebras spero lucem" ipuinean, eta, beste 29 alditan, azentu marka gabe "Esteban Werfell" ipuinean.

<sup>100</sup> Behin, azentu marka eta guzti "Post tenebras spero lucem" ipuinean, eta, beste 29 alditan, azentu marka gabe "Esteban Werfell" ipuinean.

<sup>101</sup> Azentu marka gabe guztietan.

<sup>102</sup> Azentu marka gabe guztietan.

<sup>103</sup> Guztietan, *Mugatseko morroi ttikia* esamoldea erabiliz.

<sup>104</sup> Guztietan, *pequeño criado de Mugats* esamoldea erabiliz.

<sup>105</sup> Guztietan, *petit criat de Mugats* esamoldea erabiliz.

<sup>106</sup> Guztietan, *pequeno criado de Mugats* esamoldea erabiliz.

<sup>107</sup> Guztietan, *petit domestique de Mugats* esamoldea erabiliz.

<sup>108</sup> Guztietan, *Junge aus Mugats* esamoldea erabiliz.

<sup>109</sup> 10 aldiz, *piccolo garzone di Mugats*, eta, gainerakoetan, *garzone di Mugats* soilik.

<sup>110</sup> Behin, *Nanquing*, eta, beste behin, *Nanquin*.

San Jose	1	--	--	--	--	--	--	--
San Juan	2	--	--	--	--	--	--	--
Schauspielhaus	1	2	2	2	2	2	2	2
Shangai	1	1	1	1	1	1	1	1
Sion	1	1	1	1	1	1	1	1
Solino	--	1	1	1	1	1	1	1
St. Georg	2	2	2	2	2	2	2	2
Taiwan	1	1	1	1	1	1	1	1
Theodor	5	5	5	5	5	5	5	5
Theodor Vogel	3	2	2	1	2	2	2	1
Txina	2	2	2	3	2	2	3	2
Vanessa	1	1	1	1	1	-- <sup>111</sup>	1	1
Vogel (jauna)	6	4	4	3	4	4	4	3
Werfell	42	34	34	34	33	32	26	34
(lagunik lagunena)	11	13	13	13	13	13	8+6 <sup>112</sup>	12

Ikus dezakegunez, beraz, gaztelaniazko testua euskarazkotik zertxobait aldentzen da, bai izenen erabilpen kopuruari dagokionez eta bai izandako eraldaketei dagokienez. Beste behin ere, nabarmen ikus daiteke autorearen esku hartzea itzulpen prozesuan.

Datuek erakutsi diguten moduan, xede bertsio guztiek antzerakotasun nabarmena erakusten dute gaztelaniarekiko, espero zitekeen moduan.

### 10.2.1.5.5 Behi euskaldun baten memoriak

*Behi euskaldun baten memoriak* gazteei zuzenduriko literaturaren barnean sailkaturiko liburua da. Irakurle mota horri dagokion legez, helduentzako literaturan ohi dena baino imaginazio sorkuntza-lan handiagoa eskaintzen zaio izenen erabilerari.

Modu abstraktuan emanda, jatorrizko testu modura euskarazkoa hartuta, liburu honen itzulpenean gehien erabili den estrategia transferentziarena izan da, 151 kasurekin. Ondoren, itzulpen linguistikoak pisu nabarmena dauka, 134 kasurekin. Hirugarren lekuan, egokitzapena genuke, 132 kasurekin, eta, azkenik, itzulpen sortzailea, 124rekin. Ikus dezakegunez, ez dago alde nabarmenik lau estrategien artean. Itzulpen linguistikoak, oro har, gutxi erabiltzen da, baina haur eta gazte literatur liburuetan nabarmena izaten da bere erabilera, kasu honetan bezala.

Gaztelaniazkoarekin konparatuko bagenitu gainerako xede bertsioak transferentzia kopurua altuagoa dela ikusiko dugu, euskarazkoarekin alderatuz

<sup>111</sup> *Vanessa*-ren ordez, *red admiral* agertzen da behin.

<sup>112</sup> Zortzi aldiz, *BESTEN FREUND*, dena handiz idatzita. 6 aldiz, *liebster Freund* agertzen da.

gero baino, batez ere katalanez (33 transferentzia gaztelaniatik) eta galegoz (45 transferentzia gaztelaniatik).

Itzulpen sortzaileei dagokienez, alemanez 13 soilik aurkitu ditugu, eta, gainerako hizkuntzetan, 22-23. Itzulpen sortzaileak gaztelania erreferentzia harturik begiratuko bagenitu, alde oso txikiak topatuko genituzke katalanez, galegoz eta frantsesez, bat edo bat ere ez. Italicieraz, 7 topatu ditugu. Alemana eta gaztelania alderatuz gero, berriz, 24. Hor ikus dezakegu, alemanezkoa gaztelaniazkoa baino lotuago agertzen zaiola euskarazkoari. Gainerako estrategiak nahiko paretsu ageri dira gaztelaniatik edo euskaratik.

Hizkuntza bakoitzean agertzen den izen berezi kopuruak ere aldeak erakusten ditu: euskaraz 77 izen erabiltzen diren bitartean, gaztelaniaz, katalanez, galegoz eta frantsesez, 91 izen ageri dira, 87 alemanez eta 90 italicieraz.

Liburu honetan izen berezi kopuru oso zabala topatu dugu, eta, haur eta gazte literatur generoaren barruan kokatzen denez, itzultzaileari sormen edo egokitzapen lan nabarmena eskatzen dio. Horren erakusle, estrategia ezberdinen erabilera zabala.

Liburu honetan topatu ditugun izen bereziak hainbat motatakoak dira. Batetik, pertsona eta toki izenak topatu ditugu, hala nola *Bidani*, *Pauline Bernardette*, *Usandizaga*, *Balantzategi*, *Ori*, *Pirineoak* eta *Altzürükü*. Izen berezi arrunt horiei dagokionez, batzuk liburu honetarako espreski sortuak izan ziren; beste hainbat euskal kulturaren edo geografiaren baitan kokatzen dira (*Urdinarbe* eta *Kakoeta* esaterako), eta, beste hainbat, mundu mailan ezagunak dira (*Versalles*, *Sahara*, *Grezia*, *India*, etab.). Bestalde, munduko kultura ezberdinetan ezagunak diren hainbat pertsonaia historiko zein mitologikoren izenak ere ageri dira: *Ajax*, *Pegaso*, *Sirio*, *Pleiadeak*, eta beste. Santu izenak ere topatu ditugu, hala nola *San Eutropio*, *San Simon* edo *Andre Dena Maria*. Pertsonaien izaera edo itxurari erreferentzia egiten dieten izenak ere ez dira falta liburu honetan; hor ditugu pertsonaia nagusiaren barne ahotsa, *Setatsua*, bere lagun *La Vache*-n benetako izena den *Txapar*, baserria ikuskatzen ari diren anaia “hortzaundiak”, edo berauen nagusi *Eztenas*. Pertsonaia nagusiaren izena, *Mo*, berriz, onomatopeia batetan oinarriturik dagoela esango genuke; behia izanik, animalia horiek egiten duten soinuari egiten baitio erreferentzia. Izen berezien azken multzoa hizkuntza arruntetik hartutako hitzek osatzen dute: horiek izen berezi modura erabiltzen dira zenbaitetan, larriz idatzirik, oro har, eta erabilera ere izen bereziei dagokiena ematen zaie. Multzo honetan kokatuko genituzke, besteak beste, *Asperkeria*, *Sekretuen Gurpila Haundia*, *Bakardadea* edo *Mintzoa*. Azken multzo horretan baina aparteko izen modura aipatu nahiko genuke *La Vache qui Rit*-en kasua. Gazta-marka ezagun baten izena darama pertsonaiak, liburu idazten ari zenean, Bernardo Atxaga Parisen baitzegoen eta gazta-marka haren promozio-kanpaina martxan zegoen (Olaziregi, 1997a: 138). Frantsesez erabiltzen den esapide hori “La Vache” modura aipatzen da

etengabe, hots, “behi”. Litekeena da frantsesezko bertsoiaren irakurleari iragarkiaren oihartzunik ekartzea gogora aipatu pertsonaiak.

Hizkuntza arruntetik hartutako izenen itzulpen gehienak arrosaz markatu ditugu; hau da, euskarazkoan zuten zentzua mantenduz izan dira itzuliak, haur eta gazte literaturan ohikoa denez. *Setatsua*, *Bizkar Oker* edo *Antiaju Berde* izenek itzulpen linguistikorik izan ez balute, informazio baliotsua galduko luke xede irakurleak.

Toki izenei dagokienez, oro har, exonimoak eman dira, hala nola *Versailles* frantsesez edo *Indien* alemanez, edo bere horretan mantendu dira, *Urdinarbe* edo *Altzürükü*, besteak beste. Azken horien kasuan, nahiz eta frantsesez izen ofiziala Ordiarp eta Aussurucq izan, euskarazkoak mantendu dira. Izan liteke narrazioari exotikotasuna emate aldera edo bestela ezjakintasunagatik: itzultzaileari ez zaiolako bururatu izen horiek izendapen frantsesik izan dezaketenik.

Euskal kultura edo geografiari hainbat erreferentzia egiten zaie liburuan, eta intertestualitateak ere berebiziko garrantzia dauka. Errefrau aski ezagun batean, *Ori* mendiari egiten zaio erreferentzia. Hori bera, gaztelaniazko testuan egokitu, eta, euskal mendiaren ordez, *Estambul* hiria ageri da. Katalanez, galegoz, frantsesez eta italieraz ere hiriaren izena ageri da, ez ordea alemanez, bertan mendiaren izena mantendu egin baita.

Beste hainbat izen ere desagertu egin dira, hala nola *Espainia* edo *Kakoeta*, eta beste hainbat, gehitu, *Brissac* edo *Frantzia* bezala. Gehikuntzen artean, beste errefrau batean agerturikoak aipatuko ditugu. Honela dio errefrauak: “Behiaren poz bakarrak, musika eta belarrak”. Euskarazkoan musika hitza agertzen den tokian, xede hizkuntzetan konpositore famatuen izenak ageri dira: *Beethoven*, *Chopin* eta *Mendelssohn* gaztelaniaz, katalanez, galegoz eta frantsesez; *Verdi*, *Vivaldi* eta *Rossini* italieraz; eta *Mozart*, *Beethoven* eta *Haydn* alemanez. Azpimarratzekoa da azken bi hizkuntzetan beraien kulturako musikariek ordeztu dituztela gainerakoak. Gaztelaniazkoak nondik jo arrastoa eman du eta hainbat hizkuntzatan aukera hori bera onartu da, baina italieraz eta alemanez onargarritasun kulturalaren aldeko hautua egin dute. Gogora dezagun, gainera, bi kultura horiek musika tradizio indartsua izan dutela.

*Uztapide* bertsolariaren izena, nahiz eta euskal kulturatik kanpora guztiz ezezaguna izan, mantendu egin da xede kulturetan.

*Don Gregorio* pertsonaiaren kasuan, egokitzapen kultural handia egin du itzultzaileak. *Don Gregorio Antiaju Berde*-ren edo *Eztenas*-en benetako izena da. Izen hori entzunda, pertsonaia Espainiako armadako militar bat izango dela iradokitzen zaio irakurleari, nahiz eta berari azierazi ez. Gaztelaniazko testuan, ordea, pertsonaia horrek *Don Otto* izena hartu du. *Don Otto* Espainiako armadarekin baino Alemaniakoarekin gehiago lotuko du irakurleak. Beraz, istorioaren kokapena edo gertakariak guztiz desitxuratu dira xede hizkuntzan. Gaztelaniatik eginiko katalanerako, galegorako, italierarako eta frantseserako itzulpenetan ere, *Otto* da generalaren izena. Gaztelaniaz



inplizitoki pentsarazten bada pertsonaia alemana dela, italierazko testuak esplizituki adieraziko du: *Herr Otto*<sup>113</sup>. Alemanezko testuan, bestalde, generala *Don Gregorio* izango da, euskarazkoan bezala. Adibide honek erakusten digun moduan, izen baten aldaketa soilak efektu indartzailea dauka, iradokizun eta konnotazio askoz beterik egon baitaiteke. Eta egokitzapena muturreraino eraman daiteke hizkuntza batetik bestera, italieraren kasuan bezala.

---

<sup>113</sup> Italieraz “Don” apaiz eta erretoreentzat soilik erabiltzen da. Hala ere, beste adieraren bat erabil zitekeen alemanieratu ordez, “Signor Otto” kasu.

## 10-22 Taula. BEBM izenen taula

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	Ale	It
Ahots	Voz interior	Veü	Voz	voix	Stimme	Voce
Aingeru Goardakoa	Ángel de la Guardia	Ángel de la Guardia	Anxo da Garda	l'ange gardien	Schutzengel	Angelo Custode
Akiles	Aquiles	Aquil·les	Aquiles	Achille	Achilles	Achille
Alfa	Alfa	Alfa	Alfa	Alpha	Alpha	Alfa
Altzürükü	Altzürükü	Altzürükü	Altzürükü	Altzürükü	Altzürükü	Altzürükü
Ama Superiora / Ama supérieure	Madre Superiora / Notre Mère Superieure	mare superiora / Notre Mère Superieure	Madre Superiora	mère supérieure	Schwester Oberin	Notre Mère Supérieure / Madre Superiora
Andre Dena Maria	virgen de nuestra chappelle	marede·deu de la nostra chapelle	virge de nosa chappelle	vierge de notre chappelle	Jungfrau Maria	Vergine nella nostra chapelle
Andromeda	Andrómeda	Andrómeda	Andrómeda	Andromède	Andromeda	Andromeda
Antiaju Berde	Gafas Verdes	Ulleres Verdes	Lentes Verdes	Lunettes Vertes	Grünbrille	Occhiali Verdi
Artizarra	Lucero	Estel del Matí	Luceiro	l'étoile du Berger	Morgenstern	Lucifero
Asperkeria	Aburrimiento	Avorrimint	Aburrimiento	ennui	Langeneile	Noia
Atenas	(atenienses)	(atenesos)	(atenienses)	(Athéniens)	Athen	(ateniesi)
Ayax	Ayax	Àiax	Ayax	Ajax	Ayax	Aiace
Babel	Babel	Babel	Babel	Babel	Babel	Babele
Bakardade	Soledad	Solitud	Soidade	Solitude	Einsamkeit	Solitudine

Balantzategi	Balantzategui	Balantzategui	Balantzategui	Balantzategui	Balantzategui	Balantzategui	Balantzategui
Bidani	Bidani	Bidani	Bidani	Bidani	Bidani	Bidani	Bidani
Bizkar Oker	Enconvado	Encorbat	O Eivado	Le Tordu	Krummbuckel	Gobbo	
Burgos	Burgos	Burgos	Burgos	Burgos	Burgos	Burgos	Burgos
Chevrolet	Chevrolet	Chevrolet	Chevrolet	Chevrolet	Chevrolet	Chevrolet	Chevrolet
Denbora Partitzailea	de Repartidor Temps	de Repartidor Temps	de Repartidor Tempo	de répartiteur de temps	Zeitverteiler	Ripartitore del Tempo	
Denboraren Gurpila	La Rueda del Tiempo	La Roda del Temps	a Roda do Tempo	roue du temps	Zeitrad / Rad der Zeit	Grande Ruota del Tempo	
Don Gregorio	Don Otto	Don Otto	Don Otto	don Otto	Don Gregorio	Herr Otto	
Espainia	--	--	--	--	(spanisch) / --	--	
Esparta	(espartano)	(espartà)	(espartano)	(Spartiate)	Sparta	(spartano)	
Europa	Europa	Europa	Europa	(européenne)	(europäisch)	(europea)	
Euskal Herria	Pais Vasco	Pais Basc	Pais Vasco	Pays basque	Baskenland	Paesi Baschi	
Euskal Herria	Pais Vasco	Pais Basc	Pais Vasco	Pays basque	Baskenland	Paesi Baschi	
Eutropio	Eutropio	Eutropi	Eutropio	Eutrope	Eutropius	Eutropio	
Ezkontza	Matrimonio	Matrimoni	Matrimonio	Marriage	Ehe	Matrimonio	
Eztenas	Cuchillos	Ganivets	Coitelos	Coutelas	Eisenpickel	Coltelli	
Gaixotasun	Enfermedad	Malaltia	Enfermidade	Maladie	Krankheit	Malattia	
Gartzela	Cárcel	Presó	Cárcere	Prison	Gefängnis	Prigionia	
Geneveva	Geneveva	Geneveva	Xenoveva	Geneveva	Geneveva	Geneveffa	

Go	Go	Go	Go	Go	Go	Go	Go
Gobi	Gobi	Gobi	Gobi	Gobi	Gobi	Gobi	Gobi
Grezia	Grécia	Grécia	Grèce	Grèce	Griechenland	(Antica) Grecia	
India	Índia	India	Inde	Indien	Indien	India	
Izpiritu	Espiritu	Espirito	esperit	esprit	Geist	Spirito	
Jaun Agosti	San Agustín	sant Agustí	saint Augustin	saint Augustin	Heilige Augustinus	Sant'Agostino	
Kakoeta	--	--	--	--	Kakoeta	--	
La Vache qui Rit	La Vache qui Rit	La Vache qui Rit	La Vache qui Rit	La Vache qui Rit	La Vache qui Rit	La Vache qui Rit	La Vache qui Rit
Lourdes	Lourdes	Lourdes	Lourdes	Lourdes	Lourdes	Lourdes	Lourdes
Mintzo	Conciencia	Consciència	conscience	conscience	Sprache	Coscienza	
Mo	Mo	Mo	Mo	Mo	Mo	Mu	
Omega	Omega	Omega	Oméga	Oméga	Omega	Omega	
Ori	Estambul	Istanbul	Istanbul	Istanbul	Ori	Istanbul	
Orion	Orion	Oríon	Orion	Orion	Orion	Orione	
Pakistan	Pakistán	Pakistan	Pakistan	Pakistan	Pakistan	Pakistan	
Paris	París	París	Paris	Paris	Paris	Paris	
Patroklo	Patroclo	Patroclo	Patroclo	Patroclo	Patroklos	Pàtroclo	
Pauline Bernardette	Pauline Bernardette	Pauline Bernardette	Pauline Bernardette	Pauline-Bernadette	Pauline Bernardette	Pauline Bernardette	

Paulo Anakoreta	Paulo	el Pau l'Anacoreta	Paulo O Anacoreta	Paul l'Anachorète	Paulus, dem	Paulo L'Anacoreta
Pegaso	Pegaso	Pegàs	Pegaso	Pégase	Pegasus	Pegaso
Père Larzabal	Père Larzabal	Père Larzabal	Père Larzabal	père Larzabal	Père Larzabal	Père Larzabal
Piarres	Pierre	Pierre	Pierre	Pierre	(Monsieur) Pierre	Pierre
Pirinio	Pirineos	Pirineus	Pirineos	Pyrénées	Pyrenäen	Pirenei
Pleiadea	Las Pléyades	les Pléiades	Pléiades	Pléiades	Plejaden	Pleiadi
Pobrezia	Pobreza	Pobresa	Pobreza	Pauvreté	Armut	Povertà
Polinañi	Pauline / Paulinette /petite Pauline	Paulinette / petite Pauline	Paulinette / petite Pauline	Paulinette / petite Pauline	Paulinette / petite Pauline	Paulinette
Sahara	Sahara	Sàhara	Sahara	Sahara	Sahara	Sahara
Sekretuen Gurpila Haundia	La Gran Rueda de los Secretos	La Gran Roda dels Secrets	A Gran Roda dos Segredos	La grande roue des secrets	Das grosse Geheimnisrad	La Grande Ruota dei Segreti
Serapio	Serapio	Serapi	Serapio	Serapio	Serapio	Serapio
Setatsua	(El) Pesado	Pesat	Pesado	Lourdaud	Dickkopf	Lo Scocciatore
Simon	Simón	Simó	Simón	Simon	Simon	Simone
Sirio	Sirio	Sírius	Sirio	Sirius	Sirius	Sirio
Suiza	Suiza	Suissa	Suíza	Suisse	Schweiz	Swizzera
Troia	Troya	Troia	Troia	Troie	Troja	Troia
Txapar	Cabezona	Capgrossa	Cabezuda	Cabocharde	Zwerg	Testona
Txina	--	--	--	--	China	--

Urdinarbe	Urdinarbe	Urdinarbe	Urdinarbe	Urdinarbe	Urdinarbe	Urdinarbe	Urdinarbe
Usandizaga	Usandizaga	Usandizaga	Usandizaga	Usandizaga	Usandizaga	Usandizaga	Usandizaga
Uztapide	Uztapide	Uztapide	Uztapide	Uztapide	Uztapide	Uztapide	Uztapide
Venus	Venus	Venus	Venus	Vénus	Venus	Venere	Venus
Versalles	Versalles	Versalles	Versalles	Versailles	Versailles	Versailles	Versailles
Xibero	Soule	Soule	Soule	Soule	(Baskenland)	Soule	Soule
Aitorpenak	Confesiones	Confessions	Confesions	Confessions	Bekennnisse	Confessioni	Confessioni
(hortzaundiak)	gemelos de los dientes grandes	bessons de les dents grosses	xemelgos dos dentes grandes	jumeaux aux grandes dents	Langzahn-Brüder	gemelli dai lunghi genti	gemelli dai lunghi genti
(hortzaundiak)	hermanos dentudos	germans dentuts	irmáns dentáns	Dentus	Zahnpasta-Brüder	fratelli dentoni	fratelli dentoni
(hortzaundiak)	dentudos	dentuts	dentáns	Dentus	Grobzahn-Brüder	dentoni	dentoni
(hortzaundiak)	los de los dientes grandes	els de les dents grosses	os dos dentes grandes	Les gaillards aux grandes dents	Langzähne	dentoni	dentoni
(hortzaundiak)	--	--	--	--	Zahnpasta-Boys	Gemelli dentoni	Gemelli dentoni
(hortzaundiak)	--	--	--	--	Milchzahn-Bubis	--	--
(hosto jostaketa)	Juego de las Hojas	Joc de les Fulles	Xogo das Follas	jeu des Feuilles	Blattspiel	Gioco delle foglie	Gioco delle foglie
(ixiltasan)	Gran Silencio	Gran Silenci	Gran Silencio	Xeral grand silence	die große Stille	Grande Silenzio	Grande Silenzio
(katu)	(gato de) Angora	(gat d')angora	(gato de) Angora	(chat) angora	Angorakätzchen	(gatto d')angora	(gatto d')angora
--	Biblia	Biblia	Biblia	Bible	--	--	--
--	Beethoven	Beethoven	Bethoven	Beethoven	Mozart	Verdi	Verdi

--	Chopin	Chopin	Chopin	Chopin	Chopin	Chopin	Chopin	Chopin	Beethoven	Vivaldi
--	Mendelssohn	Mendelssohn	Mendelssohn	Mendelssohn	Mendelssohn	Mendelssohn	Mendelssohn	Haydn	Haydn	Rossini
--	Brissac	Brissac	Brissac	Brissac	Brissac	Brissac	Brissac	--	--	Brissac
--	Ganges	Ganges	Ganges	Ganges	Ganges	Ganges	Ganges	--	--	Ganges
--	Laroche	Laroche	Laroche	Laroche	Laroche	Laroche	Laroche	--	--	Laroche
--	Francia	França	Francia	Francia	Francia	Francia	Francia	Frankreich	Frankreich	Francia
--	Inglaterra	Anglaterra	Inglaterra	Inglaterra	Inglaterra	Inglaterra	Inglaterra	--	--	Inghilterra
--	Alemania	Alemania	Alemaña	Alemaña	Alemaña	Alemaña	Alemaña	--	--	Germania
--	--	--	--	--	--	--	--	Sherlock Holmes	Sherlock Holmes	--
--	--	--	--	--	--	--	--	Fata Morgana	Fata Morgana	--
--	--	--	--	--	--	--	--	Einstein	Einstein	--
--	--	--	--	--	--	--	--	Kant	Kant	--
--	Rueda de la Vida	Roda de la Vida	Roda da Vida	Roda da Vida	Roda da Vida	roue de la vie	roue de la vie	--	--	Ruota della Vita

Agerpen kopuruari dagokionez alde handiegirik ez dugu nabaritu jatorrizkotik itzulpenetara. Baserriaren izena, *Balantzategi*, gehiagotan agertzen da euskaraz (151 aldiz) gainerako bertsioetan baino (121-130 bitartean). *Bizkar Oker*, berriz, gehiago agertzen da xede hizkuntzetan, 39-40 aldiz; euskaraz, ordea, 27tan; alemanez, berriz, bien artean, 36 aldiz. “Hortzaundiak” euskarazkoan gehiagotan agertzen dira, 47 bider guztira. Azken horien ordainen agerpen kopuruak aparteko taula batean bildu ditugu aurrerago (ikus 10-24 Taula).

Izen arruntetik sortutako izen berezien kasuan, agerpen kopurua zenbatzea nahiko lan nekeza izan da; izen arruntak eta bereziak kasu kasu ezberdinu behar izan baitira. Esaterako, *Zwerg* hitza *La Vache*-en beste deitura bat da, eta hori hizkuntza arruntean erabiltzen den hitza da alemanez.

10-23 Taula. BEBM izenen agerpen taula

	eus	gazt	kat	gal	fr	ale	It
Ahots	31 <sup>114</sup>	40 <sup>115</sup>	50 <sup>116</sup>	40 <sup>117</sup>	39 <sup>118</sup>	39 <sup>119</sup>	48 <sup>120</sup>
Aingeru Goardakoa	13	12	12	12	11	14	12
Aitorpenak	2	2	2	2	2	2	2
Akiles	2	2	2	2	2	2	2
Alemania	--	1	1	1	1	--	1
Alfa	12 <sup>121</sup>	11	11	11	11	12	10
Altzürükü	10	12	12	11	11	11	12
Ama Superiora / ama süperieur <sup>122</sup>	2+1	2+1	2+1	2+1	3	2+1	2+1
Andre Dena Maria	1	1	1	1	1	1	1
Andromeda	1	1	1	1	1	1	1
Angora	--	1	1	1	1	1	1

<sup>114</sup> Hitz arrunta ezin dugu hain errez bereizi izen berezitik, ez baita kasu guztietan larriz agertzen.

<sup>115</sup> Txikiz dagoenez gehienetan, bereiztea zaila.

<sup>116</sup> Aditz jokatu ere bada veu, beraz, banan bana begiratu beharko litzateke.

<sup>117</sup> Txikiz dagoenez gehienetan, bereiztea zaila.

<sup>118</sup> Txikiz dagoenez gehienetan, bereiztea zaila.

<sup>119</sup> Izen propio edo hitz arrunt den, ezin da bereizi lehen begiratuan, guztiak hizki larriz idatzirik daude eta. Berdin hurrengo 2 hitzetan.

<sup>120</sup> Txikiz dagoenez gehienetan, bereiztea zaila. Behin bakarrik agertzen da handiz.

<sup>121</sup> 10 aldiz hizki xehez idatzirik datoz, bi larriz.

<sup>122</sup> Gainontzeko hizkuntzetan, lehenengo xede hizkuntzakoa (*madre superiora*, esaterako), eta gero, frantsesezkoa (*mère supérieure*).



Antiaju Berde	77	75	74	75	72	76	72
Artizarra	5	5	5	5	5	5	5
Asperkeria	1/9	1/7	1/7	1/7	12 <sup>123</sup>	¿?	1/8
Atenas	1	--	--	--	--	1	--
Ayax	1	1	1	1	1	1	1
Babel	5	7	7	7	7	5	7
Bakardade	8/14 <sup>124</sup>	7/14	7/14	7/14	5/16	20 <sup>125</sup>	7/12
Balantzategi	151	128	129	125	127	121	130
Beethoven / Mozart / Verdi	--	1	1	1	1	1	1
Biblia	--	1	1	1	1	--	--
Bidani	15	14	14	14	14	13	13
Bizkar Oker	27	39	39 (-2) <sup>126</sup>	39 (-2)	36	40 (-2)	39
Brissac	--	1	1	1	1	--	1
Burgos	3	3	3	3	3	3	3
Chevrolet	6	8	8	7	5	8	7
Chopin / Beethoven / Vivaldi	--	1	1	1	1	1	1
Denbora Partitzailea	4	5	5	5	5	4	5
Denboraren Gurpila	4	4	4	4	4	5	3
Don Gregorio / Don Otto	3	4	4	4	4	3	4
Espainia	4	--	--	--	--	-- <sup>127</sup>	--
Esparta	1	--	--	--	--	1	--
Europa	1	1	1	1	--	-- <sup>128</sup>	-- <sup>129</sup>
Euskal Herria	2						
Euskalerrria	2	4	4	4	4	5	4
Eutropio	12	12	12	11	10	13	10
Ezkontza	2	2	2	2	2	2	2

<sup>123</sup> Txikiz agertzen da besteetan handiz agertzen dena.

<sup>124</sup> Hizki larriak xehetatik ezin bereizi. 8 larriz, eta guztira 14 daude.

<sup>125</sup> Alemanezko izen arruntez eginiko hitzek arazoak ematen dituzte berezi bezala erabiltzen direnean, izenak larriz idatzirik baitaude beti.

<sup>126</sup> 2 kasutan, txikiz agertzen da, ezaugarriari erreferentzia eginez.

<sup>127</sup> 3 aldiz, *spanisch* agertzen da.

<sup>128</sup> Behin, *europäisch* agertzen da.

<sup>129</sup> Behin, *europa*.

Eztenas	13	11	12	11	8	8	10
Frantzia	--	2	2	2	2	2	2
Gaixotasun	1	1	1	1	1	1	1
Ganges	--	1	1	1	1	--	1
Gartzela	1/6	1/6	1/7	1/6	1/7	5	1
Genoveva	68	67	67	67	64	72	67
Go	1	1	1	1	1	1	1
Gobi	1	1	1	1	1	1	1
Gran Silencio General		1	1	1	1	1	1
Grezia	2	2	2	2	1	1 <sup>130</sup>	1
hortzaundiak	47	=32	=32	=31	=33	=42	=32
hosto jostaketa	1	1	1	1	1	1	1
India	6	6	6	6	6	6	6
Inglaterra	--	1	1	1	1	--	1
Izpiritu	7 <sup>131</sup>	1/9	1/9	1/7	1/19	1/5	1/8
Jaun Don Agusti	1	1	1	1	1	1	1
Kakoeta	1	--	--	--	--	1	--
La Vache	195	190	173	183	202/23 <sup>132</sup>	204	151
La Vache qui Rit	28	19	15	22	19	24	19
Laroche	--	1	1	1	1	--	1
Lourdes	1	1	1	1	1	1	1
Mendelssohn / Haydn / Rossini	--	1	1	1	1	1	1
Mintzo	2	1	1	1	1/3	1/9	1
Mo	44 <sup>133</sup>	46	46	46	45	41	39
Omega	6 <sup>134</sup>	6	6	6	6	6	7
Ori / Estambul	2	2	2	2	2	2	2
Orion	1	2	2	2	2	1	2

<sup>130</sup> Beste behin, *griechisch* agertzen da.

<sup>131</sup> *Idem*.

<sup>132</sup> *La vache*, txikiz, 23 aldiz agertzen da, hau da, ez da izen propio bezala erabiltzen.

Agerpen kopuruari dagokionez, *Mary Ann* askoz gutxiagotan agertzen da euskaraz (98 aldiz) gainerako hizkuntzetan baino (116 eta 122 artean). *Sara* neskatoaren izenarekin ere antzerako zerbait pasa da, jatorrizkoan 16 aldiz agertzen baita eta xede hizkuntzetan 20-23 bitartean.

*Espainia*-rekin, berriz, alderantziz gertatzen da. Euskarazkoan 9 aldiz agertzen da, eta, gainerako hizkuntzetan, askoz gutxiagotan, 4 aldiz soilik. *Euskal Herria*-ri dagokionez ere, antzerako zerbait gertatzen da, euskaraz 10 aldiz agertzen baita eta gainerako hizkuntza guztietan, 3-4 artean. Azken toki-izen horren kariatara, aipatzekoa iruditzen zaigu bere atzean egon daitekeen konnotazio politiko edo ideologikoa. Izendapen polemikoa gerta daiteke gaztelaniaz eta neutralizatu egin da. Ondorioz, gainerako bertsio guztietan ere neutralizatuta agertu da. Kanonizatutako bertsioak markatzen du xede kulturetara iritsiko dena.

Bestalde, aipagarria da *North Cape* alemanez 6 aldiz soilik agertzea, gainerako hizkuntzetan 9-11 bider agertzen den bitartean. Azkenik, *Luigi* bi aldiz bakarrik ageri da euskaraz eta gainerakoetan 4 aldiz. Ezin izan dugu alde horri dagokion arrazoirik identifikatu.

10-38 Taula. SS izenen agerpen taula

	eus	gazt	kat	gal	ing	fr	ale	it
Adrian	5	4	4	4	4	4	4	4
Agirre	1	--	--	--	--	--	--	--
Alaska	1	1	1	1	1	1	2	1
Alcatraz	3	4	4	4	4	4	2	4
Ali McGraw	2	2	2	2	2	2	2	2
Ameriketa/ Amerika	13	10	11	10	13	9	10	10
Anaiaren liburua	1	1	1	1	1	1	1	1
Arkansas	5	4	5	3	5	5	4	5
Ashbury	3	3	3	3	3	3	3	3
Barcarola	--	1	1	1	1	1	1	1
Bartzelona	1	1	1	1	1	1	1	1
Ben Webster	2	1	1	1	1	1	1	1
Benjamin Franklin	--	1	1	1	1	1	1	1
Bilbo	1	1	1	1	1	1	1	1
Brecht	--	--	--	--	--	--	--	1
Brigada Internazional	1	3	3	3	3	3	3	3
Buena Vista	1	1	1	1	1	1	1	1
California	--	1	1	1	1	1	1	1
capitán Degrela	1	--	--	--	--	--	--	--

Carmen	2	1	1	1	1	1	1	1
Casatschok	1	1	1	1	1	1	1	1
Castro	2	2	2	2	2	2	1	2
Cesare Pavese	1	1	1	1	1	1	--	1
Chinatown	1	1	1	1	1	1	1	1
City Lights	1	1	1	1	1	1	1	1
Columna Oria	1	--	--	--	--	--	--	--
Community Recognition	1	1	1	1	2	1	1	
David	47	53	53	53	55	53	52	53
David Imaz	2	1	1	1	1	1	1	1
Degrela	1	1	1	1	1	1	1	1
Donald	--	--	--	--	--	--	1	--
Dylan Thomas	3	3	3	3	3	3	2	3
East Cape	1	1	1	1	1	1	1	1
Efrain	14	12	13	12	14	12	13	12
Espainia	9	4 <sup>286</sup>	4 <sup>287</sup>	4	4 <sup>288</sup>	4 <sup>289</sup>	4 <sup>290</sup>	4 <sup>291</sup>
Estatu Batuak	1	8	8	8	6	6	7	8
Europa	1	1	1	1	1	1	--	1
Euskal Herria	10	3	3	3	4	3	3	3
Frederick	3	3	3	3	3	3	3	3
Gales	-- <sup>292</sup>	1 <sup>293</sup>	1 <sup>294</sup>	1	1 <sup>295</sup>	1 <sup>296</sup>	1 <sup>297</sup>	1 <sup>298</sup>
Gernika	7	--	5	2	--	--	--	--
Gernikako Arbola	1	1	1	1	1	1	1	1
Ghirardelli	1	1	1	1	1	1	1	1
Golden Gate	1	1	1	1	1	1	1	1
Grezia	1 <sup>299</sup>	-- <sup>300</sup>	-- <sup>301</sup>	-- <sup>302</sup>	1 <sup>303</sup>	1 <sup>304</sup>	-- <sup>305</sup>	1 <sup>306</sup>

<sup>286</sup> 15 aldiz, *español*.

<sup>287</sup> 15 aldiz, *espanyol*.

<sup>288</sup> 14 aldiz, *spanish*.

<sup>289</sup> 15 aldiz, *espagnol*.

<sup>290</sup> 14 aldiz, *spanisch*, eta, behin, *Spanier*.

<sup>291</sup> 15 aldiz, *spagnol*.

<sup>292</sup> Behin, *galestar*.

<sup>293</sup> Behin, *galeses*.

<sup>294</sup> Behin, *gal·lesos*.

<sup>295</sup> Behin, *welsh*.

<sup>296</sup> Behin, *gallois*.

<sup>297</sup> Behin, *Waliser*.

<sup>298</sup> Behin, *Galesi*.

<sup>299</sup> Bi aldiz, *greziar*.

<sup>300</sup> Hiru aldiz, *griego*.

Guernica	6	13	7	11	12	13	12	12
Guerrini	1	1	1	1	1	1	1	1
Haight-Ashbury	1	2	2	2	2	2	2	2
Hayes	1	1	1	1	1	1	1	1
Helen	31	34	35	<sup>32+2</sup> <sub>307</sub>	34	34	34	34
Henry Johnson	1	3	3	3	2	3	3	3
Hollywood	2	1	1	1	1	1	1	1
Hot Springs	2	2	2	2	2	2	2	2
Humberto	1	1	1	1	1	1	1	1
Humboldt County	2	2	2	2	2	2	2	2
Idaho	--	1	1	1	1	1	1	1
Iruain	4	3	3	3	3	3	3	3
Islandia	<sup>1</sup> <sub>308</sub>	-- <sup>309</sup>	-- <sup>310</sup>	-- <sup>311</sup>	<sup>1</sup> <sub>312</sub>	-- <sup>313</sup>	-- <sup>314</sup>	-- <sup>315</sup>
Jarama	2	--	--	--	--	--	--	--
Jimmy	1	1	1	1	1	1	1	1
Joseba	8	7	7	7	8	7	7	7
Joxe	1	1	1	1	1	1	1	1
Juan	38	38	39	36	40	35	38	38
Juan Bataiatzailea	1	--	--	--	--	--	--	--
Juan Imaz	1	2	2	2	1	2	2	2
Kanada	2	2	2	2	2	2	1	2
Kaweah	5	4	4	4	4	4	2+2	4
Kupido	1	--	--	--	--	--	--	--
Land Rover	1	2	2	2	2	2	2	2
Lemon Valley	1	--	--	--	--	--	--	--

<sup>301</sup> Hiru aldiz, *grec*.<sup>302</sup> *Grego*, 3 aldiz.<sup>303</sup> *Greek*, 3 aldiz.<sup>304</sup> *Grec/grecque*, 3 aldiz.<sup>305</sup> *Griechen*, behin, eta, *griechisch*, bitan.<sup>306</sup> Hiru aldiz, *greco*.<sup>307</sup> Hellen bi "l"-z, 2 aldiz; gainerakoetan, bakarraz.<sup>308</sup> Eta beste bitan, *islandiar*.<sup>309</sup> *Islandés*, 3 aldiz.<sup>310</sup> *Islandès*, 3 aldiz.<sup>311</sup> *Islandès*, 3 aldiz.<sup>312</sup> *Icelander*, behin, eta, *icelandic*, beste behin.<sup>313</sup> *Islandais*, 3 aldiz.<sup>314</sup> *Isländerin*, 2 aldiz, eta, *isländisch*, behin.<sup>315</sup> *Islandesa*", 2 aldiz.



Leonard Cohen	1	1	1	1	1	1	1	1
Lindegren	2+1 <sup>316</sup>	3	3	3	3	3	2	3
Liz	23	26	27	26	26	25	26	26
Lombard	4 <sup>317</sup>	6	6	6	6	6	5	6
Londres	1	1	1	1	1	1	1	1
Los Angeles	1	1	1	1	1	1	1	1
Lubis	11	12	12	12	12	12	11	12
Luigi	2	4	4	4	4	4	4	4
Luis	1	--	--	--	--	--	--	--
Marina	1	1	1	1	1	1	1	1
Martin	10	10	11	10	10	10	9	10
Mary	1	1	1	2	2	1	2	1
Mary Ann	98	119	120	118	122	121	116	121
Mary Ann Linder	2	2	2	2	2	2	2	2
Max Baer	1	1	1	1	1	1	1	1
Mission	2	3	3	3	2 <sup>318</sup>	3	2	3
Mission Dolores	1	1	1	1	1	1	1	1
Nakika	3	2	2	1	2	2	2	2
Nevada	--	2	2	2	2	2	2	2
New Hampshire	11	9	9	9	9	9	7	9
North Cape	9	11	11	11	10	10	6	11
Obaba	28	27	28	28	28	28	28	28
Padam Padam	5	5	4	5	4	5	5	5
Papillon	1	--	--	--	--	--	--	--
Parnaso	1	--	--	--	--	--	--	--
Paulino Uzkudun	1	2	2	2	2	2	2	2
Picasso	2	2	2	2	2	2	2	1
Raquel Welch	6	5	6	6	6	6	6	6
Recognition	2 <sup>319</sup>	2	1	2	2	2	2	2
Reno	1	1	1	1	1	1	1	1
Robert Graves	1	1	1	1	1	1	1	1
Ronnie	3	2	2	2	2	2	2	2

<sup>316</sup> Bi aldiz, *Lindegren*, eta, behin, *Lindergren*.

<sup>317</sup> Hiru aldiz, *Lombard kalea*, eta, behin, *abenida*. Gainerako hizkuntzetan izendatzeko modu bakarra erabiltzen da.

<sup>318</sup> Ingelesez, *Mission District* osorik hartu dugu hemen kontuan.

<sup>319</sup> Behin bakarrik doalarik.

Rosario	8	9	8	9 <sup>320</sup>	10	8	9	9
San Frantzisko	13	13	13	12	16	14	13	13
San Juan	2	2	2	2	2	1+1	2	1+1
Sanson	5	--	--	--	--	--	--	--
Sansón	1	7	7	7	7	7	5	7
Sara	16	22	23	22	23	21	21	20
Sausalito	7	7	7	7	7	7	6	6
Schuchardt	--	1	1	1	1	1	1	1
Sequoia Park	2	2	2	2	2	1	2	2
Soinujolearen semea	3	1	1	1	1	1	1	1
Steve McQueen	1	1	1	1	1	1	1	1
Stockton	--	1	1	1	1	1	1	1
Stoneham	24	23	21	23	23	23	19	23
Stoneham Ranch	2	1	2	1	5	1	7	2
Suedia	4 <sup>321</sup>	2 <sup>322</sup>	3 <sup>323</sup>	2 <sup>324</sup>	3 <sup>325</sup>	2 <sup>326</sup>	2 <sup>327</sup>	1+1
Tahoe	3	2	2	2	2	2	2	2
Teresa	6	6	6	6	6	6	6	6
Texas	1	1	1	1	1	1	1	1
The touch of your lips	1	2	2	2	2	2	2	2
Three Rivers	8	9	8	9	8	9	6	9
Thule	6	6	6	6	5	6	5	6
Tommy	1	1	1	1	1	1	1	1
Tulare	1	2	2	2	1	2	1	2
Union Square	1	1	1	1	1	1	1	1
Uzkudun	2 <sup>328</sup>	2	2	2	2	2	2	2
Vietnam	1	1	1	1	1	1	1	1
Virgilio	3	4	4	4	4	4	3	4
Virginia	3	3	3	3	3	3	3	3
Visalia	8	7	7	7	7	7	6	7
Vizcaya	--	1	1	1	1	1	--	-- <sup>329</sup>

<sup>320</sup> Bi aldiz, azentu markaz; zazpi aldiz, gabe.

<sup>321</sup> Beste lautan, *suediar*.

<sup>322</sup> *Sueco*, 3 aldiz.

<sup>323</sup> *Suec*, 3 aldiz.

<sup>324</sup> *Sueco*, 3 aldiz.

<sup>325</sup> *Swede*, behin, eta *swedish*, beste behin.

<sup>326</sup> *Suédois*, 3 aldiz.

<sup>327</sup> *Schwedisch*, behin, eta, beste behin, *schwedin*.

<sup>328</sup> Behin, *Uzkudun* bakarrik, *Paulino* gabe.

West Cape	1	1	1	1	1	1	1	1
Writers from Tulare County	1	1	1	1	1	1	1	1

Aurretiazko itzulpena duten izen asko ageri da liburuan, bai euskarazko, bai gaztelaniazko eta baita ingelesezko izenak ere, toki izenak batik bat. Horrek zerikusirik izango du, transferentzia itzulpen estrategietan jaun eta jabe izateko.

Bestalde, zenbait kasutan egokitzapenak garrantzia izan du, onargarritasuna bilatze aldera. Ingelesezko itzulpen sortzaileei buruz ari gara, batez ere, *City Lights* edo *Mission* izenen kasuan, esaterako.

Gaztelaniazkoa euskarazkoaren aldean nahiko bertsio sortzailea dela erakusten digute bilduriko datuek, izen bereziei dagokienez, eta gainerako hizkuntzetarako itzulpenak, gaztelaniatik eginak izan diren heinean, jatorrizko bertsioari gertuagotik jarraitu diote. Beste behin ere, gaztelaniaratze prozesuan autoreak itzultzailearekin batera lan egin duela erakutsi digu azterketa honek.

### 10.2.1.6 Ondorioak

Izen berezien inguruko azterketa honek emaitza ugari eskaini dizkigu. Batetik, itzulpen estrategiei dagokienez eta zenbaki gordinak begiratu gero, argi geratu da transferentzia izan dela erabiliena, 1.989 kasurekin, eta, ondoren, egokitzapena aurki daiteke, 1.037 kasurekin. Itzulpen sortzailea hirugarren tokian dugu, 842 kasurekin, eta, laugarrenean, itzulpen linguistikoa, 464 kasurekin.

Gaztelania iturri hizkuntza modura hartuta eta eraldaketak testu horretatik gainerako xede hizkuntzetera alderatuz gero, zenbakiak asko aldatzen dira, *Bi anai*-ren eta *Soinujolearen semea*-ren itzulpen guztietan ikusi moduan, esaterako. Liburu guztiak kontuan hartuz, transferentzia dugu lehenengo lekuan, 2.049 aldiz agertuta, baina aldea handiagoa da gainerako estrategiekiko: egokitzapena, bigarren postuan dugu, 759 kasutan agertuta; itzulpen linguistikoa hirugarren, 434 kasutan agertuta, eta, azkenik, itzulpen sortzailea, 139tan. Azken estrategia hori askoz ere gutxiagotan ageri da ikusi ahal dugunez.

Egia da izen berezien transferentzia itzulpen estrategia ote den edo ez asko eztabaidatu izan dela, baina hainbat ikertzailek baiezkhoa ondorioztatu dute:

La transferencia es una forma más de traducción porque es una opción traslatoria elegida en un momento dado por el traductor, y en ocasiones, como ocurre cuando importamos un nombre común extranjero, la mejor

<sup>329</sup> Behin, *biscaqlina*.

equivalencia, la traducción perfecta. O, lo que es lo mismo, los contenidos del nombre propio original y los del mismo nombre transferido se hallan entre sí en una relación de 1 a 1 (Moya, 2000: 181).

Estrategia modura sailkatu behar ote delako eztabaida agortuta dagoela erakutsi dute Moyak eta beste hainbat ikertzailek, eta, zalantzarik gabe, itzulpen estrategia modura ikusi beharra dagoela. Izenen itzulpenari dagokionez, transferentzia egungo joera nagusia da, eta halaxe erakutsi du gure corpusak. Bertan bilduriko 7 xede hizkuntzetan, gehien erabili den estrategia izan da eta.

Egokitzapena izan da bigarren estrategia erabiliena. Ikusi dugunez, toki izenen kasuan, batik bat, baina baita pertsonaia izen ezagun edo marka izenen kasuan, besteak beste, ohikoa izaten da izen berezien ordainak xede hizkuntzan ezagun diren moduan ematea. Egokitzapenaren bitartez, sarritan, onargarritasuna bilatzen dute itzultzaileek, alemanerako OBBko itzultzaileak, esaterako.

Itzulpen sortzailearean barnean, kategoria ezberdinetako estrategiak bildu ditugu: transposizioak, gehikuntzak, kenketak edo eraldaketak, kasu. Guztiak ez dira maila bereko moldaketak: transposizioek ez dute gehikuntza batek adinako berritasuna gehitzen, esaterako. Informazioa bere horretan eman ordez, formaz aldatuta ematen da soilik. Batzuek zein besteek itzultzailearen alderdi sortzailea erakusten duten arren, elkarren artean alderik badela pentsa genezake. Horrexegatik, bi estrategia horien inguruan, gehikuntza eta kenketa, hipotesi bat daukagu: bai batzuk eta bai besteek testuetan garrantzia gutxi daukaten izenetan ematen direla. Hau da, gure ustez, estrategia horiek 3 aldiz edo gutxiagotan agertzen diren izenekin gertatzen dira. Itzultzailearen askatasuna gauzak sortu eta ezabatzeko ez da hain handia, eta, gutxi edo gehiago, eraldaketa horiek nabarmenagoak dira moldaketak edo ortografia egokitzapenak baino. Beraz, testuan pisu gutxi duten izen bereziak behar dute izan, gure iritziz.

Kenduriko eta gehituriko izenen kontaketa egin dugu. Gure datuen arabera, guztira 69 izen gehitu dira eta 47 kendu. Horiek guztietatik 98 behin soilik agertzen dira testuetan, 60 gehikuntzak dira eta 38 kenketak. Bi aldiz agertzen diren izenen kasuan, 6 gehikuntza eta 8 kenketa izan dira. Bestalde, xede hizkuntzetan 3 aldiz agertzen den gehikuntza bat ere bada, eta jatorrizkoan 4 aldiz agertzen den izen bat ezabatu egin da. Beste izen bat, STX liburuan ageri den *Lily Marlen* 7 aldiz agertu da gaztelaniazko gehikuntzan, eta *Basque Country* 7-9 aldiz gehitu da BL liburuaren itzulpenetan. Ikus dezakegunez, gure hasierako hipotesia ez da guztiz okerra, 4 kasutan izan ezik gainerako izen guztiak 3 aldiz edo gutxiagotan agertzen baitira, eta horietariko gehien-gehienak behin soilik agertzen dira.

Gure corpusari dagokionez, itzulpen sortzaile kopuru nabarmena aurki dezake irakurleak gaztelaniazko bertsioetan, oro har. Oso nabarmena da, esaterako, BL, STX, BA, OBB edo ZH liburuetan. Baina bada moldaketa oso gutxi dagoen libururik ere, SIG esaterako, edo XL eta XB (baina oso izen gutxi

agertzen dira azken horietan). Gainerako hizkuntzetan itzulpen sortzailea ez da hainbeste erabiltzen, itzultzaileak jatorrizkoari edo erabili duten iturriari lotuago jokatzen du oro har. Gaztelaniazko testua erreferentzia modura hartuz gero nabarmena da hori: itzulpen sortzaile kopuru oso baxuak agertzen dira, eta gainera, xede hizkuntza gehienetan oso antzerakoak dira. Zuzenean eginiko itzulpenen kasuan, itzulpen sortzaile kopurua gaztelaniazkoan ageri dena baino baxuagoa da beti.

Itzulpen linguistikoa izan da gutxien erabili den estrategia. Ez da oso ohikoa egungo joeretan, baina presentzia nahiko esanguratsua du haur eta gazte literaturan, eta, gure corpusari dagokionez, aipatzekoa da BEBM liburuan estrategia honek izaniko erabilera zabala.

Hizkuntzaz hizkuntza ere, aurrez eman ditugun datu orokor horiek kontuan izanik, hurrenkera hori bera kasu ia guztietan jarraitzen da, ingelesez izan ezik. Bertan, itzulpen sortzailea aurkitu dugu bigarren postuan, eta, hirugarren postuan, egokitzapena.

Datu absolutuak hizkuntzaka emateak ez luke zentzurik izango. Hizkuntza bakoitzera liburu kopuru ezberdina itzuli baita, seitik hasi eta hamalaura. Alderaketak egitea, beraz, alferrikakoa izango litzateke.

Hala ere, hainbat hizkuntzatan joera ezberdinak topatu ditugu. Galegoz, esaterako, egokitzapenerako joera ikusi dugu hainbat kasutan. Gainerako xede hizkuntzekin alderatuz, nabarmentzekoa da kultur moldaketa pertsona izenen kasuan batik bat. Katalanaren kasuan, bestalde, euskarazko izenak jatorrizko grafian mantentzeko joera nabarmendu dugu, Hernàndez itzultzailearen lanetan batik bat. Kasuren batean, jatorrizkoaren ortografia mantentzen saiatu da, gaztelaniazkotik itzulia izan dela nabari den arren (GBB liburuiko *Ruiz Agirre*-ren kasuan). Alemanaren kasuan eta ingelesezkoan, jatorrizko testuan hizkuntza horietako izenak ageri direnetan edo nazioartean ezagun diren beste hainbat izenen kasuan, egokitzapena egon dela nabarmendu behar da: hau da, xede kulturaren onargarritasunaren alde egin da.

Aipaturiko hurrenkera orokorra eta hizkuntzaz hizkuntzako ez da liburuz liburu beti errespetatu. Aurrez aipatu dugun moduan, eta euskarazko testua erreferentzia modura harturik, *Soinujolearen semea* libururaren itzulpenean, esaterako, itzulpen sortzailea bigarren estrategia da hizkuntza guztietan. Bestalde, *Obabakoak*-en frantseserako itzulpenean, lehenengo postuan izango genuke itzulpen sortzailea, eta egokitzapena, *Sara izeneko gizona* liburuaren italierarako itzulpenean.

Azterketa honen bitartez zera ondorioztatu ahal izan dugu: gaztelaniaratze prozesua ezin daitekeela gainerako hizkuntzetarako itzulpen prozesuekin parekatu. Gaztelaniaratze prozesuan autoreak beti hartu du parte eta hori emaitzetan igar daiteke: txertatutako moldaketak ez dira beste edozein itzultzailek sartu ditzakeenen modukoak.

Kasuan kasu itzulpen moduaren araberako ezberdintasunak alderatzen saiatu garen arren, ezin esan dezakegu alde nabarmenik topatu dugunik

autoitzulpenaren, kolaborazioaren edo beste itzultzaile baten lanaren atzean. Mugak lausoak dira hiru itzulpen moduen artean eta gehienetan autoitzulpena edo kolaborazio itxura dute itzulpenek, beste itzultzaile batek eginiko lana baino. Kasuren batean, SIGen esaterako, aldeak txikiak dira. Dena den, teorizazio mailan (ikus 84. orrialdea) aipatu dugun *continuum*-ean (autoitzulpenetik itzulpen alografora doana) kasu bakoitza zein mailatan dagoen zehaztea nahiko zaila da. Guztiak ere itzulpen alografotik baino autoitzulpenaren muturretik gertuago daudela esango genuke, autorearen esku-hartzea igar daitekeen heinean. Ondorioz, kasuan kasu itzulpena zein egoeratan egin den begiratu beharko litzateke, zein faktore erabakigarri izan den amaierako emaitza baldintzatu duena; denbora tartea, sariketak, jatorrizkotik itzulpenerako joan-etorriko bidea, eta abar.

Gainerako hizkuntzetara, berriz, aldaketak minimoak izan dira gehientsuenetan, nahiz eta kasu sortzailereren bat edo beste ere ikusi dugun. Guztietan ere gaztelaniarako autoreak ez beste itzultzaile baten lanaren aldean murriztak. Zuzeneko zein zeharkako itzulpena izan, itzultzaileek oso gertutik eutsi diote itzulpenerako erabiliriko iturri testuari.

Jarraian, azterketa honetan identifikatu ditugun hiru fenomenori buruzko iruzkina gehituko dugu: batetik, aurretiazko itzulpena duten izenena; bestetik, liburu batean baino gehiagotan errepikaturiko izenena, eta, hirugarrenik, eleaniztasunarena edo heteroglosiarena, hots, izenak hizkuntza batean baino gehiagotan agertzearena.

#### **10.2.1.6.1 Aurretiazko itzulpena duten izenak**

Atalaren sarreran aipatu dugunez, hainbat izenek badute aurretiaz ohiko itzulpen bat hizkuntza guztietan. Aurretiazko izen horiek kultura horietakoak izan ala ez, ezagunak zaizkio irakurleari edo gizarte horri, eta, horrexegatik, izen berezi hori badute xede hizkuntzan. Herrialde izenak, pertsonaia famatuen izenak, marken izenak, futbol taldeen izenak, espezie izenak, eta abar aurki daitezke talde horren barruan. Itzulpen estrategia bat edo bestea erabiliz izan dezakete izenak aurretiazko itzulpena xede hizkuntzetan: esaterako, *Alaska* transferentzia bidez itzuliko da ingelesetik euskarara, gaztelaniara edo italierara; *United Kingdom* izenak, ordea, itzulpen linguistikoa izango du, *Erresuma Batua* emanez; eta *Roma*-k egokitzapena jasango du, *Erroma*.

El concepto de traducción prefijada, tal como proclaman los teóricos y apunta la intuición, efectivamente constituye una variable de enorme fuerza a la hora de justificar las decisiones del traductor, así como para explicar buena parte de las situaciones en las que opta por soluciones distintas de la repetición (Franco Aixelá, 2000: 160).

Xede hizkuntzan aurretiazko itzulpena izateak, ordea, ez du bermatzen kasu guztietan itzulpen bat eta bakarra izango duenik beti. Horrela, esaterako, BA liburuan *Amerika* agertzen da jatorrizkoan, baina, itzulpenetan,

*California* edo *Idaho* modura eman da. Bestalde, ohikoa izaten da herrialde edo hiri izenen kasuetan, izena bera eman beharrean nondarra den adieraztea. Esaterako, BEBM liburuan *Europa* agertzen bada ere jatorrizkoan, frantsesez, alemanez eta italieraz “européenne”, “europäisch” eta “europea” agertzen dira. Alderantzizkoa ere gerta daiteke: OBBen, jatorrizkoan, “holandarra” agertzen da, eta, frantsesez, *Hollande*. Eraldaketez gain, kenketak eta gehikuntzak ere izan daitezke aurretiazko itzulpenen ordez.

Izen bereziak izendatzen duenaren arabera ez da beti aurretiazko itzulpenik izango, hau da, erreferentearen arabera izango da aurretiazko itzulpena egotea ala ez egotea. Esaterako, SS liburuan *Gernika*-k lau erreferente ezberdin dauzka: herria, Picassoren koadroa, pertsonaia bat eta jatetxea. Herriak zein koadroak aurretiazko itzulpena izango dute xede hizkuntzetan, baina ez pertsonaia edo jatetxeak, autoreak liburu horretarako berariaz sortuak izan baitira. Bestalde, hizkuntza guztiek ez dute aurretiazko itzulpen bana kasu guztietan. BLUn agertzen den *Urretxu* herri izenak *Villarreal de Urretxua* eman du gaztelaniaz. Izen hori, baina, gainerako xede hizkuntzetara transferentzia bidez pasa da: ez dauka aurretiazko ordainik horietan. BEBM liburuan agertzen den *Altzürükü* Zuberoako herriak Aussurucq izena du ofizialki frantsesez, baina liburu horretan euskarazkoa transferitu da.

Euskarazko testua erreferentzia harturik, aurretiazko itzulpena duten izen berezietatik 1.033 transferentzia bidez itzuli dira. 769 alditan, berriz, egokitzapenaren bitartez. Bi horiek dira itzulpen modu ohikoenak horrelako izenak tokatzen direnetan. Hala ere, ez dugu ahaztu behar aztertzen ari garen corpusa literatur testuz osaturik dagoela, eta, beraz, ez dela arraroa beste mota batzuetako itzulpen estrategiak topatzea. 111 itzulpen linguistiko topatu dugu esaterako eta 229 itzulpen sortzaile. Itzulpen sortzaileen kasuan, esaterako, izen berezi horiek ezabatzea edo gehitzea izan daiteke aukeretako bat, *Espainia* agertzen zen tokian xede testuan ez agertzea, edo jatorrizkoan agertzen ez zen *California* gehitzea. Gehikuntza edo kenketak partzialak ere izan daitezke, *Schuchardt* agertzen zen tokian *Hugo* izena gehitzea esaterako. Bestela, aurrez esan bezala, hainbat motatako eraldaketak ere topatu ditugu: *Amerika* agertzen den tokian *California* edo *Idaho* izenak gehitzea, edo *Grezia* agertzen den tokian nondarra den agertzea, “griego” edo “greco” kasu.

Aurretiazko itzulpena duten izenen kasuan –exonimo zein pertsonaia ezagunen izenak batik bat–, xede hizkuntzetan horiek erabiltzea izaten da ohikoena. Hala ere, itzultzaileak, hainbat faktore medio, unean uneko itzulpen egokiena erabiliko du, eta kendu, zabaldu edo eraldatzea ere posible izango du. Izen berezien itzulpena, beraz, bakoitzari dagokion testuinguruaren menpe egongo da, eta ez aurretiazko arauen menpe.

#### 10.2.1.6.2 Errepikaturiko izenak

Idazle batek bere ibilbidean zehar istorioak, kokalekuak, egoerak, pertsonaia errepikatu egin ditzake. Liburu ezberdinetan ager daitezke pertsonaia berdinak, ala izen bereko pertsonaia ezberdinak, herrialde

berdinak, eta abar. Bernardo Atxagaren lanen corpus mugatu honetan ere horrelako hainbat kasu topatu dugu: errepikaturiko 61 izen guztira.

Errepikapen horien inguruan arituko gara atal honetan. Zenbaki absolutuak ematea ez da oso baliagarria izango. Bakoitzak erreferente ezberdinak dituelako, batetik. Esaterako, *Teresa* izena BA eta SS bi liburuetan agertzen da, baina bietan ez da pertsonaia bera. Bestetik, errepikapenak ez direlako hizkuntza guztietan gertatzen. Esaterako, *Terranova*-ren kasuan, STX ez dago alemanera itzulita eta bai BLU; bi liburuetan agertzen da izena, baina errepikapenik ez dago hizkuntza horretan.

Errepikapenak euskarazko testutik abiatuak zenbatu ditugu. Hala ere, badira hainbat izen, euskaraz agertu ez baina gaztelaniaz gehitu direnak, eta horiek ere errepikapenen taulan gehitu ditugu, kolore ezberdinez beti ere. Guztira, horrelako 17 kasu topatu ditugu.

Bestalde, errepikapenak begiratzerakoan, corpusean zehar euskara ez normalizatuaren zantzuak edo sintomak nabari daitezkeela ohartu gara. Lehenengo testutik azkenekora ia 20 urteko aldea dago. Euskara denbora horretan guztian normalizazio bidean egon da, eta hainbat izen ezberdin idatzirik topatu dugu: *Madril* eta *Madrid*, *Barcelona* eta *Bartzelona*, *Miarritze* eta *Biarritz*, *Cataluña* eta *Katalunia*, *Euskal Herria* eta *Euskalerrria*, *Bilbo* eta *Bilbao*.

Gehien errepikatu diren izenak *Amerika* (5 aldiz), *Bilbao* (5 aldiz), *Obaba* (6 aldiz) eta *Paris* (5 aldiz) izan dira. Ikus dezakegunez, toki izenak izan dira errepikatuena. Jarraian, 4 bider agertzen direnen artean, bada bataio-izenik ere, *Martin* eta *Maria* kasu.

Errepikaturiko izen gehienak berdin itzuli dira testu batean zein bestean, toki izenak bereziki. Esaterako, *Bilbao*-k eta *Bartzelona*-k beti ordain berak jaso dituzte xede testuetan. Liburu batean edo bestean, errepikaturiko izen hori itzulpenean desagertu egin da: *Biblia*, esaterako, BEBMen gaztelaniaz gehiturikoa, alemanez eta italieraz desagertu egin da. Gauza bera gertatu da ZHn agertzen den *Bidebarrieta* kalearen izenarekin, xede hizkuntza guztietan ezabatu da.

Bestalde, herrialde izenaren ordean nondarra den agertzen den kasuetan ere, xede hizkuntzetan errepikapenak desagertu egingo dira. BLUn, *Erroma* gaztelaniaz, katalanez eta alemanez, nondarra bihurtu da; italieraz, baina, ez.

Jarraian, aipagarriak iruditu zaizkigun hainbat kasu agertuko ditugu. Aurrez esan bezala, izena errepikatu egin daiteke, baina erreferente ezberdinez. Esaterako, BL liburuan *Agirre* istorioko pertsonaia nagusiaren abizena da, eta gaztelaniazko grafiara egokiturik itzuli da itzulpen guztietan, katalanezko bigarrenetan eta ingelesezkoan izan ezik. GBBn *Ruiz Agirre* deitura duen pertsonaia bat aipatzen da une jakin batean. Abizen hori gaztelaniara *Arregui* bihurturik igaro da, hots, abizena bera aldaturik. Hirugarrenik, SS liburuan, *Agirre* lehendakariari egiten zaio erreferentzia, eta berau guztiz ezabatu da itzulpenetan.



Aurrez esan bezala, Amerika 5 aldiz agertzen da eta, beraz, izen itzulien artean sailka daiteke. 4 liburutan, aurretiazko ordaina erabiliz igaro da xede testuetara. BLren ingeleserako itzulpenean, *America* erabiltzeaz gain *States* sinonimoa ere erabiltzen da, errepikapena ekidite aldera. Bosgarren kasuan, BAn, *Amerika* desagertu eta *California eta Idaho* gehitu da, lehen aipatu dugun moduan.

*Martin* eta *Maria* izenei dagokienez, bakoitza lau aldiz agertzen da, eta ez da beti berdin jokatu horiek itzultzerakoan. *Maria* BLn, OBBn eta BLUn agertzen da, guztietan ere euskaraz berdin idatzirik. BLn eta BLUn pertsonaia euskalduna da; OBBn, berriz, alemana. Lehenengo biak gaztelaniara azentu marka eta guzti igaro dira, eta hirugarrena, ez. Hirugarren hori, xede testu guztietan ageri da azentu markarik gabe. Gainerako biak, berriz, ez: katalanez, BLn lehenengoan azentu markaz, eta bigarren itzulpenean, gabe, eta BLUn ere azenturik gabe. Galegoz, BLn ere azentu markaz ageri da. Frantsesez, ingelesez eta italieraz azentu markarik gabe ageri dira, eta, alemanez, berriz, BLUn azentu marka mantendu egin dute. OBBren bigarren ipuinean, beste *Maria* bati egiten zaio erreferentzia (gaztelaniaz gehitua), kasu honetan azentu markaz, eta horrela transferitu da alemanera izan ezik gainerako hizkuntzetara ere. *Martin* izenari dagokionez, BL, STX, SIG eta SS liburuetan ageri da. Lau liburuen gaztelaniaratzean, azentu marka gehitu zaio izenari. Xede hizkuntzetan, ordea, ez da beti irizpide beraz itzuli: italieraz azentu marka beti mantendu den bitartean, frantsesez eta ingelesez gabe itzuli da bitan, eta, behin, azentuarekin. Galegoz, berriz, guztiz egokitu da izena behin, eta *Martíño* bihurtu.

Hainbat toki izenetan, aurretiazko ordaina izan arren, ez da beti erabili. *Milan*, alemanez, *Mailand* modura itzuli da ZHn, eta, BLUn, *Milan* modura. Kasu horretan, hiriari buruz baino, futbol taldeari buruz ari dira. *Paris*, berriz, italieraz *Parigi* modura eman da lautan, eta *Paris* modura behin, BEBM liburuan. Bertan, *Pauline Bernardette* hitz egiten ari delarik aipatuko du, italiara eta frantsesa nahastuz.

Bestalde, *Francisco* izenaren hiru erreferente ezberdin topatu ditugu guztira. Batetik, OBBn santua agertzen da; bestetik, BLUn, *Goya* pintorea, eta, hirugarrenik, SSn, *San Frantzisko* hiria. Hiruak ala hiruak ere oso trataera ezberdina izan dute. Goyaren kasuan, *Francisco* mantendu da itzulpen guztietan. Santuari dagozkion erreferentzia guztietan egokitu egin da, eta izenaren aurretiazko ordaina erabili, bakoitzak bere hizkuntzan. Hiriari dagokionez ere, egokitu egin da, euskarazko *San Frantzisko*-tik *San Francisco* emanez.

*San Juan* egunari dagokionez, hirutan topatu dugu corpusean: BAn, OBBn eta SSn. Lehenengoa, xede hizkuntza guztietan egokitu da, eta, bakoitzean, dagokion aurretiazko ordaina eman zaio. Bigarrean, egun horri eginiko erreferentzia ezabatu egin da itzulpenetan. SSren kasuan, berriz, gaztelaniaz, ingelesez, alemanez eta italieraz *San Juan* mantendu da, eta katalanez, galegoz eta frantsesez xede kulturetara egokitu.

Beraz, ponte-izenen edo berariaz testu jakin batetarako sorturiko izenen itzulpena egokitasun eta onargarritasun irizpideen menpe egongo da, hau da, jatorrizko arauen modura eman edo xede hizkuntzako arauetara egokiturik eman, itzultzaileak erabaki beharko du testuaren beharrezanez begira. Bi itzultzailek liburu ezberdinetan agerturiko izen bera ezberdin itzultzea erabaki lezakete hizkuntza berera (ikus 446. orria).

### 10.2.1.6.3 Eleaniztasuna

Izen bereziak banaka-banaka ikusiz, eta nolakotasunari arreta eskaintzen badiegu, corpusean bilduriko liburu guztietan jatorrizko hizkuntzakoak ez diren izen ugari dagoela ohartuko gara. Istorioak han-hemenka kokatzen direnez, ageri diren izenak ere kultura ezberdinetakoak dira. OBB liburuan, Hamburgoko kale zein eraikinen izenak edo pertsonaien izenak alemanez ageri dira; BL eta SS liburuetan, istorioen zati batzuk Estatu Batuetan gertatzen dira, eta horietan ingelesezko izenak txertatzen dira (hiri izenak, kale izenak, pertsonaien izenak, eta abar); GBBn, pertsonaiak Bartzelona inguruan bizi dira eta hori izenetan nabarmentzen da, gainera, Poloniako futbol selekzioa ageri denez, pertsonaia izen ezagunak polonieraz ageri dira; BLUn Bambulo Madrilerara joango da eta bertako izenak ere gaztelaniaz emango dira. Ez dezagun ahaztu jatorrizko kultura elebiduna duela autoreak, eta “jatorrizko” kontsidera daitezkeen zenbait izen ere gaztelaniazkoak ere badirela: *Don Gregorio*, *San Juan*, *Carmen*, *David*, eta abar. Azken horiek egokiturik ageri dira gaztelaniaz ia kasu guztietan. Eta gainerako hizkuntzetan, kasuan kasuko egokitasun edo onargarritasun arauen arabera agertuko dira. Hala ere, katalanezko itzulpenetan, oro har, euskarazko grafia mantentzeko joera nabari da, Hernàndezen itzulpenetan batik bat.

Izen horiek euren jatorrizko hizkuntzetara itzuli behar izaten dira sarritan. Itzultzaile bakoitzak estrategia ezberdinak erakutsi ditu. Esaterako, GBBn katalanez agertzen diren izenen kasuan itzultzaileak oin-oharrak gehitu ditu izen horiek jatorrizkoan ere katalanez emanak zeudela adierazteko. Beste batzuetan, zehaztapenak, moldaketak edo zuzenketatxoak gehitu ditu itzultzaileak. *Obabakoak*-en, *Werfel* abizenari bigarren “l” bat gehitu dio alemanerako itzultzaileak; *Binnen* lakua *Binnensalter* bihurtu du, eta *Johameshof* kalearen ordez, *Johanneshofstraße* eman du. Modu berean, *Soinujolearen semea*-ren ingeleserako itzultzaileak *City Lights Bookshop* liburu-denda dela zehaztu du, *Mission* auzunea *Mission District* dela esan, eta *Sequoia Park*, parke nazionala dela gehitu (*Sequoia National Park*). Kasurik gehienetan, dagokien exonimoa izan da erabilitako ordaina, eta onargarritasuna hobetsi dute guztietan ere itzultzaileek, jatorrizkoa transferitu beharrean.

Beste batzuetan, hirugarren xede hizkuntza batzuetara itzuli behar izan dira izen horiek. Kasu horietan, ohikoena, izenak transferentzia bidez ematea izan da.

Aipaturiko guztiak kontuan izanik, jatorrizkoetan eleaniztasun zantzuak argi ikus daiteke. Moyak bere azterketan aipatzen duenez:

(...) los textos son bilingües o multilingües, debido, entre otras cosas, a los escritos de Derrida, quien poniendo el dedo en una de las llagas/sombras de la teoría de la traducción (y en otra ocasión criticando la división que hace Jakobson de la traducción) postula que las lenguas implicadas en un texto pueden ser varias (Derrida, 1991: 250; *in* Pym, 1992: 61; *in* Moya, 2000: 74).

Beraz, kontuan izan beharko da Itzulpen Ikasketetan, egungo mundu globalizatuan, gero eta sarriago aurki daitezke eleaniztasun edo kulturantzatasun zantzuak testuetan. Horien aurrean itzultzaileak hartu beharreko erabakiak unean uneko beharretara egokitu beharko ditu.

Azterketa honetan argi ikusi ahal izan dugu, jatorriz euskaraz idatziriko testu hauek ez direla euskal kulturaren eta hizkuntzaren soilik kokatzen. Liburu guztietan izan da beste hainbat hizkuntzarako izenik: gaztelaniazkoak, ingelesezkoak, frantsesezkoak, eta abar. Horrek agerian uzten ditu eleaniztasunaren zantzuak. Eleaniztasunaz haraindi, heteroglosiaren auzia oso interesgarria izan daiteke: testua hizkuntza batean dago idatzita baina beste hizkuntza batzuen erabilera iradokitzen da edo beste hizkuntza horien zantzuak agertzen dira testuan bertan.

### **10.2.2 Maila semantikoa: koloreen azterketa**

Testu mailan egingo dugun bigarren azterketa koloreen ingurukoa izango da. Koloreak, une oro present ditugun elementuak izanik, alor ezberdinetatik jorratu izan dira, bai fisika, kimika edo fisiologiaren ikuspegitik eta baita psikologia, antropolopia edo kultur ikuspegitik ere. Ikerlan honetan, kultur elementu modura jorratuko ditugu koloreak, eta koloreak adierazteko hitzak corpuseko hizkuntzetan nola erabili diren eta nola itzuli diren ikusiko dugu, funtzio semantikoa kontuan izanik.

Errealitatean dauzkagun elementuak dira koloreak, eta une oro ari gara horien berri jasotzen begiradaren bitartez. Kromatismoa oso zabala da, Bermúdez *et al.*-ek dioten moduan, “la aplicación de una propiedad cromática a objetos o realidades es (a su vez) ilimitada. Y consecuentemente es factible pensar que ilimitadas son también las respuestas de los traductores” (Bermúdez *et al.*, 2004: 10). Horregatik, aukera ugari irekitzen duenez kontuak, itzulpen mota ezberdinak erabiliz alderik nabaritu ote daitekeen ikusi nahiko genuke koloreen itzulpenaren inguruko azterketa honen bitartez.

Kultura bakoitzak bere modura interpretatu izan ditu koloreak historian zehar, nahiz eta, gaur egun, unibertsalizatzen jo duten, mendebaldekoek behintzat. Kultura bakoitza inguratzen duen errealitateak eta eguneroko beharrezanek eragina izan dute kromatismoaren interpretazioan, eta hori euskarari loturik nolakoa izan den hartuko dugu hemen kontuan.

Azterketa honetarako, euskaraz gehien erabiltzen diren koloreak hartzea iruditu zaigu egokiena. Gure helburua ez da kolore guztiak hartu eta bakoitzaren ordainak banaka-banaka aztertzea, hori tesi honen mugetatik haratago joatea izango litzateke. Koloreen itzulpenaren inguruko ideia orokor bat eman nahi dugu, eta, horretarako, oinarrizko koloreak edo kolorerik erabilienak zeintzuk diren ikusiko dugu.

Lehenengo eta behin, koloreen identifikazioari buruz arituko gara, kultura bakoitzak koloreekin bizi duen harremana kontuan izanik. Jarraian, azterketa testualari ekingo diogu buru-belarri. Lehenik eta behin, Berlinek eta Keyk 1969an definituriko oinarrizko 11 kolorek osaturiko zerrenda zein den ikusiko dugu eta kolore horiek gure corpusean zenbateko presentzia izan duten, bai jatorrizko testuetan eta bai itzulpenetan. Ondoren, azterketa testual sakonagoa egingo dugu, gehien erabili diren 5 koloreak kontuan izanik. Amaieran, hainbat ondorio emango dugu.

### 10.2.2.1 Koloreen definizioa eta pertzepzioa

Koloreak gertuko elementuak ditugu, eta begiratu hutsez identifika ditzakegu. Begi bistan ditugu eta nahiko arrunta izan ohi da, Preciadok dioen moduan, “*hor daudela, gizakiek duten berezko ezaugarria* direla eta antzekoak entzutea” (2009: 11). Hala ere, “kolorea fisikoki ez da, sentsazioa baino ez da” (*ibid.*).

Gizakion koloreen pertzeptzioa hainbat osagaien menpe dago, hala nola argi-iturri mota (naturala ala artifiziala), tartean dauden elementuak (oxigenoa, ura, hautsa, etab.), jasotzailea edo kolorea detektatzen duena, eta azken horren nerbio-sistema edo garuna (Preciado, 2009: 11-12). Ezaugarri estatiko ez izateaz gain, kontuan izan behar da, baita ere, gizakiok dugun unibertso kromatikoa gizakiona dela, eta inguruan ditugun abereena ez dela gurearen berdina.

Hala ere, eta koloreak gauzen ezaugarri erabatekoak ez direla onarturik ere, ohiturik gaude gauza bakoitza bere koloreaz identifikatzen: elur zuria, ikatz beltza, tomate gorria, etab. Hautematean datza gakoa, eta gure memorian elementuak behinolako kolorez identifikatu beharrean. “Zentzumenek aldaketa, ñabardura eta zehaztasunak jaso egiten dituzte, bai, baina gure hautemateak finkatzen ditu lehentasunak eta, halako baldintzapean ikusita ere, gehiago interesatzen zaio objektuaren identifikazioa ñabardura kromatikoa baino” (Preciado, 2009: 16). Identifikazioa egiteko errealitatea iraunkor irudikatzen dugu, aldaerak bigarren mailan utziz. Beraz, nahiz eta errealitatea egonkor eta iraunkor agertzeko joera dugun, kontuan izan behar da koloreak ez daudela hor, berez, guk uste dugun moduan.

Giza-begia milaka ñabardura kromatiko ezberdin bereizteko gai da, baina, hala eta guztiz ere, koloreen izendapen nahiko murrizta erabili ohi dugu. Preciadok dioen moduan, espektro kromatikoa muga zehatzik ez duen ‘continuum’ bat da, eta egunerokoan erabiltzen ditugun izendapenek kolore

familiei egiten diete erreferentzia, hizkuntzak ezin izango bailituzke anbiguotasunik gabe izendatu. “Los nombres que corrientemente se aplican a los colores no expresan, en general, un matiz preciso de color, sino grandes áreas de colores” (Küppers, 1979 *in* Preciado, 2008: 31).

### 10.2.2.2 Koloreen sailkapena

Ezin dugu koloreen sailkapen bat eta bakarra egin, mota askotarikoak baitaude, arlo bakoitzean berea.

Mendebaldeko ikuskera modernoaren arabera, koloreen sailkapena egiteko bi kolore sistema nagusi ditugu: CMYK eta RGB. Lehenengo akronimoak Cian-Magenta-Yellow-Black esan nahi du, hots, zian-magenta-horia-beltza. Sistema horretan, magenta, horia eta ziana dira hiru kolore primarioak, pigmentazioari dagokionez. Kolore primarioen baturak beltza ematen du sistema horretan. RGB, berriz, Red-Green-Blue hitzen akronimoa da, hau da, gorria-berdea-urdina. Sistema horretan, kolore primarioen baturak zuria ematen du, eta argiarekin guztiz lotuta dago. Sistema bakoitzak erabilera eremu ezberdinak hartzen ditu, beharren arabera. Bigarren sistema, konparazio batera, inprentan erabiltzen da.

Hiru kolore primarioek eta berauen konbinaketek oinarritzko koloreen zerrenda osatzen dute, eta ondorengoak dira: gorria, berdea, urdina, horia, ziana, magenta, zuria eta beltza.

Oinarritzko kolore horiek ez datoz guztiz bat hiztunek egunerokoan erabiltzen dituzten ohiko koloreekin. Morea, laranja edo marroia, esaterako, ez dira oinarritzko koloreen multzoan sartzen, baina kolore aski arruntak dira egungo gizarte modernoan. Erabilpenarekin batera, kolore bakoitzaren historia edo tradizioa ere kontuan hartu behar da; kolore bakoitzaren alderdi kromatikoaz haratago, kulturaren aldetik duen adierazpena, irudikapena eta karga semantikoa.

Kultura bakoitzak eta, honenbestez, hizkuntza bakoitzak bere sailkapen propioa izan du koloreak unibertsalizatu aurretik, eta koloreak aztertu dituzten ikertzaileek teoria ezberdinak landu izan dituzte. Hasteko eta behin, beltza eta zuriaren arteko bitasuna izango genuke, edo, aurrerago ikusiko dugun moduan, zuria, beltza eta gorriaren arteko hirukoa. Newtonek proposaturiko 7 koloreen teoria ere badugu, nahiko itzal izan duena gaur egunera arte. Ostadarrak 7 kolore dituela ere teoria horretan oinarritzen da.

1969. urtean eginiko azterketan, Berlinek eta Keyk hogeitazko hizkuntzatarako oinarritzko koloreen inguruko azterketa gauzatu zuten, hizkuntza horietan dauzkaten izendapenari dagokionez, hots, maila linguistikoari dagokionez. Hamaika koloreko zerrenda (zuria, beltza, gorria, berdea, horia, urdina, marroia, morea, arrosa, laranja eta grisa) osatu zuten ikerlan hartan. Koloreen izendapenaren garapenaren inguruan ikertu zuten, eta kategorizatu egin zuten izendapen horiek hamaikara arte iristeko bidea, etapa bakoitzean sortzen zen kolorea zein zen zehaztuz. Urte hauetan guztietan beraien teoriak

eta emaitzak nahiko kritikatuak izan badira ere, oinarritzko kolore horien zerrenda erabilgarria da oraindik orain hainbat ikertzaileentzat.

### 10.2.2.3 Koloreen alderdi kulturala

Koloreak une oro ikusten baditugu ere, eta hein batean elementu unibertsalak badira ere, koloreak kulturari loturiko elementuak direla ezin zalantzan jarri<sup>330</sup>. Kultura bakoitzak bere beharren arabera izendatu ditu, eta kolore bakoitzaren alderdi semantikoa hizkuntza batetik bestera aldatu egingo da.

Ez dira gutxi koloreak kultura- edo hizkuntza-elementu gisa ikusi dituztenak<sup>331</sup>. Gogoan har dezagun, esaterako, Sapirren eta Whorfen hipotesia deiturikoa: printzipio horren arabera, hizkuntza bakoitzaren egiturak zerikusia du hiztunek mundua kontzeptualizatzeko duten moduan. Pentsakera eta hizkuntzaren artean harremanik ba ote dagoen aztertu nahi izan zuten ikertzaile horiek, eta horretarako koloreen inguruko froga enpirikoak egin zituzten. Bestalde, Goethek ere ikuspegi newtondarretik haratago joanez, bere ikuspegi alternatiboa eskaini zuen, atzematearen subjektibitatea kontuan hartzen zuena. *Zur Farbenlehre* liburuan, bere teoria propioak azalpen zabalagoa eskaini zuen Newtonek emanikoak baino, eta harenak kasu bereziak zirela zioen bertan. Koloreen hautematea argitasunaren nolabaiteko orekaren arabera dela adierazten du Goethek. Zientzialariek ez zioten kasu handiegirik egin bere teoriari eta bere lanak ez zuen eragin handiegirik izan.

Hortaz, egungo ikuspegi modernoan, koloreak elementu unibertsalak izan arren, ezin ukatu alderdi semantikoa hizkuntza bakoitzari loturik ere badagoela.

Ciñéndonos al mundo de los colores podemos poner de manifiesto la universalidad del fenómeno en la medida que la percepción del color se da en todas las culturas, pero igualmente no podemos menos que considerar diferentes visiones que diversas culturas ofrecen del universo cromático, poniendo de manifiesto que, siendo característica cultural, los colores los aprendemos a ver; y que en circunstancias diversas los identificaremos o diferenciaremos según el contexto específico de nuestra cultura (Preciado, 2008: 26).

Gaur egun mendebaldeko kulturetan koloreen unibertso kromatikoa nahiko parekatuta egon arren, bada kultura horiek tradizionalki izan duten pertzepzioaren arrastorik. Kultura bakoitzak koloreen erabilera propioa egin izan du. “Los términos poseen una manifiesta amplitud de significados que

<sup>330</sup> Koloreen inguruko ikerketa lan zabala egin zuen Ekai Txapartegik *Color y representación* (2004) doktore-tesian.

<sup>331</sup> Euskal letretan, esaterako, Joseba Sarrionandiak aipatzen du koloreen sinbologia *Ni ez naiz hemengoa* liburuaren hainbat pasartetan.

trascienden lo puramente cromático e incluso adquieren una cierta amplitud de posibilidades de concreción a determinar por el contexto” (Preciado, 2008: 269).

Koloreez hitz egiterakoan, zientzia modernoak uhin luzera ezberdinen jarraitasun bat islatzen duen espektro elektromagnetikoaren zati ikusgarria adierazten du (400 nm eta 700 nm-ko uhin-luzeradun uhinen bitartekoa). Hala ere, kolorearen eremu semantikoa era desberdinetara mugatu izan du hizkuntza eta kultura bakoitzak (Perurena, 1992: 11). Koloreen mapa oso zabala, mugagabea ere badela esan genezake, baina kultura bakoitzak bere beharren arabera sailkatu eta erabili ditu. Nahiko hedatuta dagoen adibidea eskimalena dugu, 10 zuri ezberdin bereizten ei dituzte (Preciado, 1995b: 84). Amazoniako bororoek, berriz, berde mota ugari ezberdintzen dituzte: “Los indios *bororos* del Amazonas disponen en su lengua de diecisiete palabras diferentes, que aluden a realidades para ellos distintas y designan lo que para nosotros es una realidad única expresada por una sola palabra: el color *verde*” (Navarro Alcala Zamora in Preciado, 1995b: 84). Ondorengo adibidean, berriz, tonalitate bat baino gehiago biltzen ditu izendapen zabal batek: “Zuni hizkuntzan, kasu, adiera bakar batek biltzen ditu ingelesaren *orange* ‘laranja’ eta *yellow* ‘horia’ ... eta gaeleraren *glas* berbak ingelesaren *green* ‘berde’, *blue* ‘urdin’ eta *grey* ‘grisa’ batzen ditu” (Hudson in Preciado, 2009: 19). Koloreen izendapena, beraz, ez da guztiz zehatza eta mugatua, kultura bakoitzaren arabera izango da.

Nahiz eta *gorri*, *rojo*, *vermell*, *red*, *rot*, eta abarrak maila berean jarri ohi diren (hiztegietan, besteak beste), bakoitzak bere ñabardurak dauzka, eta ez dira %100ean baliokideak. Koloreek irudikapen ezberdinak hartuko dituzte hizkuntza batetik bestera, mundu ikuskera eta sinbologia kultura bakoitzari loturik egongo den heinean. Esate baterako, “espainolezko *verlas moradas*, euskaraz *gorriak ikusi*, izanen genuke hizkuntza bietako kolore jokoari eutsi nahiko bagenio behintzat” (Perurena, 1992: 89).

Koloreen garapenari dagokionez, 1856. urtea data garrantzitsua da, William Perkin kimikariak tindagai sintetikoa sortu baitzuen. Ordura arte, naturatik lorturiko tindagaiak erabiltzen ziren, eta kolore unibertsoa, gaur ezagutzen dugunarekin alderatuz gero, askoz ere murriztagoa zen. Kultura bakoitzak, gainera, bere erabilera ematen zion kolore bakoitzari eta ez zegoen gaur egun dagoen adinako baliokidetzarik. Beraz, koloreak gaur ezagutzen ditugun moduan ez dira hain zaharrak ere, eta erabilera hori oso loturik dago garapen ekonomiko eta kimikoarekin (Preciado-Martinez Lizarduikoa, 2003: 192).

Ordudanik, koloreen erabilera asko hedatu da alor ezberdinetan, eta, herrialdeen arteko harremanak direla medio, koloreen pertzepzioa ere globalizaturik agertzen zaigu.

Gizarteak modernizatu ahala, elkarren antza handia hartzen hasi ziren mundu ikuskerari dagokionez, homogeneousunera bideratuz guztiak ere itzulpena medio. Gaur egun, kolore ikuskera tradizionalak kultura indigenetan

edo, Preciadok eta Martinez Lizarduikoak esaten duten moduan, herri “ez-hezi”etan diraite indarrean. Euskararen kasuan, modernizazioak inguruko hizkuntzen balio berdinetara lerratu ditu koloreak, nahiz eta mundu ikuskera tradizionalaren zantzuak egungo hizkeran bizirik dirauten hein batean (Preciado-Martinez Lizarduikoa, 2003: 151).

#### 10.2.2.4 Koloreak euskal tradizioan

Euskaraz koloreak izendatzeko hitz kopuru nahiko mugatua izan dugula esan ohi da. “Euskarak hiztegi kromatiko urria du (bereziki oinarritzko koloreei dagokiena)” (Preciado, 2009: 29). Garaian garaiko beharretara egokitzeko, euskal kulturak, “kultura guztietan ez bada, behinik behin gehienetan gertatzen den bezala, kolore-hitz berririk sortu edo maileguan hartu behar izan du” (Preciado, 1995b: 77). Preciadok aditzera ematen duen moduan, gurean bezala gainerako kulturetan ere, koloreen errealitatea eguneratu egin da, eta kultur arteko harremanak gero eta gertuagokoak izateak koloreen sailkapena gero eta homogeenagoa izatea eragin du.

Hiztegi urritasuna ulertzeko, koloreen funtzioari buruz hausnartu beharko genuke lehendabizi; hau da, ea koloreak tonalitate jakinak izendatzeko erabiltzen diren, zerbaiten definizio modura, edo koloreak sailkapen bat egiteko elementuak diren. Zerbaiten osoko itxura definitzeko edo unean uneko ezaugarriak nabarmentzeko tonalitateari baino egoerari erreferentzia egin geniezaioke: heze edo lehor, zahar edo gazte. Kasu horretan, kolorearen bidez esan daitekeena beste esamolde batzuk ordezkatzeko, koloreak baino ñabardura gehiago emango baitizkigute beste bereizgarri batzuek. Koloreak klasifikazio elementu modura ere erabil daitezke, eta, kasu horretan, ez zaizkio tonalitateari hertsiki lotuko.

En la mayoría de los casos (es decir, cuando no estamos precisamente marcando las diferencias cromáticas: muestrarios de pintura, colores de coches, fábrica de hilos...) la referencia cromática no es tanto descriptiva cuanto clasificadora; es decir, no importa tanto si es un rojo escarlata, rojo bermellón o rojo grazna cuanto su categorización como tal en referencia a otro objeto o animal... con una característica cromática diferente (...) (Preciado, 2008: 273).

Esaterako, ardoa zuria, beltza edo gorria da euskaraz, baina hiru kolore horiek ez dute erakusten zehazki bakoitzaren tonalitatea. Halaber, ardo zuriak bere baitan tonalitate ugariak ardo motak hartuko ditu, eta berdin gorriak eta beltzak ere.

Beste hainbat hizkuntzatan bezala, gurean ere zuria, beltza eta gorria izan dira hiru kolore primitiboak. Euskaraz, hasiera batean, zuria eta beltza koloreak sortu ziren, argitasuna eta iluntasuna izendatzeko; ondoren, horien



artean, kolorea adierazten zuen gorria<sup>332</sup>. Ezin uka daiteke hiru kolore horien garrantzia gure hizkuntzan; “hirurak agertzen dira nagusitasunez, hirurak dira antzinakoak, hirurak oso maiz erabiltzen dira toponimoetan, hirurak Euskal Herri osoan hedatuta daude, hirurak sailkapenetan oso erabiliak eta hirurak dira, kolore-hitz zaharrei dagokien bezala, kromatikoak ez diren esanahi ugariaren jabe” (Preciado, 2009: 21-22). Kolore horiek hainbat ñabardura dauzkate, eta garai batean zuten zentzua edo erabilera ez dira gaur egunekoaren guztiz parekoak. Kromatismoaz haraindi, sinbologia oso zabala eskaintzen dute.

Oinarrizko hiru kolore horien ondotik sortu zen urdina ere, zuria eta beltzaren artean kokatzen zen kolorea, urdin, berde eta grisak bere gain hartzen zituena (Preciado, 1995a). Urdina zehazgabeko kolorea izan da tradizionalki, eta ez da zentzu modernoan erabiltzen dugun tonalitatearen parekoa izan. “Berez ez-koloretzat edo ez benetako koloretzat jo beharko genuke eta esanahi kromatikoaren aldetik, bere kokapena zeharo adierazgarria delakoan nago: zuri-beltzaren artean eta nonbait gorriarekin kontrajarria” (Preciado, 1995a: 7-8). Euskal tradizioan ageri den urdin hori ez da gaur egun darabilgun urdin tonalitatearen guztiz baliokidea. Euskal usuario zaharreen, zuria eta beltzaren arteko kolorea da, egungo grisaren parekoa edo, baina berdearen hainbat ñabardura ere hartzen ditu bere baitan<sup>333</sup>. Bestalde, urdinaren izaera modernoa garbitasunari guztiz loturik agertzen zaigu. Mendebaldeko kulturetatik jasoriko zentzu hori kristautasunaren eskutik etorri zen, garbitasuna, edertasuna eta birgintasuna irudikatuz. Urdina zentzu horretan Gipuzkoan erabili izan da, batik bat; beste hainbat tokitan, azula eta blua erabili dira zentzu modernoa adierazteko.

Mendebaldeko eskema gailentzen hasi eta hizkuntza ezberdinen antolaketa kromatikoaren parekatzen hasi zenean, beste hainbat kolore izendapen ere sortu ziren, hala nola maileguz hartutako berdea edo gorritik eratorritako horia. Eta tradiziozko koloreen erabilera ere egokitu beharra izan zen. Mendebaldeko kulturari dagokionez, “berdea, mutur bietako zuri eta beltz artean, kolore erdirakoa genuke, kristautasunetik hasi eta egungo tolerantzia eta demokrazia giroraino heldu den sinbologian” (Perurena, 1992: 60). Berde izendapena eta kolorea kromatismo definitu modura nahiko arrotza izan da euskal kulturaren. Kolore berdeari dagokion kromatismoa beltzak bereganatzen zuen euskaraz garai batean. “Gure usuariozko koloreen sailkapen zaharreen, beltzak bereganatzen baitzuen berdearen gerozko ñabardura” (Perurena, 1992: 60). Bestalde, Preciadorek hitzetan “nire ustez gakoa urdinean bilatu beharra dago” (1995b: 90). Baina ez egungo urdinean, garai batean urdinak hartzen zuen zentzuan baizik (*ibid.*). Beltza eta urdina dira, beraz, berdearen tonalitatea bere baitan hartzen zutenak. “Beltzetik urdinera

<sup>332</sup> “(...) euskaraz dugun hiztegirik zaharrenak hauxe dakar: Colorado: kolore daucana edo gauça gorria (Landuchio, –1562– 1958: 83)” (Preciado 2009: 27).

<sup>333</sup> Perurena eta Preciadorek lanetan xehetasun gehiago aurki daiteke honi buruz.

pasatzen da gure berezitasun semantiko zaharra. Berdea hor galtzen dela dirudi tartean” (Perurena, 1992: 162).

Horiari dagokionez, oso kolore berantiarra da euskal usuarioan. Patziku Perurenaren hitzetan, gure inguruan kolore zehatz horretako elementuak urriak dira eta horiek deskribatzeko beharrik ez zen garai batean. “Gori hitza bezalaxe, hori hitza ere, gorri nagusiaren enborretik sortutako adaska berankorra bide da; azken batean, gorriaren berezitasun edo nabardura desberdina baizik ez litzatekena” (Perurena, 1992: 128). Etimologikoki beraz, gorriari guztiz loturik ageri da kolore hitz berantiar hori.

Horien ondorengoak dira beste hainbat hizkuntzatatik mailegaturiko arrosa, morea, laranja, eta abarrak. Horiek guztiak gainera, kromatismoari guztiz loturik ageri dira, sinbologia gutxi biltzen dutelarik euren baitan.

Kromatismo sistema egokitzearekin batera, kultur ikuspegia ere berritu egingo da; garai batean erabiltzen ziren koloreen zentzua pobretu egingo da nolabait. Erdarazko adieretara mugatuz, berezkoak dituen adiera sinbolikoak galduz joango dira kolore “zaharrak” (Preciado, 2009: 21). Gaur egungo izendapen eta erabilera, beraz, ez da historian zehar erabili denaren guztiz parekoa. Erabilera unean uneko beharren arabera izango da. “(...) En las lenguas de pueblos que han alcanzado cierto grado de desarrollo, hay clasificaciones internacionales que conviven con las populares y en parte se sobreponen a ellas (...); en nuestro caso, los famosos colores del espectro” (Michelena, 1985: 168 *in* Preciado, 1995a: 20).

Koloreei buruz hitz egiterakoan, beraz, ezin dugu eskema bakarrari buruz hitz egin, Preciadok adierazten digun moduan. Azterketa honen helburua ere ez da inolaz ere erabilera horiek zehaztea izango. Baina kolore bakoitzaren historian zeharreko erabilera eta bakoitzaren tradizioa oinarritzekoak dira, egungo erabilera ulertzeko.

Euskarazko kolore izendapenen egungo sailkapenari dagokionez, honako eskema hau proposatzen du Preciadok (2009: 20).

10-39 Taula. Preciadoren kolore sailkapena

ZURI	Nabar	Jatorri euskalduna
BELTZ	Arre	
GORRI	Ubel	
URDIN	Orlegi	
HORI	...	

BERDE				
GRIS				
ARROSA				
MORE				
MARROI	Beige	Granate		
LARANJA	Butano	Hueso		
	Fuksia	Teja		
	Kaoba			

**Jatorri  
erdalduna**

Lehenengo eta behin, sailkapena izen euskaldun zein erdaldunetan banatzen du, jatorrizko hitzak zein maileguak bereiziz. Lehenengo zutabeetan dauden hitzek Berlinek eta Keyk proposaturiko oinarritzko koloreen zerrenda osatzen dute. Bigarren zutabeetan, berriz, gainerako kolore izen guztiak topatuko ditugu.

### 10.2.2.5 Koloreen azterketa testuala

Jarraian aurkeztuko dugun azterketa honetan, egunerokoan gehien erabiltzen diren koloreak izan ditugu kontuan. Zerrenda osatzeko Brent Berlinen eta Paul Kayren lanean oinarritu gara, eta eurek osaturiko hamaika koloreen zerrenda osatu dugu euskaraz (arrosa, beltza, berdea, gorria, grisa, horia, laranja, marroia, morea, zuria eta urdina), eta hiztegiek ematen dituzten ordainak hartu ditugu xede hizkuntza bakoitzean.

Hona hemen, beraz, erabiliko dugun koloreen eskema:

**10-40 Taula. Koloreen taula**

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	Ing	Ale	It
arrosa	rosa	rosa / rossa	rosa / roxa	rose	pink	rosa	rosa
beltza	negro	negre	negro	noir	black	schwarz	nero
berde	verde	verd	verde	vert	green	grün	verd
gorri	rojo	vermell / rojo	vermell / rubio	rouge	red	rot	rossa
gris	gris	gris	gris	gris	grey	grau	grigio
hori	amarillo	groc	amarel	jaune	yellow	gelb	giall
laranja	naranja	taronja	laranxa	orange	orange	orange	arancione
marroi	marrón	marró	marrón	brun	brown	braun	marrone
more	morado	morat	morado	pourpre	purple	violett	viola
txuri / zuri	blanco	blanc	branco	blanc	white	weiß	bianco
urdin	azul	blau	azul	bleu	blue	blau	blu / azzurro

Zerrenda hori nahikoa iruditu zaigu gure helburuak lortzeko, eta hortik kanpo utziko ditugu gainerako koloreak. Ezinezkoa izango litzateke kolore guzti-guztiak jasotzea; beraz, Preciadok aurkezturiko taulari jarraiki (ikus 10-39 Taula), lehenengo zutabearen ageri direnak soilik izango ditugu kontuan abiapuntu gisa. Hasiara batean, urre kolorea ere aztertzea egokia iruditu zitzaigun, corpusean sarritan agertzen baita. Baina izendapen hori ez dagokio kromatismoari hertsiki, materiala beraren izendapenetik eratorria da. Beraz, anbiguotasuna ekidite aldera, zerrendatik kanpo uztea hobetsi dugu.

Zerrenda osatu ondoren, corpora aztertzeari ekingo diogu, eta bi urrats nagusi emango ditugu horretarako. Alde batetik, kolore zerrenda hizkuntzaka hartuko dugu, eta bakoitzaren agerpen kopurua zer nolakoa izan den ikusiko dugu, bai hizkuntzaka eta baita liburuka ere. Koloreak kulturari hertsiki loturiko elementuak izaki, bakoitzaren presentzia hizkuntza bakoitzean aldatzen ote den ikusi nahi dugu horren bitartez. Behin azterketa egin ondoren, emaitza orokorrak emango ditugu. Aurrenengo bilaketa honetan, geroago erakutsiko dugun moduan, hainbat arazo edo muga izan ditugu bilaketa prozesuan, hainbaten hitzen anbiguotasuna, kasu. Horien ondorioz, kolore horietariko batzuk bazter utzi beharko ditugu hurrengo urratsa emateko.

Bigarrenik, koloreak euren testuinguruetan bilatuko ditugu euskarazko testuetan, eta, Wordsmithekin osaturiko testu multzoen laguntzaz, horiek xede testuetan nola agertzen diren ikusiko dugu testuen arteko alderaketa eginez, kasu bakoitzaren berezitasunak begiratzuz. Urrats honetan euskarazko testuak hartu ditugu erreferentzia eta alderaketa gainerako testu guztiekin egin dugu, orain arteko urrats guztietan jarraitutako metodologia berari segiz, nahiz eta aurreko faseetan jada ikusi dugun xede testu gehientsuenak ez direla zuzenean euskarazko testutik itzuli. Modu horretan, hizkuntza ezberdinetako testuen artean dagoen harremana ezagutu ahal izango dugu. Azterketa bera liburu bakoitzeko testu multzoka egin dugunez, nahiko erraz alderatu ahal izan dugu kasu bakoitzean euskaraz zein gaztelaniaz ageri dena gainerako testuetako emaitzekin. Bestalde, alderaketa honena nahiko prozesu luzea izanik, euskarazkoaz gain gaztelaniazkoa erreferentzia harturik egiteak luzeegi joko lukeela uste dugu eta ez zaigu iruditzen azken emaitza gehiegi osatuko lukeenik. Beraz, azterketa honetan eskainiko ditugun datu orokorrak modu horretan ulertu behar dira zeharkako itzulpenen kasuan.

#### **10.2.2.5.1 Datu orokorrak**

Koloreen zerrenda osatu ostean, kolore horiek gure corpusean zenbat aldiz agertzen diren ikusi nahi izan dugu. Horretarako, Wordsmith programaren Concord aplikazioa erabili dugu, kolore izen bakoitza dagozkion testuinguruetan erakuts diezazkigun. Bilaketa izartxoaren bitartez egin dugu. Hau da, urdina bilatu behar genuenean, “urdin\*” ezarri dugu bilaketa elementu modura; horrela deklinabide kasu ezberdinak erakutsiko baitzizkigu, hala nola urdin, urdina, urdinetan, eta abar. Hizkuntza guztietan erabili dugu izartxoa, nahiz eta guztietan ez izan guztiz beharrezkoa. Ingeleseaz,

esaterako, ez da genero aldaerarik ematen, eta singularra eta pluralaren artean ez da bereizketarik egiten, koloreei dagokienez. Hitz elkarketak ere oso urriak izaten dira. Hizkuntza erromanikoetan, genero eta numeroaren arteko bereizketak direla eta, beharrezkoa izan da izartxo erabiltzea, baita alemanez ere, hitz elkarketek eta deklinabide kasuek garrantzia handia baitute hizkuntza horretan. Izartxoaz gain, izenaren aldaera ezberdinak ere kontuan hartu behar izan ditugu. Euskaraz, esaterako, *txuri* eta *zuri* biak ala biak eduki behar izan ditugu kontuan, eta berdin *beltz* edo *belz*-ekin ere, erroa bera aldatu egiten baita kasu horretan. Katalanez, horiari *groc* izena ematen zaio, baina femeninoan *grogue* jarri behar da, erroa aldatuz; berdin *blau* eta *blave* hitzekin. Kasu bakan batzuetan, ez dugu izartxorik erabili. Italieraz beltza bilatzeko, femeninoa edo maskulinoa den eta singularra edo plurala den kontuan harturik, *nero*, *nera*, *neri* eta *nere* bilatu behar izan ditugu. “Ner\*” bilatzen saiatu ginen hasieran baina emaitzek zarata handia eskaintzen zuenez, bilaketa zehaztea erabaki genuen. Beste hainbat kasutan, zehaztapen hori egitea ez da hain erraza izan; euskarazko *hori* hitza, koloreaz gain, erabilera oso zabala duen erakuslea ere bada, eta deklinabide kasu ugari izan ditzake. Eskura ditugun tresnen bitartez ezin dugu bi adieren arteko banaketarik egin automatikoki.

Koloreen ordainak hizkuntzaka bilatu ditugu lehendabizi. Horretarako, hizkuntza bakoitzeko liburu guztiak hautatu ditugu Concorden bilaketa egiteko. Taula orokorra osatu dugu lortutako emaitzekin, kolore guztien ordainak hizkuntza guztietan biltzen dituen.

Datu gordinak eman ditugu, hots, zaratarik kendu gabe; jarraian emango ditugun datuek erakutsiko digute kasu bakoitzean horien eragina.

Bestalde, ez dugu hitz konposatuen berariazko bilaketarik burutu, zalantzarik kasuak argitzeko soilik, baizik. Esaterako, *blanquiazul* agertzen denetan, urdina identifikatzeko \*azul\* bilatuta. Bilaketa hori ez dugu sistematikoki egin, batetik, hitz elkartuak ez direlako hainbestetan ageri corpusean, eta, bestetik, zarata tasa oso altua izan daitekeelako. Esate baterako, ingelesez \*red\* bilatuta edo alemanez \*rot\*.

10-41 Taula. Koloreak hizkuntzaka

Eus	Gazt	Kat	Gal	Fr	Ing	Ale	It
arrosa	6	rosa	13	rose	3	rosa	25
		rossa	47	rox	1		
beltz	286	negro	363	noir	235	schwarz	103
						schwartz	10
belz	3					nere	22
						neri	19
berde	133	verde	148	vert	111	grün	149
						grün	141
						verde	
gorri	186	rojo	120	rouge	71	rot	107
		roi	1	rubi	33	röt	10
gris	36	gris	38	gris	19	grau	40
					grev	39	grigio
hori	1.064	amarillo	32	jaune	24	gelb	22
		grog	107	yellow	23	giallo	34
larania	4	narania	3	arancia	1	orange	3
		taronia	4	laranja	2	arancione	5
marroi	7	marr	11	marrón	2	brun	14
		morado	1	morat	1	pourpre	0
		more	5	more	1	violet	4
txuri	114	blanco	156	blanc	130	weiss	360
		branco	142	branco	87	bianco	168
zuri	82						
urdin	98	azul	97	bleu	76	blau	58
		Blave	11	Azui	15	bluish	1
						azzurri	68

Zenbakiak esku artean izanik, argi ikus dezakegu datu gordin horiek ezin direla hizkuntzen arteko alderaketa egiteko erabili, corpusean bilduriko hizkuntza bakoitzeko testu kopurua ez baita berdina: katalanez 14 testu dauden bitartean, galegoz 6 soilik baitaude. Alderaketa mota hori liburuz liburu egitea egokiagoa litzateke.

Kolorez koloreko hurrenkera ondorengo izan da euskaraz: *hori* (1.064), *beltz* (289), *zuri* (196), *gorri* (186), *berde* (133), *urdin* (98), *gris* (36), *marroi* (7), *arrosa* (6), *more* (5) eta *laranja* (4). Hurrenkera hori ikusirik, *hori* izendapenak gainerako guztiek baino presentzia nabarmenagoa duela ikus daiteke. Testuinguruei begiradaxo bat emanez, segituan ohartuko gara kolorea ez ezik izenorde erakuslea ere ageri dela. Corpuseko testuak lematizatu gabe daudenez, ezinezkoa izango da bien arteko bereizketa automatikoa egitea, kasuz kasu begiratu gabe.

Euskararen Corpus Erreferentzian *hori* hitzaren lematizatu gabeko bilaketa egin dugu, eta bertan lorturiko emaitza gure zerrendarekin gurutatu, zerrenda antzerako hurrenkera berean agertzen ote den jakiteko; hona hemen emaitzak<sup>334</sup>: *hori* (2.192), *zuri* (2.192), *gorri* (1.875), *beltz* (1.656), *urdin* (611), *berde* (538), *arrosa* (188), *gris* (177), *more* (137), *marroi* (107) eta *laranja* (95). Ikusten dugunez, corpus horretan ere, *hori* kolorea erakuslearekin nahasturik agertzen denez, zarata handia jasotzen du emaitzak. Corpus horrek ematen dituen lehenengo 100 adibideak aztertu ditugu, eta ez dugu bat bera ere aurkitu koloreari erreferentzia egiten dionik. Lexikoaren behatokian ere antzerako datuak lortu ditugu<sup>335</sup>: *hori* hitzaren lehenengo 100 kasuetan ez dugu koloreari erreferentzia egiten dionik topatu. Gure corpusean ere egin dugu bilaketa eta lehenengo 100 kasuetatik 6 soilik dira koloreari erreferentzia egiten diotenak. Euskararen Corpus Erreferentzialaren kasuan, ez da posible izan hitzaren bi adierak banaturik bilatzea; Lexikoaren behatokiak aukera ematen du kategoria gramatikalaren arabera bilaketak egiteko, baina emaitzak ez dira hala ageri. Beraz, lematizazioak ez digu emaitza egokirik eskaini. Modu berean, *zuri* hitzarekin ere zarata handiko emaitza jaso dugu, koloreaz gain bigarren pertsonaren nori kasua ere adierazten du hitzak. Dena den, ez da *hori*-ren adinakoa: Lexikoaren behatokian ageri diren lehen 100 kasuetatik 63 koloreari dagozkio, eta Euskararen Corpus Erreferentzialeko lehenengo 100etatik 92 ere bai. Hori horrela izanik, zalantza kopurua askoz ere baxuagoa dela ikusi dugu *zuri*-ren kasuan. Bestalde, gainerako kolore izendapenen hurrenkera nahiko paretsua da Euskararen Corpus Erreferentzian eta gure corpusean: lehenengo postuetan, *gorri* eta *beltz* moduko hitz zaharrak ditugu; bigarren multzo batean, *urdin* edo berderen modukoak, eta, hirugarrenik, berriagoak diren gainerakoak, hala nola *arrosa*, *grisa*, *morea*, *marroia* edo *laranja*.

<sup>334</sup> 2011ko urtarrilaren 13an eginiko kontsultaren arabera.

<sup>335</sup> 2011ko irailaren 27an eginiko kontsultaren arabera.

Gaztelaniazko hurrenkerari dagokionez, euskarazkoaren oso antzerakoa dugu, testu kopurua ere bietan berdina dela kontuan izanik: *negro* (311), *blanco* (250), *rojo* (212), *verde* (189), *azul* (129), *gris* (63), *rosa* (62), *amarillo* (62), *marrón* (33), *naranja* (13) eta *morado* (7). Gaztelaniazko hurrenkera horretan agertzen den moduan, hori kolorearen ordaina ez da hainbeste aldiz agertzen, zortzigarren postuan ageri baita. Euskarazko testuetan zarata handia dagoela erakusten du horrek. Bestalde, lehenengo kolore erabilienak ordena berean ageri dira: beltza, txuria, gorria, berdea, urdina eta grisa. Gainerako koloreen artean, aipagarria da gaztelaniaz arrosa eta marroi koloreak euskaraz baino askoz gehiagotan agertzen direla.

Arrosari dagokionez, GBB liburuan, euskaraz agertzen ez bada ere, gaztelaniaz, katalanez, alemanez eta italieraz 11 aldiz agertzen da, eta, ingelesez eta frantsesez, behin ere ez. Izen berezien azterketa gogoan harturik (ikus 10.2.1.5.6 atala), Rosa Luxemburgori erreferentzia egiten zitzaion testuan. Banaka-banaka begiratu kasu guztiak, gaztelaniaz adibidez, *rosa* aipatzen den kasu bat bera ere ez dago koloreari erreferentzia egiten dionik, pertsonaiari edo La Rosairie osasun etxea aipatzen baitira. Modu berean, SS liburuan, arrosa kolore hitza euskaraz bitan soilik ageri da, ingelesez bezala. Frantsesez, ez da ageri, eta gaztelaniaz, katalanez, galegoz, alemanez eta italieraz 9-12 aldiz ageri da. GBB liburuaren kasuan bezala, izen propioen azterketan begiratu ondoren (ikus 10.2.1.5.12 atala), Rosario izena ageri zaigu bertan, eta horrek bilaketaren emaitzan zarata sorrarazi du.

Hurrenkerak aldatu egiten dira gainerako hizkuntzen artean, esan dugun bezala, horietan testu batzuk falta direlako edo gehiago daudelako (katalanez kasu). Kolorerik erabilienak zuria, beltza, gorria, berdea eta urdina izan dira guztietan. Gainerakoak bigarren maila batean geratzen dira. Katalanez, ordea, horia 119tan agertzen da, gainerako hizkuntzetan baino gehixeagotan. Alemanez, zuria da gainerako koloreak baino askoz gehiagotan agertzen dena, beste hizkuntzetan baino gehiagotan. *Weiß*, kolorea izateaz gain, *wissen* aditzaren orainaldiko lehenengo eta hirugarren pertsonen modu jokatu ere badela ohartuko gara, testuinguruei begiratu gero. Beraz, horri dagokio zenbaki altu hori.

Lematizazioa teorian konponbidea litzateke guk aipatzen ditugun arazoetarako, baina praktikan ezin zehatz-mehatz hala denik baieztatu, Lexikoaren behatokian eginiko bilaketak erakutsi digun moduan. Lematizazio automatikoa egin ondoren prozesu horren emaitza egokitu egin behar bada, ez da hain tresna erabilgarria izango. Teknologia berrien laguntzaz garatu beharreko kontua litzateke hori. “Etxe horia” eta “etxe hori”-ren artean ezin bada bereizi, oraingoz laguntza hori ez genuke nahikoa izango.

Hona hemen hizkuntza bakoitzean dugun kolorez koloreko hurrenkeraren ikuspegi orokorra:



eus	gazt	kat	gal	fr	ing	ale	it
hori (1.064)	negro (251)	negre (363)	negro (183)	noir (235)	white (107)	weiss (360)	bianco (168)
beltz (289)	blanco (156)	verd (148)	verde (99)	blanc (130)	red (102)	grün (149)	rossa (146)
txuri (196)	rojo (147)	blanc (142)	branco (67)	vert (111)	blue (90)	rot (117)	verde (141)
gorri (186)	verde (147)	vermell (121)	azul (44)	bleu (76)	black (79)	schwarz (113)	nero (121)
berde (133)	azul (97)	groc (119)	vermell (33)	rouge (71)	green (50)	blau (58)	blu (102)
urdin (98)	gris (39)	blau (119)	gris (16)	jaune (24)	grey (44)	grau (40)	grigio (39)
gris (36)	amarillo (32)	rosa/rossa (6)	rosa (11)	gris (19)	yellow (23)	rosa (29)	giallo (34)
marroi (7)	rosa (28)	gris (38)	amarelo (8)	brun (7)	brown (14)	gelb (22)	rosa (25)
arrosa (6)	marrón (11)	marró (18)	morado (3)	rose (3)	pink (6)	braun (8)	marrone (8)
more (5)	naranja (3)	taronja (4)	laranxa (2)	orange (1)	purple (6)	violett (4)	viola (5)
laranja (4)	morado (1)	morat (1)	marron (2)	pourpre (0)	orange (4)	orange (3)	arancione (5)

10-3 Figura. Koloreen taula. Datuak agerpen kopuruka

Hor goian aurkeztu ditugun zenbaki horiek liburuz liburu aztertu ditugu, kolore bakoitzaren presentzia banaka-banaka liburu bakoitzean zer nolakoa den ikusteko. Hona hemen, esaterako, BA liburuaren koloreen taula:

10-42 Taula. BA liburuko koloreen zerrenda

eus	gazt	kat	Fr	Ing	it						
arrosa	2	rosa	2	rosa	1	Rose	1	Pink	1	rosa	1
				rossa	0						
beltz	50	negro	26	negro	26	Noir	31	black	27	neri	3
belz	0									nera	3
										nero	20
berde	0	verde	3	verde	3	Vert	3	green	3	verd	3
										verde	0
gorri	11	rojo	15	vermell	16	Rouge	14	red	17	rossa	15
				roj	0						
gris	0	gris	2	gris	2	Gris	2	grey	2	grigio	2
hori	120	amarillo	9	groc	4	Jaune	6	yellow	9	giallo	9
				grog	5						
laranja	0	naranja	0	taronja	0	Orange	0	orange	0	arancione	0
marroi	0	marr	0	marró	0	Brun	0	brown	0	marron	0
more	0	morado	0	morat	0	Pourpre	0	purple	0	viola	0
txuri	7	blanco	10	blanc	7	Blanc	11	white	11	bianco	15
zuri	6										
urdin	19	azul	10	blau	7	Bleu	10	blue	10	blu	2
				blave	2			bluish	0	azzur	6

Liburuz liburu eginiko azterketak erakutsi digun ondorio nagusia aurrez erakutsi dugun 10-3 Figurak ere erakutsi digu: kolore guztiak ez dira maila berean kokatzen. Batzuk askotan ageri diren bitartean, beste zenbait aldizka soilik agertzen dira. Hori horrela izanik, kolore zerrenda hori mugatzea erabaki dugu; batetik, testu mailako azterketak zehaztasun maila handia eskatuko digulako, eta, bestetik, gure corpusa nahiko zabala delako.

10-3 Figuran ikus daitekeenez, alde nabarmenak daude tradiziozko kolore izenen eta berriagoen artean, agerpen kopuruari dagokionez. Erabilpen hori, gainera, Preciadok agertzen duen zerrendarekin bat dator: “En estas 11 categorías cromáticas podemos distinguir dos grupos: el principal constituido por *gorri, zuri, beltz, hori, berde, urdin* y otro de menor importancia con el resto (*gris, marroi, arrosa, laranja, more*)” (Preciado, 2008: 298). Lehenengo multzoko koloreak izango dira azterketa testuala egiteko hautatuko ditugun koloreak. Bi multzoen arteko bereizketa egin ondoren, ordea, horia zerrenda horretatik kentzea erabaki dugu, aipatu anbiguotasuna dela medio: 1.064 kasutatik 42k soilik egiten diote erreferentzia koloreari. Beraz, zarata oso handia sortzen da kolore hitz honen kasuan eta, gainera, agerpen kopuru hori lehenengoetatik nahiko urrun kokatzen da. Horiaren modura zuriari dagozkion emaitzek ere zarata erakutsi digutenez, zuria ere zerrenda honetatik kanpo uzteko asmoa izan dugu hasiera batean. Hala eta guztiz ere, zuria tradizio handiko kolorea dugu, eta garrantzia handia du euskal kulturaren, gorria eta beltzarekin batera kolorerik zaharrena baitugu. Bestalde, horiarekin alderatuz gero, zarata ez da hainbesterakoa eta agerpen kopurua altua da. Gogora dezagun guztira 196 aldiz ageri dela kolorea euskaraz corpusean, beltzaren atzetik. *Txuri* aldaerak, guztira 114 kasu biltzen ditu bere baitan eta anbiguotasuna erakusten duen *zuri*-k 82. Azken horiek banaka-banaka begiratuta koloreari erreferentzia egiten ez dioten 24 kasu soilik daudela ikusi dugu. Horiek eskuz baztertzea ez zaigu lan nekeza iruditu, eta, kolorearen garrantzia kontuan izanik, bere azterketa hobestea iruditu zaigu egokiena. Honenbestez, *gorria, beltza, zuria, urdina* eta *berdea* izango dira fase honetan aztertuko ditugun koloreak.

Gogora dezagun azterketa honen helburua ez dela koloreen azterketa sistematikoa egitea. Gure helburua kolore hitzak elementu semantiko modura erabiltzea da itzulpen moten arteko alderaketan beste urrats bat emateko. Horrexegatik, hautatutako zerrenda laburra nahikoa izango dugu.

Hautaturiko kolore-hitz horiek jatorrizko testuetan bilatuko ditugu, eta parekatutako corpusean kolore-hitz horiek xede hizkuntzetan zein ordain izan duten ikertuko dugu. Ordain horiek hiru multzo nagusitan banatu ditugu: lehenengoan, hiztegietan biltzen den ordaina erakusten duten kasuak jaso ditugu; bigarrenean, eraldaketaren bat izan duten kasuak bildu ditugu, eta, hirugarrenean, koloreari erreferentzia desagertu den kasuak. Era berean, bigarren multzoko eraldaketak beste hiru multzotan banatu ditugu: lehenengoan, kolore edo tonalitate aldatetako jaso ditugu; ñabarduraren bat gehitu edo kendu bazaio koloreari, bigarren multzoan sartu dugu, eta, azkenik, egitura kontuak izan badira aldatetaren iturri, hirugarren multzoan sartu ditugu.

Jarraian, kolore bakoitzari dagozkion emaitzak erakutsiko ditugu, eta kasurik esanguratsuenak agertu. Euskarazko agerpen kopuruaren arabera egingo dugu azterketa, hurrenkera honetan: *beltza, zuria, gorria, berdea* eta *urdina*. Kasu bakoitzean, lehenengo eta behin, kolore bakoitzaren semantika izango dugu mintzagai, bakoitzak har ditzakeen zentzu ezberdinak.

Horretarako, kasuan kasu topaturiko adibideak emango ditugu. Bigarrenik, kolore hitz bakoitzari dagozkion datuak emango ditugu. Eta, azkenik, corpusean zehar topatu ditugun kasurik esanguratsuenak eta adibiderik deigarrienak erakutsiko ditugu.

#### 10.2.2.5.2 Beltza

Landuko dugun lehen kolore hitza beltza izango da. Aurrez aipatu dugun moduan, zuria eta gorriarekin batera, gure hizkuntzan aurki daitekeen kolorerik zaharrenetarikoa da. Euskarazko kolore zaharrenekin gertatzen den moduan, sinbologia oso zabala duen kolorea da, eta ez da ageri kromatismoari soilik loturik.

Kolore beltzak, hainbat adiera har ditzake. Kolorea bere horretan adierazteaz gainera, iluntasunarekin guztiz lotuta ageri zaigu. Hainbat adibide topatu ahal izan dugu gure corpusean ere, ondorengo esaterako:

#### 10-43 Taula. Beltza lehenengo adibidea

Eus	Leiho saieteararen bestaldean, berriz, laino batzuk arrasto beltzez hornitzen ziren.
Gazt	Al otro lado del ventanuco, la niebla cogía tintes oscuros.
Kat	A l'altre costat de la finestra, la boira agafava tons foscos.
Gal	Do outro lado do fachinelo, a nebra collía tons escuros.
Fr	De l'ature côté du vasistas le brouillard s'assombrissait par endroits.
Ale	Auf der anderen Seite der Stallluke begannen einige Nebelfladen eine schwarze Tönung anzunehmen.
It	Di lì a poco la valle sarebbe stata completamente inghiottita dalle tenebre.

BEBM liburuko adibide horretan, kolorearen bitartez eman dena euskaraz iluntasunari loturik ageri da xede hizkuntzetan, alemanez izan ezik, hor ere kolorea ageri baita.

Aurreko adiera horretaz gain, beltza ezezagunari edo etsaiari loturik agertu izan da zenbaitetan (Perurena, 1992: 26). Arrazakeriari loturik ere bai, Euskal Herrira etorritako kanpotar beltzaranak mespretxuz izendatzeko.

Bestalde, eguraldi kontuez hitz egiterakoan, eguraldi txarrarekin, euri edo elur giroekin, hotzarekin lotzeko ere erabiltzen da kolorea.

Pertsonen umorea deskribatzerakoan, tristurari loturik ager daiteke beltza, edo izuari loturik, edo baita haserrealdia erakusteko ere. Azken adiera horren adibidetxo bat emango dugu jarraian, BEBM liburutik:

#### 10-44 Taula. Beltza bigarren adibidea

Eus	Goardiek, ezin menderatuz, buila egiten zioten, eta kulatarekin jo eta bai batzuetan, baina tarte baten urrutitik, nire lagunak zeukan begiratu beltzarekin ikaratuta.
Gazt	No se quería mover de su sitio, y ninguno de los guardias se atrevía a acercarse a sus cuernos. Mi amiga tenía la mirada brillante, y casi creía escuchar lo que en aquel momento le dictaba su voz interior.

- Kat** No es volia moure del seu lloc, i cap dels guàrdies no s'atrevia a acostar-se a les seves banyes. La meva amiga tenia la **mirada brillant**, i gairebé crei escoltar el que en aquell moment li dictava la veu interior.
- Gal** Non se quería mover do sitio, e ningún dos gardas se atrevía a achegarse ós seus cornos. A miña amiga tiña a **ollada brillante**, e case cría escoita-lo que naquel momento lle dicía a súa voz interior.
- Fr** Elle ne voulait pas changer de place et pas un seul garde n'avait l'audace de s'approcher de ses cornes. Mon amie avait le **regard qui brillait**, et il s'en fallait de peu que je n'entende à ce moment-là ce que lui dictait sa voix intérieure.
- Ale** Die Soldaten wurden ungeduldig, schrien sie an und verpassten ihr auch den einen oder anderen Schlag mit dem Gewehrkolben. Aber keiner wagte sich so richtig an sie heran. **Zu drohend war ihr Blick**, zu einschüchternd ihrer Hörner.
- It** Non voleva assolutamente muoversi da dove stava e non c'era nessuna guardia che si azzardasse a sfidare le sue corna. Gli occhi **le scintillavano di rabbia** e mi sembrava quasi di sentire ciò che le suggeriva la sua indomabile voce interiore.

*Begiratu beltza* esatearekin, irakurleak behia zeharo haserreturik irudikatzen du, eta halatsu interpretatu dute gainerako hizkuntzetan ere. Alemanez, zehaztu egin da (*zu drohend war ihr Blick*), begirada mehatxagarria irudikatuz; italieraz, berriz, begiek amorruez beterik zituela esaten da (*gli occhi le scintillavano di rabbia*). Ikus daitekeenez, xede hizkuntza batean ere ez da ageri kolorea. Gaztelaniaz emaniko egitura bere horretan mantendu da katalanez, galegoz eta frantsesez. Alemanezko itzulpen zuzena eta zeharkako italierazkoa sortzaileagoak izan dira kasu honetan.


Datuei erreparatuz gero, Wordsmith programan lerrokaturiko testuetan bilaketa eginik, *beltza* 291 aldiz topatu dugu euskarazko testuetan. BL liburuan ageri dira kasu gehien, 105 guztira. BEBM dugu, 60 kasurekin, bigarren postuan, eta BA hirugarren, 49 kasurekin. Wordsmith programaren Concord aplikazioak eskaintzen digun Clusters atalean, kolokaziorik ohikoenak ageri dira, eta bertan zera ikusi ahal izan dugu, BA liburuan *beltzez jantzitako gizona* eta BL liburuan *Iharra eta Beltza* ohiko egiturak direla.

N	Cluster	Freq.	Length
1	BELTZEZ JANTZITAKO GIZONAK	17	3
2	BELTZEZ JANTZITAKO GIZONA	6	3
3	IHARRA ETA BELTZA	5	3

The screenshot also shows the software's menu bar (File, Edit, View, Compute, Settings, Windows, Help) and a toolbar at the bottom with buttons for concordance, collocates, plot, patterns, clusters, filenames, source text, and notes. The status bar at the bottom indicates '3 Type-in'.

10-4 Figura. BELTZ concorden

Xede hizkuntzei erreparatuz gero, kasurik gehienetan kolorea bere horretan mantendu dela ikusiko dugu. Gaztelaniaz, adibidez, 177 aldiz mantendu da kolorea, eta 93 aldiz, desagertu, hots, kasuen herenean. Nahiko datu altua dugu hori, eta beste behin ere, argi erakusten digu gaztelaniarako itzulpenek duten izaera sortzailea. Gainerako 21 kasuetan eraldatuta eman da kolorea bera. Corpuseko beste hizkuntzetan ere, proportzioak oso tankerakoak dira. Ezin ditugu datu absolutuak bata bestearekin alderatu, hizkuntza bakoitzera xede liburu kopuru ezberdina itzuli baita.



10-5 Figura. Beltza xede hizkuntzetan

Dena dela, datu absolutuak baino interesgarriagoak izan daitezke liburuz liburu eginiko azterketak, xede testu bakoitzak bere berezitasunak izan baititzake itzulpen motaren arabera.

Liburuz liburuko azterketa eginez gero, *Bi anai*-ren kasua oso deigarria iruditu zaigu. Euskarazko jatorrizkoan 49 aldiz ageri da beltza liburu horretan. Desagerpenak dira nagusi liburu horretan, 37 guztira, eta 12 aldiz soilik mantendu da beltz kolorea.

Liburu horretan askotan agertzen da beltza. Kolokazioei begiratzuz, autoreak askotan darabilen esapide bat badela ohartuko gara: *beltzez jantzitako gizona*. Deskribapen horren bitartez erretoreari egiten zaio erreferentzia. Izen propioen azterketan esan dugun moduan (ikus 10.2.1.5.3 atala), transposizioa izan da itzulpenean: euskaraz izen berezi gutxi erabili da liburu horretan eta, horien ordez, deskribapen fisikoa ageri da, *beltzez jantzitako gizona*, kasu. Sintagma hori, guztira, 34 aldiz erabiltzen da, hau da, beltz hitza agertzen den kasuen %69,38tan. Ikusten dugunez, beraz, kolore horrek liburuan zehar duen presentzia zabala deskribapen horri dagokio.

BLren itzulpenetan, beltza da gehien ageri den kolore izena, hizkuntza guztietan ingelesez eta italieraz izan ezik. Bi horietan ez da *black* edo *nero*-ren arrastorik ageri. Testuingurura jotzen badugu, *Beltza* izeneko pertsonaia bat ageri dela ohartuko gara, eta horri loturik ageri da zenbaki altu hori.

Ingelesari eta italierari dagokienez, lehenengoak izena euskarazkoan bezala utzi du, *Beltza*, eta bigarrenak, gaztelaniaz bezala, *Negro*. Bestalde, testua lematizatu gabe daukagunez, ezin izan dugu jakin noiz egiten dion erreferentzia koloreari edo pertsonari, banaka-banaka begiratu gabe.

Liburu beraren itzulpen ezberdinetan ere aldeak aurkitu ditugu, erabilitako estrategien arabera. Esaterako, BLren ingelesezko bertsioan, gainerako hizkuntzetan baino ohikoagoa izan da kolorea bere horretan mantentzea, nahiz eta euskaraz idatzirik agertu; 93 aldiz, besteetan 67-74 aldiz agertzen delarik. Hizkuntza horretan, beraz, askoz ezabaketa gutxiago izan da; 12 aldiz soilik ingelesez; 31-38 aldiz, gainerakoetan. Horrek erakusten digu, euskarazko jatorrizkotik nahiko gertu dabilela ingelesezkoa eta gainerako xede testuak, gaztelaniazko zenbakietatik ere nahiko hurbil dabiltzala.

Antzerako kasua dugu BEBM liburuaren alemanezko itzulpena: beltza gehiagotan mantentzen da (52 aldiz) gainerako hizkuntzetan baino (37-45 aldiz), eta ezabaketak ere urriagoak dira: 6 desagertzen; gainerakoetan, berriz, 12-19. Beste behin ere, zuzeneko itzultzailea gaztelaniaratzailerak baino estuago lotu zaio jatorrizkoari kolore izendapenari dagokionez.

*Zeru horiek* liburuaren katalanezko bertsioan 17 aldiz mantendu da beltza, gainerakoetan 9 aldiz soilik mantendu den bitartean, eta 2 aldiz soilik desagertu da, besteetan 7 aldiz ezabatu den bitartean. Kasu honetan, eraldaketa kopuruan ere aldeak nabari daitezke; 3 eraldaketa katalanez, 6, gainerako guztietan.

*Obabakoak* liburuan beltza euskarazko testuan 9 aldiz agertzen da, hots, itzulpenetan baino gehiagotan; frantsesez, 6 aldiz agertzen da; ingelesez, 5 aldiz, eta, gainerako guztietan, launa bider. XB testuan, berriz, alderantziz gertatzen da: euskaraz 7 aldiz agertzen da beltza eta gainerako hizkuntzetan 10-12 aldiz. Beraz, gaztelaniaz gehituriko kasuak gainerako xede hizkuntzetan ere mantendu egin dira.

*Sara izeneko gizona* liburuaren kasuan, berriz, desagertzen ez da izan, eta ia itzulpen guztietan kolorea mantendu egin da. Alderik aipatzekotan frantsesezko agerpen kopuru handiagoa (16 aldiz) nabarmenduko genuke, gainerako hizkuntzekin alderaturik (11-12 aldiz). Eraldaketa bakarra topatu dugu, eta, bertan, *gau beltza*-ri egiten zaio erreferentzia, iluntasunari.

#### 10-45 Taula. Beltza hirugarren adibidea

Eus	Nola ireki behar nituen atea <b>gau beltzean</b> eta hamar edo hamabost soldadu inguruan nituela?
Gazt	¿Cómo abrir las puertas en <b>plena noche</b> y con diez o quince soldados a mi alrededor?
Kat	Com podia obrir les portes en <b>plena nit</b> i amb deu o quinze soldats al meu voltant?
Gal	¿Como abri-las portas en <b>plena noite</b> e con dez ou quinze soldados ó meu arredor?
Fr	Comment ouvrir les portes en <b>pleine nuit</b> avec dix ou quinze soldats autour de moi?
It	Come aprire la porta in <b>piena notte</b> e con dieci o quindici soldati intorno a me?

Euskaraz ohikoa izaten da kolorea enfatizatzaile modura erabiltzea. Beste hizkuntza batzuetan, ordea, euskaraz duena baino itxura poetikoagoa hartuko luke erabilera horrek. Horregatik, koloreari erreferentzia ezabatu eta beste mota bateko deskribatzaileak erabili dira xede hizkuntzetan.

Zeruaren kolorearen deskribapena ohikoa da Atxagaren liburuetan; horren inguruko hainbat eta hainbat adibide topatu dugu. Jarraian emango duguna, esaterako, *Obabakoak* liburuan aurkitu dugu:

#### 10-46 Taula. Beltza laugarren adibidea

Eus	Sukaldeko leihoaz haruntz, ilargia lehian zebilen hodeien artean, eta horiaren eta beltzaren arteko tonalitateak ematen zizkion zeruari
Gazt	A través de la ventana de la cocina se podía ver la luna hundiéndose entre las nubes. El cielo tenía tonalidades rojizas.
Kat	A través de la finestra de la cuina es podia veure la lluna que s'enfoscava entre els núvols. El cel tenia tonalitats vermellooses.
Gal	A través da venta da cociña podíase ver la lúa afundíndose entre as nubes. O ceo tíá tonalidades avermelladas.
Fr	A travers la fenêtre de la cuisine, on pouvait voir la lune s'enfoncer dans les nuages. Le ciel avait des tons rougeâtres.
Ing	Through the kitchen window they could see the moon submerged amongst the clouds. The sky had a reddish tinge to it.
Ale	Durch das Küchenfenster konnte man den halb hinter den Wolken versteckten Mond sehen. Der Himmel schimmerte rötlich.
It	Attraverso la finestra della cucina si poteva vedere la luna immergersi nelle nuvole. Il cielo aveva tonalità rossicce.

Bertan ikusi ahal dugun moduan, *horiaren eta beltzaren arteko tonalitateak* gainerako hizkuntzetan “gorriztak” bihurtu dira. Iluntze garaian, zeruak hainbat tonalitate ezberdin hartu ohi ditu, eta, batean zein bestean, iluntze mota ezberdinak irudikatzen dira, azken batean. Ikusten dugun moduan, bitarteko hizkuntzan sartu den eraldaketa hori, gainerako hizkuntza guztietan ere halaxe agertzen da.

Euskarazkoan ageri den kolorea beste kolore batez edo beste tonalitate batez ageri zaigu hainbat itzulpenetan. Ondoko adibide honetan, *Zeru horiek* liburukoan, Bilboko alde zaharreko teilatuen koloreari egiten zaio erreferentzia.

#### 10-47 Taula. Beltza bosgarren adibidea

Eus	Bilboko alde zaharreko teilatuena, mila teilatu zahar, erdi gorri erdi beltz, eta euria haiek bustitzen.
Gazt	Cientos de tejados color rojo mate con la lluvia cayendo sobre ellos
Kat	Les mil teulades antigues, mig vermelles i mig negres, i la pluja mullant-los.
Ing	Hundreds of rooftops, matt red in colour, with the rain falling on them.
Ale	Hunderte von mattroten Ziegeldächern, auf die der Regen fiel.
It	Centinaia di tetti d'un colore rosso opaco sotto la pioggia cadente.

Jatorrizkoan *erdi gorri eta erdi beltz* direnak, “gorri mate” soilez irudikatzen dira gaztelaniaz, ingelesez, alemanez eta italieraz. Katalanez, ordea, euskarazkoaren moduko izaten jarraitzen dute. Itxura guztien arabera, euskarazko jatorrizkotik edan du kasu honetan itzultzaileak.

Beltz kolorea desagertzearen beste adibide bat azal kolorearekin lotuta topatu dugu. *Zeru horiek* liburuan, *gizon beltza* aipatzen da jatorrizko testuan; atzerritar itxura duela aipatzen da, ordea, gaztelaniaz, ingelesez, alemanez eta italieraz, azal koloreari erreferentzia ezabatu eta jatorriari begiratu. Kanpotar tankera hori, ordea, ez da esaten azalak, ile koloreak edo beste ezaugarriren batek erakusten ote duen. Katalanaren kasuan beltzari erreferentzia desagertu eta *home de color* ageri zaigu. Dena den, testuan aurrerago ere berriro agertzen da gizon beltzari erreferentzia eta horietan *home negre* aipatzen da. Adibide horrek pentsarazten digu, beste behin ere, katalanezko bertsioa euskarazko bertsioa kontuan hartuz egina izan dela. Gainerakoak, aurrez zehaztu modura, gaztelaniazkotik eginak izan dira.

#### 10-48 Taula. Beltza seigarren adibidea

Eus	Beste ertzean gizon <b>beltz</b> bat zegoen bakar-bakarrik eserita; (...)
Gazt	Había un hombre de <b>aspecto extranjero</b> comiendo solo (...)
Kat	Hi havia un home de <b>color</b> que seia tot sol (...)
Ing	There was a man, <b>apparently a foreigner</b> , eating alone (...)
Ale	(...) Saß ein <b>fremdländisch aussehender Mann</b> allein und aß (...)
It	C’era un <b>uomo straniero all’aspetto</b> che mangiava da solo (...)

Aipatuko dugun azken kasuan, jatorrizkoan ageri den beltz kolorea ezabatu egin da frantsesezkoan. Itxura batera, arrazoi jakinik gabe gainera. Jatorrizkoan aipatzen den *bikini beltza*, kasu horretan, “bikini txuri” bihurtu da.

#### 10-49 Taula. Beltza zazpigarren adibidea

Eus	Raquel Welch azaldu omen zen zaldiazen atzetik korrika, ordu hartan ospe mamitan zebilen Hollywoodeko aktorea; <b>bikini beltz</b> batez jantzita azaldu ere.
Gazt	Y quien apareció fue Raquel Welch. Ella era la dueña del caballo. Llegó caminando, sola, sin más prenda que un <b>bikini negro</b> .
Kat	I qui va venir va ser Raquel Welch. El cavall era seu. Va aparèixer en un camí, sola, sense més roba que un <b>biquini negre</b> .
Gal	E quen apareceu foi Raquel Welch. Era a dona do cabalo. Chegou camiñando, soa, sen máis peza de roupa ca un <b>bikini negro</b> .
Fr	Et cette personne, c’était Raquel Welch. La propriétaire du cheval. Elle arriva à pied, seule, avec pour tout vêtement un <b>bikini blanc</b> .
Ing	The person who appeared was Raquel Welch. She was the owner of the horse. She was walking alone, wearing only a <b>black bikini</b> .
Ale	Und es tauchte tatsächlich jemand auf, nämlich Raquel Welsh. Das Pferd gehörte ihr. Sie kam zu Fuß, allein, trug nichts weiter als einen <b>schwarzen Bikini</b> .



It E ad apparire fu Raquel Welch. Arrivò a piedi, da sola, senz'altro indumento di un bikini nero.

### 10.2.2.5.3 Zuria

Zuri koloreak presentzia nabarmena du gure corpusean. Aurrez aipatu dugun moduan, bi aldaera daude; txuria, batetik, eta zuria, bestetik. Bada hirugarren aldaerarik ere, xuria, baina berau ez da ageri gure corpusean.

Zuriaren sinbologiari dagokionez<sup>336</sup>, eta Patziku Perurenak agertzen duenez, bi zentzu oso ezberdin eta elkarren aurkako izan ditzake kolore honek euskal tradizioan. “Alde batetik, **zurikeria**: faltso eta izuna den guztiarena; eta beste aldetik, **zuritasuna**: benazko, garbi eta purua den guztiarena” (Perurena, 1992: 187).

Zurikeriaren zentzua guztiz arrunta da gure hizkuntzan, eta ez da zaila adiera horren adibideak topatzea. Gure corpusean ere, ageri da halakorik:

#### 10-50 Taula. Zuria lehenengo adibidea

Eus	Ez dezadan nire barruko Setatsuak bezain zuri hitzegin; azkenaldi honetan maizegi egiten dudan gauza, bide batez aitortuta.
Gazt	Pero, ¡cuidado!, detengámonos, digamos toda la verdad, no vaya a convertirme en una especie de segundo Pesado que todo lo dice limando asperezas y redondeando los bordes desagradables.
Kat	Però, compte!, aturem-nos, diguem tota la veritat, no fos cas que em convertís en una mena de segon Pesat que tot ho diu suavitzant les asprors i arrodonint les arestes desagradables.
Gal	Mais, ¡coidado!, deteñámonos, digamos toda a verdade, non me vou converter nunha especie de segundo Pesado que o di todo limando asperezas e redondeando os bordos desagradables.
Fr	Mais, attention, faisons une halte et disons toute la vérité, que je ne me transforme pas en une sorte de second Lourdaud, lui qui passe son temps à gommer les aspérités et à arrondir les angles.
It	Ma, attenzione! Forse è meglio fermarsi un attimo e cercare di dire tutta la verità. Infatti mi pare che ne sia venuta fuori soltanto un' parte e non vorrei assolutamente dare l'impressione di fare come Lo Scocciato, che cerca sempre di indorare la pillola, limando le scabrosità e arrotondando gli spigoli troppo appuntiti.
Ale	Aber immer mit der Ruhe und keine voreiligen und unkorrekten Übertreibungen! Ich sollte mich besser nicht so geschwollen ausdrücken und die Realität schönfärben, wie das Dickkopf gerne tut - und ich in letzter Zeit auch immer häufiger, aber das nur nebenbei bemerkt.

BEBM liburuari dagokion adibide horretan, argi ikusten da *zuri hitz egitea*-k errealitatea faltsutzea esan nahi duela; kasu honetan, xede hizkuntzetan ageri denez, errealitateari egiazki duena baino itxura hobe edo

<sup>336</sup> Hemen ageri diren adierez gain beste hainbat topa daitezke Perurenaren eta Preciadoren lanetan.

gozoagoa emanaz. Finean, hizkera lausengarria erabiltzen duen ahotsa ageri da adibide horretan.

Faltsukeriari loturik, “hagitz eremu semantiko zabala hartzen du kolore xuriak” (1992: 187), Perurenaren arabera: konbentzitu, egiaztatu, disimulatu, justifikatu, gezurretan aritu eta abar. Hainbatetan, zurikeriak alferkeria ere esan nahi du.

Horiatariko hainbat adibide topatu dugu aztertzen ari garen corpusean ere. Hona hemen hainbat adibide:

#### 10-51 Taula. Zuria bigarren adibidea

Eus	Handik gutxira, Paulo itzarturik zegoen gau haietako batean kejazkoak iruditu zitzaizkion antsiak entzun zituen bere anaiaren gelan, eta Daniel eta berak azkenaldi hartan edukitako haserre haiek <b>zuritzeko</b> asmoz jaiki zen ohetik; laguntza emateko.
Gazt	Una noche, escuchó ruidos en la habitación de al lado, y decidió levantarse y acudir a donde él.
Kat	Una nit, va sentir sorolls a l’habitació del costat, i va decidir d’aixecar-se i anar-hi.
Fr	Une nuit, il entendit des bruits dans la chambre d’à côté, décida de se lever et d’aller voir.
Ing	One night, he heard noises coming from the room next door and decided to get up and investigate.
It	Una notte sentí dei rumori provenire dalla stanza accanto, e decise di alzarsi e di andare a vedere.

BA liburutik harturiko lehenengo adibide horri dagokionez, *zuritu*-k hor azken aldiko haserre haiei erremedioa jartzea edo konpondu nahia adierazten du. Xede testuetan, ez dugu baliokiderik topatu, esaldi hori ezabatu egin baita.

Hurrengo adibidea BEBM liburukoa da, eta *zuritu*-k justifikatu esan nahi du bertan, xede hizkuntzetan ageri den moduan.

#### 10-52 Taula. Zuria hirugarren adibidea

Eus	Zuen pentsua dela eta, ederki <b>zuritzen</b> ditu Chevroletaren joan-etorri eta abarrak!
Gazt	El gasto en pienso está más que <b>justificado</b> . ¡Como que son esos sacos los que permiten que todo funcione!
Kat	La despesa en pinso està més que <b>justificada</b> . Si són aquests sacs, els que permeten que tot funcioni!
Gal	O gasto en penso está sobradamente <b>xustificado</b> . ¡Como que son esos sacos os que permiten que todo funcione!
Fr	Ce gaspillage est plus que <b>justifié</b> : ce sont ces sacs qui permettent au système de fonctionner!
It	La spesa della biada è più che <b>giustificata</b> . Sono proprio quei sacchi che fanno sì che il piano funzioni!
Ale	Die Säcke dienen zur Tarnung für die Schmuggelfahrten des Chevrolet, und dafür sind die Kosten natürlich vollkommen <b>gerechtfertigt</b> .«

Bigarren esanahi nagusia garbitasunari guztiz loturik ageri zaigu. Beltzari kontrajarririk, zuriak edertasuna irudikatzen du. Zentzu horretan, sinesmen kristauaren eragina nabari daiteke. Bestalde, Perurenaren irudiko “kolore zuriak duen edertasun, leuntasun eta guritasun sinbologiatik datorrena du, gero hartzen duen alferkeriaren sinbolo hori, nolabait esan, nekazal giroko bizimodu latz eta zakarraren aurkara beregandua” (Perurena, 1992: 197).

Garbitasun zentzu horren adibideak ere erraz aurki ditzakegu. Hona hemen, SS liburuko adibide bat:

#### 10-53 Taula. Zuria laugarren adibidea

Eus	Adar pusketa batekin harrotu nuen lurra Ronnieren hilobitxo atzean, eta lehenengo pospolo kaxa azaldu zen. Poliki atera eta esku ahurrean jarri nuen. Bustita, zikinduta, benetako hilkutxa ematen zuen. Halere, barruko papera <b>oso zuri</b> zegoen, pittin bat kiribilduta.
Gazt	Encontré la primera caja de cerillas tras la tumba de Ronnie. Estaba bastante estropeada, pero su contenido, un minúsculo rollo de papel, se conservaba <b>limpio</b> .
Kat	Vaig trobar la primera caps de llumins rere la tomba de Ronnie. Estava força malmesa, però el seu contingut, un minúscul rotlle de paper, es conservava <b>net</b> .
Gal	Atopei a primeira caixa de mistos tras a tumba de Ronnie. Estaba moi estragada, mais o seu contido, un minúsculo rolo de papel, conservábase <b>limpo</b> .
Fr	Je tombai sur la première boîte d'allumettes derrière la tombe de Ronnie. Elle était en assez mauvais état, mais son contenu, un minuscule rouleau de papier, était <b>intact</b> .
Ing	I found the first box of matches behind Ronnie's grave. It was in a pretty bad state, but the tiny roll of paper it contained was <b>perfectly</b> preserved.
Ale	Trovaì la prima scatola di fiammiferi dietro la tomba di Ronnie. Era piuttosto malconcia, ma il suo contenuto, un minuscolo rotolino di carta, era rimasto <b>intatto</b> .
It	Die erste Streichholzschachtel fand ich hinter Ronnies Grab. Sie war ziemlich ramponiert, aber ihr Inhalt, eine winzige Papierrolle, war <b>gut</b> erhalten.

Adibide horretan, denborak paperari kalterik ez diola egin esan nahi du zuritasunak, horitu gabe mantendu denez gero eta lur azpian egonagatik ere, inolako lur arrastorik ez duela ageri. Kolorea, ordea, xede hizkuntzetan desagertu egin da, eta garbitasuna nabarmendu da guztietan ere. Adibide horrek garbi erakusten du gaztelaniazkoaren bitartekaritzak jatorrizkoan zegoena ezabarazi duela xede hizkuntzetan, kasu honetan, metonimia desagerraraziz. Katalanaren kasuan, ikusten da Hernàndezen itzulpen hau, berak epitetuetan esan bezala, gaztelaniatik egina izan dela, ZHren itzulpenean gertatzen denaren kontrara.

Arropa zuriari buruz hitz egiten badugu, ez gara, ordea, arroparen garbitasunari buruz ari, barruko arropaz baizik. “Gorputz barrena zuzenean ukitzen zuen arropak zuria izan beharra zeukan; gorputza izpirituaren garbitasunez inguratu beharra zegoen” (Perurena, 1992: 213). Hona hemen, *Bi anai* liburutik harturiko adibide bat:

#### 10-54 Taula. Zuria bosgarren adibidea

Eus	Katagorriekin jostatzen zuen bitartean bere anaiak oinetakoak kendu zizkion, galtzak
-----	--

	kendu zizkion, <b>arropa zuria</b> kendu zion, eta esponja batez igurtzi zituen bere anaiaren izter masailak.
Gazt	Paulo le quitó los zapatos, los pantalones y la <b>ropa interior</b> , y a continuación, tras mojar la esponja en agua, comenzó a restregarle los muslos
Kat	Paulo li va treure les sabates, els pantalons i la <b>roba interior</b> , i tot seguit, després de mullar l'esponja amb aigua, va començar a fregar-li les cuixes.
Fr	Paulo lui enleva ses chaussures, son pantalon et son <b>linge de corps</b> , puis, après avoir plongé l'éponge dans l'eau, se mit à lui frotter les cuisses.
Ing	Paulo removed Daniel's shoes, trousers and <b>underwear</b> , and then, after moistening the sponge, he began washing his brother's thighs.
It	Paulo gli tolse le scarpe, i pantaloni e la <b>biancheria</b> , e poi, dopo aver inzuppato la spugna nell'acqua, cominciò a fregarli le cosce.

*Arropa zuria* barruko arropaz ordeztu da xede hizkuntzetan. Hala ere, zurtasun hori berriro ere italieraz agertzen da. Italieraz *biancheria* agertzeak ez du esan nahi euskarazkotik itzuli denik, baizik eta egokitzapen hori, onargarritasuna bilatuz egin dela. Aldaketa guztiek ez dute zertan adierazgarriak izan, hemen egokitzapena egin baita, ez euskarazkoarekiko lotura. Azken batean, zurtasun horrek kristau kulturarekin zerikusirik izan dezakeen seinale dugu, bai euskaraz eta bai italieraz.

Zuria aurpegiak erakusten duen koloreari erreferentzia egiteko erabiltzen badugu, zurbiltasuna adierazteko izango da. Hona hemen STX liburuko adibide bat. Bertan, zuriari erreferentzia mantendu egin da gaztelaniaz eta katalanez, baina gainerakoetan zurbiltasuna nabarmendu da.

#### 10-55 Taula. Zuria seigarren adibidea

Eus	Nola ezin nintzen han gelditu, korrika etorri naiz, eta aurpegia zuri zuri neukala konturatu naiz hortzak garbitzera joan naizenean
Gazt	Como no podía quedarme allí, he venido corriendo y, cuando he ido a lavarme los dientes, me he dado cuenta de que tenía la <b>cara muy blanca</b> .
Kat1	Com que no em podia quedar allà, he vingut corrents, i quan he anat per rentar-me les dents m'he adonat que tenia la <b>cara ben blanca</b> .
Kat2	Com que no em podia quedar allà, he vingut corrent i, quan he anat a rentar-me les dents, m'he adonat que tenia la <b>cara molt blanca</b> .
Gal	Como non podía ficar alí, vin correndo, e cando fun limpa-los dentes decateime de que tina a <b>cara moi pálida</b> .
Ing1	I couldn't stand it, so I ran all the way back, and when I arrived and went to brush my teeth I realised I was <b>very very pale</b> .
It	Dato che non potevo restare lì, sono tornato di corsa e, quando sono andato a lavarmi i denti, mi sono accorto di avere la faccia <b>molto pallida</b> .
Ing2	I could not stay there any longer, so I ran home and when I went to brush my teeth, I realized <b>how pale</b> I looked.

*Zuritu* aditza fruta edo barazkiekin erabiltzen dugunean, bestalde, azala kentzen ari garela esan nahiko dugu. Hona hemen, corpusean topaturiko adibideetarikoa bat:

**10-56 Taula. Zuria zazpigarren adibidea**

<b>Eus</b>	–Basurdetara konbidatu naute! –esan zuen hasperen luze batekin, <b>zuritutako patatak</b> zartaginean jarriz.
<b>Gazt</b>	–¡Tengo que ir a cazar jabalíes, me han invitado! –dijo suspirando largamente mientras echaba a la sartén las <b>patatas cortadas y peladas</b> .
<b>Kat</b>	–He d'anar a caçar senglars, m'hi han convidat! –va dir sospirant llargament mentre tirava a la paella les <b>patates tallades i pelades</b> .
<b>Fr</b>	– Je dois aller chasser le sanglier, on m'a invité ! dit-il en poussant de grands soupirs et en mettant dans la poêle les <b>pommes de terre épluchées et coupées en morceaux</b> .
<b>Ale</b>	»Ich muss auf die Wildschweinjagd gehen, man hat mich eingeladen!«, sagte er und seufzte tief und lange, während er <b>die geschälten und in Stücke geschnittenen Kartoffeln</b> in die Pfanne warf.

XB liburuko adibide horretan, *zuritutako patatak* gaztelaniaz *patatas cortadas y peladas* bihurtu dira, hau da, zehaztapena egin da, eta, ondorioz, baita gainerako hizkuntzetan ere.

Corpuseko datuei erreparatuz gero, zuri aldaeraren 58 kasu topatu ditugu<sup>337</sup>, eta txuri 114 aldiz agertu da. BEBM liburuan ageri da gehien, 29 aldiz; ondoren, OBBn, 23 aldiz, eta, hirugarrenik, ZH eta SIGen, hogeina aldiz. Oro har, testu guztietan ageri da kolorea euskarazko testuan. Wordsmitheko Concord aplikazioak ez du erakusten inongo testutan garrantzia berezirik izan duenik, eta, kolokazioen artean, *Obabakoak* liburuan agertzen den *etxetto gris eta txuri* agertzen da 9 aldiz.

STX liburuan txuria edo zuria, biak batuta, 9 aldiz agertzen da. Itzulpenetan, ordea, gutxixeagotan agertzen da: ingelesez, 8tan; katalanezko bietan eta ingelesezko lehenengoan, 6 aldiz; galegoz eta italieraz, 5 aldiz, eta bitan soilik, gaztelaniaz. Gaztelaniazkoan hain gutxi agertzearen zergatiari bueltak eman ostean, bigarren bilaketa bat egin dugu, izartxoa aurretik eta ondoren gehituta: \*azul\*. Modu horretan, 8 kasu topatu ditugu, *blanquiazul* agertzen ziren kasuak ere bilduz. Hitz konposatuak jasotzea ez da erraza suertatzen, eta kasu guztiak identifikatzea oso zaila da, kasu honetan bezala.

BEBM liburuari dagokionez, txuria xede hizkuntzetan baino gehiagotan agertzen da euskaraz, 30 aldiz txuri eta zuri gehiturik, eta, 19-23 aldiz, gaztelaniaz, katalanez, galegoz, frantsesez zein italieraz. Alemanez, berriz, 92 aldiz agertzen da, baina zaratarik gabe, guztira 20 kasutan ageri da, gainerako xede hizkuntzen antzera. Arrazoi konkreturik ez dago horretarako; adibideak banaka-banaka begiratzuz zentzu aldaketak, sinbolismoa argitu beharra, ezabaketak, eta abar ikusi ditugu.


SS liburuan, zuria da gehien ageri den kolorea euskaraz, 18 aldiz, eta bere ordainak 7-10 aldiz ageri dira. Alde hori zeri dagokion ikusteko, kasuz

<sup>337</sup> Horiez gain kolorearekin zerikusirik ez zuten beste 24 kasu ere topatu ditugu.

kasu begiratu ditugu parekaturiko testuak eta ematen duenez ezabaketak edo eraldaketak izan dira gehienak, arrazoi jakinik gabe eginak.

Itzulpen estrategiei erreparatuz gero, itzulpen linguistikoa izan da erabiliena kasu guztietan. Bigarren postuan, ezabaketa aurki daiteke, eta, hirugarrenik, eraldaketa. Hizkuntza gehien kasuan, zuriaren kasuan nabarmenagoa izan da eraldaketa kopurua, beste kolore batzuen erabilpenarekin alderatuz gero. Aurrez ikusi dugun moduan, kolore honek euskaraz duen sinbologia zabala izan liteke arrazoi posible bat.

### Zuria xede hizkuntzetan



10-6 Figura. Zuria xede hizkuntzetan

Aurreko figura horretan, ez da hizkuntzen arteko alde nabarmenik ageri. Galegoz eta alemanez, eraldaketa gutxiago dagoela ematen du gainerakoetan baino, eta, frantsesez, ezabaketa gehixeago izan dela ematen du.

Datuak liburuz liburu begiratu gero, estrategia bataren zein bestearen erabilera asko aldatzen dela ikusiko dugu, eta, hizkuntza ezberdinen artean ere, alde horiek nabarmenak izango dira zenbaitetan. BL liburuan, bi aldiz ageri da kolorea, eta, ingelesez ez beste bertsio guztietan, desagertu egin da; ingelesez, aldiz, zuzeneko itzulpena izaki, behin mantendu egin da eta beste behin eraldatu. STX liburuaren kasuan, aldeak nabarmenagoak dira: gaztelaniaz, katalanez eta italieraz hiru estrategiak modu paretsuan erabili badira ere (hiru aldiz mantendu, hiru aldiz eraldatu eta bitan desagertu), galegoz eta ingelesez –zuzenean eginiko itzulpenetan– mantendu egin da kolorea ia kasu guztietan. *Bi anai* liburuaren autoitzulpena nahiko sortzailea izan da, aurrez ikusi dugun moduan, eta koloreari erreferentzia desagertzea izan da ohikoena. Bertsio guztietan, 9 aldiz ezabatu da; 3 eraldaketa egin dira, eta behin bakarrik mantendu da zuriari erreferentzia bere horretan. Horrek erakusten digu, gainerako hizkuntzek erabili duten jatorrizko testuari –gaztelaniazkoari– oso gertutik eutsi diotela. OBBren itzulpenetan ere, ezabaketak pisu handia izan du, eta kolorea mantentzearekin paretsu ageri da, 8-11 kasu bitartean. BEBM liburuan, zuria bere horretan uztea izan da

ohikoena, nahiz eta hizkuntzen artean aldeak nabari daitezkeen: gaztelaniaz, katalanez eta galegoz 19 aldiz mantendu da; alemanez, 21 aldiz, eta, frantsesez eta italieraz, 16 eta 15 aldiz, hurrenez hurren. Ikus dezakegunez, azken bi zeharkako itzulpen horiek besteak baino sortzaileagoak izan dira. GBB, ZH, XL, SIG eta BLU liburuetan ere kolorea bere horretan uztea izan da ohikoena, eta ez da eraldaketa nabarmenik ageri hizkuntzaz hizkuntza. Bukatzeko, SSren kasuan, nahiz eta hiru estrategiak kopuruz paretsuak izan (3-5 bitartean), ezabaketa gehiago izan da, 5 kasurekin hizkuntza guztietan. Beste behin ere, kolaborazioan eginiko itzulpena ezin da zeharka beste itzultzaileek eginikoarekin alderatu, horiek erabilitako iturri testuari gaztelaniazkoa baino estuago lotu baitzaizkio.

Eraldaketei dagokienez, tonalitate aldaketa bat edo beste topatu dugu corpusean, nahiz eta eraldaketen barruan kasu gutxien mota honetakoak izan. Sarritan, ez dugu tonalitate aldaketa horiek egiteko arrazoi jakinik topatu. Hona hemen, STX liburuari dagokion adibide bat:

#### 10-57 Taula. Zuria zortzigarren adibidea

<b>Eus</b>	Mariatxok lurrera begiraten zuen, eta bere bernak –galtzerdi txuridunez ukituak– jirabirak ematen zituen erdigune imaginario baten inguruan.
<b>Gazt</b>	Y la verdad era que eso era lo que parecía: ante su mutismo, ella miraba al suelo y sus piernas –enfundadas en largos calcetines de color azul– hacían giros en el suelo alrededor de un centro imaginario.
<b>Kat1</b>	I la veritat era que això era el que semblava: davant del seu mutisme, ella mirava el terra i les seves cames –ficades en llargs mitjons de color blau– feien voltes al terra al voltant d'un centre imaginari. Així anaven les coses quan, buscant secrets a la memòria, va trob
<b>Kat2</b>	Tenia por que Mariatxo s'avorris amb ell. I la veritat és que això era el que semblava: davant el seu mutisme, ella mirava a terra, i les seves cames, vestides amb mitjons llargs de color blau, dibuixaven cerdes a terra al voltant d'un centre imaginari.
<b>Gal</b>	Mariatxo miraba para o chan e as pernas –tocadas con calcetins brancos– daban xiros nun contorno imaxinario.
<b>Ing1</b>	Mariatxo would look at the ground, and her feet –clad in white socks– would draw circles around an imaginary centre.
<b>It</b>	Ed era davvero quello che sembrava: di fronte al suo mutismo, lei guardava in terra e le sue gambe - avvolte da lunghe calze blu - disegnavano dei cerchi sul selciato, intorno a un centro immaginario.
<b>Ing2</b>	Mariatxo looked at the ground, and her legs, draped in blue and white socks, rotated in circles around an imaginary center.

Esaldi horretan, euskaraz txuriak ziren galtzerdiak urdin bilakatu dira gaztelaniaz, katalanez eta italieraz; galegoz eta ingelesezko lehenengo itzulpenean, berriz, zuri izaten jarraitzen dute. Adibide soil honek agerian uzten du itzulpen bakoitza zein hizkuntzatatik egin izan den. Harrigarriena ingelesezko bigarren itzulpenarena iruditu zaigu; kasu horretan, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa nahastu egin dituela ematen baitu.

Ondoko adibidea BA liburukoa dugu, eta, bertan, ohearen *tapaki zuria* “granate” edo “gorri” bihurtu da itzulpen guztietan.

#### 10-58 Taula. Zuria bederatzigarren adibidea

Eus	Eta bere gelako atea zabaldu zuenean sei katagorri ikusi zituen ohearen tapaki <b>zuriaren</b> gainean, ogi pusketa ahaztu baten inguruan bilduta zeudenak, eta pauso bat egin zuen atzera; arratoiak zirela iruditu zitzaion.
Gazt	Estaban sobre la colcha <b>granate</b> de la cama mordisqueando un trozo de pan.
Kat	Estaven damunt el cobrellit <b>vermell</b> del llit, rosegant un bocí de pa. Eren exactament sis
Fr	Ils étaient sur le couvre-lit <b>grenat</b> en train de mordiller un morceau de pain. Très exactement six en tout.
Ing	They were sitting on the <b>maroon</b> bedspread nibbling a piece of bread. There were exactly six of them.
It	Stavano sul materasso <b>granata</b> del letto e mordicchiavano un pezzo di pane. Erano esattamente sei.

Tonalitate aldaketaren azken adibidea ere BA liburutik hartu dugu. Bertan, *eraztun txuriak* irudikatu ditu idazleak euskaraz, eta eraztun horiek “zilar koloreko” bihurtu dira itzulpenetan. Kontuan izan behar da euskaraz urre zuri modura ezagutu izan dela tradizioz gaur egun zilar kolorekoa izendatzen duguna (Perurena, 1992: 209). Beraz, tonalitate aldaketaz baino, zuri koloreak bere gain hartzen dituen tonalitate ezberdinetako batez hitz egin beharko genuke.

#### 10-59 Taula. Zuria hamargarren adibidea

Eus	Eta Mintzoak erran zidan neska batzuk ez zizkietela eraztun <b>txuriak</b> jartzen bere zintei, baizik eta koloredunak.
Gazt	Supé entonces que algunas chicas no les ponían a sus cintas los habituales aros <b>plateados</b> , sino otros más grandes y de colores.
Kat	Vaig saber aleshores que algunes noies no posaven en les seves cintes les habituals anelles <b>platejades</b> , sinó unes altres de més grans i de colors.
Fr	Je sus alors que certaines filles ne mettaient pas à leurs rubans les habituels anneaux <b>argentés</b> , mais d'autres, plus grands et coloriés.
Ing	I learned then that not all the girls put <b>silver</b> rings on their ribbons, but larger, coloured ones.
It	Seppi allora che alcune ragazze non mettevano ai loro nastri i soliti cerchi <b>argentati</b> , ma altri, piú grandi e colorati.

Kolorearen enfatizazio maila ere aldatu egin da batzuetan. Euskaraz zuri soil esaten den zenbait kasutan, zuritasun horren indarra nabarmendu egin da itzulpenetan. Esaterako, SIG liburutik hartu dugun ondoko adibide honetan:

#### 10-60 Taula. Zuria hamaikagarren adibidea

Eus	Tertziopelo urdineko jakatxo bat zeraman alkandora <b>zuri-zuriaren</b> gainean.
Gazt	Iba vestido con una chaquetilla de terciopelo azul y llevaba una camisa



	inmaculadamente blanca.
Kat	Portava una jaqueta de vellut blau i una camisa <b>immaculadament blanca</b> .
Gal	Ía vestido cunha chaquetaña de veludo azul e levaba unha camisa <b>inmaculadamente branca</b> .
Fr	Il portait une veste courte de velours bleu et une chemise d'une <b>blancheur immaculée</b> .
It	Indossava una giacchetta di velluto blu e una camicia <b>bianca immacolata</b> .

Euskaraz oso ohikoa den errepikapenaren bitartez esanikoa, maila jasoago batean eman da itzulpenetan. Gaztelaniaz gehituriko indartzaile hori gainerako hizkuntza guztietara igaro da inolako moldaketarik egin gabe. Euskarazkoan ez zegoen metafora gehitu da bitarteko bertsio horretan. Kolokazio hori gainerako xede hizkuntzetan gaztelaniaz bezain erabilia ote den ikusi beharko litzateke.

Ondorengo kasu honetan, euskaraz zuri soilez esan dena zuri-zuri bihurtu da itzulpenetan, edo oinetatik bururaino zuri, frantsesez, edo elurra bezain zuri, alemanez.

#### 10-61 Taula. Zuria hamabigarren adibidea

Eus	Contua duc, muticoa izcutatu eta andic illabete batera, Marchoco leen igandez oquer ez banago, <b>basurde zuri</b> bat azaldu cela erriaren cale bacarretik barrera.
Gazt	En esas consideraciones me enredaba cuando a principios de febrero, un mes después de que Javier huyera, un <b>jabalí completamente blanco</b> apareció en la calle mayor de Obaba.
Kat	»En aquestes consideracions m'enfilava quan a la primeria de febrer, un mes després que Javier hagués fugit, un <b>porc senglar completament blanc</b> va aparèixer al carrer major d'Obaba.
Gal	Enguedellábame nesas consideracións cando a comezos de febreiro, un mes despois de que Xavier fuxira, un <b>xabaril enteiramente branco</b> apareceu na rúa maior de Obaba.
Fr	Je me perdais dans ces considérations quand, début février, un mois après la fuite de Javier, un <b>sanglier blanc des pieds à la tête</b> apparut dans la grand-rue d'Obaba.
Ing	I was still caught up in these thoughts when, at the beginning of February, one month after Javier had run away, a <b>pure white boar</b> appeared in the main street of Obaba.
Ale	Ich quälte mich und machte mir Vorwürfe, als Anfang Februar, einen Monat nach Javiers Verschwinden, ein <b>schneeweißes Wildschwein</b> in der Hauptstraße von Obaba auftauchte.
It	Mi abbandonavo a queste considerazioni, quando agli inizi di febbraio, un mese dopo che Javier era fuggito, nella via principale di Obaba comparve un <b>cinghiale affatto bianco</b> .

Basurde horren zuritasuna, Moby Dick balearen koloreari dagokio, Perurenaren liburuan jasota dauden Atxagaren hitzetan agertzen denez (Perurena, 1992: 208). Ikus dezakegun moduan, gaztelaniaz gehitu den indartzaile horrek koloreari ematen dion ñabardura gainerako hizkuntzek ere jaso egin dute, euskarazkotik gaztelaniara ez bezala iturri testuan zegoena mantenduz.

Alderantzizkoa ere gerta liteke, euskarazkoan ematen zaion indarra xede hizkuntzetan neutralizatzea.

#### 10-62 Taula. Zuria hamairugarren adibidea

Eus	Bisitarietako bat inguratu zitzaidan, bera historiagilea zela esanez. Bizar <b>txuri txit txuriko</b> izakia zen, eta betaurreko dotore-dotoreak zeramatzan.
Gazt	Se me acercó entonces un hombre de mediana edad, de <b>barba blanca</b> y gafas elegantes. Se presentó como historiador.
Kat	Llavors se'm va acostar un home de mitjana edat, de <b>barba blanca</b> i ulleres elegants. Es va presentar com a historiador.
Ale	Da näherte sich mir ein Mann mittleren Alters, mit einem <b>weißen Bart</b> und eleganten Brillengläsern. Er stellte sich mir als Historiker vor.
It	Allora si avvicinò un uomo di mezza età, con <b>barba bianca</b> e occhiali eleganti. Si presentò come uno storico.

BLU liburuko adibide horretan, *bizar txuri txit txuriko gizona*, aliterazio bidez indartzen dena euskaraz, neutralizatu egin da itzulpenetan, atzetik agertzen den *dotore-dotore* izenondoa bezala.

Egitura aldaketak izan dira eraldaketen barruan gehien egin direnak hizkuntza guztietan. Hona hemen, horietariko adibide bat, BEBM liburukoa:

#### 10-63 Taula. Zuria hamalagarren adibidea

Eus	Balantzategiko <b>etxe txuri</b> hartarantz jo genuen basoko bidatzur batetik, eta ia hantxe ginenean, ikuiluko atea ikusteko moduan-eta, piska bat goraka egin eta zuhaitz arteko lorategi bateraino iritsi ginen.
Gazt	Cogimos un sendero que iba directamente hacia la casa, visible a aquellas horas de la noche gracias a sus <b>paredes blancas</b> y a la luna, y cuando ya casi estábamos allí, torcimos un poco hacia el interior del bosque y llegamos hasta un jardín entre árboles.
Kat	Vam agafar un camí que anava directament a la casa, visible a aquelles hores de la nit gràcies a les <b>parets blanques</b> i a la lluna, i quan ja gairebé hi érem, vam tombar una mica cap a l'interior del bosc i vam arribar a un jardí que hi havia entre els arbres.
Gal	Collemos un carreiro que ía dereito á casa, visible a aquelas horas da noite gracias ás súas <b>paredes brancas</b> e maila lúa, e cando xa case estabamos alí, torcemos un pouco cara ó interior do bosque e chegamos a un xardín entre árbores.
Fr	Nous prîmes un sentier qui descendait directement vers la maison, rendue visible à cette heure si tardive par la lune et par ses <b>murs blancs</b> et, juste avant d'arriver, nous bifurquâmes légèrement vers l'intérieur du bois et débouchâmes dans un jardin entouré d'arbres.
It	Prendemmo un sentiero che andava direttamente verso la casa, ben visibile anche a quell'ora della notte grazie alle sue <b>pareti bianche</b> e alla luce della luna.
Ale	So brachen wir also auf und liefen über einen Trampelpfad in Richtung auf jenes <b>weiße Haus</b> zu.

Kolorea mantendu egin da esaldi horretan, baina erreferentea *etxe* izatetik *horma* izatera pasa da. Alemanez, ordea, egitura euskaraz bezala ageri da. Hor, beraz, metonimia mantendu egin da; zuzenean itzulia izateak

badu eraginik testuan, gainerako testuekin alderaturik. Adibide horretan ikus dezakegunez, alemanezkoak euskarazkoarekin jokatzen du gainerako bertsioek gaztelaniazkoarekin bezala. Hau da, erreferentzia hartu den testuari ahal bezain gertuen jarraitzen dio itzultzaileak.

Zuriari dagokionez aipatu nahi dugun azken adibidea ZH liburutik hartu dugu. Bertan, euskal kantutegiko abesti oso ezagun bat (“Isil-isilik dago”) ageri da, poema modura emana. Abesti horretan, honako esaldi hau dator: *ontzi txuri polit bat uraren gainean*. Abestia euskaraz eman da itzulpen guztietan, beraz, koloreari erreferentzia agertu, agertzen da hizkuntza guztietan, baina ezin izan dugu zenbatu xede hizkuntzako kolore modura Wordsmithen bitartez, xede hizkuntzetan koloreak dagokion hizkuntzan bilatu baititugu. Kasu honetan, abestia denez kasu berezia berau, ez itzultzea izan da itzulpen aukera bertsio denetan. Hala gertatu da guztietan ere, gaztelaniaz hala egin duelako hizkuntza horretarako itzultzaileak.

#### 10.2.2.5.4 *Gorria*

Patziku Perurenak dioen moduan, “gorria da euskal usuarioan erabiliena den kolorea” (1992: 125). Zuria eta beltzaren edo iluna eta argiaren artean kokatzen da, kolorea duena esan nahi baitu oinarrian. Euskarazko kolore zaharrenak ditugu zuria, beltza eta gorria, hala erakusten dute hainbat toki izenek eta baita hizkuntzan bertan duten erabilera zabalak ere<sup>338</sup>.

Gorria, beraz, hasiera batean kolorea adierazteko erabiltzen zen hitz bakarra izanik, Txema Preciadok adierazten duen moduan, “gorriak bere baitan hartuko zituen gaurko gorriaz gain, horia, laranja, marroia, arrosa, lila...” (1995a: 7). Horrexegatik, presentzia nabarmena du gure hizkuntzan. “Gorria dela esanzen nuke nik, sinbolismorik ugariena duena” (Perurena, 1992: 88).

Gorria sarritan erabiltzen da enfatizatzaile modura, “bizi” adjektiboaren pareko. Modu honetara, mina, oinazea, sufrimendua edo amorrua adieraz daitezke. Baita egoera baten gogortasuna edo gordintasuna ere. *Zeru horiek* liburuko adibide honetan, esaterako, *errealitate gorria* ageri da. Ikus dezakegunez, xede hizkuntza guztietan errealitatea arrunta, monotonoa, aspergarria edo egunerokoa bihurtu da.

#### 10-64 Taula. *Gorria* lehenengo adibidea

Eus	(...) arazoak dituzu errealitatearekin, kosta egiten zaizu errealitate gorriaren bulgaritate hori onartzea (...)
Gazt	Te cuesta aceptar la realidad, la vulgar y aburrida realidad (...)
Kat	Et costa d’acceptar la realitat, la vulgar i ensopida realitat (...)
Ing	You find it hard to accept reality, boring everyday reality (...)
Ale	Du hast Schwierigkeiten, dich and die ganz gewöhnliche und alltägliche Wirklichkeit anzupassen (...)

<sup>338</sup> Ikus Perurenaren eta Preciadoren lanak azalpen zabalagoetarako.

It           Ti costa accettare la realtà, **la volgare e noiosa** realtà (...)

Eguraldi kontuez hitz egiterakoan ere hotza, euria edo elurrarekin ere lotzen da, BEBM liburuko honako adibideak erakusten digun moduan. Alemanez soilik eman da esaldi horren ordaina kasu horretan, eta neguaren gogortasuna neutralizatu egin du itzultzaileak.

#### 10-65 Taula. Gorria bigarren adibidea

---

Eus	Mendian izango da noski janari premia, batez ere orain, <b>negu gorrian</b> gaudela
Gazt	--
Kat	--
Gal	--
Fr	--
Ale	Denn dort [in die Berge] sind Lebensmittel sicher knapp, zumal <b>jetzt im Winter</b>
It	--

*Gizona bere bakardadean* liburuko beste adibide honetan, beroaren gogortasunari egiten dio erreferentzia gorriak, udako hainbat egunetan beroa jasangaitza izaten baita. Itzulpenetan ikus daitekeen moduan, *egun gorrienak* zinez egun beroak bihurtu dira.

#### 10-66 Taula. Gorria hirugarren adibidea

---

Eus	Udako egun <b>gorrienak</b> urrun egon arren, ...
Gazt	Aunque los días <b>verdaderamente calurosos</b> del verano todavía quedaban lejos, ...
Kat	Tot i que encara quedaven lluny els dies <b>veritablement calorosos</b> de l'estiu, ...
Fr	Bien que les journées <b>vraiment chaudes</b> de l'été fussent encore loin, ...
Ing	Although <b>the hottest</b> summer days were staff some way off, ...
Ale	Auch wenn <b>die heisseste</b> Zeit des Sommers noch bevorstand, ...
It	Benché i giorni <b>realmente afosi</b> dell'estate fossero ancora lontani, ...

Gorriak ere badu soiltasunarekin, biluztasunarekin edo gordintasunarekin loturarik euskaraz (Perurena, 1992: 90). Gure corpusean, zentzu hori jasotzen duten hainbat kasu topatu dugu, *larru gorritan* esamoldea adibidez, baina koloreari erreferentzia oro galdu egin da itzulpen guztietan.

Izenondoa aditz bihurtzen denean adiera ezberdinetan agertuko zaigu. Lotsatzea izan daiteke esanahietako bat, edo erretzea, xigortzea ere bai beste hainbat testuingurutan. Belarraren kasuan, lehortzea ere esanahiko du, BEBM liburuko adibide honek erakusten duen moduan.

#### 10-67 Taula. Gorria laugarren adibidea

---

Eus	Belarra, nahiko latza ordurako, erabat <b>gorritu</b> zen
Gazt	La hierba, ya bastante dura para entonces, <b>se puso áspera</b> del todo

Kat	L'herba, ja força dura aleshores, <b>es va fer aspra</b> del tot
Gal	A herba, xa bastante dura para entón, <b>púxose áspera</b> de todo
Fr	L'herbe, assez dure déjà, <b>devint coriace</b>
Ale	Das Gras hatte schon sehr gelitten und war <b>braun</b> geworden
It	L'erba, che si era già fatta piuttosto secca, <b>divenne quasi immangiabile</b>

Esaldi horren gaztelaniazko bertsioan, koloreari erreferentzia galdu egin da, eta, ondorioz, berdintsu pasa da katalanez, galegoz, frantsesez eta italieraz. Alemanezko zuzeneko itzulpenean, berriz, koloreari egiten zaion erreferentzia mantendu egin da, nahiz eta *marroi* bihurtu den, *gorri* beharrean.


Euskaraz, etxe-abereak sailkatzeko hiru kolore nagusi erabili izan dira: “behiei abelgorri, zerriei azienda beltz edo ganadu beltz, eta ardiei azienda xuri edo abeltxuri deituz” (Perurena, 1992: 175). Sailkapen horretaz gain, behiei dagokienez ere beltz eta gorriei buruz hitz egiten da, edo nabar edo urdinei buruz ere bai. Gure inguruko hainbat hizkuntzatan, kolore izendegi aberatsa darabilte arlo jakinetako hiztegiari buruz hitz egiteko; konparazio batera, etxabereei buruz. BEBM liburuan ikusi ahal izan dugun moduan, zaldi gorria gaztelaniaz *caballo alazán* bihurtu da; *caball groguenc*, katalanez; *caballo alazán*, galegoz; *cheval alezan*, frantsesez; *caballo sauro*, italieraz, eta *rotbraunes Pferd*, alemanez. Liburu berean agertzen diren behi gorriek ere honako baliokide hauek eman dituzte: *vacas rojizas*, gaztelaniaz; *vaques rosses*, katalanez; *vacas rubias*, galegoz; *vaches rousses*, frantsesez; *mucche rossicce*, italieraz, eta *rotbraunen Kühe*, alemanez.

Corpuseko datuei erreparatuz gero, 183 kasu topatu ditugu guztira euskaraz. ZH liburuan ageri da kolorea gehien, 61 aldiz, eta, ondoren, BEBM liburuan, 40 aldiz, eta 30 aldiz OBB liburuan. Wordsmith programaren Concord aplikazioak eskaintzen digun Patterns aukerari erreparatuz gero, ohiko hainbat hitz elkarketa ikusiko dugu: *korbata gorri* hitz multzoa garrantzitsua izan da ZH liburuan, adibidez, eta *behi gorri* ere askotan agertzen da BEBMn.

N	L5	L4	L3	L2	L1	Centre	R1	R2	R3	R4	R5
1	ETA	ETA	ESAN	ETA	KORBATA	GORRI	ETA	ZEN	ETA	ETA	ETA
2		ZUEN		ZEN	ETA	GORRIAK	BAT	ETA	ZUEN	EZ	EZ
3		EZ		ZUEN	BEHI	GORRIA	EZ				
4				ZION	BEGIAK	GORRIDUNAK					
5						GORRIDUNA					
6						GORRIARI					
7						GORRIKO					
8						GORRIZTA					
9						GORRIAREN					

10-7 Figura. GORRI concorden I

Itzulpen estratēgiei begira jarriz gero, zera ikusiko dugu; euskarazko testua abiapuntu harturik, xede hizkuntza guztietan itzulpen linguistikoa izan dela gehien erabiliriko estratēgia: gaztelaniaz, 104 aldiz; katalanez, 119tan; galegoz, 51 bider; frantsesez eta ingelesez, 59na aldiz; alemanez, 87 bider, eta, italieraz, 100 aldiz. Bigarren estratēgia ezabapena izan da: gaztelaniaz, 65 aldiz; katalanez, 58tan; galegoz, 40 aldiz; frantsesez, 52tan; ingelesez, 53 bider; alemanez, 55etan, eta, italieraz, 64 aldiz. Azkenik, hirugarren estratēgia, beste biak baino askoz gutxiagotan erabilia, eraldaketa izan da: gaztelaniaz, 14 aldiz; katalanez, 11 bider; galegoz, 5 aldiz; frantsesez, 10 bider; ingelesez zein alemanez, 12na aldiz, eta, italieraz, 16 aldiz. Ondoko grafikoan datuok argiago ikus daitezke.




10-8 Figura. Gorria xede hizkuntzetan

Portzentaiak nahiko paretsuak dira hizkuntza guztietan. Hala ere, frantsesez eta ingelesez desagerpenak besteetan baino garrantzia handiagoa du, eta baita, neurri txikiagoan, galegoz ere.

Liburuz liburuko datuei erreparatuz gero, deigarria iruditu zaigu BL eta BA liburuen kasua. Bietan ala bietan ere, desagerpena izan da gehien erabiliriko estratēgia: BL liburuan, lau desagerpen eta itzulpen linguistikoa bat gaztelaniazko, katalanezko, galegozko, frantsesezko eta italierazko itzulpenetan, eta 3 ezabaketa eta 2 itzulpen linguistikoa ingelesez. Azken itzulpen hori zuzena izanagatik ere, gorriari dagokionez itzulpen sortzailea ageri da. BAREN itzulpen guztietan 4 ezabaketa izan dira, 4 eraldaketa eta itzulpen linguistikoa bakarra. Beste behin ere gaztelaniazko autoitzulpen sortzailea nabarmentzen da, gainerako hizkuntzek bitarteko bertsioetako mantentzen duten bitartean.

Gauza bera gertatu da OBB liburuaren itzulpenetan ere. Kasu horretan, 25 ezabaketa izan dira, eta 5 aldiz mantendu da kolorea. Alemanez, ezabaketa bat gutxiago izan da, eta eraldaketa bat, horren ordez. Ezabaketa horren arrazoia bilatzeko Wordsmithen Concord aplikazioak eskaintzen duen Plot

aukera begiratu dugu. Aurrez metodologian tresnaren erabilera azaltzean adierazi moduan, liburu bakoitzean koloreak duen presentzia eta garapena ikus daiteke bertan.



10-9 Figura. GORRI concorden II

Aurreko figura horretan ikusten denez, gorri sarritan ageri da une jakin batean. Liburuaren Esteban Werfell izeneko atalean pertsonaia bat ageri da *Gorria* ezizenez, eta, aurrez izen propioen azterketan ikusi dugun moduan (ikus 10.2.1.5.4 atala), izen horren ordaina *Andrés* izan da gaztelaniazkoan, eta, ondorioz, baita gainerako zeharkako itzulpenetan ere. Beraz, horri dagokio ezabaketa horren arrazoi nagusia. Adibide honek argi eta garbi erakusten du gaztelaniaren bitartekaritzaren eragina xede bertsoetan.

BEBM liburuaren kasuan, gorri 42 aldiz agertu da euskaraz. Alemanez ere, antzera, 40 aldiz. Gaztelaniaz, gutxixeagotan ageri da, 34 aldiz, eta paretsu, italieraz, 36 aldiz. Katalanez, galegoz eta frantsesez, 9-10 aldiz agertzen dira *vermell* edo *rouge*, gainerako kasu guztietan erabiliriko ordainak. Kasu honetan, baina, behiaren koloreaz ari garenez, ohiko ordainak katalanez *rossa* (25), galegoz *rubia* (33) eta frantsesez *rousse* (24) dira. Bi izendapenen baturaz, gainerako hizkuntzen antzerako kopuruetara iristen dira. Kasu honetan, beraz, kolore izendapen zabalagoa ageri da xede hizkuntza batzuetan. Beraz, ikus dezakegunez, izendapenen baliokidetzaren ez da izaten bat eta bakarra hizkuntzen artean.

Gainerako liburuen itzulpenetan, desagerpen kopurua itzulpen linguistikoena baino txikiagoa izan da, SSren alemanezko itzulpenean izan ezik; kasu horretan, hiru desagerpen daude, bi eraldaketa eta itzulpen linguistiko bat.

Beltzaren kasuan bezala, hemen ere nabarmentzekoa da BEBMren alemanezko itzulpenean eta ZHren katalanezko itzulpenean ezabaketa gutxiago izan dela eta kolorea gehiagotan mantendu dela: BEBMren itzulpen gehienetan 25-27 itzulpen linguistiko dauden bitartean, alemanez 32 ageri dira eta ezabaketa kopurua ere 10-12koa izan ordez, 5koa soilik da. ZHren kasuan, berriz, 37-40 aldiz mantendu da kolorea gainerako hizkuntzetan, eta,

katalanez 54tan; 5 ezabaketa soilik izan da katalanez, gainerakoetan 16-18 izan diren bitartean. Aipagarria da, baita ere, kasu honetan eraldaketa kopurua ere baxuagoa dela katalanez, 2 soilik; gainerakoetan, berriz, 5-8 bitartean. Hor argi ikus daiteke zuzeneko itzulpen horiek euskarazkoari gehiago lotu zaizkiola gaztelaniazko itzulpena baino.

Eraldaketa motei dagokienez, sintaxiarekin loturiko batzuekin egin dugu topo. Kolorea bera mantendu arren, ordena edo formulazioa izan ohi da aldatzen dena horietan. Esaterako, bi kolore bata bestearen segidan ematen direnean, ordena aldatuta agertzen dira hainbatetan. ZH liburuko ondoko adibidean, konparazio batera, gaztelaniaz, ingelesez, alemanez eta italieraz koloreen ordena alderantziz agertzen da, eta katalanez, euskaraz bezala. Halako ñabardura txikiek agerian uzten dute zuzeneko itzulpena eta zeharkakoaren arteko aldea, hots, gaztelaniaren bitartekaritzarena.

#### 10-68 Taula. Gorria bosgarren adibidea

Eus	Gasolinategia hori eta gorria zen, eta muinoa, berriz, belarduna eta berde-berdea
Gazt	La gasolinera era roja y amarilla, y el montículo estaba cubierto de césped verde brillante.
Kat	La benzinera era groma i vermella i el turó estava cobert de gesta instensament verda.
Ing	The petrol station was red and yellow, and the hillock was covered in bright green grass.
Ale	Die Tankstelle war rot und gelb, der Erdhügel war mit glänzend grünem Gras bewachsen.
It	La stazione di benzina era rossa e gialla, e la montagna era coperta da un prato verde brillante.

Euskaraz errepikapena erabili ohi da koloreari bizitasuna emateko. Ohiko egitura da errepikapena, eta, corpuseko kasu gehientsuenetan, errepikapena egonez gero, beste moduren batera ematen da, aipatu dugun esaldian agertzen den *berde-berde*-arekin gertatzen den moduan. Errepikapena mantendu ere egin da behin edo behin, baina topatu ditugun kasu apurrak HGL liburuetan izan dira, XB liburuko ondoko adibide hauen modura. Dena dela, errepikapena enfatizatuago ageri da xede hizkuntzetan.

#### 10-69 Taula. Gorria seigarren adibidea

Eus	Begiak gorri-gorriak zituen; muturra bel-beltza; hortzak eta betortzak -zer hortzak! Zer betortzak! Ikusgarriak!- txuri-txuriak.
Gazt	Sus ojos eran rojos, rojísimos; el morro negro, negrísimo; los dientes y los colmillos - ¡Qué dientes! ¡Qué colmillos! ¡Increíbles!- eran blancos, blanquísimos.
Kat	Tenia els ulls vermells, vermellíssims; el morro negre, negríssim; les dents i els ullals (quines dents!, quins ullals!, increíbles!) eren blancs, blanquíssims.
Fr	Ses yeux étaient rouges, très rouges; son museau noir, très noir; ses défenses - quelle dents! Quelles défenses! c'était incroyable! - étaient blanches, très blanches.
Ale	Es hatte rote Augen, sehr rote Augen und eine schwarze, sehr schwarze Schnauze. Und die Zähne und die Hauer - Oh, was für Zähne! Was für Hauer! - waren weiß.



Egiturari dagokionez, bada beste mota bateko adibiderik ere. SS liburuan ageri den ondorengo adibidean, Degrela kapitainaren hitzak euskaraz ematearekin batera diskurtso zuzenean gaztelaniaz ere errepikatu egiten da herriko mutilen *odol gorria* behar duela. Gaztelaniazko bertsioan, euskaraz ageri zen esaldia desagertu egin da eta gaztelaniazko diskurtso zuzena mantendu da, jatorrizkoan ageri zen eleaniztasuna ezabatuz. Ondorioz, gainerako hizkuntza guztiek nor berak bere hizkuntzan eman du esaldi hori. Honen moduko heteroglosia kasuak ezabatzeko joera handiagoa dela esango genuke gainerako elebitasunekin alderatuz gero, liburu berean ageri den euskararen eta ingelesaren artekoa esaterako. Elebitasuna gaztelaniazko bertsioan ezabatzearen ondorioz, gainerako xede hizkuntzetan ere ez da halakorik jasoko.

#### 10-70 Taula. Gorria zazpigarren adibidea

Eus	Beren bizia emateko prest zeuden soldaduak nahi zituela esan zuen, berak hala al zeuden, Espainiak eta erlijioak haien <i>odol gorria</i> behar zuela. "Necesito vuestra <i>sangre roja</i> -esan zuen-. No os prometo la vida, os prometo la gloria".
Gazt	Dijo que necesitaba jóvenes que estuvieran dispuestos a dar su vida por la religión y por España. "Necesito vuestra <i>roja sangre</i> . No os prometo la vida, os prometo la gloria".
Kat	Va dir que necessitava joves que estiguessin disposats a donar la vida per la religió i per Espanya. "Necessito la vostra <i>sang roja</i> . No us prometo la vida, us prometo la glòria".
Gal	Dixo que precisaba homes que estivesen dispostos a dar a súa vida pola relixión e por España. "Necesito o voso <i>vermello sangue</i> . Non vos prometo a vida, prométovos a gloria".
Fr	Il a dit qu'il avait besoin de jeunes gens prêts à donner leur vie pour la religion et pour l'Espagne. « J'ai besoin de votre <i>sang rouge</i> . Je ne vous promets pas la vie, je vous promets la gloire ».
Ing	Anyway, the captain said he needed young men who were prepared to give their lives for religion and for Spain. "I need your <i>red blood</i> ", he said. "I cannot promise you life, but I can promise you glory."
Ale	Er brauchte junge Männer, die bereit seien, für Gott und Spanien ihr Leben zu geben. >Ich brauche euer <i>roter Blut</i> . Nicht Leben verspreche ich euch, sondern Ruhm.<
It	Disse che aveva bisogno di uomini disposti a dare la vita per la religione e per la Spagna. "Ho bisogno del vostro <i>sangue rosso</i> . Non vi prometto la vita, vi prometto la gloria".

Eraldaketa mota ezberdinekin jarraituz, kolore aldaketa edo tonalitate aldaketaren adibide bat erakutsiko dugu jarraian, BA liburutik. Jatorrizkoan *zinta gorri gorria* zena xede hizkuntzetan gorria izan bai baina urrezko izartxo eta guzti ageri da.

#### 10-71 Taula. Gorria zortzigarren adibidea

Eus	Eztenari erantsita zinta <i>gorri gorri</i> bat ilki zen argira
Gazt	La única cinta que seguía en el cilindro, <i>roja con estrellitas doradas</i> , ondeó en el aire

Kat	L'única cinta que continuava dins del cilindre, vermella amb petits estels daurats, va onejar en l'aire
Fr	Le seul ruban qui était encore dans le cylindre, rouge et parsemé de petites étoiles dorées, ondoya dans l'air
Ing	The only ribbon left on the cylinder, red with little golden stars, fluttered in the air
It	L'unico nastro rimasto nel cilindro, rosso con steline dorate, ondeggiò nell'aria

Aurreko kasu horretan, kolorea bera ez da desagertu baina ezaugarri bereziak gehitu zaizkio. Ondorengo adibide honetan ere, liburu berekoa berau, jatorrizkoan ageri den *guardasola gorria* xede hizkuntzan ere ageri da, baina euskarazkoan *guardasola* bakarra zegoen tokian, xede hizkuntzetan “tanto urdinekiko *guardasola txuria*” gehitu da. BA liburuari dagokion adibide horrek, autoitzulpenean egin daitezkeen eraldaketa bereziak erakusten dizkigu. Gainerako hizkuntzek gaztelaniazkoari eusten diote moldaketarik sartu gabe.

#### 10-72 Taula. Gorria bederatzigarren adibidea

Eus	Guardasola <b>gorri</b> bakar baten pean bildurik
Gazt	Un paraguas <b>rojo</b> , la otra, un <b>paraguas blanco con motas azules</b>
Kat	Un paraigua <b>vermell</b> , l'altra, un <b>paraigua blanc amb taques blaves</b>
Fr	Un parapluie <b>rouge</b> , l'autre un parapluie blanc parsemé de petites, taches bleues
Ing	A red umbrella, the other a <b>white umbrella with blue spots</b>
It	Un ombrello rosso, l'altra, un ombrello bianco a pois blu.

#### 10.2.2.5.5 Berdea

Corpusean gehien ageri zaigun hurrengo kolorea berdea dugu. Honako kolore hau ere sinbologiaz beterikoa dugu, nahiz eta berantiarra izanagatik, aurreko hirurek baino maila apalagoan izan.

Adieren artean ezagunenetarikoa itxaropenari loturikoa da egungo gizartean. Perurenak dioenez, “lur emankorraren, lur oparoaren sinbolotzat hartu izan dugu guk ere [kolore berdea], mundu zabaleko beste herri askok bezalaxe” (1992: 60). Bestalde, landarediari eta begetazioari guztiz loturik dagoen kolorea ere bada. Halako adibide ugari topa daitezke gure corpusean, mendiaren, zuhaitzen edo belarraren berdetasuna deskribatzen dutenak. Hona hemen, esaterako, STX liburuko kasu bat.

#### 10-73 Taula. Berdea lehenengo adibidea

Eus	Ekialdeko zeruak galdua zuen, ordurako, goizaldeko kolore bizitasuna, eta urdin lotsatu batek jarraitzen zion <b>mendien berdetasunari</b> .
Gazt	Y el azul del cielo que seguía a aquella silueta tampoco tenía la claridad que Sebastián había observado al salir de paseo.
Kat1	I el blau del cel que hi havia al darrere d'aquella silueta tampoc no tenia la claredat que Sebastian havia observat quan havia sortit a passejar.

<b>Kat2</b>	I el blau del cel que seguia aquella silueta tampoc no tenia la claredat que Sebastián havia observat en sortir de passeig.
<b>Gal</b>	O nacente tiña perdida daquela a viva cor da mañá, e sobre o verde dos montes prolongábase un tímido azul.
<b>Ing1</b>	By that time, the eastern sky had lost the intensity of colour it had at dawn, and now a shamefaced blue accompanied <b>the greenness of the mountains</b> .
<b>It</b>	E il blu del cielo che seguiva quel contorno non aveva piú la chiarezza che Sebastián aveva notato uscendo in passeggiata.
<b>Ing2</b>	By then, the sky in the east had already lost its lively early morning color and a timid blue followed <b>the green of the hills</b> .

Aurreko adibide horretan ikus dezakegunez, euskaratik zuzenean eginiko itzulpenek –galegozkoak eta ingeleserako biek– berdetasunari erreferentzia mantendu egin dute; gainerakoek, ordea, ez. Gaztelaniaz ezabaturiko erreferentzia hori ez da ageri katalanezko bi itzulpenetan ez eta italierazkoan ere.

Horretaz gain, “gizakiongan ere erabiltzen da berdea, heldugabeko gaztetasuna edo gordintasuna adierazteko” (Perurena, 1992: 68). Gordintasunari loturik ere iritsi zaigu berdearen sinbologia, sexuari loturik, hain zuzen, nahiz eta euskaraz jatorragoak izan gorriari edo gordinari erreferentziak.


Gure corpuseko adibideetan, halaber, aipatu sinbologia horietako adibiderik ez dugu topatu. Landarediarekin loturikoez gain, erabilera oso modernoa ageri baita guztietan ere.

Nahiz eta berdea gurean izendapen berantiarra eta maileguzkoa izan, denboraren poderioz, kolore oso arrunta dugu gaur egun eta oso erabilia, gainera. 130 aldiz ageri zaigu berdea corpusean. BEBM liburua da kasu gehien biltzen dituen, 87 guztira. Nabarmentzekoa da, kasu erdiak baino gehiago liburu honetan agertzea. Kolore hori da, gainera, liburu horretan gehien ageri dena. Atzetik, ZH liburua izango genuke, 29 kasurekin. Gainerakoetan, bost aldiz baino gutxiagotan ageri da honako kolore hau. Concord aplikazioaren Clusters taulan ikus daitekeenez (10-10 Figura), *Antiaju Berde* egitura BEBM liburuan oso ohikoa da, aipaturiko 87 kasuetatik 73, hain zuzen ere. ZH liburuari dagokionez, *begi berdeekiko moja* da gehien errepikatzen den egitura.

N	Cluster	Freq.	Length
1	ANTIAJU BERDE ETA	11	3
2	BEGI BERDEEKIKO MOJAK	10	3
3	ZION BEGI BERDEEKIKO	6	3
4	ESAN ZION BEGI	6	3
5	LA VACHEK ANTIAJU	5	3

10-10 Figura. BERDE concorden

Itzulpen estrategiei erreparatuz, berde izendapena xede hizkuntzetan ere jasotzea izan da ohikoena hizkuntza guztietan, aurreko bi koloreekin gertatu bezala. Baina, berdearen kasuan, itzulpen linguistiko horrek askoz ere pisu nabarmenagoa dauka, hizkuntza bakoitzean kasuen %73-87 artean agertzen baita. Gainerako koloreen kasuan baino portzentaia altuagoa. Ezabaketa askoz ere gutxiago ikus daiteke kolore honen kasuan euskarazko testutik: gaztelaniaz, 16 aldiz; katalanez, 14tan; galegoz, 10 aldiz; frantsesez eta alemanez, 18na aldiz; ingelesez, 7 bider, eta, italieraz, 21etan. Eraldaketak ere nahiko hutsalak dira hizkuntza guztietan ere: 5 gaztelaniaz, 6na katalanez, alemanez eta italieraz, eta 3na galegoz, frantsesez eta ingelesez. Datuok argiago ikus daitezke ondorengo grafikoan.



10-11 Figura. Berdea xede hizkuntzetan

Liburuz liburuko datuak aztertzerakoan, aldeak ez dira oso nabarmenak izan. BL liburuan bi aldiz soilik agertu da berdea, eta galegoz eta ingelesez bi

aldietan mantendu bada ere, gainerako hizkuntzetan behin ezabatu egin da. BEBM liburuan frantsesez eta italieraz gainerako hizkuntzetan baino gutxiagotan mantendu da koloreari erreferentzia, 69 eta 71 aldiz, hurrenez hurren; gainerakoetan, berriz, 76-79 aldiz. Ezabaketak ere ugariagoak izan dira, 15 eta 13 aldiz, gainerakoetan 6-9 aldiz soilik ezabatu den bitartean. Horrek bi bertsio horien izaera sortzailea nabarmentzen du.

ZH liburuan, deigarria da alemanez kolorea bera gutxiagotan mantendu izana gainerakoetan baino, 17 aldiz soilik, beste guztietan 22 aldiz ageri den bitartean. Katalanez, berriz, 26 aldiz. Bestalde, desagertuak ere ugariagoak izan dira alemanez, 10 aldiz guztira, gainerakoetan 5 aldiz desagertu den bitartean, eta katalanez, behin ere ez. Desagerpen horietariko gehienak mojarren begi berdeei erreferentzia egiten zaien kasuetan gertatu dira; horietariko batzuetan, begien koloreari erreferentzia desagertu egin da, eta, beste batzuetan, beste egituraren batez ordeztu, ondoko adibidean agertzen den moduan.

#### 10-74 Taula. Berdea bigarren adibidea

Eus	-Nire etxeko telefonoa doa hor. Konfiantza guztiarekin ematen dizut. Eta konfiantza berbera espero dut zugandik. Eta berorri - <b>begi berdeekiko mojjagana</b> zuzendu zen oso serio- gauza bat esan nahi nioke.
Gazt	-Mi número de teléfono está en la tarjeta. Te lo doy con total confianza, y espero otro tanto de ti. En cuanto a usted -añadió, mirando a la <b>religiosa de los ojos verdes-</b> , me gustaría comentarle una cosa.
Kat	-Aquí hi ha el telèfon de casa meva. Te'l dono amb tota la confiança i també espero confiança per part teva. Pel que fa a vostè -va afegir, mirant a la <b>religiosa dels ulls verds-</b> , li voldria dir una cosa.
Ing	"My home phone number is on the card. I'm giving it to you in complete confidence, and I hope you'll respect that. As for you", he added, looking at the <b>nun with green eyes</b> , "I'd just like to say one thing."
Ale	"Meine Privatnummer steht auch darauf. Ich gebe sie dir, weil ich dir vertraue, und ich erwarte dasselbe von dir. Und was Sie angeht", wandte er sich an die <b>jüngere der Nonnen</b> , "möchte ich Ihnen eines sagen."
It	"Sul biglietto c'è il mio numero di telefono privato. Te lo do con piena fiducia, e mi aspetto altrettanto da te. Quanto a lei", aggiunse, guardando la <b>religiosa con gli occhi verdi</b> , "mi piacerebbe dirle solo una cosa".

Aipatu dugun moduan, eraldaketa gutxi topatu dugu kolore berdearen kasuan. Aurrez aipatu diren errepikapenatariko bat edo beste gehiago topatu dugu, BEBM liburuko ondokoa esaterako.

#### 10-75 Taula. Berdea hirugarren adibidea

Eus	(...) hosto bat aukeratzen nuen zuhaitz batean, hosto <b>berde berdea</b> , udazkenekoa baino gehiago udaberrikoa zirudiena.
Gazt	(...) elegía una hoja en un árbol; una hoja <b>muy verde</b> , que más pareciera primaveral que de otoño.
Kat	(...) escollia una fulla en un arbre; una fulla <b>molt verda</b> , que semblés més primaveral que de tardor.

Gal	(...) elixía unha folla nunha árbore; unha folla <b>moi verde</b> , que máis parecese primaveral que de outono.
Fr	(...) je jetais mon dévolu sur une feuille bien précise, une feuille <b>très verte</b> , plus caractéristique du printemps que de l'automne.
Ale	(...) suchte mir ein bestimmtes Blatt auf einem der umstehenden Bäume aus. Es musste ein <b>hellgrünes Blatt</b> sein, das eher wie ein Frühlingsblatt als wie ein Herbstblatt aussah.
It	(...) sceglievo una foglia da un albero, una foglia <b>molto verde</b> , che sembrasse piú primaverile che autunnale.

Adibide horretan, errepikapenik ez da inolako xede testutan, bai ordea beste egitura mota batzuk, enfatizatailea erabiliz. Alemanerako itzultzaileak, ordea, kolorea zehaztu egin du, eta “berde argia” dela adierazten du.

Egitura aldaketei dagokienez, ZH liburuko ondorengo adibidean itsasoaren berdetasuna mantentzen dela ikusiko dugu, baina egitura guztiz aldatu da xede testuetan.

#### 10-76 Taula. Berdea laugarren adibidea

Eus	(...) baina eguzkia sartutako lekuan zulo bat zeukan, kanoi bala batek murru batean egingo lukeenaren itxurakoa, eta hara begira jarriz gero <b>itsaso berdetsuak</b> ikusten ziren, eta itsaso hartan irla horiak edo portu arraosak (...)
Gazt	(...) sin embargo, en el sitio donde se acababa de poner el sol había <b>una abertura de color verde</b> que parecía un mar y en la que las nubes formaban islas amarillas, puertos rojos, (...)
Kat	(...) però per la banda per on s'havia post el sol hi havia un forat, com el d'una bala de canó que ha esbotzat un mur, i en mirar-lo, hi va veure un <b>color verd que feia pensar en el mar</b> , un mar amb les seves illes grogues, els seus ports rosats (...)
Ing	(...) nevertheless, in the spot where the sun had just set there was a <b>slash of green</b> that looked like the sea and in which the clouds formed yellow islands, red harbours (...)
Ale	Doch dort, wo die Sonne untergegangen ar, gab es eine <b>grünfarbene Öffnung</b> , die wie ein Meer aussah, in dem die Wolken sich zu gelben Inseln, roten Häfen (...)
It	(...) tuttavia, nel punto in cui il sole era appena tramontato c'era una <b>distesa verde</b> che pareva un mare e in cui le nuvole formavano isole gialle, porti rossi (...)

Berdeari dagokion atal hau olerki batekin amaituko dugu. ZH liburuan ageri da eta *berde hutsez* deskribatzen da zelaia, hau da, berdea besterik ez da ageri lur eremu horretan. Gaztelaniaz, ingelesez, alemenez eta italieraz berde soilez ageri da; katalanez, berriz, berde hutsez. *Verd buit* esamoldea ez da egitura oso arrunta katalanez, “buit” horrek, hustasuna baitu bere oinarrian, hau da, ez da euskarazko huts horren guztiz baliokidea.

#### 10-77 Taula. Berdea bosgarren adibidea

Eus	<b>Berde hutseko</b> arloa, / Belarrak hain du zeregin gutxi!
Gazt	Tiene la hierba tan poco que hacer: / una esfera de <b>sencillo verde</b>
Kat	En el <b>verd buit</b> del camp, / tétan poca cosa per fer l'herba!
Ing	The Grass so little has to do - / A Sphere of <b>simple Green</b> -

Ale Das Gras hat so Geringes tu zun - / Ein Reich von schlichtem Grün  
 It L'erba ha così poco da fare: / una sfera di semplice verde

ZH liburuaren katalanezko itzulpenak euskarazko testua izan du oinarri. Itzultzaileak, ordea, jatorrizkoa ez du erabat ongi interpretatu, eta, agian, euskaraz gaitasun nahikorik eza izan liteke interpretazio-arazo horren muina. Zeharkako itzulpenetan gaztelaniazkoaren bitartekaritzak jatorrizkoa xede irakurleari helaraztea oztopa dezakeen modu berean, jatorrizko hizkuntza guztiz ez menderatzea arazoa izan daiteke zuzeneko itzulpenetan. Halako kasuek esplika dezakete zergatik Atxagak eskatzen duen gaztelaniazko bertsioa itzultzeko. Itzultzaileen profesionalizazio falta edo zuzenean itzultzeko nahikoa mailarik ez dagoela pentsatzea izan daitezke argudio posibleak Atxagak dioena ulertzeko. Dena den, hemen aurkezturikoa adibide bakarra dugu eta ezin dugu fenomeno hori orokortu, baina zantzuren bat eman diezaguke eztabaida hori hobeto ulertzeko.

#### 10.2.2.5.6 Urdina

Urdina dugu sakonki aztertuko dugun bosgarren eta azken kolorea. Preciadok dioen moduan, zuria, beltza eta gorriaren atzetik laugarren kolorea dugu urdina, baina “oso bigarren mailakoa besteekiko” (Preciado, 1995a: 7).

Aurrez aipatu dugun moduan, urdinak bi adiera ezberdin har ditzake, usuario zaharraren arabera ala zentzu moderno batean, kolore definitu modura. Usuario zaharrarekin loturiko adieren artean, gogora dezagun kolore nahasia izan dela. Ilea, esaterako, urdinu egiten da euskaraz, guztiz zuritu aurretik. “Gisa berean, zernahi gauza lizuntzen, usteltzen, hondatzen eta galtzen hasia denean ere, urdinaren semantika erabili izan da euskal usuarioan” (Perurena, 1992: 164). Kolore definitu modura, berriz, *blu* edo *azula*-ren parekoa genuke.


Gure corpusari dagokionez, ez dugu adibide bat bera ere aurkitu usuario zaharraren araberrakorik. Beraz, hemen ikusiko ditugun adibide guztiak zentzu modernoari lotuko zaizkio.

Urdina 93 aldiz topatu dugu guztira gure corpusean: ZH liburuan agertzen da gehien, 24 aldiz; BA liburuan, jarraian, 15 kasurekin, eta SIG eta SS liburuetan, ondoren, 14 kasurekin.

Kolokazio nabarmenik ez dugu topatu kolore honen kasuan, eta inongo liburutan ere ez du agerpen kopuru nabarmenik. Hainbatetan, zeruaren nolakotasuna deskribatzeko erabili izan du autoreak urdin kolorea.

Itzulpen estrategiei dagokienez, aztertu ditugun gainerako koloreekin alderatuz gero, eraldaketa kopurua proportzioan handiagoa dela ikusiko dugu urdinaren kasuan. Gaztelaniaz, katalanez, frantsesez, ingelesez eta italieraz %25 ingurukoa da; galegoz, berriz, dezente gutxiagokoa (%14,28koa) eta, alemanez altuagoa, %30,50koa. Gainerakoetan bezala, kolorea mantentzea

izan da gehien erabili den estrategia. Bertsio ia guztietan kasuen erdia osatzen dute, gutxi gorabehera; galegoz, ordea, bi herenetik gora. Desagerpen gehiago ageri da zenbaitetan, gaztelaniaz, katalanez edo italieraz esaterako, eta ez, hainbeste, galegoz edo alemanez. Alemanaren kasuan, gainera, ezabaketak eraldaketak baino dezente urriagoak izan dira (18 eraldaketa eta 9 ezabaketa egon baitira).



10-12 Figura. Urdina xede hizkuntzetan

Hizkuntzen arteko aldeak azaltzeko liburuz liburuko azterketa egin beharra dago. STX liburuan lau aldiz ageri da urdin kolorea. Gaztelaniaz, katalanezko lehenengo itzulpenean eta italieraz, 3 aldiz desagertu egin da, eta behin, eraldatu. Galegozko eta ingelesezko bigarren itzulpenean, mantendu egin da urdin kolorea lau kasuetan. Ingeleseko argitaratu gabeko bertsioan ere, 3 aldiz mantendu da, eta behin, ezabatu. Katalanezko bigarren itzulpenean, berriz, bi aldiz desagertu da, behin eraldatu eta beste behin mantendu. Ikus dezakegun bezala, galegozko eta ingelesezko bertsioek nahiko gertutik eutsi diote euskarazkoari; katalanezko bigarren itzulpenak berriz, sortzaileagoa ematen du, edo, hobe esanda, bi bertsioetatik edan duela agerian uzten du datu horrek.

BA liburuaren kasuan, euskaraz 19 aldiz ageri da kolorea eta xede hizkuntzetan 8-10 aldiz soilik. Horrek zera esan nahi du, itzulpen guztietan nabarmentzekoa dela ezabaketak duen pisua: urdina 9 kasutan ezabatu da, bost aldiz nolabaiteko eraldaketa jasan du eta behin soilik mantendu da.

BEEM liburuaren itzulpen ia guztietan, hiru strategiak bina aldiz erabili dira. Alemanezkoan, berriz, lau aldiz ageri da itzulpen lingustikoa, eta behin eraldaketa. Italieraz, aldiz, behin soilik mantendu da, eta hiru eraldaketa izan dira.

ZHren kasuan –urdina gehien ageri den liburuan– kolorea mantentzea izan da ohikoena, 16-17 aldiz, nahiz eta eraldaketek ere bere pisua izan




duen, 6-7 aldiz agertzen baitira. Eraldaketa horiek guztiak, egitura aldaketak izan dira, eta ez tonalitate edo enfatizazio mailari dagozkionak.

SIG liburuaren kasua aipagarria iruditu zaigu: kolorea kasu guztietan mantendu da, behin soilik jasan du eraldaketa bat, frantsesez. Aurrez ere aipatu dugu gainerako koloreen kasuan estrategia hori izan dela horietan ere erabiliena. Hizkuntzaz hizkuntza begiratuko bagenu kolorearen presentzia, frantsesezkoan gainerakoetan baino gehiago erabili dela ohartuko gara: 29 aldiz ageri da, gainerako guztietan 13-15 aldiz soilik ageri den bitartean. Itzulpenaren izaera sortzailea dela, uste dugu, horretarako arrazoi nagusia.

SS liburuan ere, urdina 15 aldiz ageri da euskaraz; gainerako hizkuntzetan, berriz, 10-11 aldiz.

Eraldaketa motei erreparatuz gero, egiturazkoak direla nagusi ikusiko dugu. Aipatu berri dugun moduan, ZH liburuan bere presentzia oso nabarmena da.



10-13 Figura. Urdina eraldaketa motak

Jarraian, ZH liburuko egitura aldaketa bat emango dugu. Bertan zeruaren *urdintasuna* xede hizkuntza guztietan “uridin koloreko orban” bihurtu da.

#### 10-78 Taula. Urdina lehenengo adibidea

Eus	Zeruaren geruza grisa mehetuz zihoan, eta <i>urdintasuna</i> leku askotan igarri zitekeen.
Gazt	La capa gris del cielo iba haciéndose más delgada, y <b>las manchas de color azul</b> empezaban a ser numerosas, sobre todo en los extremos, en la lejanía.
Kat	A fora, la capa grisa del cel s’anava fent cada cop més prima, i <b>les taques de color blau</b> començaven a ser més nombroses, sobretot en la llunyania.
Ing	The grey covering the sky was becoming thinner and there were more and more <b>patches of blue</b> , especially along the edges, in the distance.
Ale	Die graue Wolkenschicht wurde dünner und <b>die blauen Flecken</b> am Himmel zahlreicher, vor allem in der Ferne, an den Rändern der Wolkendecke.
It	La cappa grigia del cielo andava assottigliandosi, e <b>le macchie azzurre</b> cominciavano a essere numerose, soprattutto alle estremità, in lontananza.

Katalanezko egitura, esaldi honetan, gaztelaniazkoaren parekoa da, nahiz eta, liburu bereko beste hainbat kasutan, egitura euskarazkotik gertuago ikusi izan dugun. Nahiz eta orain arteko adibide gehientsuenek pentsarazi diguten itzultzaileak euskarazkoa izan duela jatorrizko nagusi, zalantza hor geratzen da; bi jatorrizko erabili diren edo bakarra. Ezin dugu zehatz esan zenbateraino erabili den bat eta zenbateraino bestea. Horretarako, berariazko analisi bat egin beharko baikenuke.

Beste eraldaketa mota bat egiturazkoa eta tonalitateari dagokiona guztiak batean biltzea izan daiteke. Hona hemen, SS liburutik harturiko adibide bat:

#### 10-79 Taula. Urdina bigarren adibidea

Eus	Bere begiak urdinak eta zurixkak ziren aldi berean. Nekea antzematen zen haietan ere.
Gazt	Sus ojos eran azules, muy pálidos. También en ellos se percebia cansancio.
Kat	Tenia els ulls blaus, molt pàl·lids. També s'hi deixava veure el cansament.
Gal	Os seus ollos eran azuis, moi pálidos. Tamén neles se percibía cansazo.
Fr	Il avait des yeux bleus très pâles. En eux aussi, on percevait de la fatigue.
Ing	His eyes were a very pale blue. They seemed weary too.
Ale	I suoi occhi erano azzurri, molto pallidi. Anche in essi si percepiva la stanchezza.
It	Er hatte blaue, sehr blasse Augen. Auch in ihnen lag Müdigkeit.

Aurreko adibide horrek, beste behin ere, gaztelaniazko bertsioaren sorkuntzarako joera erakusten du, eta gainerako bertsioek erabili duten jatorrizkoarekiko –gaztelaniazkoa, kasu honetan– hurbiltasuna.

Kolorearen enfatizazio mailaren aldaketa ere ageri da urdin koloreari dagokionez, eta BA liburutik harturiko hurrengo dugu horren adibide:

#### 10-80 Taula. Urdina hirugarren adibidea

Eus	Bera ailegatu zenean koloretako zintak prestatzen ari ziren: bi besoren luzerakoak, gorriak, urdinak, horiak, herriko festetarako pentsatuta zeuden zinta haiek alegantzia handia ematen zioten berez ilun xamarra zen salari.
Gazt	A la llegada de Paulo, las chicas estaban preparando docenas de cintas de adorno, anchas como una mano y de colores muy chillones, muy rojas, o muy azules, o muy amarillas. (...)
Kat	Quan Paulo va arribar, les noies estaven preparant dotzenes de cintes, amples com la mà i de colors cridaneres, molt vermelles, o molt blaves, o molt grogues. (...)
Fr	Au moment où Paulo arriva, elles étaient en train de confectionner des rubans par douzaines, larges comme la main et aux couleurs très criardes, très rouges ou très bleus, ou très jaunes. (...)
Ing	When Paulo arrived, the girls were preparing dozens of decorative ribbons, as broad as a hand and in very garish colours, bright reds and blues and yellows. (...)
It	All'arrivo di Paulo, le ragazze stavano preparando dozzine di nastri colorati, larghi come una mano e dai colori sgargianti, molto rossi o molto blu, o molto gialli. (...)

Aurreko adibide horretan, koloreak inolako bereizmenik gabe agertzen dira euskarazkoan, eta, xede hizkuntza guztietan, kolore horiek bizi-biziak dira. Hemen ere, gaztelaniaz gehituriko ñabardura horiek igaro dira gainerako hizkuntzetara.

Orain arte erakutsi ditugun hainbat adibidetan ikusi ahal izan dugun moduan, gaztelaniazko testuek koloreen ñabardura puzteko joera ageri dute; zenbaitetan maila jasoagoz emanez euskaraz zegoena; beste batzuetan, ñabardura edo tonalitatea eraldatuz edo zehaztuz, aurreko adibide horretan ageri den moduan.

Aldaketarik nabarmenenak egitura edo enfatizazio maila baino haratago doazen kolore aldaketak izango genituzke. SS liburuan agertzen den hurrengo esaldian, zeruaren *urdintasun aratza*-k “arrosa koloreko itxura” hartu du.

#### 10-81 Taula. Urdina laugarren adibidea

Eus	Uda beteko arratsa egiten zuen egun hartan ere. Haran gaineko zeruak <b>urdintasun aratza</b> zeukan. Eguzkia Lemon Valleyrantz zihoan poliki.
Gazt	Miré hacia el valle: los viñedos estaban sombríos; el cielo tenía un <b>color rosáceo</b> , el sol acababa de ocultarse tras las colinas.
Kat	Vaig mirar cap a la vall: les vinyes estaven en ombra; el cel tenia un <b>color rosat</b> , el sol s'acabava d'amagar rere els turons.
Gal	Mirei cara ao val: as viñas estaban sombrías; o ceo tiña unha <b>cor rosácea</b> , o sol esvaeceira tràs os outeiros.
Fr	Je regardei la vallée: les vignobles étaient noirs, la ciel <b>rosé</b> ; le soleil venait de se cacher derrière les collines.
Ing	I looked across at the valley: the vineyards were in darkness; the sky was <b>rose-pink</b> , the sun had just slipped behind the hills.
Ale	Die Weinberge lagen im Schatten; der Himmel war <b>rosarot gefärbt</b> , die Sonne hatte sich gerade hinter den Hügeln versteckt.
It	Guardai verso la valle: i vigneti erano all'ombra; il cielo aveva un <b>colore rosaceo</b> ; il sole si era nascosto dietro le colline.

Aurrez aipatu dugun moduan, Atxagaren lanean zeruaren koloreari erreferentzia ugari egiten zaio; urdin koloreaz gain, beste hainbat kolorerekin ere, izan gorri, arrosa, hori, beltz, eta beste. Kasu honetan, urdina zena, arrosa bilakatu da.

Ezin dugu zehatz-mehatz jakin zergatik erabaki duten autoreak eta itzultzaileak halako tonalitate aldaketa bat egitea testuan. Argi esan dezakeguna da halako kasuak kolaborazioaren emaitza direla: autorea, itzultzailearekin elkarlanean, erabaki horren atzean egon dela nabarmena da, beste itzultzailearen batek ez bailuke halako erabakirik hartzeko eskumenik izango.

#### 10.2.2.6 Ondorioak

Koloreei buruzko azterketa egin ondoren, hainbat ondorio emango ditugu jarraian. Lehenengo eta behin, Wordsmithen Concord aplikazioa erabiliz

eginiko bilaketa orokorrean, argi samar ikusi dugu bilaketa bera egitea nahiko zaila suertatu dela. Koloreen erroak beste hainbat hitzen erro bera izateak arazoak eman dizkigu, eta, ondorioz, zarata espero baino handiagoa izan da zenbaitetan. Anbiguotasuna sortzen duen hitzik ere bada kolore izenen artean, eta horiek ere ezin izan ditugu banatuta sailkatu. Emaizta ahalik eta fidagarrienak izateko, beharrezkoa litzateke corpuseko testuak lematizatzea. Hala ere, aurrez aipatu dugun moduan, sarean kontsultatu ditugun corpusen lematizatze prozesuaren emaitza ez da oraingoz guztiz fidagarria.

Emaizta orokor horietan ikusi dugunez, corpusean gehien agertzen diren koloreak Euskararen Corpus Erreferentzian agertzen diren lehen bost<sup>339</sup> koloreen parekoak dira, hurrenkera zertxobait aldatzen bada ere. Horien artean nabarmenenak euskaraz tradizio handiena duten koloreak dira batik bat, zuria, beltza eta gorria, eta, jarraian, urdina eta berdea. Gainerako kolore izenek, arrosa, morea, laranja eta abarrek, tradizio laburra dute gure hizkuntzan, eta beraien presentzia urriagoa da corpusean, eta kromatismoari soilik lotua.

Tradiziozko kolore horien artean, gogora dezagun gorria, zuria eta beltzak nahiko sinbologia zabala dutela gurean, eta kromatismoaz haraindi doala horien erabilera hizkera arruntean. Hori horrela izanik, itzulpenetan koloreak irudikatzen duen zentzua ematea izaten da ohikoena, egin berri dugun azterketak erakutsi digunez. Onargarritasunari begiratu, egokitzapena eskatzen dute kasu horiek eta, oro har, kolorea ez da mantentzen kasu horietan itzulpenetan.

Sakonki aztertu ditugun bost kolore erabilienean azterketak erakutsi digunaren arabera, kolorea mantentzea izan da ohikoena xede hizkuntzetan corpuseko ia liburu guztietan, nahiz eta salbuespen batzuk egon badauden – konparazio batera, BAn ezabaketa izan da nagusi urdina eta beltzaren kasuetan–.

Ezabaketa izan da erabili den bigarren estrategia nagusia, hau da, jatorrizkoan agertzen den kolore hitza itzulpenetan ez agertzea. Hirugarrenik, eraldaketa edo itzulpen sortzailea izan da. Ikusi dugun moduan, hiru motatako aldagetak topatu ditugu: batetik, tonalitate aldageta; bestetik, enfatizazio mailaren aldageta, eta, azkenik, egitura sintaktikoaren aldageta. Estrategia hori ez da inolako liburutuan nagusi izan, nahiz eta zenbait itzulpenetan presentzia nabarmena izan duen: BAn gaztelaniazko bertsioan eta, ondorioz, baita gainerako guztietan, esaterako, urdinaren eta gorriaren kasuetan, eta, ZHren itzulpen guztietan, urdinaren kasuan.

Liburuz liburuko azterketak erakutsi digunez, badira gainerakoak baino sortzaileagoak diren itzulpen batzuk. BAn itzulpenetan beste liburu batzuetan baino presentzia nabarmenagoa dute bai kolorea ezabatzeak eta baita eraldaketak ere. Ez dugu ahaztu behar, gaztelaniarako autoitzulpena jatorrizkoa baino 10 urte beranduago argitaratu zela eta denbora tarte zabal

<sup>339</sup> Horia ez dugu kontuan izan, lematizatu gabe ez digulako datu fidagarririk ematen.

horrek izango duela nolabaiteko eraginik. Bada, bestalde, beste muturrean kokatzen den libururik ere. SIG gazteentzako eleberrian, apenas aurkitu dugu eraldaketarik edo ezabaketarik. Horrek esan nahi du euskarazkoa eta gaztelaniazkoa elkarrengandik nahiko gertu kokatzen direla. Hori sorkuntza eta itzulpen prozesuaren eraginez gertatu dela esan genezake. Gogora dezagun, liburu modura argitaratu aurretik, irrati-nobela bat izan zela euskaraz, eta ondoren atalka argitaratu zela egunkarian gaztelaniaz. Atzetik etorri ziren euskarazko zein gaztelaniazko liburu bertsoiak.

Itzulpen moduari hertsiki lotzen bagatzaizkio, aldeak ere nabaritu ahal izango ditugu zuzeneko eta zeharkako itzulpenen artean. Euskaratik zuzenean eginiko itzulpenetan, kolorea gehiago mantendu izan da bere horretan eta ezabaketak urriagoak izan dira. STX liburuan, esaterako, urdin hitzaren baliokidea 4 aldiz eman da ingelesezko eta galegozko itzulpen zuzenetan eta ez da ezabaketarik egon; ZHren katalanezko itzulpenean ere gorriren baliokidea gainerako hizkuntzetan baino dezente gehiagotan mantendu da. Eraldaketak ere, oro har, gutxiago aurki daitezke itzulpen horietan. BEBM liburuaren alemanezko bertsoian, adibidez, zuri kolore izendapenari dagokion eraldaketa bakarra dago, gainerako bertsoetan 4-5 dauden bitartean. Zeharkako itzulpenei dagokienez, oro har, gaztelaniazko moldaketa kopurutik oso gertu egon ohi dira, eta urriak dira itzulpen sortzaileak, hots, xede itzultzaileek egin dituzten eraldaketak. Esaterako, ZHren gaztelaniazko itzulpenean, zuri izendapena 9tan itzuli da kolore modura, 6 aldiz eraldaketaren bat jasan du eta 7 aldiz ezabatu egin da. Datu horiek berdin-berdinak dira ingelesezko, alemanezko eta italierazko zeharkako itzulpenetan. Itzulpen sortzaileen artean, BEBM liburuaren frantsesezko bertsoia, ZHren alemanezkoa edo SSren italierazkoa aipa daitezke. Kasuren batean itzultzaile konkretu batek onargarritasunerako duen joera izan daiteke horretarako arrazoi. Hala ere, frantseserako itzulpen guztiak itzultzaile berak egin ditu. Hori dela eta, kasu konkretu horretan beste arrazoi batzuk bilatu beharko lirateke. Agian, generoari begiratu beharko genioke: gazteentzako eleberria izanik, baliteke irakurleko horri begira moldaketak onargarriagozat jotzea, helduentzako literaturan baino.

Autoitzulpena, kolaborazioa edo beste batek itzuliriko liburuen arteko aldeak nabarmentzea ez da oso kontu erraza. Autoitzulpenetan, BA eta OBB liburuetan esaterako, moldaketa ugari egin da, proportzioan, ezabaketa kopurua nabarmen handiagoa baita. Dena dela, autoitzulpen horien errealitatea ez da beste hainbat libururen itzulpenaren parekoa: lehenengoan jatorrizkoaren eta xede testuaren arteko denbora tartea oso handia izan baitzen, eta, bigarrean, egoera oso berezian eginiko autoitzulpena izan baitzen, Espainiako Sari Nazionala tarteko. Bestalde, SIG ere autoitzulpena izanagatik, moldaketa gutxien jasan duten liburuetakoa dugu aipatu berri dugun moduan. Horretan ere sorkuntza prozesuak eragina izango du: euskaraz eta gaztelaniaz hainbat bertso izan baitzituen liburu formatuan argitaratu aurretik. Beraz, ikus dezakegunez, autoitzulpen guztiak ezin dira maila berean jarri. Oro har, ez dugu alde nabarmenik topatu kolaborazioa eta beste

itzultzaile batek eginiko itzulpenen artean. Beste itzultzaile batek eginiko itzulpenetan ere, idazlea beti izan denez itzulpen prozesuaren zati, nolabait, ez da hain erraza batetik besterako aldea nabarmentzea. Hala ere, bada eraldaketa gehiago nabari daitekeen libururik, beste batzuen aldean. Esaterako ZHren gaztelaniazko itzulpena nahiko sortzailea iruditu zaigu; kolore izendapenak sarritan ezabatu edo eraldatu baititu. Gorria esaterako, 16 aldiz ezabatu da (%26,22tan), eta urdina 6 aldiz eraldatu (%25etan). *Soinujolearen semea* liburuan ere moldaketak nahiko nabarmenak izan dira: urdina 14 kasutatik 4tan eraldatu da eta 3tan desagertu; zuria, berriz, 12tik 3tan eraldatu eta 5 bider ezabatu. GBBn ere koloreak hainbatetan ezabatu dira (gorria 4 aldiz eta zuria 3tan, kasu), eta eraldaketak ere bere pisua du urdinaren kasuan esaterako, 10 kasutatik 4tan ageri baita. Azken bi liburuak kolaborazioan eginak izan dira eta horietan ere, autorea eta itzultzailearen arteko elkarlan horretan autorearen beraren erabakimena igar daiteke. BLUri dagokionez, bestalde, gure datuen arabera, autorea ez den beste itzultzaile batek egin, koloreen inguruko kasuak aztertuta, esan genezake ez dela nabari aldaketa handiegirik, zuriaren kasuan soilik adierazgarriena, 3 aldiz ezabatu baita 14 kasutatik. Araua, kasu honetan, beraz, kolore izendapenak mantentzea izan dela esango genuke, nahiz eta ezin dugun esan hori itzultzaileari loturiko ondorioa den edo liburuaren generoak zerikusirik izan dezakeen. Xolaren bi liburuetan ere, joera antzekoa dela esango genuke, nahiz eta liburu horietan koloreen agerpena oso urria den. XB liburuan, baina, eraldaketarik izan da beltza, berdea eta urdinaren kasuan. Azkenik BLren eta STXren itzulpenak nahiko sortzaileak direla esan beharko genuke. Gogora dezagun bi liburu horien kasuan peritestuen eta epitestuen azterketak ez digutela guztiz argitu itzultzailea nor izan den. Bi liburuon gaztelaniaratzeari, gogora dezagun, jatorrizkoak argitaratu eta sei urte beranduago egin zen, *Obabakoak* liburuaren arrakastaren karietara. BL liburuan, esaterako, gorria 5etik 4tan ezabatu egin da eta zuria ere bai agertzen den bi aldietan; beltza agertzen den kasuen %30,47tan ere desagertu egin da. STXri dagokionez, zuria 3 aldiz eraldatu eta 2 aldiz ezabatu da, urdina ere 3tan ezabatu eta behin eraldatu, eta beltza agertzen den bi kasuetan eraldatu.

Oro har, gaztelaniarako itzulpenak eta gainerako hizkuntzetarakoak ezin dira zaku berean sartu. Gaztelaniazkoetan, autorea beti dago presente, maila sakonagoan edo azalekoagoan, baina guztietan ere bere erabakimena nabari daitekeela esango genuke. Kolore hitzen kasuan, esaterako, ñabardurak gehitzeko joera igarri dugu azterketa honetan, maila jasoagoa emanez bigarren testuari sarritan. Horren atzean, testuaren literariotasuna mantentzeko asmoa izango genuke arrazoi posible bat. Gainerako hizkuntzetarako itzultzaileek, berriz, ez dute bertsio horiekin zerikusirik. Euren lanaren emaitzak neutroagoak izan ohi dira, subjektibitate gutxiagorekin eginak, nahiz eta tarteka itzulpen sortzaile samarrak ere topatu ahal diren. Horrexegatik, bai euskaratik zuzenean eginiko itzulpen alografoak eta bai gaztelaniatik zeharka eginikoak nahiko zintzo lotzen zaizkio erabili

duen testuari, moldaketa gutxiago eginez eta eginiko moldaketak askoz ere txikiagoak izanik, oro har.

Azken iruzkin bat ere egin nahi genuke katalanerako itzulpenen inguruan, Hernández itzultzaileak eginikoetan. Gogora dezagun, itzultzaile horrek jatorrizko konpilatua erabili izan duela bere itzulpenean, hots, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa, eta nahiko zaila suertatzen dela zehatz-mehatz jakitea zein izan den bere iturri nagusia. Izen propioen azterketan ikusiriko emaitzen arabera, euskal izenak jatorrizko grafiaren arabera ematea izan du arau eta, honenbestez, nahiko zaila suertatzen da jakiten zein izan duen iturri nagusi. Koloreen azterketak erakutsi digunez, oro har, ia kasu guztietan gaztelaniazko bertsiotik gertuago kokatu ohi dira bere lanak euskarazkotik baino. Hala ere, ZH liburuaren itzulpena euskaratik egin izan den itxura dauka, koloreen azterketak erakutsi digunez. Itzultzaile honen lan egiteko moduaren azterketa xehea egitea interesgarria litzateke ikusteko zein mailatan kokatzen den jatorrizko bakoitza azken emaitzan.

### 10.2.3 Giza++ programarekin proba

Aurrez aipatu dugun moduan, garrantzitsua iruditzen zaigu corpusen ustiaketa ahalik eta osatuena izan dadin, tresna ezberdinak erabiltzea, ikuspegi ahalik eta zabalena lortze aldera. Tesi honetan nagusiki Wordsmith programa erabili badugu ere, Giza++ ere erabili dugu, nahiz eta corpuseko testu pare batean soilik izan, proba modura.

Aurrez esan bezala, *Soinujolearen semea* liburuaren euskarazko eta gaztelaniazko testuak alderatu ditugu. Giza++ programak 1.962 hitz pare eman dizkigu gaztelania-euskara norabidean. Jarraian, parekatze horretan lorturiko hainbat emaitza aurkeztuko ditugu. Gogora dezagun, halaber, azterketa honen helburu nagusia orain arteko ikerketaren ikuspegi osagarria eskaintzea izango dela, itzulpen mota ezberdinen arteko aldeetan eta testuen artean dagoen harremanean sakontzeko.

Aipatzekoa da, hizkuntza bien egitura ezberdina dela eta, 1:1 baliokidetasuna oso zaila izan ohi dela. Hori dela eta, lorturiko emaitza ere ez da eskema horretara mugatzen, “años” eta “urte” hitzekin gertatzen den moduan. Bi horiek baliokideak izan badira, baina lehenengoa pluralean dago, eta besteak ez darama zenbaki markarik. Bestalde, “casa” eta “etxean” ere lerrokaturik ematen ditu programak, nahiz eta bigarrena gaztelaniazko bi hitzen baturaz osatzen den (en + casa).

Badira baliokidetasun partziala erakusten duten beste hainbat kasu ere, hitzaren zentzua erdizka soilik jasotzen diren kasuak; esaterako, gaztelaniaz “señoras” euskarazko “jaun-andreak” hitzaren baliokide modura ematen da, edo “tarta” eta “franbuesa-tarta”, edo “larga” eta “luzeegia”.

Euskaratik gaztelaniara egon den itzulpen sortzailea ere hitzez hitzeko lerrokatze maila honetan nabari daiteke. Esaterako, “catorce” “hamairu”-ren baliokide modura ematen digu Giza++ek. Dagokion testuinguruan ikusiz gero, itzultzaileak eginiko moldaketari dagokiola ohartuko gara: “bostak eta

hamairu minutu” esaten da euskaraz, eta “las cinco y catorce minutos de la tarde”, gaztelaniaz. Berdina gertatzen da ondorengo esaldian ere: euskaraz, “justu minutu haiek falta ziren zazpietarako”, eta, gaztelaniaz, “los minutos que faltaban para las seis de la tarde”. Kasu horretan, “seis” hitza “zazpietarako”-rekin parekatuz ageri da. Beste kasu batean “doce” “hamaika”-ren baliokidetzat ematen da eta jatorrizko esaldiak erakusten du itzultzaileak eginiko moldaketa: euskaraz, “hamar edo hamaika urte izango zituen orduan” ageri den tokian, gaztelaniaz, “en aquella época debía de tener once o doce años” ageri baita. Zenbakiez gain, badira beste mota batzuetako zenbait moldaketa ere, ondorengo adibidean ikus daitezkeen moduan. Euskaraz, “Mary Annek eta biok elkar ezagutu genuen eguneko eguraldia egiten zuen, lanbrotsua” esaten denean, gaztelaniaz, “Hacia un tiempo lluvioso, igual que el día de mi primer encuentro con Mary Ann” esaten baita. Hau da, Giza++ek gaztelaniazko *lluvioso* euskarazko *lanbrotsu*-ren pareko ematen digu.

Giza++ programak agerian utzi du, bestalde, *Soinujolearen semea* liburuan nabarmentzen den fenomeno bat; eleaniztasunarena. Euskarazko testuan ohikoa da esaldiren bat edo hitz solte batzuk beste hizkuntzaren batean ematea. Egia esateko, Bernardo Atxagaren lanen artean nahiko ohikoa izaten da hori. Adibideak ugariak dira: *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* liburuan, ingelesezko hitzak ageri dira; *Behi euskaldun baten memoriak* liburuan, frantsesezkoak; *Gizona bere bakardadean* eleberrian, katalanezkoak; eta abar. *Soinujolearen semea* liburuan, ingelesez zein gaztelaniaz ageri zaizkigu hitzak. Hitzez hitz egin dugun parekatzean, hiru hizkuntzetan ageri dira hitzak, bai euskaraz eta bai gaztelaniazko testuan ere, eta hitz pareak konbinaketa posible gehienetan ageri dira.

10-82 Taula. SSn Giza++ekin eginiko azterketan ageri diren hizkuntza konbinaketa posibleak

EUSKARAZKOAN	GAZTELANIAZKOAN	ADIBIDEA
Eus	Eus	abeletxe - abeletxe
Eus	Gazt	argitaletxe - editorial
Eus	Ing	laguntzarik - help
Gazt	Gazt	Culpable - culpable
Gazt	Ing	
Gazt	Eus	
Ing	Eus	
Ing	Gazt	contradiction - contradices
Ing	ing	maybe - maybe

Kasu gehientsuenetan, euskaraz ageri da jatorrizkoa, eta gaztelaniaz gaztelaniazkoa, baina beste kasuak ere esanguratsuak izan daitezke.



Jarraian, tesian espezifikoki landu ditugun kolore zein izen bereziei dagokien azterketa egingo dugu, aurreko ataletan lorturiko emaitzak osatze aldera.

### 10.2.3.1 Koloreen azterketa

Koloreei dagokienez, 16 kasu zenbatu ditugu guztira. Horietarik 14 kasutan bi hizkuntzetako hitzak ez dira hiztegietan topatuko genituzkeen itzulpenez ageri. Giza++ek, esaterako, honelako hitz-bikoteak osatu ditu: “belarjanean” eta “verde”, “gorriztak” eta “llenaban”, “piztuta” eta “gris”, “piztuta” eta “blanquecinas”, “aratza” eta “rosáceo”. Beste lau kasutan, kolore beraren lerrokatzea eskaini digu: “urdin” eta “azul”, “gorriak” eta “rojos”, “gorrian” eta “rojo”, “roja” eta “roja”. Azken kasu batean, baliokidetzat partziala topatu dugu: “zurixkak” “pálidos”-ekin parekatu du softwareak. Kasu horretan, itzultzaileak “zurixka” esateko “pálido” hitza erabili du, eta horregatik lotu ditu programak.

### 10.2.3.2 Izen propioen azterketa

Izen berezien azterketa ere egin dugu. Kasu honetan, kontuan izan behar da izen konposatuak banatu egiten dituela Giza++ek, zerrenda hitz soilka egiten baitu. Kasu horietan, hitz konposatu bakoitzari dagokion izen erdia beste izen erdiarekin lot dezake programak. Esaterako, San Frantzisko ematen den tokian euskarazko Frantzisko gaztelaniazko San-ekin lerrokatu du.

Gainerakoan, izen propioen azterketan aipatzen genuen moduan, sarritan izen propioa edo berezia den ezin izaten dugu jakin testuinguruari begiratu gabe. Hortaz, zalantzazko kasuak ez ditugu zenbatu.

Izen propioei dagokienez guztira 126 kasu topatu ditugu. Horietatik 70 kasutan programak ez du izen berezia xede hizkuntzakoarekin lotu, baina beste 56 kasutan bai.

### 10.2.3.3 Ondorioak

IXA taldearen eskutik erabili dugun Giza++ programa azterketa testuala egiteko gehigarri modura erabili nahi izan dugu. Corpusetan bilduriko testuak ustiatzeko beste aukera bat eskaintzen digu tresna honek, eta zer nolako emaitzak lortu ahal ditugun jakin nahi izan dugu. Testu masa oso mugatua erabili dugu gure corpus osoarekin alderaturik, programa frogatzen modura erabili baitugu.

Lortutako emaitzetan testu motak eragina izan du: testu literarioak izanik, sorkuntza maila handi samarra izaten da itzulpenean, eta hala erakutsi dute emandako adibideek ere. Ikusi dugun moduan, programak eskaini digun parekatze automatikoak euskaratik gaztelaniarako itzulpenaren izaera sortzailea nabarmendu du beste behin; gogora dezagun autorea eta itzultzailearen elkarlanaren ondorio izan dela itzulpena.

Bestalde, lortutako emaitzetan ikusi ahal izan dugun moduan, tesi honetan nahiko gaisetaz aztertu dugun eleaniztasunaren erabilera ikergai oso interesgarria izan daiteke etorkizuneko proiektuetarako.

Ikusitakoaren arabera, tresna mota ezberdinen erabilera oso positiboa iruditzen zaigu corpusen ustiatetan sakontzeko. Giza++ek beste emaitza batzuk emango dituela iruditzen zaigu beste testu mota batzuen itzulpenean. Izan ere, testu literarioen itzulpenean sorkuntza maila handiagoa egon baitaiteke beste alor batzuetan baino. Gainera, kontuan izan behar dugu kolaborazioan eginiko itzulpena dela aztertu duguna, eta aurreko azterketa espezifikoaren arabera, moldaketa nabarmenak jasotzen dira bertan.

### 10.3 BEHIN BETIKO ITZULPEN MOTEN TAULA

Touryren kiribil itxurako ikerketa gogoan hartuz, berriro ere itzulpen moten inguruko taulara itzuliko gara, azterketa mikrotestualak egin eta hor lortutako emaitzak kontuan hartu ondoren zein itxura duen ikusteko.

10-83 Taula. Behin betiko itzulpen moten taula

	Eus	gazt	kat	Gal	Fr	ing	Ale	it
1	BL	Kol	Zeh / Biak	Zeh	Zeh	zuz		Zeh
2	STX	Kol	Zeh / Biak	Zuz		Zuz / (zuz)		Zeh
3	BA	Auto	Biak		Zeh	Zeh		Zeh
4	OBB	Auto	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh
5	BEBM	Kol	Zeh	Zeh	Zeh		Zuz	Zeh
6	GBB	Kol	Biak		Zeh	Zeh	Zeh	Zeh
7	ZH	Auto / Kol	Biak			Zeh	Zeh	Zeh
8	XL	Auto	Zeh		Zeh		Zeh	Zeh
9	XB	Auto	Zeh		Zeh		Zeh	
10	SIG	Auto	Zeh	Zeh	Zeh			Zeh
11	BLU	Kol	Zeh				Zeh	Zeh
12	SS	Kol	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh	Zeh
	Guztira	5 Auto 6 Kol 1 ED	9 Zeh 5 Biak	5 Zeh 1 Zuz	9 Zeh	2 Zuz (+1 Zuz) 5 Zeh	1 Zuz 7 Zeh	11 Zeh

Azterketa mikrotestuala egin ostean, makroegituren azterketaren ostean genuen taula osatu ahal izan dugu. Ikus daitekeenez, gaztelaniaz ez daukagu itzulpen alografo pururik, nahiz eta aurrez hala aurkezturiko lanak geneuzkan sailkatuta (BLU) eda zalantzazko modura markatuta (BL, STX, BEBM eta ZH). Bestalde, katalanezko lanetan, paratestuek euskarazkoa erabili izana

iradokitzen zuten kasurik gehienetan, jatorrizko izenburu modura euskarazkoa agertuz. Hor ikusi da, kasurik gehienetan zeharkakoak izan direla eta beste zenbaitzuetan bi bertsioak erabili direla. Galegoari dagokionez ere, zalantzazko kasu nabarmen bat geneukan, STXren itzulpena, ez baitzuen jatorrizko izenbururik azaltzen: zuzenean itzuliriko lana dela ikusi ahal izan dugu. Italicieraz ere, 7 zalantzazko kasu geneuzkan epitesten ostean, horietarik seik zeharkakoak izateko zantzuak erakusten zituzten eta beste batek zuzeneko zela pentsarazten zigun. Azterketa mikrotestualak erakutsi digunez, guztiak ere zeharkako itzulpenak izan dira. Frantsesez, ingelesez eta alemanez, aurrez geneuzkan datuak berretsi egin ditugu azterketa mikrotestualaren bitartez.

Orain arteko datu guztiak ikusirik, gaztelaniarako eta gainerako hizkuntzetarako itzulpenen artean dagoen aldea nabarmenduko genuke. Tesi guztian zehar errepikatu dugu euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen arteko harreman estua ezin dela gainerako hizkuntzekiko harremanarekin parekatu. Jakina da kasu guztietan autorea beti izan dela itzulpen prozesuaren atzean, beraz, inongo kasutan ez da itzulpen alografo pururik izan. Kolaborazioa edo autoitzulpena den ezin izan dugu guztiz argi zehaztu kasu denetan. Beraz, hemen aurkezten ditugun datuak har bitez erreferentzia modura, kolaborazioaren muga lausoak kontuan izanik beti ere.

Gainerako itzulpenen kasuan mapa nahiko garbi erakus daiteke: zeharkako itzulpenak askoz ere ugariagoak dira, hasiera-hasieratik uste genuen moduan. Zuzeneko itzulpenak urriak dira horien aldean: BL ingelesez, STX galegoz eta ingelesez eta BEBM alemanez. Lau horietatik hirutan paratestuek aitortu bazuten ere euskaratik itzulpena, galegozkoak ez zuen zehaztu nondik itzulia izan den. Ez dugu uste kasualitatea denik galegozkoa izan izana, lau horietatik bakarra *komunitate interliterario espezifikoko* beraren barrukoa, jatorrizkoa zein den zehaztu ez duena. Katalanaren kasuan, bestalde, Hernández itzultzaileak bi jatorrizkoak erabili ditu bere itzulpenetan: hainbat kasutan, xede testua gaztelaniazkoetik gertuago nabari daiteke (Baren itzulpenean, kasu); beste batzuetan, euskarazkoetik askoz ere gertuago (ZHren kasuan). Hori horrela izanik, bere lanaren azterketa xehea egin beharko litzateke jatorrizko konpilatuaren erabileraren inguruko – *traducción supeditada*, Dasilvaren hitzetan (2011)– ikerketa lan bat gauzatu eta ikusteko jatorrizko bi testuetatik zeinek duen pisu handiagoa eta zergatik.

11

# 11

## ondorio orokorrak

---

Honako ikerketa-lan honen oinarri nagusia euskaratik eginiko itzulpenen azterketa izan da. Katalogazio lanak azken 20 urteetan sendotu den kultur fenomeno gazte baten berri eman digu. Berehala ohartu ginen euskal literaturak bide ezberdinak hartzen zituela itzulpenetan (autoitzulpena, kolaborazioa, itzulpen zuzena edo zeharkakoa) eta oinarrizko hipotesi bat plazaratzen zuen horrek: itzulpen mota ezberdinek euren marka utzi zezaketela xede testuetan. Bestalde, katalogoaren azterketaren bitartez euskaratiko itzulpenetan hizkuntzen arteko desoreka dagoela nabarmen ikusi dugu. Are nabarmenagoa da desoreka hori estatuko hizkuntzak eta estatutik kanpoko hizkuntzak alderatuz gero. Gaztelaniara eginiko itzulpenek produkzio osoaren ia erdia hartzen dute eta, beraz, sistema horrenganako menpekotasuna dagoela iradokitzen digu horrek. Gaztelaniara egiten diren itzulpenen kasuan, gainera, ezin dugu gainerako hizkuntzekin egiten den modu berean, “esportazio”-ari buruz hitz egin, jatorrizko lurraldearen barruan ere koka baitaiteke xede irakurlea.

Autoreei dagokienez, euskal sistema nahiko desorekatua da kanporatzeko bidea ikusirik. Atxagaren lanen itzulpenak hautatu ditugu aztergai lehen urrats honetan, hor topa daitekeelako itzulpen errealitate oparo eta anitzena. Hala ere, Atxagaren eta gainerako idazleen arteko aldea nabarmena da. Horrek euskal literaturaren barne eta kanpo irudien arteko desoreka bat

islatzen du. Adibidez, ia-ia Atxaga soilik dago eskuragarri beste hainbat hizkuntzatan.

Bestalde, zailtasunak nabaritu ditugu katalogo mailan itzulpen mota kasuz kasu identifikatzeko, gaztelaniaren kasuan autoitzulpena, kolaborazio edo itzulpen alografoa zen eta gainerako hizkuntzetan itzulpen zuzenak edo zeharkakoak ote ziren. Horrekin itzulpen politikaren arloan kokatzen gara bete-betean, Touryk alde zuzeneko arau deitzen dituen horietan. Beraz, ikerketako hurrengo faseen helburu nagusietako bat itzulpen politikari lotuta dagoen identifikazio hori osatzea izan da.

Hemen aurkeztu dugun ikerketa-lan honetan liburu argitaratuak aztertu ditugu eta hainbat genero azterketatik kanpo geratu dira, poesia besteak beste. Liburuez gain beste zenbait euskarritan argitaratutako lanak ere azterketa honetatik kanpo geratu dira. Batzuetan lotuta doaz genero eta euskarriak, genero batzuk aldizkarietan edo webguneetan gehiago argitaratu baitira, poesia kasu. Etorkizunean, beraz, horiek kontuan izan beharko lirateke euskal literatura itzuliaren ikuspegi orokorragoa lortze aldera. Gure asmoa oro har katalogoa elikatzen jarraitzea da, euskal literatura itzuliaren isla ahalik eta egokiena izan dadin etorkizunean.

Aztertzeke geratu zaigun hari muturretako bat katalogatu ez dugunarekin lotuta egongo litzateke, ez dagoena katalogatu gabe geratu baita. Ikerlan honetan zer itzuli den eta nola aztertu dugu, baina ez dugu berariaz begiratu zer itzuli ez den: zer lan, zein autore, zein hizkuntzatar, etab. Horiek zergatik ez diren itzuli jakitea interesgarria litzateke. Ikusi beharko litzateke, autoreek beraiek erabaki duten ez itzultzea, aukerarik izan al duten horretarako, etab.

Paratestuek ematen duten informazioari dagokionez, eta gaztelania ez gainerako hizkuntzei lotuz, aipatzen den jatorrizkoaren arabera ere aldea nabari daiteke. Gure corpusean izenburua gaztelaniaz agertzen den kasuen %100ean erabili den iturria hori bera izan dela baieztatu dezakegu azterketak egin ostean. Euskaraz ageri den kasuetan, ordea, ez du zertan hala izan nahitaez. Gure corpusaren azterketa egin ostean, ikus dezakegu %46,66an soilik izan dela hala. Beraz, euskarazko izenburua aipatzeak ez du gehiegi argitzen erabili den itzulpen bidea.

Bernardo Atxagaren lanen corpus orokorrari dagokionez (lehenengo corpusa), jatorrizkotik itzulpena igarotzeko “denbora” faktorea erlazio logiko bihurtzen da itzulpen gehienetan. Gaztelaniazko testua agertzea lehenengo baldintza da ondorengo itzulpenak ere argitaratzeko. Zenbaitetan, zuzen-zuzena izango da erlazioa, bitarteko bertsio hori erabiliko baita itzulpenaren iturri modura. Beste zenbaitetan, testua iturri modura erabiliko ez bada ere, gaztelaniazko bertsioaren argitalpenak bideratuko du itzulpena beste hizkuntza batzuetara egitea.

Bestalde, itzulpenaren inguruan liburuen paratestuetan eskaintzen den informazioa ez da osatua izaten, eta euskal sistemaren konplexutasunaren isla ere izan daiteke. Euskarazko izenburuaren ordez gaztelaniazkoa agertzea,

itzulpenerako erabili den hizkuntza zein izan den ez zehaztea, zeharkakotasuna ezkutatu nahi izatea edo gaztelaniarako itzulpenen kasuan, itzultzaile izenik ez agertzea, adibidez. Fenomeno horiek, berriro ere, estatu mailako itzulpenetan dira ohikoen. Horrek guztiak sasi-jatorrizko testuak iradokitzen ditu: benetan itzulpen izanda jatorrizko moduan erakutsi nahi dutenak euren burua.

Paratestuen azterketa egin ondoren eta Touryren arauak gogoan hartuz, argi eta garbi geratzen da alde zuzeneko araua zeharkako itzulpenak egitea izan dela Bernardo Atxagaren (gaztelania ez beste hizkuntzetara eginiko) itzulpenetan. Beraz, zuzeneko itzulpen gutxi identifikatu ahal izan ditugu, eta errealitate horiek, gainera, hainbatetan zeharkako modura aurkeztuko badira ere, sarritan ezkutatu egingo da errealitate hori, edo ignoratu, edo itzulpena zuzena dela iradoki. Beraz, jatorrizkoaren posizioa hartzen duten sasi-jatorrizko edo bitarteko jatorrizko batean oinarritutako itzulpenak dira.

Paratestuen azterketaren bitartez ezin izan dugu itzulpen moten identifikazioa guztiz osatu. Kasuren batean edo bestean peritestueta eta epitestueta bilduriko informazioa ez baita bat edo datu hori ez dugu jasotzerik izan. Maila honetan jasotako datuek erakutsi digutenez, argitzeko geratu diren datu nagusiak estatu mailako itzulpenetan geratu dira. Argi iragartzen da maila honetan estatuko hizkuntzetara eginiko itzulpenek eta gainerakoek ezberdin jokatzen dutela.

Gure ikerketa aurrera eramateko Atxagaren testu aukeratuen eta euren hainbat itzulpenen corpus eleanitz digital lerrokatua eratu dugu. Gure lana corpusgintzak itzulpenaren alorrean eman dezakeenaren adibide gisa ulertzen dugu. Ezinbestekoa iruditzen zaigu bide hori ikerketa benetan zabal eta errepresentatiboak egiteko. Bestalde, corpusen ustiaketa ahalik eta aberatsena izan dadin, teknologia berrienak aplikatu behar dira. Eskura genuen tresneria egokiena aplikatzen saiatu gara, baina batzuetan mugak ere topatu ditugu: izen bereziak identifikatzeko tresna zehatzagoak, kolore izenak beste hitz motetatik bereizteko aukerak (lematizazio, desanbiguazio tresnen bitartez). Bestetik, bide berriak esperimentatzen saiatu gara aldi berean EHUko IXA taldeko ikertzaileen eskutik Giza++ moduko programak erabiliz. Etorkezinean elkarlanean jarraituko dugu EHUko TRALIMA ikerketa taldearen inguruan ikertzaileen eta informatikarien artean itzulpenaren ikerketarako berriaz sorturiko tresneria aplikatzen eta lantzen.

Azterketa makroestruturalari dagokionez, lehenengoz argitu ahal izan dugu zenbait kasutan zein izan den itzulpenerako erabili den iturri testua, batetik, liburuen izenburuen zein barne antolamenduaren laguntzaz, eta, bestetik, paragrafo kopuruari erreparatu. Testuen digitalizazioa eta lerrokatzea funtsezkoa izan da urrats hau emateko. Hau azterketa testualaren lehenengo urratsa izan den arren eta aurreko faseko zalantzazko kasu ugari ebazteko balio izan digun arren, zenbait kasutan maila mikrotestualera igaro beharko dugu emaitza argiagoak lortze aldera.

Azterketa mikrotestualari dagokionez, une honetan argitu ahal izan dira azkenean itzulpen motari buruz zeuden azken zalantzak. Gainera, frogatu dugu hizkuntza pare bakoitzean arau ezberdinak daudela indarrean. Alde batetik, gure hipotesi orokorra baieztatu egin da arlo batean: alde handia dago euskaratik gaztelaniarako itzulpenen eta gainerako hizkuntzetara eginiko itzulpenen artean (izan euskaratik zuzenean eginak ala zeharka gaztelaniatik). Gaztelaniazko itzulpenetan autorea beti izan da itzulpenaren parte neurri jakin batean eta horrek markatzen du aldea. Gaztelaniara eginiko itzulpenetan, idazle-itzultzaileek onargarritasunaren muturrera lerratu dira nabarmen, hasierako arauari dagokionez. Itzulpen sortzailearen presentzia handia dugu horren erakusgarri. Atxagarekin ikusitakoa gainerako euskal idazleekin zenbateraino gertatzen den ikusi beharko litzateke, arau hori orokorra den ala ez jakiteko, euskal literaturan autore gisa duen estatusak jokabide horretan zerikusirik duen ikusteko.

Beste hizkuntzetarako itzulpenei dagokienez, argi geratu da itzultzaileek gertutik jarraitu diotela erabili duten iturri-testuari, izan euskarazkoa edo gaztelaniazkoa. Egile-itzultzailearekin alderatuz gero ez dira hainbeste aldendu erabiliriko testutik. Beraz, egokitasunaren muturrera lerratu dira gehienetan. Horrek guztiak galdera oso interesgarriak sortzen ditu testu bat eraldatzeko eskumenari buruz. “Implied are intriguing questions such as who is ‘allowed’ by a culture to introduce changes and under what circumstances such changes may be expected to occur/or be accepted” (Touy, 1995: 64).

Datuek argi erakutsi dute, bestalde, hasiera batean aurreikusi ez genuen itzulpen mota bat, jatorrizko konpilatua darabilten itzulpenen kasua, berezia dela gainerakoekin alderatuz. Itzultzaileek bi testu dituzte eskura: jatorrizko euskarazkoa eta autorearen eskuetatik igaro den gaztelaniazko bertsioa. Batzuetan, jatorrizko konpilatua erabili dela oso nabarmena da, beste batzuetan ez hainbeste. Aipagarria da, noski, hori katalanaren kasuan eta, beraz, estatuko mugen barne gertatzea. Interesgarria izango litzateke bi testuen erabilpen maila zehaztea eta horren atzean egon daitezkeen arrazoiak aztertzea, itzultzaileen jarrera eta jokamoldea zein den ikusiz. Euskarazko zein gaztelaniazko itzultzeko gai diren itzultzaileen kasuan, zein testu itzuli behar den erabakia nork hartzen duen jakitea ere interesgarria izango litzateke, nork duen horretarako erabakimena. Tesian zehar kasuren bat edo beste aipatu den arren, sakonki aztertu beharreko kontua deritzogu.

Bestalde, hasierako hipotesi orokorra ezin izan da baieztatu gaztelaniara eginiko itzulpenen kasuetan. Izan ere, ez da erraza autoitzulpena, kolaborazioa eta beste itzultzaile baten lanaren arteko alde nabarmenik topatzea. Nabarra da horien arteko muga, autoitzulpen arrunt batetik itzulpen alografo arruntera doan continuum batean kokatzen da itzulpen horietako bakoitza, askotan zehazten hain erraza ez den kokalekuan. Beraz, itzulpen prozesuan zerikusia izan duten beste hainbat faktore izango dira sarritan itzulpenaren izaera definituko dutenak.



Garrantzia izango du, esate baterako, jatorrizkoa eta itzulpenaren artean igaro den denborak. Tesi honetan ikusi dugunaren arabera, Baren gaztelaniaratzean ageri diren moldaketa gehienak distantzia horren ondorio izan dira. Joan-etorriko bidaia ere izan daiteke zenbaitetan itzulpena, hots, jatorrizkotik itzulpenera eta itzulpenetik jatorrizkora egingo du autoreak hainbatetan: SGen argitalpen eta itzulpen prozesu luze zein konplexuaren ondorioz, euskarazkoaren eta gaztelaniazkoaren arteko aldeak hutsaren hurrengo izango dira, jatorrizkotasuna bera ezbaian jarriz. Kanpo faktoreek ere bere eragina izango dute. OBB Espainiako Sari Nazionalerako itzuli beharrak eta ondoren argitaratzeko moldatu beharrak egokitzapen lan handia eginarazi zion autoreari publiko berriarentzat sortu beharreko testuan. Bestalde, literatur sistemaren estratifikazioak ere eraginik izan dezake; haur eta gazteentzako argitalpenetan alde txikiagoak topatu ditugu zenbaitetan (XL, XB eta BLUn, esaterako), helduentzako liburuetan baino (ZH edo SS, kasu). Gai horiek guztiek arreta zehatzagoa merezi dute.

